taldean oinarritzen dugunean, adibidez: “ez dut nahi, ez dut behar” (% 69,8); “ez dut ezagutza egokirik” (% 26,1).

Horrek informazio baliagarria eskaintzen digu, izan ere, **Gomendioen** kapitulura eramaten dugu sarbiderako eten digitala neurri handiago batean pairatzen duten talde horietarako berariaz diseinatutako ekintza berritzaileak abian jarztearen proposamena, ez daitezen soilik bideratu IKT tresna horien sarbide ekonomikoa bermatzera, baizik eta IKTen erabilgarritasuna hedatzera, euren errealitateekin bat egiten duten intereseko zentrozen bidez teknologiak talde horiei hurbiltzera eta ikerketan parte hartu duten adituen taldeek eskaintako sarbide-eten digitala eratzten duten beste faktore batzuk jorratzera ere, hala nola: gizarte-etenak, aplikazio eta zerbitzu askoren irisgarritasun eta erabilgarritasun arazoak, esperientzia frustragarriak diseinu egokirik ez duten etxeko gailu komunekin, Internet bezalako hainbat zerbitzuren kontsumo gastuak edo erakargarriak zein erabilgarriak diren eduki eta zerbitzu interesgarriak ez egotea.

### 3.5. Erabilera-eten digitala

Etxebizitza batean **IKT** ekipamendua egoteak edo eskura izateak, adibidez, ez du bermatzen kide guztiak erabiltzen dutenik. Eta hala izango balitz, azterlanean lortutako datuek islatzen digute adina, ikasketa maila edo lan egoera bezalako faktoreen arabera motibazio eta erabilera maiztasun ezberdinak dituztela.

**Eustaten** 2011ko inkestaren (ESIF) datuen arabera, 10 eta 74 urte bitarteko Euskadiko herritarren % 67,8k ordenagailua erabiltzen dute, % 65,3k Internet eta % 97,8k telefono mugikorra. Txosten horretan burututako bilakaera azterketek islatzen dute zifra horiek hazkunde nabarmena jaso dutela azken urteetan, baina gertakari hori ez da nahikoa erabilera benetako eten digitala aztertzeko.

Zer pertsona daude ehuneko horien atzean? Zer nolako motibazioak dituzte IKTak erabiltzeko? Zer nolako maiztasunarekin erabiltzen dituzte? Loturarik al dago IKTen erabilera eta ongizateari edo bizi kalitateari loturiko eremuen artean, hala nola, enplegua, osasuna, prestakuntza...?


Ikerlanak adierazi izan du adina, sexua, ikasketa maila, diru-sarrerara maila edo lan egoera bezalako faktoreak, besteak beste, herritarren artean IKTen erabilera ezberdintasunen atzean dauden elementuak direla. Horrela bada, 65 eta 74 urte bitarteko euskal herritarren % 12,9k bakarrik adierazi du Internet erabiltzen duela. Sexuari dagokionez, oraindik ere ezberdintasunak daude erabilera-eten ehunekoaren artean eta ezberdintasun horiek areagotzen dira adin-tarteetan goraka goazen heinean gizonen alde. Ildo horretan bertan, lehen hezkuntzako edo gutxiagoko ikasketak dituzten pertsonen % 23,4k eta langabezia dauden pertsonen % 35,6k besterik ez dute Internet erabiltzen.

Zifra horiek gogoeta bat egitera behartzen gaituzte. Nabarmena da IKTak oso lagungarriak izan zitezkeela aipatu ditugun talde horien bizi kalitatea eta gizarteratzea hobetzeko. Hala eta guztiz ere, lortutako datuek adierazi digutenez talde horietarako dira IKTen erabilera ezberdintasun gehien erregistratu dituztenak.

Horren inguruan sakontzeko, euren arazoien berri izan nahi izan dugu, sarerako konexioak gobernatzeko dituzten “zergatien” berri hain zuzen.

(5. irudia)

### 10 eta 74 urte bitarteko Euskadiko herritarrek Internet erabiltzeko dituzten arazoak (%), 2011



Guk eginda Eustaten datuei jarraiki

Azterketaren ondorioak itxaron genitzakeenak dira: informazio bilaketa, posta elektronikoa, komunikabideen kontsulta, aisialdia eta programa edo komunikabideen erabilera dira motibazioen *rankingaren* buruan daudenak. Taularen postu baxuagoetara joan beharra dago IKTen erabilera osasunari buruzko informazio kontsultak egiteko, lana bilatzeko, prestakuntza ekintzetan sartzeko edo prestakuntzari buruzko informazioa lortzeko erabiltzen dela ikusi ahal izateko.

Egoera hori, gainera, are gehiago areagotzen da motibazio horiek aurretik aipatu ditugun faktoreekin gurutzatzen direnean (adina, ikasketa maila, lan egoera...). Horren adierazle diren adibide batzuk: lehen hezkuntzako edo gutxiagoko ikasketak dituzten pertsonen % 5,7k bakarrik aitortu du Internet enplegua bilatzeko erabiltzen duela; langabezia dauden pertsonen kasuan, lana bilatzea IKTak erabiltzeko motibazioen *rankingaren* zazpigarren postuan dago.

Gizarte ongizatearekin eta bizi kalitatearekin loturiko alderdiei dagokienez “Internetetik espero dudana” eta “Internetek niregatik egin dezakeena”ren arteko desadostasun horren bidez honako hipotesia sor dezakegu: IKTen erabilera-eten ezberdintasun horien atzean, desadostasun argiak daude hainbat **talderen** (pertsona helduak, prestakuntza profil baxuak dituzten langabeak, landa guneetan bizi diren pertsonak...) eta sareraren benetako ahalmenaren (zerbitzuak, edukiak...) artean.

Hori dela-eta, [Gomendioen](#) kapituluan gaineratu behar izan dugu erabilera-eten digitalean dauden taldeei zuzendutako prestakuntza ekintzak, lantegi adierazleak, etab. areagotzearen premia. Horien berriazko helburua euren interesguneekin eta bizi kalitatea eta ongizatea hobetzeko aukerekin lotzen diren alderdietan [IKTek](#) dituzten aukerak sustatzea da (hala nola, pertsona helduen [zahartze positiboa](#); langabeen dauden herritarrei zuzendutako lan eta prestakuntza bilaketa; IKTen erabileraren areagotzea lanerako prestakuntzaren prestakuntza-diseinuetan, etab.).

Osagarri gisa, herritarren kapa ia gehienen artean ospea eta onspena lortu duten gailuen erabilera ere gomendatzen da, hala nola, telefono mugikorra, halako ekintzen ahalmena eta euren eragin maila handitze aldera.

### 3.6. Eskuratze-eten digitala

Azterketarekin [ahalduntze digitalaren ereduaren](#) ikuspegitik jarraituz, hirugarren heldutasun estadioa da [IKTak eskuratzearena](#). Hau da, une horretan herritarrak ohartzen dira [IKTek](#) onurak eta hobekuntzak sortzen dizkiela euren bizitzetan, horien erabilera intentsibo eta aurreratuagoa egitera bultzatuz. Fase horretan ez dugu oinarritzko IKT tresnen noiz behinkako erabileraz hitz egiten, une honetan pertsonak ikertu ere egiten dute IKTen erabilera berritzaileak, euren bizitzan ohiko eta eguneroko alderdietan aplikatuta (lana, gizarte harremanak, osasuna...), hobekuntza eragina sortzen ote duten.

Beraz, eskuratze-eten digitalaren azterketa jorratzeko, IKTen oinarritzko erabilerarekin konformatzen diren edo hura eskuratzean [heltze digitalaren](#) prozesu partikularrean aurrerago joan nahi ez duten pertsona horien atzean dauden arrazoiak aztertu nahi izan ditugu.

Horretarako, azterketa IKTen eskuratzean gaketatzen jo dugun alderdien inguruan ardatzu dugu:

■ **IKTen erabilgarritasuna hautematea.** Zentzu horretan, ikerketaren prozesuan zehar inkestatu genituen eta Internet erabiltzen duten herritarren %13,5ak adierazi du Interneten eta gainontzeko IKTen erabilerak ez duela inolako hobekuntzarik edo abantailarik sortu euren bizitzetan. Kezkagarria da %20ra arte igotzen dela 55 urte baino gehiagoko pertsonen ehunekoa. Bestalde, Internet erabiltzen duten etorkinen %65,5ak adierazi du IKTek bereziki hobetu dituztela euren gizarte harremanak, hala ere, ez dute uste lana bilatzen laguntzen dietenik ezta Euskadin lan baldintzetan hobekuntza eragin dutenik. Gogoeta horrekin bat egiten dute lehen hezkuntzako edo gutxiagoko ikasketak dituzten eta Internet erabiltzen duten Euskadiko herritarrek, horien artean %1,3ak bakarrik uste du IKTek euren lan egoera hobetu duela. Zer ezkutatzen da orduan zifra horien atzean? Azterketak azaltzen digu lotura argia dagoela IKTen inguruko ezagutza mailaren eta horien erabilera-maiztasunaren eta onurak antzematearen artean (IKT ezagutza oinarritzkoagoak eta erabilera maiztasun baxuagoak gure bizi kalitatean duten eragina edo erabilgarritasunaren hautemate baxuagoa dakarte). Baieztapen hori agerian geratzen da, adibidez, IKTen ezagutza-profil altua duten eta tresna horien erabilera intentsiboa egiten duten pertsonak IKTak erabilera aurreratuatarako (hala nola, administrazioekiko izapideak,

bankuko kudeaketak, lan-bilaketa edo erosketak Internet bidez egitea) erabil daitezkeenaren aintzatespen handiagoa dutela ikustean. Era berean, lan egoera edo ikasketa maila bezalako beste faktore batzuk berriro ere funtsezkoak dira [IKTek](#) euren bizitzetan eskainiko dutenaren pertzepzioan ezberdintasunak nabarmentzerakoan (ikasketa maila baxuagoak eta kontrako lan egoerek erabilera aurreratuaren erabilgarritasunaren hautemate baxuagoekin bat egiten dute).

■ **Ez erabiltzeak dakarren arriskua hautematea.** [IKTak eskuratzean](#) eten digitalaren sortzaile gisa har daitezkeen beste irizpideetako bat IKTak gure bizitzetan gaineratzen ez baditugu gure bizitzan alor ezberdinetan (gizarte harremanak, lana, ikasketak, etab.) aukerak galdu edo gizarte-eten bat pairatzeko aukerak handiagotu genitzakeenaren jakitun izatea da. Euskadiko herritarrei galdetzen diegunean zeintzuk diren IKTak ez erabiltzearen arriskuak *ranking*aren hiru lehen postuak honako erantzunak osatzen dituzte: informazio falta, zaharkitua eta ez eguneratuak geratzea eta gizarte isolamendua. Beste era batera esanda: behar bezalako informaziorik ez edukitzea, eguneratuta ez egotea eta gizarte harreman onik ez izatea. %11,1ak adierazi du ez duela uste horrek inolako desabantaila edo arriskurik dakarrenik. Ehuneko horri aurpegia jartzen saiatzean egiaztatu dugu (txostenean islatzen den moduan) [eten digitalak](#) pairatzeko zaurkortasun handiagoa duten [taldeak](#) direla, hain zuzen ere, IKTak ez erabiltzea inolako arriskurekin lotzen ez dituztenak.

Zertxobait gehiago sakontzen dugunean eta Internet erabiltzen duten herritarrei galdetzen diegunean IKTak ez erabiltzea gizarte-etenaren faktore larriak izan zitekeela uste ote duten, herritarren %56,5ak besterik ez du hori uste.

■ **Nik behar ditudan gaitasun digitalak zeintzuk diren ezagutzea, gaitasun horien eskuratze maila eta eskuratzeke ditudan gaitasunak eta nola eta non eskuratzea jakitea.** Datu nabarmena da, zalantzarik gabe, inkestatutako herritarren %56,8 IKTen oinarritzko erabiltzailetzat jotzen dela. Faktore demografiko eta sozioekonomikoen arabera, neurri handiago batean oinarritzko erabiltzaile gisa identifikatzen diren profilak erretiratutako eta pertsona helduak, emakumeak, lehen hezkuntzako edo gutxiagoko pertsonak, etorkinak eta aniztasun funtzional motaren bat duten pertsonak dira. [Ahalduntze digitalaren ereduaren](#) gakoetako bat pertsonak heldutasun estadio ezberdinen artean mugitzeko duten aukera da. Horretarako, ikasi behar da, probatu, praktikatu, batzuetan [ikasketa-etenekin](#) edo behar ditudan gaitasun digitalak zeintzuk diren identifikatzeko edo horiek eskuratzeke nora jo behar duan jakiteko zailtasunekin zerikusi handia duen teknologiararen erabileran heldutasun bide pertsonal moduko batekin jarraitu.

Jendeak ba al daki ahalduntze digital baten bidean sartuta dagoela eta aurrera jarraitzeko gaitasuna edo beharra duela? Inkestatutako herritarren %15,4k adierazi du ez duela inolako beharrik antzeman IKTen erabileran ikasten edo sakontzen jarraitzeko, une honetan euren esku dagoenarekin konformatzen dira. Ehuneko horrek ikasten jarraitzeko beharra edo nahia onartzen duten Interneteko erabiltzaile diren euskal herritarren multzo handi bat ere aipatzen du. Eta nola egiten dute?


Herritarren %94,5ak adierazi du IKTen gaineko ikasketa gehien bat autodidakta izan dela (edo metodologia hori al-dian behingo prestakuntza ekintzekin bateratuta). Egoera hori adin-tarte gazteen artean nagusitzen da bereziki. Azterketaren fokua IKT prestakuntzara bideratutako prestakuntza ekintza publiko edo pribatuetan jartzen dugunean, **persona helduak** eta **aniztasun funtzionala** duten pertsonak dira modalitate hori erabiltzen dutenak gehien bat.

Eta ikasketa prozesu hori etengabeko eguneratzea eskatzen duen *continuum* gisa ulertzen al da? Zifrek oso argi uzten dute, behintzat, eguneratze hori ez dela ikastaroak egitera lotzen. IKTei buruzko ikastaroak egin dituzten herritarren %53,3k duela bi urte baino gehiago egin dute eta horietatik %33,7k azken ikastaroa duela bost urte baino gehiago egin dute.

Ikertu nahi izan dugu loturarik antzematen ote den **IKT gaitasunen** eta enplegua bezalako bizi-esparruetan duten erabilgarritasunaren artean. Horrela bada, gaur egun lan-merkatuak eskatzen dituen **gaitasun digitalak** dituztela uste ote duten galdetzerakoan, %15ak ezetz aitortzen du eta %25 zalantzan dago edo zuzenean ez dakite. Eta badakite nora jo beharko luketen gaitasun horiek eskuratzeko? Inkestatutako pertsonen %25,7k aitortu du ez dakiela nora jo behar duen lan munduari aplikatutako gaitasun digital horiek eskuratu behar izanez gero.

(6. irudia)

**Internet erabiltzen duten 16 urte eta gehiagoko pertsonak** “Jakingo al zenuke non eskura ditzakezun lan-merkatuak gaur egun eskatzen dituen gaitasun digitalei buruzko ezagutzak?” **galderari emandako erantzunaren arabera (%)**, 2012



Guk egina Arartekoaren IKTak eskuratzeari eta e-parte hartzeari buruzko inkestaren datuak oinarri izanda, 2012.

Alderdi horiei erantzuteko, **Gomendioak** kapituluaren hainbat neurri proposatu ditugu. Hona hemen horietariko batzuk: IKT prestakuntza prozesuetan berrikuntza gehiago **ikasketa-etenaren** antidoto gisa; IKTen erabileren dibertsifikazio handiagoa gaztetatik hasita, IKTen erabilera aurreratuen ikasketaren sormena, zaletasun zientifikoa edo elkartasuna bezalako

eremuekin lotzen duten jardueren bidez; gaitasunen katalogo global baten definizioaren premiazko beharra (adostua eta hezkuntza, lana, gizarte harremanak... bezalako bizitzaren hainbat eremu jasotzen dituen), pertsonen beharrezkoak diren gaitasunak identifikatu dituzten eta gaitasun digitalen eskuratzeko maila kontrasta dezaten; edo Euskadin gaitasun digitalen eskuratzeko baliabide-mapa bat sortzeko ahalegina, herritarrek errazago identifikatu dezaten nora jo behar duten, zer eskaintzen duen baliabide horietako bakoitzak eta zein neurritan egokitzen diren horiek euren beharretara (hizkuntza etorkinen kasuan, ekipamenduen irisgarritasuna eta **aniztasun funtzionala duten pertsonentzako** aplikazioak, etab.).

### 3.7. Partaidetza-eten digitala

**Ahalduntze digitalaren** laugarren estadioan, **e-parte hartzearenean**, pertsonak IKTen eskuratzeko maila egokia dauka eta **gizartean** eta eremu **publikoan** parte hartzeko helburuarekin erabiltzeko gai da, erabakiak hartzerakoan eta bere ingurua eraldatzean protagonismo gehiago izate aldera. Hainbat ekintzetarako eskatutako IKTen erabilera ez ezagutzea edo zenbait kanaletan parte hartu ezin izatea (irisgarritasun arazoak, adibidez) eten digital handia sor dezaketen arazoietako batzuk besterik ez dira, hainbat talderi aukera berdintasuna gabetuz IKTen bidez parte hartzeko eskubidea erabiltzerakoan.

Gaur egun, gogoetara eraman behar gaituzten hainbat egoera daude. Alde batetik, hitza goratzeko eta kudeaketan gardentasun nabarmenagoa eta erabakiak hartzearen parte hartze handiagoa eskatzeko behar publikoa berpiztu duen eta haziz doan gizarte ezinegona. Bestetik, gobernuen irakiera, gardentasuna eta **herritarren parte hartzea** bultzatzen duten mekanismo eta baliabide berriak abian jartzea aldarrikatzen duen nazioarte mailako mugimendua.

Bi bide horiek lotzea ez da erraza. Alde batetik, testuinguru bateko arrakasta erduek ez dutelako zertan funtzionatu beste testuinguru batean eta, bestetik, herritarren **ahalduntzea** bultzatzen duen partaidetza-kultura beharrezkoa delako.

Partaidetza-eten digitalaren azterketa jorratzerakoan, oztopoak identifikatzen saiatzeko eta, beraz, hobekuntza gomendioak proposatu ahal izateko ezinbestekotzat jotzen ditugun hainbat kontu identifikatu ditugu. Hain zuzen ere:

- Parte hartzeko nahia (benetan parte hartu nahi dugu?).
- Parte hartzeko motibazioa (zertarako parte hartu nahi dugu?).
- Gure parte hartzearen erabilgarritasuna (gure parte hartzearen eragina antzematen dugu? Zerbaitetarako balio al du?).
- Parte hartzeko aukera (benetan al daude IKTen bidezko parte hartze hori sustatzeko egokiak diren bitarteko eta baliabideak?).

Horren inguruko lehen zifrak ez dira bereziki adobe-emaileak. Inkestatutako herritarren %37,4k adierazi du gehiago parte hartu nahiko lukeela. Horrek esan nahi du euskal herritarren %60,6k ez dutela gehiago parte hartzeko interesik adierazi. Parte hartze horretan, gehiago parte hartu nahiko luketen pertsonen kasuan, %39,9k Internet bidez izatea nahiagoko

## (I). TXOSTENAREN AURKEZPENA


luke eta %28,6k, berriz, aurrez aurreko bideen aldeko apustua egiten du.

Euskadin bizi diren biztanle etorkinen artean, gizartean eta eremu publikoan duten parte hartzea handitu nahiko lukeen pertsonen ehunekoak %75,1eraino egiten du gora (35 portzentaje-puntuko aldea etorkinak ez diren herritarrekiko). Parte hartze hori, etorkinak ez diren pertsonekin alderatuz, gizarte onurara bideratuago dago, onura pertsonalera baino.

Azterketaren ildo honekin jarraituz, gakoetako bat zifra esanguratsu batean aurkitu dugu: etorkinak dira, neurri handienez, euren parte hartzeak azkenean erabilgarritasun gutxi duela uste dutenak.

(7. irudia)

### Internet erabiltzen duten 16 urte eta gehiagoko pertsonak euren parte hartzearen erabilgarritasunaren inguruko iritziaren arabera eta herritar etorkinak (%), 2012



Guk egin auztekoaren IKTak eskuratzeari eta e-partze hartzeari buruzko inkestaren datuak oinarri izanda, 2012.

Baieztape horrek, printzipioz arestian eskainitako gainerako datuekin guztiz kontraesankorra litzatekeenak, argi uzten du interesaren, parte hartze nahiaren eta erabilgarritasunari buruzko gure iritziaren artean talika gertatzen dela. Behar bada parte hartze prozesuetan dagoen gardentasun faltaren gatik? Gure parte hartzeak sortzen duen eraginari buruzko informazio falta? Gaur egun dauden kanalen muga?

Baieztape horiek ederto bideratu zitezkeen parte hartzeri, beti egon den horretara, aurrean "e"rik ez daramanera. Zer eginkizun dute orduan IKTek [herritarren parte hartzean](#)?

Ikerketak argi uzten du IKTak gehiago erabiltzea (adibidez, Internet gehiago erabiltzea) zuzenean lotuta dagoela gehiago

parte hartu nahi izanarekin, parte hartze horren erabilgarritasunaren pertzepzio handiagoarekin eta parte hartzerakoan arazo nagusi gisa gizarte onura lortzea eta erabakietan parte hartzea izatearekin. Beraz, badirudi guztiz desegokia izango zela aukera horri bizkarra ematea. Azter dezagun, beraz, ezinbestekoa den parte hartzearen beste aldeetako bat: parte hartze bideen eskuragarritasuna. ¿Zein egoeratan dauden euskal administrazioek eskainitako bitarteko eta bideak<sup>1</sup> [bide digitalen](#) bidez herritarrek parte har dezaten sustatzeko?

Orokorrean ohikoenak diren akats batzuk azpimarra ditzakegu, txosten honetan jarraitutako ikuspuntuaren arabera [bide](#) horien bitartez herritarrek parte hartze oztoko gisa ikusten ditugunak:

- Aztertutako eta parte hartze prozesuaren mende dagoen ekintza, politika, planteamendua, eta abarri buruzko hasierako informazio gutxi.
- Parte hartze prozesu guztiari buruzko informazio urria, bilakaeran igaroko dituen fase ezberdinak behar bezala adierazi eta jarraituko duen prozesua (barnekoa zein kanpoko) zehaztu gabe (fase bakoitzaren arduradunak, hala nola).
- Parte hartze prozesuan herritarrengandik espero den zereginean mugarritze zehatz eza.
- Prozesuari buruzko informazio eskasa (gardentasuna parte hartze prozesuak irauten duen denboran zehar). Orokorrean, egin diren ekarpenei, ekarpen horien parte hartze prozesua hasi duenaren balorazioei, jorrazeko moduari, erabakiak hartze prozesuan gaineratzen direnei, non eta nola egiten dutenei... buruzko informazio falta antzematen da.
- Ez dago ebaluaziorik parte hartzen duten herritarrek parte hartze prozesua ebaluatu dezaten eta hurrengo prozesuetan hobetu edo gaineratu beharreko alderdiak modu irekian adieraz ditzaten.
- Parte hartze prozesuaren eta deliberatutako ekintza, lege, proiektu, etab. horren ondorengo "bizitzaren" arteko haustura. Informazio hori beharrezkoa da jendeak nola bilakatzen den balora dezan eta, beharrezkoa balitz, parte hartze prozesu berria proposa ditzan beharrezkoa izanez gero birbideratu ahal izateko.

Horrela bada, gomendioak idazterakoan, datuek bultzatzen gaituzte [e-partze hartzea](#) sustatzeko eta zabaltze ekintza berriak abian jarriko lituzkeen helmuga baterantz zuzentzera; une honetan bideratzen ari diren herritarren parte hartzeari buruzko praktika onen ikusgarritasunera edo e-partze hartzerako aholkularien irudia sortzera. Azken horiek parte hartze tokiko esparrutik IKTak erabiliz parte hartzea dinamizatzeari arduratuko lirateke, nahia eta motibazio partikularra edo parte hartzearen erabilgarritasuna bezalako alderdietatik sortutako ustezko oztokoak lantzeko.

Era berean, IKTen bidez herritar guztiek parte hartze aukerak areagotzen eta bermatzen dituzten neurrien burutzapena azpimarratzeko beharra ondorioztatzen da, eskainitako kanaletan irisgarritasuna eta erabilgarritasuna bermatzeko

<sup>1</sup> Ikerketa prozesuan zehar parte hartzeri gonbidatutako herri administrazioen azterketari buruzko datuak, txosten berezi honen [atal metodologikoan](#) behar bezala zehaztutakoa.

ekintzen bidez; gizartean mugikorra barneratu izana erabili behar da **m-government** delakoaren zerbitzu berriak garatzeko; eta estrategia eta arau esparrua garatu behar da herritarrek parte hartzeko duten eskubidea bermatzeko (bai Eusko Jauriaritzatik, bai aldundi eta udaletatik) plan zuzentzaileak, estrategiak eta araudiak idatziz (legeak, dekretuak, erregelamenduak), bertan herritarren parte hartzearen helburuak, eskainiko diren mekanismoak, horien kudeaketa, IKTen zeregina edo bere jasagarritasunerako baliabideen bermeak argi eta garbi arautu daitezten.

### 3.8. Ararteko erakundeak eten digitalei aurre egiteko euskal herri-administrazioei eta erakundeei helarazitako gomendioen xehetasunak biltzen dituen koadroa

Ondorengo koadroak txosten berezi honetan egin diren hainbat gomendioen eta sarbide-, erabilera-, eskuratzeko eta parte hartze-eten digitalen arteko gurutzatzea eskaintzen du. Horrela, identifikatutako errealitatea eta hobetzeko proposamenak errazago ulertu ahalko dira.

Gomendioa	Sarbide-eten digitala	Erabilera-eten digitala	Eskuratzeko-eten digitala	Parte hartze-eten digitala
Tokiko agenda digitalen sorrera sustatzea	X	X	X	
Internetarako sarbidea funtsezko eskubide gisa bultzatzea	X			
Ekintza berritzaile eta elkarlaneko ekintzak sustatzea eten digitalak murrizteko		X	X	
Jarrerak eraldatzea, zabaltzeko eta sentsibilizatzeko ekintzak abian jarriz	X	X	X	
IKT eta ikaskuntza bizitzan zehar		X	X	
Gaitasun digitalen gaineko marko estrategikoa definitzea		X	X	
Eten digitalak murrizteari lotutako ekimen publiko, pribatu eta hirugarren sektoreko ekimenen baliabide eta tresna guztien ikuspena hobetzea	X	X	X	
Gaitasun digitalak eskuratzeko prozesuetan berrikuntzak sartzea		X	X	
Gizarteratzeari eta gizarte sustapenari lotutako gaitasun digitalen gaineko prestakuntza ekintzak areagotzea	X	X	X	
Arriskuan dauden edo eten digitalak dituzten kolektiboek e-administrazioa gerturatzea		X	X	
E-inklusioari lotutako profil profesional berriak sortzea	X	X	X	
IKT eta adinekoen arteko gerturatzea bultzatzea	X	X	X	
Aniztasun funtzionala pairatzen duten eta mendekotasun egoeran dauden pertsonen autonomia pertsonala sustatzea IKTen bidez	X	X	X	
Prestakuntza okupazionalako programetan IKT gaikuntza areagotzea			X	
Internetaren erabilera segurua bultzatzea ikuspegi global eta integratzaile batetik abiatuta	X	X	X	
IKTen arloan, elkartasunaren, konpromisoaren, sormenaren eta berdintasunaren balioei lotutako prestakuntza lantzea biztanle adingabe eta gazteen artean			X	

Gomendioa	Sarbide-eten digitala	Erabilera-eten digitala	Eskuratzeko-eten digitala	Parte hartze-eten digitala
Arriskuan dauden edo gizarte bazterkeria pairatzen duten gazte eta adingabeei arreta berezia eskaintzea		X	X	
IKTen gaineko jarrerak eta erabilera hipzide dituzten azterlanak eta ikerketak areagotzea (oztopoak, inhibitzaileak, motibatzaileak...)	X	X	X	X
Informazioaren gizarteari buruzko estatistika ofizialetan kolektiboak barne hartzea eta adierazle berriak sortzea eta gaineratzea	X	X	X	X
Gaitasunak eta zerbitzu bikoiztuak berriro antolatzeko protokoloa	X	X	X	X
Berdintasunaren bermea funtzio publikoan	X	X	X	
Eusko Jauriaritzako herri-administrazioen atarierisgarritasuna eta erabilgarritasunaren bermea	X	X	X	X
Herritarrek IKTen bitartez Euskadiko gai publikoetan parte hartzeko daukaten eskubidea aitortzen eta arautzen duen araua (lege maila duena) eratzeko proposamena				X
Euskadin, IKTen bidez, herritarren parte hartzeari buruzko agiri estrategikoa eratzzea				X
Informazioaren arduraren partekatua eredurantz iragaitza sustatzea, informazio neutral, objektibo eta kalitatekoa bermatuz				X
Euskal Autonomia Erkidegoko udalek herritarren parte hartzea, IKTen bidez, erregulatzen duten araudiak onar dezaten sustatzea				X
Kultura parte hartzailea sustatzea herritarren artean, Eusko Jauriaritzako politikak eratzekoan parte hartuz				X
Adingabeen parte hartzearen irekiera bultzatzea				X
Biztanleen artean herritarren parte hartzearen motibazioak eta onurak ("zertarako") zabaltzea			X	X
Administrazio orokorraren, tokiko administrazioaren eta foru aldundietako funtzionarioak prestatzea eta sentsibilizatzeko herritarren parte hartzearen arloan (IKTen bitartez)				X
Herritarren ekimenak aitortzea eta laguntza eskaintzea				X
Herritarren ekimenak aitortzea eta laguntza eskaintzea			X	X
Identitatea kudeatzeko teknologiak garatzea				X
Parte hartzeko teknologia irekiak				X
E-parte hartzerako egokitutako kanal digitalen irisgarritasuna eta erabilgarritasuna ziurtatzea			X	X
Open data herritarrei hurbiltzea (kontsumoa dinamizatzea herritarren parte hartzea handitzeko)				X
Mobile government (mGov) zerbitzu publikoetan eraginkortasun eta inklusio handiagora lortzeko		X	X	X
Herritarrek parte hartu dezaten tresna berriak diseinatzeko jarraitu beharreko irizpideak				X
Euskadin, gizartean eta eremu publikoan e-parte hartzeari buruzko azterlanak eta ikerketak areagotzea				X

## Txosten bereziaren metodologia

### Txosten bereziaren bulego teknikoak

CTIC Zentro Teknologikoa fundazioa izan da **kontratuaren** erakunde esleipenduna, hau da, txosten berezia egin duena eta Ararteko erakundearen ikerketa, modernizazio eta gizarte harremanen zuzendaritzaren koordinazioarekin eta sustapenarekin proiektuaren bulego teknikoak osatu du. Hala, oinarritzko txostena egiteaz gain, kapitulu honetan zehaztuko diren informazioa biltzeko eta aztertzeko hainbat faseen gauzatzearen ardura gain hartu du.

CTIC Informazioaren eta Komunikazioaren Zentro Teknologikoa irabazi asmorik gabeko fundazio pribatu bat da, interes orokorreko eta gizarte intereseko helburuak dituena eta behin betiko izaera duena. 2003ko abenduaren 5ean eratu zen, abenduaren 26ko 50/2002 Legearekin bat eginez. Berezko izaera juridikoa dauka, haren helburuak erdiestera zuzendutako ondare autonomoa eta erabateko ahalmen juridikoa eta gauzatzeko ahalmena.

Bere helburua eta xedea enpresa lehiakortasuna eta herritarren ahalduntzea hobetzea da, ikerketaren eta berrikuntza teknologikoaren bitartez, betiere, lurraldearekiko konpromisoa erakutsiz, garapen teknologikoaren, berrikuntzaren eta enpresentzat zein herritarrentzat ezagutzaren gizarte inklusioa eraikitzen laguntzeko interesaren bitartez.

Haren balio korporatiboen artean, hauexek daude:

- Gizartearekiko konpromisoa.
- Lurraldearekiko konpromisoa.
- Eten digitalen aurka borrokatzeko konpromisoa.
- Berrikuntza teknologikoaren ahalmena, gizarte eremuari aplikatuta.
- Informazioaren gizartearen garapen iraunkorra, ekintza jakin batzuen gauzatzetik harago.
- Gardentasuna kudeaketan.

### Metodologia

Euskadin gizartean eta eremu publikoan informazioaren eta komunikazioaren teknologien bitartez e-inklusioa eta herritarren parte hartzeari buruzko txosten berezia egiteko honako ikuspegi hau hartu dugu abiapuntutzat: onartu dugu ‘**sarearen barruan egotea**’<sup>2</sup> naturala dela eta saretik deskonektatuta egotea, aldiz, ez da batere gomendagarritzat jotzen; izan ere, “saretik deskonektatuta” egote hori gure ahalduntze digitalaren fasearen araberakoa izango da. Beraz, gizartearen **gaitasun digitalei, trebetasunei, ahalduntze digitalari, eskuratzeari, eta gizarte ahalduntzeari** buruz ari gara, gizartean eta eremu publikoan parte hartzen duen eta erabakitze ahalmena duen eragilea baita.

Hizpide dugun sare horri dagokionez, deskonektatuta egoteak esan nahi du zenbait eten digitalen inguruan lan egiteko

beharra dagoela. **Francis Pisanik**<sup>3</sup> hiru eten digital handi aipatu ditu. Berak dio gizarte gisa, horiei aurre egin behar diegula (**sarbide-etena, erabilera-etena eta eskuratzetena**). Dena den, **laugarren** bat ere gaineratu daiteke: **gizartean eta eremu publikoan partaidetza-etena**.

Errealitate horren aurrean eta esku-hartzeko ildo posibleak aintzat hartuta, **txosten bereziaren xedea lau eten digitalen egungo egoeraren berri edukitzea eta horiek aztertzea** izan da. Azterketaren bidez, eten digitalen horien arrazoi posibleen inguruan hurbilketa bat egin nahi izan da, ikuspegi bikoitzetik abiatuta:

- Teknika kuantitatiboen ikuspuntu zehatzenetik.
- Hainbat dimentsiotako (pribatua-publikoa-gizartea) eragileen eta adituen azterketaren eta hausnarketaren ikuspegitik, informazioa biltzeko eta azterketa kualitatiboak egiteko teknologien bitartez.

Horregatik, txosten bereziak aipatutako **4 eten digitalen azterketaren** arloan sakondu nahi izan du (ekipamendua, erabilera, eskuratzetza eta parte hartzea) eta bereziki azpimarratu nahi izan ditu **infobaztertzea pairatzeko arriskurik handiena duten kolektiboen eta gizarte taldeen kasua**. Hori guztia **ikuspegi anitzeko edo mistoko** planteamendu batetik abiatuta, teknika kualitatibo zein kuantitatiboekin nahastuz.

Horretarako, e-inklusioari eta parte hartzeari buruzko datuen azterketek, txostenek eta estatistikek eman diguten ‘argazki finkoan’ oinarritu gara (funtsean, Euskal Autonomia Erkidegoari, Espainiari eta Europari buruzkoak) eta, horrela, abiapuntua xehetasunez ezagutu ahal izan dugu. Azterketa horren ostean, berehala datuen inguruan sakontzeko, egiaztatzeko eta aintzat hartzeko beharra sortu zen eta alderdi “kualitatiboa” gailendu zen (ez horrenbeste zenbakizko datu soila); izan ere, **lan-taldeen, elkarriketen** eta gizarte taldeekin garatutako lan zuzenaren bidez (hala nola, **Ararteko erakundearen Haurren eta Nerabeen Kontseiluko** gazteekin egindakoa; zorionez horietako batzuek zenbait lanetan parte hartu baitute) hasierako azterketatik atetarako lehenengo ondorioak egiaztatu ahal izan ziren. Jasotako ekarpen guztien laburpena behin eginda, datu kuantitatiboari ekin diogu berriro ere: herritarrei egindako inkestaren bidez eta administrazioari eskatutako datuen bitartez. Horrela, ondorioak atera ahal izan dira, galdera asko mahai gainean jarri dira eta hainbat gomendio bildu dira, txosten berezi honetan jaso direnak hain zuzen ere. Espero dugu erabilgarri suertatzea politika publikoen ebaluazioa egite aldera.

### Nola egin dugun

#### 4.1. Informazioa biltzea

**Metodologia irekia** erabili da, txosten honen garapenean parte hartu duten hainbat eragileren orientazioak eta ekarpenak integratzeko gai dena. Horrela errealitatearen azterketa egite aldera garrantzi handikoak diren faktoreak identifikatu ahal izan dira, hala nola, erabilaren inhibitzaileak, antzemandako oztopoak, asebetetze maila, estali gabeko beharrak, alderdi motibatzaileak erabilera handiagotzeko edo

<sup>2</sup> Castells, M. (2006): *La Sociedad Red*. Alianza Editorial.

<sup>3</sup> Pisani, F. (2008): Inauguración del Espacio Red de Prácticas y Culturas Digitales, UNIA. <http://practicasdigitales.unia.es/>.




IKTen erabilera aurreratuagoa izan dadila eta gizartean eta eremu publikoan parte hartzearen aurkako erresistentzia.

#### 4.1.1. Informazio iturriak

(8. irudia)

#### Informazioa biltzeko faseak



Txosten bereziaren lan-metodologian kontsultatutako eta gaineratutako informazio iturriak ikerketak hizpide duen unibertsuaren dimentsioekin duten loturaren arabera aurkeztu dira (dimentsio publikoa, pribatua edo gizarte dimentsioa).

(1. taula)

#### Informazio iturriak

	Gizarte dimentsioa	Dimentsio publikoa	Dimentsio pribatua
EAEko etxebizitzak (gutxienez 16-74 urte bitarteko pertsona bat barne hartzen dutenak) eta hiru lurralde historikoetan (Araba, Bizkaia eta Gipuzkoa) bizi diren pertsonak, 10 eta 75 (edo gehiago) urte bitartekoak	X		
E-inklusioaren eta gizartean zein eremu publikoan parte hartzearen arloan adituak (langile ikertzaileak, unibertsitatea, zentro teknologikoak eta/edo berrikuntza zentroak, KZgunea sareko langile teknikoak)	X	X	X
EAEko administrazioa (Osasun eta Kontsumoa, Hezkuntza, Unibertsitate eta Ikerketa, Enplegua eta Gizarte Gaiak, Justizia eta Herri Administrazioa)		X	
IKTen eremuan euren lana garatzen duten elkarteak eta erakundeak mugimendua, infobaztertzeko pairatzeko arriskurik handiena duten kolektibo eta gizarte taldeekin harreman zuzena daukatenak	X		X
EAEko IKTen sektoreko enpresak			X

#### 4.1.2. Informazioa biltzeko teknikak

Informazioa biltzeko erabili diren tresnei esker, xehetasun handiagoarekin ezagutu ahal izan ditugu EAEko eten digitalei lotutako alderdirik garrantzitsuenak, izan ere, **hainbat dimentsio edo planoetatik datorren informazioa bildu da eta horrek azterketari zenbait ikuspegi gaineratu dizkio.**

Jarraian informazioa biltzeko erabili diren tresnen eta hori guztia aplikatu den dimentsioen (gizarte dimentsioa, publikoa eta pribatua) arteko nahasketa zehaztu da:

(2. taula)

#### Biltzeko teknikak

	Gizarte dimentsioa	Dimentsio publikoa	Dimentsio pribatua
Inkesta	X		
Herri-administrazioari datuak eskatu		X	
Elkarrizketak	X	X	X
Eztabaida taldeak	X	X	X
Argitaratutako beste ikerketa batzuen gaineko azterketa		X	X
Praktika onen bilketa	X	X	X
2.0 kanalak	X	X	X

#### Inkestak

**Eustat** (Estatistikaren Euskal Erakundea) izenekoarekin lankidetzan arituz ikerketa bat burutu da eta interes berezia eskaini zaio herritarren artean dauden erabilerari, eskuratzeari eta gizartean zein eremu publikoan parte hartzeari lotutako etenen azterketari (Euskadi mailan eta IKTen bitartez). Aurretik egindako beste inkesta batzuetan (sarbide-etenak hizpide zituztenak) erabilitako metodologiak errespetatuz, **Gizarte Kapitalari buruzko Inkestaren (2010)<sup>4</sup>** eta **Euskadin Informazioaren gizarteari buruzko inkesta -IGI- Familiak (2011)** izenekoaren bitartez lortutako datuak xehetasunaz aztertu dira<sup>5</sup>, hori guztia **lurraldean e-inklusioari eta e-partze hartzeari buruzko erradiografia osoagoa eta fidagarriagoa lortzeko helburuarekin.**

Berritasun eta datu garrantzitsu gisa, esan dezakegu inkesta horretan erabilitako eta Eustaten **Gizarte Kapitalaren gaineko Inkestatik** datozen datuak honen emaitza direla: datu horien ustiapen estatistiko berriaren fruitua, inkesta aztertzeko aldagaien eta "Internetaren erabilera" aldagaiaren arteko gurutzearen emaitza.

Horri berriaz egindako **telefono bidezko inkesta** bat gehitu behar zaio. Inkesta 5% 40 pertsona baino gehiagok erantzun dute eta Euskadin erabilera aurreratuen, eskuratzearien eta IKTen bitartez parte hartzearen gaiak jorratu dira. Bertain, EAEko etxebizitzek (gutxienez 16-74 urte bitarteko pertsona bat barne hartzen dutenak) eta hiru lurralde historikoetan (Araba, Bizkaia eta Gipuzkoa) bizi diren pertsonak, 10 eta 75 (edo gehiago) urte bitartekoek parte hartu dute. Telefono bidez inkesta horri lotutako landa-lana **Invesmark** enpresak

<sup>4</sup> Azterlan honetan erabilitako eta Eustat erakundearen atarian jasotako datuen eguneratze-data: 2010.

<sup>5</sup> Azterlan honetan erabilitako eta Eustat erakundearen atarian jasotako datuen eguneratze-data: 2011.

burutu du eta 2011ko abendua eta 2012ko urtarrila bitartean gauzatu zen.

Erabili den laginketa motari etapa anitzeko laginketa deritzogu (udalerrria-familia bakarreko etxebizitza-15 urte baino gehiagoko pertsona), baita geruzatua ere, lehenengo etaparen unitateen barruan.

Udalerrriak geruzetan taldekatu dira (lurralde bakoitzaren barruan) eta tamainari erreparatuta bost geruza ezarri dira:

- 1. geruza: probintziako hiriburuak.
- 2. geruza: 50.000-100.000 biztanleko udalerrriak.
- 3. geruza: 20.000-50.000 biztanleko udalerrriak.
- 4. geruza: 10.000-20.000 biztanleko udalerrriak.
- 5. geruza: 10.000 biztanle baino gutxiago dituzten udalerrriak.

Erabilitako esleipen sistema proportzionala da sexuari eta adinari lotutako aldagaiei dagokienez, eta sinplea lurralde mailari dagokionez, beraz, lagin tamaina bera ezarri da hiru lurraldeetan (170 inkesta). Horrela, lurraldeen artean, azterketa konparatiboak egin ahal izan dira, antzerako errore-marjinekin. Hori ez litzateke posible izango lurraldeen arteko esleipen sistema proportzionala aukeratu izan ez balute. Ondoren, lagina orekatu egin da lurralde bakoitzaren pisu erreala aintzat hartuta.

Inkestatu beharreko etxebizitza hautatzeko ausazko aukeraketa sistema erabili da eta, horren barruan, ausaz hautatu da sexuari eta adinari lotutako kuota betetzen duten pertsonen artean.

Laginarentzako errore-marjina +/-% 4,4koa da, lurralde bakoitzaren kasuan, berriz, marjina +/-% 7,7koa da. Bi kasuetan, konfiantza maila % 95,5koa da kontrako egoeran ( $p=q=0,5$ ).

Harremanetan jartzeko erabilitako metodoa telefono bidezkoa izan da (CATI) eta deiak etengabe egin dira, goizeko 9:30etik gaueko 21:30era hain zuzen ere. Modu horretan, harremanetan jartzeko zailtasunak dituzten profilak dituzten pertsonak ere ikerketan parte hartu ahal izan dute, hau da, oro har, ikasleek eta lanpetuak dauden pertsonak.

## Administrazioari informazio-eskaera egitea

EAEko errealitateari buruzko informazioa biltzeko fase honetan e-partze hartzeari buruzko galdeketa bat ere gaineratu nahi izan dugu, *Google docs* formatuan, eta informazioa biltzeko hiru mailatan: [Eusko Jaurlaritzako](#) txostena, [Arabako](#), [Bizkaiko](#) eta [Gipuzkoako](#) Foru Aldundiak eta [Bilboko](#), [Gasteizko](#), [Donostiako](#), [Amurrioko](#), [Irungo](#) eta [Zallako](#) Udalak. Tresna horri esker, gaur egun zenbait sailetik gauzatzen ari diren jardueren inguruko informazioa biltzeko aukerara izan dugu (Hezkuntza, Osasuna, Herri Administrazioak, Industria, Lana eta Gizarte Ongizatea), betiere, Informazioaren eta Komunikazioaren Teknologien bidez gizartean eta/edo honako kolektibo hauen eremu publikoan gizarteratzearen eta/edo parte hartzearen sustapenaren ikuspuntua barne hartzen badute: etorkinak, adingabeak, gazteak, adinekoak, ezintasunen bat duten pertsonak; bai eta, aipatutako politika zehazten eta jardueren gauzatzearen diseinuan, emakumeen eta gizonen arteko berdintasunaren zeharkako ikuspegia ere.

## Euskadiko herri-administrazioetako atarien berrikuspena

Herri-administrazioei helarazitako informazio eskaera osatzeko, euren web atarien berrikuspena burutu da eta atari horietan herritarrek parte hartu dezaten dauden tresnak, kanalak eta mekanismoak identifikatzeko saiakera egin da.

Berrikuspen hori eskuz egin da, parte hartze prozesuetako hainbat faseren betetzeari lotutako irizpideetan oinarrituta: informazioa – herritarren ekarpena – itzultzea (prozesuaren ebaluazioa, emaitzen gaineko informazioa, aplikazioa, etab.)

## Elkarrizketak

Eusko Jaurlaritzako, enpresa eremuko, aholkularitza eremuko eta hirugarren sektoreko 14 aditurekin elkarrizketak egiteak EAEn dauden **eten digitalen** inguruan dauden zenbait ikuspegi biltzeko aukera eman digu, baita horiek murrizteko gomendioak eta lan-ildoan proposamenak entzuteko aukera ere, gai hauen inguruan dituzten **ideiak eta esperientziak** xehetasunez ezagutzera zuzendutako galderen bitartez:

- Euskadin **sarbide-, erabilera-, eskuratzeko- eta partaide-tza-eten** digitalen gainean duten pertzepzioa.
- **Eten digitala** pairatzeko arriskurik handiena daukaten kolektiboak.
- Nola ari den errealitate hori jorratzen Euskadin, gizarte eremutik eta eremu publiko zein pribatutik.
- Euskadin **gizartean** eta **eremu publikoan e-inklusioa** eta parte hartzea sustatzeari dagokionez dauden erronkak eta aukerak.
- IKTek **herritarren parte hartzean** daukaten eginkizuna.

(9. irudia)

## Elkarrizketak



Jarraian, 2011ko uztailaren 11 eta 22a bitartean egindako **elkarrizketetan** parte hartu duten eragileak barne hartzen dituen zerrenda jaso da:

(3. taula)

**Elkarrizketari erantzun dioten eragileen zerrenda**

<b>Adela Mesa</b>	Euskal Herriko Unibertsitateko Politika Zientzia eta Administrazioaren irakasle titularra. Politikaren eta administrazioaren, administrazio modernizazioaren eta politika publikoen arteko harremanak ikertzen lanean aritu da. Orain dela zenbait urte, bere ikerketek <a href="#">e-government</a> (e-administration, e-democracy) delakoa daukate hizpide, baita oro har gobernantzarri buruzko azterlanak ere
<b>Asier Gallastegi</b>	Aholkularia; berrikuspina, <i>coaching</i> , familia terapia eta irakaskuntzaren arloko zenbait erakunderekin lankidetzan aritzen da. Gizarte hezitzailea. Familia Terapiaren Euskal Nafar Eskolan psikoterapeuta sistemikoari dagokion titulua atera zuen
<b>Javier Elzo</b>	Deustuko Unibertsitateko Soziologian katedraduna eta gizarte ikertzailea
<b>Jorge Flores</b>	Pantallas Amigas delakoaren sortzaile eta zuzendaria. Informatikan lizentziatua Deustuko Unibertsitatean. IKTen erabilera seguruari lotutako argitalpen eta tresna didaktiko batzuen zuzendari eta egilea; <i>grooming</i> , <i>ciberbullying</i> eta <i>sexting</i> bezalako gaiak bereziki azpimarratu ditu
<b>José Miguel Azkoitia</b>	Tecnalia Reserch & Innovation delakoan Negozioaren Garapena-Osasunaren dibisioa atalaren zuzendaria. Euskal Herriko Unibertsitateko doktore ingeniaria
<b>Joseba Zalakain</b>	Eguia-Careaga fundazioaren SIIS Dokumentazio eta Ikerketa Zentroko zuzendaria. Kazetaritzan lizentziatua Euskal Herriko Unibertsitatean
<b>Juan Manuel Cabasés</b>	Ekonomia Zientzietan lizentziatua eta doktorea Euskal Herriko Unibertsitatean. Ekonomiako irakaslea izan da hainbat unibertsitatetan. Une honetan Ekonomian katedraduna da Nafarroako Unibertsitate Publikoan. Behin-behinean Munduko Osasun Erakundearen (MOE) eta Garapenerako Banku Inter-amerikarraren aholkularia izan da. Nafarroako Gobernuaren Osasun Departamentuko zuzendari nagusia izan da (1988-91), baita Eusko Jaurlaritzako Osasun Saileko Osasun Informazioaren eta Ebaluazioaren zuzendari nagusia ere (1987)
<b>M.ª Antonia Ozcariz Rubio</b>	Hezkuntza Saileko sailburuordea. Eusko Jaurlaritzako Hezkuntza, Unibertsitate eta Ikerketa Saila
<b>Mireia Espiau Idogaya</b>	EUDELeko (Euskal Udalen Elkarte) programen arduraduna. Soziologoa eta eragilea aukera berdintasunaren arloan. Generoan eta garapenean espezializatua, irakaslea da Espainiako zenbait unibertsitatetako graduondoko ikastaroetan eta, eremu horretan, berdintasunaren aldeko organismoekin eta garapenerako gobernu kanpoko erakundeekin lankidetzan aritzen da
<b>Patxi Leturia</b>	Gizarte Ongizaterako Foru Erakundearen zuzendariorde tekniko ohia (Arabako Foru Aldundiko Gizarte Politika eta Gizarte Zerbitzuen Sailari atxikia). Matia fundazioa Gizarte Zerbitzuaren eremuko zuzendaria izan zen
<b>Pilar Irurzun Huici</b>	Eusko Jaurlaritzako Lehendakariordetzaren aholkulari juridikoa. Administrazio elektronikoaren Arauak Garatzeko Atalaren arduraduna
<b>Reina Ruiz Bobes</b>	Emakundeko (Emakumeren Euskal Institutua) aholkularia
<b>Rosabel Argote</b>	CEAR izenekoaren (Euskadin Errefuxiatuei Laguntzeko Batzordea) Erania: hausnarketarako eta kulturen arteko ekintzarako eremuko gizarte ikertzailea. Los Scribas izeneko taldearen bazkide sortzailea (idazle, sortzaile eta ilustratzaile osatutako taldea)
<b>Susana del Rio</b>	Ikertzailea. Gobernantza Demokratikoaren Institutuan Europa ataleko zuzendari akademikoa. <i>Science, Society and Governance</i> delakoan Europako Batzordeko Aditu Independenteen Batzordeko kidea, baita <i>Citizens and governance in the knowledge based society, Task 4: "Democracy in a supranational context"</i> programa markoko kidea ere. Herritarren parte hartzearen eta Europako ekintza komunikatiboaren arloan aholkularia

Elkarrizketak egin eta gero, bildutako 'ideia sendo' nagusiak nabarmendu ziren eta horiekin agiri bat egin zen. Ondoren,

txostenean zehar parte hartu zuten eragileekin partekatu zen **2.0 kanalen bitartez** (aurrerago horiek guztiak zehaztuko dira).

**Eskuratzeari eta e-parte hartzeari buruzko eztabaida taldeak**

Informazioa biltzeko erabilitako tresnen artean, beste bat eztabaida taldea delakoa izan da. Talde horrek ikuspegi aberastasun handia ekarri du, baita nabardurak ere ikerketak hizpide duen gaiaren azterketan. **Lan-talde** horien helburua IKTen eskuratzeari eta Euskadin gizartean eta eremu publikoan parte hartzeari buruzko hausnarketa sustatzea izan da. Horretarako, talde-lana egin dute ikerketak hizpide duen errealitatea aztertuz, ikuspuntu hirukoitzetik abiatuta:

- Euskadin **eten digitalaren** artearen egoera (zein da gure abiapuntua, nola ari dira eten digital horiek jasotzen). Bakoitza bere erakundean, langile gisa duen ikuspuntua interesatzen zaigu baina, baita herritar gisa duen ikuspuntua ere.
- Zuen ustez, zer egin behar da eten digital horiek gainditzeko? Eta zer ari zarete egiten zure erakunde/enpresa/organismo/elkartetik horretarako?
- Zeintzuk dira etorkizuneko lan-ildoak? Gomendioak.

(10. irudia)

**Lan-taldeen ideia sendoak**

3 orduko iraupena eduki duten 4 lan-saioren bitartez, 35 parte hartzaileak zenbait taldetan eta ordutegitan banatu ziren, lan sortzaileko dinamiken bitartez landutako saioetan, **adimen kolektiboari** zuzenduta daudenak. Buruko mapen eta Edward de Bonoren kapelak, aukeren zirkuluak, analogiak eta 'pentsatzeko kutxak' bezalako tekniken bitartez, ideien ekoizpena, hitzez adieraztea eta horien defentsa sustatu ziren, bai eta modu adostuan erabakiak hartzea ere.

Talde horiei 11 gazteren parte hartzea gehitu behar zaie (10-15 urte bitarteko gazteak), **Ararteko erakundearen Haurren eta Nerabeen Kontseiluko** kideak hain zuzen ere. Azken horiek, **Lego Serious Play®** metodologiaren eta sormena lantzeko beste tekniken bidez, Euskal Autonomia Erkidegoan gizartean eta eremu publikoan IKTen erabilerrari eta parte hartzeari buruzko hausnarketa sustatu da, batez ere, honi lotutako eremuetan:

## (1). TXOSTENAREN AURKEZPENEA

1. Nola erabiltzen dute Internet gaur egun EAEko nerabeek?
2. Nola parte hartzen dute gaur egun gizartean eta eremu publikoan?
3. Nolako da etorkizunerako imajinatzen duten eta nahi duten Interneta?
4. Nola nahiko lukete gizartean eta eremu publikoan parte hartu? Nola imajinatzen dute eta nolako izatea nahi dute euren parte hartzea etorkizun hurbilean?

Jarraian, xehetasun handiagoarekin zerrendatu dira (alfa-betoaren arabera) 2011ko urriaren 27an eta azaroaren 4an egindako **eztabaida taldeetan** parte hartu zuten eragileak:

(4. taula)

### Eragileen zerrenda. Eztabaida taldeak

<b>Ainara Pérez Rodríguez</b>	Hezitzaile/koordinatzailea Saregune-Sartu Álava elkartearen
<b>Aitor González Angulo</b>	ONCEko Euskadiko Lurralde Kontseiluaren presidentea
<b>Alberto Bokos</b>	Innobasque-Berrikuntzaren Euskal Agentzian Sustapen eta Komunikazio Atalaren zuzendari nagusia
<b>Alberto Ortiz de Zárate</b>	Herritarrentzako Arreta Saileko zuzendaria Eusko Jaurlaritzan
<b>Alfredo Bezos</b>	FEVASeko Multimediako arduraduna. Adimen Ezintasuna duten Pertsonen Aldeko Elkartearen Euskal Federazioa
<b>Ana Vitorica</b>	Euskadi Plana Informazioaren Gizartean PESI 2010 izenekoaren Idazkaritza Teknikoaren arduraduna. Eusko Jaurlaritzan
<b>Arantza González</b>	Gizarte langileak Kantabriako Gobernuan. Gizarte Hezitzaileen Euskadiko Elkargoko CEESPV-GHEE presidenteordea
<b>Cristina Ojanguren</b>	Agintzari Gizarte Ekimeneko S. Koop. izenekoan I+G+Bko teknikaria
<b>David Montero de la Torre</b>	Zuzendaria Arabako Enpresen eta Berrikuntzaren Zentroan
<b>Dorleta Goiburu</b>	Gizarte Ekintzako arduraduna EUDELen
<b>Elena Ayarza</b>	Ararteko erakundearen Haur eta Nerabeentzako Kontseilua
<b>Gari Araolaza</b>	CTO eta CodeSyntax izenekoaren sortzailea
<b>Gerardo Zamora</b>	INGEMAKo zuzendariordea
<b>Gorka Moreno Márquez</b>	Gizarte Laneko Unibertsitate Eskolako irakaslea Euskal Herriko Unibertsitatean eta ikertzailea IKUSPEGI - Immigrazioaren Euskal Behatokian
<b>Javier Cueva</b>	Kirol Egokituaren Bizkaiko Federazioko presidentea eta FEKOORreko teknikaria
<b>José Antonio del Moral</b>	Inbestitzailea <i>Chicisimo.com</i> izenekoan. Bazkide sortzailea <i>Sequoia Internet S. L.</i> n eta CEO <i>Mapalia Networks</i> delakoan
<b>José M.ª Chaves Rivera</b>	Bizkaiko Foru Aldundiko Gizarte Ekintza Saila
<b>José Miguel Azkoitia</b>	Tecnalia Research & Innovation delakoan Negoziaren Garapena-Osasunaren dibisioa atalaren zuzendaria
<b>Josu Garro</b>	A. Urdaneta ikastetxe publikoko irakaslea. Irakaslea eta gazteen tutorea (16 eta 17 urte), plastika eta ikus-entzunezko, informatika, marrazketa tekniko, lagundutako diseinu eta informazioaren eta komunikazioaren teknologien irakaslea
<b>Juan Carlos Melero</b>	Gizarte Proiektuen zuzendaria EDEX fundazioan. Idazkari-diruzaina Zerbikas fundazioan. EDEXeko Espetxean Droga-mendekotasunaren Taldeko koordinatzailea

<b>Koldo Tellitu</b>	Ikastolen federazioko presidentea
<b>Leticia Baceiredo Monja</b>	KZgunea sareko Kudeaketa Zentroa
<b>Lorenzo Martínez Paz</b>	IRSE Arabako Bergizarteratze Institutua elkarte. Proiektuen arduraduna eta zuzendaritza taldeko kidea
<b>Maite Goñi</b>	Irakaslea eta ICTen aholkulari pedagogikoa Mondragon Unibertsitatean. Irakaslea Jakintza ikastolan
<b>Maria Gutiérrez Manrique</b>	Prestakuntza teknikaria EDE fundazioan. Bolunta prestakuntza foroko arduraduna
<b>María José Cano</b>	FEDEFES-Euskadiko Eri Psikiko eta Senide Elkartearen Federakuntzako kudeatzailea
<b>Marisa Lezkano Moya</b>	Lan-Ekintza Bilbo. Behatoki Estrategikoaren arduraduna
<b>Mentxu Ramilo Araujo</b>	Proyelia Innova S. L. ko I+G arloa. Prestatzailea barnetegi teknologikoetan
<b>Miren Osane Lizarralde</b>	Aholkularia eta irakasle Mondragon Unibertsitatean
<b>Norma Andrade</b>	Elkartu elkartearen Irigarritasun Ataleko teknikaria
<b>Oskar Longo Imatz</b>	Gazteriaren Euskal Behatokia
<b>Raquel Raposo</b>	Programa eta Prestakuntza Arloko arduraduna Emakunden
<b>Roberto Vidal</b>	Gizarte Hezitzaileen Euskadiko Elkargoko CEESPV-GHEE presidentea
<b>Rodrigo Matamoros</b>	HIESaren Aurkako Hiritarren Arabako Batzordea
<b>Xavier Mendizabal</b>	BIHE elkartearen koordinatzailea (bigarren hezkuntzako institutuetako zuzendarien elkarte)

## Argitaratutako beste ikerketa batzuen gainerako azterketa

Informazioa biltzeko erabilitako tresnei (**aurreko epigrafeetan deskribatutakoak**), **zenbait lanen aukeraketa baten bilduma** gehitu behar zaie. Horiei esker, EAEn e-inklusioari eta gizartean eta eremu publikoan ICTen bitarteko parte hartzeari buruzko abiapuntuaren gainera ikuspuntu osagarria ematen duen informazio kuantitatibo eta kualitatibo eskuratu dezakegu. Datu-base estatistikoei, lurraldetik bertatik eta estatu mailatik egindako ikerketa eta txostenei buruz ari gara (**Eustat**, Ararteko). Azken horietan, EAEko errealitatea islatzen da e-inklusioa “ikerketa eremuari” lotutako alderdiei dagokienez.

## Praktika onen bilketa

Informazioa biltzeko landa-lanek e-inklusioaren eta ICTen bidez gizartean eta eremu publikoan herritarren parte hartzearen eremuan **praktika onen** aukeraketa bat barne hartu dute, betiere, ikerketak hizpide duen gaiari lotutakoa eta, ondorioz, honelako alderdiekin zerikusia duena:

- ICTen erabilera berritzaileak, bereziki sakonduz infobaztertea pairatzeko arriskuan dauden kolektibo eta gizarte taldeen kasuan.
- Parte hartzea gizarte eremuan eta eremu publikoan ICTen bitartez.
- Gizarte ahalduz kolektiboekin.
- IKT eta mendekotasuna.
- IKT eta gazteak.
- E-gobernantza.

Aldi berean, praktika onak (baita estekak eta erreferentzia interesgarriak ere) 2.0 kanalen bitartez partekatu dira, txosten honen testuinguruan inplementatu direnak: wiki, blog eta profilak gizarte sareetan.

## 2.0 kanalak

Lan horrek barne hartzen duen informazioa biltzeari zuzendutako tresnen artean, interesgarria iruditu zaigu 2.0 tresnak inplementatzea. Izan ere, horien bidez, txostenaren garapenean 'funtsezko eragiletzat' jotzen diren erakunde eta pertsona guztiekin batera lanean aritzeko aukera eman digute, **2.0 kanalen** bitartez, *networking* eta ezagutzaren eraikuntza kolektiboan oinarrituta daudenak. Horien bidez, metodologia irekia gaineratu da, ikerketa, osatze eta hobetze prozesuen monitorizazioa errazten duena, kanal horietan parte hartzen duten pertsonen euren ekarpenak egin ahala.

Erabilitako tresnak hauexek izan dira:

- **E-inklusioari eta e-parte hartzeari buruzko proiektuaren bloga:** <http://blogak.ararteko.net/inclusiondigitalparticipacion/>

(11. irudia)

### Proiektuaren bloga



Txostenaren garapenean zehar, blog bat sortu da ([Ararteko erakundearen bloga](http://blogak.ararteko.net/inclusiondigitalparticipacion/) azpiegiturari lotutakoa) pertsona guztientzako irekia eta gure lana partekatzeko kanal gisa oso baliagarria izan dena. Horrez gain, ikerketek zer ekarpen egin diguten, aztertutako datuak, etab. partekatu ahal izan dugu.

Elkarrizketetan eta eztabaida taldeetan parte hartu duten pertsonen gonbidapena luzatu diete foro horren zein parte hartzeko gainontzeko kanalen parte izan daitezkeen (wiki, gizarre sareak). Horretarako, elkarrizketak amaitzerakoan eta lan-taldeen kanalen berri eman zieten eta azaldu zieten horien bidez lehen eskutik ezagutu ahalko dituztela txosten bereziaren aurrerapenak eta euren ezagutza eta esperientziekin parte hartu ahalko dutela.

Bereziki interesgarria izan da ikuspuntu bikoitzetik abiatuta:

- Alde batetik, prozesuari ematen dion gardentasunagatik.
- Eta, bestetik, gaian interesa duten eta blogean parte hartzen duten pertsonen iritziekin eta orientabideekin egiten diren lanen egiaztatzea errazten duelako.

Proiektuarekin eta gaiarekin zerikusia daukaten postez gain, blogean berriak, ikerketak eta txostenak ikuste aldera zenbait esteka gaineratu dira. Horiei esker, eten digitalen gaineko eztabaida eta hausnarketa abian jarri daiteke, eskuratze eta partaidetza-etenak bereziki nabarmenduz.

- **IKTen bidez Euskadiko gizartean eta eremu publikoan parte hartzeari eta e-inklusioari buruzko wiki:** <http://inclusiondigitalparticipacion.wikispaces.com/>

(12. irudia)

### Proiektuaren wiki



Tresna horri esker informazioa partekatzeko aukera ematen digun esparru bat sortu dezakegu. Bertan, modu librean eta antolatu gabean, parte hartzaileek lanak gauzatu bitartean sortu diren testuetako batzuen birformulazioak proposatu ahal izan dituzte, ideia berriak proposatu, etab.

Lan ingurune hori, Ararteko erakundearen identitate korporatiboa duena eta haren babespean sortu dena, informazioa biltzeko fasean (elkarrizketak, eztabaida taldeak...) parte hartu duten eragile guztien informazioa egiaztatzeko lana errazteko asmoz sortu da eta hausnartzeko eta/edo ikertzeko ildo berriak abian jartzeko aukera eman du.

### – Gizarte sareak:

- **Facebook:** <http://www.facebook.com/profile.php?id=100000142979320>
- **Twitter:** <https://twitter.com/#!/ePartehartzen>

Profil horien deskribapenean (e-inklusioarekin eta IKTen bitarteko parte hartzearekin zuzeneko harremana dute), marka komun baten azpian, txosten berezi bat egitea xede duen prozesu ireki baten tresna gisa aurkeztu dira.

Edukiei dagokienez, kanal horien bitartez zabaldu dira:

- Prozesuari buruzko informazioak eta txostenari lotutako gertakariak.
- Ikerketak hizpide dituen gaiekin zerikusia daukaten berrien, txostenen, ikerketen eta abarren estekak eta retweet izenekoak.
- Blogaren argitalpenak ikusteko estekak.

(13. irudia)

## Proiektuaren 2.0 kanalak



## 5.

### Txosten bereziaren egitura

Txosten berezi hau 5 kapitulutan egituratu da:

■ **Lehenengo kapituluaren txostena aurkeztu** da. Bertan, txostenaren gaineko sarrera labur bat egin ostean, proiektuaren hainbat faseren gauzatzearen atzean dagoen metodologia birpasatu da. Atal horretan informazioa biltzeko erabili diren iturriak eta teknika kuantitatibo zein kualitatiboak zehaztu dira.

■ **Bigarren kapituluaren**, lehenik eta behin, e-inklusioaren eta e-partehartzearen ikuspegi teoriko eta kontzeptuala berrikusi da, horixe izan baita txosten berezi hau egite aldera gida gisa erabili duguna.

Modu berean, nazioarteko eta tokiko erreferentzia nagusien azterketa egin da, ikerketa-eremuaren **testuinguru estrategikoan**. Bertan, inklusio digitalaren eta herritarren parte hartzearen eremuan sustapenaren eta bermeen alde egin duten ekintza-estrategia nagusien gaineko berrazterketa laburra egin da.

Kapitulu horren barruan, 7. atalean eta **“Sarbidetaren digitala”** tituluaren azpian, gaur egungo egoera zein den aztertu da, betiere, Euskadiko etxebizitzetan eta familien baitan IKTei lotutako ekipamenduari eta sarbideari lotuta. Hori guztia, IKT adierazle nagusiak aztertuz burutu da. Azterketa horrek sarbide-eten digitala pairatzeko arriskurik handiena duten kolektibo eta gizarte talde nagusien kasuan sakondu du. Horrez gain, oztopo nagusien edo

IKTen erabilera eragozten duten elementuen karakterizazioa egin da.

■ **Hirugarren kapituluaren** izenburua **“Gainontzeko eten digitalak”** da eta eten digitalen azterketarekin aurrera jarraitzen du. Kasu horretan, anbizio handiko ikuspuntuarekin, IKTen erabilera harago joan nahi izan da eta 10., 11. eta 12. atalen bidez gaur egun Euskadin dagoen egoeran sakondu da, gehien ezagutzen ditugun eten digitalen giltzarekin:

– **Erabilera-eten digitala**, erabilera oinarriko adierazleetara mugatzen den ikuspuntu tradizionala gaindizten saiatu da eta hauek bezalako faktoreak azpimarratu nahi izan ditu: IKTen erabilera aurreratua, IKTen erabilera lotutako motibazioak edo IKTen erabilera karakterizazioa ikerketa aldagai sozioekonomikoen eta demografikoen arabera.

– **Eskuratzeko-eten digitala**, oraindik asko aztertu ez den kontua. Oraingoan herritarrek IKTen erabilgarritasunaren gainean duten pertzepzioaren inguruan ikertu nahi izan dugu, baita gizarteak IKT eta gizarte ongizatearen artean antzematen dituen loturen inguruan, gizarte bazterkeria pairatzeko arriskuen pertzepzioaren, IKT eta gaitasun digitalen eta horien eta lan munduaren arteko harremanaren eta gaitasun digital pertsonalen eta gaitasun horiek eskuratzeko dauden lehentasunen inguruan ere.

– Eta, azkenik, **partaidetza-eten digitala**. Horrek IKTen bitartez herritarren parte hartzeari lotutako etenaren azterketa barne hartu du, ikuspuntu integraletik abiatuta, honako alderdi hauek jorratuz:

- Internetaren erabilera herritarren parte hartzearen duen eragin posiblea.
- Euskal gizartearen parte hartzea IKTen bidez, parte hartzearen herritarrek dituzten motibazioak, parte hartzearen erabilgarritasunaren pertzepzioa eta herritarrek parte hartzearen inguruan dituzten itxaropenak nabarmenduz (Gehiago parte hartu nahi dugu? Nola parte hartu nahi dugu? Eta, non?).
- Herri-administrazioek eremu publikoan parte hartzearen aukera herritarren esku jartzeko bitartekoak, eren eta moduen inguruko berrazterketa.
- Euskal herritarrek Euskadiko herri-administrazioetan duten parte hartzearen gaineko analisia (asebetetze maila, itxaropenak...).

■ **Laugarren kapituluak**, aldiz, txosten bereziaren **ondorioak eta gomendioak** bildu ditu. Horiek guztiak informazio kuantitatibo zein kualitatibo aztertuz atera dira. Bertan, ideia garrantzitsu nagusienak azaldu dira, baita Euskadin e-inklusioa eta e-partehartzea sustatzeko eta bermatzeko jarraibide estrategikoak ere.

■ Azken kapituluaren, hau da, **bosgarrenean**, eranskinak jaso dira eta baliagarritzat jo den informazio osagarria barne hartu da, hala nola, e-inklusioari eta e-partehartzeari buruzko glosario bat; toki, nazio eta nazioarteko mailako araudien gaineko erreferentzien katalogoa; edo ikerketak hizpide duen gaiarekin zerikusia duten praktika onen katalogo bat, beste material batzuen artean.



# E-inklusioa eta e-partaidetza

a t a l a





## II. atala

# E-inklusioa eta e-partaidetza

## 6.

### E-inklusioaren eta e-partaidetzaren ikuspegi teorikoa eta kontzeptuala

Euskadin IKTen bidez e-inklusioak eta parte-hartzeak gizartean eta eremu publikoan duten egoera benetan zein den aztertu eta ezagutzeak (txosten berezi honen helburua) alde aurreko hainbat gogoeta eskatzen ditu, honekin lotuta hain zuzen:

- a) E-inklusioa eta e-partaidetza terminoak behar bezala kontzeptualizatzea azterlan honen esparruan (ikusi Kontzeptualizazioa kapitulu honetan bertan).
- b) Sekuentzia identifikatzea, IKTen erabiltzaileak teknologiaren kontsumitzaile hutsetik prosumitzaile izatera bilakatzen direneko prozesua. Gainera, teknologiaz baliatzen dira euren gizarte ahalduntzerako, eraldaketaren eta erabakiak hartzeko prozesu publikoaren zein euren garapen pertsonalaren parte aktiboa bihurtzeko aukera berriekin (ikusi kapitulu honetako Ahalduntze digitala).
- c) Sekuentzia horretan, gainera, “eten” egoera batean dauden “apurtzeko” edo kokapenerako baldintzak kontzeptualizatu beharko dira, hau da, pertsona edo talde jakin batengan prozesu horretan aurrera egin ezin izateko eragina duten aldagaiak (gaitasun digitala, trebetasuna, abilezia... eskuratzeko-maila eta ahalduntzeko aukerak adibide batzuk dira) eta “infobazterketa” edo “ez parte-hartze” horretatik sortutako ondorioak norberaren eta gizartearen garapenerako (ikusi Ahalduntze digitala kapitulu honetan).

### 6.1. Ikuspuntu kontzeptuala: e-inklusioa eta e-partaidetza

Dagoeneko 2005. urtean, Batzordeak Kontseiluari, Europako Legebiltzarrari, Europako Ekonomia eta Gizarte Batzordeari eta Eskualdeen Batzordeari emandako “Elkarrekin lan egitea, hobe lan egitea. Europar Batasunean gizartea babesteko eta gizarteratzeko politiken koordinazio irekirako esparru berria” izeneko jakinarazpenean, KMLren (EBko koordinazio-metodo irekia) sinplifikazioaren inguruan, honako helburuak proposatzen dira “*pobrezia eta bazterkeria erradikatzen laguntza erabakigarria*” eskaintzera bideratutako bere ekintzen esparruan<sup>6</sup>:

*4. Guztien gizarteratze aktiboa bermatzea lan-merkatuan parte hartzea sustatuz eta pertsona eta talde marjinauen artean pobrezia eta bazterkeriaren aurka borrokatuz.*

*5. Guztiok baliabide, eskubide eta oinarrizko gizarte zerbitzueterako sarbidea dugula bermatzea, gizartean parte hartu ahal izateko, aldi berean muturreko bazterkeriak bideratuz eta marjinaziora daramaten diskriminazio mota guztiei aurre eginez.*

*6. Inklusiorako politiken koordinazio egokia bermatzea eta gobernu maila guztiak eta dagozkion agenteak inplikatzeko, pobreak barne, eraginkorrak eta efizienteak izan daitezen, dagozkion politika publiko guztietan barneratu daitezen, hala nola, ekonomikoetan eta aurrekontuei buruzkoetan eta egitura-funtsaren programetan (bereziki, EGIF) eta genero ikuspegiaren barnera dezaten.*

Helburu horiek, 7 urte ondoren, indarrean jarraitzen dute eta, are gehiago, hamarkada honetarako “Europa 2020”

<sup>6</sup> COM/2005/0706 final. Negritak gureak dira.

izeneko Europako hazkunderako estrategiak *pobrezia eta gizarte bazterkeria egoeran edo arriskuan dauden pertsona kopurua 20 milioi gutxienez* murriztea (Espainiako helburua 1.% 400.000.1.500.000 bitartean kokatzen da) ezarri du haren helburuen artean.

Helburu horren inguruan EBk eta bere estatu kideek aurkaratu beharreko arriskuak bi *“gizartean eta lan merkatuan talde zaurkorrenen barneratze aktiboa sustatzea”* eta *“ezgaitasunen bat duten pertsonen, gutxiengo etnikoen, etorkinen eta bestelako talde zaurkorren diskriminazioa gainditzea eta gizarteratzea handitzea”* dira. Inklusioa (edo integrazioa) modu globalean bideratzen duten eronkak dira, hala eta guztiz ere, txosten honen helburuarekin duten lotura sakona dela-eta, IKTen bidezko inklusioa eta parte-hartzea aipatzen dira, IKTak desberdintasuneko elementutzat edo unean dauden desberdintasunen hazkunderaren bultzatzailetzat jo daitezkeelako baina, bereziki, pertsona guztiak berdintzen, barneratzen eta gizartean eta bizitza publikoan parte-hartzea errazten dutelako.

Horregatik, erreferente gisa Europako Agenda Digitala (EAD) hartu behar dugu erreferente gisa, hau da, ezagutzaren eta informazioaren gizartean erroka horiek gainditzeko laguntzean eta helarazteaz arduratzen dena.

EADk e-inklusioren alorreko ekintzen garapena eragozten duten eta *IKTak ustiatzeko egindako ahaleginak larriki ahultzen dituzten* hainbat oztupo identifikatzen ditu, besteak beste:

- **Hutsuneak alfabetatze eta gaitasun digitaletan**, herri-tar asko gizarte eta ekonomia digitaletik baztertzen ari dira baita IKTak erabiltzeko produktibitatearen igoeran izan dezakeen eragin bikoiztaile handia murrizten ere.
- **Gizarte erronkei aurre egiteko aukerak galtzea**, euro-parrei (eta, ondorioz, Europari) IKTen potentziala guztiz erabiltzea eragozten diena, herritarren zahartze prozesutik edo ezgaitasunen bat duten pertsonen gizarteratsetik, besteak beste, sortutako gizarte erronkei eraginkortasun gehiagorekin aurre egin ahal izateko.

Horregatik, bere ekintza-guneen artean kokatzen du, alde batetik, **“Alfabetatze, gaitze eta barneratze digitalak sustatzea”** (6. oinarria), aurrekariak edo gaitzea pertsonen autonomia eta emantzipazioari dagokionez IKTen potentzialera heltzeko hesi gisa eratu ez daitezkeen eta, bestetik, **“EBko gizarterako IKTak posible egiten dituzten onurak”** (7. oinarria) zabaltzea, herritarren zahartzeari, pazienteen autonomiari eta ezgaitasunen bat duten pertsonen barneratzeari dagokionez (besteak beste).

Biak bideratuta daude e-inklusioren (inklusio digitala) esparruan Europako politikaren helburu orokorrak lortzera, hau da, *IKTen erabileran etenak murriztera eta IKTen erabilera sustatzea bazterkeria gainditzeko eta jarduera ekonomikoa, enplegurako baldintzak, bizi-kalitatea, parte-hartzea eta gizarte-kohesioa hobetzeko*<sup>7</sup>.

*Batasunak eta estatu kideek beharrezkoak diren neurri guztiak hartu beharko dituzte herritar guztiak, baita gizarte egoera ahulenetan daudenak ere, gizarte digitaletan*

<sup>7</sup> E-inklusioren esparruko Europako Batzordearen politika, **Rigako Ministerio-Aitorpenaren** aitorpenarekin bat eginez (4. zk.).

*barneratzea lortzeko, Europa 2020 Estrategiaren eta Europar Batasuneko Funtzionamendurako Itunaren 9. artikulua-  
ren babesean*<sup>8</sup>.

**“E-inklusioa”** edo “inklusio digitala” terminoak, beraz, azaltzen du IKTek dakartzaten onura eta abantailetatik inor baztertzen ez dela (IKT inklusiboak) eta horien erabilerak inklusioko helburu zabalagoak lortzeko aukera eskaintzen duela. E-inklusioko, ondorioz, informazioaren gizartearen alderdi **guztietan** herritar **guztien** parte-hartzean jartzen du jomuga.

Izan ere, Europako Batzordearen 6. oinarri horren pean, gizarte egoera ahulean egon daitezkeen taldeek teknologia digitalak erabil ditzaten lortzera bideratutako hainbat ekintza proposatzen ditu, alfabetatze maila baxuagoak, diru-sarrera baxuak edo ezgaitasunen bat duten pertsona helduei bideratuta.

Talde horien ezaugarriak ez dira “gizarte egoera ahulean egon daitezkeen” talde gisa etiketatzeko elementu bat soilik, horrez gain, e-inklusioko aukeretan eragina duten aldagaiak dituzte. Dagoeneko azken *Europe’s Digital Competitiveness Report* delakoan (2010)<sup>9</sup> bazterketa digitalaren egoera baten atzean egon daitezkeen aldagaiak zeintzuk diren azaltzen dituzten gakoak eskaintzen dira: gizarte egoera ahuleko talde batekoa izatea (edo ez), pertsona helduak bereziki azpimarratuta, hezkuntza maila (baxua), diru-sarrera maila (baxua)...

Aldagai horiek, txostenaren emaitzak ikusita, inklusioko aukerak murrizten dituzte, horregatik, txostenak berak gizarte e-inklusioko bat lortzeko alde aurreko baldintza gisa azaltzen du eskumen digitalen sustapena (Europako Agenda Digitalaren 6. oinarria, Espainiako 2011-2015 Estrategiaren 3. ardatza –Aurreratu Plana– eta Euskadiko Agenda Digitalaren “Herritar Aktiboak” ekimena –AD@15<sup>10</sup>–).

IKTen erabilera eraginkorra egiteko beharrezkoak diren gaitasunak, ezagutzak eta abileziak edukitzea herritarren inklusio digitalerako oinarriko baldintza bada ere, azpiegiturak edukitzea edo irisgarritasun elektronikoa bezalako beste alderdi batzuk ez dira gutxiago. Hau da, IKTak erabiltzeko prestakuntza eta gaitasun pertsonalaz gain, azpiegitura hedapen egokia (bideratzen den edozein esparru estrategikoren<sup>11</sup> lehenetsunaren artean gaineratuta), informazioarako sarbide askea eta pertsonen ezaugarri ezberdinetara egokitutako edukiak eskuratzeko aukera beharrezkoak

<sup>8</sup> **Europako Batzorde Ekonomiko eta Sozialaren Irizpena**. Gaiak: «Batzordeak Europako Legebiltzarrari, Kontseiluari, Europako Ekonomia eta Gizarte Lantaldeari eta Eskualdeetako Lantaldeari emandako jakinarazpena: Administrazio Elektronikoi buruzko Europako Ekintza Plana 2011-2015 – IKTak erabiltzea herri administrazio adimenduna, jasangarria eta berritzailea sustatzeko» COM(2010) 743 final eta «Batzordeak Europako Legebiltzarrari, Kontseiluari, Europako Ekonomia eta Gizarte Lantaldeari eta Eskualdeetako Lantaldeari emandako jakinarazpena – Europako zerbitzu publikoen elkarrengarritasunerantz» COM(2010) 744 final.

<sup>9</sup> 4. kapituluak “elInclusion: regular internet use and skills among groups at risk of exclusion”, European Union, 2010.

<sup>10</sup> Plan horiei buruzko xehetasun gehiagorako, ikusi “Esparru estrategikoa eta arauzkoa” kapituluak txosten honetan bertan.

<sup>11</sup> EADren 4. oinarria “Very Fast Internet”; Avanza2 Planaren 1. ardatza “Infraestructuras” eta AD@15aren “Infoegiturak” ekimena.

dira. Horrela bada, maila politiko guztietatik **herritar guztiak** informazioaren gizartera heltzeko aukerak handitzera bideratutako ekintzak sustatzen eta garatzen dira.

Horren adierazle gisa ikus dezakegu Europar Batzordeko hainbat xedapen eta gomendio<sup>12</sup> daudela azpiegitura, gailu, produktu eta zerbitzuetara (e-administrazioetik e-bussinesera) heltzeko irisgarritasun edo berdintasunaren arloko ikuspuntu komunaren proposamenari dagokionez.

Zehazki, web-irisgarritasunerako jarraibideak betetzeari dagokionez, kontuan hartu beharra dago abantaila handia dela web edukietan sartzen den norbanakoarentzat zein euren webguneak estandar horien arabera garatzen dituzten erakundeentzat (edo enpresentzat) (informazio gehiagorako, ikusi W3Cren WAI<sup>13</sup>).

Hala bada, txosten berezi honetan ulertzen dugu inklusio digitalak berezko balioa duela, izan ere, herritarrek informazioaren gizaratean parte hartu ahal izatea bultzatzen du, norbanakoek gizaratean eta politikan sartzeko eta parte hartzeko dituzten baldintzak berdintzen ditu teknologien bidez, hau da, gizarte justiziaren printzipioak aplikatzeko oinarrian dago, eta ezagutzaren gizaratean ekitatearen bermatzaile gisa agertzen da.

*Inklusio digitala informazioaren eta komunikazioaren teknologietarako sarbidearen demokratizazioa da, guztion informazioaren gizaratean barnera gaitzen. Inklusio digitala denbora eta bere aukerak areagotzeko eguneroko errutina ere bada. Barneratu digitala ez da hizkuntza berria e-mailak elkarri trukatzeko bakarrik erabiltzen duena, hori mundu digitala da. Euskarri hori bere bizi-baldintzak hobetzeko erabiltzen duena eta teknologiak gizarte panazea gisa definitzen dituzten irizpideen aurrean jokabide kritikoa izan dezakeena baizik<sup>14</sup>.*

Hain zuzen ere, e-inklusioa partaidetzarako aurre-baldintza gisa eratzen delako<sup>15</sup> zehaztu behar dugu e-partaidetzaren zein kontzeptu jorratzen den txosten honetan.

Gobernantza inklusibo batek herritarren partaidetzaren sustapenean kokatzen du bere oinarria<sup>16</sup>. Herritarrek informazioarako eta zerbitzu publikoetarako sarbidea izan dezaten erraztu nahi da baina, aldi berean, orokorrean gizaratearen ongizatean zein norbanakoarengan eragina duten erabaki publikoak hartzean parte hartu ahal izatea.

E-partaidetzak, beraz, partaidetza hori sustatu eta bultzatzeko gobernuaren ekintza zein herritarrek hori egiteko duten

borondatea eta gaitasuna (haien e-inklusioa) barne hartzen ditu. G2C (Government to Citizen) zerbitzuetara mugatu behar ez den arren, kontuan hartu beharra dago **partaidetza** herritarren **eskubide bat dela**.

Zentzu horretan, nahikoa da horren inguruko araudia azaleatik aztertzea (ikusi “Arauzko esparrua” kapitulua) partaidetza eskubide hori testuinguru politiko ezberdinetan nola arautu den jakiteko. Horren bidez ondorioztatzen da, Etxebarria irakaslearen “*Derecho a la Participación*” artikuluan (*El Correo* eta *El Diario Vasco* 2011ko abenduaren 10ean argitaratuta) edo Arartekoaren **12/2011 Gomendioan** bezalaxe, biritza publikoan parte hartzeko –ordezkari publiko izateko edo ordezkari publikoak hautatzeko aukeraz gaindi– eskubidearen (edo betebeharraren) gaineko erregulazioa falta dela.

Txosten honetan ez dugu argituko zer puntutaraino partaidetza, orokorrean (“e”rik gabe), herritarren eskubidetza jo behar den. Baina aintzat izan behar dugu gobernuaren beharra dela herritar guztiek parte har dezaten sustatzea, hala nahi badute, eskubide hori erabili ahal izatea eta ez soilik gobernutik une bakoitzean ezartzen diren biritza publikoaren alderdi horietan (G2Cra itzuliz), baita, interes komunari bereziki erantzunez<sup>17</sup>, herritarrek gobernuaren ekimenak gaineratzea sustatzen dutenean, gobernuari egun arte jorratu ez diren jarduerak planteatzen dizkietenean, etab. (C2G –Citizen to Government– modalitatean jarrera aktiba hartuta).

*Tradizionalki, e-partaidetzaren inguruko ekimenak gobernuak hasi dituzte, baina azken urteetan, herritarrek edo herritarren talde antolatuek goraka doan kopurua eskaini dute.*

Berezko itzulpena Europe’s Digital Competitiveness Report (2010) delakoa oinarritzat hartuta<sup>18</sup>

Izan ere, Euskadiren kasuan, Arartekoak Eusko Jaurlaritzari egindako gomendioan dagoeneko eskatzen dio “(...) *gure autonomi erkidegoaren barruan arazo publikoetan herritarren parte-hartzea arautzen duen legea proposatu behar du. Arau horrek esparru juridiko propioa finkatu behar du eta pertsonak, norbanako gisa edo elkarte bidez, parte hartzeko duten eskubidea arautu behar du, gomendio honetan azaldutako printzipioak oinarri izanik*”. Partaidetza orokorrean hizpide badu ere, e-partaidetzara luzatu behar dugu, hau da, IKTek gobernuan eta gobernantzan barne hartutako prozesuetan parte hartzea bultzatu dezaten<sup>19</sup>.

<sup>12</sup> Adibidea:

- COM (2008) 804 final *Informazioaren gizarte irisgarritasun*.
- COM (2001) 0529 final *eEurope 2002: Webgune publikoen eta haien edukiaren irisgarritasuna*.

<sup>13</sup> Web Accessibility Initiative (WAI), bereziki **diseinu barneratzaile** bideratutako atala.

<sup>14</sup> **Wikipedia**: inclusión digital.

<sup>15</sup> MEMO/06/237 *Information and communication technology for an inclusive society – Frequently asked questions* izeneko agirian, hitzez hitz zera esaten da: *Easy access to (ICT) is a prerequisite for participation*.

<sup>16</sup> United Nations e-Government Development Database. UN Public Administration Programme. e-Participation [http://www2.unpan.org/egovkb/egovgovernment\\_overview/eparticipation.htm#](http://www2.unpan.org/egovkb/egovgovernment_overview/eparticipation.htm#).

<sup>17</sup> Bere jatorrian partaidetzarako eskubidearen adierazpen esparrua biritza politikora bere zentzu hertsienean mugatu bazen ere (Estatuaren egiturak eta alderdi politikoak), gaur egun badakigu gizarte zibilean euren erakunde bidez edota espontaneoki intentsitate handiko gizarte egoeretan, partaidetza publiko finakoak ere izan daitezkeela, baliagarriak ondasun publikoaren helburu horretan kokatzen direnean. Etxebarria, X. “*Derecho a la participación*” *El Correo* eta *El Diario Vasco* egunkarietan, 2011ko abenduaren 10ean.

<sup>18</sup> 5. kapitulua. “Online Public Services”. 1.5. atala. e-Government. e-Participation, European Union, 2010.

<sup>19</sup> **Wikipedia**: ICT supported participation in processes involved in government and governance, cit. en *Europe’s Digital Competitiveness Report* (2010).

Gobernuek e-pardaidetzaren alorrean goitik behera hasitako (2010ean) ekimenek herritarrek edo gizarte erakundeek hasitakoak baino arrakasta gutxiago izan dutela kontuan hartuta<sup>20</sup> Administrazio Elektronikoa buruzko Europako Ekintza Plana 2011-2015<sup>21</sup>, **Malmöko Ministro-adierazpenarekin** bat eginez, bere lehenetaz arloan “Erabiltzailearen gaitasuna” aipatzen du, hau da, *herritarrek, enpresek eta bestelako erakundeek tresna teknologiko berrien erabileraren bidez gizartearen proaktiboki jokatzeko duten ahalmena handitzea. Zerbitzu publikoen eraginkortasuna eta erabiltzaileen asebetetzea handitu daitezke horien itzaropenei hobe erantzuten bazaie eta horiek erabiltzaileen beharren inguruan eta posible den heinean haiekin lankidetzan diseinatzeko badira. Era berean, **herri administrazioek** informazio publikorako sarbide erraza eskaini beharko dute, gardentasuna hobetu eta **herritarren eta enpresen partaidetza eraginkorra bidertu politikak burutzeko prozesuan**<sup>22</sup>.*

Bestalde, Espainiako Gobernuak<sup>23</sup> 2015. urterako Espainian Administrazio elektronikorako estrategia ezartzeko beharra adierazi du, Europar Batasuneko Administrazio Elektronikorako 2011-2015 Ekintza Planetik sortutako konpromisoen babesean. Estrategia horren lehenetaz herri administrazio jasagarrian, gizarte produktiboa eta kohesionatua eta gizarte parte-hartzaile eta laguntzailean jartzeko dute arreta.

**Gizarte parte-hartzaile eta laguntzaile:** *Herritarrek eta enpresek Herri Administrazioekin duten lankidetzak indartzeak, gizarte-sareek eskaintzen dituzten komunikaziorako elementu berriak bultzatuz, berrerabilgarritasuna eta irisgarritasuna sustatuz, inoiz baino gehiago, gizarte parte-hartzaile eta laguntzaile baterantz eraman behar gaitu, administrazio ireki eta gardenago baterantz<sup>24</sup>.*

Izan ere, dagoeneko **Plan Avanza2** delakoaren 2022-2015 Estrategian (2010ean argitaratuta) “Gobernu Irekiaren eta eAdministrazioaren zerbitzuak garatzea” erronketako bat bezala azaltzen da (4. ardatza “eduki eta zerbitzu digitalak”) gobernu irekia *Herri Administrazioaren eta herritarren arteko interakzioarako estrategia berritzaile hartuta, haien arteko komunikabide eta harremana ezaugarri gisa ezarrita*. Hau da, gobernuaren eta herritarren arteko komunikazio etengabea eta zuzena eskaintzea edo, beste era batera esanda, *euren behar eta lehenetaz oinarritutako erabakiak hartu ahal izateko herritarren partaidetza bultzatu behar da eta horrek aldaketa kultural asko dakartza, baina baita erabiltzen diren komunikabideen aldaketak ere, elektronikoa izatera pasako baitira*. Azken finean, e-partaidetzaren bidea hastea.

<sup>20</sup> Europe’s Digital Competitiveness Report, European Union, 2010.

<sup>21</sup> COM (2010) 743. ICTak erabiltzea herri administrazio adimen-duna, jasagarria eta berritzailea sustatzeko.

<sup>22</sup> Negritak gureak dira.

<sup>23</sup> 2011ko irailaren 16an Estatuko Administrazio Orokorrean Administrazio elektronikoren egoerari buruz Ministroen Kontseiluari aurkeztutako txostenaren **laburpen exekutiboa**. Estrategia hori 2011ko abenduan Sevillan egindako “**Going Local II**” topaketan “e-Government and the Administration” sainan zehar aurkeztu zen.

<sup>24</sup> Ibídem.

## 6.2. Ikuspuntu teorikoa: etengabeko ahalduntze digitala

*E-inklusioa eta Euskadin herritarrek ICTen bitartez gizartearen eta eremu publikoan parte hartzea izenburuko txosten berezi honetan erabiltako ikuspuntua “ahalduntze digitalaren” (ICTak eskuratzea) eredu teorikotik abiatzen da. Horren arabera, herritar guztiak ustezko lau fase jorratzen dituen continuum batean kokatzen ditu prestakuntza teknikoaren eta Euskadiko herritarrek egiten duten teknologien eskuratzearen arabera.*

Horrela bada, eredu teoriko horretan herritar guztiak islatuta geratzen dira, informazioaren gizartetik baztertutakoak (e-barneratu gabekoak) edota ICTak gizartearen eta politikan guztiz parte hartzeko tresna gisa erabiltzen dituztenak (e-partaidetza). Horretarako, 4 fase ezberdineko eskala bat ezartzen da, modu eskematikoan, ondorengo ezaugarriak dituzten herritarrak taldekatzen dituztenak:

(14. irudia)

### Ahalduntze digitalaren bilakaeraren kontinuuma



**A. 0 fasea- Infobazterketa:** Ez dituzte tresna teknologikoak erabiltzen edo maila oso txikian egiten dute. Infobazterketa (edo e-bazterketa) fasean daude. Azpigitura teknologikoetarako sarbiderik edo horiek erabiltzeko ezagutzarik ez duten pertsonak dira, edo kanpokotzat jotzen dituzte, norberaren interesei inolako ekarpenik egiteko aukerarik gabekotzat.

**B. 1. fasea- Hasierako e-inklusioa:** Teknologien erabilera estandarrak egiten dituzte (komunikatzen dira, webaren bidez informazioa eskuratzen dute...). Kontsumitzaileen web 1.0 delakoari dagozkion erabileraren profila dira. Teknologia euren lanerako edo bizitzarako alderdi zehatz batzuetarako berariazko tresnatzat jotzen dituzte.

**C. 2. fasea- E-inklusioa:** Teknologia digitalaren erabilera aurreratuagoa egiten dute, ICTak eskuratu eta IGTen eraikuntzan modu aktiboago batean parte hartzen dute. ICTak erabiltzen dituzte eta onura handia lortzen dute haien bidez, euren potentzialaren zati handi bat erabiliz, prosumitzaileak dira, hau da, informazioaren

gizartean ekarpenak egiten dituzte berezko edukien bidez eraikiz eta lankidetzan, eta horretarako, ezinbestekoa da IKTen erabileran aurrera egitea eta euren beharrek lotzea. IKTek euren bizi-baldintzak hobetzen dituen elementu gisa duten potentzialaz jabetzen dira eta, gainera, euren gizarte-ahalduntzea bultzatzen dutela ikusten dute.

**D. 3. fasea- E-partaidetza:** Egin duten IKTen eskurazteaz baliatzen dira, euren ahalduntzea erabiltzen dute, tresna teknologikoen bidez, gizartean eta politikan aktiboki parte hartzeko. Azken finean, bizitza publikoan, euren udalerrinari, eskualdeari... buruzko erabakiak hartzean parte hartzeko duten eskubidea erabiltzen dute, proaktiboak izanda, prozesuak hasita (behetik gora), hasitako prozesuetan parte hartuta (goitik behera), etab.

Kontuan hartu beharra dago 0 fasea ezartzeak teknologien aprobetxamenduan –esparru pribatuan zein publikoan– bilakaera dagoela ulertzeari erantzuten diola eta, beraz, halakorik ez egoteak alde aurreko fasea (0) ezartzeko beharra sortzen du, fase horiek isla ditzan.


**OHARRA:** Azpimarratu beharra dago, proposatutako kontinuumean ez direla gaineratu teknologiarren erabileran edo sorreran aditu-maila dutenen inguruko alderdiak (*aplikazio eta tresnak sortzen, ezagutza eratzten, edukiak edo softwarea ekoizten... aktiboki parte hartzen dute*), eredu teoriko “teknologikoago” batean mailari aurreratuenari egokituko litzaiokeena. Nahita utzi da alde batera, kontuan hartuta, txosten honen testuinguruan, bilakaera IKTen erabilerak (edo halakorik ez egoteak) pertsonen bizi-kalitatean duen eraginetik jorratzea erabaki dela. Hala eta guztiz ere, pertsona horiek deskribatutako 3. fasean, E-partaidetzan, gaineratuta egongo lirake.

Fase ezberdinen arteko trantsizioan herritarrek batean edo bestean kokatzea edo “eten” egoera batean edo batzuetan (ondoren azalduko ditugu) kokatzea zehazten duten baldintzak daude. Aldagai horietako batzuk alde aurretik aipatu ditugu: adina, hezkuntza maila, lan-egoera (bereziki diru-sarrerari dagokienez), aniztasun funtzionala edo, baita generoa ere. Txosten honetan bertan gaineratzen den ondorengo azterketari dagokio zehazki zeintzuk diren eta horietako bakoitzaren inguruan euskal herritarren egoera zein den adieraztea. Ondorengo grafikoa horietako batzuek izan dezaketen eragina azaltzen da.

Aurreko irudietan ikus dezakegun moduan, faseen artean nolabaiteko gainjartzea dago, segun eta zein aldagai hartzen diren kontuan eredu teorikoa aplikatu bitartean. Horrela bada, fase baten barnean aldeak ezarri ahalko dira aldagai horien arabera (adina, hezkuntza maila...) baina baita erabileren maiztasuna, kalitatea eta motaren arabera ere; behar diren gaitasun digital ezberdinen (e-skills) arabera; erabilitako produktu edo zerbitzuen kopurua eta tipologiaren arabera; bilatutako helburuaren arabera edo, baita, IKTekiko egoeraren inguruko pertzepzioaren arabera ere.

(15. irudia)

### Faseetan kokatzea eragiten duten aldagaiak



Fase batean edo bestean egoteak herritarrek “eten digitaleko” egoeran kokatzen ditu, hau da, biztanleria bereko kideen arteko desberdintasun egoeran. Hori dela-eta, eten mota (edo maila) ezberdinak zehaztu behar dira<sup>25</sup> deskribatutako bilakaerarekin bat egingo dutenak. Ondoren zerrendatzen diren etenetako bakoitzak, argi denez, “maila gorenekoak” barne hartzen ditu:

- Sarbide-etena:** 0 faseko kokapenarekin loturikoa, informazioaren eta ezagutzaren gizartetik urruntze egoeran.
- Erabiler-etena:** 0 fasetik 1. faserako trantsizioarekin lotuta. Eten mota horretan, azpiegituren hedapen egoera izanda, euren gaitasun digitala areagotzen duten gaitasunak eskuratzeko aukerekin, IKTak erabiltzen ez dituzten edo soilik tresna estandarrekin eta egoera zehaztetan (pertsonalak zein profesionalak izan) erabiltzen dituzten pertsonak kokatzen dira.
- Eskurazte-etena:** bereziki 1. fasetik 2. faserara egindako aurrerapausoarekin lotuta. Eten mota horretan eskura dituzten teknologiak oraindik eskuratu ez dituztenak kokatzen dira. Tresna asko ezagutu eta egunero erabil ditzaketen arren, ez dira euren potentzial guztiaz baliatzen. Erabileraren instrumentala da, ez laguntzailea eta bereziki norbere kontsumora bideratutakoa.

<sup>25</sup> Txosten honetan zehar horietako bakoitzaren inguruan egindako azterlanaren emaitzak islatzen dira, Euskadiren egoera zehaztuta bakoitzaren karakterizazioari eta ahalduntze digitalerako prozesuan aurrera egiteko inhibitzaile gisa jarduten duten baldintzei dagokienez.

4. **Partaidetza-eten digitala:** 2. fasetik 3. faserako bilakaerarekin loturikoa, hau da, gobernu irekiak eta digitalki ahaldundutako gizarateak eskuratzeko aukera. Eten horretan kokatzen dira, IKTak eskuratuta egunero erabiltzen badituzte ere, IKTek eskaintzen duten gizarate ahaldundutazaren gaitasuna guztiz erabiltzen ez dutenak.

(16. irudia)

### Ahaldundutze digitalaren mailak eta etenak



Nolanahi ere, ahaldundutze digitalaren bilakaera gizarate justiziarako aliatu bat da eta hala erabili behar da, hau da, gizarteratzeko eta gizaratea sustatzeko prozesu handien laguntza gisa. Arreta berezia eskaini behar zaie gizarate arrisku edo gizarate bazterkeria egoeran dauden taldeei eta horretarako alde batera utzi behar dira alderdi teknologikora bideratutako ereduak, erabilera mota jakin batean dagoen pertsona kopuruarekin loturiko datu kuantitatiboetan oinarritzen direnak (erabilitako aplikazioen kopuruari eta aniztasunari edo erabilera maiztasunari dagokionez) eta pertsonen bizi-baldintzak eta bizi-kalitatea hobetzera bideratutako eruedetarantz jo behar dugu, bereziki pertsona horiek edozein motatako bazterkeria-arriskuan daudenean.

Beraz, aurrera egin behar dugu, herritarren beharrak eta interesak abiapuntu gisa hartzen dituzten ekintzak abian jartzeko oinarriak finkatu behar ditugu. Bertan, herritarrek diseinutik bertatik inplikaturik egongo dira, eguneroko bizitzaren alderdi ezberdinetan –enplegua, osasuna, gizarate zerbitzuak...– eragin errealeko gaitasun handia duten aukera berritzaileak garatzeko prozesu guztian parte hartuz. Gizarate inklusiboa eta, beraz, e-inklusiboa lortzean datza, herritar guztientzat baldintza berdinekin, herritar guztiak gaituta eta ahaldunduta egon daitezen euren erabakiak hartu ahal izateko abantaila horiek erabiltzeko moduari dagokionez, euren gizaratean duten partaidetzaren arabera (aktiboa, pasiboa edo “batzuetan bata besteetan bestea”, hau da, uneko informazioaren eta ezagutzaren gizaratean duten partaidetzaren arabera, IKTak hari dagokion elementua izanik).

## 7.

### Esparru estrategikoa

*E-inklusioa eta Euskadin herritarrek IKTen bitartez gizaratean eta eremu publikoan parte hartzea* izenburuko txosten bereziaren esparru estrategikoa kokatu nahi bada, Munduan, Europan, Espainian eta autonomia erkidegoan egindako garapen nagusiak berraztertu behar dira (tokiko erreferentziak ahaztu gabe), baita e-inklusioarekin eta e-partaidetzarekin loturiko esparru horietan burututako politikek eskaintzen dituzten zuzentzarauak ere.

Kapitulu horrek agiri nagusietan biek jasotzen duten tratamendua islatzen du, testuinguru ezberdinetan (mundu, Europa, nazio eta autonomia mailan) informazioaren gizaratearen esparruan erreferente estrategikotzat jotzen direnak.

#### 7.1. Nazioarteko esparru estrategikoa

Nazioarte mailan, txosten honen helburuei jarraiki, “Rigako Ministerio-Aitorpena” eta “Informazioaren Gizaratearen Munduko Goi-bilera” (oraindik ere indarrean daude) sinatzean hartutako konpromisoak, gomendioak eta zuzentzarauak aztertuta dira.

Aipatu beharra dago bi agiriak garai berekoak direla (2005-2006) eta, haien helburuak dagoeneko beteta egon beharko lirakeen arren, gaur egun, 2012 hasieran, ez dira guztiz lortu eta, horregatik, oraindik ere kontuan hartu behar dira sinatu zuten herrialdeek informazioaren gizaratearen alorrean edozein gobernu-ekintza burutzerakoan.

Bi agiriak txosten honetarako garrantzi berezia duten alderdiak jorratzen dituzte, **informazioaren gizarate inklusiboa** lortzeko loturiko konpromisoak.

E-partaidetzari dagokionez, txosten honetan azalduetako erreferentzia “E-gobernantzari buruzko Ministro-adierazpena” da, 2009an **Malmö** (Suedia) **garatutako e-gobernantzari buruzko 5. Ministro-biltzarren** esparruan hartutakoa.

#### 7.1.1. Informazioaren Gizarateari buruzko Munduko Goi-bilera (IGMG)

IGMGren bigarren faseko (Tunez, 2005) lanen emaitzetako bat *Tunezeko Konpromisoa*<sup>26</sup> izan zen, *personari zuzendutako, guztiei irekitako eta garapenera bideratutako Informazioaren Gizarate osatzeko* hartutako konpromisoak islatzen dituena.

Txosten honen helburuari dagokionez, aipamen berezia merezi du IGn herritar guztiak gaineratzea bermatzearekin loturiko konpromisoak hartuko direla, hau da, *IKTek eskain ditzaketen aukeren* (9. paragrafoa) onurak herritar guztiek lortzearen inguruko eta *informaziorako irisgarritasun unibertsala, nonahikoa, bidezkoa eta arrazoizkoa* (10. eta 18. paragrafoak) eragozten duten oztopoak kentzearen inguruko konpromisoak.

<sup>26</sup> Tunnis Commitment. 2005eko azaroaren 18ko WSIS-05/TU-NIS/DOC/7-E agiria. Gaztelaniako itzulpena <http://www.itu.int/wsis/docs2/tunis/off/7-es.html>.

Baina, zalantzarik gabe, IKTei justizia sozialaren inguruan eskaintzen zaien rola azpimarratu beharra dago, izan ere, gizarte eta ekonomia banaketan eta herrialde, eskualde eta norbanako aberatsen eta herrialde, eskualde eta norbanako pobreen ezberdintasunen –gizon eta emakumeen artekoak barne– hazkundera saihestu dezakete (13. paragrafoa); edo ezgaitasunenganako arreta bereziari dagokionez (...) guztiontzako aukera digitalak sortze aldera (...) (18. paragrafoa); (...) (20. paragrafoa); edo Informazioaren Gizartean emakumeen erabateko partaidetzak duen garrantzi handia (...) horren barnean giza-eskubideen barneratzea eta errespetua bermatzeko (23. paragrafoa).

**Partaidetzari** dagokionez (herritarrek eremu publikoan duen partaidetzarekiko berariazko erreferentziarik ez dagoen arren) azpimarratu beharko genuke 37. paragrafoak azaltzen duela maila guztietan parte hartu beharra dagoela IG herritar guztien onurarako izan dadin.

*Argi dugu gure helburuak partaidetza, lankidetzeta eta gobernu eta beste alde interesatuen, hau da, sektore pribatua, gizarte zibila eta nazioarteko erakundeen elkartasunarekin lor daitezkeela, eta maila guztietako kooperazioa eta nazioarteko elkartasuna ezinbestekoak direla Informazioaren Gizartean fruituak guztien onurarako izan daitezen.*

Gainera, IKTek herritarrek giza-ezagutzarako oinarriak handitzen eta trukatzeko (...) parte hartzeko eskaintzen dituzten aukerak azpimarratzen direla aipatu beharra dago, oinarri horiek Informazioaren Gizarte guztiz barneratzailea eta garapenera bideratutakoa eta aniztasun kulturala eta linguistikoa errespetatzen duen ezagutzaren ekonomia sortzeko oinarriak dira (11. paragrafoa); era berean, eskualde, nazio eta nazioarte mailan demokrazia, gizarte kohesioa, gobernantza ona eta zuzenbideko estatua sustatzeko tresna eraginkortzat (...) jotzen da (15. paragrafoa).

### 7.1.2. Rigako Ministro-adierazpena (2006)

Rigako Ministro-adierazpena Europako 34 herrialdek sinatu izanak **informazioaren gizarte barneratzailea eta oztoporik gabekoa sustatzeko** konpromiso irmoa azaltzen du; gizarte hori herritar guztientzat izango litzateke, ez soilik sarbidearen eta teknologien erabilerean ikuspuntutik, baita gizarte eta ekonomia inklusioa sustatzen duen tresna gisa ere.

Sinatze horrekin honako lehentasunei arreta eskaintzeko akordioa burutzen da:

- Nagusien beharrei (orokorrak eta lan arlokoak) arreta eskaintzea<sup>27</sup>.
- Eten digital geografikoa murriztea<sup>28</sup>.
- Irigarritasun elektronikoa eta erabilera erraztasuna hobetzea<sup>29</sup>.
- Alfabetatzea eta gaitasun digitalak areagotzea<sup>30</sup>.

<sup>27</sup> Address the needs of older workers and elderly people.

<sup>28</sup> Reduce geographical digital divides by (...).

<sup>29</sup> Enhance eAccessibility and usability by (...).

<sup>30</sup> Improve digital literacy and competences.

- Kultura aniztasuna sustatzea inklusioari dagokionez<sup>31</sup>.

- Gobernu elektroniko barneratzailea sustatzea<sup>32</sup>.

- Tresna egokiak mobilizatzea<sup>33</sup>.

Era berean, **bertan** jasotako helburuen<sup>34</sup> lorpenaren inguruko konpromisoa hartzen da.

- 2010erako Interneten erabilera dagoen etena erdira murriztea gizarte bazterkeria egoeran dauden taldeentzat, hala nola, nagusiak, ezgaitasunen bat dituen pertsonak eta langabezia daudenak.

- Banda zabalaren estaldura handitzea (hau da, banda zabaleko azpiegituraren eskuragarritasuna) Europan guxtienez % 90 2010ean.

- Webgune publiko guztiak 2010erako irigarriak izango direla bermatzea.

- Alfabetatze digitalen eta gaitasun digitalen inguruko ekin-tzak abian jartzea 2008rako.

- Irigarritasun elektronikoen esparruko estandarren eta ikuspuntu komunen inguruko gomendioak egitea 2007rako, 2010erako kontratazio publikoko prozesuetan derrigorrezkoak bihurtuz.

- E-irigarritasunaren esparruan legezko neurriak ezartzeko beharra ebaluatzea eta 2006ko ekainean komunikazio elektronikoko arautzen dituen esparruaren printzipioen berrikuspenaren irigarritasuneko baldintzak kontuan hartzea.

### 7.1.3. E-gobernantzari buruzko Ministro-adierazpena (MALMÖ 2009)

2009ko azaroan Malmö sinatutako *E-gobernantzari buruzko Ministro-adierazpenak* Europako kontinentean 34 herrialdek partekatutako ikuspuntua, lehentasun politikokoak eta helburuak jasotzen ditu.

*Ministerio adierazpenaren espiritua da e-gobernantza herri administrazioari atea irekitzeko eta herritarren eta dagozkien gobernuen arteko zubiak modu berrian eta berritzailean eraikitzeke erabiliko dela.*

Bertan, Europako herritarren eta enpresen itxaropena aitortzen da euren gobernuak irekiagoak, malguak eta laguntzaileak izan daitezen Europa guztian zerbitzu publikoak eskaintzerakoan. Horregatik, 2015erako lehentasunak zerbitzu eta tresnen garapeneraren inguruan zein e-gobernantza zerbitzuen bidez herritarrek eta enpresak ahalduzko aukera eskaintzen duten baldintza tekniko eta legalen ezarpenaren inguruan finkatzen ditu. E-gobernantza zerbitzu horiek diseinatzeko honakoak hartuko dira kontuan: erabilitzaileen beharrek, informazio publikorako irigarritasun handiagoa edo gardentasunaren indartzea; mugikortasuna irakasle, ikasle, eta abarren merkatu bakarrean EBko edozein partetan; eraginkortasunaren areagotzea administrazio elektronikoen erabilerean esker, antolamendu prozesuen hobekuntza eta ekonomia jasagarriaren sustapena.

<sup>31</sup> Promote cultural diversity in relation to inclusion by (...).

<sup>32</sup> Promote inclusive e-government by (...).

<sup>33</sup> Mobilise appropriate instruments by (...).

<sup>34</sup> *Internet for all: EU ministers commit to an inclusive and barrier-free information society*, Press Release IP/06/769.

Haren helburuen eta herri administrazioei emandako gomen-dioen artean, adierazpen horrek eskatzen du, alde batetik, beharrezkoa den administrazioarteko eta hirugarrenetik lankidetzara eta, bestetik, gardentasuna administrazio prozesuetan zein sektore publikoaren informazioa berrerabil-tzeko gaitasuna handitzea edo berrikuntza e-gobernantza zerbitzuetan lan egiteko moduaren zati integral gisa kon-sideratzea. Baita zerbitzuak garatzeko adierazpen irekiak erabiltzea ere, herritarren behar errealetan oinarrituta, betiere ingurunearen jasangarritasunaren ikuspuntutik.

## 7.2. Europar Batasuneko esparru estrategikoa

Europar Batasunaren testuinguruan, txosten honen hel-buruaren inguruan, informazioaren gizartearen esparruan Eu-ropako agiri nagusietatik igorritako lehenetsunak, helburuak, erronkak eta ildoak jorratzen dira.

Horrela bada, **“Europarako Agenda Digitala”, ICT - PSP Programa (ICT Policy Support Programme)** eta **“DAE Going Local”** ekimenaren azterketaren emaitzak azaltzen dira on-doren, txosten honi dagokionez eta gehien bat, Europako herritarren (enpresak, herri administrazioak eta gizarte zibilaz gain) e-inklusio mailan eragina izango duten kontuak jorra-tzen dituztenak.

E-partaidetzari dagokionez, aztertutako erreferentzia **“E-go-vernment Action Plan 2011-2015”** da, alde aurretik azaldu dugun **“E-gobernantzari buruzko Ministro-adierazpena (Mal-mö 2009)”** delakoaren oinarriaren gainean kokatutakoa.

### 7.2.1. Europako Agenda Digitala (EAD)

**“Europako Agenda Digitala” (EAD)** deituriko informazioaren gizartearen esparruko Europako estrategia hamarkada hone-tarako “Europa 2020” Europako hazkunderako strategiaren 7 ekimen adierazgarrietako bat da. Hori, gainerako ekimenak bezalaxe, Europako hazkunderaren eta enpleguaren motor-ztat jotzen da.

Agenda hori kontsulta publiko sakonen eta txosten asko-tako<sup>35</sup> ekarpenen bidez burutu da, Europako Batasuneko testuinguru guztirako helburuak eta funtsezko ekintzak pro-posatuz, 2010 ekimenaren (eta horren aurrekoei: eEuro-pe2005, eEurope 2001 eta eEurope) erreleboa hartuta, haren ondorengoa baita, eta premiaz hartu beharreko neurriekin, Europa modu adimendun, jasangarri eta barneratzailean hazi ahal izateko.

EADren helburua *informazioaren eta komunikazioaren tekno-logien (IKT) erabilera izan beharko duen funtzio ahaldunduna*

*definitzea da Europak bere nahiak 2020rako errealitate bihur-tu nahi baditu*<sup>36</sup>.

Arlo digitalean hazten ari diren gizarte eta ekonomiaranzko eraldaketak lortzeko esparrua (eta oinarria) ezartzen duten proposamenak dira. Horretarako, lehenik eta behin, 7 oz-toporik garrantzitsuenak identifikatzen dira, besteak beste, *alfabetatze eta gaitasun digitalean dauden hutsuneak edo gi-zarte erronkak aurrera eramateko aukerak galtzea*, azpiegitura falta, haien arteko elkarrengarritasuna edo sareekiko mesfidantza edo segurtasun gabeziarekin loturiko bestelako eragozpenez gain.

Alderdi arazotsu horiek oinarrian izanda, EADren funtsez-ko ekintzak egituratzen dira, “Europa 2020” delakoaren hiru hazkunde dimentsioen gainean eraginez (adimenduna<sup>37</sup>, ja-sangarria eta barneratzailea). Ekintza nagusien antolaketaren azpian dauden alderdi arazotsu horiek, jakinarazpenaren tes-tuak berak dienez (COM (2010) 245 final/2), honakoak dira:

(5. taula)

#### EADren ekintza nagusiak: arazoak eta justifikazioa

Araozak	Justifikazioa
<b>Merkatu digital dinamikoa bakarra</b>	Bada garaia merkatu bakar batek aro digitalaren abantailetara heltzeko aukera eskain dezan
<b>Elkarrengarritasuna eta arauak</b>	Benetako gizarte digitala sortzeko, IKT produktu eta zerbitzuen arteko elkarrengarritasun eraginikorra beharrezkoa da
<b>Konfiantza eta segurtasuna</b>	Europarrek ez dute bere gain hartuko konfiantza eskaintzen ez dien teknologia; aro digitala ez da ez “anai handia” ez “mendebalde basati zibernetikoa”
<b>Internetarako sarbide azkarra eta ultra-azkarra</b>	Internet oso azkarra behar dugu ekonomia indarrez haz dadin eta lanpostuak eta oparotasuna sor dezan, baita herritarrak nahi dituzten eduki eta zerbitzuetara heldu ahal direla bermatzeko ere
<b>Ikerketa eta berrikuntza</b>	Europak I+Gn gehiago inbertitu behar du eta gure ideiarik onenak merkatura heltzen direla bermatu
<b>Alfabetatze, gaitasun eta inklusio digitalak sustatzea</b>	Aro digitalak autonomia eta emantzipazioa adierazi behar du; aurrekariak edo gaitasuna ez dira ahalmen horretara heltzeko oztopo izan behar
<b>IKTak EBko gizartearentzat posible bihurtzen dituzten onurak</b>	Teknologiaren erabilera adimendunari eta informazioaren ustiatetari esker gizarteak dituen erronkei aurre egin ahal izango diegu, hala nola, aldaketa klimatikoari eta herritarren zahartzte prozesuari

E-inklusioaren inguruan, “Europarako Agenda Digitalak” **alfabetatze, gaitasun eta inklusio digitalak sustatzearekin** loturiko ekintzak abian jartzea proposatzen du, herritarrek, enplegarritasuna hobetzeaz gain, komunikabide digitalen erabilera *konfiantzaz eta bereizketaz ikasi, sortu, parte hartu*

<sup>35</sup> Agenda digitala kontsulta askotan oinarrituta dago eta, bereziki, 2009ko Lehiakortasun Digitalari buruzko Txostenaren ekarpenetan (COM 2009/390), 2009an batzordeak IKTetako etorkizuneko lehenetsunei buruz egindako kontsulta publikoan, 2009ko abenduko TTE Batzordearen ondorioetan, Europa 2020 kontsulta eta estrategian eta *ICT Industry Partnership Contribution to the Spanish Presidency Digital Europe Strategy* delakoan, 2015.eu-ri buruzko Europako Legebiltzarraren ekimenez egindako txostenean eta GRanadan 2010eko apirillean egindako ministro-bilera informalean adostutako adierazpenean.

<sup>36</sup> BATZORDEAK EUROPAKO PARLAMENTUARI, KONTSEILUARI, EUROPAKO EKONOMIA ETA GIZARTE LANTALDEARI ETA ESKUALDEEN LANTALDEARI EGINDAKO KOMUNIKAZIOA “Europako Agenda Digitala” (COM(2010) 245 final/2).

<sup>37</sup> Hala eta guztiz ere, aipatu beharra dago EADri buruzko informazioa (“Europa 2020” strategiaren web orrian) “hazkunde adimenduna” lehenetsunean kokatzen dela, beste alderdi batzuen artean, gizarte digitalaz arduratzen dena (informazioaren eta komunikazioaren teknologiak erabiltzea).



eta bideratu dezaten, baita zerbitzu digital barneratzaile, irisgarri eta erabilgarriak gaineratzea ere, herritar guztiek (euren ezaugarri bereizgarriak alde batera utzita) erabili eta goza ditzaten. Azken finean, eten digitala murriztean datza, *gizarte egoera ahuleko taldeetako kideek gizarte digitalean berdintasunez parte hartu dezaten (haientzako interes zuzeneko zerbitzuak barne, adibidez, ikasketa esparruetan, herri administrazioan edo lineako osasunean) eta zaurkortasun egoeratik atera daitezzen enplegagarritasuna handituz.*

Funtsezko ekintza horietako batzuk hauexek dira:

- Alfabetatzea eta gaitasun digitalak Europako Gizarte Funtzaren Araudirako (2014-2020) lehen tasun gisa proposatuko ditu<sup>38</sup>.
- IKTen erabiltzaileen eta profesionalen gaitasunak identifikatzeko eta ezagutzeko aukera eskaintzen duten tresnak garatuko ditu (...) <sup>39</sup>.
  - Gaitasun digitalen eta alfabetatze mediatikoaren adierazleak proposatuko ditu EB guztirako.
- Alfabetatze eta gaitasun digitalak “Prestakuntza berriak enplegu berrietarako” ekimen adierazgarriaren lehen tasuna bihurtuko ditu<sup>40</sup>.
- Emakume gazteen edo lanera itzultzen direnen partaidetza handiagoa sustatuko du IKTen lan-indarrean, weben, jolasetan oinarritutako ikasketa elektronikoa eta gizarte sareetan oinarritutako prestakuntza-baliabideak babestuz.
- Sektore publikoko webguneak (eta herritarrentzako oinarritzko zerbitzuak eskaintzen dituztenak) 2015erako guztiz irisgarriak izan daitezzen bermatzera bideratutako proposamenak aurkeztuko ditu.
  - Agenda digitalaren babesean hasitako legegintzaren berrikuspenean irisgarritasuna sistematikoki ebaluatuko du.
  - Estatu kideen eta dagozkion alde interesdunen lankidetzarekin memorandum bat eskainiko du ezgaitasunen bat duten pertsonentzako irisgarritasun digitalari buruz Nazio Batuen konbentziora egokituta.

Estatu kideei eskatuko die:

- Gaitasun eta alfabetatze digitalei buruzko epe luzeko politikak aplikatzea eta dagozkion ekimenak sustatzea ETEetarako eta talde zaurkorrenetarako.
- Gehienez ere 2011n telekomunikabideen esparruaren eta ikus-entzunezko bitartekoan zerbitzuei buruzko zuzendaritzaren ezgaitasunari buruzko xedapenak aplikatzea.
- Ikasketa elektronikoa nazio mailako politketan barneratzea hezkuntza eta prestakuntza modernizatzeke, ikasketen planak barne, eta ikasketaren emaitzak eta irakasle eta prestatzaileen garapena ebaluatzea.

Baterako ekintzari esker, **inklusio digitalaren** esparruan, honako helburuak lortzeko xedearekin:

- Interneten erabilera erregularra % 60tik % 75era handitzea 2015ean eta, talde zaurkorrenen artean, % 41etik % 60ra (erreferentzia-oinarria 2009ko zifrak dira).
- Internet inoiz erabili ez duten herritarren kopurua erdira murriztea 2015erako (% 15era arte) (erreferentzia-oinarria: 2009an 16 eta 74 urte bitarteko herritarren % 30ak ez zuten inoiz Internet erabili).

Hori bai, e-partaidetzak ez dauka berariazko aipamenik Europarako Agentzia Digitalean esparru publikoarekin lotuta, kontsulta publikoko prozesu baten pean jarri bada ere (eta oraindik ere prozesu horren pean dago); gauza bera gertatzen da Europako lehiakortasun digitalari buruzko txostenaren ondorioekin. Horiek dira i2010 estrategiaren lorpen nagusiak 2005 eta 2009 artean. Txosten horrek, EADren oinarrian dauden eta oraindik ere burutu beharreko erronken artean, zera aipatzen du:

*Europak agenda digital bat behar du sortzen doazen erronkei aurre egiteko, lehen mailako azpiegitura sortu eta Interneten ahalmena guztiz erabili hazkundearen motor gisa eta berrikuntza irekirako, sormenerako eta partaidetzarako oinarri gisa.*

*Partaidetza elektronikorako (e-partaidetza) prestakuntza-ekintzak azaltzen du teknologia berrien erabilera partaidetza publiko handiago batera eraman gaitzakeela, herritarrei euren iritzia entzuteko aukera eskaintzen duten tresna berriak eskainiz<sup>41</sup>.*

### 7.2.2. ICT Policy Support Programme (ICT PSP)

Egokia iruditzen zaigu, Europar Batasunaren testuinguruan, *ICT Policy Support Programme* (ICT PSP) gaineratzea, CIP (*Competitiveness and Innovation framework Programme*) delakoaren hiru programa espezifikotako bat 2007-2013. urteetarako. Horren helburua hazkunde adimenduna, jasangarria eta barneratzailea sustatzea da, eskuratzeko zabalagoa eta teknologia berritzaileen eta eduki digitalen erabilera hobia bizkortuz herritarren, gobernuen eta enpresen aldetik.

Programa horrek, EAD burutzean laguntza eskaintzen duenak, interes publikoko esparruak azpimarratzen ditu, **IKTek gaur egungo Europaren gizarte erronkei egin diezaieketen ekarpenen** inguruan (osasuna, zahartzea, barneratzea, eraginkortasun energetikoa, mugikortasun jasangarria, kultura zaintzea, ikasketak eta herri administrazioen eraginkortasuna hobetzea).

ICT PSP, gehien bat, enpresen, herri administrazioen eta beste agente ekonomiko eta sozialen garapenera bideratuta dagoen arren, txosten honetan gaineratu dugu, hedatu ondoren, garatutako eredu, aplikazio eta zerbitzuek herritarren erabileran, eskuratzeko eta partaidetzan dakarten balioarengatik.

<sup>38</sup> 10. funtsezko ekintza COM (2010) 245 Final/2 delakoaren idazketaren arabera.

<sup>39</sup> 11. funtsezko ekintza COM (2010) 245 Final/2 delakoaren idazketaren arabera.

<sup>40</sup> Bestelako ekintzak COM (2010) 245 Final/2 delakoaren idazketaren arabera.

<sup>41</sup> COM (2009) 360 Final Europako lehiakortasun digitalari buruzko txostena. i2010 strategiaren lorpen nagusiak 2005 eta 2009 bitartean. *“Integratzailea den, kalitate handiko zerbitzu publikoak eskaintzen dituen eta bizi-kalitatea sustatzen duen informazioaren gizartea”* xedearekin dagokionez (oinarria: “Herritar guztiek IKTen onurak lortzearen alde egitea”).

Une honetan, [2012rako Lan Programaren](#) zirriborroak 5 gaitan ezartzen du proposamen pilotuen deialdiaren jomuga (EADren gaineratutako funtsezko ekintzekin lerrotatuta). Ondoren, horietako bakoitzarentzako, txosten honen helburuarekin (e-inklusioa eta e-partaidetza) loturiko alderdiak azaltzen dira:

- **IKTak hiri adimendunentzat (smart cities):** IKTen rola mugikortasun adimendunentzat, webean oinarritutako aplikazio eta zerbitzuen belaunaldi berri baten garapenaz gain, irekitako plataformak eta estandarrak bultzatzen.
- **Eduki digitala, datuak irekitzea eta sormena:** eduki eta zerbitzu digitalen sorkuntza, ekoizpena eta hedapenaren sustapena, herritar guztiek Europako kultura baliabideetara heltzen direla bermatuz; baliabide kulturelek berrerabilpen sortzailearentzako eredu, aplikazio eta zerbitzu berritzaileekin probatuz, Sektore Publikoko Informazioa (SPI) formatu garden, eraginkor eta ez diskriminatzaileetan irekitzeko eta harmonizatze garrantzia azpimarratuz; eta **alfabetatze, gaitasun eta inklusio digitalaren sustapena** bultzatuz, hezkuntza modernizatze eLearninga nazio mailako hezkuntza sistemetan gaineratuz (zeharka).
- **IKTak osasunerako, zahartze onerako eta inklusiorako:** IKTek herritarren zahartze prozesu aktibo eta osasungarrian duten gaitasunari dagokionez, osasunaren sustapena eta prebentzioa, zaintza eta tratamendua, nagusien independentzia eta gizarteratzea sare eta komunitateak garatuz eta eraikiz, agenteek gizarteratzean duten gaitasuna edota telemedikuntza zerbitzuen garapena.
- **Gobernu eta zerbitzu publiko berritzaileak:** elkarreragingarritasunarekin lotuta, esparru publikoan IKTen bidez parte hartzeko egitura eta zerbitzuekiko erreferentziak bializ.
- E-zerbitzu fidagarriak eta bestelako ekintzak: herritar guztientzako banda zabala hedatzeari dagokionez, webean oinarritutako aplikazio eta zerbitzuen sustapena eta lineako ekonomia sustatzeko mehatxuak bideratzeko konponbide praktikoak garapena, bestalde, herritarren aldetik zerbitzuen erabileran segurtasun falta sortzen dutenak.

### 7.2.3. E-government Action Plan 2011-2015

Malmö E-gobernantzari buruzko Ministro-adierazpenaren oinarriaren gainean 2011-2015 tarterako EBko E-gobernantzako Ekintza Plana ezartzen da, EAD laguntzen eta osatzen duena, ezagutzen oinarritutako ekonomia jasangarri eta barneratzailearen sorkuntza babestuz.

Planaren lehentasunak honakoak dira:

- **Herritarren eta enpresen** ahalduntzea, 2015ean herritarren % 50 eta enpresen % 80 administrazio elektronikoa erabiltzea lortzeko, zerbitzu pertsonalizatuak garapena babesteko ekintzen bidez; lankidetzak eta ezagutza eta esperientzia trukea zerbitzu horiek garatzeko; sektore publikoko informazioaren berrerabilpenerako euskarri-mekanismo eta -tresnak garatzea eta herri administrazioaren gardentasuna, herritarrek eta enpresek politikan parte hartzearekin batera.

- **Merkatu bakarrean mugikortasuna indartze** sistemen elkarreragingarritasuna mugaz bestaldeko zerbitzuen eskaintza, praktika onen trukea zein zirkulazio askea egoteko aukera eskaintzen duten zerbitzu eta tresnen bidez.
- **Gobernu eta administrazioen eraginkortasuna** sustatzea, prozesuen bizkortzean eta eraldaketan (administrazio karga murriztea, autentifikazio bakarra, etab.) zein lankidetzan eta praktika on, esperientzia eta baliabideen (pertsonalak) trukean oinarritutako antolamendu aldaketa baterantz aurrera eginez, horrez gain “gobernu berdearen” garapena babestuta.
- E-gobernantza garatzeko beharrezkoak diren **aldez aurreko baldintzak** sortzea, estatu kideen arteko lankidetzak elektronikorako modu ziur eta eraginkorrean azpiegituren, zerbitzuen eta IKT aplikazioen garapen (berrikuntzatik), hedadura eta elkarreragingarritasun ekintzen bidez (irekitako zehaztapenen oinarrian) modu inklusiboan.

Inolako zalantzarik gabe, ekintza horien emaitzak (tresnak eta zerbitzuak) herritarren e-inklusiorako aukerak handitzeko oinarriak ezartzen dituzte, baina, bereziki, esparru publikoan e-partaidetzarako aukera. Argi denez, horrez gain, haien existentzia eta operatibo hedatu behar izan da eta, bereziki, herritarrek erabileran konfiantza maila onargarria lortu behar izan dute, eta beste alde batetik, gaitasuna beharko dute tresna eta zerbitzu horien erabilera eraginkorra burutzeko.

### 7.2.4. “Europako Agenda Digitala: Tokiko Ekintza”- DAE Going Local Exercise

“DAE Going Local Exercise” deiturikoa EAD Europar Batasuneko herrialde kide ezberdinetara eramaten duen ekimena da. Herritarren partaidetza ariketa garrantzitsua da, EAD lurralde ezberdinetan ezartzeko eta planifikatzeko egin beharrek jarraipena bideratzeko eta egiteko mekanismoak abian jartzen dituena.

Estatu kideetara bisitak eginez eta eztabaidak ezarrit (bitarteko sozialen erabilera handizalearekin) osatzen da, online komunitatea eratzeko eta mantentzeko. 2010. urtean zehar, bisitek Agenda Digitalari buruzko kontzientziazioa handitu zuten, 2011n Agenda herrialde bakoitzean ezartzeari buruzko informazioa bilatzean jarri zuten arreta.

2011ko ekitaldiko ebaluazio txostena eskuragarri ez dagoen arren, beharrezkotzat jotzen dugu 2010eko txostenaren hainbat ondorio kontuan hartzea<sup>42</sup>. Ariketa ondo hartua izan da, partaidetza askorekin, baina konpromiso aktiboa behar da EAD estatu kideen mailan etengabe aplikatzean, “partekatutako borondateaz” eta “ikusipuntu komunaz” gaindi. Bestalde, tokiko agenteek EADren jarraipen eta gainbegiratzeko jarraitua eskatzen dute eta eskatzen dute, hainbatetan, ez dela agenda guztia jorratuko, kontu espezifikoetan jarriko du arreta ondo definitutako helburu eta ekintzekin.

Hain da horrela, non Espainiaren kasuan eta 2011n eduki digitalen inguruan herrialdearen uneko egoera zein den aztertze antolatuta zen, e-gobernua, berrikuntza soziala eta espektroa eta toki eta nazio mailan esparru horietan beharrezkoak diren ekintzei eta garatutako ekimenei buruzko eztabaida.

<sup>42</sup> Report on the assessment of the Digital Agenda for Europe (DAE) Going Local Exercise. [Final Report, December 2010.](#)

### 7.2.5. Internet Governance (Council of Europe Strategy 2012-2015)

Europako Kontseiluak 2012ko martxoaren 15ean aurkeztuta, Internet Governance estrategia erabiltzaileen eskubideen babesa eta errespetua, zuzenbideko estatua eta sareko demokrazia lantzen ditu.

Estrategia Ministroen Batzordeak onartu zuen [Committee of Ministers 2011 Declaration on Internet Governance Principles](#) delakoari eta bere gomendioei jarraiki, eta barne hartzen duten alde guztiek ahaleginak batu ditzaten bultzatzen du Internet eremu irekia eta herritarrei zuzenduta izan dadin.

Bere % 40 jarduera-ildoren bidez, hainbat lehentasun azpimarratzen ditu, besteak beste:

- Adingabeak eta gazteak sarean babestea eta ahalduntzea.
- Internet ziurra (ziberkrimenaren aurkako borroka koordinatua eta lankidetzan).
- Unibertsaltasuna, integritatea, Interneten irekiera.
- Interneten zeregina handitzea eta demokrazia eta aniztasun kulturala sustatzea.
- Datuen babesa eta pribatutasuna.
- Interneten erabiltzaileen eskubide eta askatasunak areagotzea.

## 7.3. Nazio mailako esparru estrategikoa

### 7.3.1. Espainiako Agenda Digitala

Espainiako Gobernuak Espainiako Agenda Digitala (EAD) garatzea erabaki du, IKTen eta administrazio elektronikoaren esparruan ibilbide-orria ezartzeko erreferentzia esparru gisa. Era berean, 2013ko otsailaren 15eko Ministroen Kontseiluak onartutako agiri horrek zera lortu nahi du:

- Espainiako estrategia ezartzea Europako Agenda Digitalaren helburuak erdiesteko;
- IKTen politika publikoen eragina areagotzea ekoizpena eta lehiakortasuna hobetzeko;
- Espainiako ekonomia eta gizartea eraldatu eta modernizatzea herritarrek, enpresek eta administrazioek IKTen erabilera eraginkorra eta intentsiboa eginez.

Horretarako, Espainiako Agenda Digitala 6 helburu edo lanildo handiren inguruan egituratzen da:

- Sare eta zerbitzuen hedapena sustatzea konektibitate digitala bermatzeko.
- Ekonomia digitala garatzea Espainiako enpresaren hazkuntza, lehiakortasuna eta nazioartekotzerako.
- E-administrazioa hobetzea eta konponbide digitalak hartzea zerbitzu publikoen eskaintza eraginkorrerako.
- Esparru digitalarekiko konfiantza indartzea.
- Informazioaren teknologietan eta komunikazioetan I+G+B sistema bultzatzea.
- Inklusio eta alfabetatze digitala eta IKT profesional berrien prestakuntza sustatzea.

Espainiako Agenda Digitala [partaidetza-sistema](#) baten bidez eratu da, beste batzuetan erabilitakoekin alderatuz (hala

nola, [Espainiako Gobernuko Gardentasun Legearen](#) zirriborroa), herritarrei aukera eskaintzen die zirriborroaren neurriak komentatzeko, eta komentario horien erantzunak eta beste erabiltzaile batzuen komentarioak ikusteko.

EAD agiri horretan proposatutako neurrien artean, txosten berezi honetan jorratutako gaietarako interes berezikoak direnak, hauexek azpimarratu beharko genituzke:

- Sei hilabetetan (Espainiako Agenda Digitala indarrean sartzeaz geroztik) inklusio digitaleko estrategia 2013-2015 eratzeko, informazioaren gizartean talde zaurkorrenak eta Internet erabilera maila gutxiena dutenak gaineratzeko helburuarekin.
- Espainian Internetetarako irisgarritasuna handitzeko plana, bertan zera jasotzen da:
  - Administrazioen zerbitzu publiko digital guztiak irisgarriak direla eta nazioarteko irisgarritasun arauak betetzen dituztela bermatzea.
  - Irisgarritasunarekin loturiko arloak gaineratzea unibertsitateko prestakuntza-curriculumean eta IKT profesionalean.
  - Aniztasun funtzional motaren bat duten pertsonen Internetetarako sarbidea errazten dieten konponbideak gaineratu daitezkeen sustatzea.
- Alfabetatze digitalaren plana prestakuntza eta alfabetatze programak bultzatzen jarraitzeko, talde zaurkorrenen artean berezia jarrita.
- Gizarte zibilaren partaidetza sustatzea inklusio digitala lortzeko lankidetzaren publiko-pribatuko formulen bidez inklusio digitaleko programak eta proiektuak garatzeko, enpresek alor horretan erantzukizun sozial korporatiboko ekintzak garatu ditzaten.

### 7.3.2. Avanza2 Plana (2011-2015 Estrategia)

Avanza2 Planaren 2011-2015 Estrategia bere aurrekariak, *Avanza Planak (2006-2010)*<sup>43</sup> proposatutako helburuetako asko erdietsi ondoren onartu zen, ezagutzaren gizarte baterantz aurrera egiten jarraitzeko beharra estaltzeko asmoarekin. Bigarren etapa horrek, jarraipenezkoak, burutzen ari diren jarduerak mantentzen ditu eta aurreko planaren helburuak eguneratzen ditu gizartearen uneko erronketara egokitzeko.

Lehen fasean Espainiak Europar Batasunarekiko zuen atzerapena berreskuratzea bilatzen bazen, bereziki estaldura eta konektibitateari dagokionez, 2. faseak Espainia lehen postuetan kokatu nahi du IKT produktu eta zerbitzu aurreratuen garapen eta erabileran eta, horrez gain, gizarte ikuspuntua gaineratuko da, izan ere, Informazioaren Gizartea sustatzean pertsona guztiek aurrerapen teknologikoen onurak lortzea bilatzen da, edozein adin, genero, bizileku edo gaitasun fisiko, psikiko edo ekonomiko izanda ere. Horregatik, planaren egitura aldatu da (1. fasean) 4 jarduera-arlo orokorretik –herritar digitalak, ekonomia digitala, zerbitzu publiko digitalak eta testuinguru berri digitala– 5 jarduera-ardatz zehatzagoetara igarota –azpiegiturak, konfiantza eta segurtasuna, gaitasun

<sup>43</sup> Avanza Plana (2006-2010) Informazioaren Gizartea garatzeko eta Europarekin eta Komunitate eta Hiri Autonomoen artean bateratzeko.

teknologikoa, edukiak eta zerbitzu digitalak eta IKT sektorearen garapena, Europako ekimenen barnean (Europako Agenda Digitala) kokatutako gobernu-ekintzaren norabide berria islatzen dutenak.

Horretarako, 180 neurri baino gehiago proposatzen dira, ardatz ezberdinetan identifikatutako 34 erronken arabera antolatuta eta arauzko aldaketen proposamenera gehituta honako helburuak lortu nahi dituzte:

- 1.H.** Herri Administrazioetan IKT prozesu berritzaileak sustatzea.
- 2.H.** IKTak osasunean eta gizarte ongizatean zabaltzea.
- 3.H.** IKTak hezkuntza eta prestakuntza sisteman aplikatzen dadin sustatzea.
- 4.H.** Telekomunikazio-sareen gaitasuna eta hedapena hobetzea.
- 5.H.** Segurtasunaren kultura herritarren eta enpresen artean zabaltzea.
- 6.H.** Herritarren zerbitzu digitalen erabilera aurreratua areagotzea.
- 7.H.** Enpresan negoziarako IKT konponbideen erabilera hedatzea.
- 8.H.** IKT sektorearen teknologia gaitasunak garatzea.
- 9.H.** Eduki digitalen sektorea indartzea.
- 10.H.** IKT berdeak garatzea.

Proposatutako neurriak berrikusteko e-inklusioaren eta e-partaidetzaren inguruko garrantziaren ikuspuntutik, aipatu beharra dago eredu aldaketa horrek herritar guztiek (ezgaitasunen bat duten pertsonak eta helduagoak direnak –ETEz gain– gaineratzeko ahalegin berezia eginez) informazioaren gizartearen onurak jaso ditzaten lortzeko asmoa islatzen duela.

Izan ere, herritar guztiei telekomunikazio egokien azpiegiturak eskaini eta zabaltzeak (1. ardatza, “Azpiegiturak”) *eten digitala eta genero-etenaren aurka (eta infobazterkeria arriskuan dagoen talde batean egotetik sortutako beste edozeinen aurka) borrokatzeko aukera eskaintzen du, herritarrei zerbitzu elektronikoa aurreratuz eskaintzeko aukera (...).*

Era beran, **herritarren artean IKTekiko konfiantza handitzeak eta erabilgarritasunari eta segurtasunari buruz kontzientziatzeak** (2. ardatza, “konfiantza eta segurtasuna”, informazioa, produktuak eta mota guztietako zerbitzuak eskaintzeko bide horrekiko erabilgarritasunaren konfiantza handiagoa sustatuz, herritarren eskura jarritako teknologia eta zerbitzuen eskuratzeko handiagoa lortzen lagunduko du.

Bestalde, nabarmena da 3. ardatzean “gaitasun teknologikoa” gaineratutako neurriek herritarren e-inklusioa eta e-partaidetzarako aukeretan duten rola. **Gaitasuna** informazioaren gizartearen zutabeetako bat da, ezagutzarik, gaitasunik, ahalmen digitalik gabe herritarrek ezingo dituzte erabili euren esku jarritako tresnak. Horregatik, Avanza2 Planak bere aurrekontuaren zati handi bat herritarrei IKTen erabilerrari eta onespenerari dagokionez prestakuntza eskaintzen dieten ekintzen garapenera bideratu du (eta oraindik ere bideratzen du), baita zerbitzu digitalak erabilerrari dagokionez ere, bereziki bazterkeria digitalen arriskuan dauden herritarrei zuzenduta. Horrez gain, sarean genero berdintasuna sustatu da, generoaren eten digitala murrizten lagunduz.

4. ardatzari dagokionez, “eduki eta zerbitzu digitalak”, aipatu beharra dago oso garrantzitsua dela plan honen bidez eduki digitalen industria bultzatzea, *garatutako edukien irisgarritasuna bermatzeko* ahaleginak eginez; toki erakundeak babes-*tea* Irisgarritasunaren Legearen egokitzapen une honetan, *bazterkeria arriskuan dauden taldeetako herritarrek bazter-  
tzen ez direla bermatuz*; eta zerbitzu hobek, segurtasun gehiago eta herritarren partaidetzarako eskaerak kontuan hartzea; zerbitzu berriek (hezkuntza, osasunean...) irisgarritasun eta elkarreragingarritasun irizpideak bete behar izatea proposatzea; herri administrazioaren eraldaketa bultzatzea, gobernu ireki baten eredurantz bilakatuz. Horrek guztiak, zalantzarik gabe, aldaketa kultural handia dakar eta horretarako, *herri administrazioaren eta herritarren arteko elkarreragingerako estrategia berria* abian jarri behar da; *estrategia horren ezaugarria izango da komunikazio kanalak ezarriko direla eta haien arteko harreman zuzena egongo dela.*

Azkenik, 5. ardatzaren bidez, “IKT sektorearen garapen industriala”, *IKT produktu, prozesu, aplikazio, eduki eta zerbitzu berriak garatzea bilatzen da*, herritarren, enpresen, gizarte zibilaren, administrazio publikoen... eskura jarriko direnak.

## 7.4. Esparru estrategiko autonomikoa

**Euskadiko Agenda Digitala 2015 (AD@15), 2012ko uztailaren onartutakoa**, informazioaren gizartearen alorreko plan berriaren izendapena da. Plan horren bidez euskal gizarteak igoera kualitatiboa eman dezan lortu nahi da, erreferente bihurtu arte, eta horretarako IKTak ongizatearen eta bizi-kalitatearen hobekuntzaren zerbitzua jarri behar dira. Horregatik, Eusko Jaurlaritzak kontsulta publikoko prozesu zabala bideratu du herritar guztiei zuzenduta plana erakitze aldera.

Eusko Jaurlaritzaren **adierazpenen** arabera, plana burutzen ehunka herritarrek parte hartu dute, % 400 ideia baino gehiago bildu dira eta agenda digitalean jasotako 101 ekimen eta proiektutan zehaztu dira.

Iturri horiei jarraiki, Euskadiko Agenda Digitala 2015 abian jartzean, Eusko Jaurlaritzak estrategia baten ezarpenari hasiera emango lioke, euskal herritarrei, besteak beste, honako aukerak eskainiz:

- Euskadiko herrialde guztietan 30 Mbps baino gehiagotara nabigatzea, tarifa eskuragarriekin.
- IKTen bidez, Euskadiko erabaki sozial eta politikoetan aktiboki parte hartzea.
- Nonahi zerbitzu digital aurreratuen sorta zabala eskura izatea, abiadura handiko gailu mugikorren bidez.
- Euskal herri administrazioak kudeatzek dituen baliabideen helmuga modu gardenean ezagotzea.
- Internet bidez zerbitzuak erabiltzea eta eragiketarako egitea segurtasun maila oso altuekin.
- Mendekotasun egoeran dauden senideen bizi-kalitatea eta ongizatea nabarmenki hobetzea IKTen bidez, baita gaixo kronikoena ere.
- **Online** edozein kokapenetik informazio eta zerbitzu kopuru handi batera heltzea, eta herri administrazioarekin izapideak egitea eguneko 24 ordutan.
- Balio erantsi handiko eduki digital mota askotara heltzea.

Horretarako, Euskadiko Agenda Digitala 2015 4 esparru handiren inguruan egituratzen da (iturria: IREKIA):

- **Komunitate digitala:** helburua sarean erantzukizunez jarduten duten pertsonen osatutako biztanleria lortzea da, aukera berdintasunean, gaitasun teknologiko handiarekin. Hemen Metaposta bezalako proiektuak gaineratzen dira, Espainian aitzindaria dena.
- **E-enpresa:** helburua euskal enpresek, edozein tamainakoak izanda ere, euren lehiakortasuna eta ekoizpena handitzen dutela bermatzea da, belaunaldi berriko IKTei esker.
- **Zerbitzu digital aurreratu eta irisgarriak:** euskal herri administrazioak herritarrei eta enpresei eragin handiko zerbitzu publiko digital aurreratuak eskaini diezazkien.
- **Azpiegiturak:** herritarrek, enpresek eta euskal administrazioak zerbitzu digital aurreratuak eta abiadura ultra-azkarrekoak, segurtasun maila altuekin, prezio eskuragarriekin eta edozein lekutatik eskura dituztela bermatzeko. Horren adibide bat da pasa den astean gobernuaren, Kutxabanken eta lau eragileren artean sinatutako protokoloa.

Aldez aurretik, euskal gobernuak bere ekintza antolatu du **EIGP 2010** Euskadi Informazioaren Gizartean Planaren bidez. Horren euskarriek Avanza Planean edo Europako Agenda Digitalean azaldutako erronkekin bat egiten dute: konfiantza eta segurtasun digitala; azpiegituren elkarrengarritasuna; eta pertsona eta erakunde guztientzako gizarteratzea eta irisgarritasuna. Horretarako, hiru jarduereremutan lan egiten du, alde batetik, e-gaitasunen **ahalduntzea**, bestetik, **zerbitzu publiko** eta pribatu **aurreratu**en eskaintza eta, azkenik, euskarriko **infoegituren** sorrera eta garapena (plataformak, segurtasuna, estandarrak, egiturak eta gailuak).

*Nortasun propioa eta kohesionatua duen herrialdea, oso jantzita dauden, ingurumenarekiko errespetua duten eta informazioaren eta komunikazioaren baliabide teknologiko asko erabiliz beren lanbide-jarduerak, jarduera pertsonalak eta gizarte-arlokoak etengabe eraldatzeko gai diren pertsonen eta erakundeek —enpresa-arlokoak eta gizarte-arlokoak— osatzen dutena; honako hauek sustatu eta ahalbidetzen dituena: sarean lan egitea, jakintzarako sarbidea izatea eta jakintza hori sektore pribatuan nahiz publikoan parte hartuz aplikatzea, eta eragilean, gizartearen turismo baliabideen eta euskal kulturaren presentzia munduan; eta teknologia horiek berak euskarri dituzten zerbitzu publiko eta pribatu aurreratueterako sarbidea ematen duena, produktibitateari laguntzen diona eta bizi kalitate hobea izaten laguntzen duena.*

EIGP 2010aren ikuspegia

Bere ikuspegia lortzeko EIGPk 5 helmuga proposatzen ditu, haien hedapena proiektu ugari jasotzen dituzten 18 jardueraprogramak osatutako 5 ekimen abian jarriz gauzatu da eta horrez gain seigarren ekimen bat ere gaineratu beharra dago “agenda digital instituzionalak” baita planari berari buruzko ezarpen, jarraipen eta ebaluaziorako zazpigarren ekimen bat ere.

5 helburu horiek eta txosten honen helburuari jarraiki aplikatu beharreko dagozkion ekimenak honakoak dira:

**1. Herritar aktiboak:** herrialde kohesionatua eta bertako herritarrak adituak izango dira, bai eduki eta zerbitzu digital aurreratuak erabiltzeko, bai, bereziki, horiek sortzeari, garatzeari eta ongizate indibidualaren eta kolektiboaren zerbitzuan jartzeari dagokionez modu aktiboan lankidetzan jarduteko. Helburu horrekin jarduera programak garatzen dira (“Bizitza osoko ikaskuntza”, “2010eko ikastetxea”, “Nire etxea Interneten”, “Inklusioa” eta “Herritarren partaidetza”) eta horien emaitzen mende dago, inolako zalantzarik txosten honetan jasotako informazioa.

Kontuan hartu beharra dago alde aurretik adierazitako agiri estrategikoetan ez dela berariaz bideratu herritarrak gaitzera, herritarren partaidetzaren alorreko tresnak eskaintzera bideratutako ekintzen diseinua.

**2. Zerbitzu publiko digital aurreratuak.** Horien garapena 2008-2010eko Administrazio eta Gobernu Elektronikoen Plan Estrategikoarekin (AGEPE) eta 2006-2009ko Informatika eta Telekomunikazio Planarekin (ITP) lankidetzan egingo da. Administrazioa digitalizatzeko prozesu horretan, EIGPk gizarte ikuspegia eskaintzen du garapenerako printzipioak ezarriz, bereziki bizi-kalitatea areagotzeko herritarrekiko orientazioan.

**3. Infoegiturak:** herritarrak, enpresak eta euskal administrazioak IGk euren esku jartzen dituen zerbitzu eta tresnak eskuratu ditzaten sustatzea, edozein lekutan egonda ere, bide eta gailu ugariaren bidez, betiere segurtasun maila altuekin. Hori guztia aukera berdintasunaren, diskriminazio ezaren eta irisgarritasun unibertsalaren printzipioei jarraiki, infoegituren diseinutik bertatik.

Aipatu beharra dago **Enpresa berri-zailearen** ekimena, euskal enpresek IKTak sakonki eta modu hedakorrean erabil ditzaten, izan ere, euren lankidetzak eta gaitasunaren hazkundeak produktu eta zerbitzu berri-zaileak garatu ahalko lituzkete euskal herritarrek horien onura lortzeko.

Azkenik, **Euskadi sarean ekimenak** Euskararen eta euskal kulturaren presentzia aberatsa, dinamikoa eta etengabea mantendu nahi du Interneten eta baliabide digitaletan eta, bereziki kultura eta turismoan eskumena duten administrazioak eta kulturarekin loturiko fundazio, elkarte eta bestelako erakundeak inplikatzeko baditu ere, herritarrak barne hartzen ditu, bereziki web 2.0ko zerbitzuek herritar guztien artean “Euskadi sarean” marka sustatzeko eskaintzen duten ahalmenari dagokionez.

Aipatzekoa da Euskal Autonomia Erkidegoko testuinguruan, “2009-2013 epeko IX. Legegintzaldiko Gobernuaren Egitasmo eta Jarduera Esanguratsuen Egutegia” onartzeko **erabakiaren** garrantzia *Gobernuak herritarren partaidetzarako irekiera Egitasmo eta Jarduera esanguratsuak gauzatzeko, izapidetzeko, onartzeko, jarraitzeko eta ebaluatzeko prozeduran* gaineratu beharreko oinarriko printzipioen artean gaineratzeko (gardentasuna, jarraipena eta ebaluazioarekin batera). Horretarako, Eusko Jaurlaritzako Koordinazioko Idazkaritza Orokorrek **Sailek Gobernu-planak egiteko orientabideak** agiria burutu zuen.

8.

Sarbide-eten digitala

Sarbide-eten digitala IKTetarako sarbidearen arabera sortutako desberdintasunei buruz hitz egiteko sortutako terminoa da.

Erabilera-etenarekin batera, gehien aztertu eta dokumentatutako eten digitalaren ertzetako bat da. Gobernu eta erakundeek hainbat urte daramatzate ahalegin handiak egiten azterlan ereduak eta adierazle estatistikoak garatzeko herritarrek IKTetarako duten sarbide-mailari buruzko datu fidagarriak eskuratzeko aldera, horrela bada, beste lurraldeekiko azterketa konparatiboa egin daiteke eta urteetan zehar izandako bilakaera-azterketa burutu.

Une honetan ia gaudituta dagoen etena dela uste da, izan ere, IKT azpiegituren hedapena eta herritarren ekipamendu teknologikoa nabarmenki handitu da azken urteetan.

Onarpen hori egitea (sarbide-etena gaintzea) erraza da, izan ere, une honetan interesa bereziki tresna berrietan dago, IKTen erabilera berrietan. Sarbide-eten digitala kontuan ez hartzea edo gaudituzat jotzea, berriz, akats oso larria izan daiteke.

Herrialde garatueta ia gobernu guztiek e-administrazioari, gobernu irekiari eta e-partaidetzari buruz eta IKTek euren ekonomia eta gizarteak garatzeko dituzten ahalmen handiari buruz hitz egiten duten une honetan, ezin ditugu alde batera utzi adibide gisa gure arreta deitzeko balio behar duten hainbat datu:

Europako familien % 30ak (16 eta 74 urte bitarteko gutxienez pertsona batekin) ez du Internetarako konexiorik<sup>44</sup>.

Euskadiren kasuan kopuru hori % 34ra igotzen da (Internetarako konexiorik ez duten euskal familiak, 16 eta 74 urte bitarteko kide batekin gutxienez)<sup>45</sup>.

Ehuneko % 73,4ra igotzen da Euskadin gutxienez 65 eta 74 urte bitarteko pertsona bat duten familietan.

Kapitulu honen helburu nagusia bi galdera esanguratsuri erantzuna ematea da “nortzuk dira sarbide-eten digitala bereziki pairatzen dutenak?” eta “zer oztopo edo eragozpen dituzte IKTetara heltzeko?”.

Horretarako, egoeraren azterketa laburra egingo dugu, irudi finko gisa, Euskadiko IKT azpiegitura eta ekipamendu eskuragarritasunaren inguruan.

<sup>44</sup> Iturria: Digital Agenda Scoreboard [http://ec.europa.eu/information\\_society/digital-agenda/scoreboard/graphs/index\\_en.htm](http://ec.europa.eu/information_society/digital-agenda/scoreboard/graphs/index_en.htm). 2011ko abenduan egindako kontsulta, UE27 batez besterako.





<sup>45</sup> Iturria: Eustat, Informazioaren Gizarteari buruzko Inkesta. Familiak (IGI-F).

8.1. Euskadiko IKT azpiegitura eta ekipamenduaren ikuspegi orokorra

IKTetarako sarbidean demokratizazioa bermatzeko oinarriko zutabeetako bat azpiegitura teknologikoen hedapena da.

(6. taula)

Telefonia finkoa

TELEFONIA FINKOA			
		Zerbitzuan dauden linea kop. guztira	Lineak/100 bizt.
	Araba/Álava	152.193	48
	Gipuzkoa	345.988	48,9
	Bizkaia	564.897	49
	Espainia	20.205.506	43





Iturria: CMT, Informe Provincias, 2011ko abendua.

Hiru lurralde historikoek estatuko batez bestekoa baino **telefonía finkoko barneratze** tasa altuagoa dute. CMTren datuen arabera, Euskadik telefonia finkoko 1.063.078 linea ditu zerbitzuan, hau da, Espainian zerbitzuan dauden linea guztien % 5,26.

**Telefonia mugikorraren barneratze**ari dagokionez, Bizkaia eta Gipuzkoako lurralde historikoek estatuko batez bestekoarekin guztiz bat egiten dute 100 biztanle bakoitzeko ordaindu ondoko telefonia mugikorrekoko linea kopuruari dagokionez.

(7. taula)

Telefonia mugikorra

TELEFONIA MUGIKORRA			
		Ordaindu ondoko linea mugikor kop. guztira	Lineak/100 bizt.
	Araba/Álava	216.633	68,3
	Gipuzkoa	472.144	66,8
	Bizkaia	771.674	66,9
	Espainia	31.460.633	66,9





Iturria: CMT, Informe Provincias, 2011ko abendua.

Arabak, 100 biztanle bakoitzeko 68,3 lineako barneratze tasarekin, Euskadiko eta estatuko batez bestekoaren gainetik kokatzen da. 1.460.451 linea mugikorrek, Euskadik Espainian erregistratutako ordaindu ondoko linea mugikor guztien % 4,64 biltzen ditu.

Euskadin dauden **telefono publikoen eskuragarritasuna** 1.695 telefono publikora heltzen da, hau da, 1.000 biztanle bakoitzeko telefono publiko 1eko barneratze-tasa, gutxi gorabehera. Hiru lurralde historikoek erregistratutako tasa, kasu honetan, estatuko batez bestekoa baino baxuagoa da.

(8. taula)

**Telefono publikoak**





TELEFONO PUBLIKOAK			
		Telefono publiko kop.	Telefono publikoak/ 1.000 bizt.
	Araba/Álava	273	0,9
	Gipuzkoa	580	0,8
	Bizkaia	842	0,7
	Espainia	54.297	1,2

Iturria: CMT, Informe Provincias, 2011ko abendua.

Euskadi ere estatuaren batez bestekoa baino gorago dago **abiadura handiko Internetarako konektibitateari** dagokionez. Banda zabaleko 526.424 linearekin (Espainiako banda zabaleko linea guztien % 5,03) hiru lurralde historikoetan barneratze-tasa (banda zabaleko lineak 100 biztanle bakoitzeko) oso antzekoak lortzen ditu eta Espainiako batez bestekoa baino handiagoak.

(9. taula)





**Banda zabala Euskadin**

BANDA ZABALA			
		BZ lineak guztira	BZ lineak/ 100 bizt.
	Araba/Álava	76.424	24,1
	Gipuzkoa	174.161	24,6
	Bizkaia	275.839	23,9
	Espainia	10.464.790	22,3

Iturria: CMT, Informe Provincias, 2011ko abendua.

(10. taula)

**Deien banaguneak**

DEIEN BANAGUNEAK					
		2G telefonia mugikorreko banagune kop.	%/ Espainian guztira	3G telefonia mugikorreko banagune kop.	%/ Espainian guztira
	Araba/Álava	396	0,7	257	0,7
	Gipuzkoa	636	1,2	433	1,3
	Bizkaia	1.155	2,2	886	2,6
	Espainia	53.221	100	34.324	100

Iturria: CMT, Informe Provincias, 2011ko abendua.

Euskadin Internet mugikorreko estaldura eskaintzeko telekomunikabideen azpiegituren eskuragarritasuna 2G telefonia

mugikorreko (ahots eta datu igorpen mantsoa) 2.187 banagunetan eta 3G teknologiko (datuak eta ahotsa abiadura handian igortzeko hirugarren belaunaldiko teknologia) 1.567 banagunetan zehazten da. Kopuru horiek esan nahi dute Euskadi Espainiako 2G teknologiko banaguneeen % 4,11 biltzen duela eta 3G teknologiko banaguneeen % 4,59.

Aztertutako datuetan antzeman daitekeen moduan, Euskadiko oinarrizko teknologien barneratze-tasak estatuko batez bestekoak baino altuagoak dira. Errealitate horrekin batera Internetarako konexio-azpiegitura garrantzitsua dago (finkoa zein mugikorra), a priori, lurraldean sarerako sarbidearen eskuragarritasuna bermatzen duena.

Datu horien aurrean, saihestezina dirudien galdera sortzen da: benetan demokratizatuta al dago Internetarako sarbidea? Sarbide-etena sortzen al da, azpiegituren ikuspuntutik, landa esparruan?

Erantzunak aurkitzeko galdera horren erantzunera hurbiltzen gaituen adierazle batera jotzen dugu. Datua kasu honetan EINek eskaintzen digu<sup>46</sup>, izan ere, etxeetako IKT ekipamenduan esparruan ikerketa-ildoetako bat "herritarrek Internetik ez izateko arrazoiak" dira.

Estatistikak dio Internetarako konexiorik ez duten euskal etxeetako % 0,3k bakarrik zonaldean estaldurarik ez izatearekin lotzen dutela. Datu hori bereziki nabarmena da, izan ere, estatuko batez bestekoa % 3koa da. Horrek esan nahi du, EINen etxeetako IKTei buruzko inkestak azaltzen duen moduan, Euskadi ez duela telekomunikabideen oinarrizko azpiegituretarako, hala nola, Internetarako, sarbidearen eskuragarritasun arazorik egoitza zonaldearen arabera.

## 8.2. IKT ekipamendua. Euskadiko uneko egoeraren erradiografia laburra

Euskadin dagoen IKTetarako sarbidea ikuspegi barneratzaile batetik aztertzeko ahaleginean, Euskadiko telekomunikabideen azpiegiturei buruzko aurreko azterketa euskal familiek duten IKT ekipamenduari buruzko erradiografia labur batekin osatzen da. Horretarako, Euskal Estatistika Erakundeak (Eustat) eskaintako Informazioaren Gizarteari buruzko Inkestaren IGI-Familiakdatu estatistikoetan oinarritzen gara.


Inkestek azaltzen digutenez, une honetan, euskal familien % 72k (16 eta 74 urte bitarteko kide batekin, gutxienez) ordenagailua dauka etxean eta % 65,8k Internetarako konexioa.

Lurralde historikoen arabera, Gipuzkoa Euskal Autonomia Erkidegoaren batez bestekotik gorak okatzen da, bai ordenagailuaren bai Interneten eskuragarritasunari dagokionez. Bizkaia Euskadiko batez bestekoarekin bat egiten du eta Araba beste bi lurralde historikoenak baino zertxobait beherago dauden balioak ditu.

<sup>46</sup> Iturria: EIN, Etxeetako IKT ekipamendua eta erabilerari buruzko inkesta, 2011.

(17. irudia)

**Ordenagailua, Internet eta telefono mugikorra Euskadiko familietan (16 eta 74 urte bitarteko kide batekin, gutxienez) 2011n, lurraldeka (%)**



Guk eginda Eustaten datuei jarraiki.

Internetera konektatzeko hautatutako teknologia motari dagokionez, Euskadiko familien % 41ak (16 eta 74 urte bitarteko kide batekin, gutxienez) ADSLa aukeratzen du, % 20ak berriz kable bidezko konexioa kontratatzen du (zuntz optikoa).


Telefono mugikorra Euskadiko familietan presentzia gehien duen teknologietako bat da. Horrela bada, familien % 92,6k telefono mugikorra dauka. Kasu honetan, Bizkaia beste bi lurralde historikoen aurretik kokatzen da, Euskadiko batez bestekoa baino portzentaje-puntu bat gorago.

IKT ekipamenduen sorta irekitzen, telebista (% 99,6), irrata (% 89) eta telefono finkoa (% 89,6) telefono mugikorrak gain Euskadiko familietan 2011n zehar presentzia gehien duten beste ekipamendu batzuk dira.

Era berean, datuek berresten dute ordenagailu eramangarriek (% 47,3) gutxika, presentzia gehiago dutela Euskadiko familietan mahai gaineko ordenagailuek edo PCek baino (% 46,6).

(18. irudia)

**IKT ekipamendua Euskadiko familietan (16 eta 74 urte bitarteko kide batekin, gutxienez) 2011n (%)**



Guk eginda Eustaten datuei jarraiki.

**8.2.1. IKT ekipamenduen bilakaera familietan. Digitalki helduz doan gizartea**

Euskadiko familien IKT ekipamenduen azterketan nahitaez egin beharreko ikuspuntua azken urte hauetan adierazle nagusiek izan duten bilakaeraren azterketa da.

Datu horiei esker egiazta dezakegu urtez urte ordenagailua, Internet edo telefono mugikorra bezalako gailu eta oinarri teknologien ekipamendua handituz joan dela.

Ondoren azaltzen den grafikoak nahiko argi islatzen du nola joan den bilakaera hori. Duela denbora gehiago gure bizitzetan dauden teknologiek, hala nola, ordenagailuak eta telefono mugikorrak, hazkunde jarraitua baina neurritzakoa izan dute.


Horrela bada, 2006an Euskadin familien % 59,4k (16 eta 74 urte bitarteko kide batekin, gutxienez) etxean ordenagailua zuen; kopuru hori % 72raino igo da 2011n. Horrek esan nahi du 12,6 portzentaje-puntu igoera azken 5 urtetan.



Telefono mugikorraren kasuan, 2006an gailu hori familien %90,9tan zegoen (16 eta 74 urte bitarteko kide batekin, gutxienez). Azken urteetan bere presentzia 5,3 portzentaje-puntu handitu da, telefono mugikorra duten familien ehunekoak %92,6raino igoz.

(19. irudia)

### Familien IKT ekipamenduen bilakaera (16 eta 74 urte bitarteko kide batekin, gutxienez)



Guk eginda Eustaten datuei jarraiki.

Baina, zalantzarik gabe, gure etxeetan presentzia nabarmenki irabazi duen teknologia Internet da. 2006. urtean Euskadiko familien %45,6k (16 eta 74 urte bitarteko kide batekin, gutxienez) Interneterako konexioa zuten euren etxeetan, 2008. urtean, berriz, zifra horrek 10 portzentaje-puntu hazkundea pairatu zuen (%55,9). 2011n familien %65,8k Interneterako konexioa dauka bere etxebizitzetan. Horrek esan nahi du 20,2 portzentaje-puntu igoera azken 5 urtetan.

Halako zerbait gertatzen da Internetera konektatzeko erabiliko teknologia motarekin. 2006an familien %19,7k ADSLa eta %14k zuntz optikoa aukeratzen zuten bitartean, 2011n ehuneko horiek nabarmenki handitu dira. Horrela bada, teknologia horien bidez konektatzen diren familien (16 eta 74 urte bitarteko kide batekin, gutxienez) ehunekoak %41 eta %20 dira, hurrenez hurren.

Gure ikuspuntuak, Euskadiko eten digitalen azterketarantz bideratuta, datu horrek eskaintzen duen irakurketa bikoitza egitera behartzen gaitu. 16 eta 74 urte bitarteko kideren bat, gutxienez, duten Euskadiko familien heren batek (%34,2) ez du Interneterako sarbiderik.

Zer ezkututzen da “falta” horien atzean? Nortzuk dira maiz datu estatistiko batean hartzen ditugun eta infobaztertu ize-narekin edo bazterkeria digitaleko egoeran dauden pertsona gisa ezagutzen ditugun horiek?

Zentzu horretan, [Europako Agenda Digitalak](#) (informazioaren gizartearen garapen-alorrean Europako estrategia esparruaren erreferentzia gorena) zera dio:


“Kasu askotan, egoera hori erabiltzailearen gaitasun faltaren ondorio da, hala nola, alfabetatze digital edo mediatiko faltaren ondorio, ez soilik enplegarritasunerako, baita komunikabide digitalen erabilera konfiantzaz eta bereizketaz ikasteko, sortzeko, parte hartzeko eta bideratzeko. Irisgarritasunak eta erabilgarritasunak arazoak sortzen dituzte ezgaitasunen bat duten europarrentzat. Eten digitala libratzea lagungarria izan daiteke gizarte egoera ahuleko taldeetako kideek gizarte digitalean berdintasunez parte hartu dezaten (haien zuzeneko zerbitzuak barne, adibidez, ikasketa esparruetan, herri administrazioan edo lineako osasunean) eta zaurkortasun egoeratik atera daitezkeen enplegarritasuna handituz. Gaitasun digitala, beraz, ezagutzen oinarritutako gizarte bateko kideentzako oinarritzakoak diren funtsezko zortzi gaitasunetako bat da”.

**Hitz horietatik argi eta garbi ondoriozta dezakegu IKTen erabileraren garrantzia, bereziki zaurkorrenak diren talde, gizarte-talde eta gutxiengo etnikoei arreta berezia jarri-ta.** Rigako Ministro-adierazpenaren espirtua berreskuratuz, bertan, IKTen aldeko apustu irmoa egiten baitzen justizia sozialaren aldeko lanerako tresna gisa.

Bestalde, IKTen erabilerara gaineratzen den masa kritikoa handituz doan heinean eta haien erabilerara loturiko zerbitzu eta aukera berriak sortzen diren heinean, IKTak euren egunerokotasunean gaineratzen duten pertsonen eta horietarako sarbiderik ere ez dutenen arteko *gapa* handitzen da.

(20. irudia)

### Familien IKT ekipamenduen bilakaera



Iturria: Delivering Digital Inclusion. Action Plan, UK Government.

### 8.3. Nortzuk dira IKTetarako sarbiderik ez duten pertsonak?


“Ez da moralki onargarria ezta ekonomikoki jasagarria ere milioika pertsona atzean uztea, IKTak edo horien abantailak erabiltzeko gaitasunik gabe”.

Viviane Reding,  
EU Commissioner for Information Society and Media  
(2007ko azaroa)<sup>47</sup>

Eustaten Informazioaren Gizarteari buruzko Inkestak-Familia (IGI-F) delakoen datuek eta EINen IKT ekipamendu eta erabilerari buruzkoek IKTetarako (ekipamendua) sarbideari buruzko azterketa xehatua eskaintzen digute hainbat faktoreen arabera:

(21. irudia)

#### Eustaten IKTetarako sarbidearen azterketa xehaturako faktoreak



#### 8.3.1. Adina eta sarbide-etena


Adinaren araberrako ekipamenduaren azterketak, ondorengo grafikoan azaltzen den moduan, hiru ondorio nagusi eskaintzen dizkigu:

- Alde nabarmena dago ordenagailua eta Interneteko eskuragarritasun portzentajeetan herritar gazteenei dagozkie adin tarteen eta 45 urtetik gorakoei dagozkien artean, azken horietan ehunekoek nabarmenki egiten baitute behera.

<sup>47</sup> Iturria: Commission calls for an all-inclusive digital society: [http://europa.eu/rapid/press-release\\_IP-07-1804\\_en.htm](http://europa.eu/rapid/press-release_IP-07-1804_en.htm).

(22. irudia)

#### Etxean ordenagailua duten Euskal Autonomia Erkidegoko 15 urte edo gehiagoko herritarrak, adina eta lurralde historikoaren arabera (%), 2011



Guk eginda Eustaten datuei jarraiki.

- 15 eta 24 urte bitarteko herritarrak etxeetan ordenagailu eta Interneteko eskuragarritasun ehunekorik handiena dutenak dira. Horrela bada, adin horietako euskal herritarren % 97k etxean gutxienez ordenagailu bat duela adierazi du eta % 93,8k Internetetarako konexioa ere badauka.
- Bestalde, 45 urtetik gorako herritar-taldean datu oso nabarmenak jasotzen dira. Horrela bada, adin horietako herritarren % 42,9k ez du ordenagailurik eta % 48k ez du Internetetarako konexiorik haren etxean. I.a herritar-talde horren erdiak.

Zifrek oso argiak dirudite. Adinaren eta IKT ekipamenduen arteko harreman argia dago. Nagusiak, beharbada, IKT ekipamenduko ehunekorik txikiak dituztenaren hipotesiarekin, 65 eta 74 urte bitarteko pertsona bati gutxienez duten familien inguruko informazioa aztertu genuen estatistiketan.


Emaizak, kasu honetan, guztiz irmoak eta argiak dira.

Mugikorra nagusien artean sarbide-etena gaintzeko gai den teknologia gisa azaltzen da. Horrela bada, pertsona nagusi batekin gutxienez bizi diren familien % 84,5ak gailu hori dutela aitortu dute.

Berriz, 65 eta 74 urte bitarteko pertsona batekin gutxienez bizi diren familien % 70,7k ez du ordenagailurik eta % 73,4k ez du Internetetarako konexiorik.

(23. irudia)


### Etxean Internet duten Euskal Autonomia Erkidegoko 15 urte edo gehiagoko herritarrak, adina eta lurralde historikoaren arabera (%), 2011



Guk eginda Eustaten datuei jarraiki.

(24. irudia)

### 65 eta 74 urte bitarteko pertsona batekin gutxienez bizi diren familien IKT ekipamendua teknologia motaren arabera (%), 2011



Guk eginda Eustaten datuei jarraiki.

### 8.3.2. Habitata eta sarbide-etena

Azterketan are gehiago sakonduz eta habitataren tamaina eta adinaren aldagaiak gurutzatuta, datuek azaltzen dute **bizilekuaren tamainak eragin handia duela familien IKT ekipamenduan** 65 eta 74 urte bitarteko pertsona bat gutxienez duten familietan.

10.000 biztanle baino gutxiagoko habitatatzen bizi diren eta pertsona nagusiak dituzten familien IKT ekipamendua hiri handietan eta 100.000 biztanle edo gehiagoko habitatatzen bizi diren beste familia bakoitzeko zertxobait txikiagoa da, ondorengo grafikoa islatzen den moduan.


Antzeman daitekeen moduan, 5,7 portzentaje puntuko alde dago ordenagailuaren eskuragarritasunari dagokionez pertsona nagusiak dituzten familietan 100.000 biztanle edo gehiago dituzten habitaten alde.

Aldea are nabarmenagoa da etxean Interneterako konexio-eskuragarritasunari dagokionez. 65 eta 74 urte bitarteko pertsona bat gutxienez duten familien %22,5ak Internet duen bitartean, 100.000 biztanle edo gehiagoko inguruetan bizi diren eta pertsona nagusiak dituzten beste familia horiek %31ko ehunekoa jasotzen dute. 8,5 puntuko alde azken kasu horren alde.

Hala ere, behar bada, kasurik deigarriena telefono mugikorraren ekipamendua da. 10.000 biztanle baino gutxiagoko habitatatzen bizi diren 65 eta 74 urte bitarteko pertsona bat gutxienez duten familien %15,1ak telefono mugikorra duen bitartean, 100.000 biztanle edo gehiagoko hirietan bizi diren familien kasuan ehuneko hori %46,4ra arte igozten da.

(25. irudia)

### 65 eta 74 urte bitarteko pertsona batekin gutxienez bizi diren familien IKT ekipamendua habitataren tamainaren eta teknologia motaren arabera (%), 2011




Guk eginda Eustaten datuei jarraiki.

Azterketaren adin-tartearen marjinak handitzerakoan eta kasu honetan 16 eta 74 urte bitarteko pertsona bat gutxienez duten familietan arreta jarrita, habitataren tamainaren arabera IKT ekipamenduan aldeak ere badaudela antzeman dezakegu.

(26. irudia)

**16 eta 74 urte bitarteko pertsona batekin gutxienez bizi diren familien IKT ekipamendua habitataren tamainaren eta teknologia motaren arabera (%), 2011**



Guk eginda Eustaten datuei jarraiki.

Alderik nabarmenenak Internet eta telefono mugikorraren eskuragarritasunean antzematen dira. Horrela bada, 16 eta 74 urte bitarteko pertsona batekin gutxienez eta 100.000 biztanle edo gehiagoko habitatetan bizi diren familien % 67k Internet daukate euren etxeetan, eta 100.000 biztanle baino gutxiagoko habitatetan bizi diren familien kasuan, berriz, ehuneko hori % 64ra murrizten da (3 portzentaje puntuko aldea). Telefono mugikorrari dagokionez, berriro ere ia 2 portzentaje puntuko aldea antzematen da 100.000 biztanle edo gehiagoko hiri handietan bizi diren familien alde.

**8.3.3. Generoa eta sarbide-etena**


Aztertu beharreko beste aldagaietako bat IKTetarako sarbide ezberdintasunak genero ikuspuntutik jorratzean datza. [Eustaten](#) datuek baieztatzen dutenez, une honetan oraindik ere sarbide ezberdintasunak daude gizonen eta emakumeen artean.

Horrela bada, ondorengo grafikoa antzeman daitekeen moduan, gizonen % 74,5ak etxean ordenagailu bat gutxienez

duten bitartean, kopuru hori % 68,1era murrizten da emakumeen kasuan. Ia 6,5 portzentaje puntuko *gap* nabarmena adierazten dute eta, lurralde historikoen arabera azterketa egiterakoan, are handiagoa da Bizkaia kasuan. Hemen, gizonen eta emakumeen ordenagailuaren eskuragarritasunaren aldea 7,8 portzentaje puntukoa da.

(27. irudia)

**Etxean ordenagailua duten Euskal Autonomia Erkidegoan 15 urte edo gehiagoko herritarrak, generoa eta lurralde historikoen arabera (%), 2011**



Guk eginda Eustaten datuei jarraiki.

Osterantzean, Araba buruan dago Euskadiko lurralde historikoen *rankingean* ordenagailua bezalako oinarritzko teknologiarako sarbidearen etenik txikiena bertan baitago (% 70,3 gizonen artean eta % 68,4 emakumeen artean).

Alde horiek berriro ere azpimarratzekoak dira Interneterako sarbideari dagokionez.

Emakumeen % 62,6k etxean Interneterako konexioa duten bitartean, Interneterako konexioaren eskuragarritasuna duten gizonen ehunekoa % 69koa da, 6,4 portzentaje puntuko aldea.


Gipuzkoaren kasuan, etxean Interneterako konexioa duten gizonen eta emakumeen ehunekoaren arteko aldea 6,6 portzentaje puntukoa da, Euskadiko batez bestekoarekiko parekotasunetik oso gertu.

Ordenagailuaren ekipamendua kasuan gertatzen zen moduan, Bizkaia gizonen eta emakumeen arteko sarbide-etenik handiena duen lurralde historikoa da berriro ere Interneterako konexioaren eskuragarritasunari dagokionez (7,8 portzentaje puntuko aldea). Era berean, Araba berriro ere buruan kokatzen da lurralde historikoen *rankingean* gizonen eta emakumeen arteko sarbide-etena murrizteari dagokionez. Horrela

bada, 1,3 puntuko aldea besterik ez dago emakumeek eta gizonek erregistratutako portzentajeen artean.

(28. irudia)

### Etxean Internet duten Euskal Autonomia Erkidegoan 15 urte edo gehiagoko herritarrak, generoa eta lurralde historikoaren arabera (%), 2011




Guk eginda Eustaten datuei jarraiki.

#### 8.3.4. Familia mota eta sarbide-etena

Eustaten inkestek adierazten dute familia motarekin loturiko sarbide-etena egon daitekeela. Daturik argienak ekipamendu adierazle oinarrizkoenak (ordenagailua eta Internet) azterzerakoan antzematen ditugu.

(29. irudia)

### Ordenagailu ekipamendua 16 eta 74 urte bitarteko kide bat gutxienez duten familietan (%), 2011




Guk eginda Eustaten datuei jarraiki.

Badirudi harreman argia dagoela familiaren tamainaren eta IKT ekipamenduaren eskuragarritasunaren edo eskuragarritasun ezaren artean. Horrela bada, ordenagailua duten familien % 71,4 (16 eta 74 urte bitarteko kide batekin, gutxienez) seme-alabak dituzten familiak diren bitartean, ehuneko hori % 15,4ra murrizten da bikotekideek osatutako familien kasuan eta % 13,1era bakarrik dauden pertsonen osatutako familien kasuan.

Atzeko zerbait gertatzen da Interneterako konexioaren ekipamenduari dagokionez. Etxebizitzetan Interneterako konexioa duten familien % 73 (16 eta 74 urte bitarteko kide batekin, gutxienez) seme-alabak dituzten familiak dira. % 14,8 bikotekideak duten pertsonen dagokie eta % 12,2 bakarrik dauden pertsonen.

(30. irudia)

### Interneterako konexiorako eskuragarritasuna 16 eta 74 urte bitarteko kide bat gutxienez duten familietan (%), 2011



Guk eginda Eustaten datuei jarraiki.

Azterketa horrek berriro ere pertsona nagusiengan bidaltzen gaitu, bakarrik bizi diren pertsonen portzentaia altua osatzen baitute. Imersoren datuen arabera ("Zugandik hurbil" proiektu pilotua) Espainiako pertsona nagusien (65 urtetik gorakoak) % 20 bakarrik bizi da, beste edozein adin tartetan baino proportzio handiagoa, eta % 31,6ra heltzen da 85 eta 89 urte bitarteko pertsona nagusien kasuan. Iturri horren beraren arabera, bakartasuna emakumeen artean oso zabaldua dagoen errealitatea da herritar helduei dagokienez, izan ere, bakarrik bizi diren pertsona nagusien % 77 inguru emakumeak dira.

Horrela bada, bakarrik bizi diren pertsonen osatutako familien portzentaia horien atzean, orain arte eten digitalaren sorzaile gisa aztertu ditugun hainbat faktoreren –familia mota, adina eta generoa– arteko korrelazioa gerta zitekeen.

#### 8.3.5. Ikasketa maila, jarduerarekiko lotura eta sarbide-etena

IKTetarako sarbide eta erabilera ezberdintasunak sortzen dituzten ohiko faktoreetako bi dira. Zifrek azaltzen dute euren etxebizitzetan ordenagailua eta interneterako konexioa duten


## (II). E-INKLUSIOA ETA E-PARTAIDETZA

pertsonen profila bigarren mailako edo goi-mailako ikasketak amaituak dituzten eta une honetan ikasten edo lanean ari diren pertsonak osatzen dutela. Osterantzean, ikasketa maila baxuagoak dituzten edo langabezian dauden pertsonak euren etxebizitzetan IKT ekipamenduko portzentaje askoz ere baxuagoak erregistratzen dituzte.

Ondorengo grafikoetan ikasketa mailaren eta jarduerarekiko loturaren arabera dagoen *gapa* azaltzen da. 55 portzentaje puntu arteko aldea dago ordenagailuaren ekipamenduan Euskal Autonomia Erkidegoko 15 urtetik gorako herritarren artean ikasketa mailaren arabera eta 50 puntukoa ikasten dutenen eta langabezia daudenen artean.

(31. irudia)


### **Etxebizitzan ordenagailua duten Euskadiko 15 urtetik gorako herritarrak ikasketa mailaren arabera (%), 2011**



Guk eginda Eustaten datuei jarraiki.

(32. irudia)

### **Etxebizitzan ordenagailua duten Euskadiko 15 urtetik gorako herritarrak jarduerarekiko loturaren arabera (%), 2011**




Guk eginda Eustaten datuei jarraiki.

Etxeetako Interneterako konexioaren eskuragarritasunaren kasuan ikasketa mailaren eta jarduerarekiko loturaren arabera, berriro ere ordenagailuaren eskuragarritasunaren kasuan antzemandako joera errepikatzen da. Oinarrizko prestakuntza maila duten edota langabezian dauden pertsonak ekipamendu portzentaje baxuenak erregistratzen dituzten profilak dira faktore horien azterketaren arabera.

(33. irudia)


### **Etxebizitzan Interneterako konexioaren eskuragarritasuna duten Euskadiko 15 urtetik gorako herritarrak ikasketa mailaren arabera (%), 2011**



Guk eginda Eustaten datuei jarraiki.

(34. irudia)

**Etxebizitzan Internetarako konexiorako eskuragarritasuna** Euskadiko 15 urtetik gorako herritarren artean jarduerarekiko loturaren arabera (%), 2011



Guk eginda Eustaten datuei jarraiki.

### 8.3.6. Hileroko diru-sarrerak eta sarbide-etena

Ezberdintasun sozial eta digitalen arteko harremanak lotura ugari ditu, besteak beste, horiek eragiten dituzten faktoreen bateratasuna. Horietako bat, zalantzarik gabe, etxe batean sar daitekeen diru-sarrera mailaren araberako erosahalmena da.


EINen etxebizitzetara eta IKTei buruzko inkestak<sup>48</sup> lortutako datuen arabera, hilero 2.700 euro baino gehiagoko diru-sarrerak dituzten etxebizitzak % 97k (16 eta 74 urte bitarteko kide batekin, gutxienez) ordenagailua dute euren etxeetan. Zifra horrek hilero 1.100 euro baino gutxiagoko diru-sarrerak dituzten familiek erregistratutako % 42,5arekin argi eta garbi kontrastatzen du.

Egoera errepikatzen da Internetarako konexioaren eskuragarritasunari dagokionez. Horrela bada, hilero 1.801 eta 2.700 euro bitarteko diru-sarrerak dituzten etxebizitzak % 88,6 Internetarako konexioa duten bitartean, ehuneko hori % 37,7ra murrizten da 1.100 eurotik beherako hileroko diru-sarrerak dituzten etxebizitzak kasuan.

<sup>48</sup> Etxebizitzetara IKTei buruzko inkestak, TIC-H 2011, EIN.

(35. irudia)


Ordenagailu bat duten **Euskadiko etxebizitzak (16 eta 74 urte bitarteko kide batekin, gutxienez)** etxebizitzako hileroko diru-sarrera garbien arabera (%), 2011



Guk eginda EINen datuei jarraiki.

(36. irudia)

Internetarako konexioa duten **Euskadiko etxebizitzak (16 eta 74 urte bitarteko kide batekin, gutxienez)** etxebizitzako hileroko diru-sarrera garbien arabera (%), 2011



Guk eginda EINen datuei jarraiki.

Zifrek azaltzen dute oinarrizko IKT tresnetarako sarbide ezberdintasun handiak dituzten beste pertsona talde bat dagoela: hileroko diru-sarrera garbi baxuagoak dituztenak. Gap hori murrizten da beste IKT tresnen kasuan, hala nola, nabarmen mugikorren kasuan, eskuragarritasun alderik nabarmenenak 10 portzentaje puntutik behera baitaude. Sarbidearen unibertsaltasunak, kapitulu honen beste atalen batean azaldu dugun moduan, Euskadiko herritarren artean sarbide-etenaren saihestea lortu du. Bere etengabeko eraldaketa sakelako ordenagailu txikietan, doako haririk gabeko sareetara konektatzeko aukera eta aisiarekiko lotura ordenagailuaren edo mugikorren Internetarako konexio finkoaren eskuragarritasunaren mendekotasun txikiago baten atzean ezkututzen dira.

### 8.3.7. Aniztasun funtzionala eta etorkinak

Talde horien etxeetan edo zentroetan oinarrizko ekipamenduaren eskuragarritasun portzentajeen inguruko informazio zehatza edukitzeko aukera eskaintzen diguten datu kuantitatiborik ez dugun arren<sup>49</sup>, aniztasun funtzionalako pertsonak eta etorkinak elkarrizketen zein lan-mahaien bidez txosten hau burutzean kontsultatutako aditu-taldeak une honetan eten digitalak –besteak beste, sarbide-eten digitala– pairatzen dituzten talde gisa identifikatu ditu.

Aipatutako hiru taldeek eten hori pairatzen dute arrazoi ezberdinak direla-eta, kapitulu honen hurrengo atalean aztertuko dugun moduan eta, aldi berean, lehentasuna duten taldeak dira IKTetarako sarbidea errazterako orduan, horiek aukerak eskaini baitakizkieke euren bizi kalitatea eta gizarte sustapena hobetze aldera.

Talde horiek, nazio, Europa eta nazioarte mailako IKT ekipamenduari buruzko inkesta handietan eta informazioaren gizartearen garapen esparruko agiri estrategiko nagusietan askotan azaltzen ez direnak, maiz euren IKTetarako sarbidea elkarre-ehunaren bidez eta gobernu kanpoko erakunde bidez bideratzen dute, egunero herritar horien alboan lan egiten baitute.

## 8.4. IKTetarako sarbide oztopoak eta inhibitzaileak

### 8.4.1. Etxean Internetarako sarbiderik ez edukitzeko arrazoiak

Sarbide-eten digitalaren existentzia ulertzeko, IKT tresnen eskuragarritasun ehunekoak aztertzeaz gain, eten hori sortzen duten oztopo edo inhibitzaileak ere aztertu behar dira.

Aztertu ohi diren adierazleatariko bat **etxean Internetarako konexiorik ez edukitzeko arrazoi** azalpena da. Kasu honetan, Eustaten informazioaren gizarteari buruzko inkestak errealitate hori aztertzen du 5 aldagai oinarri hartuta:

- Beste leku batetik sartzen dira.
- Ez dute nahi, ez dute behar.


<sup>49</sup> Oharra: gaur egun IKT eta aniztasun funtzionalarekin zein IKT eta etorkinekin loturiko datuak daude, baina erabilera-etenari buruzkoak dira, ez sarbide-etenari buruzkoak.

- Garestiegia.
- Ez dute ezagutzarik.
- Ez dute ekiporik.

Euskadiko familien (15 eta 74 urte bitarteko kide batekin, gutxienez) adierazpenetatik lortutako datuek aldagai horiek ordena honetan ezartzen dituzte:

(37. irudia)

### Etxean Internetarako sarbiderik ez edukitzeko arrazoiak



- Zifra horien arabera, familia guztien (16 eta 74 urte bitarteko kide batekin, gutxienez) % 27,9k ez du Internetarako konexiorik ez dutelako nahi edo ez dutelako behar.
- Bigarrenik, ezagutza falta topatzen dugu. Horrela bada, familien % 7,6k diotenaren arabera, ez du konexiorik erabiltzeko beharrezkoak diren ezagutzarik ez dutelako.
- Familien % 4,7k dio etxebizitzetan ez dutela konexiorik behar, beste nonbaitetik sartzen direlako.
- Laugarrenik, eta % 3,2rekin, horretarako beharrezkoa den ekipamendurik ez dutelako konektatu ezin direla dioten familiak daude.
- Adierazitako azken arrazoiak, 16 eta 74 urte bitarteko kide bat gutxienez duten familien % 2,9ko erregistroarekin besterik ez, prezioarena da (garestiegia).

Horrek esan nahi du, oraindik ere herritar ugari adierazten dutela Internet bezalako oinarrizko IKT tresna ez erabiltzeko oinarrizko arrazoiak “ez dut nahi, ez dut behar” eta “ez dut ezagutzarik” direla. Bi arrazoi horiek aliatutako beste aldagai batzuetara lotuta egon daitezke, hala nola, IKTen “ahuleziaren” pertzepzioa (edo zerbait apurtzeko beldurra) edo ohiko telebista ez den pantailako beste gailuekiko “konfiantza” falta. Horri gure eskuetan amaitzen duten gailu guztiek geroz eta gehiago duten “multifuntzionaltasunaren” ezaugarria gaineratu behar zaio. Aldagai horrek bereziki IKT gaitasun eta ezagutza gutxiago dituzten hainbat talderi eragiten die, izan ere, funtzio bakarreko gailuekin erosoago sentitzen ohi dira.



Ezagutza faltako aldagai horri dagokionez, IKTek sarbide-oztopo hori areagotzen duen osagai bat dute. Hain zuzen ere, uneko gailuekin elkarri eragiteko, askotan ohartu gabe bada ere, menderatu behar ditugun gaitasun sorta zabala da. Pertsona bat teklatura, sagua edo ukipen-pantaila bat erabiltzeko gai izan arren, hainbat bideren arteko konexioak ezartzeko gai izan behar da (ahotsa, soinua, testua...), zeinu oso bereziak interpretatu behar ditu eta maiz euren irudia eta botoien kokapena eguneratzen eta aldatzen dituzten tresnak erabili behar ditu. Gaur egun hainbat teknologia erabiltzeko aukera eskaintzen digun ezagutza metatua denborarekin eguneratu eta aberastu beharko da. Behar horrek, motibazioarekin oso aliatuta dagoenak, ez du erantzun bera topatzen IKTak erabili nahi dituzten pertsona guztiengan, errefus edo axolagabetasuneko jarrerak eraginez.


### 8.4.2. Interneterako sarbiderik ez edukitzeko arrazoen ebolutioa

Beti izan da horrela? Begirada atzera botatzean eta azken urteetan etxebizitzan Interneterako konexiorik ez edukitzeko arrazoen inguruko galdera berak erregistratutako datuak alderatzean, zera ikusten dugu:

- 2006an etxebizitzan Interneterako sarbiderik ez edukitzeko Euskadiko familien arrazoen *rankingean* "ez dut behar, ez dut nahi" eta "ez dut ezagutzarik" ere azaltzen ziren. Garai hartan zifrak %45 eta 11,4koak ziren, hurrenez hurren.
- "Prezioa, garestiegia" aldagaia familiek azken 5 urteetan aitortutako azken arrazoa izan da. Hala ere, datu hori gutxika txikituz joan da. 2006an 16 eta 74 urte bitarteko kide bat gutxienez zuten familien %7,6k arrazoi hori adierazten zuten etxean Internetik ez izateko arrazoi gisa; gaur egun, berriz, datu hori %2,9an kokatzen da.
- Orokorrean, eta ondorengo grafikoan ikus daitekeen moduan, Eustaten IGI-F inkestak jasotako arrazoi posible guztiak aldatu dira etxeetan Internet zuten familien ehunekoak gora egin heinean. Etxean teknologia hori edukitzeko behar edo nahi ezarekin loturiko aldagaiak bilakaera oso nabarmena izan du. 2006an 16 eta 74 urte bitarteko kide bat gutxienez zuten Euskadiko familien %45ak arrazoi hori aukeratzen zuten etxean Internetik ez edukitzeko arrazoa azaltzerakoan; 2011, berriz, aldagai hori %27,9raino murriztu da, arestian aipatzen genuen moduan, Euskadin Interneterako sarbidearen arrazoi inibitzaile nagusi gisa mantenduz.

(38. irudia)

### Euskadin 16 eta 74 urte bitarteko kide bat gutxienez duten familiak etxean Interneterako sarbiderik ez edukitzeko arrazoen arabera (%). 2006-2011 ebolutioa



Guk eginda Eustaten datuei jarraiki.

### 8.4.3. Etxean Interneterako sarbiderik ez edukitzeko arrazoiak eta pertsona nagusiak

65 eta 74 urte bitarteko pertsona bat gutxienez duten familien kasuan, Interneterako sarbiderik ez edukitzeko arrazoi nagusiak berak dira berriro ere:


- "Ez dut nahi, ez dut behar": %69,8.
- "Ez dut ezagutzarik": %26,1.

Etxeetan Interneterako sarbiderik ez edukitzeko hirugarren arrazoi nagusia Internet eduki ahal izateko beharrezkoa den ekipamendu falta da (65 eta 74 urte bitarteko kide bat gutxienez duten familien %8,1). Ehuneko horrek ia 5 portzentaje-puntutan gainditzen du 16 eta 74 urte bitarteko kide bat gutxienez duten familiek erregistratutakoa.

Pertsona nagusien taldearen artean IKTekiko motibazio falta, Vodafone Fundazioaren *Los mayores ante las TIC* azterlanean azaltzen den moduan, garrantzi gehien duen aldagaie-tako bat da: "motibazio-sustapenik ez dagoenez, ez da beharra igartzen, ezta erabilera deseatzten ere. Motibaziorik ez duten pertsona nagusiek zera diote: "Teknologiak ez daude niregan"

(39. irudia)

**16 eta 74 urte bitarteko kide bat gutxienez duten Euskadiko familien eta 65 eta 74 urte bitarteko kide bat gutxienez duten familien arteko konparatiba etxean Interneterako sarbiderik ez edukitzeko arrazoi nagusiei dagokienez (%), 2011**



Guk eginda Eustaten datuei jarraiki.

Errefus-jokabide horren atzean IKTekiko distantzia eta ezagutza falta handia antzematen da, baita horiek eskain diezazkieketen aukeren ingurukoa ere. Beraz, esan genezake, jokabide-aldagai baten atzean (errefusa, motibazio falta, axolagabekeria) taldeak berak aitortzen duen ustezko ikasketa-etena ezkututzen da, horixe baita etxeetan Interneterako konexiorik ez edukitzeko bigarren arrazoi nagusia.

#### 8.4.4. Etxean Interneterako sarbiderik ez edukitzeko arrazoiaren ebolutioa eta pertsona nagusiak

Azken urteetan adierazle horien bilakaeraren ikuspegitik, erakunde eta organizazio (publikoak eta pribatuak) ezberdinetatik IKTak pertsona nagusiei hurbiltzeko abian jarritako jardueren ondorioak antzematen hasi direla ikus dezakegu. 2006an “ez dut nahi, ez dut behar” eta “ez dut ezagutzarik” arrazoiak Interneterako sarbideari begira (etxeetan konexioa edukitzea) pertsona nagusiek adierazitako oztopo nabarmenenak ziren, % 82,8 eta % 33,1eko ehunekoekin, hurrenez hurren. Kopuru horiek gaur egungo % 69,8 eta % 26,1etik (hurrenez hurren) urrun daude eta irakurketa bikoitza dute:

- Herritar nagusien artean sarbide-oztopoak murrizten aurrera egitea lortu da. Interneteko behar falta sarbide-oztopo nagusia da oraindik ere, hala ere, azken urte hauetan zehar gehien leundu dena izan da. Bestalde, sarbide-oztopo den Interneterako behar falta ere murriztu da, behar falta baino eritmo askoz ere motelagoan bada ere.

- Horren arabera interpreta genezakeenez, pertsona nagusien bizitzak hobetzeko (osasuna, komunikazioa, aisialdia, etab.) IKTen hainbat erabilera eta aplikazio barnerrazteaz lortu bada ere, oraindik ere ikasgai bat gainditzeko dago ezagutza faltari dagokionez, inhibitzaile garrantzitsua baita eta, aldeko bilakaerarekin jarraitzen badu ere, ahalegin gehiago (eta berria) behar ditu.

16 eta 74 urte bitarteko pertsona bat gutxienez duten familien kasuan gertatzen den moduan, zerbitzuak garestiegiak direnaren usteak ere bilakaera izan du azken 5 urteetan. Horrela bada, 2006an 65 eta 74 urte bitarteko kide bat gutxienez zuten familien % 7,9k zioen etxean ez zuela Internetik garestiegi zelako eta ehuneko hori gaur egun erregistratutako % 1,4raino murriztu da.

#### 8.4.5. IKTetarako sarbiderako oztopo eta inhibitzaileen pertzepzioa IKTak erabiltzen dituzten pertsonen ikuspuntutik

Txosten berezi honen esparruan Arartekoak egindako IKTak eskuratzeari eta e-partaidetzari buruzko inkesta burutzean, IKTetarako sarbidean oztopo edo inhibitzaile gisa jarduten duten faktoreak aztertu ahal izan ditugu, IKTetara sartzen eta horiek erabiltzen dituzten pertsonen ikuspuntutik.

Horretarako, galdetegian honako galdera gaineratu zen: *“Zure ustez, zeintzuk dira zenbait pertsona eta gizarte kolektibori informazioaren eta komunikazioaren teknologiak erabiltzea galarazten dieten oztopoak? (Berezko erantzuna)”*.

Informazio horri esker IKTetara sartzen ez diren pertsonen antzemandako oztopoen (aldeztatik aztertuak, Eustaten IGI-F inkestako datuen bidez) eta IKTetara sartu eta horiek erabiltzen dituzten pertsonen usteetan hainbat talde, gizarte talde edota gutxiengo etnikori IKTetarako sarbidea eragozten dieten oztopoen arteko kontrastea egin dezakegu.


Daturik nabarmenena oztopo ekonomikoan edo IKTetara sartzeko baliabide ekonomiko faltan aurkitzen dugu. Eustaten datuen azterketak baieztatzen digu IKTak erabiltzen ez dituzten pertsonen teknologien gehiegizko prezioarekin loturiko kontuak sarbide-oztopoen *rankinean* azken faktore gisa ezartzen dituztela. Osterantzean, IKTetarako sarbidea duten eta horien ohiko erabiltzaileak diren inkestatutako pertsonen % 52,6k uste du prezioa inhibitzaile edo sarbide-oztopo gisako arrazoi nagusia dela.

Oztopoen *rankinean* duten ordenaren araberako ondorengo faktoreak “informazio falta/erabiltzen ez jakitea” (% 16,8) eta “haien onuren eta erabilgarritasunaren gaineko mesfidantza edo ezagutza falta” (% 15) dira. Inkestatutako herritarren % 11,4k “adina” aipatzen du faktore inhibitzaile gisa eta % 9k “interes falta”.

Azpimarratzekoa da inkestatutako pertsonen % 5,6k adierazi izana gaur egun ez dagoela hainbat talde, gizarte talde edota gutxiengo etnikori IKTetarako sarbidea eragozten dieten oztoporik. Faktore horrek beste batzuek baino ehuneko altuagoa dauka, hala nola, “estaldura falta” (% 2,9), “ezgaitasunen bat edukitzea” (% 2,3) edo “denbora falta” (% 1,7) baino portzentaje altuagoa.

(40. irudia)

### Euren ustez hainbat talde eta gizarte talderi IKTetara sartzea eragozten dieten oztopoak (%), 2012



Guk egina Euskadin IKTak eskuratzeari eta e-partaidetzari buruzko inkestaren arabera, (Arartekoa, 2012).

### 8.4.6. IKTetarako beste sarbide oztopo eta inhibitzaile

Eustaten IGI-F inkestaren datuetatik lortutako IKTetarako sarbiderako oztopo edo inhibitzaile gisa jarduten duten aldagaez gain, lan-mahai eta elkarrizketetan izandako adituen parte-hartzeak beste sarbide-oztopo edo inhibitzaileak egon daitezkeela erakusten digu, eta kontuan hartu behar dira e-inklusioa sustatzeko gomendioak proposatze aldera.

Ondorengo taulak ustezko oztopo eta inhibitzaile sorta erakusten digu, bakoitzaren deskribamenarekin eta eragin gehien pairatzen duten taldeekiko gurutzaketarekin:

(11. taula)

**IKTetarako beste sarbide oztopo eta inhibitzaile**

IKTetarako sarbide oztopo edo inhibitzailea	Deskribapena	Eragin gehien pairatzen duten taldeak
Eten sozialak	Gizarte bazterkeria, bazterkeria sortzen duten faktore ugariekin, IKTetarako sarbide-oztopoen existentziaren jatorrian dago. Gailuak erosteko edo zerbitzuak kontratatu ahal izateko baliabide ekonomiko faltaren ondorioz zein gizarte ongizatearekin zuzenean loturiko bestelako faktoreen hutsunearen ondorioz, IKTek bigarren mailako garrantzia dute (egoera irregularrean dauden pertsonak, etxerik ez duten pertsonak, pobrezia egoeran dauden pertsonak, gutxiengo etnikoak...).	Etorkinak, egoera irregularrean dauden pertzonak, etxerik ez duten pertsonak, pobrezia egoeran dauden pertzonak, gutxiengo etnikoak, espetxean dauden pertsonak, gizarte bazterkeria arriskuan dauden pertsonak.
Laguntzarik eza	IKTetarako sarbiderik ez duten talde askorentzat laguntza falta antzematen da. Bereziki elkarte-mugimendu batean parte hartzen ez duten edo gizarte babeseko ekintzen (publikoak edo pribatuak) onuradun ez diren pertsonen kasuetan. Digitalki baztertutako pertsonara heltzen diren babes proaktiboagoak sortzeko beharra antzematen da, euren esperon geratu ez daitezen.	Etorkinak, egoera irregularrean dauden pertzonak, pertsona nagusiak, etxerik ez duten pertsonak, pobrezia egoeran dauden pertzonak, gutxiengo etnikoak, espetxean dauden pertsonak, gizarte bazterkeria arriskuan dauden pertsonak.
Irisgarritasun arazoak	Pertsona nagusientzat edo ezgaitasunen bat duten pertsonentzat egokituta ez dauden interfazak, irisgarritasun estandarrak betetzen ez dituzten webak, jarraibide argirik ez edukitzea eta modu ulergaitzean eta hizkuntza askotan idatzita egotea... Horren guztiaren ondorioz, pertsona askok ezin dituzte euren beharretara egokitutako teknologiak eskuratu. Oztopo hori bereziki areagotzen da gailuak egokitzeko, egokitutako gailuen merkatuan identifikatzeko, gailu horien erabilerarako prestatzeko, etab. diru laguntzak lortzen laguntzen dieten elkarteetan parte hartzen ez duten pertsonen kasuan.	Etorkinak, pertsona nagusiak, ezgaitasunen bat duten pertsonak (bereziki adimen-ezgaitasuna duten pertsonak).
Erabilgarritasun arazoak	Oztopo hori suertatzen da pertsona askok uste dutelako tresna teknologikoak zailak direla, ez dutela funtzionamendu logiko eta intuitiborik eta frustrazio egoerak sortzen dituzte azkenean tresna horiek ukatzera edo axolagabekeria erakustera eramaten dituztenak. Gailuen zaharkitzapen programatura eta horien multifuntzionaltasunera gero eta bideratuagoa dagoen merkatua, askotan, horiekiko elkarreraginean erraztasuna eta argitasunaren gainetik beste alderdi batzuk lehenesten dituenak.	Pertsona nagusiak, ezgaitasunen bat duten pertsonak.
Marketing estrategiak	IKTen erabileran erdi/goi maila duten herritarrei zuzendutako IKT tresna eta zerbitzuen marketing kanpainak egoteak, euren irizpide nagusiak "gailu garestiak, prestazio handiak eta gaitasun gehiagoko bertsioetara etengabe eguneratzen direnak" izanda, nolabaiteko distorsioa sortzen du merkatu horrek ( eta, ondorioz, tresna, zerbitzu... horiek) haiekin zerikusirik ez duela uste duten taldeen artean.	Pertsona nagusiak.
Muga funtzionalak	Pertsonaren gaitasun fisiko edo mentaletan dauden mugek tresna horien erabileran eta ikasketa prozesuan zailtasunak eragin ditzakete. Oztopo hori IKT gailu eta tresnen diseinuari loturiko irisgarritasun eta erabilgarritasun oztopoekin zuzenean lotuta dago.	Pertsona nagusiak, ezgaitasunen bat duten pertsonak.
Esperientzia frustragarriak	IKT tresna edo zerbitzuekin esperientzia frustragarriak bizitzeak horiekiko nolabaiteko errefusa sor dezake. Oztopo hori motibazioarekin zuzenean lotuta dago eta ezagutza falta edo laguntza falta bezalako beste batzuen aliatua da.	Etorkinak, egoera irregularrean dauden pertzonak, etxerik ez duten pertsonak, pertsona nagusiak, pobrezia egoeran dauden pertzonak, gutxiengo etnikoak, espetxean dauden pertsonak, gizarte bazterkeria arriskuan dauden pertsonak.
Kontsumoaren gastua	Askotan pentsatzen da gailu batzuen koste altua IKTetarako sarbidearen inhibitzailea dela, baina ez dugu soilik eskuratzeko kostea kontuan hartu behar, baita hura mantentzeko kostea ere. Pertsona batzuek, adibidez, etxeetan Interneterako sarbidea kontratatu ahalo lukete, baina ezingo lituzkete zerbitzuaren hileroko kuota ordaindu.	Etorkinak, egoera irregularrean dauden pertzonak, etxerik ez duten pertsonak, pertsona nagusiak, pobrezia egoeran dauden pertzonak, gutxiengo etnikoak, gizarte bazterkeria arriskuan dauden pertsonak.
Eduki edota zerbitzu falta	Taldea batzuek uste dute IKTek eskaini diezazkiekeen eduki edota zerbitzuek ez dutela euren behar edo interesekin bat egiten. Kasu batzuetan alde aurreko esperientziaren batean kontrastatutako usteak dira eta, beste batzuetan, horien ezagutza faltan oinarritutako usteak. Bi kasuetan oztopo hori motibazio eta ezagutza falta bezalako beste batzuekin lotuta dago eta IKTekiko axolagabetasun jarrera sor dezake.	Etorkinak, egoera irregularrean dauden pertzonak, etxerik ez duten pertsonak, pertsona nagusiak, pobrezia egoeran dauden pertzonak, gutxiengo etnikoak, gizarte bazterkeria arriskuan dauden pertsonak.



# Beste eten digitalak

a t a l a



### III. atala

## Beste eten digitalak

### 9.

#### Erabilera-eten digitala

Aurreko kapituluan, sarbide-eten digitala aztertzean, Euskadin azpiegitura-hornidura egokia dagoela egiaztatu ahal izan genuen, kasuren batean estatuko batez bestekoa baino altuagoa izanik. Era berean, euskal etxeetako IKT ekipamenduen kopuruetan ikus daiteke, erradiografia bat bailitzan, ordenagailua, telefono mugikorra edo Internetarako konexioa daukaten etxe-kopurua handia dela.

Kapitulu honetan, jarraian adieraziko diren elementuak aztertuko ditugu eten digitalen alorrean. Kontuan hartuta euskal etheen portzentaje jakin batek IKTak eskuratzeko aukera daukala (bai IKT azpiegituretan, bai etxeko IKT ekipamenduan), zenbat pertsonak erabiltzen dituzte IKTak? zein tresna erabiltzen dituzte? zein maiztasun eta zein helbururekin?

Gaur egun, txosten berezi honen “esparru estrategiko eta juridikoaren” kapituluan jaso den bezala, informazioaren gizartearen gaineko ekimen politiko handiek eta agiri estrategikoez, besteak beste Europako Agenda Digitalak edo Euskadiko Agenda Digital berriak, honako apustua egin dute: herritarrek IKTei ematen dieten erabilera areagotzea, hiritar aktiboagoak eta ekonomia lehiakorragoa lortu ahal izateko. Zein da egungo egoera Euskadin?

Beste alde batetik, zeintzuk dira eskariaren ezaugarriak? Bestela esanda, erabilera bera ematen al diete gizon eta emakumeek IKTei? Minusbaliotasundunen bat duten pertsonak eta etorkinek eremu berdinetan erabiltzen al dituzte IKTak? Erabilera-portzentaje berdina al dute IKTek hirian eta landan? Ikasketa-mailak edo adinak eragina al dauka maiztasunean eta erabilera-motan? Zein adin-tartek ematen du ordu gehien Interneten konektatuta eta zer egiten du sarean?

Zeharkako ikuspegi honekin batera, IKTen adierazle ugari aldagai demografiko eta sozioekonomiko desberdinen arabera aztertzen direlarik, bilakaera ere alderatzen da; hala, IKTen erabilerak azken urteotan Euskadiko biztanleriarengan zein bilakaera eduki duen egiaztatu ahal izan izango dugu.

Azterketa hau egiteko erabili diren iturriak honakoak dira:

- Informazioaren gizarteari buruzko inkesta, EGI-Familiak 2011 (EIGP), [Eustatena](#).
- Etxeetako IKTen ekipamenduari eta erabilerari buruzko inkesta (TIC-H 2011), EINerena (Estatistikako Institutu Nazionala).
- Arartekoaren 2012ko e-partaidetzari eta IKTak eskuratzeari buruzko inkesta.


#### 9.1. Euskadiko herritarrek IKTei ematen dieten erabilera

Eustatek (EIGP) informazioaren gizarteari buruz egindako inkestako kopuruen arabera, 10 eta 74 urte bitarteko euskal herritarren % 67,8k ordenagailua erabili du azken hiru hilabeteetan. Datu hau bat dator Internet erabiltzen duen biztanleriarekin, % 65,3koa bera.

Telefono mugikorra, sarbide-eten digitalaren azterketan gertatu zen bezala, herritarrek gehien erabiltzen duten IKT tresna da berriz ere (10 eta 74 urte bitartekoen artean). Horrenbestez, inkesta honi jarraiki, berau egin duten biztanleen % 97,8k erabili du mugikorra azken 3 hilabeteetan.

(41. irudia)


**10 eta 74 urte bitarteko** ordenagailu-erabiltzaileak (azken 3 hilabeteetan), Internet-erabiltzaileak (azken 3 hilabeteetan) eta telefono mugikorraren erabiltzaileak (%), 2011



Guk eginda Eustaten datuei jarraiki.

(42. irudia)

**10 eta 74 urte bitarteko** ordenagailu-erabiltzaileak (azken 3 hilabeteetan), Internet-erabiltzaileak (azken 3 hilabeteetan) eta telefono mugikorraren erabiltzaileak lurralde historikoen arabera (%), 2011



Guk eginda Eustaten datuei jarraiki.

Lurralde historikoei erreparatuz gero, Gipuzkoa da IKTen (ordenagailua eta Internet) erabilera-portzentajerik altuenak erregistratzen dituena. Bizkaia da hurrengoa, Euskadiko

batez bestekoarekin bat egiten duten antzeko portzentajeekin, eta Araba dago ondoren, Euskadiko batez bestekoa baino erabilera-portzentaje apur bat baxuagoekin. Desberdintasun horiek ez dira nabarmenegiak, eta, beraz, ez dezakegu esan hiru lurralde historikoetako batean edo bestean bizitzearen arabera erabilera-etenik dagoenik.

Telefono mugikorraren erabilerrari dagokionez, hiru lurralde historikoetan portzentajeak oso antzekoak dira, Bizkaia delarik *rankingaren* buru, ondoren Gipuzkoa eta, azkenik, Araba.

Datu orokorrak, orain erakutsi dugunak kasu, irudi finko zabalegia ematen digu, eta, hortaz, mugatu egin behar dugu, talde desberdinei erreparatuz eta aldagai desberdinek erabilera horiek nola baldintzatzen dituzten aztertuta. Pertsonen adinak edo sexuak eragiten al dio IKTen erabilerrari? Hiri handi batean bizitzeak IKTen erabilera erraztu edo sustatzen al du, landa-inguruan edo biztanleria gutxiagoko tokietan bizi direnen aldean?

Kapitulu honen hurrengo ataletan galdera eta ñabardura horiei erantzuna ematen saiatuko gara eta, horrez gain, Euskadin IKTen erabilera-eten digital posibleak eragiten dituzten faktoreak zeintzuk diren identifikatzeko ahalegina egingo dugu.

### 9.1.1. IKTen adina eta erabilera

Adina eta eten digitala, ikuspegi akademikotik erreparatuta, eten digitalen azterketa-eremuan zeresan gehien eman duen binomioetako bat da. Adineko pertsonak IKTei ematen dieten erabilera nabarmentzen da bereziki, talde hau delako erabilera-eten digitala esperimintatzeko arrisku gehien duena.

**Eustaten** datuen arabera, adin-tarterik gazteenak dira (10 eta 24 urte bitartekoak) teknologiak gehien erabiltzen dituztenak: ordenagailua, Internet eta telefono mugikorra.

Hurrengo grafikoan ikus daitekeen bezala, 10 eta 15 eta 16 eta 34 urte bitarteko pertsonak % 100 inguruko portzentajeak erregistratzen dituzte ordenagailu edo Interneten erabilerran. Telefono mugikorraren erabilerraren kasuan, 10 eta 24 urte bitarteko biztanleen % 100ak telefono mugikorra erabili du azken hiru hilabeteetan.


IKTen erabilerran, jaitsieraren eta adin-faktoreen arteko harremana era nabarmenean antzematen da 45 urtetik gorakoen artean. Grafikoan ikus daitekeenez, 45 eta 54 urte bitarteko biztanleen % 62,3k Internet erabili du azken 3 hilabeteetan, baina portzentaje hori % 37,9ra murrizten da 55 eta 64 urte bitarteko biztanleriaren kasuan.

Grafikoari jarraiki, 65 eta 74 urte bitarteko adin-tarte honetan, eta seguru asko 75 urtetik gorakoen tartean (ez daukagu azken horiei buruzko informaziorik, ez delako Eustaten IGIF inkestan aurreikusit) antzematen da *gap* handiena IKT tresnen erabilerran. Kopuru horien arabera, 65 urtetik gorako biztanleriaren % 86,1ek ez du ordenagailua erabili azken 3 hilabeteetan, eta portzentaje hori % 87,1era igotzen da Interneten azken 3 hilabeteetako erabilerrari erreparatzen badiogu. IKTen erabilera bizitza eta gizarte-ongizatea hobetzeko aukerarekin lotzen duen ikuspegitik, alerta garrantzitsu bat daukagu: pertsona nagusien kopuru altu bat erabilera-eten digitala jasaten ari da IKT jakin batzuetan; ordenagailuaren eta Interneten kasuan adibidez.



(43. irudia)


**10 eta 74 urte bitarteko ordenagailu-erabiltzaileak (azken 3 hilabeteetan), Internet-erabiltzaileak (azken 3 hilabeteetan) eta telefono mugikorraren erabiltzaileak adinaren arabera (%), 2011**



Guk eginda Eustaten datuei jarraiki.

(44. irudia)

**10 eta 74 urte bitarteko ordenagailu-erabiltzaileak (azken 3 hilabeteetan), Internet-erabiltzaileak (azken 3 hilabeteetan) eta telefono mugikorraren erabiltzaileak adinaren arabera (45-54, 55-64, 65-74) (%), 2011**



Guk eginda Eustaten datuei jarraiki.

Sarbide-eten digitalaren azterketan gertatu den bezala, telefono mugikorrak erabilera-etena arintzen du adin-tarte desberdinen artean. Hori horrela, inkesta egin duten biztanlerik gazteenek (10-15 urte) eta zaharrenek (65-74 urte) ordenagailuari edo Interneti ematen dieten erabileran ehuneko 80tik gorako aldeak antzeman ditzakegu, baina telefono mugikorraren erabileran zenbateko hori ez da ehuneko 12 baino altuagoa.


10 eta 15 urte bitarteko biztanleriaren % 100ek azken 3 hilabeteetan telefono mugikorra erabili izana aitortzen du. Bestalde, portzentaje hori % 88koa da 65 urtetik gorako pertsona nagusien kasuan.

### 9.1.2. IKTen generoa eta erabilera

10 eta 74 urte bitarteko euskal biztanleen azterketa orokorra eginez gero, gizon eta emakumeen artean erabilera-eten digital bat dugula ikus dezakegu. Grafikoan ikus daitekeen bezala, biztanleria maskulinoaren % 70,5ek aitortzen du ordenagailua erabili duela azken 3 hilabeteetan eta emakumeen kasuan, aldiz, % 65,1ek (inkesta egin duten 10 eta 74 urte bitarteko emakume guztien arteko %a).

(45. irudia)

**10 eta 74 urte bitarteko ordenagailu-erabiltzaileak (azken 3 hilabeteetan), Internet-erabiltzaileak (azken 3 hilabeteetan) eta telefono mugikorraren erabiltzaileak sexuaren arabera (%), 2011**



Guk eginda Eustaten datuei jarraiki.

Gapa agertzen da berriz Interneten erabileran. Izan ere, inkesta egin duten gizonen % 68,2k aitortu du azken 3 hilabeteetan Internet erabili izana eta emakumezko erabiltzaileen artean erregistratutako Internet-portzentajea % 62,4koa izan da (ehuneko 5,8ko aldea).

Txostenerako beste atal batzuen ildotik, telefono mugikorraren erabileraren portzentajeak gizon eta emakumeen artean ia

ez du alderik gailentzen (% 97,8 gizonen kasuan eta % 97,7 emakumeen kasuan). Beste behin agerian geratzen da biztanleriaren artean IKTen erabilera eta sarbide-etenak murrizteko gaitasun gehien eta barneratze gehien duen teknologia dela.

Azterketa hau sakonago jorratu beharra dago, aztertzeko ea genero-etenak adin-tarte guztiei era berean eragiten dien, edo, bestalde, adin jakin bateko biztanleriarekin lotuta dagoen.

Eustaten inkestako datuetara bueltatuz, emaitzen arabera Euskadiko biztanlerian IKTen erabilera dagoen genero-tartea 45 eta 54 urte bitarteko adin-tartetik aurrera nabari da batez ere eta are nabarmenagoa da adin-tarteetan gora egin ahala, *gapik* handiena 65 eta 74 urte bitarteko adin-tarteetan dagoelarik.


10 eta 44 urte bitarteko adin-tarteetan, gizon eta emakumeen arteko erabilera-etenik ez erregistratuz gain, kasu gehienetan IKTen erabilera-portzentajeak emakumeen artean altuagoak dira gizonen artean erregistratutakoak baino.

### 9.1.3. IKTen habitata eta erabilera

IKTen sarbidean gertatzen den bezala, habitat handiagoan edo txikiagoan bizitzeak eragina dauka herritarrek IKTei ematen dieten erabilera.

(46. irudia)

**10 eta 74 urte bitarteko** ordenagailu-erabiltzaileak (azken 3 hilabeteetan), Internet-erabiltzaileak (azken 3 hilabeteetan) eta telefono mugikorraren erabiltzaileak habitataren arabera (%), 2011



Guk eginda Eustaten datuei jarraiki.

Eustaten IGIF inkestako datuek adierazten duten bezala, 10.000 biztanletik beherako habitatean bizi den 10 eta 74 urte bitarteko biztanleriaren % 62,1ek aitortu du azken 3 hilabeteetan ordenagailua erabili izana. Portzentaje hori % 68,3ra igozten da 10.000 eta 99.999 biztanle bitarteko habitatetan bizi diren pertsonen kasuan eta % 69,7ra 100.000 biztanle edo goragoko habitatetan bizi direnengan.

Erabilera-eten digitala, habitat-tamainaren arabera, konstantea da ia adin-tarte guztietan, biztanleriarik gazteenaren kasuan salbu (10-15 eta 16-24 urte). Azken horretan, habitataren tamainak ez dirudi eragin berezirik daukanik IKTen erabilera-portzentajeetan.

Bestalde, pertsona nagusiagoen artean habitat-tamainaren eta ordenagailu, Internet edota telefono mugikorraren erabilera-portzentajearen arteko harremana nabarmena da. Hori horrela, Euskadiko 65 eta 74 urte bitarteko pertsonen % 6,4k soilik erabili du ordenagailua azken hiru hilabeteetan, baina portzentaje hori % 14,4koa da 10.000 eta 99.999 biztanleriadun habitatetan bizi diren pertsona nagusien artean, eta % 16,5koa 100.000 biztanle edo gehiago dituzten tokietan bizi diren pertsona nagusien kasuan.

Antzeko zerbait gertatzen da Interneten erabilera. 10.000 biztanletik beherako herrietan bizi diren 65 urtetik gorako pertsonen eta 100.000 biztanle edo gehiagoko tokietan bizi diren arteko erabilera-portzentajeen aldea ehuneko 9 baino altuagoa da.

### 9.1.4. IKTen erabilera eta ikasketak-maila

IKTen erabilera eta ikasketak-mailaren artean harreman zuzena dagoela baieztatzen dute datuek. Ikasketak-maila altuagoak bat datoz ordenagailuaren eta Interneten erabilera-portzentaje altuagoekin.


Faktoreen harreman hori ez da hain nabarmena telefono mugikorraren kasuan, teknologia honek barneratze-maila oso altuagoa baitauka Euskadiko biztanleriaren artean (10 eta 74 urte bitarteko taldean).

Eta hurrengo grafikoan ikus daitekeen bezala, lehen hezkuntzako ikasketak (edo ikasketarik ez) dituzten pertsonen % 26k soilik erabili du ordenagailua azken 3 hilabeteetan. Bestetik, Bigarren Hezkuntzako edo Lanbide Heziketako hezkuntza-maila duten erabiltzaileen arteko portzentajea % 74,9koa da eta unibertsitate-ikasketak dituzten pertsonen kasuan % 94koa.

Alde horiek Interneten erabilera kasuan ere aplikatu daitezke. Lehen hezkuntzako ikasketak (edo ikasketarik ez) dituzten pertsonen % 23,4k aitortu du azken 3 hilabeteetan Internet erabili izana; bestetik, bigarren hezkuntzako edo lanbide heziketako hezkuntza-maila duten pertsonen % 72,3k eta unibertsitate-ikasketak dituzten pertsonen % 92,1ek.

(47. irudia)

**10 eta 74 urte bitarteko** ordenagailu-erabiltzaileak (azken 3 hilabeteetan), Internet-erabiltzaileak (azken 3 hilabeteetan) eta telefono mugikorraren erabiltzaileak ikasketa-mailaren arabera (%), 2011



Guk eginda Eustaten datuei jarraiki.


Pertsonen "ikasketa-mailaren" aldagaia "sexuarekin" gurutzatuta, azterketa-puntu berriak ikus ditzakegu.

Ikasketa-maila zenbat eta baxuagoa izan, orduan eta handiagoak dira gizon eta emakumeen arteko aldeak. Aitzitik, unibertsitate-ikasketen mailari dagokion tartean, bai ordenagailuaren erabilera, bai Internet eta telefono mugikorraren erabilera, erabilera-portzentajeak altuagoak dira emakumeengan gizonengan baino. Hori horrela, unibertsitate-ikasketak dituzten emakumeen % 95,1ek azken 3 hilabeteetan ordenagailua erabili izana aitortzen du eta gizonen kasuan ikasketa-maila hori dutenen portzentajea % 92,7koa da ordenagailuen erabiltzaileei dagokienez. Era berean, Interneten kasuan ikasketa-maila hau dutenen erabilera-portzentajeak % 93 eta % 91koak dira, hurrenez hurren.

Gizon eta emakumeen arteko ikasketa-mailaren arabera erabilera-eten digitala bereziki nabarmena da lehen hezkuntzako ikasketak edo ikasketarik ez duten pertsonen artean, *gapa* ehuneko 7tik gorakoa baita (ikus hurrengo grafikoa).

(48. irudia)

**Lehen hezkuntzako ikasketadun 10 eta 74 urte bitarteko** ordenagailu-erabiltzaileak (azken 3 hilabeteetan), Internet-erabiltzaileak (azken 3 hilabeteetan) eta telefono mugikorraren erabiltzaileak sexuaren arabera (%), 2011



Guk eginda Eustaten datuei jarraiki.

### 9.1.5. IKTen erabilera eta jarduerarekiko harremana


Jarduerarekiko harremanak (hau da, ikasten, lanean edo langabezian edo jarduerarik gabe egoteak), Eustaten IGIF inkestaren datuek azaltzen duten bezala, eragin handia du Euskadiko biztanleriaren IKTen erabilera-portzentajeen gainean.

Ikasleak eta landunak (ordena horretan) dira teknologia gehien erabiltzen dituztenak (ordenagailua, Internet, telefono mugikorra). Horrenbestez, ikasle gisa identifikatzen diren eta ordenagailua erabiltzen duten pertsonen portzentajea % 97,1ekoa da, landunen % 79,4ren aldean edo jarduerarik gabe edo lanik gabe dauden pertsonen % 37,2ren aldean. Alde horiek Interneten erabilera ere aplikatu daitezke. Hurrengo grafikoa ikus daitekeenez, ikasleen eta jarduerarik gabe dauden pertsonen arteko erabilera-aldeak ehuneko 59,3ra iristen dira. Kopuru horrek erabilera-eten nabarmena adierazten du, pertsonen jarduerarekin lotuta.

Telefono mugikorraren kasuan, erabilera-aldeak ez dira hain esanguratsuak, jarduerarik edo lanik gabe dauden pertsonen erabilera-portzentajeak % 94,4koak baitira.

(49. irudia)

**10 eta 74 urte bitarteko ordenagailu-erabiltzaileak (azken 3 hilabeteetan), Internet-erabiltzaileak (azken 3 hilabeteetan) eta telefono mugikorraren erabiltzaileak jarduerarekiko harremanaren arabera (%), 2011**



Guk eginda Eustaten datuei jarraiki.

“Jardueraren” eta “sexuaren” arteko harremanaren arabera, jarduerarik gabe dauden pertsonen artean IKTen erabilera-portzentajea altuagoa da gizonen kasuan, biztanleria feminoaren erabilera-kopuruekin alderatuta.

Bestalde, ikasle edo pertsona landun gisa identifikatzen diren pertsonen artean, emakumeek erregistratutako erabilera-portzentajeak altuagoak dira gizonenak baino. Adibide bat jartzearren, datuen azterketari jarraiki emakume landunen % 81ek aitortzen du azken 3 hilabeteetan ordenagailua erabili izana, gizon landunen % 78,1en aldean.

### 9.1.6. Euskadiko biztanleriak IKTei ematen dien erabileraren bilakaera

Euskadiko 10 eta 74 urte bitarteko biztanleriak IKTei ematen dien erabilera aztertuta, lehenengo ondorioetako bat honakoa da: hazkunde jarraitua espermentatu dela azken urteetan, aztertutako oinarritzko 3 teknologietan eritimoa desberdina izan delarik (ordenagailua, Internet eta telefono mugikorra).


Ordenagailuak 2006tik 2011ra ehuneko 12,5eko igoera jasan du, azken 3 hilabeteetan ordenagailua erabili zuen biztanleriaren % 55,3tik (10 eta 74 urte bitartekoetan) egun-go % 67,8ra pasatuta. Bestalde, telefono mugikorraren

erabilerak ehuneko 3,5 inguruko hazkundera espermentatu du. Hazkunderaren eritimoa geldoa baina etengabea izan da, erabilera-portzentajeak oso altuak baitira (erabileraren % 100 ingurukoak).

Bestetik, Interneten erabilera da hazkunderik altuena jasan duena azken 5 urteetan (ehuneko 17,9). Horrenbestez, 2006an biztanleriaren % 47,4k (10 eta 47 urte bitartean) Internet erabiltzen zuen eta 2011n, aldiz, portzentaje hori % 65,3ra arte igo da. Hazkunde-eritimo nabarmen horri esker, ordenagailuaren eta Interneten arteko erabilera-portzentajeetako aldeak nabarmen jaitsi dira, hurrengo grafikoan ikus daitekeen bezala.

(50. irudia)

**10 eta 74 urte bitarteko ordenagailu-erabiltzaileak (azken 3 hilabeteetan), Internet-erabiltzaileak (azken 3 hilabeteetan) eta telefono mugikorraren erabiltzaileak (%). Bilakaera 2006-2011**



Guk eginda Eustaten datuei jarraiki.

IKTen erabileraren bilakaeran pixka bat gehiago sakonduz gero, kasu honetan erabileran eragin gehien omen duten faktoreetako biren arabera, adina eta sexua zehazki, atera dezakezun ondorioetako lehenengoa honakoa da: IKTen erabileraren hazkundera izan da protagonista nagusia adin-tarte desberdinetan, baita gizon eta emakumeen artean ere.

Adinari dagokionez, azken 5 urteetan pertsona nagusiagoen (55-64 eta 65-74 urte) adin-tarteetan jasandako hazkundera azpimarratu behar da, kasu batzuetan ordenagailuaren eta Interneten erabilera-portzentajeak bikoiztu ere egin baitira.


Gizonen eta emakumeen artean IKTen erabileran antzemandako aldeei dagokionez, azken bost urteek erabileratena betikotu dute, areagotu ere egin delarik. Hori horrela, 2006an ordenagailuaren erabilera-portzentajea gizonen eta emakumeen artean 5,1ekoa izan zen arren gizonen alde, 2011n gap hori ehuneko 5,4koa da. Interneten kasuan aldeak are gehiago igo dira. 2006an Interneten erabilera-portzentajea gizonen artean ehuneko 4,8 altuagoa zen

emakumeen artean baino, baina egun aldea % 5,8koa da (ikus ondorengo grafikoa).

Gizonen eta emakumeen arteko erabilera-eten digital honen hazkundea are nabarmenagoa da pertsona nagusien kasuan (65 - 74 urte). Hori horrela, 2006an gizonen Interneten erabilera-portzentajea emakumeena baino ehuneko 3,5 altuagoa zen eta, egun, aldiz, aldea ehuneko 7,9koa da (65 eta 74 urte bitarteko gizonen % 17,3k erabiltzen du Internet, adin-tarte horretako emakumeen % 9,4ren aldean).

(51. irudia)

**10 eta 74 urte bitarteko Internet-erabiltzaileak (azken 3 hilabeteetan), sexuaren arabera (%). Bilakaera 2006-2011**



Guk eginda Eustaten datuei jarraiki.

Ikerketa-maila bezalako faktoreek sortutako erabilera-eten digitalari dagokionez, azken 5 urteetako bilakaerak agerian uzten du alde handiak erregistratzen direla oraindik ere lehen hezkuntzako ikasketak edo ikasketarik ez duten pertsonen eta ikasketa altuagoak dituzten pertsonen erabilera-portzentajearen artean, 2006. urtean gertatzen zen bezala.


Aitzitik, datu esanguratsu bat antzeman da. Telefonía mugikorra etengabe sartzen ari denez biztanleriaren geruza desberdinetan, lehen hezkuntzako ikasketak edo ikasketarik ez duten pertsonen eta unibertsitate-ikasketak dituzten pertsonen arteko erabilera-portzentajearen aldeak murriztu egin dira. Horrenbestez, teknologiak biztanleriaren arabera egokitzeko gaitasuna duela ikus dezakegu, betiere bere beharizantara zuzenean konektatzen denean eta erabiltzeko erraza denean. Ondorioz, 2006an lehen hezkuntzako ikasketak eta unibertsitate-ikasketak dituzten pertsonen artean telefono mugikorrari emandako erabilera-portzentajea ehuneko 13koa zen, eta, egun, berriz, alde hori 6,5ekoa da. Hau da, tresna horren erabilera-etena ikasketa-mailaren arabera murriztu da azken 5 urteetan, zehazki kopuru erdira. Hots, bete egin da beste teknologia batzuek oraindik lortu ezin izan duten erronka, edo erritmo askoz geldoagoan betetzen ari direna.

## 9.2. IKTak erabiltzeko tokia Euskadin

Biztanleriak IKTak bere bizitzan sartu ahala garatu duen alaketetako bat horiek erabiltzeko tokia izan da. Datuei jarraiki joera honakoa da: ordenagailua edo Internet euren etxeetatik erabiltzen duten pertsonen portzentajea (10 eta 74 urte bitartean) etengabe igo da. Azken 5 urteotan datu horrek 11,1eko hazkundea jasan du ordenagailuaren erabilerearen kasuan eta 14,9koa Interneten erabilerearen kasuan.

(52. irudia)

**10 eta 74 urte bitarteko ordenagailu-erabiltzaileak (azken 3 hilabeteetan) eta Internet-erabiltzaileak (azken 3 hilabeteetan). Erabilera-tokia: etxea (%). Bilakaera 2006-2011**



Guk eginda Eustaten datuei jarraiki.


Eustaten IGIF inkestaren datuen arabera, 2011n ordenagailua erabiltzen dutenen % 92,5ek etxetik erabiltzen du, % 43k lantokitik eta % 16k ikastetxeetatik.

Internet erabiltzeko tokiaren gaineko kopuruak ordenagailuaren datuen antzekoak dira. Hots, 2011. urtean Internet erabiltzen duten 10 eta 74 urte bitarteko pertsonen % 90,9k euren etxeetatik erabiltzen du, % 36,9k lantokitik eta % 13,6k ikastetxeetatik.

Ordenagailua eta Internet etxetik erabiltzen duten pertsonen portzentajeak kuota oso nabarmenak ditu pertsona nagusien kasuan (65-74 urte), adin horretako pertsonen % 98,2k airtortu baitu ordenagailua etxean erabiltzen duela eta % 6,8k, aldiz, "beste leku batzuetan" (etxebizitza, lantoki eta ikastetxeetatik kanpo) erabiltzen duela. Gauza bera gertatzen da Interneten erabilerearen kasuan. Adin-tarte honetako pertsonen % 96,9k dio Internet bere etxean erabiltzen duela eta % 6,2k, aldiz, "beste toki batzuetan" erabiltzen duela. Azpimarratzekoa da, era berean, "beste toki batzuk" kategorian horren barruan sartzen direla adineko pertsonen zentroak, elkarteen lokalak, espazio publikoak eta abar.

(53. irudia)

**10 eta 74 urte bitarteko** ordenagailu-erabiltzaileak (azken 3 hilabeteetan) eta Internet-erabiltzaileak (azken 3 hilabeteetan) erabilera / sarbide-tokiaren arabera (%), 2011




Guk eginda Eustaten datuei jarraiki.

Sarbide-tokiak eta ikasketa-mailak ere harreman zuzena daukate. Izan ere, lehen hezkuntzako ikasketa-mailak dituzten pertsonak gehiago erabiltzen dute Internet euren etxeetatik, eta unibertsitate-ikasketak dituzten pertsonak, berriz, neurri handiagoan erabiltzen dute lantokitik lehen hezkuntzako ikasketak dituzten pertsonak baino. Datuak irmoak dira: inkesta egin duten pertsonen artean unibertsitate-ikasketak dituztenen % 65,1ek lantokietan erabiltzen du Internet eta lehen hezkuntzako ikasketak dituzten artean portzentaje hori % 6,8koa da (edo baxuagoa).

(54. irudia)

**10 eta 74 urte bitarteko** Internet-erabiltzaileak (azken 3 hilabeteetan), ikasketa-mailaren eta erabilera-tokiaren arabera: etxea eta lantokia (%), 2011




Guk eginda Eustaten datuei jarraiki.

### 9.3. IKTak erabiltzeko arrazoiak Euskadin

Eustaten inkestetan eskainitako datuak aztertzeko beste il-doetako bat Euskadiko 10 eta 74 urte bitarteko biztanleek IKTak zertarako erabiltzen dituzten azterzea da.

Kopuru horien arabera, Euskadiko 10 eta 74 urte bitarteko Internet-erabiltzaileen % 88,8k azken hiru hilabeteetan mezu elektronikoa kudeatzeko (bidali, jaso, irakurri) erabili du Internet. % 88,5ek ondasun eta zerbitzuei buruzko informazioa bilatzeko erabili du eta % 68k komunikabide digitalak kontsultatzeko. *Rankingean* hurrengoa aisialdi-zerbitzuen kontsumoa da, % 51,3rekin, eta ondorengoa komunikazio-tresnen erabilera (txat edo *online* elkarrizketak) % 41,8rekin. Seigarrenik, banku elektronikoko elkarrekintzak daude, horixe baita Euskadin azken 3 hilabeteetan Internet erabili duten 10 eta 74 urte bitartekoen arteko % 39,9k sarea erabiltzeko arrazoiak.

(55. irudia)

**Internet erabiltzeko arrazoiak Euskadiko 10 eta 74 urte bitarteko biztanlerian (%), 2011**

Guk eginda Eustaten datuei jarraiki.

Internet erabiltzeko arrazoiaren artean bizi-kalitatearen edota gizarte-ongizatearen printzipioekin gehien konektatzen dutenei erreparatu gero, *rankingaren* zortzigarren postura jo behar dugu. Bertan aurkitzen dira osasun-gaiei buruzko informazio-bilketak (% 27,5), lana bilatzeko *online* kudeaketak (% 15,9) eta hezkuntza arautuko prestakuntza-ekintzekin lotutako Internet-erabilerak (% 5,3).

Zergatik daukate indar gutxiago pertsonen ongizaterako (osasuna, lana, prestakuntza) garrantzi handikoak diren arloekin zuzenean lotzen diren arrazoi horiek, aisialdiko zerbitzuekin, turismorako *online* erreserbekin eta abarrekin loturikoekin baino? Zeren araberakoa da? Eskaintzarena, eduki-faltarena ala zerbitzu interesgarrien faltarena? Edo, bestalde, lotura gehiago al dauka herritarrek ICTak ulertzeko duten moduarekin, erabilera oso zehatzen bidez beren ongizatea hobetzeari dagokionez? Galdera hauek zabalik utziko ditugu atal honetan, eta eskuratzeko-etenari buruzko hurrengo kapituluaz aztertu eta erantzun ditugu.

**9.3.1. IKTen adina eta erabilera-arrazoiak**

ICTak erabiltzeko arrazoiak adin-tarte desberdinen arabera aztertuz gero, *Eustaten* datuek oso informazio interesgarria

ematen dute, zehatz-mehatz jorratuko dugun bezala. Horregatik, hain zuzen ere, jarraian ondorio nagusiak aurkeztuko ditugu, Eustatek galdetutako 12 erabilera-arrazoiaren arabera:

- **Posta elektronikoa:** 16 eta 44 urte bitarteko adin-tarteetan, eta, bereziki, 16-24 eta 25-34 urte bitartekoetan batzen dira erabilera-portzentajerik altuenak. Hala ere, Internet posta elektronikoa erabiltzen dutenen portzentajeak altuak dira adin-tarte guztietan, pertsona nagusien artean ere. Horrenbestez, Internet erabiltzen duten 65 eta 74 urte arteko pertsonen % 83,8k posta elektronikoa erabiltzen du.
- **Txata, elkarrizketak:** Pertsona gazteenek erabiltzen dute gehien. Internet erabiltzen duten biztanleen artean 10 eta 34 urte bitartekoak dira txatetan eta *online* elkarrizketak edukitzeko tresnetan portzentajerik altuenak dituztenak. 16 eta 24 urte bitartekoak dira, % 82,2rekin, tresna horien erabilera-portzentaje altuena erregistratu dutenak. Bestelako kasua da 45 urtetik gorako pertsonena, bereziki 65-74 urte bitartekoena. Izan ere, Internet erabiltzen duten biztanleen arteko % 13,9k soilik erabiltzen ditu txatak eta *online* elkarrizketetarako tresnak.
- **Telefonia, bideokonferentzia:** Internet ordenagailua telefono gisa erabiltzeko edo bideokonferentziak egiteko tresnetarako erabiltzen dutenen arteko portzentajea ez da oso nabarmena biztanleriaren artean. Erabilera-portzentajerik altuenak 25 eta 44 urte bitarteko adin-tarteetan batzen dira, batez ere 35 eta 44 urte bitarteko biztanleengan. % 16,9k aitortzen du Internet telefono gisa edo bideokonferentziak egiteko erabiltzeko duela.
- **Ondasun eta zerbitzuei buruzko informazioa:** Posta elektronikorekin batera, portzentajerik altuenak erregistratzen dituen arrazoiaren bat da. Aurreko puntuan bezala, 25 eta 34 eta 35 eta 44 urte bitarteko adin-tarteekin erabiltzen dute Internet, % 92,7ko eta % 92,2ko portzentajeetan, hurrenez hurren, kopuru altuenak tarte horietan ikus daitezkeelarik. 65 urtetik gorako pertsonentzako ere Internet erabiltzeko bigarren arrazoi nagusia da. Talde horretan % 80,7k dio Internet horretarako erabiltzen duela.
- **Turismo-erreserbak:** Internet erabiltzen duten 25-34 urte bitarteko biztanleen artean % 41ek aitortzen du Internet turismo-erreserbetarako erabiltzen duela, berau delarik arrazoi horretarako gehien erabiltzen duen taldea. Bestalde, 65 eta 74 urte bitarteko pertsonen artean % 14,3k baino ez dio Internet turismo-erreserbak egiteko erabiltzen duela.
- **Komunikabideak:** Internet komunikabideak kontsultatzeko erabiltzen duten kasuak daude, gogoratuko dugun bezala, Euskadiko biztanleriaren artean Internet erabiltzeko arrazoiaren *rankingaren* hirugarren postuan. Kasu honetan, xede horretarako erabilera-portzentaje baxuena erregistratzen duen adin-tartea 10 eta 15 urte bitartekoena da. Gainerako adin-taldeen artean erabilera-portzentajeak altuak dira eta 25 eta 34 urte bitarteko pertsonak dira (% 76,5) Internet *online* komunikabideak kontsultatzeko gehien erabiltzen dutenak.
- **Aisialdi-zerbitzuak:** Pertsona gazteenak dira xede horretaz gehien baliatzen direnak, batez ere 16 eta 34 urte

bitartekoak. Adin horretako biztanleriaren % 84,3k aitortzen du Internet aisialdi-zerbitzuetarako erabiltzen duela. Erabilera-portzentajeak nabarmen jaisten dira 45 urtetik aurrera eta 65 eta 74 urte bitarteko pertsonen adin-tartean dute baliorik baxuena, biztanleriaren % 17,8k soilik erabiltzen baitu Internet xede horrekin.

- **Osasunari buruzko informazioa:** Internet osasun-gaiekin lotutako informazioa bilatzeko erabiltzea adinarekin lotuta omen dago, zuzenean gainera: adin nagusiagoko taldeen artean gehiago erabiltzen da Internet xede horretarako. 10 eta 15 urte bitarteko biztanleen % 0,2k soilik erabiltzen du Internet osasunari buruzko informazioa bilatzeko eta 35 eta 44 urte bitarteko biztanleen arteko % 36,5ek baieztatzen du Internet helburu horretarako erabiltzea. Portzentajeetan hurrengoa 54 eta 65 urte bitarteko taldea da, biztanleriaren % 33,9k erabiltzen baitu Internet osasunaren alorrekin lotutako informazioa eskuratzeko.
- **Lana bilatzeko kudeaketak:** Lana bilatzeko kudeaketa gehien egiten duen taldea, Internet horretarako erabiliz, 25 eta 34 urte bitarteko pertsonena da (% 20,3). Ondoren kokatzen da 16 eta 24 urte bitartekoena (% 15,5), eta Internet erabiltzen duten pertsonen adinak gora egin ahala portzentajeak apurka-apurka jaisten dira, 55-64 urte bitartekoetan tartea % 2,4ra iritsita.
- **Banka elektronikoa:** Portzentajerik altuena 35 eta 54 urte bitarteko pertsonen taldean dago (35-44 eta 45-54 urte bitartekoak). Aitzitik, Internet banka elektronikorako erabiltzen duten pertsonak 16 eta 24 urte bitartekoak eta 65 urtetik gorakoak dira.
- **Ondasun eta zerbitzuen salmenta:** Lehendik ikusi dugun bezala, orokorrean erabiltzaileek Internet erabiltzeko arrazoi gisa gutxien identifikatzen duten taldea da. Hori horrela, adinaren arabera azterketa eginez gero, adin-tarte guztietan antzematen dira portzentaje oso baxuak. Banka elektronikorekin gertatzen den bezala, baliorik baxuenak gazteenen (16-24 urte) eta nagusienen (65-74 urte) artean erregistratzen dira.
- **Hezkuntza arautua:** 16 eta 24 urte bitarteko biztanleriaren % 14k dio hezkuntza arautua dela Internet erabiltzeko arrazoietakoa bat. Ondoren kokatzen da 25 eta 34 urte bitarteko taldea, % 5,3rekin, eta portzentaje hori nabarmen jaisten da gainerako adin-tarteetan. Prestakuntza arautuaz ari garenez, logikoa da.

### 9.3.2. IKTen generoa eta erabilera-arrazoiak

IKTak erabiltzeko arrazoiak sexuaren arabera aztertzen baditugu euskal biztanleriarengan, lehen azaldutako erabilera-arrazoi ordena bera dauka *rankingak*, 10 eta 74 urte bitarteko biztanleria osoari dagokionez. Hau da, *rankingaren* buruan daude komunikazio-tresnen erabilera eta ondasun eta zerbitzuen eta aisialdi-zerbitzuen bilaketa.


Erabilerei buruzko *ranking* horren barruan, eta zehatz-mehatz alderatuz gero, alde nabarmenak ikus ditzakegu gizonek eta emakumeek IKTak erabiltzeko dituzten arrazoiaren atzean. Horrenbestez, “komunikabideen kontsulta”, “aisialdi-zerbitzuak”, “banka elektronikoa”, eta “ondasun eta zerbitzuen salmenta” erabilera-arrazoiak gizonak dira emakumeak

baino erabilera-portzentaje altuagoak erregistratzen dituztenak.

Bestalde, emakumeek erregistratzen dituzte gizonek baino erabilera-portzentaje altuagoak (alde nabarmenak) “osasun-gaiekin lotutako informazioaren bilaketarekin” eta “hezkuntza arautuko” prestakuntza-ekintzetako IKTen erabilerekin lotutako arrazoiak.

(56. irudia)

### Internet erabiltzeko arrazoiak Euskadiko 10 eta 74 urte bitarteko biztanlerian, sexuaren eta arrazoi-motaren arabera (%), 2011



Guk eginda Eustaten datuei jarraiki.

### 9.3.3. IKTen habitata eta erabilera-arrazoiak

“IKTak erabiltzeko arrazoiak” eta “habitataren” arteko harremanak bi ondorio islatzen dizkigu:


- Batetik, Internet erabiltzeko arrazoiaren *rankinga* ia berdina da 10.000 biztanletik beherako habitatetan bizi diren pertsonen, 10.000tik gorako biztanledun (99.999ra arte) habitatetan bizi diren pertsonen eta 100.000 biztanletik gorako habitatetan bizi direnen artean.



- Salbuespen gisa, 10.000 biztanletik beherako habitate-tan bizi diren pertsonen arabera, ondasun eta zerbitzuei buruzko informazioaren bilaketa (% 87,9) eta posta elektronikoen erabilera (% 84,5) dira Internet erabiltzeko arrazoi nagusiak. Hurrengo grafikoan ikus daitekeen bezala, habitat handiagoetan bizi diren pertsonengan bi arrazoi horiek postua aldatzen dute *rankingean*, posta elektronikoa baita erabilera-arrazoen *rankingeko* burua.
- Erabilera-arrazoen portzentajeek harreman zuzena dute habitataren tamainarekin. Izan ere, habitata zenbat eta handiagoa izan, kasu gehietan orduan eta handiagoa da Internet erabilera jakin baterako erabiltzen duten pertsonen portzentajea.

(57. irudia)

### Internet erabiltzeko arrazoiak Euskadiko 10 eta 74 urte bitarteko biztanlerian, habitataren eta arrazoi-motaren arabera (%), 2011



Guk eginda Eustaten datuei jarraiki.

#### 9.3.4. IKTak erabiltzeko arrazoiak eta ikasketa-maila


Internet ondasun eta zerbitzuei buruzko informazioa bilatzeko eta posta elektronikorako erabiltzen diren kasuak dira

Euskadiko 10 eta 74 urte bitarteko biztanleriaren erabilera *rankingean* lehenengo bi arrazoiak okupatzen dituztenak, lehen hezkuntzako edo beheagoko ikasketak, bigarren hezkuntzako edo lanbide heziketakoak, nahiz unibertsitate-ikasketak dituztela. Erabilera arrazoen *rankingean* antzeko postuak dituzten arren, erabilera-portzentajeen aldeak nabarmenak dira. Hori horrela, lehen hezkuntzako edo beheagoko ikasketak dituzten Internet-erabiltzaileen % 65,3k aitortzen du Internet posta elektronikorako erabiltzen duela. Bigarren hezkuntzako edo LHko ikasketak dituzten eta tresna hau erabiltzen duten pertsonen portzentajea % 87,1era igotzen da eta, unibertsitate-ikasketak dituzten pertsonen kasuan % 97,3ra.

Egoera hori errepikatzen da osasun-gaiei buruzko informazio-bilaketa edo lana bilatzeko erabilera bezalako bestelako arrazoiengan.

(58. irudia)

### Internet erabiltzeko arrazoiak Euskadiko 10 eta 74 urte bitarteko Euskadiko biztanlerian, ikasketa-mailaren eta arrazoi-motaren arabera (osasun-gaiei buruzko informazioa, lan-bilaketa) (%), 2011



Guk eginda Eustaten datuei jarraiki.

Internet erabiltzeko alde nagusiak, ikasketa-mailaren arabera, aisialdiarekin eta banka elektronikoen erabilera edo Internet bidezko turismo-erreserbak bezalako erabilera aurreratuagoekin lotutako erabilera-arrazoiak aztertzean aurkitzen ditugu.

Internet aisialdi-zerbitzuekin lotuta erabiltzen duten kasuak daude lehen hezkuntzako ikasketak edo baxuagoak dituzten pertsonen erabilera-arrazoen *rankingeko* hirugarren

postuan. Ikasketa-mailen eskalan gora egin ahala, aisialdi-zerbitzuek beherantz egiten dute *rankingean* (laugarren tokira bigarren hezkuntzako ikasketak edo LH dituzten pertsonen kasuan eta bosgarren tokira unibertsitate-ikasketak dituzten pertsonen kasuan).

Antzeko zerbait gertatzen da banka elektronikorekin. Kasu honetan, unibertsitate-ikasketak dituzten pertsonak Internet erabiltzeko laugarren arrazoi nagusia den arren, lehen hezkuntzako ikasketak edo baxuagoak, bigarren hezkuntzakoak edo LH dituzten pertsonak daude erabilera arrazoi *rankingeko* seigarren postuan. Portzentajeak irmoak dira kasu honetan ere. Euskadin 10 eta 74 urte bitartekoen artean unibertsitate-ikasketak dituztenen % 58,7k dio banka elektronikorako erabiltzen duela Internet, lehen hezkuntzako ikasketak edo baxuagoak dituztenen artean portzentaje hori % 12,3ra jaisten delarik.

Turismoarekin lotutako *online* erreserbak egiteari dagokionez, Euskadiko unibertsitate-ikasketadun biztanleriaren *rankingean* seigarren arrazoi da. Arrazoi hori beherantz doa ikasketa-maila jaitsi ahala (zazpigarren postura bigarren hezkuntzako ikasketak edo LH dituzten pertsonen kasuan eta zortzigarrenean lehen hezkuntzako ikasketak edo baxuagoak dituzten pertsonen kasuan) eta portzentaje-mailan alde nabarmenak islatzen ditu. Euskadiko 10 eta 74 urte bitarteko biztanleen % 45,7k dio Internet *online* turismo-erreserbak egiteko erabiltzen duela; bigarren hezkuntzako edo LHko ikasketak dituzten biztanleriaren % 26,4k eta lehen hezkuntzako ikasketak edo baxuagoak dituzten biztanleen % 7,5ek aipatu dute arrazoi hori.

### 9.3.5. IKTak erabiltzeko arrazoiak eta jarduerarekiko harremana

IKTak erabiltzeko arrazoiak eta ikasketa-mailak aztertzean gertatu den bezala, ondasun eta zerbitzuei buruzko informazioaren bilaketa eta posta elektronikoa dira euskal biztanleriak Internet erabiltzeko arrazoi nagusiak, jarduerarekiko harremana gorabehera: ikasleak, landunak, jarduerarik edo lanik gabekak.

Gainerako arrazoiak aztertzean, bertikalki eta horizontalki aztertu beharreko alde esanguratsuak daude, jarraian islatuko dugun bezala.

Lehenengoak Internet aisialdi-zerbitzuekin lotuta erabiltzen dela dio. Arrazoi hori hirugarren postuan dago ikasleen arrazoi *rankingean* (% 76,5), laugarren postura erortzen da jarduerarik edo lanik ez duten biztanleriaren artean (% 45,7) eta bosgarren postura biztanleria landunaren kasuan (% 47,7).


Bestalde, Internet prestakuntza-ekintzetan parte hartzeko erabiltzen dutenen portzentajeetan alde nabarmenak daude. Arrazoi horrek zazpigarren postua dauka ikasleen *rankingean* (% 10,9), baina azken postuetara erortzen da landunen (% 4,2) eta jarduerarik gabekoen (% 2,7) artean.

Azterketa alderatzaileak harreman garbia islatzen du jarduerarekiko harremanaren (ikasleak, landunak eta jarduerarik gabekak) eta banka elektronikorekin erabileraren artean. 10 eta 74 urteko euskal biztanleriaren artean Internet erabiltzeko hirugarren arrazoi da (% 51,2), baina seigarren postura jaisten da lanik edo jarduerarik ez duten biztanleen kasuan (% 30,8) eta zortzigarren postura ikasleen kasuan (% 10).

Komunikabide elektronikoen kontsultak ere erabilera eta lehenetsuneko portzentaje desberdinak ditu biztanleriak Interneti ematen dion erabileran, jarduerarekin duen harremanaren arabera. Hori horrela, landunek edo jarduerarik gabekak arrazoi *rankingeko* hirugarren tokian kokatzen dute arrazoi hori (% 72,8 eta % 68,8, hurrenez hurren), eta ikasleen kasuan bosgarren tokira pasatzen da (% 52), txatan eta komunikazio-tresnen nahiz aisialdi-zerbitzuen erabilerari pisu gehiago ematen dietelarik.

(59. irudia)

**Internet erabiltzeko arrazoiak Euskadiko 10 eta 74 urte bitarteko Euskadiko biztanlerian, jarduerarekiko harremanaren eta arrazoi-motaren arabera (banka, aisialdi-zerbitzuak, lan-bilaketa) (%), 2011**



Guk eginda Eustaten datuei jarraiki.

Bestalde, Internet lana bilatzeko gehiago erabiltzen da lanik edo jarduerarik ez duten biztanleen artean, Internet erabiltzeko arrazoi *rankingean* berau baita zazpigarren arrazoi (% 30,4). Euskadiko ikasle eta landunen kasuan, arrazoi hori bederatzigarren postura jaisten da *rankingean* (% 9,5 eta % 13,6, hurrenez hurren). Aipatzekoa da, azterketan agertzen diren aldeak gorabehera, ikasle eta jarduerarik edo lanik gabekak gutxi erabiltzen dutela Internet lana bilatzeko, beste arrazoi batzuek urrun (ondasun eta zerbitzuei buruzko informazioa bilatzea, posta elektronikoa erabiltzea edo aisialdi-zerbitzuak erabiltzea).

### 9.3.6. ICTak erabiltzeko arrazoen bilakaera Euskadiko biztanlerian

ICTak erabiltzeko arrazoiek azken 5 urteotan (2006-2011) Euskadiko 10 eta 74 urte bitarteko biztanleengan izan duten bilakaera aztertuz gero, hainbat ondorio interesgarri atera ditzaizkegu:

- Egun (2011 ekitaldiko Eustaten datuen arabera), Internet erabiltzeko arrazoen *rankinga* 2006an erregistratutakoaren berdin-berdina da. Hau da, posta elektronikoen erabilerak eta ondasun eta zerbitzuei buruzko informazioaren bilaketak jarraitzen dute Internet erabiltzeko arrazoi nagusi izaten, eta komunikabideen kontsulta, aisialdi-zerbitzuak eta txatak bezalako komunikazio-tresnak, bost urte beranduago, Euskadiko biztanleriak sarea erabiltzeko arrazoi nagusiak dira oraindik ere.
- Erabilera-arrazoi horien portzentajeak igotzen joan dira urteotan, nabarmena den bezala, ondasun eta zerbitzuen salmentako eta prestakuntza arautuko ekintzetako ICTen erabilera salbu, 2006ko balioei eusten baitiete, hazkunderik jasan gabe.
- Portzentajeak gehien igo dituzten arrazoiak honakoak dira (ordenan):
  - Ondasun eta zerbitzuei buruzko informazioaren bilaketa: 2006an 10 eta 74 urte bitarteko euskal biztanleen % 72,7k erabiltzen zuten Internet helburu horretarako. Egun (2011ko datuak), sarean ondasun eta zerbitzuei buruzko informazioa bilatzen duten biztanleen portzentajea % 88,5ekoa da. Hau da, azken urteotan ehuneko 15,8 igo da.
  - Aisialdi-zerbitzuen erabilera: Internet erabiltzeko arrazoi hau ehuneko 12,7 puntu igo da 2006 eta 2011 artean. 2006an biztanleriaren % 40,4k erabiltzen zuten Internet aisialdi-zerbitzuez gozatzeko eta egun kopuru hori igo egin da, % 53,1era arte, hain zuzen ere.
  - Posta elektronikoen erabilera: Eustaten IGIF datuek azaltzen duten bezala, Interneteko erabiltzaileen artean erabilera-portzentajerik altuena erregistratzen duen zerbitzua da. Horrenbestez, 2006an biztanleriaren % 77,4k aitortzen zuten posta elektronikoa erabiltzen zuela. Kopuru horrek, orain arte, ehuneko 11,4ko igoera jasan du, hau da, egun biztanleriaren % 88,8k aipatzen du posta elektronikoa Internet erabiltzeko arrazoi nagusi gisa.
  - Osasunari buruzko informazioa: Internet erabiltzeko arrazoiaren artean azken 5 urteotan gehien igo den arrazoietakoa laugarrena da. 2006. urtean, Euskadiko 10 eta 74 urte bitarteko biztanleriaren % 16,6k bilatzen zuten Interneten osasunari buruzko informazioa. Datu hori egun % 27,5ekoa da. Hazkunderari erreparatuz gero, azken 5 urteetan biztanleriaren % 10,9k gehiago (Internet-erabiltzaileen artean) erabiltzen du Internet osasunari buruzko informazioa bilatzeko.

## 9.4. Interneten erabileraren ezaugarriak

Biztanleriaren dauden erabilera-eten digitalak aztertzeko aukera ematen digun beste alderdi bat Interneten erabileraren ezaugarriak dira. Hau da, zenbat denbora ematen du

jendeak egunean Internetera konektatzen? Gazteek eta nagusiek denbora bera ematen al dute? Nortzuk ematen dute denbora gutxiago Internetera konektatuta? Zenbatero erabiltzen da Internet bizitzako eremu jakin batzuetan?

Halaber, ikuspegi horri esker hurrengo kapituluaren aurkezpena egiten dugu, eskuratzeko-etenari buruzkoa bera. Bertan, sakon aztertuko dugu ea talde batzuek zergatik erabiltzen duten Internet eta beste batzuek ez, ea zeintzuk diren Internetek beren bizitzari egiten dieten ekarpenei buruzko usteak eta zein kontzientzia duten beren ahalduntze digitalaren mailari buruz eta ICTen erabileran aurrera egiten jarraitzeko asmoari edo asmo faltari buruz, eremu sozialean eta publikoan parte hartzeko ahalduntze-tresnak direnez gero.

Kasu honetarako erabilitako iturria Arartekoak txosten berezi honen esparruan e-partaidetzari eta ICTak eskuratzeari buruz egindako inkesta da.

### 9.4.1. Interneten erabileraren maiztasuna

Txosten honetara *ad hoc* egindako inkesta telefonikoko datuen arabera, Euskadiko Internet-erabiltzaileen % 79,6k (16 urtekoak edo gorakoak) erabiltzen du Internet egunero, % 16,8k erabiltzen du astero, baina ez egunero, eta % 3,6k aitortzen du gutxienez hilean behin erabiltzen duela.

Datu horien arabera, biztanleriaren portzentaje altu batek (ia % 80) erabiltzen du Internet egunero.

Erabileraren maiztasunak generoaren arabera aztertuz gero, gizonak maiztasun gehiago erabiltzen dute Internet emakumeek baino. Hori horrela, gizonen % 81,8k erabiltzen du Internet egunero eta emakumeen % 77,4k.

Adinei erreparatuz gero, datuen arabera zenbat eta adin nagusiagoa, orduan eta maiztasun gutxiago Internet erabiltzeko orduan. Biztanleriari gazteenaren (16-34 urte) % 89,6k erabiltzen du Internet egunero, % 8,4k astero (baina ez egunero), eta % 2,1ek hilean gutxienez behin erabiltzen du.


Adin-tarteetan gora egin ahala, erabilera-maiztasunaren portzentajeak bitarteko maiztasunetara mugitzen dira (Internet astero erabiltzen dutenetara, baina ez egunero). Hurrengo grafikoa ikus daitekeenez, Internet erabiltzen duten 55 urteko goragoko pertsonen % 68,4k erabiltzen du egunero eta ia % 30ek astero (baina ez egunero).

Ikasketa-mailaren arabera aztertuz gero, ikasketa-maila altuagoetan erabiltzen da maizago Internet. Hori horrela, Internet erabiltzen duten eta unibertsitate-ikasketak dituzten biztanleen % 86,3k aitortzen du Internet egunero erabiltzen duela, eta Internet erabiltzen duten eta lehen hezkuntzako ikasketak dituzten pertsonen % 72,5ek.

Euskadiko biztanleriak ICTen gainean egiten duen erabilerari buruzko datuen aurreko hausnarketetan islatu den bezala, jarduerarekiko harremanak ere lotura omen dauka Internet erabiltzeko maiztasunarekin. Internet erabiltzen duten ikasleek eta besteren konturako langileek erregistratzen dituzte portzentajerik altuenak (% 89,1 eta % 87,7, hurrenez hurren) Internet egunero erabiltzen dutenen artean. Aitzitik, jarduerarekin duten harremanaren arabera erabilera esporadikoagoa egiten duten pertsonak etxeko andreak eta erretiratuak dira.

(60. irudia)

**Internet erabiltzen duten pertsonen Internet erabiltzeko maiztasuna, adinaren arabera (Internet erabiltzen duten pertsona guztien gaineko %a)**



Guk egina Arartekoaren IKTak eskuratzeari eta e-partehartzeari buruzko inkestaren datuak oinarri izanda, 2012.

Erabilera-maiztasunaren eta etorkinen arteko harremanak alde garrantzitsuak islatzen ditu. Etorkinek Internet era esporadikoagoan erabiltzen dute, espainiar nazionalitatea dutenek baino. Hori horrela, Internet erabiltzen duten etorkinen % 58,8k egunero erabiltzen du, eta portzentaje hori % 80,3koa da etorkinak ez diren pertsonen kasuan. Internet erabiltzen duten etorkinen % 30,7k astero erabiltzen du (baina ez egunero) eta % 10,6k hilean gutxienez behin.


Bestalde, Internet erabiltzeko maiztasunaren eta ezgaitasunaren arteko harremanak datu positiboak ematen dizkigu. Internet erabiltzen duten eta ezgaitasunen bat duten pertsonen % 85ek adierazi du inkestan egunero erabiltzen duela Internet. Hau da, portzentaje hori ezgaitasun aitorturik ez duten pertsonen erregistratutakoa baino 5 puntu altuagoa da.

Habitataren tamainak (inkesta egin duen pertsonaren bizilekuko biztanle-kopuruak) ere nolabaiteko harremana dauka Internet erabiltzeko maiztasunekin. 50.000 biztanletik gorako habitatetan (50.000-100.000 eta 100.000 biztanletik gora) erabilera-maiztasuna biziagoa den arren, kopuru hori murriztu egiten da eta bitarteko erabilera-maiztasunetan batzen da (asteroko erabilera, baina ez egunerokoa, eta hilean gutxienez behingoa), habitat txikiagoen kasuan. Horrenbestez, 100.000 biztanletik goragoko habitatetan bizi diren Euskadiko Internet-erabiltzaileen % 83k erabiltzen du Internet egunero

eta 10.000 eta 20.000 biztanle arteko habitatetan portzentaje hori ehuneko 9 baino gehiago murrizten da (% 73,7).

(61. irudia)

**Internet erabiltzen duten pertsonen Internet erabiltzeko maiztasuna, lanbidearen arabera (Internet erabiltzen duten pertsona guztien gaineko %a)**



Guk egina Arartekoaren IKTak eskuratzeari eta e-partehartzeari buruzko inkestaren datuak oinarri izanda, 2012.

**9.4.2. Egunero Internet erabiltzen ematen den denbora**


Arartekoaren e-partaidetzari eta IKTak eskuratzeari buruzko inkestako datuen arabera, Euskadiko Internet-erabiltzaileek batez beste 106 minutu ematen dituzte egunean Interneten. Horixe da, hain zuzen ere, honako galderari eman zaion erantzuna: "Esango al zenidake, mesedez, atzo zenbat denbora eman zenuen Interneten?".

Maiztasunen banaketak zehaztasun gehiago ematen dizkigu: adibidez, Internet-erabiltzaileen % 40,7k ordu bate baino gehiago ematen duela egunero Interneten.

Egunero Interneten emandako denborak aldeak islatzen ditu gizon eta emakumeen erabilaren artean. Gizonek batez beste 120 egun ematen dituzte egunean eta, emakumeek, aldiz, 92 minutu. Maiztasunen banaketari esker zehaztasun gehiagotz azter dezakegu datu hori. Internet erabiltzen duten gizonen % 45,9k aitortu du Internet erabili zuela atzo ordu bate baino gehiago, eta emakumeen kasuan portzentaje hori % 35,7koa da (hau da, ehuneko 10etik goragoko *gapa*).

(62. irudia)

### Internet erabiltzen duten pertsonen egunean Interneten emandako denbora, sexuaren arabera (unitateak: minutuak)



Guk egina Arartekoaren IKTak eskuratzeari eta e-partehartzeari buruzko inkestaren datuak oinarri izanda, 2012.

Internet erabiltzen dutenek bertan ematen duten denboran eragina daukan beste faktoreetako bat adina da. Hori horrela, Internet-erabiltzaileek gazteenek egunean batez beste 155 minutu ematen dituzte eta 35 eta 54 urte bitarteko biztanleek egunean batez beste 72 minutu (gazteek ematen duten denboraren erdia baino gutxiago). Bestalde, 55 urte edo goragoko Internet-erabiltzaileek batez beste 95 minutu ematen dituzte egunean Internet erabiltzen. Datu horrek agerian uzten du, txosten honetako beste atal batzuetan sarbide-etenari eta adin-tarterik altueneko pertsonen erabilerari buruz aritu bagara ere, kopuru horiek islatzen duten eszenatokian adin nagusiagoa duten Internet-erabiltzaileek beste adin-tarte batzuek (35-54 urte) baino denbora gehiago ematen dutela Interneten eta, beraz, IKTen erabilera-porzentajeak (teknologia bat erabiltzen duten pertsonen %) askoz altuagoak direla.

Ikasketa-mailak zenbat eta altuagoak izan, orduan eta denbora gehiago ematen dute Interneten. Halaxe azaltzen du hurrengo grafikoak. Euskadiko unibertsitate-ikasketadun Internet-erabiltzaileek batez beste 115 minutu ematen dituzte egunean Internet erabiltzen, bigarren hezkuntzako ikasketak dituzten Internet-erabiltzaileek 104 minutu eta lehen hezkuntzako ikasketak dituztenek 85 minutu.


Jarduerarekiko harremanaren eta Internet erabiltzen emandako denboraren arteko harremanari dagokionez, beren kontura lan egiten duten eta ikasleak diren Internet-erabiltzaileak dira Interneten denbora gehien ematen dutenak, 147 eta 130 minutu, hurrenez hurren. Erretiratuak eta etxeko andreak dira Internet erabiltzen denbora gutxien erregistratu dutenak, 76 eta 75 minutu egunean, hurrenez hurren.

Beste herrialde batzuetatik datozen eta Espainian jaio diren biztanleek Interneten ematen duten denbora alderatuz gero, etorkinak dira garaileak. Etorkinek batez beste 146 minutu

ematen dituzte Interneten nabigatzen, eta etorkinak ez direnek, aldiz, batez beste 104 minutu egunean. Maiztasunen banaketak zehaztasun gehiago ematen digu: Internet-erabiltzen duten etorkinen % 44,3k egunean ordubate baino gehiago ematen du Internet erabiltzen eta etorkinak ez direnen kasuan % 40,6k.

(63. irudia)

### Internet erabiltzen duten pertsonen egunean Interneten emandako denbora, ikasketamailen arabera (unitateak: minutuak)



Guk egina Arartekoaren IKTak eskuratzeari eta e-partehartzeari buruzko inkestaren datuak oinarri izanda, 2012.

Taldean araberako azterketarekin jarraituz, datuei jarraiki ezgaitasun aitorturen bat duten Internet-erabiltzaileek egunean batez beste 165 minutu ematen dituzten Internet erabiltzen eta ezgaitasunik ez daukaten pertsonen 103 minutu erregistratu dituzte. Egunean ordubate baino gehiagoko aldea dago Interneten erabileran, maiztasunen banaketak ematen digun datuak estatistikoki berresten duen bezala: ezgaitasun bat duten Internet-erabiltzaileen % 72,6k aitortzen du atzo ordubate baino gehiagok erabili zuela Internet.

Habitataren tamaina eta Interneten egunean emandako denbora ere zuzenean lotuta daude: habitata zenbat eta handiagoa izan, orduan eta denbora gehiago ematen dute egunean Internet erabiltzen Euskadiko Internet-erabiltzaileek. Horrenbestez, 100.000 biztanletik gorako habitatan bizi diren Internet-erabiltzaileek egunean batez beste 119 minutu ematen dituzten Internet erabiltzen, 50.000 eta 100.000 biztanle arteko tamaina duten habitatan bizi diren Internet-erabiltzaileek 109 minutu eta 20.000 eta 50.000 biztanle arteko habitatan bizi direnek 103 minutu. Kontrasterik handiena 10.000 eta 20.000 biztanle arteko habitatan bizi diren Internet-erabiltzaileen kasuan ageri da, egunero Interneten ematen duten batez bestekoa 87 minutukoa baita.


### 9.4.3. Interneten erabileraren maiztasuna, eremuen arabera

Txosten berezi honen esparruan e-partaidetzari eta IKTak eskuratzeari buruz egindako inkestak ematen digun beste ikuspegi aztergai bat zera da, bizitzako eremu jakin batzuekin lotuta dauden Internet-erabileren maiztasuna ezagutzeari:

- Interneten erabilera lanean edo ikasketetan.
- Interneten erabilera lanarekin lotutako gaietan prestakuntza jasotzeko.
- Interneten erabilera lagunekin edo senideekin harremanetan jartzeko.
- Interneten erabilera gizarte-sareetan parte hartzeko (Facebook, Twitter...).
- Interneten erabilera GKE, elkarte, borondatezko lan eta abarretan parte hartzeko.

(64. irudia)

#### Biztanleria Internet egunero erabiltzeko maiztasunaren eta eremuen arabera (Internet-erabiltzaile guztien gaineko %a)



Guk egina Arartekoaren IKTak eskuratzeari eta e-parte hartzeari buruzko inkestaren datuak oinarri izanda, 2012.

Aurreko grafikoa ikus daitekeenez, lana eta ikasketak, eta lagun eta senideekin harremanak dira Internet egunero helburu horretarako erabiltzen duten pertsonen portzentajerik altuenak erregistratu dituzten eremuak (% 49,5 eta % 45,8, hurrenez hurren).

Bestalde, Euskadiko Internet-erabiltzaileen % 32,4k egunero erabiltzen du Internet gizarte-sareetan parte hartzeko eta % 12,8k astero (baina ez egunero). Internet erabiltzen duten pertsonen % 23,9k dio Internet egunero erabiltzen duela lanarekin lotutako gaietan prestakuntza jasotzeko, % 15,2k dio astero erabiltzen duela horretarako, baina ez egunero, eta % 9,8k aitortzen du Internet horretarako erabiltzen duela, baina ez hileroko.

Daturik esanguratsuenak honakoa da: internet-erabiltzaileen % 79,7k baieztatzen du ez duela Internet inoiz erabiltzen GKE, elkarte edo borondatezko lanetan parte hartzeko, % 20,3k aitortzen du Interneten erabilera esporadikoagoa egiten duela partaidetzarako erakunde eta tresna mota horien bidez parte hartzeko, eta % 3k soilik dio Internet helburu horretarako erabiltzen duela. Adierazle honek islatzen duen bezala, internautek gizarte-partaidetzaren eremuan egiten duten erabilera oraindik oso baxua da. Txosten berezi honetako partaidetza-eten digitalari buruzko kapituluaz aztertu dira arrazoiak, oztopoak edo itxaropenak.

## 10.

### Eskuratzeko-eten digitala

IKTen eskuratzeko-eten aztertzen hasi baino lehen, txosten berezi hau zein ikuspegitik jorratu den azaldu behar da labur-labur.

Eskuratzeko-eten digitala deskribatzeko modurik onenetakoa beharbada **IKTak eskuratzeari buruz ari garenean zer esan nahi dugun** azaltzea da. Teknologiari ematen dizkion erabilera desberdinen bidez teknologia berrasmatzeko gaitasuna deskubritzen duen banakako, enpresa eta abarren ahaldu digitalari buruz ari garenean esaten dugu IKTak eskuratzeko ari garela. Erabilera horiek maiz ez dira teknologia horren programazioan edo diseinuan xedatutakoak. Ondorioz, teknologiaren garapena hobetzeaz gain, erabiltzaileei erabilera hobea lortzeko aukera ematen die. Filosofia hori plataforma teknologiko batzuen negozio eta garapenaren ereduari sartu da (*smartphonen* kasuan, esaterako). Hala, erabiltzaileak dira aplikazio berriak diseinatu ditzaketanak, gailuetan funtzionaltasun berriak sartzeko eta horren negozioa egin ahal izateko edo doan partekatu ahal izateko beste erabiltzaile-erkidego batzuekin. Eskuratzeko ez du nahitaz esan nahi zerbitzuak garatzeko gaitasuna: termino horren barruan sartzen da erabiltzaileek modu eta tresnak identifikatzeko eta erabiltzen dituzten teknologien errendimendua eta funtzionaltasuna hobetzeko duten gaitasuna ere.

Castellsek adierazi zuen bezala:

*“...erakundeek, enpresek eta jendeak orokorrean edozein teknologia eraldatzen dute, beraz eskuratu, aldatu eta harrekin esperimentatu –Interneten kasuan gertatzen da hori bereziki, komunikaziorako teknologia baita–”.*

Castells, M (2003): *La Galaxia Internet*. Mondadori. Bartzelona.

Txosten honetako ikuspegiak eskuratze-eten digitalari ematen dion definizioan ezarritakoaren arabera, eskuratze-etenaren sorreran era isolatuan edo elkartuan esku har dezaketen faktore hauek islatzen dira:

- **IKTen erabileraren pertzepzioa.** Hau da, informazioaren gizartetik “desentxufatuta” geratzeko arriskua, nahiz IKTek eman diezazkigun onura eta abantailak: ahalduntzea, bi-zi-kalitatea, gizarte-ongizatea, lana egiteko hobekuntzak, ikasketetarako babesak, eta abar. Normalean faktore hau praktika on askotan islatzen da, infobaztertuta dauden edo hala egoteko arriskua duten pertsonak ere IKTei hurbiltzeko interesa dutelarik, betiere interes pertsonal batekin edo beren bizitzetako alderdiaren bat hobetuko duen onura zuzen batekin lotzeko gai direnean. Aitzitik, kontrako egoera ere gerta daiteke. IKTen eta beren bizitzako edozein eremuren lotura zuzena ikusita, eta tresna horiek beren bizitzari eman diezaioketenaren aurreko ezagutza falta dela-eta, axolagabe azaltzen dira, eta, kasu batzuetan, baztertu egiten dituzte. Egin al daiteke apustu ezagutzen ez dugun zerbaiten alde?
- **IKTen erabilera-mailari buruzko pertzepzio zehatza.** Arartekoaren txosten berezi honen esparruan Euskadiko e-partaidetzari eta IKTak eskuratzeari buruz egindako inkestaren datuetan aztertuko dugun bezala, pertsona batzuek erabiltzaile aurreratu gisa ikusten dute euren burua eta beste batzuek (ezagutza-maila berarekin) oinarritzko erabiltzailetzat jotzen dute euren burua. Hori horrela, osagai nagusietako bat ahalduntze digitalaren eskala posible batean gure posizioa zein den azaltzeko gaitasuna da (ikuspegi teorikoaren kapituluaren azaldua). Pertzepzio desberdinen aldeak bizitzako eremu desberdinetara edo behintzat biztanleriaren artean hedatzeko gabeziak aplikatutako eskumen digitalen esparru garbi bat ez existitzearen emaitza dira. Horrenbestez, seguru asko biztanleriaren portzentaje garrantzitsu batek ueste du eremu sozial eta profesionalean IKTein aritzeko beharrezko eskumenak dituela, baina pertsona horiek gai izango al lirateke eskumen horiek zeintzuk diren zehazteko?
- **Ikaskuntza-eten** posiblea. Hau da, ahalduntze digital jakin bateko maila indibiduala (baxua, ertaina, altua) abiapuntutzat hartuta, pertsona batzuek ikasten jarraitzeko eta eremu profesional, pertsonal eta bestelakoetara aplikatutako tresna eta zerbitzu berriak berengantzeko beharrezko sentitzen dute. Aitzitik, beste pertsona batzuek ez dute beren bizitzetan IKTen erabilera eta aplikazioari buruz ikasten jarraitzeko beharrik sentitzen. Arrazoiak askotarikoak dira: interes-falta, tresna berrien gaineko ezagutza-falta, aurreko prestakuntza-prozesuetako esperientzia zapuztuak, IKTen eremuan jarraitu ohi diren prestakuntza-eskumen bazterketa (hez-kuntza arautuaren antzekoegia eta formalegia), IKTen eta zerbitzu digitalen erabilera buruzko prestakuntza jasotzeko tokiaren ezagutza-falta eta abar.
- **“Zerbait gehiago” lortzeko jakin mina (erabilera berri-zaileak).** Zer gehiago lor dezaket tresna honetan? Alda dezaket edo beste tresna edo teknologia batekin lot dezaket funtzionaltasun edota zerbitzuak hedatu ahal izateko? Tresna teknologiko hau aplikatu dezaket dauzkadan beharrezko zehatz batzuei erantzuna ematen saiatzeko?

IKTen eskuratzailer-maila honek adierazten du banakakoak, tresna eskuratu eta bere bizitzako eremuren batean aplikatzeaz gain, berau aldatu eta etekin gehiago lortzeko gai izan dela. Egun gure artean dauden IKT tresna edo zerbitzu askoren jaiotzan edo hobekuntzan ikus ditzakegu fenomeno hau azaltzen duten adibide ugari. Gailu mugikorren konpainia handiek, adibidez, duela urteak ezarri dituzte erabiltzaileen proposamenak jasotzeko gai diren sistemak, beren gailuak hobetze aldera. Gailu honetako berrikuntza-portzentaje oso altu bat erabiltzaileek egindako ekarpenen emaitza dira, eta ez nahitaz I+G+b prozesu tradizionalen ondorio.

(65. irudia)

### Eskuratze-eten digitala



### 10.1. IKTen erabileraren pertzepzioa Euskadiko biztanlerian

Arartekoaren e-partaidetzari eta IKTak eskuratzeari buruzko inkestan honakoa galdetu zen, txosten berezi honen esparruan: **“Zure bizitzako zein alderdi hobetu dira neurri handiagoan Interneten eta IKTen erabilerari esker?”** Inkesta egin zuten biztanleen % 35,5ek (bat-bateko erantzuna) dio bere gizarte-harremanak eta sende eta lagunekin komunikatzeko erraztasunak hobetu direla eta pertsona gehiago ezagutzen dituztela IKTei esker.

% 31,8ren esanetan, Internet eta IKTak erabiltzeari esker informazio gehiago eskuratu dezake, bai arintasunaren ikuspegitik, bai eskuratzen duen informazioaren erraztasun eta kopuruaren ikuspegitik.

Bestalde, % 15,1ek dio IKTen erabilerak bere lan-egoera hobetzen lagundu diola, hau da, zereginak sinpletzen, komunikazioa hobetzen eta abar lagundu diola.

### (III). BESTE ETEN DIGITALAK

Inkesta egin duten pertsonen % 6,2k dio hobetu egin dela beren prestakuntza-maila eta lagundu egin diela ikasketetan, alderdi horietan nabaritu dutelarik teknologien erabileraren onurarik handiena.

Bestetik, inkestako datuak aztertuz gero, datu benetan bitxia ikus dezakegu:

*Euskadin Internet erabiltzen duten biztanleen % 13,5ek uste du Internet edo ICTak erabiltzeak ez diola hobekuntza zehatzik eragin beren bizitzako alderdi batean ere.*

Ondorioz, biztanle batzuen ustez, Internet eta bestelako teknologiak erabiltzen dituzten arren, ez dute hobekuntzarik ikusten beren bizitzako eremu desberdinetan (profesionala, pertsonala eta abar). Kapitulu honen sarreraren adierazi den bezala, teknologien eta gure bizitzako alderdiren baten hobekuntza edo erabilgarritasun zuzen batekin harremanik ez badago, eskuratzeko-eragina eragin daiteke.

#### 10.1.1. IKTen generoa eta erabilera-pertzepzioa

Generoaren aldagaia eta IKTen erabileraren pertzepzioa gurutatzuz gero irteten den emaitza aztertzen badugu, gizon gehiagok esaten dute IKTek informazioa eskuratzen lagundu diela (% 65,4, emakumeek erregistratutako % 28,2ren aldean) eta biztanleriaren bat-bateko erantzunak batu dituzten gainerako alderdi edo eremuetan, emakumeek erabileraren ondorioz eragin positiboa edo hobekuntza jaso izana aitortzen dute (gizonek baino gehiago).

Hurrengo grafikoen ikus daitekeenez, emakumeek IKTen erabileraren eragin positiboagoa antzematen dute gizonek baino honako alderdietan: gizarte-harremanak, lan-egoeraren hobekuntza, tramiteak egiteko eta ezagutza berriak eskuratzeko denbora gutxiago, prestakuntzaren eta ikasketen hobekuntzak, baita enpleguaren bilaketa ere.


Datu horiek beste adierazle batekin osatzen dira, informazio argia emanez:

*Euskadiko emakumezko Internet-erabiltzaileen % 11,9k pentsatzen du Internet eta ICTak erabiltzeak ez duela bere bizitzako alderdi bat ere hobetu. Datu hori % 15,1ekoa da gizonezkoen kasuan. Ondorioz, kopuru horiek ikusita, argi dago gaur egun emakumeek gizonek baino neurri handiagoan ikusten dutela IKTen eragin positiboa.*

Hori abiapuntu garrantzitsua da IKTen erabileran eta sarbi-dean genero-eten digitala ezabatzeke lan egiten jarraitu ahal izateko.

(66. irudia)

**Internet erabiltzen duten 16 urtetik gorako pertsonak, Interneten eta teknologia berrien erabilerari esker beren bizitzan hobetu diren alderdien eta sexuen arabera (%), 2012**



Guk egina Arartekoaren ICTak eskuratzeari eta e-partehartzeari buruzko inkestaren datuak oinarri izanda, 2012.

#### 10.1.2. IKTen adina eta erabilera-pertzepzioa

Adinaren eta IKTen erabilera-pertzepzioaren arteko harremanak berresten du pertsonarik gazteenak direla IKTen erabileraren eragin handiena jasaten dutenak beren bizitzako alderdi edo eremu desberdinen hobekuntzan.


Hori horrela, grafikoen ikus daitekeen bezala, Euskadiko 16 eta 34 urte bitarteko Internet-erabiltzaileen % 7,2k soilik uste du IKTen erabilerak hobekuntza edo eragin positiboa izan duela bere bizitzako alderdiren batean eta portzentaje hori gora doa adin-tarteetan gora egin ahala, 55 urte edo gorakoaren artean % 19,4ra iritsiz.



Erronka handia daukagu oraindik aurretik. Izan ere, ICTak erabiltzen dituzten 55 urte edo goragoko biztanleen % 50ek ez du lotura zuzenik ikusten horiek erabiltzearen eta beren bizitzako alderdi edo eremuen hobekuntzaren artean.

(67. irudia)

**Internet erabiltzen duten 16 urtetik gorako pertsonak**, Internet eta teknologia berrien erabilerrari esker beren bizitzako alderdi bat ere hobetu ez dela diotenak, adin-taldean arabera (%), 2012



Guk egina Arartekoaren ICTak eskuratzeari eta e-parte hartzeari buruzko inkestaren datuak oinarri izanda, 2012.


*Ranking* honetan islatzen da biztanleriak eragin edo hobekuntza gehien zein alderditan antzeman duen, adin-taldean arabera.

Biztanleriak ICTen erabilera-hobekuntzan antzeman dituen hiru eremu nagusien *rankingean* (adin-taldean arabera) aipatzekoa da ez dela aurkitu zuzenean gizarte-ongizatearekin edo enplegua bilatzeko laguntza edo hobekuntzarekin nahiz ikasketa edota prestakuntzako laguntzarekin lotutako oinarritzko alderdirik.

Hori horrela, nabarmena da, era berean, 55 urte edo goragoko biztanleen % 11,7k diola ICTak gehien hobetu dituen alderdi nagusiak aisia eta entretenimendua izan direla. Porzentaje hau biztanleria gaztean erregistratukoa baino askoz altuagoa da: 35-54 urteko biztanleen % 1,7 eta 16-34 urte bitartekoan % 4,1.

(68. irudia)

**ICTek beren bizitzan duten eraginaren rankinga**



### 10.1.3. ICTen erabilerraren pertzepzioa eta ikasketa-maila


Ikasketa-mailak eragin argia dauka ICTen erabilerraren eta bizitzako alderdi edo eremu jakin batzuen hobekuntzaren arteko harremana ulertzeko moduan.

Arartekoaren e-partaidetzari eta ICTak eskuratzeari buruzko inkestako datuen arabera, ikasketa-maila zenbat eta altuagoa izan, orduan eta biztanle gehiagok uste du ICTen erabilerrak hobekuntza zuzenak ematen dizkiola bere bizitzako hainbat alderditan. Hori horrela, unibertsitate-ikasketak dituzten Internet-erabiltzaileen % 8k soilik dio Internet eta ICTen erabilerrak bere bizitzako alderdiren bat hobetu duela, bigarren hezkuntzako ikasketak dituzten pertsonen kasuan portzentaje hori % 17,3koa da, eta lehen hezkuntzako ikasketak dituzten Internet-erabiltzaileen artean % 18,6koa.

Interneten erabiltzaileek adinaren arabera antzeman dituzten hobekuntzak alderatuz gero, datu esanguratsu bat ikus dezakegu. Lan-egoeraren hobekuntzarekin (zereginak sinplifikatzea, komunikazioa hobetzea eta abar) eta lana bilatzeko hobekuntzekin lotutako alderdiei buruz ari gara.

(69. irudia)

**Internet erabiltzen duten 16 urtetik gorako pertsonak, Internet eta teknologia berrien erabilerari esker beren bizitzako alderdiren bat hobetu dutenak, ikasketak-mailaren arabera (%), 2012**



Guk egina Arartekoaren IKTak eskuratzeari eta e-parte hartzeari buruzko inkestaren datuak oinarri izanda, 2012.

Unibertsitate-ikasketak dituzten Internet-erabiltzaileen % 24,7k uste du Internet erabiltzeari esker bere lan-egoera hobetu egin dela. Bestalde, portzentaje hori % 10era murrizten da bigarren hezkuntzako ikasketak dituzten erabiltzaileen kasuan eta % 1,3ra lehen hezkuntzako ikasketak dituzten pertsonen kasuan.

Era berean, unibertsitate-ikasketak dituzten erabiltzaileen % 3,3k uste du Internet eta IKTen erabilerak lana bilatzen lagundu diela, eta bigarren hezkuntzako ikasketak dituzten Internet-erabiltzaileen kasuan kopuru hori % 0,8ra jaisten da. Lehen hezkuntzako ikasketak dituzten pertsonen kasuan, profil hori duen eta inkesta egin duen pertsona batek ere ez du aitortu IKTen erabileraren eta lana bilatzeko hobekuntzen artean harremanik dagoenik.

Lehen eta bigarren hezkuntzako ikasketak dituzten Internet-erabiltzaileek gizarte-harremanak aukeratu dituzte IKTen erabilerari esker gehien hobetu diren alderdi gisa (% 48,1 eta % 32,3, hurrenez hurren), unibertsitate-ikasketak dituzten pertsonen informazioa eskuratzeko hobekuntzak kokatzen dituzte hobetutako alderdi edo eremuen rankingaren buruan (% 39,1) eta gizarte-sareak daude ondoren (% 34,1). Era berean, unibertsitate-ikasketak dituzten pertsonak dira Interneten eta IKTen erabileraren eragin handiagoa aitortu dutenak administrazioko tramite, kudeaketa eta erosketak egiteko orduan (% 12,7).

**10.1.4. IKTen erabileraren pertzepzioa eta jarduerarekiko harremana**

Internet erabiltzen duten biztanleek IKTen erabileraren gainean duten pertzepzioari buruzko lan-hipotesietako bat honakoa da: aldeak daudela lanaren edo jarduerarekiko harremanaren arabera. Taula honetan ikusi ahal ditugu inkesta egin duten pertsonen (bat-bateko erantzuna) estatistikoki daturik esanguratsuenekin identifikatu dituzten alderdi edo eremu nagusietako batzuk. Horrela, alderdi horiek neurri handigoan zein profilek identifikatu dituzten (lanaren arabera) eta Interneten eta IKTen erabilerari esker hobekuntza handiagoa notatzuk antzematen duten jakin ahalko dugu.

(12. taula)

**IKTen erabileraren pertzepzioa eta jarduerarekiko harremana**

EREMUA <sup>50</sup>	LANBIDEA	PORTZENTAJEA (%)
Gizarte-harremanak, hobetu komunikatzen naiz sende eta lagunekin, jende gehiago ezagutzen dut	Ikaslea	% 66,7
Informaziorako sarbidea: kopuru handiagoa, errazago eta arinago	Erretiratu	% 41,3
Lan-egoera: zereginak sinplifikatzea, komunikazioa hobetzea, eta abar.	Norberaren konturako langilea	% 35,1
Tramite, kudeaketa eta erosketak egiteko denbora aurrezte	Norberaren konturako langilea	% 22
Ezagutza berriak hartzen ditut, nire kultura hedatzen dut	Etxeko andrea	% 24,6
Aisia eta entretenimendua	Erretiratu	% 15,5

Aztetu beharreko elementuak ematen dizkigun beste datu bat zera da: inkesta honen arabera, erretiratuen dira (lanbidearen arabera) IKTen erabilerak beren bizitzako alderdiren baten hobekuntzan duen eraginaren pertzepzio txikiena dutenak. Hori horrela, Internet erabiltzen duten erretiratuen % 14,7k uste du Internetek eta IKTek ez dutela beren bizitzako alderdi edo eremurik hobetu. Errealitate honen bestelako kasua da Internet erabiltzen duten ikasleena: % 2,6k soilik uste du Internetek ez duela bere bizitzako alderdirik hobetu.

**10.1.5. IKTen erabileraren pertzepzioa eta etorkinak**

Internet erabiltzen duten etorkinen % 66,5ek uste du Internet eta IKTak erabiltzeari esker bere gizarte-harremanak hobetu ahal izan dituela (familia eta lagunetikiko komunikazioa). Datu hau bereziki esanguratsua da, batez ere etorkinak ez direnkin alderatzen badugu, % 34,4k soilik uste baitu IKTek alderdi hori hobetzen lagundu diotela.

Aitzitik, horietako batek ere ez du uste Interneten erabilerak lana bilatzen edo lan-egoera hobetzen lagundu dionik.

<sup>50</sup> Taula interpretatzeko adibidea: Internet erabiltzen duten ikasleen % 66,7 da IKTak beren gizarte-harremanak gehien hobetu dituela uste duen sektorea (lanaren arabera).

Ezagutza berriak eskuratzea eta aisialdia eta entretenimendua hobetzea (% 12,8 eta % 9,4, hurrenez hurren) dira etorkinek IKTei esker gehien hobetu ahal izan dituzten alderdiak, etorkinak ez diren horiek baino neurri handiagoan.

Daturik esanguratsuenetako bat izan daiteke Espainian jaino diren Internet-erabiltzaileen % 14k uste duela Internetek ez diola hobekuntzarik eragin bere bizitzako alderdi edo eremu bateri ere, eta inkesta egin duten Internet-erabiltzaile etorkinen % 100ek dio beren bizitzako alderdiren bat hobetu edo lagundu diola.

### 10.1.6. IKTen erabileraren pertzepzioa eta ezgaitasuna

IKTek oraindik erronka handia dute aurretik, ezgaitasunen bat duten pertsonen bizi-kalitatea hobetzeko aukera eta beharizanaren moduan eta mailan.

Horrenbestez, IKTen erabilerari esker gehien hobetu diren bizitzako alderdi edo eremuak zeintzuk izan diren galde-tzean, Internet erabiltzen duten eta ezgaitasunen bat duten pertsonen % 6,5ek soilik erantzun du IKTen erabilerak bere lan-egoera hobetzen lagundi diola, kopuru hori ezgaitasun aitorturik ez duten pertsonen kasuan % 15,5ekoa izanik.

Bestalde, Internet erabiltzen duten biztanleen ia % 16k dio IKTak erabiltzeari esker bere bizitzako alderdi edo eremuren bat hobetu dela.

Ezgaitasunen bat duten biztanleen artean IKTek beren bizitzan eragin positiboa izan dutela aitortzen dutenen kasuan, % 12,8k dio tramite, kudeaketa eta erosketetako erosotasuna izan dela antzemandako hobekuntza. % 16,6k, bestalde, IKTen erabilera bere prestakuntzaren hobekuntzarekin eta ikasketetako laguntzarekin lotzen du, eta % 5,8k dio Internet eta IKTen erabilerari esker askoz errazago bilatu ahal izan duela lana. Hiru alderdi edo eremu horietan, erregistratutako portzentajeak altuagoak dira ezgaitasun aitorturik ez duten biztanleen kasuan baino.

### 10.1.7. IKTen erabileraren pertzepzioa eta habitata

Habitataren (habitataren tamaina, biztanle-kopurua) eta IKTen erabilera-pertzepzioaren arteko harremanari buruzko azterketak islatzen duenez, ez dago alde handirik IKTen erabilerari esker biztanlerian hobetu diren alderdi edo arrazoen *rankingean*.

Aitzitik, estatistikako alderaketa bertikalak (alderdi edo eremu bakoitzaren azterketa, balioak habitataren tamainaren arabera alderatuta) informazio interesgarria ematen digu. Hori horrela, lan-egoera, gizarte-harreman eta lan-bilaketaren eremuetako hobekuntzak indar handiagoa dauka 10.000 biztanletik beherako habitatetan bizi diren Internet-erabiltzaileen artean (% 22,9, % 40,2 eta % 3,9, hurrenez hurren), eta, bestalde, aisialdia edo ikasketetako laguntza bezalako alderdietako hobekuntza identifikatzen du sarriago habitat handietan bizi den biztanleriak (hiriburuak, 100.000 biztanletik gora) IKTen eragin positiboko alderdi gisa.

### 10.1.8. IKTen erabilera-maiztasuna, ezagutza eta erabilera-pertzepzioa

IKTen erabileraren pertzepzioa (onurak) ere Interneten erabileraren maiztasunarekin lotuta dagoela dirudi. Zenbat eta maizago erabili, orduan eta altuagoa da IKTen erabileraren pertzepzioa edo onura alderdi edo eremu desberdinetan.

Internet gutxienez hilean behin erabiltzen duen biztanleriaren % 33,2k ez du uste Interneten erabilerak bere bizitzako alderdi edo eremurik hobetu duenik. Portzentaje hori % 23,8ra murrizten da Internet astero baina ez egunero erabiltzen duten pertsonen kasuan. Internet egunero erabiltzen duten pertsonen artean % 10,4k soilik aitortzen du Internet erabiltzeak ez duela eragin positiborik izan bere bizitzako alderdi edo eremu batean ere.


Antzeko zerbait gertatzen da Interneten eta IKTen ezagutza-mailarekin. Ezagutza-maila zenbat eta altuagoa, orduan eta gehiago uste da teknologien erabilerak alderdi edo eremuren bat hobetu duela.

Kopuruei jarraiki, Internet eta IKTen gaineko oinarrizko ezagutzak dituztela dioten pertsonen % 19,5ek baieztatzen du Internetek ez duela bere bizitzako alderdi edo eremurik hobetu. Portzentaje hori % 3,2ra jaisten da IKT edo Interneten adituak omen diren erabiltzaileen kasuan.

Hurrengo grafikoan biztanleriaren balorazio eta alderdien alderaketa ikus daiteke, IKT eta Interneten gainean duten ezagutza-mailaren arabera:

(70. irudia)

**Internet erabiltzen duten 16 urtetik gorako pertsonak**, Internet eta teknologia berrien erabilerari esker bizitzan hobetu zaizkien alderdien eta Internet eta IKTei buruzko ezagutza-mailaren arabera (%), 2012



Guk egina Arartekoaren IKTak eskuratzeari eta e-parte hartzeari buruzko inkestaren datuak oinarri izanda, 2012.

### 10.2. Bizi-kalitatea, ongizatea eta IKTak

Aurreko atalean aztertu dugu Internet erabiltzen duten pertsonen zein mailatan lotzen duten haren erabilera IKTek beren bizitzako alderdi edo eremu batzuk hobetzeko duten ahalmenarekin.

Azterketa hori zehazteko asmoz, e-partaidetzari eta IKTak eskuratzeari buruzko inkestan IKTek bizi-kalitatean eta gizarte-ongizatean izan dezaketen eraginarekin lotutako hainbat esaldi aipatu zaizkie inkesta egin dutenei. Erantzuna zenbakizko balio bat da, 0tik 10era bitartean: 0 ez nago bat ere ados-10 guztiz ados nago.

Taula honetan esaldirik esanguratsuenak eta horietako bakoitzean eskuratutako batez besteko balioa islatu dira.

(13. taula)

**IKTen erabileraren bidez bizi-kalitatean eta gizarte-ongizatean hobetutako alderdiak**

IKTen erabileraren bidez bizi-kalitatean eta gizarte-ongizatean hobetutako alderdiak	Batez besteko balioa <sup>51</sup>
IKTek nire bizi-kalitatea hobetu dute	6,4
IKTei esker nire hiri edo lurraldeko bizitza sozial eta politikoa parte har dezaket	5,3
Herritarrek erakundeetan duten partaidetza areagotzen lagundu dute	6,3
IKTek nire osasuna hobetu dute	2,8
IKTek aukera gehiago eskaintzen didate lan-merkatuan	6,2
Erakundeak herritarrengana hurbiltzen lagundu dute	6,5
Herritarren eskubideak hobeto defendatu eta ezagutzen laguntzen dute	6,1
Eusko Jauriaritzak ematen dituen gizarte-zerbitzuak hobetzen lagundu dute	5,5
Gizarteko desberdintasunak murrizten lagundu dute	4,4
Osakidetzak emandako osasun-zerbitzuen kalitatea hobetu dute	5,5

Iturria: Arartekoaren 2012ko e-partaidetzari eta IKTak eskuratzeari buruzko inkesta.

#### “IKTek nire bizi-kalitatea hobetu dute”.

Taulan ikus daitekeen bezala, biztanleriak batez beste 6,4 puntu eman dizkio IKTek bizi-kalitatea hobetzen lagundu dutela dioen baieztapenari. Maiztasunen banaketari erreparratuz gero, zehaztasun handiagoa lortzen dugu eta, ikus dezakegunez, Internet erabiltzen duten biztanleen % 68,5 ados edo oso ados dago esaldi horrekin.

#### “IKTei esker nire hiri edo lurraldeko bizitza sozial eta politikoa parte har dezaket”.

Batez besteko puntuazioa 5,3 puntukoa da. Maiztasunen banaketaren arabera, Internet erabiltzen duten biztanleen % 51,3 ados edo oso ados dago esaldi horrekin. Hau da, Internet-erabiltzaileen erdiak baino gehiagok uste du IKTek bere testuinguruko alderdi sozial eta publikoetan parte hartzeko aukerak eskaintzen dituztela. Era berean, nabarmentzekoa da biztanleriaren % 31 ez dagoela ados edo bat ere ados baieztapen horrekin.

#### “Herritarrek erakundeetan duten partaidetza areagotzen lagundu dute”.

Baieztapen horrek are gehiago sakontzen du Internet-erabiltzaileek Internetek herritarren partaidetza areagotzeko duen erabilera edo ahalmenari buruz duten pertzepzioa, nahiz eta, kasu honetan, askoz gehiago jorratzen den administrazio publikoen bidez eremu publikoan parte hartzeko aukera.

Batez besteko puntuazioa 6,3koa da (0-10 eskalan) eta, ondorioz, biztanleria ados dago baieztapen horrekin, na-

<sup>51</sup> Batez besteko balorazioa, 0tik 10era: 0=ez nago bat ere ados eta 10=guztiz ados nago. Balioen interpretazioa: 0, 1 eta 2=ez nago bat ere ados, 3 eta 4=ez nago ados, 5=ez ados, ez kontra, 6 eta 7=ados, 8, 9 eta 10=oso ados.

hiz eta erantzunaren zehaztasunak maiztasunen banaketan ikus daitezkeen: Internet erabiltzen duten pertsonen % 62,8 ados edo oso ados dago Internetek herritarrek erakundee-tan duten partaidetza areagotu duela dioen baieztapenare-kin eta ikuspegi negatiboa, aldiz, hau da, ados edo bat ere ados ez daudenena, % 14,3koa da Internet-erabiltzaileen artean.

### “IKTek nire osasuna hobetu dute”.

Baieztapen horrek batez beste 2,8 puntu eskuratu zituen. Beraz, inkesta egin duen biztanleria ez dago bat ere ados baieztapenarekin. Maiztasunen banaketaren azterketa ir-moa da: Internet erabiltzen duten biztanleen % 64,9 ez dago ados edo bat ere ados esaldi honekin eta ia % 19 ez da ez ados, ez kontra. Kopuru horien arabera, internau-tek ez omen dute oso argi ikusten IKTen erabilerak eragin positibo zuzena izan duenik euren osasun-egoeran. Berez, % 14,9k soilik adierazi du baieztapen horrekin ados edo oso ados dagoela.

### “IKTek aukera gehiago eskaintzen didate lan-merkatuan”.

Esaldi horri batez beste 6,2 puntu eman dizkio Internet erabiltzen duen biztanleriak. Inkesta egin duten pertsonak ados daude IKTek (horien erabilerak, gaitasun digitalek) lan-merkatuan aukera gehiago ematen dietela dioen esal-diarekin. Hori horrela, internauten % 61,1ek baieztatzen du ados edo oso ados dagoela baieztapen horrekin eta % 18,9k aitortzen du ez dagoela ados edo bat ere ados.

### “Erakundeak herritarrengana hurbiltzen lagundu dute”.

Esaldi honek oso puntuazioa altua lortu du, 6,5 hain zuzen ere. Internet erabiltzen duten pertsonen % 67,3 ados edo oso ados dago baieztapen horrekin, IKTak sartzean erakundeak modernizatu egin direlako eta horrek erakunde publikoak eta herritarrak gehiago hurbildu dituelako. Bestalde, inkesta egin duten internauten % 13,3k aitortzen du ez dagoela ados edo bat ere ados esaldi horrekin.

### “Herritarren eskubideak hobeto defendatu eta ezagutzen laguntzen dute”.

Inkesta egin duten Internet-erabiltzaileen ia % 60k baieztatzen du ados edo oso ados dagoela baieztapen horrekin eta % 15,1ek soilik dio ez dagoela ados edo bat ere ados. Zenbaki orokorreari erreparatu gero, baieztapen horrek batez beste 6,1 puntu lortu ditu eta horrek agerian uzten du inter-nautek argi daukatela informazio gehiago eskuratu eta ko-munikazio berrietara jotzeko aukera tresna erabilgarria izan daitekeela herritarren eskubideak hobeto ezagutzeko eta es-kubideak defendatzeko formula berriak bilatu edo daudenak indartzeko.

### “Eusko Jaurlaritzak ematen dituen gizarte-zerbitzuak hobetzen laguntzen dute”.

Baieztapen horrek 5,5 puntu eskuratu ditu, hau da, balora-zio-eskalan “ez ados, ez kontra” egongo liriteke. Nahiz eta inkesta egin duten biztanleen % 45ek baieztatzen duen ados

edo oso ados dagoela esaldi horrekin, gainerako % 55a gainontzeko kategorietan banatzen da (ez ados, bat ere ados, ez ados ez kontra, ez daki/ez du erantzun) eta per-sona ugari (% 32) daude “ez ados, ez kontra” eta “ez daki/ez du erantzun” artean. Informazio horrek nahasia eman dezakeen arren, inkesta egiten duten biztanleek esaldi horri buruzko ezagutza-falta dutela iradoki lezake.

### “Gizarteko desberdintasunak murrizten lagundu dute”.

Inkesta egin duen biztanleria ez da esaldi horrekin ados ager-tu. Orik 10erako eskalan 4,4 puntu dituela, datuei jarraiki biz-tanleriaren % 30 soilik dago ados IKTek gizarte-desberdin-tasunak murrizten lagundu dutela dioen baieztapenarekin. Aitzitik, % 43,2k dio ez dagoela ados edo bat ere ados baiez-tapen honekin, % 22k dio ez dagoela ez ados, ez kontra, eta % 4,4k ez daki edo ez du erantzun. Argi dago, beraz, baz-terkeria digitaleko arriskuen pertzepzioari buruzko hurrengo atalean zehatzago aztertuko dugun bezala, biztanleria, gaur egun, ez dagoela ados IKTek gizarte-desberdintasunak mu-rriztea lortu dutela dioen baieztapenarekin.

### “Osakidetzak emandako osasun-zerbitzuen kalitatea hobetu dute”.

5,5eko puntuazioarekin, balorazioen taularen erdian kokatzen da, hau da, “ez ados, ez kontra”. Maiztasunen banaketari buruzko azterketari erreparatu gero, hobeto jakin dezake-gu inkesta egin duten biztanleek zein neurritan uste duten IKTen erabilerak Osakidetzak emandako osasun-zerbitzuen kalitatea hobetu duela. Hori horrela, internauten % 49,4k ai-tortu du baieztapen horrekin ados dagoela eta % 23,2k dio kontrakoa (ez dagoela ados edo bat ere ados).

Kasu honetan, berriz ere, erabaki sendorik gabe (ez daki/ez du erantzun, ez ados, ez kontra) dauden pertsonak asko dira (% 27,3). Baieztapen horren balorazioa ikusita, esan liteke jendeak ez dakiela IKTek zerbitzu hori zein neurri-tan hobetu duten. Ondoren, partaidetza-etenari buruzko azterketaren kapituluari, zehatzago jorratuko dugu ea biz-tanleriak zein neurritan ezagutzen dituen administrazioaren webguneak, zein neurritan erabiltzen dituen edo nola baloratzen dituen.

## 10.3. IKT gaitasun pertsonalak eta lan-mundukoak

Europako Parlamentuaren eta Kontseiluaren 2006ko aben-duaren 18ko [2006/962/CE](#) gomendioak, etengabeko ikas-kuntzarako gaitasun gakoari buruzkoak (2006.12.30eko 394. zenbakiko aldizkari ofiziala) IKT gaitasuna sartu zuen 8 gaitasun gakoari artean. Gaitasun gako esaten dugunean, “*banakakoak pertsonalki errealizatzeko eta gizartean integra-tzeko nahiz herritartasun aktiborako eta enplegurako bereziki beharrezkoak direnak*” ditugu mintzagai.

Esparru horretan, eta lan-eremuko gaitasun digitalen eskaria gorantz doala kontuan hartuta, Euskadiko biztanleei galdetu nahi izan diegu ea beren ustez lan-munduko egun eskatzen dituen IKT gaitasunak dituen ala ez.


Horretarako, honako baieztapena planteatu zen: **“Lan-merkatuak eskatzen dituen IKT gaitasunak dauzkat”**. Hala, inkesta egin zuten pertsonen 0tik 10erako puntuazioa eman zuten, norberaren kasuaren arabera, 0 ez bazeuden bat ere ados eta 10 guztiz ados bazeuden.

Esaldi honi emandako batez besteko balorazioa 6,1ekoa da, hau da, “ados dago” lan-merkatuan egun eskatzen dituen gaitasun digitalak dauzkala dioen baieztapenarekin.

Maiztasunen arabera banaketari esker, sakonago jorratu dezakegu gaia eta halaxe ikusiko dugu biztanleriaren zein portzentaje ez dagoen ados baieztapen horrekin eta zeintzuk diren bere ezaugarriak (adina, sexua, ikasketa-maila, lanbidea eta abar).

(71. irudia)

### Internet erabiltzen duten 16 urtetik gorako pertsonak, “Lan-merkatuak eskatzen dituen lan-gaitasunak dauzkat” baieztapenarekin ados dauden edo ez dauden neurrian (%), 2012



Guk egin a Arartekoaren IKTak eskuratzeari eta e-parte hartzeari buruzko inkestaren datuak oinarri izanda, 2012.

Biztanleriaren % 59,6k dio ados dagoela (6 eta 7 balioak) edo oso ados (8, 9 eta 10 balioak) baieztapen horrekin. Hau da, 16 urtetik gorako Euskadiko Internet-erabiltzaileen ia % 60k uste du lan-merkatuak eskatzen dizkion gaitasun digitalak dauzkala.

Bestalde, azterketa honetan kontuan hartu beharreko beste interpretazio bat egin dezakegu:

Biztanleen % 15ek aitortzen du ez dagoela ados edo bat ere ados lan-merkatuak eskatzen dituen IKT gaitasunak dauzkala dioen baieztapenarekin. Portzentaje horri zalan-zati dagoen edo ez alde ez kontra dagoen biztanleriaren % 15,3 gehi diezaiokegu, ez dakien edo erantzun ez duen % 10,1ekin batera.

“Lan-merkatuak eskatzen dituen IKT gaitasunak dauzkat” baieztapenari 5etik beherako batez besteko balorazioa (0tik 10erako eskalan) ematen dioten taldeak, eta, beraz, ez daukaten ados edo bat ere ados, honako hauek dira:

- 55 urtekoak edo goragokoak, batez beste 4,9 puntuko balorazioarekin (adin-tarte honetako pertsonen % 20,9k dio ez dagoela ados edo bat ere ados baieztapen honekin).
- Etxeko andreak, batez beste 4,9ko balorazioarekin (etxeko andreen % 18,7k dio ez dagoela ados edo bat ere ados esaldi honekin).
- Erretiratuak, batez beste 3,1eko balorazioarekin (erretiratuen % 29,7k dio ez dagoela ados edo bat ere ados baieztapen honekin).


Lehen ere azaldu dugun bezala, “lan-merkatuak eskatzen dituen IKT gaitasunak dauzkat” baieztapenean “ez daki/ez du erantzun” adierazi duten pertsonen portzentajea ere aztertu beharra dago. Datu horri esker jakin dezakegu zein talde edo gizarte-multzok ez dakien lan-merkatuan eskatzen diren IKT gaitasunak dauzkan edo ez dauzkan. Ezagutza-falta horren jatorria hainbat alderditan egon liteke:

- Lan-merkatuak eskatzen dituen gaitasun digitalak zeintzuk diren ez jakitea.
- Norberaren gaitasun digitalak zeintzuk diren ez jakitea.
- Bi faktore horien konbinazioa.

Ildo horretatik, baieztapen horri emandako “ez daki/ez du erantzun” erantzunaren portzentajerik altuenak talde haue-tan batzen dira (Euskadiko Internet-erabiltzaileen 16 urtetik gorako guztien gaineko %a):

(72. irudia)

**Internet erabiltzen duten 16 urtetik gorako pertsonak**, “Lan-merkatuak eskatzen dituen lan-gaitasunak dauzkat” baieztapenari “ez daki/ez du erantzun” erantzun diotenak (%). Portzentajerik esanguratsuenak, 2012



Guk egina Arartekoaren IKTak eskuratzeari eta e-partehartzeari buruzko inkestaren datuak oinarri izanda, 2012.


Gaitasun digitalak aldatu egiten dira denborak aurrera egin ahala. Berez, gaur erabiltzaile aurreratu bihurtzen gaituenak, adibidez, bihar oinarriko mailako erabiltzaile bihurtzeko gaituzke. Lan-merkatuaren baldintza berriak edo teknologia eta zerbitzu berrien agerpena dira, besteak beste, gure ezagutzen eta ezagutu beharrekoen arteko egokitzapena etengabe berrikustera garamatzatenak.

Aurreko azterketaren ildoari jarraiki, eta IKT gaitasunak lan-munduarekin lotuz, honako galdera egin genien inkesta bete zutenei: **“Behar izango bazenu, lan-merkatuak eskatzen dituen gaitasun digitalei buruzko ezagutzak eskuratzeko gai izango al zinateke?”**.

Grafikoan ikus daitekeen bezala, inkesta egin duten biztanleen % 70ek erantzun du baietz.

(73. irudia)

**Internet erabiltzen duten 16 urtetik gorako pertsonak**, “Jakingo al zenuke non eskuratu gaur egun lan-merkatuak eskatzen dituen gaitasun digitalei buruzko ezagutzak?” galderaren erantzunen arabera (%), 2012



Guk egina Arartekoaren IKTak eskuratzeari eta e-partehartzeari buruzko inkestaren datuak oinarri izanda, 2012.

Bestalde, aipatzekoa da Euskadiko Internet-erabiltzaileen % 25,7k, lan-merkatuak eskatzen dituen gaitasun digitalekin lotutako ezagutza berriak eskuratzeko behar izango balu, ez lukeela jakingo nora jo ezagutza horiek eskuratzeko.

Bestetik, % 2,3k dio (bat-bateko erantzuna) ez duela lan-eremurako gaitasun digitalak eguneratzeko behar izanik.

Eta nortzuk adierazi dute ez dakitela nora jo lan-eremuarekin lotutako gaitasun digitalak eguneratu behar izanez gero?

Jarraian ikusiko den *rankingean* agertzen da zenbat pertsonak erantzun dioten ezetz galderari (ez dakite nora jo lan-merkatuak eskatzen dituzten gaitasun digitalekin lotutako ezagutzak eguneratu behar izanez gero):

(14. taula)

**Zeintzuek adierazi dute ez dakitela nora jo lan-eremuarekin lotutako gaitasun digitalak eguneratu nahi izanez gero?**

Ikasle diren biztanleen % 44,7.

Lehen hezkuntzako ikasketak dituzten pertsonen % 38,3.

Etorkinen % 36.

Bigarren hezkuntzako ikasketak dituzten pertsonen % 34,7.

Etxeko andreen % 33,5.

Emakumeen % 29,8.

16 eta 34 urte bitarteko biztanleen % 29.

Nabarmena da ikasle ugarik (% 44,7) eta gazte ugarik (% 29) adierazi dutela ez luketela jakingo nora jo lan-munduko eskakizunekin lotutako gaitasun digitalak eguneratu behar izanez gero. Datu hau aipagarria da, batez ere kontuan hartzen badugu biztanleria hau dela IKTen erabilera biziena egiten duenetako bat.

Ikasketa-maila baxuak edukitzea eta etorkin, emakume edo etxeko andre izatea ere galdera honen ezezkoan eragiten duten aldagaietako batzuk dira.

**10.4. Bazterkeria digitalaren arriskuen pertzepzioa**

Eskuratze-eten digitalaren azterketan jorratzen diren alderdien barruan, erabilera, abantaila eta onuren pertzepzioa lan-tzeaz gain, Internet erabiltzen duten pertsonen egun IKTak ez erabiltzearen arrisku eta desabantaila buruz duten pertzepzioa zein den jakitea ere garrantzitsua da.


**“Zure ustez, zeintzuk dira egun IKTrik ez erabiltzearen desabantaila nagusiak?”** galderari bat-bateko erantzuna ematean, Internet erabiltzen duten biztanleen % 30ak uste du informazio-falta dela. *Rankingean* agertzen den bigarren desabantaila zaharkitua geratzea edo egunean ez egotea da (% 25). Internauten % 11,6k uste du Internet edo IKTak ez erabiltzearen arriskurik handiena gizartean isolatuta geratzeko aukera dela eta % 10,4k dio desabantailarik handiena erakundeetan egin beharreko tramiteetan galtzen den denbora dela.

Grafikoan ikus daitekeen bezala, Internet erabiltzen duten biztanleek ez dute uste IKTen erabilera-faltak desabantaila handiak eragiten dituenik lan-prestakuntza profesional hobea edo lan-merkatu sartzeko zailtasun handiak bezalako alderdietan.

Bestalde, inkesta egin duten Internet-erabiltzaileen % 11,1ek uste du IKTak ez erabiltzeak ez duela inolako desabantailarik eragiten. Hau da, Euskadin Internet eta IKTak erabiltzen dituzten biztanleen portzentaje batek uste du gaur egun ez dutela hainbeste erabilgarritasun edo balio, ez erabiltzea desabantaila bat izan dadin.

(74. irudia)

**Internet erabiltzen duten 16 urtetik gorako pertsonak, galdera honi emandako bat-bateko erantzunaren arabera: “Zure ustez, zeintzuk dira gaur egun teknologia berriak ez erabiltzearen desabantaila nagusiak?” (%) , 2012**




Guk egina Arartekoaren IKTak eskuratzeari eta e-parte hartzeari buruzko inkestaren datuak oinarri izanda, 2012.

Internet ez erabiltzeak ez duela desabantailarik eragiten adierazi duten pertsona horiek zeintzuk diren zehatzago aztertuz gero, txostenean zehar erabili ditugun aldagaien (adina, sexua, ikasketa-maila, habitataren tamaina eta abar) araberako profila zehaztu ahalko dugu:



(75. irudia)

**Internet erabiltzen duten 16 urtetik gorako pertsonak, galdera honi emandako bat-bateko erantzunen arabera: “Zure ustez, zeintzuk dira gaur egun teknologia berriak ez erabiltzearen desabantaila nagusiak?” “Ez dago desabantailarik” erantzunaren portzentajerik esanguratsuenak, 2012**



Guk egin a Arartekoaren IKTak eskuratzeari eta e-parte hartzeari buruzko inkestaren datuak oinarri izanda, 2012.

Grafikoan ikus daitekeen bezala, sarbide- eta erabilera-etenetan ahulenak diren gizarte-multzo eta taldeak dira IKTak erabiltzen hastean zailtasun gehien dutenak erabilera hori beren bizitzako alderdi edo eremu jakin batzuen desabantailarekin lotzeko orduan.

IKTak ez erabili edo eskuratzearen ondoriozko arriskuen pertzepzioa aztertzen jarraitzeko asmoz, honako galdera egin zaie inkesta bete duten pertsonari: **“Zure ustez pertsona edo talde batzuek IKTak erabiltzeko duten ezintasuna gizartean baztertuta egoteko arrazoi izan liteke?”**.

Internet erabiltzen duten biztanleen % 56,5ek uste du IKTak erabiltzeko ezintasuna gizartean baztertzearen arrazoi izan daitekeela

Galdera hori eten digitala eragiten duten aldagai nagusietako batzuekin (adina, sexua, ikasketak-maila, lanbidea, eta abar) gurutzatzean ikus dezakegunez, IKTak erabiltzeko ezintasunak gizartean baztertuta egoteko aukera gehiago eragiten duela neurri handiagoan adierazi duten Internet-erabiltzaileak honako dira: emakumeak (% 59,5), 55 urte edo goragoko pertsonak (% 59,7), unibertsitate-ikasketadun pertsonak (% 67,9), etxeko andreak (% 65), etorkinak (% 65,5), ezgaitasun aitorturen bat duten pertsonak (% 60,3) eta Euskadiko

hiriburu handietan (100.000 biztanlelik gora) bizi diren pertsonak (% 53,8).

Euskadiko Internet-erabiltzaileen iritzia jasotzeko orduan erabilitako hirugarren ikuspegia zera izan zen, IKTak zerbitzu publiko zehatz batean sartuz gero gizartearen artean desberdintasunak sor litezkeen galdetzea. Horretarako, herritarren eskubide bat aipatu zen zuzenean, partaidetzarako eskubidea, hain zuzen ere.

Honako galdera egin zen: **“Zure ustez IKTak partaidetza-prozesuetan sartzea gizartean baztertuta geratzeko faktore berri bat bihurtu liteke, pertsona edo talde batzuek ez dakitelako edo ezin dituztelako erabili?”** Internet erabiltzen duten biztanleen % 68,4k erantzun zuen baietz.

Hau da, Euskadin Internet erabiltzen duten biztanle askok (% 70 inguru) uste du IKTen erabilera- eta sarbide-eten digitala existitzen den artean, partaidetza-prozesuetan IKTak sartuz gero gizarte-desberdintasunak areagotu egin daitezkeela.


Erantzun honen bidez adierazitako arriskuak are zentzu gehiago hartuko luke zerbitzu jakin batzuk (kasu honetan partaidetzarekin lotutakoak) IKTen sarbide eta erabilera eskatzen duten bitartekoen bidez soilik eskainiko balira.

Eten digitala jasateko arrisku gehien duten gizarte-multzo eta talde jakin batzuen erantzuna aztertzen badugu, IKTak partaidetza-prozesuetan sartzea gizarte-bazterkeria eragiten duen faktore berri bat izan daitekeela (pertsona edo talde batzuek tresna horiek erabiltzen ez dakiten edo ezin duten artean) erantzun duten etorkin, ezgaitasunen bat duten pertsona, etxeko andre, 55 urte edo goragoko pertsona eta emakumeen portzentajea handiagoa da inkesta egin duten Internet-erabiltzaileen batez bestekoa baino (% 68,4).

Grafiko honetan, galdera honi baietz erantzun dioten Internet-erabiltzaileen batez bestekoa eta gizarte-multzo eta talde batzuetan erregistratutako portzentajeak alderatu dira:

(76. irudia)

**Internet erabiltzen duten 16 urtetik gorako pertsonak, “Zure ustez teknologia berriak partaidetza-prozesuetan sartzea gizartean baztertua geratzeko faktore berri bihur liteke (...)?” galderaren erantzunen arabera. Baiezko erantzunen portzentajerik esanguratsuenak, 2012**



Guk egina Arartekoaren IKTak eskuratzeari eta e-partehartzeari buruzko inkestaren datuak oinarri izanda, 2012.

### 10.5. IKTen erabilera eta ezagutza-maila pertsonalari buruzko pertzepzioa

Kapitulu honen sarreran adierazi dugun bezala, IKTen eskuratzeko-etenaren azterketako alderdi esanguratsua da pertsonak zein neurritan uste duten IKTak erabili eta ezagutzen dituztela. Faktore horri esker, onura, arrisku, beharrian eta abarren identifikazioarekin batera, banakoak aurrera egin ahal izango du ikuspegi teorikoaren kapituluaz azaltzen genuen ahaldu digitalaren eredu eta IKTak eskuratu eta horiei buruz ikasten jarraitzeko beharria sentituko du, aukera eta abantaila berriak deskubritzen dituen neurrian.

Txosten berezi honen esparruan e-partaidetzari eta IKTak eskuratzeari buruz egindako inkestak honako galdera planteatzen die inkesta bete duten internautei: **“Internet eta IKTen erabilerrari dagokionez, nola baloratuko zenuke zure burua: oinarrizko maila, maila aurreratua edo aditua?”**.

Ezagutza- eta erabilera-mailaren gainean erabilitako eskala honakoa da:


- Oinarrizko maila: artxiboak kopia eta mugitu, testuak idatzi, kalkulu-orrietan formula sinpleak erabili...

- Maila aurreratua: testuei formatua eman, formula aurreratuak erabili, grafikoak sortu, programak instalatu...
- Maila aditua: makroak idatzi, programatu, software eta hardwareko arazoak konpondu...

Biztanleriaren % 56,8k dio erabilera eta ezagutza oinarrizko maila duela, % 39,2k maila aurreratua duela eta % 3,9k jotzen du bere burua aditutzat.

(77. irudia)

**Internet erabiltzen duten 16 urtetik gorako pertsonak, “Internet eta teknologia berrien erabilerrari dagokionez, nola baloratzen duzu zure burua: oinarrizko maila, maila aurreratua edo aditua?” (%) , 2012**



Guk egina Arartekoaren IKTak eskuratzeari eta e-partehartzeari buruzko inkestaren datuak oinarri izanda, 2012.

Pertsona nagusiak (% 75,3), emakumeak (% 61,3), lehen hezkuntzako ikasketadun pertsonak (% 82,2), etxeko andreak (% 96,6), pertsona erretiratuak (% 73,5), etorkinak (% 61,6) eta ezgaitasunen bat duten pertsonak (% 64,4) dira neurri handiagoan aitortu dutenak IKTen ezagutza eta erabilerrari buruzko oinarrizko maila dutela.

Aitzitik, 16 eta 34 urte bitarteko pertsonak (% 53,3), unibertsitate-ikasketadun pertsonak (% 54,9), egun ikasleak diren pertsonak (% 55) eta norberaren kontutako langileak (% 46,9) dira neurri handiagoan uste dutenak IKTen erabilera eta ezagutzei buruzko maila aurreratua dutela.

Hori horrela, galdera berriak planteatu behar ditugu jakiteko ea Euskadiko biztanleriaren egungo egoera zein den, eskuratzeko-etenaren sortzen duten faktore nagusien gainean.

Pertsonak IKTen erabilera eta ezagutza eskalan kokatzeko gai badira, beren ezagutzetan aurrera egiten jarraitu behar duten hautemateko gai al dira? Ahaldu digitalaren prozesuan aurrera egin nahi dute edo beharria hori sentitzen dute? IKT prestakuntza inbertitu beharko baluket,

jakingo al lukete nora jo? Zer nahiago dute: euren kabuz prestatzea edo gaitasun digitalei buruzko ikastaro eta tailer praktikoetara jotzea?

### 10.6. Gaitasun digitalak eskuratzeko moduei eta beharrianari buruzko pertzepzioa

Inkesta egin duten biztanleei honako baieztapena Otik 10erako eskalan baloratzeko eskatu zaie: **“Etekin gehiago atera nahiko nioke teknologia berrien erabilerari”**. Erantzuna 0 izango da erabiltzailea ez badago bat ere ados edo 10 guztiz ados baldin badago.

Inkesta egin duten pertsonen emandako batez besteko balioa 6,5ekoa da, hau da, eskalari jarraiki, esaldi horrekin “ados” daude. Maiztasunak aztertuz gero, internauten % 68,1ek dio ados (Otik 10erako eskalan 6 eta 7 balioak) edo oso ados (Otik 10erako eskalan 8, 9 eta 10 balioak) dagoela baieztapen horrekin eta % 15,9k adierazi du ez dagoela ez ados, ez kontra (Otik 10erako eskalan 5 balioa).

Era berean, esanguratsua da inkesta egin duten Internet-erabiltzaileen % 15,4k adierazi duela ez dagoela ados edo bat ere ados esaldi honekin eta horrek zera esan nahi du, ez duela IKTen erabilerari etekin gehiago ateratzeko gogorik.

Kopuru horien arabera, inkesta egin duten biztanleen portzentaje altu batek (% 68,1) argi dauka IKTen erabilerari buruz gehiago jakin nahiko luketela eta etekin handiagoa atera nahiko liekeela. Horretarako, prestakuntza-prozesuari ekin beharko litzaioke, modu desberdinetan eta maiztasun handiagoz edo txikiagoz egin daitekeelarik.

Errealitate hau gehiago sakontzen saiatzeko asmoz, honakoa galdetu zitzaizen Euskadiko internautei: **“Nola ikasi duzu edo ikasten duzu Internet edo IKTak erabiltzen?”** (erantzun anitzak).

Kontsulta honen bidez, Internet erabiltzen duten biztanleek beren eremu desberdinetan (pertsonala, lana, prestakuntza eta abar) egunez egun behar dituzten gaitasun digitalak ikasteko moduaren ezaugarriak zeintzuk diren jakin nahi izan da.


Kopuruei erreparatu gero, inkesta egin duten Internet-erabiltzaileen % 94,5ek aitortu du bere kabuz ikasten duela. Garrantziari jarraiki, eta bigarren postuan, % 69,2k baieztatu du senide edo lagun bidez ikasten duela. Ondoren, % 23,9rekin, enpresaren bidez egindako ikastaroak edo ekimen publiko antolatutako doako tailer edo ikastaroak daude (% 21,1). Inkesta egin duten pertsonen % 19,1ek dio eskolan edo institutuan egindako ikastaro edo ikasgaiak izan direla bere ikasketa-iturri eta % 16,2k baieztatu du eurek ordaindutako ikastaroen bidez ikasi dutela.

Jarraian ikus daitekeen grafikoan agertzen dira inkesta egin duten biztanleek erabilitako ikasketa-metodoaren ezaugarriak. Ikus daitekeen bezala, portzentaje garrantzitsu batek (% 59,5) modalitate mistoa (formala+informala) aukeratu du eta % 1,9k soilik hautatu du hezkuntza formal hutseko modalitatea.

Biztanleriak galdera honi emandako erantzunak aztertzean, hainbat aldagairekin (adina, sexua eta abar) gurutzatuta, zehatzago ezagut ditzakegu ikasketa-modalitatearen ezaugarriak.

(78. irudia)

**Internet erabiltzen duten 16 urtetik gorako pertsonak, “Nola ikasi duzu edo ikasten duzu Internet edo IKTak erabiltzen?” galdearen erantzunaren arabera (%), 2012**




Guk egina Arartekoaren IKTak eskuratzeari eta e-partze hartzeari buruzko inkestaren datuak oinarri izanda, 2012.

Hori horrela, sexuaren arabera, gizonek gehiago jotzen duten euren kabuz ikasteko modalitateara (% 96,9) emakumeek baino (% 92,1). Bestalde, emakumeek gizonek baino gehiago jotzen dute senide edo lagun bidezko prestakuntzara eta eurek ordaindutako ikastaroetara, grafiko honetan ikus dezakegun bezala.

(79. irudia)

**Internet erabiltzen duten 16 urtetik gorako pertsonak**, “Nola ikasi duzu edo ikasten duzu Internet eta ICTak erabiltzen?” galderaren erantzunaren eta sexuaren arabera (%), 2012




Guk egin Arartekoaren ICTak eskuratzeari eta e-partehartzeari buruzko inkestaren datuak oinarri izanda, 2012.

Bestalde, adin-tarteen arabera ikasketa-modalitate desberdinak alderatuz gero, honako datuak antzeman ditzakegu:

- Jenderik gazteena da (16-34 urte) bere kabuz gehien ikas- te duena, adin-tarte nagusienarekin alderatuta 10 puntu-ko aldea duelarik.
- 35 eta 54 urte bitarteko biztanleak dira gehien jotzen du- tenak Internet eta ICTei buruzko prestakuntza senide eta lagun- en bidez ikastera.
- 55 urteko edo goragoko pertsonak dira neurri handiagoan aukeratzen dutenak ekimen publikoko doako tailer eta ikastaroen bidezko prestakuntza jasotzea ICTei dagokien- ez. Hurrengo grafikoan ikus daitezkeen bezala, adin-tarte txikiagoetara jo ahal, modalitate hau txikitu egiten da. Era berean, adin-tarte horretako pertsonak dira (55 urte edo goragokoak) neurri handiagoan jotzen dutenak eurek ordaindutako ikastaroetara.

(80. irudia)

**Internet erabiltzen duten 16 urtetik gorako pertsonak**, “Nola ikasi duzu edo ikasten duzu Internet eta ICTak erabiltzen?” galderaren erantzunaren eta adinaren arabera (%), 2012



Guk egin Arartekoaren ICTak eskuratzeari eta e-partehartzeari buruzko inkestaren datuak oinarri izanda, 2012.


Inkesta egin duten unibertsitate-ikasketadun pertsona ia guztiek (% 97,8) aitortu dute euren kabuz ikasten dutela Internet eta bestelako ICTen erabilerari buruzko ezagutzak eskuratzeko. Modalitate hau aukeratu dutenen portzentajea murriztu egiten da ikasketa-mailen eskalan beherantz egin ahal.

Aitzitik, lehen hezkuntzako ikasketak dituzten pertsonen % 83k aitortu du lagun eta senideen bidezko ikaskun- tzan oinarritutako eredu jarraitzen duela. Portzentaje hori beherantz doa pertsonen ikasketa-maila altuagoak dituzten neurrian. Antzeko zerbait gertatzen da ekimen publikoko doako tailer edo ikastaroetara jotzeko modalitatearekin. Hori horrela, lehen hezkuntzako ikasketak dituzten per- tsonen % 26,5ek dio modalitate hori erabiltzen duela eta unibertsitate-ikasketak dituzten pertsonen kasuan por- tzentajea % 18,7koa da.

Inkesta egin duten bigarren hezkuntzako ikasketadun pertsonen % 18,2k aitortzen du Internet eta bestelako IKT tresnei buruzko ezagutzak eskuratzeko ikastaroak ordaindu dituela. Ondorengo grafikoan ikus daitekeen bezala, modalitate hau ez da hedatuena lehen hezkuntzako ikasketak dituzten pertsonen artean (% 7,4).

(81. irudia)

**Internet erabiltzen duten 16 urtetik gorako pertsonak**, “Nola ikasi duzu edo ikasten duzu Internet eta IKTak erabiltzen?” galderaren erantzunaren eta ikasketen arabera (%), 2012



Guk egina Arartekoaren IKTak eskuratzeari eta e-partehartzeari buruzko inkestaren datuak oinarri izanda, 2012.

Etorkinen % 90,8k aitortzen du bere kabuz ikasi duela edo ikasten duela IKTak erabiltzen. Talde honen % 62k dio lagun eta senideen bidezko prestakuntza izan dela IKTak eskuratzeko erabiliko modalitatea. Biztanleriaren % 13,1k soilik dio ekimen publikoko doako ikastaro edo tailerretara joan dela prestakuntza jasotako. Datu hori % 21,4koa da etorkinen kasuan.

Ezgaitasunak dituzten pertsonen kasuan, ezgaitasun aitorturik ez duten pertsonen aldean erabiliko ikasketak modalitateak alderatuz gero, honako ondorioak ikus ditzakegu:


■ Inkesta egin duten eta ezgaitasun aitorturen bat duten pertsonen % 84,9k bere kabuz ikasteko modalitatea aukeratu du. Ezgaitasun aitorturik ez duen biztanleriak erregistratutakoa baino portzentaje baxuagoa da (% 94,9).

■ % 60,5ek senide eta lagun bidez eskuratu dituzten Internet eta IKT buruzko ezagutzak eta % 15,9 dio berak ordaindutako ikastaroak egin dituela.

■ Esanguratsua da % 36,5 ekimen publikoko doako ikastaro edo tailerrera joan dela, eta portzentaje horrek 16 puntutan gainditzen duela ezgaitasun aitorturik ez daukaten pertsonen erregistratutakoa.

(82. irudia)

**Internet erabiltzen duten 16 urtetik gorako pertsonak** “Nola ikasi duzu edo ikasten duzu Internet eta IKTak erabiltzen?” galderaren erantzunaren eta ezgaitasunaren arabera (%), 2012



Guk egina Arartekoaren IKTak eskuratzeari eta e-partehartzeari buruzko inkestaren datuak oinarri izanda, 2012.

Bestalde, datuen eranskinen ikus dezakegunez, inkesta egin duten biztanleen (16 urtetik gorakoak, Internet-erabiltzaileak eta Euskadin bizi direnak) % 80,3k aukeratu du modalitate desberdinetan ikastaroak egitea Internet eta IKTekin lotutako


ezagutzak eskuratzeko. Baina, zein da ikastaro horiek egiteko maiztasuna? Ikastaro horietan Internet eta IKTen hasierako gaitasunak eskuratzen dituzte eta gero ez dute prestakuntza-ekintza gehiagorik egiten?

Galdera horietako batzuei erantzuten saiatzeko, honako galdera planteatu zaio biztanleriari: **“Noiz egin zenuen Internet edo teknologia berriein lotutako azken ikastaroa?”**.

Gutxienez ikastaro bat egin duten internauten % 20,7k duela 6 hilabete bat gehiago egin du. % 13,2k azken 6 eta 12 hilabeteen artean egin du eta % 12,3k dio urtebete eta 2 urte artean pasa direla Internetekin edo IKTekin lotutako ikastaro bat egin zuen azken alditik.

(83. irudia)

**Internet erabiltzen duten 16 urtetik gorako pertsonak**, gutxienez ikastaro bat egin dutenak Internet edo IKTei buruz, honako galderaren erantzunaren arabera: **“Noiz egin zenuen Internetekin edo teknologia berriein lotutako azken ikastaroa?” (%)**, 2012



● Duela 6 hil baino gutxiago	% 20,7
● 6-12 hil	% 13,2
● 1-2 urte	% 12,3
● 2-3 urte	% 7,3
● 3-5 urte	% 12,3
● 5 urtetik gora	% 33,7
● Ed/Ee	% 0,4

Guk egin auzkoaren IKTak eskuratzeari eta e-parte hartzeari buruzko inkestaren datuak oinarri izanda, 2012.

Grafikoan ikus daitekeenez, Internet edo bestelako IKT tresnei buruzko gutxienez ikastaro bat egin duten Internet-erabiltzaileen % 33,7k aitortu du duela 5 urte baino gehiago gauzatu duela. Horrez gain, inkesta egin duten pertsonen % 12,3k dio ez duela Interneti edo bestelako IKT tresnei buruzko ikastarorik egin azken 3-5 urteetan.

Datu horrek informazio berria ematen digu. Interneti edo bestelako IKT tresnei buruzko ikastaro bat egin duten Euskadiko Internet-erabiltzaileen % 53,3k egin du duela 2 urte baino gehiago eta % 46,3k egin du azken bi urteetan.

Kopuru horiei jarraiki, Internet-erabiltzaile askok egin dituzte bere garaian Interneti edo bestelako IKT tresnei buruzko ikastaroak, eta ondoren ez dute ezagutza horiek eguneratu edo osatzeko prestakuntzarik jarraitu.

Horrenbestez, Internet edo bestelako IKT tresnei buruzko azken ikastaroa duela 5 urte baino gehiago egin duten pertsonen portzentajea osatzen duten taldeak edo gizartemultzoak zeintzuk diren aztertuz gero, 5 taldek erregistratu dituzte, era nabarmenean, portzentaje altuak adierazle honetan (Euskadiko 16 urtetik gorako Internet-erabiltzaile guztien gaineko %a, Internet edo IKTei buruzko gutxienez ikastaro bat egin dutela):

- Unibertsitate-ikasketak dituzten biztanleen % 40,9.
- Erretiratuen % 47,9.
- Jarduerarik edo lanik gabe dauden pertsonen % 50.
- Ezgaitasun aitorturen bat duten pertsonen % 42,1.
- Internet era esporadikoan erabiltzen duten biztanleen % 91,3: hilean gutxienez behin erabiltzen dute.

## 11.

### Partaidetza-eten digitala

Kapitulu honetan Euskadiko partaidetza-eten digitala aztertuko dugu. Eta e-partaidetzaren ikuspegia izango da abiapuntua. Hau da, teknologia partaidetza-prozesuan sartuko ditugu. Adituek **APT (ahalduntze eta partaidetzarako teknologiak)**<sup>52</sup> gisa izendatzen dituzten teknologia hauek **bizitza hiritar eta publikoan ahaldundu eta parte hartzeko mekanismoak diren teknologiak** eskuratzeko datza.

Hiritartasunaz eta partaidetzaz hitz egitean, hiritarren partaidetza zer den definitzen saiatu behar gara.

Pedro Prieto Martínek<sup>53</sup> adierazi duen bezala, hiritarren partaidetza honela defini liteke:

*“Harreman politikoak instituzionalizatzeko modu berria, hiritarrek eta hiriko elkarteek politika publikoan zehaztapen, betearazpen eta kontrolean inplikazio handiagoa dutelarik”.*

Hiritarren partaidetza gobernu irekiaren ereduko oinarrietako bat da eta IKTen sarrerak honako abantailak ditu:

<sup>52</sup> Reig Hernández, Dolores (2012): Disonancia cognitiva y apropiación de las TIC. Telos aldizkaria (Cuadernos de Comunicación) (urtarrila-martxoa 2012). [www.telos.es](http://www.telos.es).

<sup>53</sup> Prieto Martín, P. (2006): *Sistemas avanzados para la participación electrónica municipal: ejes conceptuales para su diseño*; TEXTOS aldizkaria CiberSociedad-erako, 9., hemen aipatua: Calderón, C. eta Lorenzo, S (2010): *Open Government, Gobierno abierto*; Algon Editores.

- Prozesu politikoen gardentasunaren igoera.
- Hiritarren inplikazioaren hobekuntza.
- Iritzia sortzeko kalitatearen hobekuntza.
- Eta, batez ere, hiritarren partaidetza eta lankidetzara irekiago dagoen eta askoz zuzenagoa den eredu demokratikoa lortzeko aukera (ahalmenen banaketa).

Eremu sozial eta publikoetako partaidetzaz hitz egiten badugu, hiritarren gauzak aldatzeko, mundu hobea lortzeko, partaidetzarako gogoia izateko, motibazio argia edukitzeko eta bere partaidetzak duen eragina ikusi ahal izateko aukeran sinetsi dezakeela esaten ari gara.

Ondorioz, partaidetza-eten digitalak galdera berriak planteatzen dizkigu: Jendearen ustez IKTen sarrerak eragin positiborik al dauka partaidetza-prozesuetan? Euskal biztanleriak eremu sozial eta publikoetan parte hartzen al du? Kate digitala edo aurrez-aurrekoa nahiago du? Zergatik parte hartzen du?

Txosten berezi honetan jorratutako beste eten digitalak aztertzean gertatu den bezala, hainbat faktorek azaltzen dute partaidetza-eten digitalaren zati handi bat, besteak beste: ikaskuntza-etenak, IKTen sarbide-, erabilera- eta eskuratzeko-etenak, gizarte-bazterkeriak, lurraldeko partaidetza-kulturaren heldutasun-egoerak edo faktore sozioekonomiko eta demografikoak.

Baina azterketa hau ez litzateke guztiz amaituta egongo administrazioen bitarteko, modu eta jokamoldeen ikuspegia batuko ez bagenu. Horrenbestez, administrazioek Euskadiko e-partaidetzaren esku jartzen dituzten bitartekoak aztertu behar ditugu eta berriz ere galdetu herritarrei: Zerbitzu horiek erabiltzen dituzte? Zein iritzi dute horien gainean? Erabilgarriak al dira? Kate horien bidez parte hartzen duten pertsonen esperientzia asegarria al da?

Azterketa hau egiteko, atal metodologikoan deskribatutako iturri kualitatiboak eta honako iturri kuantitatiboak hartu ditugu oinarritzat:

- Arartekoaren e-partaidetzari eta IKTak eskuratzeari buruzko inkesta, 2012 (txosten berezi honen esparruan egina).
- Herri Administrazio eta Justizia Sailaren Zerbitzu Publiko Elektronikoen Estatistika (ZPEE) (eguneratze-data: 2011ko urria).
- Eustaten Kapital Sozialari buruzko inkesta.
- Hiritarrek herri administrazioetan IKTen bidez parte hartzeari buruzko galdetegia, Arartekoa 2012 (txosten berezi honen esparruan egina).

### 11.1. Internet erabiltzearen eragina Euskadiko eremu sozial eta publikoetako partaidetzan

Sarritan, eremu sozial eta publikoetako hiritarren partaidetzari buruzko azterketan honako aldagaia sartu ohi da, eta egungoa bezalako garaian, aipatu beharrekoa da: Internetek gu komunikatzeko, harremanak izateko, gure ingurua ulertzeko eta eraldatzeko eta parte hartzeko dugun gaitasunaren jakitun izateko modua aldatu du.

Normalean hausnarketa hauek ondorioen bidez sortzen dira. Euskal etxeetan dauden IKT kopuru altuak, gizarte-

sareetako partaidetzari buruzko inkesten kopuruak eta tresna eta partaidetza-kate berrien sorrerak iradokitzen dutenez, bilakaera-garai honetan zerbait aldatzen ari da eta IKTek zeresan handia dute horretan, identifikatu eta aprobetxatu beharko dituzten erroka eta aukera berriak sortzen direlarik.

Baina, errealitate honi buruzko hurbilketa kuantitatiboa egiteko aukerarik al dago? Txosten berezi hau egitean, **Kapital Sozialari buruzko Inkestaren** azterketa estatistiko osagarria egiteko eskatu zitzaion Euskal Estatistika Erakundeari (**Eus-tat**), jarraian zerrendatu diren alderdiak Interneten erabilera-aldagaiekin batera gurutzatzeko asmoz. Hori horrela, eskuratutako informazioari esker, herritarren partaidetzari eta gizarte-kohesioa osasuna, zorientasuna (ongizate subjektiboa)... bezalako alderdien pertzepzioari buruzko azterketa bat egin ahal izan dugu, Internet erabiltzen duten eta ez duten pertsonen artean bereiziz (Interneten erabilera azken 3 hilabeteetan neurtu delarik).


#### Aztergaiak<sup>54</sup>:

- **Gai sozio-politikoei buruzko interesa:** auzo, udalerrri, autonomia-erkidego, Espainia eta Europako gaiei buruzko interesaren gaineko galderen bidez eskuratzen da.
- **Hauteskundeetako partaidetza:** udal, autonomia eta Europako hauteskunderi nahiz hauteskunde nagusiei buruz egindako galderen erantzun positiboak zenbatuz eskuratzen da.
- **Eragin pertsonala:** auzo, udalerrri, autonomia-erkidego, Espainia eta Europari eragiten dieten erabakien gaineko eraginari buruzko galderen bidez eskuratzen da.
- **Partaidetza soziopolitikoak:** intsigniak eraman, kanpaina batean sinatu, mitin batera joan, arrazoi politikoengatik erosteari utzi, agintariekin harremanetan jarri, komunikabideetara kexak bidali, eztabaida, manifestazio edo greba batean parte hartu nahiz bestelako jarduera sozio-politikoei buruzko galderen baiezko erantzunak zenbatzean eskuratzen da.
- **Elkarteetako partaidetza:** boluntario-lan eta ekarpen ekonomikoak egiteagatik eta elkartekide izateagatik eskuratzen da.
- **Gizarte-kohesioa:** aldeek sortutako hurbiltasun-, gatazka- eta arazo-adierazleen bidez eskuratzen da, nahiz eta azken hori alderantziz baloratzen den beste bietan bezalako zentzun positiboa izan dezan.
- **Zorientasuna eta osasuna:** osasunari buruzko galderen eta bizitzarekiko eta diru-sarrerekiko asetasun-adierazlearen bidez eskuratzen da.

<sup>54</sup> Definizioak, Eustaten arabera: [http://eu.eustat.es/ci\\_ci/estadisticas/tema\\_362/opt\\_0/tipo\\_5/ti\\_Kapital\\_soziala/temas.html#axzz2VFCh6y2N](http://eu.eustat.es/ci_ci/estadisticas/tema_362/opt_0/tipo_5/ti_Kapital_soziala/temas.html#axzz2VFCh6y2N).

(84. irudia)

### Batez besteko puntuazioa aldagai nagusietan



Guk eginda Eustaten datuei jarraiki.

#### 11.1.1. Gai sozio-politikoaren gaineko interesa


Lurralde bateko partaidetza-maila justifikatzeko orduan kontuan hartzen den lehenengo faktoreetako bat da herritarrek duten interesa beren auzo, autonomia-erkidego, politika, arazo sozial eta politikoa eta abarrek lotutako gaietan. Bere inguruarekiko, lurralde baten garapena arautzen duten politikekin lotutako gaiekiko eta abarrekiko interes-motaren bat daukan norbaitek partaidetza-prozesuetan parte hartu nahi izateko aukerarik ba al dauka?

Inkestaren arabera, inkesta egin duten euskal biztanleen % 84,6k dio interes ertain edo altua duela gai sozio-politikoetan, 0tik 10erako eskalan 5,75eko batez besteko puntuazioarekin. Gizonek eta emakumeek interesa al daukate gure inguruko gai sozial eta politikoen gainean? Alderik al dago gazteenak, helduek eta nagusiek adierazitako interesaren artean? Klase sozial jakin batekoa izateak zein eragin dauka gai sozio-politikoaren gaineko interesean? Internet erabiltzen duten pertsonen interes gehiago al daukate gai hauei buruz?

Sexuaren araberrako azterketari jarraiki, gizonen % 83,8k adierazi du interes ertain edo altua duela gai sozio-politikoaren gainean, emakumeek erregistratutako % 85,5en aldean. Datuok Interneten erabilerarekin gurutzatuta ondorioztatu daitezkeenez, Internet erabiltzen duten emakume nahiz gizonen esperimenduak duten interes handiagoa gizartearekin eta politikarekin lotutako gaietan Internet erabiltzen ez dutenekin baino. Interesaren igoera hori bereziki nabarmena da emakumeen kasuan.

(85. irudia)

### Gai sozio-politikoaren gaineko interes "ertain edo altua", sexuaren eta Interneten erabileraren arabera



Guk eginda Eustaten datuei jarraiki.

Inkesta egin duten pertsonen adinari erreparatu gero, 15 eta 24 urte bitarteko tartea da gai honetan interes-mailarik baxuena erregistratu duena, 0tik 10erako eskalan batez beste 5,23 puntuarekin. Gazteen % 79,6k dio interes ertain edo altua sentitzen duela gai sozial eta politikoen gainean, 35-49 eta 50-64 urte bitarteko taldeek erregistratutako % 86,8 eta % 86,4ren aldean.


Interneten erabilerak ere aldeak eragiten ditu adin-tarte desberdinen interes sozio-politikoan. Eustatek emandako datuen arabera, adin-tarte guztietan gai sozial eta politikoen gaineko interesa handiagoa da Internet erabiltzen duten pertsonen artean. Nabarmena da eragin handiena erregistratu duen tartea 65 urtetik gorakoena dela, adin horretako Internet-erabiltzaileen % 94,9k adierazi baitu interes ertain edo altua, Internet erabiltzen ez duten adin-tarte horretako pertsonen erregistratutako % 82,2ren aldean.

Klase soziala ere lotuta omen dago gure inguruko gai sozial eta politikoen gaineko interesarekin. Hori horrela, batez besteko puntuaziorik altuenak klase sozial altu eta ertain altuan erregistratzen dira (batez beste 6 puntu, 0tik 10erako eskalan) eta jaitsi egiten dira klase sozialean beherantz egin ahal, klase ertain, ertain baxu eta baxura.

Berriz ere, Interneten erabilerak eragin handia dauka gai horiekiko interesaren sentimenduan. Hori horrela, Internet erabiltzen duten klase altu eta ertain altuko pertsonen % 100ek adierazi du interes ertain altua duela gai sozial eta politikoen gainean eta portzentaje hori % 65,4koa da Internet erabiltzen ez duten klase sozial honetako pertsonen kasuan.



(86. irudia)

**Gai sozio-politikoaren gaineko interes "ertain edo altua", adinaren eta Interneten erabileraren arabera**

Guk eginda Eustaten datuei jarraiki.

**11.1.2. Hauteskundeetako partaidetza**

Gai politikoetako hiritarren partaidetzari buruzko hausnarke-ta egin nahi denean sakontzen den beste alderdietako bat hauteskundeetako partaidetza da, hots, eredu demokratiko ordezkagarriaren narriadura posiblea.

Euskadiko Kapital Sozialari buruzko inkestaren arabera, inkesta egin duten biztanleen % 79,2k aitortu du hauteskundeetan duen partaidetza ertaina edo altua dela, Otik 10erako eskalan batez beste 7,55 punturekin.

Emakumeek pisu nabarmena dute hauteskundeetan partaidetzan. Hori horrela, inkesta egin duten emakumeen % 81,3k baieztatu du hauteskundeetan (udalekoak + autonomikoak + europarrak + orokorrak) partaidetza ertain altua eduki duela, gizonetako erregistratutako % 77ren aldean.

Adinari jarraiki, hauteskundeetako partaidetza-portzentajerik altuenak 50-65 tartean eta 65 urtetik gorako taldeetan baten dira. Datuen arabera, gazteengan piztutako interesa adin-tarte aurreratuagoetan sortutakoa baino baxuagoa da. Edo, gutxienez, hala adierazi dute inkesta egitean<sup>55</sup>.

Hauteskundeetako partaidetzaren eta klase sozialen arteko harremanari dagokionez, datuei jarraiki klase ertaina eta klase ertain baxua dira hauteskundeetan partaidetza altuagoa aitortu dutenak (partaidetza-maila ertain altua).

<sup>55</sup> Gogoan izan behar da datu horiek beti direla inkesta egin duten pertsonen aitopenetakoak. Ez da erregistratutako botoaren azterketa estatistikorik egin.

Azterketaren puntu honetan galdera saihestezin bat pizten da: Interneten erabilerak zerikusirik al dauka hauteskundeetako partaidetza-mailarekin? Sarea erabiltzen duten eta informazio-iturri berrietarako eta iritziak partekatzeke eta interes publikoko alderdiei buruzko eztabaidak sortzeko kate berrietarako sarbidea duten pertsonen hauteskundeetan gehiago parte hartzen duten adierazi al dute?

Datuak gurutzatzean ikusi ahal izan dugunez, harreman hori batez ere adin-tartean azterketan ikus dezakegu. Hauteskundeetako partaidetza-maila "altua" hazi egiten da Internet erabiltzen duten pertsonen artean, ia adin-tarte guztietan. 25-34 urte bitarteko tartean jaso diren emaitzak aipagarriak dira. Izan ere, Internet erabiltzen duten pertsonen % 70ek baieztatu du hauteskundeetan partaidetza altua duela, Internet erabiltzen ez duten adin-tarte honetako pertsonen erregistratutako % 44,6ren aldean. Nahiz eta egia den kasu honen azpian IKTen erabilera altua duen talde sozial bat dagoela, eta, beraz, Internet erabiltzen ez duten pertsonen erantzunak pisu handiagoa dutela eskuratutako portzentajeetan, azterketak beste adibide esanguratsu batzuk islatu ditu. Horrenbestez, 50-64 urte bitarteko tartean berriz ere daukagu errealitate hori. Internet erabiltzen duten pertsonen % 94k adierazi du hauteskundeetan partaidetza ertain altua duela eta Internet erabiltzen ez duten adin-tarte honetako pertsonen artean portzentaje hori % 88,8koa da.

(15. taula)

**Hauteskundeetako partaidetza**

Adina	Internet-erabiltzaileak	Hauteskundeetako partaidetza (%)		
		Baxua	Ertaina	Altua
15-24 urte	Bai	70,9	8,7	20,3
	Ez	72,3	15,1	12,6
25-34 urte	Bai	22,8	7,2	70
	Ez	46,3	9,2	44,6
35-49 urte	Bai	16	4,9	79,1
	Ez	19,7	6,1	74,2
50-64 urte	Bai	5,9	2,1	91,9
	Ez	11,3	2,7	86,1
65 eta gehiago	Bai	6,3	5,1	88,6
	Ez	8,6	1,9	89,5

Guk eginda Eustaten datuei jarraiki.

**11.1.3. Eragin pertsonala**

Euskal hiritarrek zein neurritan uste dute beren botoak edo partaidetzak auzo, udalerri, Euskadi edo Europako erabakietan eragin dezakeela?

Eustaten Kapital Sozialari buruzko inkestako kopuruak nahiko irmoak dira. Inkesta egin duten pertsonen % 86k uste du bere inguruan eragin pertsonala izateko gaitasuna ertain baxua dela, 10eko eskalan batez beste 4,41 punturekin.

Gizon eta emakumeen artean emakumeak dira nagusi, eragin pertsonaleko gaitasunean portzentaje handiagoa islatzen baitute (maila ertain altua: % 65,7, gizonen % 60,4ren aldean).

Klase sozialen arabera aztertuz gero, klase altua, ertain altua eta ertaina dira eragin pertsonalerako gaitasun gehien adierazten dutenak. Aitzitik, klase ertain baxua eta klase baxua dira eragin pertsonal baxuko maila gisa batu ahal diren erantzun-portzentaje handiena erregistratzen dutenak.

Aldagaiak gurutzatuz gero (eragin pertsonala, Interneten erabilera), Internet erabiltzen duten pertsonak ez dute gaitasun gehiago sentitzen beren boto edo partaidetzaren bidez inguruan eragina izateko orduan. Egoera guztiz bestelakoa da. Internet erabiltzen duten pertsonen artean batzen dira portzentajerik altuenak eragin pertsonalaren pertzepzioko tarte baxuan.

### 11.1.4. Partaidetza sozial eta politikoa

Zein da euskal hiritarren partaidetza sozial eta politikoa maila? Kanpainetan sinatu, mitinetara joan, arrazoi politikoengatik erosteari utzi, agintariekin harremanetan jarri, komunikabideetara kexak bidali, eztabaida, manifestazio eta abarretan parte hartu nahiz bestelako jarduera soziopolitikoetan duten partaidetza-maila nola baloratzen dute?

Inkesta egin duten biztanleen % 98,5ek uste du bere partaidetza sozial eta politikoa ertain baxua dela, 0tik 10erako eskalan batez beste 1,22 puntu dituela. Kopuru hori irmoa da, batez ere kontuan hartzen badugu % 88,6 bat datorrela partaidetza-maila baxuarekin eta % 9,9 maila ertainarekin.

Datua aztertuz gero, sexuaren araberako azterketa kontuan hartuz, gizonek partaidetza sozial politiko handiagoa egotzen diote euren buruari emakumeek baino (partaidetza ertain altua: % 12,9, emakumeek erregistratutako % 10en aldean).

Adinen arabera, partaidetza sozial eta politikoko portzentajerik altuenak 15 eta 49 urte bitarteko adin-tarteekin bat datoz (15-24, 25-34 eta 35-49).

Partaidetza "ertain altuko" portzentajerik altuenak klase sozial altuenetan batzen dira, zehazki, klase altu eta ertainean, eragin pertsonalaren aldagaiaren kasuan gertatu den bezala. Ikuspegi horretatik, eragin pertsonaleko maila ertain altuak bat datoz partaidetza sozial eta politikoko maila ertain altuekin. Bestela esanda, gure inguruan esku hartzeko gaitasunaren pertzepzioa handiagoa da bi eremuetako partaidetza-maila altuagoa denean.

Internet partaidetzan erabiltzeak izan dezakeen eraginari dagokionez, datuei jarraiki Internet erabiltzen duten pertsonak partaidetza-maila altuagoa dutela aitortu dute. Halaxe gertatu da, hain zuzen ere, bai genero-perspektibaren azterketan, bai adin-tartean eta klase sozialen araberako azterketan. Horren gaineko daturik esanguratsuenetako batzuei jarraiki, Internet erabiltzen duten 24-34 urte bitarteko biztanleen % 15,2k adierazi du partaidetza sozial eta politikoko maila ertain altua duela eta Internet erabiltzen ez dutenen artean portzentaje hori % 4tik beherakoa da. Errealitate hori are nabarmenagoa da 50 eta 64 urte bitarteko adin-tartean. Izan ere, Internet erabiltzen duten pertsonen % 20,1ek partaidetza-maila ertain altua dauka alderdi publiko eta sozialean, Internet erabiltzen ez duten adin-tarte bereko pertsonak erregistratutako % 6ren aldean.

Interneten erabileraren, partaidetza sozial eta politikoa eta klase sozialaren arteko gurutzaketak emaitza oso esanguratsuak iradoki ditu:

(16. taula)

### Partaidetza sozial eta politikoa

Klase soziala	Internet-erabiltzaileak	Partaidetza sozial eta politiko ertain altua (%)
Klase baxua	Bai	20,9
	Ez	5,1
Klase ertain baxua	Bai	15,5
	Ez	4
Klase ertain baxua	Bai	16
	Ez	5,4
Klase ertain altua	Bai	21,3
	Ez	4,7

Guk eginda Eustaten datuei jarraiki.

### 11.1.5. Elkarteetako partaidetza

Euskal hiritarrek nola ikusten dute beren burua elkarteetako boluntario-ekintzetan, finantzazioan eta partaidetzan duten partaidetzari dagokienez?

Euskadiko Kapital Sozialari buruzko inkestako datuen arabera, biztanleriaren % 99,7k dio elkarteetan duen partaidetza-maila baxu ertaina dela. Azpimarratu beharra dago datu honetan (maila ertainaren % + maila baxuaren %), % 97,2 partaidetza-maila baxua adierazi duten pertsonak direla. Batez besteko puntuazioa 0,80koa da 0tik 10erako eskalan, 0 partaidetza-maila baxuenen adierazle delarik.

Sexuei erreparatuz gero, gizonek gehiago parte hartzen dute elkarteekin, batez besteko puntuazioa 0,90koa baita (0tik 10erako eskalan), emakumeek erregistratutako 0,71 puntuen aldean.

Partaidetza-portzentaje baxuen barruan, partaidetza-portzentajerik altuenak erregistratzen dituzten adin-taldeak 35-49 eta 50-64 urte bitartekoak dira.

Beste aldagai batzuekin gertatzen den bezala, partaidetza-portzentaje handiak klase sozial altuenekin bat datoz. Eskala sozialean beherantz egin ahala, elkarteetako partaidetza jaitsi egiten da.

Eustaten datuak aztertuz gero, Euskadiko Kapital Sozialari buruzko inkestako informazioan oinarrituta, Interneten erabilera elkarteetako partaidetza-maila altuagoarekin lotu daiteke. Halaxe gertatzen da sexuaren nahiz adinaren araberako azterketa eginez gero. Hona hemen informazio horren adibide gisa balioko duten datuetako batzuk:

(17. taula)

**Elkarteetako partaidetza**

Adina	Internet-erabiltzaileak	Partaidetza ertain altua elkarteetan (%)
15-24	Bai	2,6
	Ez	0
25-34	Bai	2,7
	Ez	0
35-49	Bai	4,6
	Ez	2
50-64	Bai	4,3
	Ez	2,3

Guk eginda Eustaten datuei jarraiki.

**11.1.6. Gizarte-kohesioa**

Interneten erabilerak eragina al dauka pertsonen beren tesuinguruaren gainean duten pertzepzioan, azterketa hori desberdintasun, hurbiltasun eta gatazkek sortutako arazoak bezalako alderdien ikuspegitik eginda?

Inkesta egin duten euskal biztanleen % 96,2k baieztatu du lurraldeko gizarte-kohesioari buruzko pertzepzio ertain altua duela, 0tik 10erako eskalan 6,10 puntu eman baitzizkio batez beste.

Errealitate honek ez du alde nabarmenik islatzen gizon eta emakumeen artean, nahiz eta gizonek gizarte-kohesioari emandako batez besteko puntuazioa emakumeek emandakoa baino apur bat altuagoa den (6,12 eta 6,08, hurrenez hurren).

Gizarte-kohesioaren pertzepzioak harreman proportzional zuzena dauka inkesta egin duten pertsonen adinarekin. Hori horrela, zenbat eta nagusiagoa izan, orduan eta altuagoa da gizarte-kohesioaren pertzepzio-maila.

Aztertutako beste aldagai batzuetan ez bezala, Euskadiko gizarte-kohesioaren pertzepzioan batez besteko puntuaziorik altuenak klase sozial ertain eta baxuan batzen dira.

Gizarte-kohesioaren pertzepzioa eta Interneten erabilera gurutzatuz gero, orokorrean, ezin daiteke ondorioztatu Interneten erabilerak Euskadiko gizarte-kohesioaren pertzepzioa hobetzen duenik. Guztiz kontrakoa. Kopuruen arabera, Internet erabiltzen duten pertsonen ez dituzte erabiltzen ez dutenek bezain puntuazio altuak erregistratzen (portzentajeak maila ertainean batzen dira). Hori horrela, Internet erabiltzen ez duten pertsonak dira gizarte-kohesioaren pertzepzio-maila altuan portzentaje altuena dutenak.

**11.1.7. Zoriontasuna eta osasuna**

Inkesta egin duten euskal biztanleen % 96,4k aitortu du bizitzarekiko eta diru-sarrerekiko asetasun eta osasunean maila ertain altua duela, 0tik 10erako eskalan 7,07 punturekin batez beste.

Ez da alde handirik erregistratu gizon eta emakumeen artean, nahiz eta gizonen batez besteko puntuazioa 7,10ekoa izan eta emakumeena 7,04koa.

Adinari erreparatuz gero, zoriontasunaren eta osasunaren gaineko batez besteko puntuazioa altuena da adin-tarterik


gazteenetan (15-24 urte) eta beherantz doa inkesta egin duten pertsonen adinak gora egiten duen heinean. Horrenbestez, 15-24 urte bitarteko biztanleek 7,43 puntuko batez bestekoa dute eta 65 urte eta goragoko biztanleek 6,64 puntukoa.

Zoriontasuna eta osasuna klase sozialen arabera nola baloratzen diren aztertuz gero, klase altuak, ertain altuak eta klase ertainak erregistratzen dituzte osasunari eta zoriontasunari buruzko pertzepzio-portzentaje "ertain altu" altuenak, 0tik 10erako eskalan 7,65 eta 7,20ko batez besteko puntuazioekin, hurrenez hurren.

Eta zer gertatzen da aldagai hau eta Interneten erabilera gurutzatuz gero? Ongizate subjektiboaren pertzepzioak Interneten erabileraren eragina jasaten al du? Sexuaren, adinaren nahiz klase sozialaren araberrako azterketan, Internet erabiltzen duten pertsonen hobetu egiten duten zoriontasunaren eta osasunaren gainean duten pertzepzioa. Hori horrela, Internet erabiltzen duten pertsonen, adibidez, pertzepzio altuagoa dute beren zoriontasun eta osasunaren gainean Internet erabiltzen ez dutenek baino (Internet erabiltzen duten gizonen artean zoriontasun eta osasunaren pertzepzio-balio "altua": % 65,1 da, Internet erabiltzen ez dutenek erregistratutako % 53,9ren aldean). Gauza bera gertatzen da emakumeen kasuan (Internet erabiltzen duten emakumeen artean zoriontasunaren eta osasunaren pertzepzio-balio "altua": % 64,8 da, Internet erabiltzen ez duten emakumeek erregistratutako % 53,8ren aldean).

Adinaren ikuspegitik (osasun eta zoriontasunaren pertzepzioa -Interneten erabilera- adina), datuek informazio esanguratsua islatzen dute. Adin-tarte guztietan Interneten erabilera osasun eta zoriontasunaren pertzepzio-portzentaje altuagoekin lotzen da. Internet erabiltzen duten 65 urtetik gorakoekin artean, esaterako, % 60,3k bere zoriontasun eta osasunari buruzko pertzepzio altua dauka. Kopuru horiek Internet erabiltzen ez duten eta beren osasun eta zoriontasunari buruzko pertzepzio altua aitortu duten adin-tarte bereko pertsonen oso bestelakoak dira, azken kasu horretan portzentajea % 47,4koa baita.

(87. irudia)

**Zoriontasun eta osasunaren pertzepzioa adinaren eta Interneten erabileraren arabera**

Guk eginda Eustaten datuei jarraiki.


### 11.2. Euskal gizartearen partaidetza IKTen bidez

Atal honetan aztertuko dugu euskal gizarteak nola parte hartzen duen, txosten berezi honen esparruan e-partaidetzari eta IKTak eskuratzeari buruz egindako inkestan planteatutako gai desberdinen erantzunen bidez.

Horretarako, partaidetza horren ezaugarriak zeintzuk diren azalduko dizkiguten aldagai nagusiak aztertuko ditugu:

(88. irudia)

#### Euskal gizartearen IKTen bidezko partaidetza



- Partaidetzarako **motibazioa** (eremu sozial eta publikoetan parte hartzeko arrazoi edo helburuak zeintzuk diren).
- **Erabilgarritasunaren pertzepzioa** (noiz parte hartzen duten, zerbaiterako balio duen, partaidetza horrek erabilgarritasun-sentimendurik sortzen duen edo aitzitik erabilgaitza dela edo denbora galtzen dela uste den).
- **Partaidetza-kateak**: euskal gizarteak nola nahiago du partaidetza: aurrez aurreko kate eta espazio fisikoaren bidez edo *online* kateez baliatuz?
- **Parte hartzeko borondatea**: hiritarrek partaidetza-maila altuagoa izan nahi al dute eremu sozial eta publikoan?

Txosten berezi honetan orain arte egin dugun bezala, aldagai horiek eten digitala sortzen duten beste faktore batzuekin gurutzatu dira. Eta azterketa horri esker, estatistikoki esanguratsuenak diren eta komentatu behar diren datuak atera ahal izan ditugu, inkesta honen lagina osatzen duten gizarte-multzo eta talde desberdinek hiritarren partaidetza nola bizi duten ulertzeko.

#### 11.2.1. Hiritarren partaidetzarako arrazoiak


Zein arrazoi dauka hiritarrak Euskadiko eremu sozial eta publikoan parte hartzeko? Galdera honi erantzuten saiatzeko, honako galdera egin zitzaizen hiritarrei: **“Zergatik parte hartzen duzu zure inguruan edo eremu publikoan?”**

Bat-batean erantzun zitekeen galdera zenez, 5 erantzuntalde edo -motatan batu ditugu erantzunak. Hori horrela, inkesta egin duten Internet-erabiltzaileen % 48k adierazi du onura pertsonala lortzeko parte hartzen duela. Bestalde, % 28,6k dio besteei lagundu edo onurak ematea dela parte hartzeko arrazoi eta % 24,7k erabilgarri sentitzeko parte hartzen du.

Inkesta egin duten biztanleen % 27k soilik aitortu du erabakiak hartzeko orduan parte hartzeko asmoz parte hartu duela.

(89. irudia)

#### Internet erabiltzen duten 16 urtetik gorako pertsonak, beren inguruan edo eremu publikoan parte hartzeko arrazoiaren arabera (%), 2012



Guk egin a Arartekoaren IKTak eskuratzeari eta e-parte hartzeari buruzko inkestaren datuak oinarri izanda, 2012.

Zehaztasunez aztertuta, eta galdera honen erantzunak txosten berezi honetan zehar jorratu ditugun eten digitaleko aldagai nagusi batzuekin gurutzatuz gero, datu interesgarriak ondorioztatzen dira.

**Sexuaren aldagaiarekin** gurutzatuta, emakumeek gizonek baino neurri handiagoan aitortu dute onura pertsonalak eskuratzeko parte hartzen dutela, % 54,1ek aipatu baitu arrazoi hori, gizonen % 42,1en aldean.

Parte hartzeko arrazoi gisa erabilgarritasunaren sentimendua aipatu duten gizon eta emakumeen portzentajea da beste kontraste esanguratsu bat, % 35,1 eta % 14,2ko portzentajeekin, hurrenez hurren.

**Adinaren aldagaiarekin** gurutzatuta, bestalde, desberdintasun garrantzitsuak ikus ditzakegu Euskadiko eremu sozial eta publikoan parte hartzeko arrazoiaren artean. Horrenbestez, onura pertsonala eskuratzeko parte hartzen dutenek portzentaje altuagoak erregistratzen dituzte adin-tarteetan gora egin ahala. Ildo horretatik, 16 eta 34 urte bitarteko biztanleen % 47,8k dio hori dela parte hartzeko arrazoiak, baina datua % 54,8ra igotzen da 55 urte edo goragoko pertsonen kasuan.

Aitzitik, erabakietan parte hartzeko arrazoiaren eta adinaren arteko harremanak honako eskema jarraitzen du: zenbat eta gazteagoa, orduan eta pisu gehiago du erabakietan parte hartzeko arrazoiak. Ondorioz, 16 eta 34 urte bitarteko biztanleen % 32,3k adierazi du kausa hori dela parte hartzeko arrazoiak eta 55 urte edo goragoko pertsonen kasuan portzentaje hori % 21,3ra jaisten da (11 puntuko alde adin-tarte bien artean).

**Ikasketa-mailari** erreparatu gero, aldagaien gurutzaketak datu bereziki interesgarria ematen digu. Parte hartzeko arrazoiak erabakietan esku hartu ahal izatea diren kasu gehiago ematen dira unibertsitate-ikasketak dituzten biztanleen artean, lehen edo bigarren hezkuntzako ikasketa-maila duten pertsonen artean baino. Gurutzaketa honetan portzentajerik baxuena erregistratzen duen taldea bigarren hezkuntzako ikasketak dituen biztanleria da, % 24,1ekin, unibertsitate-ikasketak dituzten biztanleek erregistratutako ia % 30en aldean.

Emaitzak **lanbidearen** arabera banatuz gero, inkesta egin duten biztanleek bat-batean emandako bi arrazoiaren alde esanguratsuak daude.

Hori horrela, etxeko andreak (% 86,1) eta jarduerarik edo lanik gabe dauden pertsonak (% 75,3) dira parte hartzeko arrazoi gisa onura pertsonala eskuratzeko hautatu dutenen portzentajerik altuenak erregistratzen dituzten profilak.

Bestalde, beren kontura lan egiten duten pertsonak erregistratu dituzte portzentajerik altuenak, grafikoa ikus daitekeen bezala, gainerakoak laguntzeko arrazoiaren (% 56,9) eta erabakietan parte hartzeko arrazoiaren (% 52,2), gainerako taldeekin alde nabarmenak dituztelarik.

Aipatzekoa da, era berean, jarduerarik edo lanik gabe dauden pertsonen % 6,1ek soilik aipatzen duela erabakietan esku hartzea dela bere parte hartzeko arrazoiak.


**Etorkinei** dagokienez, % 45,4k dio besteak laguntzeko parte hartzen duela, hau da, etorkinak ez diren biztanleek baino % 17 gehiagok (% 27,7), azken horiek neurri handiagoko erabiltzen baitute onura pertsonala eskuratzeko (% 49,5).

Partaidetzaren kontzeptu hau, onura kolektiboa sortzeko orientatuta, **ezgaitasun** aitorturen bat duen biztanleengan ere ageri da. Hori horrela, ezgaitasun aitorturen bat duten biztanleen % 42,5ek adierazi du gainerakoei onurak eskuratzeko parte hartzeko duela eta portzentaje hori % 27,6ra jaisten da ezgaitasun aitorturik ez duten pertsonen kasuan.

Halaber, erabilgarri sentitzeko parte hartzen dutenak ere errotuago daude ezgaitasun bat duten biztanleen artean (% 52,3, ezgaitasun aitorturik ez daukaten pertsonen erregistratutako % 23,8ren aldean).

(90. irudia)

### Internet erabiltzen duten 16 urtetik gorako pertsonak, beren inguruan edo eremu publikoan parte hartzeko arrazoiaren eta lanbidearen arabera (%), 2012



Guk egin auzaren Arartekoaren IKTak eskuratzeari eta e-partze hartzeari buruzko inkestaren datuak oinarri izanda, 2012.


Erabakietan esku hartzeko partaidetza, bestalde, baxuagoa da ezgaitasun bat duten biztanleen artean (% 19,1, ezgaitasun aitorturik ez daukaten eta arrazoi hori aukeratu duten biztanleen % 27,5en aldean).

Bestalde, parte hartzeko arrazoiak eta Internet erabiltzeko maiztasunak ere harreman bat dutela ematen du. Erabilera zenbat eta maizago izan, orduan eta gehiago aitortzen da besteentzako onurak eskuratu nahi direla eta erabakietan esku hartu nahi dela parte hartzeko orduan.

Erabilera-maiztasunean mugitzen garen eta Interneten erabilera esporadikoagoa egiten duten pertsona-taldeengana hurbiltzen garen heinean, igo egiten da eremu sozial eta publikoan parte hartzeko arrazoi gisa onura pertsonala identifikatu duten pertsonen portzentajea.

(91. irudia)

**Internet erabiltzen duten pertsonak, beren inguruan edo eremu publikoan parte hartzeko arrazoien eta erabilera-maiztasunaren arabera (%), 2012**



Guk egina Arartekoaren IKTak eskuratzeari eta e-parte hartzeari buruzko inkestaren datuak oinarri izanda, 2012.

### 11.2.2. Partaidetzaren erabilgarritasunaren pertzepzioa hiritarren eskutik

Euskadiko eremu sozial edo publikoan noizbait parte hartu duten hiritarrek duten pertzepzioari buruzko azterketan, noizbait parte hartzea erabaki duen biztanleria zein sentazioarekin geratu den nabarmendu nahi da. Partaidetza hori erabilgarria izan dela sentitu ahal dute?


Adierazle hau oso garrantzitsua da, aurreko esperientziek era esanguratsuan zehazten baitu etorkizuneko esperientzietako motibazio- eta inplikazio-maila. Bestela esanda, eta txosten berezi honen esparruan adituekin izandako eztabaida-taldeetan eskuratutako ondorio batzuk berreskuratuz, partaidetzan egondako esperientzia zapuztuek eragin handia dute lurraldearen kultura partaideia sustatzeko orduan.

Honako galdera egitean: **“Zein neurritan iruditu zaizu erabilgarria zuretzat edo gainerako hiritarrentzat zure partaidetza?”**, inkesta egin duten biztanleen % 34k baloratu du bere partaidetza oso erabilgarria edo nahiko erabilgarria izan dela (datu erantsia).

Aitzitik, biztanleen % 33,6k uste du bere partaidetza ez dela oso erabilgarria izan eta % 25,9k dio, zuzenean, partaidetza horrek ez duela inolako eraginik izan.

(92. irudia)

**Internet erabiltzen duten 16 urtetik gorako pertsonak, beren partaidetzaren erabilgarritasunaren (pertsonala edo kolektiboa) pertzepzioaren arabera (%), 2012**



Guk egina Arartekoaren IKTak eskuratzeari eta e-parte hartzeari buruzko inkestaren datuak oinarri izanda, 2012.

Grafikoan ikus daitekeen bezala, inkesta egiten duten biztanleen % 59,5ek adierazi du bere partaidetza ez dela oso erabilgarria izan edo ez duela eraginik izan.

Ikuspegi operatibotik erreparatuta, portzentaje horrek hiritarren partaidetza-esperientzia arrakastatsuak sortzeko beharrianari buruzko alarma piztu lezake, ahalik eta gardentasun handiena bermatuz eta hiritarrei beren partaidetzak duen eragin edo balioaren jakitun izateko modua ahalbidetuz. Gomendioen kapituluaz azalduko da gai hau zehatzago.

Partaidetzaren erabilgarritasuna inkesta egin duten biztanleen **sexuaren aldagaiaren** arabera nola baloratzen den aztertuta, datuak antzekoak dira eta ez da *gap* handirik antzeman bi taldeen pertzepzioen artean. Hori horrela, emakumeen % 34,7k uste du eremu sozial eta publikoan duen partaidetza oso erabilgarria edo nahiko erabilgarria dela eta portzentaje hori % 33,4koa da gizonen kasuan. Bestetik, oso erabilgarritzat jotzen diren kasuak aztertuz gero, emakumeen % 3,6k soilik uste du hala dela eta gizonen kasuan % 7,6k.

**Adinari** erreparatuz gero, partaidetza pertsonala oso erabilgarri edo nahiko erabilgarri gisa ulertzen duten kasuak igo egiten dira adin-tarteetan gora egin ahala. Hori horrela, 16-34 urteko biztanleen % 28,8k uste du bere partaidetza oso erabilgarria edo nahiko erabilgarria dela, portzentaje hori % 34,9ra igotzen da 35-54 urteko biztanleen kasuan, eta % 47,4ra 55 urte edo goragoko biztanleen kasuan.


Hau da, beste ondorio batzuen artean, inkesta egin duten 16-34 urte bitarteko biztanleen (Euskadiko Internet-erabiltzaileak) % 67,9k uste du bere partaidetza ez dela oso erabilgarria izan edo ez duela eraginik izan, erabilgarritasunari edo eraginari erreparatuz gero.

**Ikasketa-mailaren** arabera, erabilgarritasunaren pertzepzioa (oso erabilgarria + nahiko erabilgarria) altuagoa da ikasketa-maila altuagoak dauzkaten biztanleen artean. Lehen hezkuntzako ikasketak dauzkaten herritarren artean dugu adibiderik argiena. Ikasketa-maila hori daukan biztanleen % 43,8k uste du bere partaidetza ez dela oso erabilgarria eta % 19,3k dio ez duela eraginik izan. Unibertsitate-ikasketak dituzten biztanleen artean, aitzitik, % 40,1ek uste du bere partaidetza oso erabilgarria edo nahiko erabilgarria izan dela eta % 27,6k adierazi du ez dela oso erabilgarria izan.

**Etorquinek** erabilgarritasunari buruz duten pertzepzioa bereziki esanguratsua da. % 61,9k uste du eremu sozial eta publikoetako partaidetza ez dela oso erabilgarria izan. Etorkinak ez diren biztanleen kasuan, portzentaje hori % 32,3ra murrizten da.

(93. irudia)

**Internet erabiltzen duten 16 urtetik gorako pertsonak, beren partaidetzaren erabilgarritasunaren (pertsonala edo kolektiboa) pertzepzioaren eta etorkinen arabera (%), 2012**



Guk egina Arartekoaren IKTak eskuratzeari eta e-parte hartzeari buruzko inkestaren datuak oinarri izanda, 2012.

Adierazle hau **ezgaitasunaren** aldagaiarekin gurutzatuta ondorioztatu daitekeenez, ezgaitasun aitorturen bat duten biztanleen % 59,9k dio eremu sozial eta publikoetako

partaidetza oso erabilgarria edo nahiko erabilgarria iruditzen zaiola. Portzentaje hori % 32,6koa da ezgaitasun aitorturik ez duten biztanleen kasuan, eta, beraz, datu horien interpretazioak erabilgarritasunaren pertzepzio altua iradokitzen du ezgaitasunaren bat duten pertsonen taldean, beren partaidetzaren erabilgarritasunari dagokionez.

Deskribapen estatistikoa burutzeko, inkesta egin duten eta ezgaitasun aitorturen bat duten pertsonen % 40,2k uste du bere partaidetza ez dela oso erabilgarria (pertsonalki edo taldearentzat), eta portzentaje hori % 60,7ra igotzen da ezgaitasunik aitortuta ez duten biztanleen kasuan.

**Interneten erabileraren maiztasunak** eragin handia dauka hiritarrek partaidetzaren erabilgarritasuna ulertzeko moduan. Beraz, bere partaidetza ez dela oso erabilgarria uste duen biztanleriaren portzentajeak Internet erabiltzen duten maiztasunaren arabera alderatuz gero, emaitza oso argia da:

(18. taula)

### Partaidetzaren erabilgarritasunaren pertzepzioa

Interneten erabileraren maiztasuna	Bere partaidetzak erabilgarritasun pertsonal edo kolektibo urria duela uste duen biztanleriaren %
Egunero (egun guztietan)	29,9
Astero (aste guztietan, baina ez egun guztietan)	52,1
Hilero (hilean gutxienez behin)	84,4

Internet egunero erabiltzen duten biztanleen % 29,9k soilik uste du bere partaidetza ez dela oso erabilgarria (biztanleriaren batez bestekoaren azpitik, azken hori % 33,6ko delarik) eta pertsonen horien % 6,5ek uste du (Internet egunero erabiltzen dutenen artean) bere partaidetza oso erabilgarria dela (biztanleriaren batez bestekoaren gainetik, azken hori % 5,6koa izanik).

### 11.2.3. Partaidetza-itxaropenak, gehiago parte hartu nahiko zenuke? *Online* edo *offline*?

Gizarte baten partaidetzaren azterketa hainbat aurpegi daukan poliedro batekin alderatu daiteke, eta, bertan, ikuspegia non jartzen dugun, horrek lagunduko digu aztergaia alderdi batetik edo bestetik lantzen. Aztertu ditugu partaidetzarako arrazoiak, pertsonak beren partaidetza erabilgarria den, edo bestalde, eraginik ez duen ulertzeko moduan, eta jorratu digu ea Interneten partaidetzaren eta erabileraren artean harremanik ote dagoen ere.

Baina hurrengo galdera ere aipatu beharrekoa da: Euskadiko hiritarrek gehiago parte hartu nahi al dute? Sarritan hitz egin izan da partaidetzaren ekosistemaz, partaidetza-kateen, partaidetza horren joan-etorrien, lurraldeko partaidetza-kulturaren eta abarren inguruko argudioak aipatuz. Baina, jendeak parte hartu nahi al du? Edo, bestela esanda, jendeak eremu sozial eta politikoetako partaidetza-mailan egiten duenaz gain, besterik egin nahi al du?


Arartekoaren e-partaidetzari eta IKTak eskuratzeari buruzko inkestak zuzenean galdetzen dien biztanleei honakoa:

**“Partaidetza-maila altuagoa eduki nahi zenuke Euskadiko eremu sozial eta publikoan, zure foru aldundian edo udalean?”.**

Biztanleen % 37,4 adierazi du gehiago parte hartu nahiko lukeela. Bestalde, inkesta egin dutenen % 60,6k baieztatu du ez lukeela partaidetza-maila altuagorik izan nahi eremu sozial eta publikoan

(94. irudia)

**Internet-erabiltzaileak, Euskadiko eremu sozial eta publikoan, beren foru aldundian edo udalean izan nahiko luketen partaidetza-altuagoaren arabera (%), 2012**



Guk egina Arartekoaren IKTak eskuratzeari eta e-parte hartzeari buruzko inkestaren datuak oinarri izanda, 2012.

A priori erantzunak ez zuen oso pozgarria ematen, nahiz eta honelako txosten berezi baten esparruan, gure lurraldean gertatzen ari den egoera bat loratzeko aukera gisa interpretatu behar den, eta agiri honetan bertan jasotako gomendioen bidez esku hartu behar den.

Galdera honetan eskuratutako emaitzak txostenean zehar erabilitako ikerketa-aldagai nagusiekin gurutzatuta, oso informazio interesgarria dugu: inkesta egin duten biztanleen **sexuaren aldagaiaren** arabera, gehiago parte hartzeko interesik ez duten emakumeen portzentajea altuagoa da gizonena baino (% 62,4, % 58,8ren aldean, hurrenez hurren).

**Adin-tarteei** erreparatu gero, biztanleriarik gazteena (16-34 urte) da neurri handiagoan esaten duena (% 44,9) gehiago parte hartu nahiko lukeela. Bestalde, 55 urte edo goragokoen taldean, adin-tarte horretako pertsonen % 65,2k dio ez lukeela gehiago parte hartu nahi bere inguruko bizitza sozial eta politikoan.


**Jarduerarekiko edo lanbidearekiko harremanaren** arabera, ikasleak (% 47,2) eta beren konturako langileak (% 41,8)

dira eremu sozial eta publikoan gehiago parte hartzeko interes altuena dutenak. Bestalde, inkesta egin duten erretiratuek (% 66) eta besteren konturako langileak (% 63,2) dira neurri handiagoan aitortu dutenak ez dutela beren partaidetza-maila iko nahi.

Estatistiko esangura gehien duen datua etorkinena da. Talde honen % 75,1ek erantzun du neurri handiagoan parte hartu nahiko lukeela Euskadiko bizitza sozial eta politikoan. Portzentaje horrek bikoiztu egiten duten etorkinak ez diren biztanleengan erregistratutakoa (% 36,1).

(95. irudia)

**16 urtetik gorako Internet-erabiltzaileak, Euskadiko eremu sozial eta publikoan, beren foru aldundian edo udalean izan nahiko luketen partaidetza-altuagoaren eta etorkinen arabera (%), 2012**



Guk egina Arartekoaren IKTak eskuratzeari eta e-parte hartzeari buruzko inkestaren datuak oinarri izanda, 2012.

Bestetik, **ezgaitasunen** bat duten biztanleen % 33,7k (biztanleriaren batez bestekoa baino 3,7 puntu gutxiago) aitortu du gehiago parte hartu nahiko lukeela, eta, bestalde, % 63,8k erantzun du ez duela partaidetza-maila altuagoa izan nahi bere inguruko gai sozial edo publikoetan.

Eta gehiago parte hartu nahiko luketela dioten pertsona horiek guztiek, zein bide nahiago dute? **Online** aritu dira edo **offline** bitartekoak nahiago dituzte?

Gai hau jorratzeko, honakoa galdetu zitzaion biztanleei: **“Nahiago al zenuke partaidetza hori Interneten bidez edo partaidetza-espazio fisikoan bidez (hau da, aurrez aurre) egitea?”.**


Inkesta egin zuten biztanleen % 39,9k aitortu zuen nahiko zuela Internet erabili eta % 28,6k, berriz, aurrezko aurreko bitartekoak lehenetsi zituen. Portzentaje horiez gain, biztanleriaren % 24,1ek nahiago du bi modu horien konbinazioa



(Internet+aurrez aurre), eta % 6,2k aitortu du ez diola ardura modu bat edo bestela erabiltzeak.

(96. irudia)

### 16 urtetik gorako Internet-erabiltzaileak, Interneten bidezko edo aurrez aurreko partaidetza-lehentasanaren arabera (%), 2012



Guk egina Arartekoaren IKTak eskuratzeari eta e-parte hartzeari buruzko inkestaren datuak oinarri izanda, 2012.

Inkesta egin duten pertsonen **sexuaren aldagaiaren** arabera azterketari jarraiki, gizon (% 34,6) baino emakume (% 45,4) gehiagok baieztatu du gehiago parte hartu beharko balukete, Interneten bidez egingo luketela.

**Adin-tarteen** arabera, eta aurreikus daitekeen bezala, jenderik gazteena (16-34 urte) da neurri handiagoan nahigo duena Interneten bidez parte hartzea (% 43,7), eta 55 urte eta gora-gokoek nahiago dituzte, bestalde, aurrez aurreko bitartekoak (adin-tarte horretako % 44,4k aukeratuko luke aurrez aurreko modalitatea).


**Lanbidearen** eta partaidetzarako aukeratutako katearen (*online* edo *offline*) harremanari dagokionez, estatistikei jarraiki ikasleak (% 62) eta beren konturako langileak (% 51,1) dira neurri handiagoan aukeratzen dutenak Interneten bidez parte hartzea.

Aitzitik, jarduerarik edo lanik gabe dauden pertsonak (% 43,8) eta besteren konturako langileak (% 35,1) dira neurri handiagoan aitortzen dutenak aurrez aurreko modalitateen bidezko partaidetza nahiago dutela. Etxeko andreak (% 48,5) dira bi modalitateen konbinazioa (Internet + aurrez aurre) nahiago dutenak parte hartzeko orduan.

**Etorkinen** % 49k nahiago du formula mistoa (aurrez aurre + Internet), % 28,4k, bestetik, Internet lehenesten du, eta, azkenik, % 18k aurrez aurreko modalitatea aukeratu du.

(97. irudia)

### 16 urtetik gorako Internet-erabiltzaileak, Internet bidezko edo aurrez aurreko partaidetza-lehentasanaren eta adinaren arabera (%), 2012



Guk egina Arartekoaren IKTak eskuratzeari eta e-parte hartzeari buruzko inkestaren datuak oinarri izanda, 2012.

Era berean, **ezgaitasun** aitorturen bat duten biztanleek nahiago dute aurrez aurreko edo Internet bidezko modalitateen konbinazioaz baliatu (% 53). % 31,2k nahiago luke Interneten bidez egin eta % 5ek soilik aukeratu du aurrez aurreko katea. Inkesta egin duten eta ezgaitasunen bat duten pertsonen % 10,8k erantzun du gaiaren arabera dela erabiliko lukeen modalitatea (*online* edo *offline*), hau da, partaidetzaren helburuaren arabera sistema bat edo bestea hautatuko luke.


**Interneten erabileraren maiztasunak** eta partaidetzakateak ere harremana omen dute. Internet zenbat eta maizago erabili, orduan eta gehiago nahigo da Internet eremu sozial eta publikoetan parte hartzeko. Horrenbestez, Internet egunero erabiltzen duten biztanleen % 44,9k aukeratu du Internet parte hartzeko, eta sarearen erabilera esporadikoa egiten duten (hilean gutxienez behin) eta beren inguruan parte hartzeko Internet erabiltzen duten pertsonen portzentajea % 16,4koa da, hau da, 28 puntu baino gehiagoko *gap* nabarmena dago.

Bestalde, **Interneti eta IKTei buruzko ezagutza-maila** altuagoa ere bat dator Interneten bidez parte hartzeko interes handiagorekin. Internet eta IKTei buruzko ezagutza-maila aditua duten pertsonen % 60 inguruk adierazi du modalitate hori (Internet) dela bere ustez parte hartzeko aukerarik

egokiena. Aitzitik, oinarritzko ezagutza-maila duten pertsonen nahiago dute aurrezko aurreko partaidetza (% 38,3) eta konbinatua (% 24,1), Internet nahiago duten % 32,5en aldean.

(98. irudia)

**16 urtetik gorako Internet-erabiltzaileak, Internet edo aurrez aurreko partaidetza-lehentasunaren eta Internet eta IKTei buruzko ezagutza-mailaren arabera (%), 2012**



Guk egina Arartekoaren IKTak eskuratzeari eta e-parte hartzeari buruzko inkestaren datuak oinarri izanda, 2012.

**11.3. Administrazioaren bitarteko, modu eta jokamoldeak, hiritarren IKT bidezko partaidetza errazteko**

Euskadiko hiritarrek eremu publikoan duten partaidetza aztertzeko, berrikusi egin behar da euskal herri administrazioek zein neurritan bermatzen dituzten biztanleek partaidetza-mekanismoak eskuratzeko dituzten moduan, bitartekoak, eta, azken finean, sarbidea (horretarako ez da nahitakoa tresnak eraikitzea, baizik eta politika eta erabakien eruedetan parte hartzeko ekimen hiritarrak ahalbidetzea).

Horrenbestez, errealitate hori aztertzeko Euskadiko erakunde publikoen webguneetako e-partaidetza jorratu behar da. Hots, beren atariaren eta bertan eskaintako zerbitzu eta prozeduren bidez hiritarren administrazioetara hurbiltzeko maila zein den landu behar da.

Horretarako, hiru informazio-iturri erabili ditugu:

- **Zerbitzu Publiko Elektronikoaren Estatistika** (Euskal Plan Estatistikoan edo/eta Programa Estatistiko Ofizialean sartua), Eusko Jaurlaritzako Herri Administrazio eta Justizia Sailak argitaratua 2011n<sup>56</sup>. Bertan, “ezaugarriak eta zerbitzuak” atalaren barruan, hiritarren partaidetzarako tresnen eskuragarritasuna edo webgune 2.0ren berezko komunikazio-tresnen erabilera bezalako alderdiak jorratzen dira.
- Herri administrazioei zuzendutako hiritarren partaidetzari buruzko galdetegia<sup>57</sup>, Arartekoak bidali ziena Eusko Jaurlaritzari, foru aldundiei eta Euskadiko hainbat udali (Bilbo, Vitoria-Gasteiz, Donostia-San Sebastian, Amurrio, Irun eta Zalla), administrazioetan Internet bidezko hiritarren partaidetzako alderdiei buruzko informazio zehatza jasotzeko asmoz.
- Txosten berezian parte hartu duten herri administrazioen webguneen azterketa, partaidetza-prozesuen hiru fase handien ikuspegitik (webgune horiek erantzun beharko lituzketen multzo handiak):

(99. irudia)

**Partaidetza-prozesuen faseak**



<sup>56</sup> Ohar metodologikoa: ikerketaren esparru gisa 2010eko behin behineko herri administrazioen direktorioa erabili da, 1.164 erakunde barne hartzen dituena. Euskadin egoitza duten Estatuko Administrazio Orokorraren erakunde publikoak ez dira kontuan hartu.

<sup>57</sup> Ohar metodologikoa: nahiz eta galdetegia Eusko Jaurlaritzara, hiru foru aldundietara eta Bilbo, Vitoria-Gasteiz, Donostia-San Sebastian, Amurrio, Irun eta Zallako udaletara bidali den, jasota datuak, baita horietatik ateratako ondorioak ere, Arartekoari modu egokian bete eta epe barruan bidalitako galdetegietatik datoz: Eusko Jaurlaritza, Araba eta Bizkaiko foru aldundiak eta Bilbo eta Irungo udalak bidalitako galdetegietatik, hain zuzen ere.

Kapitulu honetan aztertu diren gaiak, informazio-iturrietan oinarrituta, honakoak izan dira:

(100. irudia)

### Euskal herri administrazioen azpiegiturak partaidetzarako eskubidea bermatzeko



Zortzi ardatz horien zehaztasunaren bidez, euskal herri administrazioek hiritarren Internet bidezko partaidetzarako eskubidea bermatzeko dituzten azpiegiturak ezagutu nahi dira eta sarearen bidez eremu publikoan hiritarren partaidetza sustatu eta arautzen duten berme juridikoak dauden ala ez jakin nahi da. Era berean, eskaintako zerbitzu edo modalitateen atzean dauden eta funtsezkoak diren alderdi guztien berri izan nahi da, besteak beste, administrazioetako langileen IKT gaitasunak eta administrazio langile erabakitzaileen hesien pertzepzioak eta jokamoldeak.

*Ohar metodologikoa: esanguratsua da erakunde publikoei egindako galdetegiaren bidez jasotako informazioa webguneak sakon aztertuz osatzen dela. Ondorioz, berau irakurtzea komeni da, datuen ikuspegi oso eta osagarria izateko (ikus Euskadiko herri administrazioen webguneen berrikuspena).*


#### 11.3.1. Presentzia eta eskuragarritasuna: informazioa, hedapena eta harremana

Eusko Jaurlaritzako Zerbitzu Publiko Elektronikoen Estatistikaren arabera, Euskadiko erakunde publikoen atarietan gehien dauden hiritarren partaidetzako tresnak kexa eta iradokizunen atalak dira, aztertutako atari publikoen % 45,7tan ageri baitira. Inkestetarako (% 9,3) eta foroetarako atalak,

erakunde publikoetako atarrien % 8,4an daudenak, hurrengoak dira hiritarren partaidetza-tresnei buruzko *ranking* posible batean.

(101. irudia)

### Euskadiko erakunde publikoek erabilitako webgune desberdinak, hiritarren partaidetzatresnen eskuragarritasunaren arabera (%), 2010



Bertan egina, Eusko Jaurlaritzako 2010eko Zerbitzu Publiko Elektronikoen Inkestako datuetan oinarrituta.


Bestetik, gobernuko kideekin mezu elektronikoen bidez harremanetan jartzeko aukera ageri da aztertutako atarrien % 7,6an eta atal horietako % 2,8k soilik dauka hiritarren-tzako gaitutako bozketata-atl bat.

Eusko Jaurlaritzako estatistikak aztertutako beste alderdi bat, lotura estua daukana e-partaidetzarekin, informazioa delako partaidetzarako aurretiazko ezinbesteko baldintzetako bat, gizarte-sareen eta blog-en presentzia eta erabilera da.

Iturri horren arabera, aztertutako atari publikoen % 13 dago Facebooken eta % 10,2 Twitter-en.

(102. irudia)

**Euskadiko erakunde publikoek erabilitako webgune desberdinak, eskuragarritasunaren eta blog eta gizarte-sareen erabileraren arabera (%), 2010**



Bertan egina, Eusko Jaurlaritzako 2010eko Zerbitzu Publiko Elektronikoen Inkestako datuetan oinarrituta.






Gizarte-sare nagusietan (Facebook eta Twitter) daudela kontuan hartuta, euskal erakunde publikoen atarrietako % 9,4an blogak antzeman dira eta Flickr eta Youtube kateak, berriz, atarien % 4,5 eta 8,2an, hurrenez hurren.

Herri administrazioek hiritarren esku uzten dituzten tresnen (informazio, hedapen eta komunikaziorako) ezagutza sakontzeko, eremu publikoan duten partaidetza sustatze aldera, galdera berriak planteatu ditugu. Hori horrela, Euskadiko erakunde publikoen atariak partaidetzarako tresnak dituzte, kexa eta iradokizunetarako atalak barne, baina e-partaidetzarako berariazko espazioak al dituzte, behar bezala identifikatuta? Nola antolatzen dira edukiak atari horietan? Hiritarren eta kontsultagaien funtzionario arduradun eta langile erabakigarrien arteko komunikazio zuzena ahalbidetzen al dute? Hiritarrek zein gizarte-erakunde edo -organotan parte hartu edo esku hartu dezaketen identifikatzen al dute? Herri administrazioek neurriak hartzen al dituzte komunikabideekin sinergiak aprobetxatzeko eta bizitza politikoari buruzko informazioa hedatzeko, herritarren eta eremu publikoaren artean interes eta hurbiltasuna sortze aldera?

**Euskadiko herri administrazioei hiritarren partaidetzari buruz egindako galdetegiaren bidez, Arartekoak txosten berezi honen esparruan gauzatua** (lehen aipatu eta azaldu dugun bezala), honako galderak eta beste batzuk egin nahi izan dizkiegu herri administrazioei. Jarraian ikusten diren taulan agertzen dira galderen erantzunak:

(19. taula)

**Administrazioak IKT bidezko hiritarren partaidetza errazteko dituen bitartekoen erantzuna**

	Eusko Jaurlaritzza	Arabako Foru Aldundia	Bizkaiko Foru Aldundia	Bilboko Udala	Irungo Udala
<b>1. ARDATZA.</b> <b>Webguneko presentzia: informazioa, hedapena eta komunikazioa</b>					
Atarian hiritarren partaidetzarako berariazko espazioa dago	BAI	BAI	BAI	BAI	BAI
Webguneak partaidetza indibidualaren eta elkartearen bidezkoaren artean bereizten du	EZ	EZ	EZ	SI	EZ
Atariak gaien inguruan egituratzen ditu hiritarren partaidetzarekin lotutako edukiak	BAI	BAI	BAI	BAI	BAI
Hiritarrek posta elektronikoko kontua edukitzeko aukera dute (hiritarrek eta erakunde hiritarrek)	BAI	BAI	BAI	BAI	BAI
Jaurlaritzako eta goi-mailako karguetako kideekin harremanetan jartzeko aukera dago atariaren bidez	BAI	BAI	BAI	BAI	BAI
Benetan kontaktatzen den pertsona: jaurlaritzako kideak eta goi-mailako karguak vs ordezkariak diren beste pertsona batzuk	(1)	(1)	(1)	(1)	(2)
Kateak komunikazioa benetako denboran egiteko aukera ematen du	BAI	EZ	BAI	BAI	EZ
Hiritarren partaidetzari buruzko berrikuntzen alerta-zerbitzuetara edo newsletters delakoetara izena emateko mekanismoak daude	BAI	EZ	BAI	BAI	EZ
Agiri ofizialak berrikusi eta deskarga daitezke	BAI	BAI	BAI	BAI	BAI
Agiri horiek formatu irekietan eskuratu daitezke	BAI	BAI	BAI	EZ	BAI
Erakundearen atariak entitate hiritarren direktorioa dauka	BAI	BAI	BAI	BAI	BAI
Atariak direktorio horretara entitate hiritar berriak Internet bidez sartzeko aukera ematen du	EZ	EZ	BAI	EZ	EZ
Erakundearen webguneak jardueren zerrenda edo egutegia argitaratzen du	BAI	BAI	BAI	BAI	EZ
Tokiko telebista eta beste komunikabideekin lankidetzak egiten dira, lurraldeko bititza politikoiari buruzko informazio-ekintzak sustatzeko (osoko bilkuren edo eztabaidaren emankizunak eta abar)	BAI	BAI	BAI	BAI	EZ

(1) Jaurlaritzako kideak eta goi-mailako karguak

(2) Ordezkariak diren beste pertsona batzuk

Orokorrean, taulan ikus daitekeen bezala, Eusko Jaurlaritzak da informazio, hedapen eta komunikazioko lehenengo ardatz honetan galdetegiak planteatu diren tresna gehien daukana.

Aztertutako erakunde publiko desberdinen arteko alde nagusiak honako alderdietan agertzen dira, besteak beste: hiritarrei zuzendutako hiritarren partaidetzarako atala irekitzea eta elkartei eta boluntarioei zuzendutako beste zehatzago bat irekitzea. Kasu honetan, Bilboko Udalak soilik dauka ezaugarri hau (hurrengo irudian ikus daitekeen bezala).

Bestalde, Eusko Jaurlaritzak, Araba eta Bizkaiko foru aldundiek eta Bilboko Udalak baieztatzen dutenez, gobernuko kideekiko eta goi-mailako karguekiko komunikazioa zuzenean egiten da pertsona horiekin, baina Irungo Udalak tokiko erakundeko beste pertsona batzuk sartzeko erabaki du, informazio-eskaeretan edo kontsultetan aipatu den gaia ezagutzen dutenez gobernuko kidearen eta goi-mailako karguaren ordez erantzun dezaten.

(103. irudia)

**Bilboko Udalean elkarte eta boluntarioei zuzendutako hiritarren partaidetzarako atalaren irudia (2012ko otsaila)**

### 11.3.2. Erakunde publikoen atariak eta e-eskaerarako eskubidea

Eskatzeko eskubidea arautzen duen azaroaren 12ko 4/2011 Lege Organikoan deskribatutakoaren arabera, “eskariak egiteko eskubidea oinarrizko eskubide gisa aitortu da Espainiako Konstituzioaren 29. artikuluan. Manu horrek legea igorri ditu eskubide hori egikaritzeko moduaren arauketa eta eskubide hori egikaritzeak sortzen dituen ondoreak. / Eskarietara bil daitezke iradokizunak, ekimenak edo informazioak, eta eskarien bidez kekek eta eskaerak ere egin daitezke. Hortaz, eskarien xedeak izaera zabala du; izan ere, eskariak interes orokorreko edozein auturi buruzkoak izan daitezke, autuak kolektiboak nahiz subjektu pribatuak izan. Hala eta guztiz ere, eskariak ordezkari izaera dute, parlamentuko, arlo judizialeko edo administrazioko prozedura formal eta zehatzei dagokienez. Horrexegatik, eskarien esparrua mugatzen da zuhurtziaren edo aukeran ematearen arabera denari, hots, modu berezian araututako prozeduraren objektu ez denari. / Eskariaren jasotzaileak izan daitezke edozein botere publiko edo agintari, konstituzio-botereak eta -organoak barne, bai eta administrazio publiko guztiak ere. Egon daitezkeen jasotzaile guztien eskumen-esparruaren arabera erabakiko da jasotzaileen artetik nor duen gaitasuna eskariez arduratzeko”.

Nahiz eta tradizionalki eskatzeko eskubidea formatu analogikoekin eta aurrez aurrekoekin lotu izan den, 4/2001 Lege Organikoan eskubide hori bitarteko elektronikoen bidez betetzeko aukera aurreikusten da:

*“Eskariak idatziz egingo dira, eta, horretarako, eskariaren kautotasuna egiaztatzeko balio duen edozein bide erabil daiteke, baita izaera elektronikoa dutenak ere. Eskariak nahitaez jasoko dute eskatzailearen nortasuna, naziotasuna, hori baldin badu, jakinarazpenak egiteko tokia edo bidea, xedea eta jasotzailea”.*

Era berean, lege honek eskatzeko eskubidea era indibidualan edo kolektiboan betetzeko aukera ere arautzen du. Horri esker, gobernu kanpoko ekimenek (adibidez [change.org](http://change.org) atariak) Interneten aukerak aprobeztatu dituzte, sarean hiritarrei eskatzeko eskubidea ahalbidetzen dieten espazioak sor daitezten eta beste pertsona batzuek ikus ditzaten, eskaera horiek ezagutu eta horietara gehitzeko.

(104. irudia)

### change.org atari espainiarraren irudia

Herri Administrazioiko goi-mailako karguari zuzendutako hiritarren eskaeraren adibidea








Euskal erakunde publikoen atariei erreparatuz gero, galdera berriak pizten zaizkigu: Nola sartu dute eskatzeko eskubidea beren atarietan? Zein kate gaitu dituzte horretarako? Hiritar batek erakundeko webgunearen bidez egiten duenean eskaera bat, nortzuk dira eskaera hori prozesatzeko arduradunak? Hiritarrek egiten dituzten eskaera-moten jarraipena egin al da? Zerk eta nola monitorizatzen ditu eskaera horiek? Eskarietako gairik ohikoenak argitaratzen al dira?

Bestalde, eta kontuan hartuta partaidetzaren sustatzaile handietako bat eraginaren pertzepzioa dela, hau da, egin denak zerbaiterako balio duela sentitzea, euskal herri administrazioetan ba al dago mekanismorik hiritarren eskari horiek politiken eruedetara helarazteko? Hala gertatzen bada, garrantasunez jokatzeko al da? hau da, hiritarrak bere ekarpena udalaren osoko bilkuran (adibidez) jorratu dela eta balorazio-prozesuan dagoela jakiteko biderik al dauka?

Kontu horiek guztiak hobeto ezagutzeko, galdera zehatz batzuk sartu ziren Arartekoaren hiritarren partaidetzari buruzko galdetegian, Euskadiko herri administrazioei zuzendutakoan. Jarraian, galdetegian parte hartu zuten administrazioen galdera eta erantzunak jaso dira taula honetan:

(20. taula)

**Erakunde publikoen atariak eta e-eskaerarako eskubidea**

	Eusko Jaurlaritzza	Arabako Foru Aldundia	Bizkaiko Foru Aldundia	Bilboko Udala	Irungo Udala
<b>2. ARDATZA.</b> <b>Erakunde publikoen atariak eta e-eskaerarako eskubidea</b>					
Eskaerako eskubidea era individual edo kolektiboan betetzeko bitarteko elektronikoa daude	BAI	BAI	BAI	BAI	BAI
Hiritarren eskaerako eskubidea errazteko kateak gaitu dira	<ul style="list-style-type: none"> <li>Foroak</li> <li>Posta-zerrenda</li> <li>Blogak eta gizarte-sareak</li> <li>Mezuak mugikorretara</li> </ul>	Kexa eta iradokizunen formularioa webgunean	<ul style="list-style-type: none"> <li>Posta-zerrenda</li> <li>Mezuak mugikorretara</li> </ul>	<ul style="list-style-type: none"> <li>Foroak</li> <li>Posta-zerrenda</li> <li>Blogak eta gizarte-sareak</li> </ul>	<ul style="list-style-type: none"> <li>Foroak</li> <li>Posta-zerrenda</li> <li>Blogak eta gizarte-sareak</li> <li>Mezuak mugikorretara</li> </ul>
Kate horiek moderatzeko edo horietan esku hartzeko arduradunak daude	<ul style="list-style-type: none"> <li>Irekia zeharkako katea da. <i>Community manager</i> delako zerbitzua dauka, hiritarren proposamenak dagokion kargu publikoari helarazteko</li> <li>Zuzenean</li> <li>Dagokion organoak betetzen dituen kate sektorialak daude</li> </ul>	Herritarrentzako Arreta Atala	<ul style="list-style-type: none"> <li>Sailen webguneen arduradunak</li> <li>Kazetariak</li> <li>Bestelakoak</li> </ul>	Eskaera guztiak erregistroaren bidez bideratzen dira, bertan eskaerak jasotzen dira, bai aurrez aurre, bai telematikoki ("Zure udalak aditzen dizu" postaren bidez). Eskaerak jasotakoan, erregistro orokorrak dagokion udal-arloa bideratzen ditu, bertan erantzun daitezten	<ul style="list-style-type: none"> <li>Alkatetza Kabinetea</li> <li>Administrariak</li> <li>Hiritarren Partaidetza eta Informazioaren Gizarteko zuzendaria</li> <li>Partaidetza eta Gardentasuneko teknikaria (hurrengo sarrera)</li> </ul>
Arlo tematikoen araberako sailkapena dago, hiritarren ekarpena errazteko	BAI	BAI	BAI	EZ	BAI
Eskaera, iradokizun, kexa eta abarri buruzko informazioa eskuratzeko aukera ematen duen neurketa-sistema bat dago	BAI	BAI	BAI	BAI	BAI
Neurketa-sistemak jasotako informazio-mota ageri da	<ul style="list-style-type: none"> <li>Erantzundako eskaera-kopurua</li> <li>Kontsulta, kexa eta iradokizunen banakapena, xedeko arlo sail edo pertsonaren arabera</li> <li>Jaso zenetik erantzuten emandako denbora</li> <li>Kontsulta ohikoenen portzentajea, kontsulta-motaren arabera sailkatuta</li> <li>Kudeaketaren kalitateari lotutako bestelakoak (erreferentearen erreklamazioak, udal-eskumenetik kanpoko kexak, eta abar)</li> </ul>	<ul style="list-style-type: none"> <li>Erantzundako eskaera-kopurua</li> <li>Kontsulta, kexa eta iradokizunen banakapena, xedeko arlo sail edo pertsonaren arabera</li> </ul>	<ul style="list-style-type: none"> <li>Erantzundako eskaera-kopurua</li> <li>Kontsulta, kexa eta iradokizunen banakapena, xedeko arlo sail edo pertsonaren arabera</li> <li>Jaso zenetik erantzuten emandako denbora</li> </ul>	<ul style="list-style-type: none"> <li>Kontsulta, kexa eta iradokizunen banakapena, xedeko arlo sail edo pertsonaren arabera</li> <li>Hiritarren asetasun-maila</li> <li>Hiritarrek planteatutako arazoaren edo egindako eskaeraren irtenbidea jasotzeko modua</li> <li>Kontsulta ohikoenen portzentajea, kontsulta-motaren arabera sailkatuta</li> </ul>	<ul style="list-style-type: none"> <li>Erantzundako eskaera-kopurua</li> <li>Kontsulta, kexa eta iradokizunen banakapena, xedeko arlo sail edo pertsonaren arabera</li> <li>Jaso zenetik erantzuten emandako denbora</li> <li>Kontsulta ohikoenen portzentajea, kontsulta-motaren arabera sailkatuta</li> <li>Kudeaketaren kalitateari lotutako bestelakoak (erreferentearen erreklamazioak, udal-eskumenetik kanpoko kexak, eta abar)</li> </ul>
Neurketa-sistema horren emaitzak argitaratzen dira	BAI	EZ	BAI	EZ	EZ
Datuak (neurketaren emaitzak) berreraibiltzeko moduko formatu irekietan argitaratzen dira	EZ	EZ	BAI	EZ	EZ
Hiritarrek egindako kontsulta, kexa edo iradokizunen erantzunak komentatu eta baloratzeko aukera dute	BAI	BAI	BAI	BAI	EZ
Hiritarrek egindako eskaerak jarduerapolitika desberdinetan sartzeko prozedura dago	BAI	BAI	BAI	BAI	BAI
Hiritarren eskaera bat organo eskudunak (hartzaileak) baloratu edo/eta onartzen duenean, jakinarazi edo argitaratu egiten da	BAI	EZ	EZ	BAI	BAI

Galdetegiaren bidez eskuratutako informazioan ikus daitekeen bezala, informazioa eman duten administrazio guztiek baieztatu dute hiritarrei eskatzeko eskubidea bermatzeko bitarteko elektronikoak dituztela.

(105. irudia)

### **Irungo Udalaren atariaren irudia (abisu, kexa eta iradokizunen atala)**



Era berean, horiek guztiek monitarizazio-mekanismoak dituzte, hiritarrek egindako eskaeren jarraipena egin ahal izateko, nahiz eta guztiek ez dituzten monitorizazio horren emaitzak argitaratzen. Eusko Jaurlaritzak eta Bizkaiko Foru Aldundiak soilik baieztatzen dute euren erantzunetan praktika hori betetzen dutela.

Administrazioetan eskaera horiek bideratzeari dagokionez, Eusko Jaurlaritzak, bi foru aldundiek eta bi udal partaideek langile batzuk izendatu dituzte eskaera horiek kudeatzeko eta beharrezko prozedurak dituzte eskaerak jardura-politiken ereduera sartzeko. Bestalde, Eusko Jaurlaritzak eta Irun eta Bilboko udalak soilik jakinarazten diete hiritarrei beren eskariak berrikusten eta baloratzen ari direla, edo dagokion administrazioaren politiketan onartu edo “ondorioak izaten” ari direla. Transferentzia-praktika hau bereziki nabarmena da. Izan ere, nahiz eta e-partaidetzan ez den “zer gertatu da nire kontuarekin” delako filosofiarik existitzen, zerbitzu elektronikoaren tramitazioetan bezala, garrantzitsua da pertsonak beren eskaerarekin zer gertatu den, erabilgarria izan den edo ezetsi egin den jakitea. Prozesu hauetako opakotasunak mesfidantza sor lezake hiritarren artean, partaidetza-mekanismo hauek ikusita.

### **11.3.3. Erakunde publikoen atariak eta hiritarren kontsultak**

Hiritarrek eremu publikoan parte har dezaten, hiritarren interes orokorreko gai publikoen erabakietan inplikatzeko dituen eredu bat behar da. Horretarako, baliabideetako bat **hiritarren kontsulta da (kontsulta herrikoia)**. Mekanismo horri esker, hiritarrak beharrezko diagnostikoan, administrazioek beren esku uzten dituzten zerbitzuen balorazioan eta zuzenean beren inguruaren garapenari, beren bizi-kalitateari eta gizarte-ongizateari eragiten dieten arlo edo gai desberdinen erabakietan inplikatzeko dira.

Legegintza-mailan, araudiaren arabera Zuzenbidezko estatu sozial eta demokratiko batek bere herritarrei bermatu behar

die konstituzioko eskubideak betetzen direla, horietako bat gai publikoetan parte hartzeko eskubidea delarik, bai zuzenean, bai aldizkako hauteskundeetan sufragio unibertsal bidez aukeratutako ordezkarien bidez, [Espainiako Konstituzioko 23.1 artikuluan](#) jasotakoaren arabera.

Horrenbestez, Espainiako Konstituzioak erreferenduma aipatzen du hiritarren partaidetzarako adierazpen gisa eta, [149.1.32 artikuluan](#) arabera, Estatuak eskumen eskusiboa dauka erreferendum bidezko **hiritarren kontsultak** deitzeko baimenaren gainean, modalitate desberdinen arauketa lege organiko bati dagokiolarik, zehazki, urtarriaren 18ko 2/1980 Lege Organikoari. Lege horren xedapen gehigarriak bere aplikazio-eremutik kanpo uzten ditu udalek tokiko araubideko legedian xedatutakoaren arabera egiten dituzten hiritarren kontsultak, baimen hori estatuaren ardura izango delarik. Toki Araubidearen Oinarriak arautzen dituen apirilaren 2ko 7/1985 Legeko 71. artikulua, zehazki, 70bis artikuluko 1 eta 3 puntuetan aipatzen denak (IV. kapitulua) honakoa dio:

- Udalek, arau organikoen bidez, tokiko bitzita publikoko gaietan auzotarrek benetako parte-hartzea izan dezaten egokitutako prozedurak eta organoak ezarri eta arautu behar dituzte, bai udalerrri osorako zein barrutietarako, baldin udalerrian halako lurralde-banaketarik badago.
- *Era berean, toki-erakundeek eta, bereziki, udalerriek, **in-formazio eta komunikazioko teknologien erabilera interaktiboa bultzatu behar dute, auzotarren parte-hartzea eta komunikazioa errazteko, agiriak aurkezteko eta administrazioiko izapideak, inkestak eta, hala denean, herri-galdeketak egiteko.***

*Udalerriek, ekonomiarako eta kudeaketarako gaitasun nahikorik ez dutelako, paragrafo honetan ezarritako eginbeharra maila nahikoan bete ezin badute probintziako diputazioek, kabildoek eta uharteetako kontseiluek jardungo dute haiekin lankidetzan.*

Hori ikusita, galdetegian parte hartu duten erakunde publikoek hiritarren kontsultak egin ahal izateko bide elektronikoak dituzten aztertu nahi izan dugu. Era berean, kontsulta horiek aurrez aurre egin ahal izateko aukera duten jakin nahi izan dugu, egun IKTetarako sarbiderik ez duten pertsonengan pentsatuz.






Bestalde, kontsulta hauen eraginkortasunaren gainean pentsatzen jarrita, hainbat galdera piztu zitzaizkigun: Hiritarren kontsultetan bertan jorratutako gaiak jendaurrean azaltzeko neurririk al dago? Hiritarrak interes publikokoa den gai jakin bati buruzko hiritarren kontsultak deitzeko proposatu al dezake? Galdetegi honetan informazioa eman duten euskal herri administrazioek egindako hiritarren kontsultetan zein partaidetza-portzentajetik aurrera hartzen dira kontuan hiritarren ekarpenak? Hiritarren kontsulten emaitzei buruzko datuak argitaratu egiten al dira hiritarren prozesu osoaren informazioa izan dezaten (hasierako egoera – kontsulta – emaitza – hartu beharreko neurriak)?

Taula honetan galdetegian parte hartu duten erakunde publikoek beren webguneko atariaren bidez egindako hiritarren kontsultekin lotutako galderei emandako erantzunak laburbildu dira.



(21. taula)

**Webguneko presentzia: hiritarren kontsulta**

	Eusko Jaurjaritza	Arabako Foru Aldundia	Bizkaiko Foru Aldundia	Bilboko Udala	Irungo Udala
<b>3. ARDATZA.</b> <b>Webguneko presentzia:</b> <b>hiritarren kontsulta</b>					
Hiritarren kontsultak egiteko aukera ematen duten bide elektronikoak daude (Toki Araubidearen Oinarriak arautzen dituen apirilaren 2ko 7/1985 Legea)	BAI	EZ	BAI	BAI	BAI
Hiritarren kontsultak Interneten nahiz Internetetik kanpo egiteko aukera	BAI	EZ	EZ	BAI	BAI
Hiritarren kontsultak antolatu eta kudeatzen dituen arlo edo saila	Sail bakoitzak bere kontsultak antolatzen ditu eta Lehendakariatzatik koordinatzen dira (Gobernu Irekiaren Zuzendaritza)	Sail bakoitzak bere kontsultak antolatzen ditu	Lehendakariatzak informazioa dagokion sailari bidaltzen dio	Sail bakoitzak bere kontsultak antolatzen ditu	Hiritarren Partaidetza eta Informazioaren Gizarteko Arloa
Hiritarren kontsultetan bertan jorrotutako gaiak jendaurrean azaltzeko neurriak daude	BAI	BAI	BAI	BAI	BAI
Hiritarren kontsultako emaitzak kontuan hartzeko partaidetza-portzentajea	Beti hartzen dira kontuan	Aldakorra	Ez da zehazten	Ez dago daturik	Prozesuaren garrantziaren, motaren eta kasuen arabera da
Hiritarrek eskatuta hiritarren kontsultak egiteko aukera dago	BAI	EZ	EZ	BAI	EZ
Hiritarren kontsultetan eskuratutako emaitzak argitaratzen dira	BAI	EZ	EZ	EZ	BAI
Hiritarren kontsultetan eskuratutako emaitzak berrerrabiltzeko moduko formatu irekietan argitaratzen dira	EZ	EZ	EZ	EZ	EZ

Administrazioek emandako erantzunetan ikus daitekeen bezala, Eusko Jaurjaritza galdetegian ebaluatutako alderdi gehien betetzen dituen erakunde publikoa da, hiritarren kontsultetan eskuratutako emaitzak berrerrabiltzeko moduko formatu irekietan argitaratzea baita falta zaion alderdi bakarra.

Aipatzekoa da hiritarren kontsultak egiteko funtsezko hiru alderdi daudela, **sarbide**, **gardentasun** eta **norabide bikoitzarekin** lotuta. Dirudenez, galdetegian datuak eman dituzten administrazio guztiek ez dute ildo beretik jokatzen alderdiotan.

Hori horrela, online bidez nahiz **offline** hiritarren kontsultak egiteko aukera, hiritarren kontsulen emaitzen argitalpena edo hiritarrek hiritarren kontsultetan jorrotu beharreko gaiak proposatzeko aukera dira, besteak beste, egiteko dauden zereginak.

**11.3.4. Open data: datu publikoen irekiera**

Herri administrazioek *open data* ekimen bat hartzen badute, hainbat abantaila sortzen dira, esate baterako **gubernantza-ereduetatik open government** (gobernu irekia) **delakoaren eskematarako trantsizioa**, gardentasunean, partaidetzan eta lankidetzan oinarrituta.

Halaber, **lurraldeko oreka bizkortzen** du, administrazioetan jarduera berritzailea areagotzen dela sustatuz.

Herri administrazio batean *open data* estrategia ezartzearen abantailak zerrendatzerako orduan, jarraian zehazten diren hiru multzo handietan bana ditzakegu:

Gardentasuna, komunikazioa eta partaidetza:

- Kontu-ematea, gobernuaren erantzukizuna eta herritarrekiko hurbiltasuna.
- Prozesu demokratikoen eta hiritarren partaidetzaren hobekuntza, ezagutza-zerbitzu berriei esker.
- Open Government Data (OGD) orokorra izeneko erkidegoko partaidetza.
- Administrazioaren irudiaren hobekuntza.
- Komunikabideetako eragina.

Elkarreragina eta lankidetzatza:

- Barne-komunikazio hobea administrazioen artean eta kanpo-komunikazio hobea herritarrekin eta hornitzaileekin.
- Prozeduren sinplifikazioa eta burokraziaren murrizketa, eraginkortasuna areagotuta.
- Komunikazio-kate arinagoa, berehala dagoena eskuragarri eta uneoro ematen duena informazioa (proaktibotasuna versus eskaera).
- Berrerrabilpenari buruzko legediarekiko eta zuzentarauekiko batasuna.

Lurralde-garapena eta berrikuntza:

- *Open data* eragiten duten paradigma-aldaketa gobernu irekiaren eredura.
- Herritarrentzako zerbitzu eta enpresentzat negozio-eredu berriak sortzea, datu-iturri berri eta baliotsuak izanik.
- Administrazioa berrikuntza dinamizatu eta sustatzen duen agentea da.
- Sortzen ari diren teknologien aplikazio bidezko modernizazioa.
- Ekimen aitzindariak, ekimen pribatuaren aurretik.
- Lurralde-garapenaren estimulazioa, eduki oso berri-tzailedun jardueran oinarritua.

Abantaila horien arabera, Arartekoaren hiritarren partaide-tzari buruzko inkestan parte hartu zuten herri administrazioe-tako zenbat ari dira egun beren datuak irekitzen? Sarbide

(22. taula)

**Open data: datu publikoen irekiera**

bakarrean jartzen ari al dira gizartean esku? Euskal gizarteari galdetu al diote benetan interesgarriak edo beharrezkoak diren datuei buruz? Gizarteak formatu libre eta berrerabilgarrietan eduki nahiko lituzkeen datu-multzoen gaineko eskaerak egin al ditzake?

*Open data* estrategia ezartzea erabaki denean edo datu publikoak liberatzen hasi denean, datu horien erabilera neur-tzen al da? Nork eskatzen ditu datu horiek? Zeintzuk dira eskatutako datuak? Datu publikoak berrerabiltzen laguntzen duten esku-liburuak, jardunbide onen ereduak, pilotuak eta abar argitaratzen al dira?

*Open datari* buruzko adierazle-multzo bat planteatu diegu herri administrazioei eta taula honetan laburbildu dira eman-dako erantzunak:

	Euskal Jaurlaritza	Arabako Foru Aldundia	Bizkaiko Foru Aldundia	Bilboko Udala	Irungo Udala
<b>4. ARDATZA.</b> <b>Open data: datu publikoen irekiera</b>					
Erakundearen atarian interes publikoko datuak daude berrerabilpena errazteko formatu irekietan	BAI	BAI	BAI	BAI	EZ
Aurretzako kontsulta egiten zaie hiritarrei edo elkarrizketak egiten dira iritzi-liderrak edo adituak direnekin, gizartearen datu-beharrizanak identifikatzen saiatzeko	BAI	EZ	BAI	EZ	EZ
Hiritarrei, eduki-enpresei, ikerlariei eta abarri behar duten informazioari buruzko eskaerak formatu ireki eta estandarretan egiteko aukera ematen duen komunikazio-tresnaren bat dago	BAI	EZ	BAI	EZ	EZ
Formatu irekietan eskuragarri dauden datu guztiak eskuratzeko puntu bakarra dago	BAI	EZ	EZ	EZ	BAI
Hiritarrek eta enpresek datuok nola berrerabiltzen duten adierazten duen informazioa jasotzeko kateren bat dago	BAI	EZ	EZ	EZ	EZ
Atarian Administrazioak liberatutako datuak berrerabiltzen laguntzen duten eskuliburuak, adibide praktikoak, erkidegoak, aplikazioak eta abar eskaintzen dira	BAI	EZ	EZ	EZ	EZ
Daturik kontsultatuenak monitorizatzen dira	BAI	EZ	EZ	EZ	BAI
Daturik kontsultatuenen monitorizazioaren datuak argitaratzen dira	BAI	EZ	EZ	EZ	BAI

Orokorrean, datuei jarraiki galdetegia bete zuten ia herri administrazio guztiak hasi dira beren webguneko atarrietan datu publikoak irekitzen.

(106. irudia)

### Open Data Euskadi atariaren irudia (2012ko otsaila)



Aitzitik, neurtutako gainerako alderdiak aztertuz gero, alde nabarmena dago Eusko Jaurlaritzaren eta gainerako Administrazio-mailen (foru aldundiak, udalak) artean, *open data* politiken heldutasun-mailari dagokionez.

Hori horrela, Eusko Jaurlaritzak baietz erantzun du *open data* tari zuzendutako zortzi galderetan, eta, beraz, hainbat alderdi jorratzen dituen planifikazio estrategikoa daukala ikus dezakegu. Alderdi horien artean daude, besteak beste, hiritarrei egindako kontsultak zein informazioa eskatzen den antzemateko, gizarteari behar dituzten datu-multzoak eskatzeko aukera emateko ireki diren kateak, sarbide bakarraren bidez erakutsitako datuak, *open data* gizarteari eta enpresa berrerabil-tzaileei hedatu eta hurbiltzeko lana, baita datu erabilienean, datu horien erabileren eta abarren monitorizazioa ere.

#### 11.3.5. E-partaidetzaren berme juridikoak

Administrazioek hiritarren partaidetzari eta bertan sartutako IKTei (horiek sustatzeko) buruz duten heldutasun-maila aztertzean, ezinbestekoa da jakitea ea gida-plan edo estrategia bat dagoen, helburu estrategiko nagusiak, ildo estrategikoak, lidergo-harremanak eta hiritarren partaidetzaren gainean ezarritako helburuak jorratu eta lortzeko plan eragileak ezartze aldera.

Era berean, jakin nahi izan dugu Arartekoaren hiritarren partaidetzari buruzko galdetegian parte hartu duten erakunde publikoetatik zeintzuek garatu duten edo garatzen ari diren beren mailetan (autonomia erkidegoa, aldundia, udala) hiritarren partaidetzari buruzko berriazko araudi bat eta ea araudi horiek e-partaidetzan arreta berezia jartzen ote duten.

Galdetegian parte hartu duten administrazioek emandako informazioaren arabera, Bilboko Udalak eta Eusko Jaurlaritzak soilik (inkesta erantzun duten administrazioen artean)<sup>58</sup>

<sup>58</sup> Ohar metodologikoa: aipatu beharra dago taula honetan agertzen diren administrazioak galdetegia egiteko gonbita jaso zutenen artean (ikus metodologia) berau erantzun zutenak direla. Txosten honen ikerketa-fasean kontuan hartu diren gainerako administrazioei buruzko informazioa egindako atarrien berrikuspenean kontsultatu daiteke (ikus atarrien berrikuspena).

daukate hiritarren partaidetza sustatzeko agiri estrategikoa edo gida-plan bat. Bestetik, Irungo Udalak jakinarazi duenez, era honetako agiri bat egiten ari da, hiritarren partaidetza-prozesuetan IKTak sartzeari aurreikusten delarik.

Horrenbestez, “2009-2013 IX. Legegintzaldiko Gobernua-ren Plan eta Jarduera esanguratsuen Egutegia” onartu zuen **akordio-proposamenean** honakoa jaso zuen Eusko Jaurlaritzak, besteak beste: **derrigorrezkoa dela sail guztietako gobernu-planetan partaidetza, gardentasuna, jarraipena eta ebaluazioa indartzeko neurriak sartzeari.**

Hala, gobernu-planak egiteko orientazioen agiriak eremu publikoaren esparruan hiritarren partaidetza jorratu eta lantzeko modua aldatzea aurreikusten zuen. Horren arabera, prozesu ez hain puntuala proposatu zen, gobernu-plan handien definiziotik hurbilagoa, egun partaidetzarekin lotutako derrigortasun eta murrizketa formaletatik urrun, eta, lehen azaldu dugun bezala, gobernu-plan guztietan presente dagoena:

*“Herri administrazioaren ustez, pertsonen partaidetza nahikoa antolatuta dago administrazio-jardueran, informazioa, audientzia, eskaera eta proposamena bezalako kateen bidez. Batzuen esanetan, deszentralizazioa eta deskonzentrazioa bezalako tresnek, administrazioaren kudeaketan ohikoak direnek, partaidetzarako bidea ematen dute, organo erabakitzaileek hiritarrenganako duten hurbiltasuna sustatzen duen heinean; hala ere, praktikan, organo gehienak bat datoz interesdunei arreta emateko organoekin, banan-banan ulertuta: erregistroa, informazioa, tramiteen arabera eskatzeko aukera eta abar.*

*Formula horiek, taldearen kudeaketan parte hartzeko ideiera hurbiltzen diren arren, muga formal garrantzitsuak dituzte eta benetako partaidetzatik urruntzen dira (sarritan jardueran interes zuzena egiaztatzen dutenei mugatutako administrazio-prozedura berezietako fase puntualek eskatzen duten formaltasun gisa jotzen dira, sistematikarik eta iritzi publikoaren gaineko oihartzunik gabe)”<sup>59</sup>.*

Araudiari dagokionez, **Eusko Jaurlaritzak ez dauka lege-mailako araurik, hiritarrek Euskadiko gai publikoetan parte hartzeko duten eskubidea aitortu eta arautzen duenik**. Azterketan parte hartu duten eta galdetegia erantzun duten **foru aldundi eta udaletan egoera hori iharde-tsi da**. Aitzitik, txostenean parte hartzera gonbidatu diren erakunde publikoen atarrien banan-banako azterketa egin duten “atarrien berrikuspena” izeneko atalean azaldu denez, horietako batzuk dagoeneko hasi dira hiritarren partaidetzarako kasua, prozesuak eta kateak garatzen dituen (neurri handiagoan edo txikiagoan) araudi-esparrua garatzen. Hona hemen adibidez batzuk:

- Gipuzkoako Foru Aldundiak hiritarren partaidetzari buruzko uztailaren 8ko **1/2010 Foru Araua** dauka.

<sup>59</sup> Sailek gobernu-planak egiteko orientazioak [IV. titulua, 35. orria]: [http://www.lehendakaritza.ejgv.euskadi.net/r48-coor-cont/es/contenidos/informacion/planificacion\\_gobierno\\_vasco/es\\_coordina/adjuntos/manual\\_orientaciones\\_planificacion\\_borrador\\_definitivo.pdf](http://www.lehendakaritza.ejgv.euskadi.net/r48-coor-cont/es/contenidos/informacion/planificacion_gobierno_vasco/es_coordina/adjuntos/manual_orientaciones_planificacion_borrador_definitivo.pdf).






(III). BESTE ETEN DIGITALAK

- Bilboko Udalak [Barrutiak eta Hiritarren Partaidetza Antolatzeko Araudi](#) bat dauka. Baita [Amurrio](#) eta [Vitoria-Gasteizko](#) Udalak ere.
- Donostia-San Sebastianeko Udalak ere [Hiritarren Partaidetzaren Arau Organikoa](#) garatu du.

Errealitate hau, gomendioen kapituluan zehatzago jorratuko den arren, bereziki landu beharra dago, udalak bezalako erakundeak hiritarrendik hurbil daudela kontuan hartuta. Horrenbestez, beren auzokideek partaidetza-tresnak eta -prozedurak hobetzeko lanean inplikatu behar dute, hiritarren partaidetza arautzen duten araudiak onetsiz.

(23. taula)

**E-partaidetzaren politiken bermeak**

	Eusko Jaurlaritzza	Arabako Foru Aldundia	Bizkaiko Foru Aldundia	Bilboko Udala	Irungo Udala
<b>5. ARDATZA.</b> Berme politikoak e-partaidetzan					
Hiritarren partaidetza sustatzeko gida-plan edo agiri estratergiako bat dago	BAI – Gobernu Kontseiluak hiritarren partaidetza gobernuaren plan guztietan sartzea erabaki zuen IX. Legegintzaldirako – Gobernu-planak egiteko orientazioaren agirian hiritarren partaidetzarako prozesuak sartzeko moduak aurreikusten ziren	EZ	EZ	BAI “Bilbo eta partaidetza” agiria. Bertan, Bilboko Udalaren hurbiltasunerako mekanismo, espazio eta tresna desberdinak batu eta sistematizatzen dira	EZ (Egite-prozesuan)
Gida-plan edo agiri estratergiako horretan IKTak sartuta daude hiritarren partaidetza-prozesuetan	BAI	EZ	Ez dago daturik	Ez dago daturik	(Egite-prozesuan)
Hiritarren partaidetzari buruzko araudia dago	BAI – Legearen aurreproiektua (legegintzaldia aldatzean ez onartua) – Ingurumenaren arloan, Euskal Autonomia Erkidegoak Ingurumenari buruzko maiatzaren 27ko 3/1998 Legean arautu du gai hau. Arau honen 3. artikulua dio pertsona guztiek eskubidea dutela zuzenean edo ingurumen-babesetako elkarte bidez ingurumena babesteko erabakietan parte hartzeko. Halaber, ingurumenaren legedian aurreikusitako betearazpena eskatzeko ekintza publikoa sartzan da <sup>60</sup>	EZ	Ez dago daturik	BAI	EZ
Araudi horretan IKTak sartuta daude hiritarren partaidetza-prozesuetan	BAI	EZ	Ez dago daturik	Ez dago daturik	EZ

<sup>60</sup> Arau honen arabera, publiko interesdunak sailkatutako jardura-lizentzien tramitazioan, ingurumenaren eraginaren ebaluazioetan eta ingurumenaren eragin urria duten jardueretan parte har dezake, informazio publikorako tramite bat irekita (salbuetsitako jardueri buruzko 165/1999 Dekretuaren arabera). Legeari jarraiki, gainera, bi jardura-motetan nahitaezkoa da informazio publikoko tramitea egotea. Plan eta programei dagokienez, Eusko Jaurlaritzaren uztailaren 22ko 183/2003 Dekretuak ingurumenaren eraginaren baterako ebaluazio-prozedura arautzen du. Xedapen honetan era laburbilduan aipatzen da publiko interesdunaren partaidetza, ingurumenaren eraginari buruzko behin betiko txostenean interesdunek audientzia eta informazio publikoko tramiteetan aurkeztutako ingurumen-oharrak eta alegazioak sartu baitira.

Hau da, ingurumenaren gaineko euskal arauan, Aarhus Hitzarmenaren benetako ingurumen-partaidetza irekiaren zuzentarauak edo aipatutako erkidego-zuzentarauak baino lehenagokoa, partaidetzaren printzipioa sartu da ingurumena kontrolatzeko erabakietan eta audientzia eta informazio publikorako prozedura-tramite orokorretan inkardintatu ditu.

### 11.3.6. IKT gaitasunak herri administrazioetan

Partaidetza jarduera publikoa orientatu behar duen printzipio gisa sartzeari ez da gauza berria, ez eta Interneten eskutik datorren zerbait edo e-partaidetza gisa landu nahi izan den zerbait ere. Berez, 1978ko Espainiako Konstituzioko atariko tituluak (9.2 29 artikulua) eta Euskal Herriko Autonomia Estatutuak (9.2 artikulua) hiritarren partaidetza sartzan dute gizar-teak eremu sozial eta publikoan duen jardueraren oinarritzko printzipio gisa.

Eremu publikoan parte hartzeko, administrazioek eta hiritarrek arauak partekatu behar dituzte, gauza bera ulertu behar dute “partaidetzaren” kontzeptuan eta, batez ere, batzuk eta besteak eskatu, eman eta eskaintzeko prest daudenaren eta horretarako moduen artean batasun bat egon beharra dago. Horrez gain IKT tresnen erabilera gogoratzen badugu, harreman horietan azpiegitura, zerbitzu, teknologietarako sarbide






eta abarri buruzko beharrezko baldintza guztiak betetzen direla bermatu behar da. Aurreko kapituluetan aztertu ditugu hiritarren ahalduzko digitalaren maila, Interneten bidez administrazioekin elkarrekintzan aritzeko moduak, beren pertzepzioak eta abar, baina zer gertatzen da “leihatilaren” beste aldean?

IKT herri administrazioetan sartzeko prozesua ezarri nahi bada, gobernantza-eredu irekietara migratzeko asmoz, gardentasun handiagoarekin, hiritarrekiko “elkarrizketak” ezartzen, entzuten... administrazioetan kultura berri bat behar da, antolaketa berri bat, baina baita abilezia digital berriak ere. Herri administrazioetako langileak IKT tresnen erabileraren gaineko prestakuntza jasotzen ari al dira? Zein gaitasun-mota sartu dira prestakuntza-ekintza horietan?

Gai hau gehiago sakontzeko asmoz, Arartekoaren hiritarren partaidetzaren galdetegian honako galderak egin zitzaizkien tokiko erakunde partaideei:

(24. taula)

#### IKT gaitasunak herri administrazioetan

	Euskal Jaurjaritza	Arabako Foru Aldundia	Bizkaiko Foru Aldundia	Bilboko Udala	Irungo Udala
<b>6. ARDATZA.</b> <b>IKT gaitasunak herri administrazioetan</b>					
Funtzio publikoari buruzko araudian lanpostuen zerrendan IKTen gainean eskatutako baldintzak agertzen dira	BAI	EZ	EZ	BAI	BAI
IKT gaitasunetan berariazko prestakuntza baliozkotzeko egiaztatutako prestakuntza eskatzen da	BAI	Ez dago daturik	EZ	BAI	BAI
Ziurtagiria eskatzen da eta gaitasun digitalak aurreikusten dira	<ul style="list-style-type: none"> <li>– Lanpostu bakoitzari dagokion IT Txartela. Gaiaren gaineko lanpostu espezializatueta, dagozkien titulazioak</li> <li>– Beste kasuetan, IVAP-HAEEK garatzen dituen berariazko ikastaroak gaitasun-profil bakoitzerako</li> <li>– Gaitasun digitalak anitzak dira. Administrazioen eta administrari-laguntzaileen profiletan bi zeregin daude: datu-baseak betetzea eta informazio-sistemak mantentzea. Teknikarien kasuan zereginak askotarikoak dira: atari eta webguneak kudeatzea; multimedia argitalpena, gizarte-sareak eta komunikabideak Interneten dinamizatzea; Administrazio elektronikoaren araubide juridikoa menperatzea; sinadura elektronikoa...</li> </ul>	Ez dago daturik	Ez dago daturik	Lanpostu bakoitzaren deskribapenean zehazten dira	Administrazioko lanpostuetarako IT txartelen egiaztapen desberdinak ezartzen dira

Galdetegi hau erantzun duten udalek eta Eusko Jaurlaritzak baieztatu dutenez, funtzio publikoari buruzko araudian lanpostuetako IKTen gainean eskatutako baldintzak zerrendatzen dira, IKT gaitasunen berariazko prestakuntza baliozkotzeko prestakuntza egiaztatua ere eskatu ahal. Ziurtagiri edo egiaztapen hori, Eusko Jaurlaritzaren eta Irungo Udaren kasuan, IT Txartela<sup>61</sup> da, prestakuntza-maila desberdinak ahalbidetzen dituen sistema, alegia. Administrazio lan-maila bakoitzean IT txartel bat eskatzen da, lanpostuaren baldintzen arabera.

(107. irudia)

### IT Txartela atariaren irudia (2012ko otsaila)



Foru Aldundiei dagokienez, IT Txartela webguneak (kontsulta: 2012ko martxoa) dio Araba eta Bizkaiko aldundiek (Arartekoaren hiritarren partaidetzari buruzko galdetegian hala adierazi ez duten arren) ere eskatzen dutela IT Txartela lanpostu publiko jakin batzuetan sartzeko eta beren langileei emandako prestakuntza ziurtatzeko.

Egiaztapen horretan (IT Txartelaren webgunea, 2012ko martxoan kontsultatua) sartzan dira sistema eragileen, ofimatika-paketen, Interneten, posta elektronikoen eta “besteak” kategoriaren gaineko prestakuntza. Azken horretan egongo lirateke, besteak beste, MS Project softwarea, java programazioa, irisgarritasuna, mekanografia eta abar.

Eskaintza honetan beste gaitasun batzuen gaineko ziurtagiri-falta nabaritu da, esate baterako: web 2.0 komunikazioa, erkidegoen kudeaketa, sarearen erabilera segurua, inguru lankideak eta abar. Hau da, hiritarrekiko harremanak hobetzea eta IKTen bidezko partaidetza sustatzea erabaki duten administrazioek aurkitzen dituzten edo aurkituko dituzten beharrian berriekin bat datozen tresnak behar dira.

<sup>61</sup> IT txartela: informazioaren teknologien gaineko oinarritzko gaitasunak ziurtatzeko sistema, pertsona batek tresna informatikoak eta Internet erabiltzeko dituen ezagutzak egiaztatzen dituena. Herri administrazioek eta enpresa pribatuek IT txartela eskatzen dute lanpostu jakin batzuetan sartzeko. Hori horrela, SPRI S.A. eta HAEEK (Herri Ardularitzaren Euskal Erakundeak) ziurtagiri hori erabiltzen dute funtzionarioek egindako ofimatika-ikastaroak baloratzeko barne-tresna gisa.

### 11.3.7. Irisgarritasuna, kate-aniztasuna, m-government herri administrazioetan

Irisgarritasunaren alorrean azken urteotan garatutako araudiaren helburua zera da, **webgune publikoen eta bertako zerbitzu, informazio eta abarren irisgarritasuna bermatzea**, pertsona guztien berdintasuna ziurtatuz, ezgaitasunen bat dutenengan arreata berezia jarrita.

Hiritarrek zerbitzu publikoetan sarbide elektronikoa izateari buruzko 11/2007 Legeak honako dio, hitzez hitz, hiritarrek zerbitzu publikoetarako duten sarbideari buruz: “Egoitza elektronikoetan informazioak, zerbitzuak eta transakzioak argitaratzen direnean, irisgarritasun- eta erabilgarritasun-printzipioak begiratu beharko dira, horri buruz ezarritako arauekin bat etorriz; gainera, estandar irekiak baliatuko dira, eta, hala balegokio, baita herritarren artean erabilera hedatua duten beste batzuk ere”.

Era berean, Informazioaren gizartea bultzatzeko neurriei buruzko 56/2007 Legeak honakoa dio: “2008ko abenduaren 31tik aurrera, herri administrazioetako Internet-orriek gutxienez orokorrean aitortutako eduki-irisgarritasun irizpideen bitarteko maila beteko dute. Salbuespen kasuetan, derrigor-tasun hori ezingo da aplikatu funtzionaltasun edo zerbitzu bategen ez daukanean irisgarritasuna ahalbidetzen duen irtenbide teknologikorik.”

Ezgaitasunak dituzten pertsonak informazioaren gizartearekin eta gizarte-komunikabideekin lotutako teknologia, produktu eta zerbitzuetara sartzeko oinarritzko baldintzei buruzko araudia onesten duen azaroaren 12ko 1494/2007 Errege Dekretuan indartutako orientazioak dira horiek.

Bestalde, **gailu mugikorak gero eta ohikoagoak dira hiritarrek herri administrazioetako eduki eta zerbitzuekin duten harremanetan**. Horren harira, kontuan hartuta egun webgune mugikorra bere goren unean dagoela eta hazten jarraituko duela, hiritarrek informazio eta zerbitzuetarako sarbidea dutela bermatu behar da, hau da, beren gailu mugikoretako Interneten bidez eremu publikoetan parte hartu eta komunikatzeko aukera dutela bermatu beharra dago.






Hori horrela, hiritarrek zerbitzu publikoetan sarbide elektronikoa izateari buruzko 11/2007 Legeak administrazioei dei egiten die, “*hiritarren eta enpresen esku jartzeko zerbitzu eta informazioa, bitarteko anitzen bidez*”.

**Irisgarritasuna eta kate-aniztasuna**, beraz, lehenasunezko eta nahitaezko bideak dira, ez soilik herri administrazioak hiritarregana hurbiltzeko, baizik eta baita jorratu ezean eremu publikorako sarbide-eten digitala sortuko luketen zenbait oztupo arintzeko.

Hori dela eta, Arartekoaren hiritarren partaidetzari buruzko galdetegiaren bidez, jarraian laburbildu diren galderak (eta erantzunak) planteatu genizkien herri administrazioei:

(25. taula)

**Irisgarritasuna, kate-aniztasuna, m-government herri administrazioetan**

	Eusko Jaurlaritzaren	Arabako Foru Aldundia	Bizkaiko Foru Aldundia	Bilboko Udala	Irungo Udala
<b>7. ARDATZA. Irisgarritasuna, kate-aniztasuna, m-government herri administrazioetan</b>					
Hiritarren arreta bermatzen da, aurrez aurrekoak diren eta ez diren kate desberdinak baitaude gizarte-ongizatearen oinarritzko arlo nagusiekin lotutako zerbitzuetan	BAI	Partzialki, guztietan ez	BAI	BAI	BAI
Bat-bateko arretako bi kate hauek (aurrez aurrekoa + bestelakoa) dituzten zerbitzuak	Hiritarrei arreta emateko zerbitzua: <b>Zuzenean</b> , EAEko Administrazio Orokor guztiaren zeharkakoa, bere zerbitzuak ematen dituena hiru kateen bidez: aurrez aurre, telefonoz eta telematikoki	– Informazio orokorra – Laguntza-alderdiak	Era guztietako zerbitzuak	Udal-arlo guztietako arreta eta informaziorako zerbitzuak zentralizatuta daude, honako kateen bidez: – Aurrez aurre: hiritarren arreta-bulegoak – Telefonoz: 010 – Telematikoki: <a href="mailto:010@ayto.bilbao.net">010@ayto.bilbao.net</a>	Udal-arlo guztietako arreta eta informaziorako zerbitzuak zentralizatuta daude, honako kateen bidez: – Aurrez aurre: Hiritarren Arreta Zerbitzua (HAZ) – Telefonoz: 010 – Telematikoki: <a href="mailto:SCH">SCH</a>
Egoitza elektronikoak eta atarrietako edukiek, informazioak eta zerbitzuak bete egiten dute irisgarritasunaren araudia	BAI	Partzialki, guztietan ez. Honakoei betetzen dute: – Webguneko edukiek – Egoitza elektronikoak	EZ <sup>62</sup>	BAI – Egoitza elektronikoak – Informazioa – Edukiak	BAI – Egoitza elektronikoak – AAA WAI – Gainerako zerbitzuak – AA WAI
Ezgaitasun edo dibertsitate funtzional fisiko edo sentsoriala duten administrazio langileentzat irisgarriak eta erabilerrazak diren eta administrazio-lanak egiteko balio duten informazioaren tratamendu eta kudeaketarako ofimatikako barne-tresnak daude	BAI Zerbitzu medikoak zehazten ditu estali behar diren beharrezan, bai euskarri fisikoan (saguak, teklatuak, pantailak...), bai IKT tresna egokitueta. Lanpostuan sartzeko beharrezkotzat jotzen dena ematen da	EZ	BAI	BAI	EZ
Ezgaitasun edo dibertsitate funtzionala duten pertsonen zuzendutako tresna egokituak buruzko prestakuntza-ekintzak egiten dira	BAI	EZ	BAI	Ez dago daturik	EZ
Laneko IKT tresnak ezgaitasun edo dibertsitate funtzionalen bat duten administrazio langileentzat egokitzeko modua zehazten duten barne-prozedurak eta tresna eskuragarrien katalogoa daude	BAI Prozeduran sartuta dago	Prozeduran sartu gabe	Ez daki / Ez du erantzun	Prozeduran sartu gabe	Prozeduran sartu gabe
Egoitza elektronikoan gailu mugikorretatik tramite osoak egiteko aukera dago	Partzialki, guztietan ez	BAI	EZ	Partzialki, guztietan ez	Partzialki, guztietan ez
Mugikorretik zerbitzu elektronikoetan ziurtagiri digitalekin elektronikoki sinatzeko eta egiaztatzeko aukera dago	EZ	BAI	BAI	Sin datos	EZ

<sup>62</sup> Oharra: Bizkaiko Foru Aldundiaren webguneari irisgarritasunari buruzko aitorpenak honakoa dio, hitzez hitz: “Gaur egun, Bizkaiko Foru Aldundiaren zenbait webgune ez dira erabilerrazak, gehienbat webgune guztiaren konplexutasun teknikoagatik edo egun oraindik diren zailtasun teknologikoengatik, baina pixkanaka bizkaia.net-eko web gune guztiak erabilerrazak izatea lortzea da helburua. Zehazkiago, [www.bizkaia.net](http://www.bizkaia.net) web gune erabilerraztasuna betetzen du, Web 1.0 Eduki erabilerrazaren Jarraibideen (A Bikoitza maila) eta XHTML 1.0ren gomendioen arabera, eta bereziki azpimarratzen da egitura, aurkezpena, edukia eta funtzionaltasuna bereiztea. [www.bizkaia.net](http://www.bizkaia.net) web gune pean dauden orriak aplikatu dakieke erabilerraztasuna betetze hori, leihor berriak irekitzen diren esteketara garamatzaten orriak izan ezik”.

	Eusko Jauriritza	Arabako Foru Aldundia	Bizkaiko Foru Aldundia	Bilboko Udala	Irungo Udala
<p><b>7. ARDATZA. Irisgarritasuna, kate-aniztasuna, m-government herri administrazioetan</b></p> 					
<p>Gailu mugikorretatik erabiltzeko prest dauden zerbitzu elektronikoak daude</p> <ul style="list-style-type: none"> <li>- Hiriko mugikortasunari buruzko informazioa</li> <li>- Hiritarrei administrazio-informazioa emateko zerbitzuak</li> <li>- Turismo, kultura eta aisiari buruzko informazioa</li> <li>- Osasunari buruzko informazioa</li> <li>- Administrazioari ordaintzeko zerbitzuak</li> <li>- Talde kaltetuentzako laguntza</li> </ul>	<ul style="list-style-type: none"> <li>- Hiritarrei administrazio-informazioa emateko zerbitzuak</li> <li>- Turismo, kultura eta aisiari buruzko informazioa</li> <li>- Talde kaltetuentzako laguntza</li> </ul>	<ul style="list-style-type: none"> <li>- Hiriko mugikortasunari buruzko informazioa</li> <li>- Hiritarrei administrazio-informazioa emateko zerbitzuak</li> <li>- Turismo, kultura eta aisiari buruzko informazioa</li> <li>- Administrazioari ordaintzeko zerbitzuak</li> <li>- Talde kaltetuentzako laguntza</li> </ul>	<ul style="list-style-type: none"> <li>- Hiriko mugikortasunari buruzko informazioa</li> <li>- Hiritarrei administrazio-informazioa emateko zerbitzuak</li> <li>- Turismo, kultura eta aisiari buruzko informazioa</li> </ul>	<ul style="list-style-type: none"> <li>- Hiriko mugikortasunari buruzko informazioa</li> <li>- Hiritarrei administrazio-informazioa emateko zerbitzuak</li> <li>- Turismo, kultura eta aisiari buruzko informazioa</li> <li>- Osasunari buruzko informazioa</li> <li>- Administrazioari ordaintzeko zerbitzuak</li> <li>- Talde kaltetuentzako laguntza</li> </ul>	

Irisgarritasunaren eta kate-aniztasunaren multzo honetako galdera eta erantzunen laborpen-taulan ikus daitekeen bezala, galdetegi erantzun duten administrazio guztiek betetzen dute hiritarren arretaren bermea gizarte-ongizateko oinarriko arlo nagusiekin lotutako zerbitzuei dagokionez, aurrez aurrekoak diren (hiritarrentzako arreta) eta ez diren (arreta telefonikoa eta telematikoa) kateen bidez. Hori ezinbestekoa da, hiritarren herri administrazioetan eskainitako zerbitzuak eskuratzeko estaldura handiagoa bermatzen baita (sarbi-deak handitzen direlarik), zerbitzu horiei malgutasun handiagoa, arreta pertsonalizatua, denbora-murrizketak, erosotasun gehiago eta hurbiltasuna eskainiz.

Atarien eta tramite elektronikoen mobilizazioari esker, ahalik eta gehien aprobetxatzen da gailu mugikorren ahalmena euskal biztanleengan sartzeko mailari dagokionez, betiere zerbitzu eta eduki horietarako irisgarritasuna eta erabilerratasuna bezalako printzipioak bermatzen badira. Ildo horretatik, erakunde publikoak zerbitzu elektronikoen mobilizazioa jorratzen ari dira eta ia guztiek aitortu dute beren egoitza elektronikoa gailu mugikorretatik oso-osorik egin daitezkeen tramiteak dauzkatela. Aitzitik, horien heldutasun-maila oraindik ez dago oso aurreratua, eskuragarritasun partziala baita (ez dago zerbitzu guztietan) eta kasu guztietan ez dute gailu mugikorretatik ziurtagiri digital bidez elektronikoki sinatu eta egiztatzeko aukera ematen.

Irisgarritasunari dagokionez, galdetegian parte hartu duten eta beren erantzunak bidali dizkiguten euskal herri administrazioetako atari guztiek (egoitza elektronikoa, edukiak eta abar) irisgarritasunaren gaineko indarreko araudia betetzen ote duten jakin nahi izan dugu. Emandako datuen arabera, oraindik gai honetan lan egin beharra dago. Hori horrela, Araba eta Bizkaiko foru aldundiek, adibidez, araudia partzialki betetzen dutela adierazi dute. Irisgarritasuna erakunde publikoen webgune guztietara hedatzea garrantzitsua da, horrela erabiltzaile guztiek nabigatu ahalko baitute edukietan zehar zailtasunik gabe, ezgaitasun fisiko edo teknikoak gorabehera.

Hala ere, beste arlo batzuk ere ikertu nahi izan ditugu, kasu honetan administrazioaren barrukoak. Zer gertatzen da herri administrazioan lanean ari den pertsona batek dibertsitate funtzional bat duenean? Nola jorratzen dira egoera horiek? Era aiposean egokitzen direla bermatzeko bitarteko eta prozedurak al daude? Eusko Jauriritzak baieztatu duenez, zerbitzu medikoa da estali beharreko beharrianak zehazten dituen, bai euskarri fisikoan (saguak eta teklatu egokituak, pantailak eta abar), bai IKT tresna egokitueta, lanpostura sartzen dela bermatuko duen banan-banako tratamendua (kasuaren kasuaren arabera) emanez. Ekintza horrez gainera, era honetako tresna egokitueta erabilerari buruzko prestakuntza-ekintzak egiten dira, kasu horietan nola jokatu behar den zehazten duen barne-prozedurari jarraiki. Baina galdetegi honetan parte hartu duten euskal erakunde publiko guztiek ez dute modu berean jokatzeko. Hori horrela, erakunde batek ere ez du aitortu pausu horiek guztiak arautzen dituen barne-prozedurarik duenik eta administrazio guztiek ez dituzte tresna egokituak edo ez dituzte egiten dibertsitate funtzionaldun pertsonen zuzendutako berariazko prestakuntza-ekintzak, beren beharrianetara egokitutako berariazko tresnen erabilerari dagokionez.

### 11.3.8. E-administrazioa (I): eskuragarritasuna, asetasuna eta hobekuntza

Hiritarren eta herri administrazioen arteko harreman elektronikorako modurik ohikoena da e-administrazioa. IKTak sartzean, eskainitako zerbitzuak eta erabilitako kateak geroz eta anitzagoak eta helduagoak dira Administrazio elektronikoa garapenean (gubernua, aldundiak eta udalak), nahiz eta oraindik abiadura desberdinak dauden administrazio-maila desberdinen artean.

Normalean *online* zerbitzu publikoen eskuragarritasuna, konplexutasun-maila, zerbitzurik eskatuena (bilketakoak, laguntzakoak, eta abar) edo Interneten tramiteak egiteko








administrazioarekin elkarrekintzan aritzen diren Internet-erabiltzaileen portzentajea neurtzeko azterketak egiten dira. Kasu honetan harago joan nahi izan dugu, eta administrazioek euren buruaren ebaluazioa egiten duten jakin, e-administrazioaren heldutasun-mailaren ebaluazioa monitorizatu

eta zerbitzu elektronikoren erabiltzaileen balorazio eta ekarpenak jasoz.

Jarraian, Arartekoaren hiritarren partaidetzari buruzko galde-egian erakunde publikoei planteatutako galderak eta horien erantzunak jaso dira:

(26. taula)

### E-administrazioa: eskuragarritasuna, asetsuna eta hobekuntza

	Eusko Jauriritza	Arabako Foru Aldundia	Bizkaiko Foru Aldundia	Bilboko Udala	Irungo Udala
<b>8. ARDATZA</b> <b>E-administrazioa: eskuragarritasuna, asetsuna eta hobekuntza</b>					
Zentro publikoetan egoitza elektronikora sartzeko sarbideak daude	BAI	BAI	BAI	BAI	BAI
E-administrazioaren heldutasun-mailari buruzko ikerketa edo ebaluazioak egiten dira (zerbitzuen eskuragarritasuna, konplexutasun-maila, erabilera eta abar)	BAI	BAI	EZ	BAI	BAI
Kanpo-erakundeek egiten dituzte edo barruan egiten al dira azterketa horiek?	Barruan egiten dira	Barruan egiten dira	—	Kanpo-erakundeek egiten dituzte	Barruan egiten dira
Azterketa edo ebaluazio horien emaitzak argitaratzen dira	EZ	EZ	—	BAI	BAI
Datuak berrerebilpena errazten duten formatu irekietan argitaratzen dira	EZ	EZ	—	EZ	EZ
Zerbitzuak erabiltzean erabiltzaileen balorazioa jasotzen da, erabilaren erraztasuna, tramitea egiteko beharrezko denbora, zerbitzua hobetzeko modua eta abarri buruz	EZ	BAI	Ez dago daturik	BAI	EZ
Erabiltzaileek Interneten behar edo eskatzen dituzten zerbitzu publikoen motari buruzko iritziak jasotzen dira	EZ	BAI	EZ	BAI	BAI

Inketa honetan parte hartu duten administrazioen % 100ek baieztatu du bere zentro publikoetan hiritarrak egoitza elektronikora sartzeko bideak daudela edo eskainitako zerbitzu elektronikoa tramitzeko atari instituzionala eskuragarri dagoela. Datu hori ezinbestekoa da tramitea bide elektronikoen bitartez egiteko ezagutza edo ekipamendu nahikoa ez duten pertsonen sarbidea bermatzeko.

E-administrazioaren garapen- edo bilakaera-mailaren monitorizazioari dagokionez, parte hartu duten ia erakunde publiko guztiek adierazi dute ikerketa edo ebaluazioak egin dituztela (webgunearen eskuragarritasun-maila, konplexutasun-maila, zerbitzuen erabilera-maila, eta abar), gehienetan erakundearen barruan.

Bestetik, kasu guztietan datu horiek ez dira argitaratu, eta hala egin denean, ez dira kasu batean ere erabili gero berrerebilpena errazten duten formatu irekiak.

Tramitazio elektronikoen izandako esperientziari buruzko herritarren iritzia, antzemandako zailtasunak eta eskatzen dituzten zerbitzu berriak kontsultatzeko aukera apurka-apurka finkatzen ari da administrazioetan. Bestalde, nabarmena da Eusko Jauriritzak ez duela bere informazio-eskaera edo *feedback* hori sartu tramiteetan edo kontsultaren batean (hiritarren partaidetzari buruzko galdetegian aitortu duten bezala). Hala ere, **Eusko Jauriritzaren Egoitza Elektronikoak** kexa eta iradokizunen postontzi bat dauka, erabiltzaileek beren iritziak bidaltzeko. Bertan, beren datu pertsonalak jarri ahalko dituzte, administrazioaren erantzuna jasotzeko asmoz.

(108. irudia)

### Eusko Jauriritzaren Egoitza Elektronikoaren irudia (2012ko martxo)



Gomendioen kapituluaren alderdi hau sakonduko dugun arren, gogoratu beharra dago herritarren (zerbitzu-erabiltzaileen) *feedback* eta diseinu-faseetako partaidetza (tramiteen erabilerraztasuna bermatzeko) Europa mailan gobernu elektronikoa garatzeko proposamen nagusien parte direla<sup>63</sup>.

<sup>63</sup> The European eGovernment Action Plan 2011-2015: [http://ec.europa.eu/information\\_society/activities/egovernment/action\\_plan\\_2011\\_2015/docs/action\\_plan\\_en\\_act\\_part1\\_v2.pdf](http://ec.europa.eu/information_society/activities/egovernment/action_plan_2011_2015/docs/action_plan_en_act_part1_v2.pdf).

### 11.3.9. E-administrazioa (II): herri administrazioen pertzepzioa oztupo eta eraginaren gainean

Eskuragarritasun, asetasun eta hobekuntzari buruzko aurreko azterketaz gain, herri administrazioek e-administrazioaren garapenean zein oztupo ikusten dituzten eta beren lorpen edo eragin nagusiak zeintzuk diren sakondu beharra dago.

Parte hartu duten erakunde publikoei 8 baieztapen planteatu dizkiegu oztupo posibleei buruz eta beste 8 erreferente eragin edo lorpenen gainean. Era berean, 1etik 5erako balorazioa egiteko eskatu diegu (1 bat ere ados eta 5 guztiz ados).

Jarraian azaldu dira administrazioen erantzunen portzentajeak, erantzunik esanguratsuenak nabarmendu direlarik:

(27. taula)

#### Administrazio elektronikoa ezartzeko oztupoak

OZTOPOAK <sup>64</sup>	Guztiz kontra	Kontra	Ez kontra, ez ados	Ados	Guztiz ados	Ez du erantzun
Hardwarea birziklatzeko errekurso-falta	% 0	% 20	% 20	% 20	% 20	% 20
Softwarea erosteko errekurso-falta	% 0	% 20	% 20	% 20	% 40	% 0
Prestakuntzadun teknikari-falta	% 20	% 0	% 40	% 40	—	% 0
Langileen aldetik aldaketarako erresistentzia	% 0	% 0	% 40	% 40	% 20	% 0
Arlo eta sailen arteko lankidetzeta-falta	% 20	% 0	% 40	% 40	0	% 0
Prozedurak berrikusi eta bideratzeko beharrezakoa	% 20	% 0	% 40	% 20	% 20	% 0
Herritarren eta enpresen aldetik eskari-falta	% 20	% 0	% 20	% 20	% 40	% 0
Babes politikoa falta	% 20	% 20	% 40	% 0	% 20	% 0

#### Daturik esanguratsuenak:

- Inkesta egin duten erakunde publikoen % 60 ados edo guztiz ados dago **software nahikoa erosteko errekurso-falta** administrazioa modernizatzeko oztupoa dela dioen esaldiarekin.
- Inkesta egin duten herri administrazioen % 60k (ados + guztiz ados) baieztatu du **administrazioko langileen aldaketarako erresistentzia** administrazio elektronikoa garatzeko oztupoa dela.
- Herri administrazioen % 60k (ados + guztiz ados) uste du **hiritarren edota enpresen eskari-falta** oztupoa dela euskal administrazioa modernizatzeko orduan.

<sup>64</sup> Ohar metodologikoa: Eusko Jaurlaritzaren, Araba eta Bizkaiko foru aldundien eta Bilbo eta Irungo udalen erantzunetan oinarrituta jaso dira portzentajeak.

(28. taula)

#### Administrazio elektronikoaren eragina

ERAGINAK <sup>65</sup>	Guztiz kontra	Kontra	Ez kontra, ez ados	Ados	Guztiz ados	Ez du erantzun
Administrazioak hiritarrek duen hurbiltasuna eta komunikazioa hobetu egin dira	% 0	% 0	% 0	% 40	% 60	% 0
Administrazioak sustatu egin du prozesuen eta lan-errutinen sinplifikazioa	% 0	% 0	% 0	% 60	% 40	% 0
Administrazioko kostuak murrizten lagundu du	% 20	% 0	% 0	% 60	% 20	% 0
Administrazio-prozesuetan eraginkortasuna areagotzea sustatu du	% 0	% 0	% 20	% 20	% 60	% 0
Zerbitzuek hiritarrei eta enpresei erantzuteko denbora murriztu du	% 0	% 0	% 0	% 20	8% 0	% 0
Aldaketak eragin ditu Administrazioko langileen dituzten roletan	% 0	% 0	% 20	% 60	% 20	% 0
Administrazioko langileek beren lanak egitean erabiltzen duten denbora murriztea ahalbidetu du	% 20	% 0	% 0	% 40	% 40	% 0
Herri administrazioetako arlo eta sail desberdinen arteko komunikazioa eta lankidetzeta hobetu du	% 0	% 20	% 20	% 20	% 40	% 0

#### Daturik esanguratsuenak:

- Inkesta egin duten erakunde publikoen % 100 ados edo guztiz ados dago orain arte euskal herri administrazioetan egindako aurrerapenen bidez **administrazioaren eta hiritarren hurbiltasuna eta komunikazioa hobetu dutela** dioen esaldiarekin.
- Herri administrazioen % 100 ados edo guztiz ados dago administrazioen modernizazioak **prozesuen eta barneko lan-errutinen sinplifikazioa sustatzen** lagundu duela dioen baieztapenarekin.
- Inkesta egin duten erakunde publikoen % 100 ados edo oso ados dago orain arte herri administrazioetan egindako aurrerapenei esker hiritar eta enpresei erantzuna emateko zerbitzuen **denbora murriztu** dela dioen esaldiarekin.

### 11.3.10. Txosten berezian parte hartu duten herri administrazioen atarien berrikuspena

Txosten bereziaren ikerketa-fasera gonbidatu diren herri administrazioen atariak berrikusi eta aztertu dira, administrazio horiek emandako erantzunak galdetegien bidez osatzeko,

<sup>65</sup> Ohar metodologikoa: Eusko Jaurlaritzaren, Araba eta Bizkaiko foru aldundien eta Bilbo eta Irungo udalen erantzunetan oinarrituta jaso dira portzentajeak.

baita gonbidatuak izan arren galdetegia erantzun ez duten baina ikerketaren xederako interesgarri izaten jarraitzen duten horiei buruzko datu eta informazioa eskaini ahal izateko ere.

Azterketa hiru multzo edo interes-gune handitan oinarritu da:


- **Informazioa eta komunikazioa.** Bertan, gobernu (kate, tresna...) aldundi edo udalean hartzen diren erabakien berri edukitzeko aukera (hiritar gisa) aztertzen da (ahal den neurrian, webgunean nabigatuta ikusi ahal denean oinarrituta). Era berean, partaidetza-prozesu horretatik zer espero den (halakorik badago, nolako partaidetza espero den, prozesu osoari buruzko informazioa, ekarpenen jomuga, jendearen esana, erantzunak eta abar ere era egokian jakinarazten diren aztertzen da.
- Azterketaren bigarren fase edo alderdia **hiritarren ekarpena** litzateke. Hau da, zein tresna dagoen erabilgarri jendeak inguru instituzionalean (webgunea) parte har dezan,

tresnen kalitatea (elkarrizketa eta eztabaida errazten dute, edo inkesta, bozketa... sinpleak dira), zentzu bakarrean (goitik behera, behetik gora...) komunikatzen duten tresnak diren. Horri esker, erabiltzen diren tresnei buruzko irudi bat eduki dezakegu (zerrendatuta) eta gomendioen kapitulura helaraz daitezkeen hutsune posibleak identifikatu daitezke.

<b>Herri administrazioetako atarietako e-partaidetzari buruzko azterketa</b>		
<b>INFORMAZIOA ETA KOMUNIKAZIOA</b>		
Webguneko partaidetzari buruzko berariazko espazioa dago	<a href="#">Irekia</a> ataria Euskadi.net webguneko atarietako bat da (Eusko Jaurlaritzak) eta hiritarrek Jaurlaritzan duten partaidetzari buruzkoa da	
Webguneko partaidetzaren edukiak gaien arabera egituratuta daude	– Atariko eduki eta ekintzetara sartzeko gaiak aukeratzen dira (atarira sartzeko ate gisa): • Lehendakaritza • Emakunde • Osasuna • Justizia • Turismoa, Merkataritza eta Kontsumoa • Krisiaren aurrakoa eta enpleguaren aldeko neurriak • Euskara • Hezkuntza • Barne Departamendua • Kultura • I+G+B • Gobernu irekia eta e-administrazioa • Iraunkortasuna eta Ingurumena • Etxebizitza eta Azpiegiturak • Euskadi kanpoan – Gai horien bidez sartzeko, edukia sei atalen arabera egituratzen da: • Jarduera • Galderak • Herritarren proposamenak • Gobernuaren proposamenak • Agenda • Taldea	
Administrazioiko kideekin webgunearen bidez zuzenean kontaktatzeko aukera dago	Gai horietako bakoitzean erreferentziako pertsona batzuk zerrendatzen dira (inplikatuak). Pertsona horietako bakoitzaren izen-abizen osoa, argazkia eta egungo kargua agertzen dira eta Irekian pertsona horren jarduera jarraitzeko eta bere harremanetarako datuak eskuratzeko (helbidea, telefonoa, posta, eta abar) edo plataformaren bidez horiekin <a href="#">harremanetan</a> jartzeko aukera ematen da	

 <b>ERAKUNDEA:</b> Eusko Jaurlaritza: Irekia	URL: <a href="http://www.irekia.euskadi.net/">http://www.irekia.euskadi.net/</a> (2012 ekaina)
Atarian administrazioaren bizitza politikoari buruzko informazioa agertzen da	Gai bakoitzean <b>albiste</b> atalera jotzeko aukera dago eta, bertan, arloko azken informazioa eguneratzen da (herri administrazioak argitaratutako informazioa)
<i>Open data</i>	Eusko Jaurlaritzak <i>open data</i> ekimen bat dauka, <b>Open Data Euskadi</b> izenekoa, <b>Irekia</b> atarian ikus daitekeena (webgunearen oinean, herritarren partaidetzarekin lotuta dauden beste ekimen batzuetarako sarbideekin batera (opendata, gardentasuna, komunikazio irekiko gida, openirekia, ekoeuskadi 2020, Gobernuaren sare eta blogen direktorioa...))
Webgunean hiritarrei argitaratu ez diren datu publikoak eskatzeko aukera ematen dien kateren bat dago	<ul style="list-style-type: none"> <li>- <b>Open Data Euskadi</b> ekimenaren atariak, Irekia plataformatik ere sarbidea duenak, mezu eta <b>iradokizunen kate</b> bat dauka honakoetarako:             <ul style="list-style-type: none"> <li>• Open Data Euskadin islatuko diren datu-multzotako berriak proposatzeko</li> <li>• Datuetatik ondorioztatu litezkeen erabilera edo zerbitzu posibleak iradokitzeko</li> </ul> </li> <li>- Iradokizunen postontzian webgune formulario erraz bat dago, erabiltzailearen datu pertsonalak eskaintzeko, administrazioak iradokizunari erantzun bat eman diezaiola</li> <li>- Formularioan adierazten denez, "laster" jasoko da kontsulta edo iradokizunen erantzuna, nahiz eta ez diren adierazten erantzuteko epeak zeintzuk diren, ez eta iradokizuna jasotzeko eta erantzuna emateko arduradun saila zein den ere</li> </ul>
Webgunean partaidetza-eskubidea betetzeko partaidetza-organoen zerrenda dago	Webgunean ez da antzeman Euskadiko partaidetza-organoen zerrendarik (sektorekoak, lurraldekoak...)
Webgunean partaidetza-prozesu irekiei buruzko informazioa ageri da	Webgunean Irekian erregistratutako jarduerari buruzko informazioa ageri da. Ekintza horiek hiru tipologiatan sailkatzen dira: <ul style="list-style-type: none"> <li>- <b>Herritarren galderak</b> (Administrazioko langileek erantzundakoak)</li> <li>- <b>Herritarren proposamenak</b> (herritarrek eta Administrazioko langileek iruzkindu ditzaketan)</li> <li>- <b>Gobernuaren proposamenak</b> (Gobernuak hartzen dituen neurrien berri iragartzeko tokia, esaterako, ekintza-planak martxan jartzeko erabakiak; herritarren balorazioa eta alde edo kontra egotearen argudioak ere jasotzen dira)</li> </ul>
Webgunean parte hartzeko itxaropen eta moduei buruzko informazioa dago (erabiltzaileentzako jarraibideak)	<ul style="list-style-type: none"> <li>- Atal batean <b>Irekia zer den</b> azaltzen da, baita nola funtzionatzen duen, zergatik sortu den, gizarte-sareen bidez aktiboki nola entzuten duen...</li> <li>- Era berean, <b>erabilerarako baldintzen</b> atal bat dago, zerbitzuaren helburua, erabilerarako baldintzak...bezalako alderdiak zehazten dituena</li> <li>- Atari honetako kontsulta berrikustean, atariko laguntza-atala ez zegoen martxan.</li> <li>- Hiritarren partaidetza Irekia atariaren bidez antolatutako faseak azaltzen dituen atal baten falta nabaritu da. Adibidez, herritarrek Gobernuari proposamen bat bidaltzen dionean eta hura interesgarria denean, ohiko prozedura azaltzen duen informazioa (erabaki-organoren batera bidaltzen al da bertan baloratzen? Eta hala ez bada, ezagutza-baseren batean gordetzen al da etorkizuneko kontuan hartzeko? Herritarra jakinaren gainean jarriko al litzateke halakorik gertatuz gero? Herritarren ekarpen edo/eta iradokizunetako zenbat hartu dira kontuan erabakiak hartzean? Zeintzuk dira eta nola egin dira?)</li> </ul>
Webgunea e-inklusioaren irizpideen arabera eraiki da	Atariko <b>erabilerraztasunaren</b> aitorpenari jarraiki, neurriak hartu dira "webgune atariak W3C partzuergoaren <b>WAI (Webgune Accessibility Initiative)</b> delako ekimenak ezarritako Web Edukien erabilerraztasun jarraibideen 2.0 bertsiora (WCAG 2.0) egokitzeko" <ul style="list-style-type: none"> <li>- SHTML 1.0 estandarra erabiltzen da, edukia markatzeko eta CSS2 ikusizko diseinurako</li> <li>- Diseinua eta maketazioa: edukiaren eta aurkezpenaren bereizketa, testu eta fondoetako koloreen arteko kontrastea, eta unitate erlatiboan erabilera</li> <li>- Testuzkoa ez den edukiaren alternatibak</li> <li>- Java script gabeko nabigazioa</li> <li>- Era berean, Euskadi.net atarietako Erabilerraztasun Behatokiak egindako txostenak daude eta horietan zehaztasun handiagoz deskribatzen da atarirako erabilerraztasun-maila (WCAG 2.0 baldintzen arabera)</li> </ul>
Nabigatzeko esperientzia	<ul style="list-style-type: none"> <li>- Nabigatzea atsegina da eta, <b>gai</b>en arabera antolaketari esker, erraza da edukietara sartzea</li> <li>- Halaber, atariko hasierako orriari esker, plataforman erregistratutako azken ekintzetara sar daiteke eta argitalpen-daten edo eduki-motaren (albiste, galdera, proposamena, bideoa, albuma) arabera filtratu</li> <li>- Hasierako orriaren oinean Eusko Jaurlaritzako beste atal eta atari batzuetarako sarbide zuzenak (10) daude, Irekia plataformarekin eta herritarren partaidetzarekin lotuta (Open Data Euskadi, Eusko Jaurlaritzaren Sare eta blogen direktorioa...)</li> </ul>
<b>HIRITARREN EKARPENA</b>	
Partaidetzari buruzko araudia edo estrategia arautzen da eta e-partaidetzaren mekanismo eta prozesuak aurreikusten dira	Ez da antzeman
Hiritarren ekimen eta proposamenaren eskubidea bermatzen da erakundearen webgunean	Irekia plataformari esker, herritarrek beren <b>proposamenak</b> bidali ahal dizkiote Eusko Jaurlaritzari (arlotako bakoitzari zuzenduak), lotesleak izan gabe (behintzat ez da horren gaineko aitorpenik ikusi webgunean). Beste herritar batzuek proposamen horiek bozkatu ditzakete eta aldeko edo aurkako argudioak gehitu. Eusko Jaurlaritzako kideren batek emango du erantzuna
Hiritarrek parte hartzeko aukera dago, webgunearen bidez sartuta edo gonbidatuta	Irekia atariko partaidetza bi formularen bidez gerta daiteke: <ul style="list-style-type: none"> <li>- Herritarren galderak + proposamenak = herritarren ekimenez bidaliak Eusko Jaurlaritzari webgunean eskuragarri dauden tresnen bidez (webgune formularioa)</li> <li>- Gobernuaren proposamenak = Eusko Jaurlaritzak argitaratutako informazioa, herritarrek alde edo kontra bozkatu eta proposamenaren alde edo kontrako argudioak bidal ditzaketelarik</li> </ul>
Webgunean espazio bat dago hiritarrek e-partaidetzako tresnak hobetzeko edo etorkizuneko partaidetza-prozesuetan jorratu beharreko gaiak aukeratzeko moduari buruz dituzten iritzia jasotzeko	<b>Herritarren proposamenak</b> bidaltzeko tresna horretarako erabili daiteke, honako adibideetan ikus daitezkeen bezala: <b>1. adibidea, 2. adibidea</b>

	<b>ERAKUNDEA:</b> Eusko Jaurlaritza: Irekia	URL: <a href="http://www.irekia.euskadi.net/">http://www.irekia.euskadi.net/</a> (2012 ekaina)
Erakundearen webgunean hiritarrek Administrazioarekin parte hartzeko tresnak daude	Eskuragarri dauden tresnak: <ul style="list-style-type: none"> <li>- <b>Hiritarren galderak + proposamenak</b> = herritarren ekimenez bidaliak Eusko Jaurlaritza webgunean eskuragarri dauden tresnen bidez (web formularioa)</li> <li>- <b>Gobernuaren proposamenak</b> = Eusko Jaurlaritza argitaratutako informazioa, herritarrek alde edo kontra bozkatu eta proposamenaren alde edo kontrako argudioak bidal ditzaketelarik</li> </ul>	Eskuragarri dauden tresnak: <ul style="list-style-type: none"> <li>- <b>Hiritarren galderak + proposamenak</b> = herritarren ekimenez bidaliak Eusko Jaurlaritza webgunean eskuragarri dauden tresnen bidez (web formularioa)</li> <li>- <b>Gobernuaren proposamenak</b> = Eusko Jaurlaritza argitaratutako informazioa, herritarrek alde edo kontra bozkatu eta proposamenaren alde edo kontrako argudioak bidal ditzaketelarik</li> </ul>
Hiritarrek administrazioarekin parte hartzeko tresnak dituzte erakundearen webgunetik kanpo ( <i>widget</i> , gizarte-sareetako profilak)	- Irekia aplikazio mugikorrek daude, atarira eta haren funtzionaltasunetara jotzeko smartphone bidez (Android, iPhone, iPad) <ul style="list-style-type: none"> <li>- Era berean, Eusko Jaurlaritza arlo desberdinetan presentzia duten 2.0 kate guztien <b>zerrenda</b> bat dago</li> <li>- Kate horietako batzuetako azken argitalpena berrikustean, <b>Irekiak Facebooken duen profila</b> kasu, agerian geratzen da kate hori Euskadiko bizitza politikoiari buruzko albisteak hedatzeko dela nagusiki</li> </ul>	- Irekia aplikazio mugikorrek daude, atarira eta haren funtzionaltasunetara jotzeko smartphone bidez (Android, iPhone, iPad) <ul style="list-style-type: none"> <li>- Era berean, Eusko Jaurlaritza arlo desberdinetan presentzia duten 2.0 kate guztien <b>zerrenda</b> bat dago</li> <li>- Kate horietako batzuetako azken argitalpena berrikustean, <b>Irekiak Facebooken duen profila</b> kasu, agerian geratzen da kate hori Euskadiko bizitza politikoiari buruzko albisteak hedatzeko dela nagusiki</li> </ul>
Webgunean dauden tresnen kalitatea	- Irekia plataforma tresna berria da, IKTak erabiliz herri administrazioaren eta herritarren arteko komunikazioa sustatzeko <ul style="list-style-type: none"> <li>- Bestalde, benetako partaidetza-prozesuen plangintza hitz egiteko ezinbestekoak diren faktore batzuk sartzea falta da</li> <li>- Herritarrek alde edo kontra dauden esan edo balora dezaten, hasierako informazioa falta da. Horri buruzko testu (zirriborro) edo materialik balego, hemen egon beharko litzateke ikusgarri edo lotuta. Informazio hori <b>Eusko Jaurlaritza</b>ko <b>beste atari batean</b> dago, baina ez dago lotuta Irekian argitaratutako Gobernuaren proposamenekin</li> <li>- Parte hartzeko gonbidapena ez dago oso mugatua: herritarrei beren iritzia eta iruzkinak emateko eskatzen zaie orokorrean, baina ez da zehazten dekretuko zein eremu zehaztuta behar diren ekarpen horiek edo testua eraiki edo aldatzeko orduan ekarpenok zein alderditan sar daitezkeen</li> <li>- Ez dago itzulerarik: argitaratutako informazioaren bidez ez da argi gelditzen dekretua dagoeneko argitaratua izan den, "alde" edo "kontra" baino gehiago bozkatu daitezkeen, herritarren ekarpenak jaso diren, zenbat, zeintzuk, dekretura sartu diren...</li> </ul>	- Irekia plataforma tresna berria da, IKTak erabiliz herri administrazioaren eta herritarren arteko komunikazioa sustatzeko <ul style="list-style-type: none"> <li>- Bestalde, benetako partaidetza-prozesuen plangintza hitz egiteko ezinbestekoak diren faktore batzuk sartzea falta da</li> <li>- Herritarrek alde edo kontra dauden esan edo balora dezaten, hasierako informazioa falta da. Horri buruzko testu (zirriborro) edo materialik balego, hemen egon beharko litzateke ikusgarri edo lotuta. Informazio hori <b>Eusko Jaurlaritza</b>ko <b>beste atari batean</b> dago, baina ez dago lotuta Irekian argitaratutako Gobernuaren proposamenekin</li> <li>- Parte hartzeko gonbidapena ez dago oso mugatua: herritarrei beren iritzia eta iruzkinak emateko eskatzen zaie orokorrean, baina ez da zehazten dekretuko zein eremu zehaztuta behar diren ekarpen horiek edo testua eraiki edo aldatzeko orduan ekarpenok zein alderditan sar daitezkeen</li> <li>- Ez dago itzulerarik: argitaratutako informazioaren bidez ez da argi gelditzen dekretua dagoeneko argitaratua izan den, "alde" edo "kontra" baino gehiago bozkatu daitezkeen, herritarren ekarpenak jaso diren, zenbat, zeintzuk, dekretura sartu diren...</li> </ul>
Informazio-fluxuen prozesua erakundearen webgunean	- Informazio-fluxuaren maila baxua <ul style="list-style-type: none"> <li>- Irekian "Zahartzen diren ongizatean eta tratu onean aurrera egiteko ehun proposamen" delakoari buruz argitaratutako proposamenetako bat aztertuz gero, herritarrei agiriaren alde edo aurka bozkatzeko eskatzen zaie eta alde edo aurkako argudioak bidaltzeko, herritarren partaidetzaren bidez proposamenen azken agiria egiteko asmoz. Proposamen horretan ezin dira ikusi gaien egin diren aurrerapenak eskuratzeko aukera ematen duen agirirako loturak. Era berean, ez dira argi eta garbi zehazten partaidetza-prozesuan garatuko diren fase guztiak, ez eta horien epeak ere (ekarpenen fase hori hurrengo urtearen hasieran amaitzea espero dela soilik adierazi da)</li> </ul>	- Informazio-fluxuaren maila baxua <ul style="list-style-type: none"> <li>- Irekian "Zahartzen diren ongizatean eta tratu onean aurrera egiteko ehun proposamen" delakoari buruz argitaratutako proposamenetako bat aztertuz gero, herritarrei agiriaren alde edo aurka bozkatzeko eskatzen zaie eta alde edo aurkako argudioak bidaltzeko, herritarren partaidetzaren bidez proposamenen azken agiria egiteko asmoz. Proposamen horretan ezin dira ikusi gaien egin diren aurrerapenak eskuratzeko aukera ematen duen agirirako loturak. Era berean, ez dira argi eta garbi zehazten partaidetza-prozesuan garatuko diren fase guztiak, ez eta horien epeak ere (ekarpenen fase hori hurrengo urtearen hasieran amaitzea espero dela soilik adierazi da)</li> </ul>
Hiritarren partaidetzarako eskubidearen menpeko batzorde edo beste edozein organo dago (webgunean ikusgarri)	Ez da antzeman	Ez da antzeman
<b>ITZULERA</b>		
Prozesuaren gardentasuna (partaidetza-prozesuari buruzko informazioa: faseak, epeak, erabakien egikaritzea, eta abar)	"Informazio-fluxuen prozesua erakundearen webgunean" izeneko atalean azaltzen denez, ez da partaidetza-prozesuari buruzko informazio etengabea agertzen	"Informazio-fluxuen prozesua erakundearen webgunean" izeneko atalean azaltzen denez, ez da partaidetza-prozesuari buruzko informazio etengabea agertzen
Amaitutako partaidetza-prozesuei buruzko txostenak daude (egikaritze-memoriak, ebaluazioak, eta abar)	- Ez da antzeman Gobernuaren proposamenak beren egoeraren arabera (irekita/itxita) filtratzeko aukerarik <ul style="list-style-type: none"> <li>- Dagoeneko itxita edo ekarpen-epetik kanpo dauden Gobernuaren proposamenen kasuan, ez dira identifikatu herritarrekiko elkarriketatik ateratako ekarpenak, ekarpenak sartzeko modua eta erabakien deliberazioa...</li> </ul>	- Ez da antzeman Gobernuaren proposamenak beren egoeraren arabera (irekita/itxita) filtratzeko aukerarik <ul style="list-style-type: none"> <li>- Dagoeneko itxita edo ekarpen-epetik kanpo dauden Gobernuaren proposamenen kasuan, ez dira identifikatu herritarrekiko elkarriketatik ateratako ekarpenak, ekarpenak sartzeko modua eta erabakien deliberazioa...</li> </ul>

## 11.4. Euskal gizartearen partaidetza herri administrazioetan, Interneten bidez

Atal honetan hiritarrek eremu publikoan duten partaidetza-maila zein den islatuko dugu, ikuspegi bikoitzetik:

- Abiapuntu tradizionalagoa duten adierazleen bidez, hiritarrek Internet bidez herri administrazioekin duten elkarrekintza aztertuz, zerbitzuak kudeatu eta tramiteak egiteari dagokionez.
- Hiritarrei alderdi publikoarekin lotutako eremuetan (informazio-eskaerak, kexak, iradokizunak, iritzia eta abar) Internet bidez zein mailatan parte hartu duten galdetzen dieten adierazleen bidez, bai erakunde publikoak gaitutako egituretan, bai Sarean dauden eta erakundearenak ez diren beste egitura batzuen bidez. Informazio hori txosten berezi honen harira e-partaidetzari eta IKTak eskuratzeari buruz egindako inkestaren bidez eskuratu da.

### 11.4.1. Hiritarrek herri administrazioekin duten elkarrekintza: tramiteak eta zerbitzuen kudeaketa

Interneten bidez herri administrazioarekin jarduten duten biztanleen portzentajea jakin aurretik egin behar den lehenengo hausnarketa bat zera da, biztanleriak tramiteak egin edo zerbitzuak kudeatzeko orduan administrazioarekin harremanetan jartzeko zein lehenetsun edo iritzi duen jakitea. Aurrez aurre edo Interneten bidez aritzea nahiago dute?


Ildo horretatik herritarrei honakoa galdetu zitzaion: **"Administrazioarekiko tramiteak egiteko zein bide nahiago duzu: Internet erabiltzea edo bulegoetara joatea?"**.

% 42,2k dio Internet nahiago duela eta % 45ek, aldiz, aurrez aurre egitea nahiago du.

Inkesta egin duten biztanleen % 5,5ek dio berdin diola eta % 7,4k kudeatu behar den tramite-motarekin lotzen du elkarrekintza-mota.

(109. irudia)

**Internet erabiltzen duten 16 urtetik gorako pertsonak**, Administrazioarekiko tramiteak Interneten edo bulegoetara joanez egiteko duten lehentasunaren arabera (%), 2012



Guk egina Arartekoaren IKTak eskuratzeari eta e-parte hartzeari buruzko inkestaren datuak oinarri izanda, 2012.

Honakoa ere galdetu zen: **“Euskadiko administrazio hauetako (Eusko Jaurlaritza, foru aldundia, udala) gutxienez batekin tramite edo kudeaketarik egin al duzu?”**. Biztanleriaren % 47,1ek erantzun zuen azken 12 hilabeteetan administrazio horietakoren batekin aritu zela.

Azterketa zehatzagoa eginez gero, galderari baietz erantzun dioten pertsona horiek administrazioaren zein mailatan parte hartu duten gehien jakin dezakegu.


Hori horrela, inkesta egin duten biztanleen (Internet-erabiltzaileen) % 32,4k dio azken 12 hilabeteetan tramite edo kudeaketaren bat egin duela Eusko Jaurlaritzarekin.

Bestalde, biztanleriaren % 18,5ek dio dagokion foru aldundiarekin aritu dela Internet bidez azken 12 hilabeteetan. Portzentaje hori baxuagoa da udalen kasuan, biztanleriaren % 17,3k baieztatu baitu Interneten aritu dela azken urtean tramite edo kudeaketaren bat egiten.

Internet bidez herri administrazioekin jardun duten pertsonak Internet bidezko kudeaketa horiek egitean izan duten asetasun-mailari dagokionez, honakoa galdetu zitzaizen hiritarrei: **“Zein neurritan gelditu zinen pozik administrazio hauetako edozeinek (Eusko Jaurlaritza, foru aldundia, udala) Internet bidezko kudeaketa egiteko moduari dagokionez?”**.

(110. irudia)

**Internet erabiltzen duten 16 urtetik gorako pertsonak**, Euskadiko administrazioetako batekin tramiteren bat egin dutenak, administrazio-motaren arabera (%), 2012



Guk egina Arartekoaren IKTak eskuratzeari eta e-parte hartzeari buruzko inkestaren datuak oinarri izanda, 2012.

Inkesta egin zuten biztanleei asetasun-maila 0tik 10erako eskalan baloratzeko eskatu zitzaizen, 0 bat ere pozik eta 10 guttiz pozik izanik.

Hiritarrek **Eusko Jaurlaritzarekiko** elkarrekintzari emandako batez besteko balorazioa 7,7 puntukoa izan da. Hau da, hiritarren % 58,5 oso pozik dago (8, 9 eta 10 balioak) Eusko Jaurlaritzako Administrazio elektronikoarekiko elkarrekintzaren moduarekin eta % 31,2k dio zerbitzuekin pozik dagoela (6 eta 7 balioak).

Eusko Jaurlaritzako Administrazio elektronikoarekiko elkarrekintzaren asetasun eza (bat ere pozik + ez pozik) inkesta egin duten biztanleen arteko % 4,5ek baino ez du adierazi.

Hiritarrek herri administrazioetako *online* kateekin duten harremanaren balorazio positiboa altuagoa da administrazioarekiko hurbiltasun-mailak gora egin ahala.

Horrenbestez, inkesta egin duten biztanleek Internet bidezko kudeaketaren bat egiteko orduan **foru aldundiekin** izan duten harremanari emandako batez besteko balorazioa 7,8koa da. Maiztasunen banaketari esker, balorazio horri buruzko informazio zehatzagoa dugu. Biztanleriaren % 64,9k uste du Internet bidez foru aldundiekin izan duen elkarrekintza oso ona izan dela eta % 24,6k dio ona izan dela.


Biztanleriaren % 5,3k adierazi du pozik dagoela foru aldundiarekin Internet bidezko tramiteak egiteko moduarekin eta % 0,5 ez da bat ere pozik agertu.

**Udalekin** tramiteren bat egin edo zerbitzuren bat kudeatzeko Internet bidez jarduten duten hiritarren balorazioari dagokionez, batez besteko puntuazioa 8koa izan da.

Biztanleriaren % 66,7 oso pozik agertu da eta % 26,4k bere esperientziarekin pozik dagoela baieztatu du. Inkesta egin duten biztanleen % 1,8k soilik adierazi du udalekin *online* kateen bidez izan duen elkarrekintza oso ona izan dela eta % 0,7k dio ez dela ona izan.

(111. irudia)

### Internet bidez administrazioekin kudeaketak egiteko moduaren asetasanari buruzko batez besteko balorazioa, administrazio-motaren arabera, 2012



Guk egina Arartekoaren IKTak eskuratzeari eta e-partehartzeari buruzko inkestaren datuak oinarri izanda, 2012.

Nahiz eta herri administrazioekiko harremanekin pozik ez dauden biztanleen portzentajea ez den kezkatzeko modukoa, jakin nahi izan dugu ea pertsona horiek zergatik eman dizkieten 5 puntu (0tik 10erako eskalan) baino gutxiago administrazioekin egin dituzten tramite eta kudeaketa elektronikoen esperientziei.

Hori dela eta, e-partaidetzari eta IKTak eskuratzeari buruzko inkestan honakoa galdetu zaie hiritarrei: **“Zergatik ez zaude pozik zure esperientziarekin? Zein alderdi hobetu beharko litzateke?”**.


Bat-bateko erantzunak izanik, biztanleriaren erantzunak honako emaitzetan batu dira:

### • Eusko Jaurlaritzarekiko esperientziarekin pozik ez egotearen arrazoiak

Hurrengo grafikoan biztanleriaren erantzunak jasotzen dituzten sei arrazoiak ikus ditzakegu. Portzentaje altuena erregistratu duten bi arrazoiak orria erabiltzeko erraztasun-falta (% 43,2) eta bilatu edo eskatu den informazioa eskuratu ez izana (% 28,1) dira.

(112. irudia)

### Eusko Jaurlaritzarekin Internet bidez egindako tramitearekin pozik ez dauden 16 urtetik gorako pertsonak. Beren esperientziarekin pozik ez egoteko arrazoiak (%), 2012




Guk egina Arartekoaren IKTak eskuratzeari eta e-partehartzeari buruzko inkestaren datuak oinarri izanda, 2012.

• **Foru aldundiarekiko esperientziarekin pozik ez egotearen arrazoiak**

Eusko Jaurlaritzaren kasuan gertatzen zen bezala, webgunea erabiltzeko erraztasun-falta (% 67,6) eta bilatu edo eskatzen zen informazioa eskuratu ez izana (% 44,1) dira foru aldundiarekiko kudeaketa edo tramitazio elektronikoan esperientzia ona ez izatearen bi arrazoi nagusiak.

(113. irudia)

**Foru aldundiarekin Internet bidez egindako tramitearekin pozik ez dauden 16 urtetik gorako pertsonak.** Beren esperientziarekin pozik ez egoteko arrazoiak (%), 2012




Guk egina Arartekoaren IKTak eskuratzeari eta e-parte hartzeari buruzko inkestaren datuak oinarri izanda, 2012.

• **Udalarekiko esperientziarekin pozik ez egotearen arrazoiak**

Biztanleriaren % 72,6k dio orria blokeatu egiten dela eta % 27,5ek orria ez dela erabilerraza. Kasu honetan, arazo teknikoak udalen webguneak erabiltzearen ondoriozko zailtasunen gaineratik daude. Hau da, "orria blokeatuta dago" erantzunak zera iradokitzen du, jendea webgunearen funtzionamenduan dauden arazo teknikoek ari dela.

(114. irudia)

**Udalarekin Internet bidez egindako tramitearekin pozik ez dauden 16 urtetik gorako pertsonak.** Beren esperientziarekin pozik ez egoteko arrazoiak (%), 2012



Guk egina Arartekoaren IKTak eskuratzeari eta e-parte hartzeari buruzko inkestaren datuak oinarri izanda, 2012.

**11.4.2. Ereku publikoko partaidetza Internet bidez**


Euskal gizarteak Internet bidez parte hartzen al du Euskadiko eremu publikoarekin lotutako gaietan? Erakundeen webguneen bidez parte hartzen du edo nahiago du erakundearenak ez diren webguneak erabili?

Inkesta egiten duten biztanleen % 88,7k dio ez duela Internet bidez parte hartzen Euskadiko eremu publikoarekin lotutako gaietan, eta % 11,3k, aldiz, sarea gizarte-sareetan, webgunetan, foroetan, blogetan, egunkari digitaletan eta abarretan iruzkin eta proposamenak egiteko erabiltzen duela adierazi du.



(115. irudia)

**16 urte edo gorako pertsonak**, Euskadiko politikarekin lotutako gaietan **Internet bidez duten partaidetzaren arabera**, gizarte-sare, webgune, foro, blog, egunkari digital eta abarretan iruzkinak edo proposamenak egiten (%), 2012



Guk egina Arartekoaren IKTak eskuratzeari eta e-parte hartzeari buruzko inkestaren datuak oinarri izanda, 2012.

Horretarako erabiltzen diren kateei dagokienez (erakunde-koak ala ez), Euskadiko politikarekin lotutako gaietan Internet bidez parte hartzen dutela adierazi duten biztanleen % 69,9k nahiago du erakundearen webguneak ez direnak erabili eta % 18,2ri berdin dio atari bat edo bestea erabiltzeak. % 11,9k soilik egiten ditu iruzkinak erakundearen webgune edo profiletan.

Hurrengo urratsean **eremu publikoko partaidetzarekin lotutako ekintzetan noizbait Internet bidez parte hartu duten biztanleen partaidetza-maila aztertu nahi da**, besteak beste honakoetan:

- Administrazioari gobernuaren edo beren politiken gaineko informazioa eskatzen.
- Hiritarren kontsultetan parte hartzen<sup>66</sup>.
- Iradokizunak edo proposamenak egiten.
- Kexak edo erreklamazioak planteatzen.


Datuei jarraiki, Euskadiko herritarrek eremu publikoan duten partaidetza-maila, herri administrazioen webguneen bidez, oraindik hasiberria da.

Grafikoan ikus daitekeenez, inkesta egin duten biztanleen % 16,6k soilik eskatu du gobernuari eta beren politikoei buruzko informazioa noizbait Interneten bidez.

<sup>66</sup> Ohar metodologikoa: inkesta egin duten biztanleek hiritarren kontsultaren mekanismoaren benetako irismenari buruzko ezagutza-falta posiblea dutela kontuan hartuta (Legean ezarritzen den eta txosten honetako 11.3.3 ataletan azaltzen den bezala), hiritarrek inkesta honetako kontsulta herrikoien bidez izan duten partaidetzari buruzko datuen gainean hitz egitean denean, kate elektronikoa, inkesta edo webguneetako bozketen bidez egindako "kontsulta elektronikoei" buruz ari garelako ulertu behar da. Arartekoak eta CTIC Fundazioak (proiektuaren bulego teknikoa) ezin dute bermatu metodologikoki kontsulta horiek bat datozenik Legean xedatutakoarekin.

(116. irudia)

**Herri administrazioetako edozeinen webgunearen bidez parte hartu duten 16 urte edo gorako pertsonak**, ekintza-motaren arabera (%), 2012



Guk egina Arartekoaren IKTak eskuratzeari eta e-parte hartzeari buruzko inkestaren datuak oinarri izanda, 2012.

Era berean, % 16,6k dio herri administrazioetako webguneen bidez kexa edo erreklamazioak planteatu dituela. Iradokizunak eta proposamenak egin dituztela dioten biztanleen portzentajea ere antzekoa da (% 16,4). Kontsulta herrikoietako partaidetza, % 15ekin, portzentajerik baxuena erregistratu duen ekintza da.

Hau da, biztanleriaren % 58,3k dio inoiz ez duela egin zerrendatutako ekintzetako bat ere ez.

**Eta zergatik ez da parte hartzen eremu publikoan herri administrazioen webguneen bidez?** Ezagutza hau gehiago sakontzeko, galdera hau egin zitzaion biztanleei, era irekian (bat-bateko erantzuna), aipatutako bitartekoen bidez eremu publikoetan ez parte hartzearen arrazoi nagusiak indexatzen saiatzeko.

Beharrian-falta eta konfiantzarik eza dira kontsulta herrikoiei, informazio-eskaera, kexa edo iradokizunen bidalketa eta bestelako ekintzetan webgune instituzionalen bidez inoiz ez dutela parte hartu aitortu duten pertsonen argudiatu dituzten bi arrazoi nagusiak.

Horrela, inkesta egin duten eta administrazioarekin horrelako ekintzarik egin ez duten pertsonen % 58,1ek dio arrazoi

### (III). BESTE ETEN DIGITALAK

nagusia “horretarako arrazoi edo beharrianik ez edukitzea” izan dela. Bigarrenik, % 22,7rekin, “aurrez aurre egitea nahiago dut” arrazoia egon da, eta, hirugarrenik (% 10,2) “ez naiz Internetez fio edo ez dut Internet erabiltzen horrelako ekintza edo tramiteetarako”.

Inkesta egin duten pertsonen % 3k soilik dio “Internet bidezko partaidetza ez dela aurrezko aurrekoa bezain erabilgarria” eta % 5,5ek adierazi du “ez dutela Interneti edo ekintza horiek egiteko moduari buruzko ezagutza nahikorik”.


Ikusi dugun bezala, lehen zerrendako ekintzen bidezko partaidetza, herri administrazioetako webguneak tarteko, oraindik garapen-maila hasiberrian dago. Partaidetzari buruzko informazioa sakontzeko asmoz, ekintza horiek zein administrazioen webgunetan gauzaten dituzten galdetu genien herritarrei. Hau da, biztanleriaren % 16,6k noizbait gobernuko eta politikako gaii buruzko informazioa eskatu duela adierazi du, baina Administrazioaren zein mailatan izan da hori: Eusko Jaurlaritza, foru aldundiak edo udala?

Horrela, hiritarrek Euskadiko administrazio desberdinen bidezko Euskadiko eremu publikoan duten partaidetza-maila zein den hobeto jakin ahalko dugu. Horretarako, galdetegian aurreikusitako partaidetza-ekintza desberdinen bidez egingo dugu azterketa:

#### • Gobernuari eta bere politikoi buruzko informazioa eskatzea

(117. irudia)

**Gobernuari eta beren politikoei buruzko informazioa eskatu duten 16 urtetik gorako pertsonak, eskaeraren xede den administrazioaren webgunearen arabera (%), 2012**



Guk egin aurretakoaren IKTak eskuratzeari eta e-parte hartzeari buruzko inkestaren datuak oinarri izanda, 2012.

Inkesta egin dutenen artean gobernuari eta bere politikoi buruzko informazioa eskatu duten pertsonen % 67,1ek Eusko Jaurlaritzaren webgunearen bidez egin du eskaera. *Rankingeko* bigarren postuan udalak daude. Gobernuari eta bere politikoi buruzko informazioa eskatu duten pertsonen % 20,3k dagokion udalaren webgunearen bidez egin du eskaera.


#### • Hiritarren kontsultetan parte hartzea

Hiritarren kontsultetan Internet bidez parte hartu dutela adierazi duten pertsonen % 40,2k dagokion udalaren webgunearen bidez egin du. Neurri txikiagoan, hiritarren kontsultetan parte hartu duten biztanleen % 35,6k dio Eusko Jaurlaritzak horretarako gaitutako webgunearen bidez egin duela.

Foru aldundiak, informazio-eskaeraren kasuan gertatzen zen bezala, hirugarren postuan daude. Kasu honetan porzentajea % 16,8koa da.

(118. irudia)

**Hiritarren kontsultetan parte hartu duten 16 urtetik gorako pertsonak, beren ekintzaren xede izan den administrazioaren webgunearen arabera (%), 2012**




Guk egin aurretakoaren IKTak eskuratzeari eta e-parte hartzeari buruzko inkestaren datuak oinarri izanda, 2012.

#### • Iradokizunak edo proposamenak egitea

Administrazioari egindako iradokizun eta proposamenak tokiko erakundeen hurbiltasunarekin lotuta daude. Horrenbestez, datuen azterketan ikus daitekeen bezala, Internet bidez iradokizun edo proposamenak egin dituen biztanleriaren % 55,2k udalen bat webgunean egin du. Bigarren postuan Administrazioa legoke, bere mailarik altuenean: Internet bidezko iradokizun edo proposamenak egin dituzten biztanleen % 25,4k Eusko Jaurlaritzari zuzendu dizkio.

(119. irudia)

**Iradokizun edo proposamenak egin dituzten 16 urtetik gorako pertsonak**, beren ekintzaren xede izan den administrazioaren webgunearen arabera (%), 2012



Guk egina Arartekoaren IKTak eskuratzeari eta e-partehartzeari buruzko inkestaren datuak oinarri izanda, 2012.

#### • Kexak edo erreklamazioak planteatzea

Kexa edo erreklamazioen planteamendua ere tokiko administrazioarekin eta haren hurbiltasunarekin lotuta dago. Kexak edo erreklamazioak planteatu dituzten pertsonen % 63k udalaren webgunearen bidez egin du, eta % 20,5ek, aldiz, Eusko Jaurlaritzaren webgunean.

Laburbilduz, eta datuak aztertuta, **lau ekintza hauetakoren bat egiteko gehien erabili diren webguneak** Eusko Jaurlaritzarena eta udalena izan dira, % 44,5 eta % 43,3 hurrenez hurren. Foru aldundien webguneak hirugarren postuan leudeke, biztanleriaren % 19,2k jo baitu horietara lau ekintza hauetakoren bat egiteko.

Txosten berezi honen esparruan adituekin egindako lan-saioetan azpimarratu den irizpideetako bat zera izan da, partaidetzak bi zentzu edo norabide izan behar dituela, hau da, administrazioaren eta hiritarren artean ezarritako elkarrizketa ezin dela norabide bakarrekoa izan.


Horren harira, honakoa galdetu zitzaizen hiritarrei: **“Administrazioaren erantzunik jaso al zenuen erantzunen bat jasotzea espero zenuen kasuetan?”**

Lehen adierazitako lau ekintzetakoren bat egin duten biztanleen % 59,1ek aitortu du kasu guztietan jaso duela administrazioen erantzuna (beharrezkoa zen kasuetan). Horrez gain, biztanleriaren % 7,4k baieztatu du noizbait (ez beti) erantzuna jaso duela.

Aitzitik, hiritarren % 26,5ek azaldu du inoiz ez duela administrazioen erantzunik jaso erantzuna espero zuten kasuetan.

(120. irudia)


**Kexak edo erreklamazioak planteatu dituzten 16 urtetik gorako pertsonak**, beren ekintzaren xede izan den administrazioaren webgunearen arabera (%), 2012



Guk egina Arartekoaren IKTak eskuratzeari eta e-partehartzeari buruzko inkestaren datuak oinarri izanda, 2012.

(121. irudia)

**Administrazioarekin lau ekintzetakoren bat** (informazio-eskaerak, hiritarren kontsultak, iradokizunak eta kexak) **egin duten 16 urtetik gorako pertsonak**, erantzuna espero zuten kasuetan Administrazioaren erantzuna jaso duten kontuan hartuta (%), 2012



Guk egina Arartekoaren IKTak eskuratzeari eta e-parte hartzeari buruzko inkestaren datuak oinarri izanda, 2012.



# Ondorioak eta gomendioak

a t a l a



## IV. atala

# Ondorioak eta gomendioak

## 12.

### Ondorioak

Atal honetan Euskadin, IKTen bitartez, gizartean eta eremu publikoan sarbide-eten, erabilera-eten, eskuratze-eten eta partaidetza-eteneko egoeraren azterketaren ostean lortutako ondorio nagusiak bildu dira.

Gogoeta horiek guztiak biltzea posible izan da informazio iturri kualitatibo eta kuantitatibo anitzek emandako informazioari esker (xehetasunak ikusi Metodologia kapituluari), hala nola: kanpoko iturri estatistikoetatik ([Eustat](#)) zein berezko iturri estatistikoetatik eta txosten berezi honen testuinguruan egindako lanen ondoriozko iturrietatik datozen datuak (herriarrei zuzendutako telefono bidez elkarrizketa + herri-administrazioei zuzendutako herritarren parte hartzeari buruzko galdeketa), adituekin eta hainbat gizarte sektoreetako ordezkariekin egindako elkarrizketak eta lan-bilkurak, proiektuaren lankidetzara esparruetako parte hartzea, baita Arartekoaren Haurren eta Nerabeen Kontseiluarekin egindako lan-saioaren ekarpenak ere.

### 12.1. Sarbide-eten digitala

1. **Oro har, sarbide-etenak gaituztat jotzen da baina ematen du datuak kontrakoak egiaztatu dutela:** euskal familien % 34,2k (gutxienez 16 eta 74 urte bitarteko pertsona batez osatutako familiak) ez du Interneterako konexiorik.
2. **Ematen du Euskadin telekomunikazio azpiegituren eskuragarritasuna ez dela sarbide-etenaren arrazoi nagusia.** Interneterako sarbiderik ez duten etxebizitzaren % 0,3k argudiatu du arrazoa dela euren eremuan ez dagoela estaldura nahikorik.

3. **Interneterako sarbiderik ez duten euskal familiek aditzera eman dituzten arrazoiak biltzen dituen rankingaren azken tokian zerbitzuaren kostu altua dago.** Saikapenaren lehenengo postuetan borondaterik eza edo konektatzeko beharrik eza ageri dira, baita erabilera burutu ahal izateko beharrezkoa den ezagutzarik eza ere.
4. **IKTak erabiltzen dituzten pertsonen erabiltzen ez dituzten pertsonen artean ahal dituzten oztopoen gainean galdetu genienean, baliabide ekonomikorik eza izan zen emandako arrazoiaren artean gailendu zena. Beraz, ematen du desadostasuna dagoela IKTak erabiltzen ez dituzten pertsonen artean aditzera emandako (ez erabiltzeko arrazoi nagusi gisa interesik edo beharrik eza ageri da) eta IKTak erabiltzen dituzten pertsonen artean adierazitako oztopoen edo inhibitzaileen artean.**
5. **Euskal biztanleriaren artean gehien erabiltzen den teknologietako bat telefono mugikorra da,** izan ere, beste teknologia batzuen kasuan oztopo edo inhibitzaile gisa jarduten duten faktore jakin batzuk gaituzteko gai izan da. Horregatik, gizartean eta eremu publikoan e-inklusioa eta Internet bidezko parte hartzea sustatzera zuzendutako tresnak eta ekimenak garatzerakoan kontuan hartu behar da
6. **Adina eta IKT ekipamenduaren artean harreman estua dago.** Horren gaineko datuak irmoak dira: 65 eta 74 urte bitarteko pertsona batekin gutxienez bizi diren familien % 70,7k ez du ordenagailurik eta % 73,4k ez du Interneterako konexiorik.
7. **Adineko pertsonen artean IKTak erabiltzeko oztopo nagusienak beharrik eza edo erabiltzeko gogorik eza dira.** Hala, 65 eta 74 urte bitarteko pertsona batekin gutxienez bizi diren familien % 70ek adierazi du horixe dela Internet ez erabiltzeko arrazoi nagusia.

8. **Beste faktore demografiko eta sozioekonomiko batzuek**, hala nola, habitataren tamainak, sexuak, familia motak, ikasketa mailak, jarduerarekiko harremanak edo hileko diru-sarrera mailak faktore erabakigarriak izaten jarraitzen dute euskal biztanleen artean ICTak erabiltzearen eremuan dauden desberdintasunei dagokienez.
9. **Etorkinen eta aniztasun funtzionala duten pertsonen kolektiboak** ICTen erabilerari buruzko datuak ematen dizkiguten estatistiketatik kanpo geratzen dira, baita informazioaren gizartearen arloan politika orokor nagusien lorpenak ebaluatzen dituzten txosten nagusietatik at ere.
10. Iturri kualitatiboek egindako kontsultak **biztanleen artean ICTak erabiltzeko oztopo edo inhibitzaile gisa jarduten duten beste faktore posible** batzuen zerrenda eman digu: gizarte-etenak, kolektibo jakin batzuentzako laguntzarik eza, irisgarritasun eta erabilgarritasun arazoak, kolektibo jakin batzuen gaineko interesik eza ICT tresna askoren merkataritza-estrategietan, pertsonen muga funtzionalak, kontsumo gastuak edo kolektibo eta gizarte talde jakin batzuentzako eduki eta/edo zerbitzu egokirik eza.

## 12.2. Erabilera-eten digitala

11. **Euskadiko biztanleen eskutik ICTen erabileraren gaineko eboluzioa etengabea izan da.** 2006. urtean, biztanleen % 47,4k (10 eta 74 urte bitarteko pertsonen buruz ari gara) Internet erabiltzen zuten; 2011. urtean, aldiz, portzentajeak gora egin du eta % 65,3ra heldu da.
12. Gaur egun, **Euskadiko biztanleriaren % 37,4k (10 eta 74 urte bitarteko pertsonen artean) ez du Internet erabili azken 3 hilabeteetan.**
13. **Adina ICTen erabileran eraginik handiena duen aldagaietako bat da.** Errealitate horrek bere horretan dirau orain dela hainbat urte eta, mailaz maila pertsona nagusien artean erabilera-eten digitala murrizten doan arren, oraindik ere desberdintasun handiak daude erabilerari dagokionez.
14. **Hala, 65 urte baino gehiago duten biztanleen artean, % 86,1ek ez du ordenagailua erabiltzen** eta % 87,1ek adierazi du ez duela Internet erabili azken hiru hilabeteetan.
15. **Telefono mugikorrek, berriz, erabilera-eten gainditzea lortu du adineko pertsonen artean (sarbide-eten digitalarekin gertatu den moduan).** Eustat institutuaren azken datuen arabera, 65 urte baino gehiago dituzten pertsonen % 88k telefono mugikorra erabiltzen duela azaldu du.
16. **Euskadiko biztanleen artean ICTen erabileran dagoen genero-eten batez ere 45-54 adin tartean agertzen da** eta, adinaren eskalan gora egin ahala, nabarmenago bihurtzen da.
17. **Ikasketa maila baxuak (lehen mailakoak edo baxuagoak) edo geldiuenean egoteak (langabetuen kasua) harreman zuzena dauka Euskadiko biztanleen artean dagoen ICTen erabilera portzentaje baxuekin.**
18. **Emakumeak, adinekoak, lehen mailako ikasketak edo maila baxuagoko ikasketak dituzten pertsonak eta etorkinak** dira Internetaren erabilera maiztasun baxuenak erregistratu dituztenak.
19. Interneteko erabiltzaile diren eta egunero tresna hori erabiltzen duten pertsonen artean, portzentajerik altuenak **lan eta ikasketen eremuan eta lagun zein senideekiko harremanaren eremuan** erabiltzen du.
20. **Internet erabiltzeko arrazoiei dagokienez, osasunari buruzko informazioa bilatzea, lana bilatzea edo prestakuntza (biztanleen gizarte ongizateari zuzenean lotuta daudenak)** dira *ranking*ak biltzen dituen arrazoietako batzuk, informazioa bilatzea, posta elektronikoa erabiltzea, komunikabideak kontsultatzea edo aisialdirako zerbitzuen erabilera bezalako arrazoiak atzetik daudenak.

## 12.3. Eskuratze-eten digitala

21. **Euskadin Internet erabiltzen duten biztanleen % 13,5ek uste du Internet edo ICTak erabiltzeak ez diela hobekuntza zehatzik ekarri euren bizitzaren ezein arlotan.**
22. **Portzentaje hori % 20koa da adinekoei buruz ari garenean.**
23. Sexuaren arabera, **emakumeek ICTen erabilerari dagokionez eragin positibo handiagoa antzematen dute** gizarte harremanak, laneko egoera hobetzea, izapideak egiterakoan denbora aurrezteak, ezagutza berriak eskuratzea, prestakuntza eta ikasketak hobetzea eta lana bilatzea bezalako alderdietan.
24. **Etorkinen artean portzentaje altu batek (% 65,5) aitortu du ICTek eragin positiboa eduki dutela euren harreman pertsonaletan.** Hala ere, gaineratu dute **ez dutela uste ICTek lana bilatzea erraztu duenik edo Euskadin lan egoera hobetzea eragin dutenik.**
25. **Interneta maizago erabiltzea eta ICT tresnen erabilerari buruzko ezagutza maila, ICTek bizitzaren hainbat alorretan dituzten inpaktu positiboaren jabetza handiagorekin lotura daukate.**
26. **Biztanleen ustez, honako alderdi hauetan ICTek inpaktu positibo handia eduki dute:** erakundeak herritarrei hurbiltzea, bizitzaren kalitatea hobetzea eta erakundeetan herritarren parte hartzea handitzea.
27. **Gizarte ongizatearen hobekuntzaren barruan, osasun pertsonalaren hobekuntzaren eta gizartearen desberdintasunak murriztearen arloan, aldiz, biztanleek adierazi dute ICTen inpaktu positiboa murriztagoa izan dela.**
28. **ICTen arloan, langileen gaikuntzari buruzko perzeptzioa hauxe da: inkestari erantzun dioten biztanleen % 15ek adierazi dute ez dituztela egungo lan merkatuak ICTei lotuta eskatzen dituen gaitasunak menperatzen, biztanleen % 25,7k, berriz, adierazi du ICTei lotutako gaitasun berriak eskuratu behar izanez gero, ez lukeela jakingo nora jo.**



29. **Biztanleriaren % 94,5ek adierazi du IKTen erabilerrari buruzko ikaskuntza era autodidaktikoan burutu duela.** Dena den, adin-taldeen arabera azterketa burutuz gero, esan dezakegu **pertsona nagusienek IKTen gaineko ezagutzak eskuratze aldera ikastaro edo tailer zehatzak aukeratu ohi dituztela.**
30. **Biztanleen % 68,1ek baieztatu du IKTen erabilerari etekin handiagoa ateratzea gustatuko litzaiokeela eta Internet erabiltzen duten biztanleen % 56,6k uste du IKTak erabiltzeko ezintasuna gizarte bazterkeria pairatzeko arrazoi bat izan daitekeela.**

## 12.4. Partaidetza-eten digitala

31. **Euskadin biztanleek parte hartzeko dituzten arrazoen gainean galdetzerakoan, bakarrik % 27k adierazi du arrazoa dela erabakiak hartzerakoan parte hartu nahi izana.** Portzentaje horrek adinaren aldagaiarekin zuzeneko harremana dauka: gero eta zaharrago, orduan eta motibazio txikiagoa erabakiak hartzerakoan parte hartzeari dagokionez.
32. Herritarren parte hartzeak duen inpaktu pertsonalari edo komunitarioari dagokionez, **biztanleen % 33,6k uste du haren parte hartzea ez dela oso erabilgarria eta % 25,9k uste du ez daukala inolako eraginik.** Adinaren arabera sailkatuta, parte hartzeak duen inpaktuaren pertzepzio positiboa handiagoa da adin-tarteetan gora egin ahala.
33. Parte hartzeari buruzko etorkizuneko aukeren inguruan, **biztanleen % 37,4k adierazi du gehiago parte hartu nahiko lukeela.**
34. Horren harira, **% 39,9k zehaztu du nahiago duela parte hartze hori Internet bidez burutzea, % 28,6k berriz, aditzera eman du aurrez aurreko kanalen bitartez parte hartzea nahiago duela.**
35. Dena den, datuek erakusten dutena ikusita, argi dagoena zera da: Internet erabili ohi duten pertsonen interes handiagoa daukate gizarte eta politikari lotutako gaietan eta hauteskundeetan gehiago parte hartzen dute, baita elkarteetan eta borondatezko ekintzetan ere.
36. **Biztanleriaren % 11,3k eremu publikoari lotutako gaietan parte hartzen du Internet bidez. Horieta-tik, % 69,9k erakundez kanpoko web atariaren bitartez egitea nahiago du.**
37. **Administrazioaren zerbitzuekin elkarri eragiteko moduari dagokionez, % 41,2k aitortu du nahiago duela Internet bidez, % 45ek, aldiz, aurrez aurre nahiago dute.**
38. **Euskadiko herri-administrazioaren batekin izapide elektronikoren bat burutu duten biztanleen artean, bakarrik % 4,5ek adierazi du esperientzia ez dela onuragarria izan.** Desadostasuna adierazteko arrazoi nagusiak hauek dira: izapidea barne hartzen zuen web orrialdea erabiltzeko zailtasuna eta bilatzen ari ziren edo eskatu zuten informazioa lortzeko ezintasuna.
39. **Aztertutako euskal herri-administrazioetako atarrietan dauden herritarren parte hartzerako tresnen** inguruan esan dezakegu presentziarik handiena daukatenak kexa eta iradokizunen atalak, inkestean atalak eta foroak direla. Gabezi nabarmenak antzeman dira parte hartzeko prozesuak kanal digitaletara lekualdatzerakoan. Ohikoenak hauek dira: herritarrengandik espero denari buruzko informazio argirik eta zehatzik eza, hau da, zertan parte hartzea nahi den eta nola parte hartzea nahi den argi eta garbi zedarritzea falta da; informazioa aurkeztu ahala prozesuari buruzko informazioa, baita hori baloratzeko moduaren gaineko azalpena ere; informazioa itzultzea, jaso diren ekarpenak zehaztuz eta nola baloratu diren eta erabakiak hartzeko prozesuan nola gaineratu diren azalduz, baita parte hartze prozesuaren zein herritarren parte hartzeari zabalduetako jarduera, ekimen, politika eta abarren gauzatzearen ebaluazioa ere.
40. **Euskal herri-administrazioak herritarren parte hartzea sustatze aldera aurrera pausak ematen hasi dira, hainbat heldutasun mailekin,** administrazio mailaren arabera (Eusko Jaurilaritza, aldundiak, udalak...), datu publikoen irekieraren, eskatzeko eskubidea gauzatzeko bide elektronikoen eskuragarritasunaren, weben irisgarritasunaren eta abarren bidez.
41. **Dena den, gabezi garrantzitsua antzeman da:** ez dago herritarrek euskal herri-administrazioetan izan dezaketen parte hartzea **arautzen duen testuinguru arauemaile zehatzik,** eremu publikoan Internet bidezko herritarren parte hartzea barne hartzen duena.

## 13.

### Gomendioak

Ondorengo gomendioak aurreko kapituluetan jasotako informazioa abiapuntutzat hartuta definitu dira, ateratako ondorio nagusien erantzun gisa.

Gomendio horiek bi foku handiren inguruan egituratu dira:

- Euskadin e-inklusioa sustatzea xede duten gomendioak.
- Euskadin IKTen bidez gizartearen eta eremu publikoan herritarren partaidetza sustatzeko gomendioak.

Batzuetan, proposatutako lan-ildoak zeharkakoak dira, politika publikoei edota gizarteko kolektibo eta taldeei dagokionez. Horregatik, iradokizun bakoitzari euskal herri-administrazioaren barruko sail eta/edo erakunde hartzaile bat edo batzuk esleitu zaio/zaizkio. Izan ere, Ararteko erakundearen ustez, horiek dira martxan jartzeko ardura edukiko dutenak<sup>67</sup>.

<sup>67</sup> Aipatzen diren Eusko Jaurilaritzako sailtako nomenklatura eta sektorekako eskumenak 2012ko urriaren 21eko hauteskunde autonomikoen ostean eratutako gobernuaren funtzioak eta jarduteko eremuak zehazteko eta Euskal Autonomia Erkidegoko administrazioaren sailak sortzeko, deuseztatzeko eta aldatzeko lehendakariaren abenduaren 15eko **20/2012 Dekretuaren** egitura organikoaren ondoriozkoak dira.

### 13.1. Euskadin e-inklusioa sustatzea xede duten gomendioak

1. **Deskribapena: tokiko erakundeek tokiko agenda digitalen sorrera sustatu dezaten, Euskadiko Agenda Digitalarekin** eta informazioaren gizartearen garapenaren arloan nazioarteko gainontzeko politikekin lerrotatuz; modu horretan, Euskadin eten digitalen murrizketa azkartuko baita tokiko erakundeek inplementatutako ekintza globalen bitartez.

Eusko Jaurlaritzako Kontseiluak (2012ko maiatzaren 22an) **EUDEL** izenekoarekin hitzarmen bat sinatzea onetsi zuen, Euskadiko Agenda Digitala 2015 izenekoaren barruan tokiko agenda digitalen zabaltzea burutzeko.

Hori oinarritzat hartuta zera gomendatu da:

- Parte hartzeko programa bat irekitzea, bertan, tartean dauden alderdi guztiek (gobernua, enpresak, herritarrak eta hirugarren sektorea) tokiko agenda digital horien inplementazioaren inguruan duten ikuspegia aurkeztu ahaliko dute, baita agenden ardatz handietako bakoitzean ezarri behar diren lehentasunak eta gizarte beharrak identifikatzen lagundu ere.
- Agenda digital horien kudeaketan gardentasun ariketa bat egitea, herritarrei gai hauen gaineko informazioa itzultzea erraztuz:
  - Aurreikusitako helburua (Agenda Digital 2015 programa indarrean dagoen bitartean lortu nahi diren erdiespenak kuantifikatzea).
  - Agenda digital horien testuinguruan gauzatutako jarduerak.
  - Gauzatutako ekintza bakoitzaren inpaktua.
  - Tokiko agenda digitalen xedeen erdiespen maila.
  - Tokiko agenda digitalen inpaktuaren ebaluazioa (zer eragin duen lurralde garapenean, herritarren bizikaltatearen hobekuntzan eta gizarte ongizatean...).

**Gomendioaren hartzailea/k:** Ekonomiarren Garapen eta Lehiakortasunaren Saila, EUDEL.

**Eremua:** testuinguru estrategikoa, tokiko garapena.

2. **Deskribapena: Interneterako sarbidea funtsezko eskubide gisa bultzatzea.** Internet, lan egiteko edo komunikatzeko tresna soil bat izateaz gain, gaur egun bizi-kaltatearen eta gizarte ongizatearen hobekuntzari lotuta egon daitekeen zerbitzua dela aintzat hartuta, proposatu da Eusko Jaurlaritzako ekimen legegileen barruan, azken hori gaineratu dadila.

Orain dela gutxi, **Nazio Batuen Batzar Nagusiak** Interneterako sarbidea gizakien eskubidetzat jo zuen. NBEk eman zituen argudioen artean, **Frank La Rue**k zera adierazi zuen: *“La única y cambiante naturaleza de Internet no sólo permite a los individuos ejercer su derecho de opinión y expresión, sino que también forma parte de sus derechos humanos y promueve el progreso de la sociedad en su conjunto”*.

Europa mailan burututako praktiken gaineko azterketa bat eginez gero, **Finlandia** bezalako herrialdeekin topo egin dezakegu. Bertan, herritar guztiei Mb 1eko banda-zabalera eskaintzen zaie, hau da, munduko lehen herrialdea da zeinetan banda zabaleko konexioak bermatzen dituzten legeak sortu diren. Bertako planen artean, 2015.

urtea baino lehen 100 Mb eskaintzea legezko eskubide bihurtzeko erronka dago.

Interneterako sarbidea Euskadiko herritarren eskubide bilakatzeari dagokionez, IKT gizarte bonu bat abian jartzeko aukera mahaigaineratu da, IKT ekipamendua eta konektibitatea erabilgarri egongo dela bermatzen diena baldintza jakin batzuk betetzen dituzten pertsonen, horien artean: kide guztiak langabezia dituzten familiak, gutxieneko prestazioak jasotzen dituzten adinekoak, errenta baxuko pertsonak eta familiak, etab.

Proposatu den gizarte bonu horrek ekipamenduaren erosketa eta erabilera barne hartzeaz gain, zerbitzuaren ondoriozko fakturak murrizteko aukera eman beharko luke (adibidez: Internetera konektatzeko zerbitzua), operadoreekin sinatutako hitzarmenen bidez. Espainian antzerako esperientzia batzuk garatu izan dira, hala nola, Asturiasen gauzatu zen **HOGARTIC** delakoa. Proiektu horretan 10 milioi euro erabili ziren 18-35 urteko gazteek IKTak erabiltzeko aukera eduki zezaten (ekipamendua eta konektibitatea).

**Hartzailea:** Eusko Jaurlaritzako Lehendakaritza.

**Eremua:** IKTen sarbidea, IKT azpiegiturak, araudiaren testuingurua eta testuinguru estrategikoa, IKTen demokratizazioa.

3. **Deskribapena: ekintza berritzaileak eta elkarlaneko ekintzak sustatzea eten digitalak murrizteko**, ahalmen sortzailea saritzen duten eta jarduera mota horien aitortpena ahalbidetzen duten ekimenen lehiaketan bitartez.

Ildo horretan, jardun egokiaren (ekintza berritzailea) adibide bat Gasteizko Diocesanak ikastetxeko **Dinux** “ikaskuntza-zerbitzuko” proiektua da. Proiektu horretan, informatikako erdi mailako zikloko ikasleek pertsonalizatutako Linux paketeak prestatzen ditu eta amaierako erabiltzailearen lehentasunetara egokitzen du. Hezkuntzako jarduera mota horrekin, edozein maila eta espezialitateko ikastetxea esparru publikoko zentro bilakatzen da, erreferentziazko komunitatean eragina duten eta bertan garatzen diren proiektu zehatzen bidez. Ikastetxeak komunitatearen beharren gaineko ikerketa egiten du eta bere ezagutzak horiek konpontze aldera aplikatzen ditu.

Ekimen mota horiek aurrera egin dezatela eta beste ideia berritzaile posible batzuk abian jartzeko ispilu bilakatu daitezten, praktika horiek aditzera emateko eta aitortzeko gomendioa eman dugu, hainbat erakunde eta organismoen (publiko-pribatuak) arteko lankidetzak ezarri eta, beti, ekimen horiek herritarren eskutik abiatu daitezten saiatuz (partikularrak, elkartearen sarea...).

Gomendatutako ekintzak:

- Une honetan Euskadin e-inklusioaren arloan gauzatu ari diren praktika onen atzean dagoen berrikuntza ezkutuari ikuspena ematea **Euskadiko Berrikuntzen Behatokiaren** bidez, bereziki, argi eta garbi herritarrak ahalduzera eta gizarte-egoera ahulean dauden kolektiboekin lan egitera zuzenduta dauden horiek. Garrantzitsua da berezko indarra duen kategoria bat sortzea, IKTekin, ongizatearekin eta gizarte sustapenarekin lotura daukana. Horrez gain, garrantzitsua da ikuspena gai edo jarduteko eremu horien

azpian etiketatutako egungo berrien argitalpenari ez mugatzea.

- E-inklusioaren eta IKTen erabileraren bitartez gizarteratzearen arloan jarduera berritzailei buruzko deialdiak/lehiaketak egitea. Lehiaketa mota horiek hone-lako aldagaiak barne hartu ditzakete:
  - Identifikatutako praktikarik onenak saritzea aurreko puntuak proposatutako monitorizazio eta jarraipen lanaren bitartez.
  - IKTen bidezko e-inklusioaren eta gizarteratzearen lehenetsunak identifikatu eta adostea eta errealitate horri nola aurre egin hizpide duten proiektuak aurkezteko epe bat irekitzea (herritarrei, hirugarren sektoreari zuzendua), betiere, proiektu horiek Eusko Jaurlaritzaren laguntzarekin finantzatu.

**Hartzailea:** Eusko Jaurlaritza eta udalak.

**Eremua:** IKTen sarbidea.

4. **Deskribapena: jarrerak eraldatzea,** zabaltzeko eta sentibilizatzeko ekintzak abian jarri eta gaur egun IKTak alde batera uzten edo arbuizatzen dituzten biztanleei ezagutzak eta esperientziak helaraziz. Inkestak azterterakoan egiaztatu ahal izan genuen moduan, IKTak erabiltzen ez dituzten biztanleen portzentaje altu batek argudiatu zuen arrazoia dela “ez duela nahi, ez duela behar edo ez dituela beharrezkoak diren ezagutzak”. IKTek bizi-kalitatea hobetze aldera eskaini ditzaketen abantailak eta aukerak jorratzen dituzten ekimenak areagotzea beharrezkoa da.

Alor horretan, garrantzitsua da saiotea zabaltzeko eta sentibilizatzeko jarduerak honelakoak izan daitezen:

- Ahalik eta irismenik handiena eduki ditzaten, ahalik eta jende gehien barne hartuz.
- Ikuspegi integratzailea gaineratu dezaten baina kolektibo eta gizarte taldeekin egin ohi den lanean espezializatutakoa.
- Aniztasuna errespetatu dezaten, sentibilizazio ekintza horietan parte hartzeko oztopo bilakatu ez dadila.
- Gizartean ondo sartzen diren eta onarpena eta asebetetzea eragiten dute tresnak aprobetxatzea, hala nola, telefono mugikorra.
- Hainbat politika publiko, gobernu kanpoko erakunde eta kolektibo eta gizarte talde zaurkorrenekin lanean ibiltzen diren elkarten arteko lankidetzaren emaitza izan daitezen. Halaber, bikoiztasunak saiheste aldera, jarduteko ildoak bat egin dezaten saiote behar da, baita baliabideak partekatzen ere, kostuei dagokienez aurrezte aldera.

Gomendatutako ekintzak:

- Adinekoen zentroetan zabaltzeko saioak egitea.
- IKTen erabileran eta IKTen aplikazioan espezializatuak dauden elkartei zuzendutako zabaltze saioak eta prestakuntza ekintzak egitea, herritarren ahalduntzeari, ongizateari eta gizarte sustapenari laguntzeko tresna gisa.
- Herritarren esku jartzea “IKTen gaineko demostrazio egiteko zentro” gisa jarduten duten esparru fisikoak. Bertara pertsonak, elkarteak... joan ahalko dira IKTak ezagutzera, ukitzera eta probatzera. Halaber, aplikazio

erreal posibleak eta bizi-kalitatean eduki dezaketen eragina ezagutu ahalko dute, baita euren egunerokotasunaren hainbat alderdi sustatzeko ematen duten aukera ere. [AMETIC](#) izenekoaren [Etxebizitza Digitalaren Zentro Erakuslea](#)<sup>68</sup> delakoa esparru mota horien adibide bat da. Bertan, enpresek, herritarrek eta erakundeek bat egin dute eta zuzenean erakusten dute IKTak etxebizitzan integratzeak zer dakarren irisgarritasunari, segurtasunari, aisialdiari eta abarrei dagokienez.

**Hartzailea:** euskal herri-administrazioak.

**Eremua:** IKTen sarbidez, IKTen erabilera, IKTak demokratizatzea.

5. **Deskribapena: IKT eta ikaskuntza bizitzan zehar.** Gaur egun, IKT eta ikaskuntzari buruz hitz egiten dugunean, ondorioztatu dezakegu ez gaudela oso ingurune onuragarrian. [Eskola 2.0](#) bezalako ekimenek esker, eskolek IKTak eskuratzeko dituzten aukeren arloan aurrera egin ahal izan dute, baita IKTak hezkuntzaren komunitateari gerturatzeko arloan ere. Unibertsitateek ere IKTak aprobetxatzearen eremuan parte hartu dute, [campus birtualak](#) sortuz. Bestalde, irakaslez eta [adituz](#) osatutako kolektibo gero eta handiago bat IKTen eta ikasgelan izan dezaketen aplikazioaren inguruan ikertzen ari da. Herri-administrazioek baliabideak eta aurrekontua gaineratu dituzte euren politiketan irakasleen prestakuntza programari jarraitutasuna emateko eta ikastetxei azpiegiturak eskaini ahal izateko.

Bestalde, Eusko Jaurlaritzako [Ikaskuntza bizitzan zehar gaiari buruzko lege proiektuak](#) (horren izapidetzea bertan behera geratu zen IX. legegintzaldia amaitu zelako) zera adierazi zuen hitzez hitz: *“La rápida evolución de las tecnologías y del sistema productivo demandan una permanente adaptación y redefinición de los aprendizajes, las competencias y las cualificaciones profesionales. Esta situación requiere un nuevo enfoque de la educación y la formación que aborde los nuevos retos de la sociedad del conocimiento”*.

Testuinguru hori oinarritzat hartuta eta ikaskuntzari buruzko lege proiektuaren testuinguruan, honako gomendio hauek egin ziren:

- Lege proiektuaren barruan dauden **programazioetan eta bizitza osorako ikaskuntza programetako curriculum-diseinuetan IKTak zeharkako bihurtzea:**
  - Oinarriko ezagutzak eta funtsezko ikaskuntzari dagokion titulazio akademikoa eskuratzeko programak.
  - Lanbide heziketako tituluak eta ziurtagiriak eskuratzeko programak.
  - Lanbide heziketaren eskaintzan sartu ahal izateko, prestatzera zuzendutako programak.
  - Unibertsitateko ikasketak egin ahal izateko, prestatzera zuzendutako programak.
  - Prestakuntza eta prestakuntzazko eguneratze profesionaleko programak.
  - IKTen erabileran, oinarriko gaikuntza eskuratzeko programak.

<sup>68</sup> AMETIC: elektronika, informazio-teknologia, telekomunikazio eta eduki digitalen enpresen erakundea.

- EAeko hizkuntza ofizialetako eta beste hizkuntza batzuetako gaitasuna sustatzera zuzendutako programak.
- Pertsonen garapenean; euren espezializazioen eta eguneratze teknologiko eta pertsonalean; prestakuntza kulturean, zientifikoan eta humanistikoan; adinekoren prestakuntzan eta aisialdi aktiboaren sustapenean eta gizartearen eta herritarren parte hartzea sustatzearen arloan lagungarri suertatzen diren beste programa batzuk.

■ **Unibertsitateek eskaintzen duten bizitza osorako prestakuntzak** berezko tituluak, espezializazio diplomak, adituen tituluak edo espezialisten tituluak, unibertsitateko ikasketak zabaltzeko ikastaroak, etab. barne hartu beharko lituzke. Horiek guztiak, e-inklusioari eta e-partaidetzari lotutako profil berriei zuzenduta daude, hala nola:

- E-inklusioan eta e-partaidetzan aditua.
- Web diseinu inklusiboa.
- Herritarren parte hartzerako plataformen diseinua.
- e-Inklusiorako eragile dinamizatzailea.
- Eta abar.

■ **IKTen arloan laneko esperientziaren bitartez lortutako ikaskuntzak aitortzeko mekanismoak berrikustea, formalak ez diren edo informalak diren mekanismoen bidez, IKTei lotutako gaitasunak aitortzeko, ebaluatzeko eta egiaztatzeko gailu aurreratu baten bitartez.** Gaur egun *IT Txartela* delakoa daukagu. Hala ere, txartel horrek sistema eragileak, pakete ofimatikoak, posta elektronikoa... bezalako tresnen, Internetaren funtsezko erabilera eta erabilera aurreratua eta beste tresna jakin batzuen erabilera besterik ez dauka hizpide. Ziurtagiri hori baliagarria da, adibidez, lanpostu bat lortzeko unean (publikoa zein pribatua); izan ere, horren bitartez egiaztatu daitezke modu zehatzean eta estandarizatuan IKTen inguruan ditugun ezagutzak. Dena den, ez ditu une honetan lanpostu jakin batzuk gauzatzeko eskatzen diren oinarrizko gaitasunei lotutako trebetasunak eta abileziak barne hartzen. Gainera, askotan, azken horiek laneko eremuan ikasten dira, edo guztiz modu informalean baina, hala eta guztiz ere, aitortu behar dira. Adibidea: gizarte sareen kudeaketa, eduki digitalak sortzea, edukiak zaintzea, etab.

**Hartzailea:** Hezkuntza, Hizkuntza Politika eta Kultura Saila eta Enplegu eta Gizarte Politikaren Saila.

**Eremua:** IKTak eskuratzea, ahalduntze digitala, IKTen ikaskuntza, hezkuntza, araudia.

6. **Deskribapena: gaitasun digitalen gaineko testuinguru estrategikoa definitzea, bertan, Euskadiko gaitasun digitalen gaitasunen gaineko mapa definitu behar da** ikuspegi integratzaile bat abiapuntutzat hartuta. Egun, zer eskatzen digu gizarte errealtate berriak? Nola ari gara erantzuten eskolatik, herri-administratziotik, eta abarretatik? Hainbat alorretan jorratzen diren **gaitasun digitalen gaineko ikuspegiak** lerrokatuta daude? Euskal gizartearentzat posible da gaitasun digitalak taldekatzea eta horien inguruko mapa bat egitea, **AD2015** izenekotik harago, garapen tresna gisa integratu ahal dena?

Jakintzaren gizartearen herritarrentzako eskumen digitalen testuinguru estrategikoarekin eta gaitasun digitalei buruzko maparekin batera, herritarrek ulertzea eta egunerokotasunean aplikatzea errazten duten erabilera eta baliabideak eskaini behar dira **SkillAge**, bezalako tresnen bidez. Hala, IKTen gaineko ezagutza, laneko testuinguru batean aplikatuta, autoebalatu ahal da.

Bi proposamenak (estrategia, gaitasun digitalak eta gaitasunen mapa, jakintzaren gizartearen erronka handienentzako erantzun gisa) administrazioaren barruko (hainbat sailen arteko) zein kanpoko lankidetzat abiapuntutzat hartuta eratu beharko da. Hau da, gainontzeko eragileekin, entitateekin, erakundeekin eta Euskadiko herritarrekin. Horretarako, **prozesu parte hartzaile** bat abian jartzeko iradokizuna eman dugu, IKTen erabilera bultzatuz eta aurrez aurre zein modu birtualean parte hartzeko eskubidearen gauzatea ahalbidetuz. Horrez gain, Eusko Jaurlaritzak honako konpromiso hauek hartu beharko lituzke:

- Gaur egun Euskadin dauden gaitasun digitalen gaineko informazio garrantzitsu guztiaren berri behar bezala ematea (artearen egoerari buruzko informazioa).
- Modu argian adierazi zeintzuk diren egin nahi denaren helburuak, bai eta prozesu parte hartzailearen xedeak eta parte hartze horretatik espero dena ere.
- Puntualki jakinaraztea prozesu parte hartzailearen aurrerapen guztiak, egiten diren ekarpenei dagokienez gardentasun zorrotza aplikatuz eta aditzera emanez horiek erabakiak hartzeko prozesuan nola gaineratzen ari diren.
- Parte hartzeko prozesua zein burututako ekintzen emaitzak/inpaktua ebaluatzea, prozesu parte hartzailean parte hartzen duten pertsona guztiei denborari zein formari dagokionez informazioa emanez, baita gainontzeko herritarrei ere.

**Hartzailea:** Eusko Jaurlaritzako Lehendakaritza.

**Eremua:** testuinguru estrategikoa, IKTen erabilera, IKTen eskuratzea, gaitasun digitalak.

7. **Deskribapena: eten digitalak murrizteari lotutako ekimen publiko, pribatu eta hirugarren sektoreko ekimenaren baliabide eta tresna guztien ikuspena hobetzea.** Txosten berezi honen eraketan bildutako datuak aztertzerakoan antzemandako ahulezietako bat hauxe da: Euskadin Internet erabiltzen duen biztanleriaren % 25,7k adierazi du, lan merkatuak eskatzen dituen gaitasun digitalei lotutako ezagutza berriak eskuratzeko beharra edukitzekotan, ez lukeela jakingo nora jo ezagutza horiek lortze aldera. Datu hori bereziki adierazgarria da, izan ere, arazo bikoitza mahai gainean jarri du:
- Alde batetik, argi geratu du biztanleriaren zati handi batek ez dakiela gaitasun digitalak eskuratzeko azpiegitura dagoela eta horrek esan nahi du aukera asko galtzen ari direla.
  - Bestalde, egungo azpiegitura eta zerbitzuei onurarik ez ateratzea existitzen direnik, non dauden kokatuta eta/edo ematen dituzten zerbitzuak zeintzuk diren ez jakiteagatik.
- Gomendio horren testuinguruan, hauxe barne hartu da:
- Laneko sareen bultzada eta baliabideak partekatzea.

- Azpiegituren eta zerbitzuen mapa bat eratzea herritarrek errazago identifikatu dezaten nora jo behar duten IKTei lotutako gaitasunak eskuratze aldera, zein zerbitzuek bermatzen duen (adibidez) arreta hizkuntza anizteta, ezintasunen bat daukaten pertsonentzako egokituak dauden ekipoak eskuragarri dauden ala ez, etab.
- Azpiegituren mapa horretan jasotako datuak Euskadiko Open Data ekimenaren [datuen katalogoan](#) argitaratzea, modu horretan, datu horiek formatu irekietan eta berriz erabili daitezkeen formatuetan erabilgarri egongo dira.
- Datu horien erabilera sustatzeko kanpainak abian jarzea (azpiegituren mapa), behin argitaratuta, aplikazio mugikorak, bistaratzeak, etab. egiteko eta herritarrentzako kontsultak egitea errazago izan dadila.

**Hartzailea:** Eusko Jaurlaritzako Ekonomiaren Garapen eta Lehiakortasunaren Saila, Hezkuntza, Hizkuntza Politika eta Kultura Saila, Enplegu eta Gizarte Politiken Saila; Lanbide; Emakunde; foru aldundiak; EUDEL; eta Euskadiko elkarteetako ehuna (giza eskubideei eta gizarte bazterkeria pairatzen duten edo pairatzeko arriskuan dauden kolektiboekin garatzen den lanari bereziki lotuta dagoena).

**Eremua:** IKTen erabilera, IKTak eskuratzea, gaitasun digitalak, zabalkundea, sentsibilizazioa eta IKTen hedapena.

8. **Deskribapena: berrikuntzak gaitasun digitalak eskuratzeko prozesuetan.** Noizean behin, IKTen gaineko prestakuntzak araututako prestakuntzaren eredu tradizionalak errepikatzen ditu (esparruak, metodologia, ikasleen ratioak, etab.). 6. zenbakiko gomendioan aipatutako estrategiaren eta gaitasun digitalen maparen osagarri gisa, herritarrek IKTen arloan prestatzera zuzendutako ekimen publikoak berrikusteko aukera proposatu da, baita gaitasun digitalei buruzko estrategia horretan adostutako proposamen metodologiko bat gaineratzea ere (ez murriztailea; aintzat hartu beharreko alderdiak jasotzen dituena; ez duena behartzen baizik eta iradokitzen). Hori guztia gaitasun digitalak eskuratzeko xedearekin, betiere, honako errealitate hauei erantzunez:

- **Dibertsifikazioa IKTen erabileretan.** Pertsona guztiek ez dituzte IKT-tresna berdinak behar. IKT-tresna guztiek ez dute kolektibo guztiek dituzten motibazioekin eta interesekin bat egiten, adibidez, adinekoekin horixe gertatu ohi da. Askoz zailagoa izango da IKTak kolektibo horri gerturatzea pantaila eta PC baten aurrean aulki batean esertzera behartzen baldin baditugu fitxategiak irekitzen, ohiko nabigatzaile baten bitartez bilaketa egiten, eta abar ikas dezaten, osasuna, segurtasuna eta horrelako alderdien bidez teknologia gerturatzen badiegu baino.
- **Esparruak eta denborak.** Ohiko eskolaren formatuak, hau da, ordubeteko iraupena, ikasleak ikastaroa ematen duen pertsonaren aurrean eserita, etab. adin, ikasketa-maila eta beste ezaugarri jakin batzuk dituzten pertsonekin funtzionatzen du. Beste pertsona batzuek, berriz, nolabaiteko gaitzespena garatu dute ikasteko egitura formal eta zurrun horien aurrean. IKT gaitasunak eskuratzeko, sormenak, dibertimenduak,

ongizateak, bizi-kalitateak askoz lotuago egon behar dute. Ez bakarrik haurrekin lan egiterakoan, baita (eta modu berezian) gainontzeko adin tarteeekin ere.

- **Aukeratu daitezkeen prestakuntza.** Pertsona bakoitzak, bere bizitzaren edo egoera pertsonal/profesionalaren une jakin bakoitzean, prestakuntza zehatz bat behar du. “Eskariaren araberrako eskaintza” kontuan hartu behar da prestakuntza programak eratzekoan (etorkizuneko hartzaileek IKT gaitasunak eskuratzeari lotutako prestakuntza planetan izango duten parte hartzea).
- **Bide-aniztasuna.** Gailu mugikorak erabiltzen dituzten pertsonen kopuruak gora egin duela kontuan hartzea garrantzitsua da eta, horrenbestez, *tablet*, *smartphone* eta antzerako gailuentzako prestakuntza eta aplikazioak garatzea.

**Hartzailea:** Eusko Jaurlaritzako Ekonomiaren Garapen eta Lehiakortasunaren Saila, Hezkuntza, Hizkuntza Politika eta Kultura Saila, Enplegu eta Gizarte Politiken Saila; Lanbide; Emakunde; eta Euskadiko elkarteetako ehuna (giza eskubideei eta gizarte bazterkeria pairatzen duten edo pairatzeko arriskuan dauden kolektiboekin garatzen den lanari bereziki lotuta dagoena).

**Eremua:** IKTen erabilera, IKTak eskuratzea, gaitasun digitalak.

9. **Deskribapena: gizarteratzeari eta gizarte sustapenari lotutako gaitasun digitalen gaineko prestakuntza ekintzak areagotzea.** Izan ere, kontua ez da bakarrik une honetan infobazterketa pairatzen duten edo pairatzeko arriskua duten pertsonak informazioaren gizartean gaineratzeko beharra. Galdera hau da: bizi-kalitatearen, eskubide berdintasunaren eta gizarte sustapenaren ikuspuntutik, zer egin dezakete IKTek pertsona horien alde? Horrek esan nahi du, adibidez, langabezia dauden pertsonen zuzendutako tailerrak abian jarri behar direla; horien kasuan, IKTek lana bilatzearekin edo ekin-tzailetzarekin zerikusia daukate (norbere kontura lan egitearen alternatiba gisa). Horrek beste aukera batzuk barne hartzen ditu, hala nola, gizarte zerbitzuei lotutakoak. Adibidez: etorkinak, errefuxiatuak, etxerik ez duten pertsonak, etab. Kasu horretan, IKTen erabileren gaineko ikaskuntza gizarte zerbitzuak eskuratzeko erraztasunari lotuta egon beharko litzateke (hau da, administrazioek kolektibo horien esku jartzen dituztenak baino hobekien), baita euskal gizartean integrazioa hobetzeari eta euren eskubideak bermatzeko lagungarriak izan daitezkeen bideak edo eragileak lortzeko erraztasunari ere.

Jarduera mota horri lotuta eta adibide gisa, honako hau jardun egoki bat litzateke: *START Progressive Learning in a New Culture proiektua*. Prestakuntza programa horren xedea Erresuma Batuko eta Irlandako biztanle etorkinen (Poloniatik eta Lituaniatik datozen pertsonak) prestakuntza aukerak hurbiltzea da. Edukiak lana bilatzea bezalako errealitateen ingurukoak dira eta IKTen erabilera bereziki azpimarratzen da.

- **Ezinbestekoa den hainbat erakunderen, elkarteren... arteko lankidetzak.** Batez ere, kolektibo eta

gizarte talde horiekin lanean dihardutenak, sinergiak eta baliabideak aprobetxatzeko xedearekin eta behetik gorako ekintzak sustatuz, herri-administrazioek horrelako ekintzak bideragarri bihurtzen dituzten baliabideak bermatu ditzaten. Adibidea: [Helduak Adi](#) Euskadiko adinekoren erakundeak integratzen dituen gizarte sarea da. Horrez gain, Adinekoren Partaide-tzarako Plan Integralaren sustapenaren alde lan egiten dute.

■ Halaber, **prestatzaileen prestakuntza ere halabeharrezkoa da**. Prestakuntza ekintza horiek ematen dituzten pertsonak IKTen gaineko ezagutza zabalak eduki behar dituzte baina, bereziki, ongizatearen, gizarte zerbitzuen eta Euskadiko gizarte esku-hartze sarearen alorrean adituak izan behar dute. Zentzu horretan, Euskadiko gobernuko zerbitzu publikoetako IKTen eremuko prestatzaileentzako prestakuntza ekintza monografikoak abian jartzea beharrezkoa da. Modu horretan, gizartearen berme-zerbitzuen gaineko ezagutzak eta gizartean dauden arrailak murriztera zuzenduta dagoen IKTen aplikazio espezializatua jorratuko dira.

■ **IKTei buruzko prestakuntzak aniztasunari erantzuteko gai izan beharko luke**. Horren inguruko adibide argi bat hauxe da: hizkuntza aniztasuna; izan ere, aintzat hartzen ez bada, pertsona asko (biztanle etorkinak, errefuxiatuak...) jarduera horietatik aldentzea eragingo duen oztopoa izan daiteke. [Etorkinen-tzako informazio publiko interesgarria barne hartzen duten atari publikoak](#) egoteak hain zuen ere haren funtzionalitatearen zati handi bat galtzen du bakarrik euskaraz eta gaztelaniaz eskuragarri baldin badaude. Kolektibo mota horrentzat informazio garrantzitsua jasotzen duten atari publikoak berrikustea gomentatzen da, eduki horiek Euskadiko biztanle etorkinak gehien erabili ohi dituzten hizkuntzetara itzultzen saiatuz (bereziki heldu berri diren pertsonentzat eta oraindik euskara edo gaztelania ikasteko denborarik eduki ez dutenentzat).

■ **Baliabide ekonomikoak, materialak eta antolakuntzari lotutako baliabideak bermatu behar dira**, kolektibo horiekin zuzenean lan egiten duten elkarte eta erakundeek beharrezkoak diren baliabideak eduki ditzaten. Horrek ez du esan nahi elkarteetako lokale-tako esparruak, ekipamenduak, eta abarrak bikoiztu behar direnik. Iradokizuna gehienbat mapaketa lanari zuzenduta dago, baita egun dauden beharrak eta baliabideak identifikatzera ere. Azken finean xedea da Eusko Jaurlaritzak baliabideen aprobetxamendu egokia eta behar bezalako eskuragarritasuna ahalbidetzeko beharrezkoak diren tresnak abian jar ditzala (bai ekipamenduari dagokionez, bai IKT eta aniztasunaren arloan espezializatutako langileei dagokienez). Tre-sna posibleen artean honako proposamen hauek egin dira: kolektibo horiekin lanean diharduten elkarte eta erakundeen beharren mapa egitea.

**Hartzailea:** Eusko Jaurlaritzako Ekonomiaren Garapen eta Lehiakortasunaren Saila, Hezkuntza, Hizkuntza Politika eta Kultura Saila, Enplegu eta Gizarte Politiken Saila; Lanbide; Emakunde; eta Euskadiko elkartearen ehuna (giza eskubideei eta gizarte bazterkeria pairatzen duten

edo pairatzeko arriskuan dauden kolektiboekin garatzen den lanari bereziki lotuta dagoena).

**Eremua:** IKTak eskuratzeko, IKTen erabilera, gaitasun digitalak.

10. **Deskribapena: e-administrazioa arriskuan dauden edo eten digitalak pairatzen dituzten kolektiboetara gerturatzeko** (bereziki, adinekoren, etorkinen eta ikasketarik ez duten pertsonen kasuan). Txosten honen testuinguruan egindako inkesta aztertu ostean antzeman ahal izan genuen moduan, herritarren atsekabearen arrazoi nagusien artean, lehenik eta behin, Eusko Jaurlaritzaren webgune eta zerbitzuekiko elkarreragina dago eta, jarraian, bilatzen den informazioa ez aurkitzea.

[Eusko Jaurlaritzako egoitza elektronikoa](#) berrikusiz gero<sup>69</sup>, “gizarte gaiak” izeneko kategoriaren bitartez, emaitza bakarra ematen digu: “[gizarte larrialdietarako laguntzak](#)”<sup>70</sup>. Baliabide ekonomikorik ez duen eta ikasketak maila baxua duen (euskara eta gaztelania maila, irakurmenean zein ulermenean, tartekoa edo baxua dela aintzat hartuta) familia etorkin baten ikuspuntutik zerbitzu hori aztertuz gero, zenbait oztopo agerian jarri dira, beste batzuen artean:

■ Zerbitzua topatzea ez da lan erraza. Egoitza elektronikoen hasierako web gunearen “familia” erabil-tzaileen segmentazioaren bitartez sartuz gero, ez da gizarte larrialdietarako laguntzen zerbitzua agertzen. Aukera hori bakarrik agertzen da bilatzailean idazten dugunean edo “gizarte gaiak” profilaren bitartez sartzen garenean. Zerbitzuaren izen zehatzaren berri eduki ezean edo kokapen zehatza ezagutu ezean, hainbat profiletatik nabigatzea beharrezkoa da zerbitzuarekin topo egin ahal izateko.

■ Izapidearen oinarritzko informazioaren argitasuna nahikoa mugatua da. “Nori zuzendua” atalean (edozein pertsonak bertan bilatu behar du laguntzen onuradun den ala ez egiaztatzeko) honako testu honekin topo egin dezakegu: “*Gizarte Larrialdietarako Laguntzak kobratu ahal izango dituzte urtarilaren 18ko 4/2011 Dekretuaren 5.artikuluak ezarri dituen baldintzak betetzen dituena*”. Web guneak araudira jotzeko esteka barne hartzen badu ere, benetan zaila da adibidetzat hartu dugun profila duen familiarentzat zerbitzu hori aztertzea eta onuradun posibleen artean dauden ala ez ulertzea edo identifikatzea.

■ Informazioa euskaraz zein gaztelaniaz eskuratzeko aukera dago baina horrek ez dio gure adibidean jasotako familia etorkinari laguntzen, hizkuntza horietan haren irakurmen eta ulermen maila baxua edo erdi mailakoa baita.

<sup>69</sup> Berrikuspen hori 2012ko uztailaren burutu zen.

<sup>70</sup> Eusko Jaurlaritzaren web orrialdean azaltzen den moduan, “gizarte larrialdietarako laguntzak izaera ekonomikoa eta diru-laguntza izaera duten eta aldizka ematen ez diren prestazioak dira, gizarte bazterkeria egoera prebenitzeko, arintzeko edo leuntzeko beharrezkoak diren gastu zehatzei (ohiko edo ezohiko izaera dutenak) aurre egiteko nahikoak ez diren baliabideak dituzten pertsonen zuzenduta daudenak”.

- Gauzatu nahi den izapideari buruzko kontsulta bat egin ahal izateko eskuragarri dauden tresnen ikuspen eskasa. Eskuineko alde bateko barran [Zuzenean](#) (herrarrentzako arreta) zerbitzuan sartzeko banner bat dago baina, hala ere, ez dago, zerbitzu hori kontsulta mota jakin batzuk egiteko erabili daitekeela azaltzen duen erreferentzia argirik.
- Zerbitzuarekiko elkarreraginaren erraztasuna: “eskaera” ekintzaren ganean klikatzerakoan, leiho bat agertzen da eta aurrez aurre egin beharreko izapide bat dela jakinarazten digu. Horren gain, aurkeztu beharreko agiriak zeintzuk diren azaltzen du. Azalpen horietako batek, hitzez hitz aipatzen du “*urtarrilaren 18ko 4/2011 Dekretuaren 16. artikulua xedatutako agiriak aurkeztu beharko dira*”. Horrek esan nahi du, ustezko erabiltzaileak zerbitzu-fitxa osoan zehar nabigatu behar duela araudi horretara heltzeko esteka aurkitze aldera. Halaber, bertan jasotako informazioa itzuli eta interpretatu beharko du.

Beraz, antzemandako oztopo horiek erreferentziatut hartuta, Eusko Jaurlaritzako egoitza elektronikoa eskaintzen dituen zerbitzu elektronikoa berrikustea gomendatu da, bereziki, eten digitala eta/edo gizarte-etena pairatzen duten edo pairatzeko arriskua duten pertsonen zuzenduta dauden edo horien onuradun izan daitezkeen zerbitzuen kasuan (hau da, adinekoak, kultura maila baxua duten pertsonak, etorkinak). Horren harira, neurriak hartu behar dira arlo hauetan hobetzeko:

- Zerbitzuen **irigarritasuna eta erabilgarritasuna**, edukien eskuragarritasunari, zerbitzuko fitxen edukia beste hizkuntza batzuetara itzultzeko aukerari eta erabiltzaileek zalantzak edukiz gero edo nola jarraitu ez badakite [online](#) euskarriren bat eskaini ahal izateko eskuragarri dauden kanalei arreta berezia eskainiz.
- **Itzulpena, interpretazioa eta administrazio hizkuntzaren sinplifikazioa** (kudeaketaren ikuspegitik beharrezkoa da baina erabiltzaileentzat hurbilekoa eta lauagoa izan beharko litzateke).
- **Zerbitzuen katalogoa zabaltzea** (bereziki, familiei, gizarte gaietara eta gizarte bazterkeria pairatzeko arriskuan dauden pertsonen lotutakoak). Egoitza elektronikoen orrialde nagusiaren bilatzailearen aukera aurreratuen bidezko [bilaketa](#) bat, honako hauek irizpidetzat hartuz (hartzaileak): “etorkinak” eta “adinekoak” (kolektibo horientzako zerbitzuak bilatuz), sistemak ez digu inolako emaitzarik [itzultzen](#).

**Hartzailea:** euskal herri-administrazioak.

**Eremua:** IKTen erabilera, IKTak eskuratzea, irigarritasuna.

11. **Deskribapena: e-inklusioari zuzendutako profil profesional berriak sortzea.** E-inklusioa hizpide duten profil berrien sorrera bultzatu nahi da. Jardun egokiaren adibide bat hauxe da: Erresuma Batuko [DAIN](#) (*Digital Activist Inclusion Network*) proiektua. Bertan, gaitasun digitalen arloan ikasteko praktika egokiak identifikatu dira, ekintzaile digitalak prestatze aldera. Azken horiek komunitatean lanean arituko dira inklusio digitala sustatzeko eta IKTen erabilera suspertzeko, betiere, borondatezko lanaren laguntzarekin.

Borondatezko lana langabezia dauden pertsonen burutu dezakete, baita Euskadiko enpresen (bereziki, oinarri teknologikoa daukaten horien) gizarte ardura korporatiboaren programek lagatuko langileek ere. Horiek astean 2 edo 3 ordu inbertitzeko eskuragarritasuna eduki beharko dute eta, tarte horietan, IKTen eta urrunen dauden kolektiboan (landa guneeetan bizi diren pertsonak, gutxiengo etnikoak, adinekoak, etab.) arteko gerturatzea sustatuko dute.

Profil berri horiek ez dira gaur egun eskuragarri dauden baliabideen alternatibatzat jo behar, kapilaritate handiagoa eta IKTen eta testuinguruaren zein pertsona onuradun behar errealean arteko lotura ezartzeko aukera ematen duen osagarria baita.

**Hartzailea:** Eusko Jaurlaritzako Lehendakaria eta Enplegu eta Gizarte Gaietako Saila.

**Eremua:** IKTen erabilera, IKTak eskuratzea, IKTen gaineko prestakuntza.

12. **Deskribapena: IKT eta adinekoen arteko gerturatzea bultzatzea.** IKTak adinekoei hurbiltzea helburu duten ekintzak areagotzea beharrezkoa da. Orain dela zenbait urte bai [Euskadin](#) bai [Europa mailan](#) gizarte garpenerako eta informazioaren gizarte lotutako politika ia guztietan ezarri den arau bat izan arren, gaur egun (txosten berezi honetan aditzera eman den moduan) pertsonen adinari lotutako eten digital argiek jarraitzen dute. Zahartzen diren pertsonen ahalmenak eta gaitasunak optimizatzeko gomendioen norabidea hauxe da:

- Zahartze aktiboari eta IKTei lotutako ikasketa berrien sarrera erraztea, araututako zein arautu gabeko ikastaro eta prestakuntza ekintza, [esperientziaren eskolen](#) eta abarren bidez.
- Generazioen arteko jarduerak sustatzea; izan ere, horiei esker adinekoek eta gazteek IKTen gaineko ikaste prozesua partekatu ahal dute ezagutzak eta esperientziak trukatzuz. Europar Batasuneko adinekoentzako IKTen gaineko ikaskuntza estimulatzeko [Silver proiektua](#) izeneko horren adibide bat da.
- *Tablet*, azken generazioko *smartphone*, mugimenduaren bitartez elkarri eragitea ahalbidetzen duten kontsolak eta garapen bidean dauden antzerako teknologiak baliatzea zailtasunak, zerbait izorratzeko beldurra eta antzerako irizpideek eragin duten “digitalaren” aurkako gaitzespena eta erresistentzia gainditzeko. Modu horretan, etxeko eremuan integratzea lortu nahi da.
- Une honetan jorratzen ari diren gaiak jendaurrean aurkezteko aukera ematen duten proiektuak burutzea, elkarlana sustatuz eta IKTen erabilera aurreratuak adinekoen artean bultzatuz. [Iniziatiba duten adinekoak](#) izeneko proiektu nazionala lan-ildo horren adibide bat da. Horren bidez eta egoitza zentroen eta adinekoei laguntzeko zentroen, telezentroen, Internet erabiltzeko zentro publikoen, adinekoen elkarten eta kolektibo horri laguntzeko zentroen laguntzari esker, eremu horretako ekintza berritzaileak [aditzera](#) eman dira eta hori jarduera horiei jarraitutasuna emateko eta beste gune geografikoetan ekimen berriei ekiteko baliagarria izan da.

- Bereziki adinekoei zuzendutako eduki digitalak eta sareko esparruak sortzea. Eduki mota horien adibide bat ematearren **SOCIAL TV** delakoa aipatu dezakegu. Proiektu hori **Gurutze Gorriak** koordinatu du eta adinekoentzako topagune bat da. Horren bitartez, euren telebistak erabili ditzakete euren lagunekin, senideekin eta abarrekin komunikatzeko, egunerokotasunaren berri edukitzeko, aisialdiko jarduerak burutzeko eta esperientziak trukatzeko.

**Hartzailea:** euskal herri-administrazioak.

**Eremua:** IKTak eskuratzea, IKTen erabilera, adinekoak, gaitasun digitalak, eduki digitalak.

13. **Deskribapena: aniztasun funtzionala pairatzen duten eta mendekotasun egoeran dauden pertsonen autonomia pertsonala sustatzea IKTen bitartez.** Pertsonak euren autonomia pertsonala handitzeko aukera daukatela ziurtatu nahi da, euren egunerokotasunean IKTak aplikatzen dituztela bermatuz, hala nola, inguru inteligenteak, gailuen arteko elkarrengarritasuna, telelaguntza, telemedikuntza... garatuz. Horrek esan nahi du tartean dauden alderdi guztiek konpromisoa hartu dutela, beraz, Euskadiko Gobernuari gomendatzen zaio (pertsona horien eskubideen bermatzaile den heinean) une honetan gai horiek jorratzen dituzten hainbat eragileren (unibertsitateak, zentro teknologikoak, enpresa pribatuak, aniztasun funtzionala duten pertsonen kolektiboek osatutako erakunde zehatzak, elkarteak ehuna eta Eusko Jaurlaritza bera) arteko lankidetzaren buru izan dadila. Horren guztiaren helburua aniztasun funtzionala duten pertsonak eta mendekotasun egoeran dauden pertsonak ikerketa eta garapen prozesuaren erdigunean kokatzea da.

Horri dagokionez, hauexek dira iradokizunak:

- Enpresen, elkarteak ehunaren, aniztasun funtzionala duten pertsonen eta mendekotasun egoeran dauden pertsonen artean hausnarketa eta azterketa esparruak bultzatzea; izan ere, haiek dira kolektibo horiek behar zehatzen berri dutenak.
- I+G+b prozesu horien ondoriozko berrikuntzek laguntza jaso dezaten merkaturatu arteko iragaitean eta biztanle onuradunengana hel daitezten. Horretarako, kolektibo horiei laguntza eskatu nahi zaie, gailuak, azpiegitura teknologikoak, etab. eskura ditzaten, euren autonomia errazten duten laguntza ekonomikoak bitartez eta euren etxeetan bertan lagundutako esparru inteligenteak eratuz.
- Euskadiko IKT sektorea suspertzea pizgarrien, sentsibilizatzeko ekintzen, negozio aukeren gaineko zabalundearen eta abarren bidez, aniztasun funtzionala duten pertsonen zuzendutako tresnak, aplikazioak... espezializatzeko eta garatzeko aldera. Horrela, informazioaren gizartearen berdintasunez sartzeko duten eskubidearen betetzea erraztuko da.
- Enpresa edo gizarte jarduerari zuzendutako **zerga-pizgarri handiagoak**, I+G+b inbertitzeko eta alternatibak bilatzeko enpresa-inbertsioak epe motzean zerga-itzulerarik ez baldin badauka. Laguntza mota horrek enpresa ehunaren barruan jarduera berritzailea sustatzeaz gain, herri-administrazioek krisi garaian

helburu horretarako erabiltzen duten aurrekontua murrizten laguntzen du.

- Euskadin irisgarriak diren IKT produktuen katalogoak eratzeko, **beste gida edo baliabideen katalogoak** dauden moduan, hala nola, ezintasunen bat duten pertsonentzako laguntza teknikoak eta prestazioak barne hartzen dituztenak. Katalogo horrek informazioa eskaini beharko luke gaietan banatutako arloen, hitz gakoen, hornitzaileen, horiek eskuratzeko deskontuek edo ordainketa salbuespenez gozatzeko laguntzen eta abarren arabera.

**Hartzailea:** euskal herri-administrazioak.

**Eremua:** IKTen sarrera, IKTen erabilera, IKTak eskuratzea, aniztasun funtzionala, mendekotasuna, I+G+b.

14. **Deskribapena: prestakuntza okupazionala programetan IKT gaitasun biziagotzea.** Gaur egun, IKTak ia ekoizpen sektore guztietan daude, beraz, horien erabilera ezinbestekoa da une honetan enplegu bat eskuratu nahi duen edozein pertsonarentzat (epe motzean edo ertainean, lanpostuaren arabera). Horregatik, hona hemen gure gomendioak:

- **IKT tresnen erabilerari lotutako prestakuntza gaineratzea** (ekoizpen sektoreen eta ikasleen behar anitzei egokitutakoa) langabezia dauden pertsonak lan-merkatuan sartzera zuzendutako prestakuntza ekintza guztietan (zeharka, prestakuntza eremu guztietan).
- Modu berean, langabetuentzako **prestakuntza eskaintza, IKTen arloan zein IKT profil profesionalen arloan**, handitzeko iradokizuna egin nahi izan dugu, bereziki, aniztasun funtzional motaren bat pairatzen duten eta langabezia dauden pertsonen zuzendutakoa. Gaur egun, euskal enpleguaren atarian (*Lanbide*) IKTei lotutako prestakuntza eskaintzari buruzko bilaketa bat egiterakoan<sup>71</sup> eta hartzaileen arabera iragaziz gero (ezintasunen bat duten pertsonak) sistemak **itzulitako emaitza** hauxe da: 0 baliabide.

**Hartzailea:** Enplegu eta Gizarte Politiken Saila eta Ekonomia Garapena eta Lehiakortasunaren Saila.

**Eremua:** IKTak eskuratzea, IKT gaitasunak, enplegua.

15. **Deskribapena: Internetaren erabilera segurua bultzatzea ikuspegi global eta integratzaile batetik abiatuta:**

- Adingabeekin zein hezkuntza komunitateko gainetarakoekin (irakasleak, gurasoak) lan eginez hedapena, sentsibilizazioa eta prestakuntza abiapuntu izanik.
- Garatzaile, eduki sortzaile eta webaren garapenean, arlo publikoan zein pribatuan parte hartzen duten bestelako profil, erakunde eta organismoen aldetik web seguruago bat sortzeko konpromisoa bilatuz.

Hori oinarritzat hartuta, ondorengo ekintzak gomendatzen dira:

- Interneteko erabilera seguruari buruzko erreferentziako atari (eremu) bat sortzea. "Leihatila bakarreko" sistema horren helburua atari berean adingabeentzako eduki egokiak, erabilera seguruari buruzko

<sup>71</sup> Atarian egindako bilaketaren data: 2012ko uztaila.



hedapenerako eta sentsibilizatorako jarduerak eta materialak, familiari eta irakasleei zuzendutako edukiak eskaini ahal izatea da, bai eta adingabeentzako egokiak ez diren edukiak eta IKTen erabilerari loturiko uestezko egoera arriskutsuak salatu ahal izateko leku bilakatzeko ere.

- Euskadiko adingabeen eta nerabeen artean IKTen erabilera segurua eta arduratsua sustatzeko estrategia garatzea.
- Adingabeen zuzendutako eduki berritzaileen sorrera sustatzea, IKTak inguru seguruetan osotasunean erabili ahal izateko aukera eskaintzen dutenak.
- IKTen erabilera segurua eta arduratsua euskal hezkuntza sistemaren curriculum-diseinuan integratu dain bultzatzea.

**Hartzailea:** Eusko Jaurlaritzako Hezkuntza, Hizkuntza Politika eta Kultura Saila eta Ekonomia Garapen eta Lehiakortasun Saila.

**Eremua:** IKTen erabilera, IKTak eskuratzea, gaitasun digitalak, IKTen erabilera segurua eta arduratsua, testuinguru estrategikoa.

16. **Deskribapena:** **IKTen arloan, prestakuntza lantzea biztanle adingabe eta gazteen artean, betiere, elkartasun, konpromiso, kreatibitate eta berdintasuneko balioei lotuta.** Ez dago zalantzarik “natibo digitalak” deiturikoek IKTen erabilera bizia eta aurreratua egiten dutela. Ordenagailua, Internet, arbel digitalak, geletako ohiko elementu bihurtu dira. Komunitate horrek (adingabe eta gazteak) teknologiarekiko duen hurbiltasunaz baliatu behar gara honako esparruetan eragina duten ekimenak garatzeko:

- Sormenari eta kultura zientifiko, berritzaile eta ekin-tzailearen sustapenari loturiko IKTen erabilera berriak.
- IKTak eta gizarte konpromisoa, IKTen erabilera berritzailea helburu komunak lortzeko eta komunitatearentzat, herrialdearentzat, gizartearentzat... onuragarri bilakatu daitezten.
- Emakumeen eta gizonen berdintasuna jorratzeko baliagarri diren IKTak hizpide dituzten **duela gutxi azterlanek** azaldu dute oraindik ere genero-eten digitala dagoela gizonen eta emakumeen IKTen inguruan egiten dituzten erabilerei dagokienez, baita hainbat ikasketa burutu eta hautatzerakoan dauden bokazioei dagokienez ere (bokazio zientifikoen portzentaje handiagoa gizonen artean emakumeen artean baino).

Baldintza horiek betetzen dituzten jardueren adibide batzuk honakoak dira:

- [First Lego League Euskadi](#).
- [Scratch Eguna](#).
- [Campus TIC Fantastic Park](#).

**Hartzailea:** Eusko Jaurlaritzako Hezkuntza, Hizkuntza Politika eta Kultura Saila eta Ekonomia Garapen eta Lehiakortasun Saila; Emakunde.

**Eremua:** IKTak eskuratzea, ahalduntzea, sormena, berrikuntza, elkartasuna, berdintasuna.

17. **Deskribapena:** **gizarte bazterkeria pairatzen duten edo pairatzeko arriskuan dauden gazte eta adingabeengan arreta jartzea**, izan ere, euren adinean, IKTeatetik

“deskonektatuta” geratzearen “kostua” oso altua da. Talde horiekin bideratutako ekintzak adingabe eta gazte horien sormena IKTen erabileraren bidez erabiltzea sustatzen duten eta euren bizi-kalitatean (osasuna, lana, prestakuntza...) zuzenean eragina duten gaitasun eta jardueren garapenari lotutako planteamendu berritzaileen bidez jorratzea gomendatzen da.

Orientazio ildo horretako jarduerak adibide bat [Omnia proiektua](#) litzateke, diskriminazio positibora eta aukera berdintasunera bideratutako programa baten alde egin baita, gizarte talde bati zehazki zuzendutako ekintzak egiten direnean gerta daitekeen estigmazio eta segregazioa saihestuta.

**Hartzailea:** Eusko Jaurlaritzako Hezkuntza, Hizkuntza Politika eta Kultura Saila, Ekonomia Garapen eta Lehiakortasun Saila eta Enplegu eta Gizarte Politiketako Saila.

**Eremua:** IKTak eskuratzea, gizarteratzea, sormena, berrikuntza, ahalduntzea.

18. **Deskribapena:** **IKTen jarrera eta erabilerei buruzko (oztopoak, inhibitzaileak, motibatzaileak...) azterlan eta ikerketen burutzapena areagotzea** eten digitalei, euren egile eta arazoiei buruz gaur egun dagoen ezagutza osatzeko eta eten horiek jorratzera bideratutako lan-ildoak eraikitzeke oinarri sendoagoak edukitzeke.

**Hartzailea:** Eusko Jaurlaritzako Lehendakaritza.

**Eremua:** eten digitalak, azterlanak, ikerketa.

19. **Deskribapena:** **informazioaren gizarteari buruzko estatistika ofizialetan adierazle berriak sortzea eta gaineratzea eta kolektiboek ikusgarritasuna eskaintzea.** Adierazle horiek IKTen bidez eskuratzeko-etenari eta partaidetza-etenari buruzko informazio gehiago lortzera bideratuta egon beharko dira.

Era berean, eten digitalak sakonki aztertu nahi baditugu, euren arazoien ikuspuntutik baina baita jasaten dituzten pertsonen ikuspuntutik ere, beharrezkoa da ikerketa lan guztietan eten horien eragina pairatzen duten taldeak gaineratzea. Aniztasun funtzionala duten pertsonak, etorkinak, gutxiengo etnikoak... ez agertzean ezin da errealitateari buruzko ikerketa zorrotzik egin, bilakaera azterketarik burutu edo une honetan talde horien eten digitalak arintzeko bideratzen ari diren ekintzek sortzen duten eragina aztertu.

Datozen urteei begira uneko [Euskadiko Estatistika Plana](#) berrikusi behar dela kontuan hartuta (egungoa 2012an amaitzen da), e-inklusioaren (gizartearen informazioa) alorreko uneko inkestak berrikustea gomendatzen da eta uneko IKT errealitatea tresna egoki batekin aztertu ahal izateko gaineratu behar diren adierazle berriei buruzko beharrak ebaluatzea.

Txosten berezi honen esparruan egindako inkestak inkesta horiek betetzerakoan adibide gisa har zitezkeen ikerketa-aldagaiak ditu.

**Hartzailea:** Eusko Jaurlaritza, Eustat (Estatistikako Euskal Erakundea).

**Eremua:** eten digitalak, azterlanak, ikerketa, estatistika.

20. **Deskribapena:** **gaitasunak eta zerbitzu bikoiztuak berriro antolatzeko protokoloa.** Lan-bilkuretan parte

hartzera gonbidatutako aditu ezberdinek bat egin dute, beste alderdi batzuen artean, adierazi dutenean une honetan Euskadin gizarte inklusioaren eta inklusio digitalaren alde lan egiten duten pertsona, erakunde, organismo, etab. guztien sareko lana beharrezkoa dela, horrela bada, saihestuko litzateke egile horietako batzuek baliabiderik ez edukitzea, helburu bera lortzeko erakunde ezberdinetatik inbertsioetan bikoiztasunak jasaten ditugun bitartean.

Erantzukizunak koordinatzeko, baliabideak partekatze eta gizarte-inklusiara eta e-inklusiara bideratutako baliabide publiko eta pribatuaren kudeaketan bikoiztasunak saihesteko protokolo bat burutzea gomendatzen da.

Protokolo hori idatzi eta adostea gizarte-etenak eta eten digitalak murriztera bideratutako Euskadiko zerbitzuen mapa identifikatzen lagunduko luke, baita esparru horretan inbertsio publiko eta pribatuaren eraginkortasuna handitzen ere, lankidetzaren hitzarmenetan islatu daitezkeen sinergiak ezarri eta ekintza-sareak sortuz.

Sortze-prozesua (azterketa, adostasuna, estrategiaren definizioa, metodologia, etab.) parte hartzailea izan behar da, interesa duten pertsona guztiak (erakunde publiko eta pribatuak, hirugarren sektorea, aktibistak, etab.) parte hartzera gonbidatuta egon beharko lirateke eta Ararteko erakundea egon behar da buruan.

**Hartzailea:** Eusko Jaurlaritzako Lehendakaria.

**Eremua:** eten digitalak, gizarte inklusioa, e-inklusioko.

21. **Deskribapena:** berdintasunaren bermea funtzio publikoan. *ONCE Euskadirekin* elkarrizketak eduki ondoren, Ararteko erakundeari helarazi diote funtzio publikorako sarbidean aniztasun funtzionala duten pertsonen bazterkeria egoerak behin eta berriro erregistratu dituztela. Adierazi digutenaren arabera, legeak ezarritako sartzeko proba formalak gainditu ondoren, aniztasun funtzionala duten pertsonen postuaren funtzioetarako egokitasun proba bat egin behar dute. Hainbat egoeratan erakunde publikoak ez dituzte pertsona horiek gainditu bazterkeria egoera bat eraginez, izan ere, aniztasun funtzionalik ez duten gainerako pertsonen ez dute prozesu hori burutu behar.

Salaketa hori oinarritzat hartuta eta aniztasun funtzionala duten pertsonen eskubideen urraketa argia dela ulertuta, Eusko Jaurlaritzak administrazio lanean jatorrizko hardware eta software (bereziki) irigarria eta erabilgarria dagoela bermatu behar du, lanpostuaren irigarritasuna erraztuz, itsuak diren edo ikusmenari lotutako ezgaitasunen bat duten pertsonen, adibidez, euren lanpostua gainerako langileek dituzten baldintza berdinetan burutu ahal izateko.

**Hartzailea:** Herri Administrazio eta Justizia Saila; Herri Administrazioako Euskal Erakundea.

**Eremua:** irigarritasuna, erabilgarritasuna, eten digitala, berdintasuna.

22. **Deskribapena:** Eusko Jaurlaritzako herri-administrazioetako atariren irigarritasuna eta erabilgarritasuna bermatzea. *ONCE Euskadirekin* izandako elkarrizketen bidez helarazi digute hainbatetan, web atariak irigarritasuneko araudia betetzen duten arren, hainbat alderdi

daudela, hala nola, edukiak egituratzeko modua, itsuentzako web publikoetan nabigatzeko oztopo bihurtu direla.

Euskadiko herri-administrazioen atari publikoaren edukietarako irigarritasuna errazte aldera, gomendatzen dugu, Estatuko Administrazioako atariak, [www.060.es](http://www.060.es), edo *Immersok* bezalaxe, web edukiak entzuteko aukera eskaintzen duen sistema gaineratu dadila. Irakurritako testua eta audio-nabigazioa duen nabigazio-baliabide hori bereziki erabilgarria da, ONCEko ordezkariak azaldu diguten moduan, izan ere, beti zuzena ez den eduki eta menuen antolamendua bezalako oztopoak gainditzeko aukera eskaintzen du eta sarbide oztopoak areagotzen dituzten aparteko tresna eta utilitateak erosteko, erabiltzen ikasteko, etab. beharra arintzen du.

**Hartzailea:** Eusko Jaurlaritzako Herri Administrazio eta Justizia Saila.

**Eremua:** irigarritasuna, erabilgarritasuna, eten digitala, berdintasuna.

### 13.2. Euskadin IKTen bidez gizartearen eta eremu publikoan herritarren partaidetza sustatzeko gomendioak

1. **Deskribapena:** herritarrek IKTen bitartez Euskadiko gai publikoetan parte hartzeko daukaten eskubidea aitortzen eta arautzen duen araua (lege maila duena) eratzeko proposamena. Euskadiko herritarren partaidetzarako eskubidea arautzen duen lege mailako araua burutzeak herritarren eskubide subjektiboak, banaka zein taldeka, bermatzen dituen partaidetzarako esparrua xedatu beharko luke, IKTen inklusioa partaidetza prozesuetan bide eta mekanismo berriak eskaintzen dituzten tresna gisa ikusita. Zentzu horretan, *Gardentasunari eta Gobernu Egokiari buruzko Legearen Aurreproiektuak* herritarren partaidetzari zuzendutako IV. tituluko 26. artikuluan zehazten zuenez “*EAEko Administrazio Orokorri baimena ematen zaio erregelamendu-mailako arau batzuk eman ditzan, herritarren partaidetza legitimatzeko, bideratzeko eta egituratzeko tresna batzuk ezartzeko beharrezko izango direnak*”. Lege maila duen arau horrek Ararteko erakundetik herritarren partaidetza behar bezala burutzeko ezinbestekotzat jotzen ditugun printzipio nagusiak jaso beharko litzuke<sup>72</sup>:

- **Unibertsaltasuna.** Parte hartzea interesa duten pertsona guztien eskuan egon behar da. 30/1992 Legeak xedatu duenarekin bat eginez, interesdunak nortzuk diren jakiteko honi erreparatu behar zaio: ebazpenak pertsona horien interes legitimoetan (norbakoarenak zein taldearenak) eragina eduki ote duen.
- **Proaktibotasuna.** Administrazioak partaidetza helburu duen prozesuko interesdunak identifikatu behar

<sup>72</sup> “Arartekoaren 12/2011 Gomendio orokorra, abenduaren 28koa. Demokrazia eta herritarrek parte hartzea. Bereziki, ingurumen-prozesuetan parte hartzea” agiritik hartutako printzipioak. [http://ararteko.net/RecursosWeb/DOCUMENTOS/1/0\\_2626\\_1.pdf](http://ararteko.net/RecursosWeb/DOCUMENTOS/1/0_2626_1.pdf).

ditu, interesdun gisa ager daitezten eskatzeko, ofizioz (horrek, bereziki, elkarteak barne hartzen ditu).

- **Laguntza.** Administrazioak behar diren bitartekoak eskuratu behar ditu, funtzionarioek eta agintariek jendeari laguntzeko eta aholku emateko, parte hartzea herritarrentzat errazagoa izan dadin.
- **Neutraltasuna.** Parte hartzeak ez du inola ere hauxe eragin behar: prozeduran interesdun diren pertsonak euren parte hartzeagatik zigortuak izatea.
- **Gardentasuna.** Parte hartzeko prozesua baino lehen, bitarteko egokien bidez (elektronikoak barne) administrazioak eskuragarri daukan informazio guztia jakitera eman behar da (partaidetza prozesua baino lehen, bitartean eta ondoren).
- **Erabaki irekia.** Funtsezkoa da parte hartze prozesu bat irekitzea erabakia zabalik dagoenean.
- **Benetako parte hartzea.** Euskal Autonomia Erkidegoko Auzitegi Nagusiak, 2009ko otsailaren 16ko epaian, adierazi zuen entzunaldi izapidea ez dela betetzen espedienteak eragindakoei jakitera emate hutsaz; aitzitik, “*elkarrizketako, parte hartzeko eta errespetuko*” prozedura bat gauzatu beharra dago. Zenbait mekanismo daude elkarrizketa hori bultzatzeko: herritar foroak, herri-epaimahaiak.
- **Benetako parte hartzea.** Parte hartzea benetakoa izan behar da eta emaitzan eragiteko gaitasuna izan behar du. Halaber, kontuan hartu behar da eta baloratu behar da.
- **Segurtasun juridikoa.** Parte hartzeak esparru juridiko propioa eskatzen du eta ondoko hauek izan behar ditu barnean: parte hartzeko prozesuaren oinarri diren printzipioak, aplikazio eremua, funtzionamendu arauak eta, oro har, integratu nahi diren gizarte zibileren estamentu edo sektoreen identifikazioa.
- **Adiskidetzea eta prebentzioa.** Parte hartzea, interesdunen ekarpenak erabakiak hartzerakoan bideratzen dituen metodo gisa, gatazkak konpontzeko mekanismo baliotsua ere bada. Era berean, araudi horrek herritarren partaidetzaren jasagarritasuna bermatzeko gobernuak duen beharra jaso behar du, aurrekontu murrizketa edo doiketa beharrezkoa den uneetan jarduera esparru hori uztea ekiditen duten partida ekonomikoen erreserba bermatuz.

**Hartzailea:** Eusko Jaurlaritzako Lehendakaritza.

**Eremua:** araudiaren esparrua.

2. **Deskribapena:** informazioaren gizartearen garapenean eta digitalki barneratzaileak diren gizartearen garapena lortzeko ahaleginean, denbora tarte batean burutu beharreko jarduerarako estrategia ildoak marrazteko esparru estrategikoak, aurreikusitako helburuak eta hura lortzeko abian jarriko diren mekanismo eta baliabideak definitzen diren bezalaxe, **Euskadiko herritarren partaidetzak** ezaugarri horiek dituen **agiri estrategikoa behar du**. Horretarako, mahai gainean jarri diren gomendioak honakoak dira:

- Beste plan estrategikoetan zeharkako presentzia, Euskadiko ekonomia eta gizarte garapenerako esparru estrategiko handietan (**zientzia, teknologia eta berrikuntza planak**, **Euskadiko Agenda Digitala**, **Tokiko**

**Agenda Digitalak**, etab.) herritarren partaidetzaren presentzia bermatuz. Inklusio digitala, berrikuntza, herritarren partaidetzari guztiz lotuta dauden esparruak dira, beraz, horrek leku garrantzitsua izan behar du esparru horietako definizio estrategikoetan.

- Euskadiko herritarren partaidetzako plan zuzentzaile bat garatuz, Eusko Jaurlaritzak helburuak, metodoak, bitartekoak, mekanismoak, burutzapen epe bati lotutako lehentasunak eta konpromisoak, etab. ezartzeko aukera eskainiko dion plangintza ezarri ahalko du. Plan zuzentzaile horren helburu nagusiak honako hauek izan beharko dira:
  - Euskadiko Gobernuaren herritarren partaidetza eredu definitzea, partaidetza horren irismena argi eta garbi zehaztuz (zein esparrutan hartuko da aintzat herritarren partaidetza? zeinetan ez? zein izango da partaidetza horren helburua? nola integratuko da erabakiak hartzerakoan?..).
  - Partaidetza eredu bideratzeko aukera eskainiko duen partaidetza sistema definitzea (bitartekoak, metodologia...).
  - Zehaztutako partaidetza sistemarekin partaidetza eredu eskuratu ahal izateko jarraitu beharreko ildo estrategikoak identifikatzea. Ildo horiek ekintza fokuak lehentasunen inguruan taldekatzeko aukera eskaintzen dute, plano estrategikoa helburu operatiboagoetan eta ekintza-neurrietan zehazteko aukera.
  - Plano estrategikotik sortzen diren proposamenen erantzuna eman ahal izateko administrazioan beharrezkoak diren barne fluxuak eta baliabideak diseinatzea (baliabide materialak, giza baliabideak, beharrezkoak diren gaitasunak, erantzukizunak, sailen arteko lankidetzea, etab.)
  - Egoera objektiboaren eta unekoaren arteko konparaketa egiteko aukera eskaintzen duten adierazleekin ebaluazio sistema definitzea eta Euskadiko herritarren partaidetzari buruzko monitorizazioa egitea.
  - Herritarrek eta Euskadiko gizarte egile nagusiek (erakundeak, entitateak, elkarteak...) plan zuzentzaile burutzean parte hartzen dutela bermatuz.

**Hartzailea:** Eusko Jaurlaritzako Lehendakaritza.

**Eremua:** esparru estrategikoa.

3. **Deskribapena:** **elkarrekiko erantzukizun informatuaren erdurantz iragaitea sustatzea, informazio neutral, objektibo eta kalitatezkoaren bermearrekin.** Parte hartu ahal izan aurretik, informazioa eduki behar da eta hainbat interesgatik deformatu eta distorsionatu gabeko errealiterata egokitutako irizpidea sortu. Nathan Gardelsek adierazten duen moduan, “*deliberazio sendoaren oinarria informazio neutrala, objektiboa eta kalitatezkoa egotean datza. (...) Arreta merkatuzokoetarako monetizatzearen aginduak salmentarako editatzen den informazioaren kalitate objektiboa kutsatzen du*”. Gaur egun bitarteko berriak daude, hala nola, gizarte sareak, herritarrei iturriak aukeratzeko, edukia iragazteko eta informazio-sortzaile eta “**sendatzaile**” bihurtzeko aukera eskaintzen dietenak, eta horiei esker aukera berriak daude informazioa kontrastatzeko eta

komunikabideen monopolioa desagerrarazteko, horiek negozioari loturiko argitalpen-ildoari erantzuna eman behar baitiete.

Ildo horretan, Eusko Jaurlaritzari buruzko informazioaren kudeaketa deszentralizatzen duten jarduera berritzaileak abian jartzea gomendatzen da, herritarrei interes-fokuak, erabili beharreko iturriak edota informazio hori helarazteko hizkuntza eta moduak hautatzen aktiboki parte hartzeko aukera eskainiz. Duela gutxi Twitterreko kontuak herritarrei lagatzea erabaki duten gobernuen pare bat adibide agertu dira. Horiek, txandaka (aste bakoitzean pertsona bat arduratzen da), gobernuaren kanal ofiziala kudeatzen dute. [Suedia](#) eta [Holandako](#) kasuek, herritarren partaidetzako esperimentu gisa bultzatuta, oraindik ere gizarte eragin txikia dute (partaidetza txikia) eta, esparru publikoari buruzko informazioa sortzen, kudeatzen eta hedatzen deneko modua hobetzeko bideak daudenaren froga dira.

**Hartzailea:** Eusko Jaurlaritzako Lehendakaritza.

**Eremua:** informazioa, herritarren partaidetza.

4. **Deskribapena: Euskal Autonomia Erkidegoko udalek herritarren parte hartzea, IKTen bidez, erregulatu duten araudiak onar dezaten sustatzea. Horretarako:**

- EAEko Administrazio Nagusiaren finantziario konpromisoa, udal guztietan baliabideak daudela bermatzeko eta araudi horien definizioa bideratzeko.
- Partaidetza araudi horiek [EUDEL](#)en aholku eta laguntzarekin (herritarren partaidetzarako mekanismoen definizio estrategikoan ezagutza handia dauka) eta herritarren partaidetzarekin burutuko direla bermatzea, bereziki araudi horien burutzapena hirugarrenei kontratatzen zaienean.
- Udalek baterako agiria burutzea (konpromisoaren aitortzea) euren udalerrietan herritarren partaidetza handitzeko konpromisoa hartuta, erronka nagusiak, konpromisoak, etorkizuneko ekimenetan baterako lanerako printzipioen dekalogoak zehaztuz, horri esker udalerrit ezberdinen arteko lankidetzak sustatuko baita.

**Hartzailea:** Eusko Jaurlaritzako Lehendakaritza, Euskadiko toki administrazioak, EUDEL.

**Eremua:** araudiaren esparrua, tokiko herritarren partaidetza, lankidetzak.

5. **Deskribapena: partaidetza-kultura herritarren artean sustatzea, Eusko Jaurlaritzako politikak eratzekoan parte hartuz.** Horrek kontuan hartu behar diren hainbat alderdi inguruko gogoeta pizten du.

Eusko Jaurlaritzako “[Sailek gobernu-planak egiteko orientabideak](#)” izenburuko agiriak “*gobernurako eta gobernantzarako modu berriak egokitzea eta moldatzea, politika publikoak hartzeko eta formulatzeko prozesuetan sartzeko*” beharra aipatzen bazuen ere, zehaztapen horietan aurrera egiten jarraitu behar dugu eta plano eragile batera eramane (zehaztapen gehiago -> konpromiso handiagoa) hurrengo “[gubernuko egitasmo eta jardueraren esanguratsuen egutegian](#)” gaineratu ahal izateko.

Bide beretik, honako proposamen hau egiten da:

- Politika publiko ezberdinak burutzean bermatu behar den esku-hartzea duten **agenteak identifikatzea** eta

informazio hori publiko bihurtzea, euskal herri-administrazioak garatzen ari diren edo planifikatuta eta zehazteke dauden politika publikoari buruz ematen den informazio publikoari lotuta. Ildo horretan honako alderdietan sakontzea gomendatzen da:

- Zeintzuk dira esku hartzen duten esparruak (herritarrek, elkarteak...)?
- Agente ezberdinen gaitasun eta ahalmeneren balorazioa politika publikoak burutzean parte hartzeari dagokionez.
- Gutxiengo ordezkaritza bermatzen duten mekanismoak definitzea, horien ekarpenek garrantzi bera baitute eta, beraz, jaso eta baloratu behar dira.
- Esku hartzen duten agenteen **ordezkaritza definitzea**.
- Politika publikoak burutu bitartean herritarren partaidetzan ekarpenak gaineratzeko jarraituko diren mekanismoak garden bihurtzea.
- Kasu bakoitzean jarraituko diren **bideak** era berean zehaztea, kontutan hartu ez diren ekarpenak, botere publikoek aintzat ez hartzeko izandako arrazoiak eta ekarpen horrek jarraituko duen trazabilitatea helarazteko (etorkizuneko partaidetza prozesuetarako ekarpen-oinarri batean geratzen da? desagertzen da?).
- Herritarren partaidetza politika publikoak definitzerakoan **aurrez aurre zein IKTen bidez** egin daitekeela bermatzea, ezagutarazi behar den metodologia, partaidetza horretarako beharrezkoak diren mekanismoak zein partaidetza-prozesuaren faseak argi eta garbi zehazten dituen gauzatze egutegia, fase bakoitzean itzaroten diren helburuak, parte hartzeraren gonbidatutako agenteak... zehaztuta.
- Herritarren partaidetzaren **ebaluazio ereduak definitzea** politika publikoak gauzatu eta moldatzerakoan, honako hauek zehaztuz:
  - Nork, nola eta noiz ebaluatuko den partaidetza prozesua.
  - Nork, nola eta noiz emango den ebaluazio horren emaitzen berri.
  - Nork, nola eta noiz ebaluatuko den politika publikoa euskal gizarteari kontuak ematearen konpromisoa betetzeko (politika horren eragina, beharrezkoak diren berbideratzeak, etab.).

**Hartzailea:** euskal herri-administrazioak.

**Eremua:** arauzko esparrua, *mainstreaming*, politika publikoak.

6. **Deskribapena: adingabeen parte hartzearen irekiera bultzatzea.** Euskadiko haurrak eta nerabeak zaintzeko eta babesteko otsailaren 18ko 3/2005 Legean jasotzen den moduan, parte hartzeko, elkartzeko eta batzartzeko eskubideari buruzko 14. artikuluan (1. eta 4. puntuak, hurrenez hurren):

- Adingabeek eskubidea dute euren elkarbizitza-gune hurbilenetan erabat parte hartzeko, eta, bidenabar, euren ingurune biziaren arlo hauetan ere: gizartearen, kulturaren, artearen eta jolasaren arloetan; eskubidea dute, orobat, apurka-apurka herritartasun aktiboan sartzeko, nork bere garapen-mailaren arabera.

- Adingabeei eragin diezaieketen egitasmo, programa edo erabakiak hartu behar direnean, herri-administratioek, euren eskumenen esparruan, adingabeek forotan parte har dezaten sustatuko dute, egitasmo, programa edo erabaki horiei buruz zer iritzi duten jakiteko.

Ildo horretan, *Arartekoaren Haur eta Nerabeen Kontseilua* bezalako ekimen gehiago abian jartzea gomendatzen da, izan ere, horrek adingabeen partaidetza bide egonkorra eta besteekiko bateragarria eskaintzen du, haien ahotsa, iritziak eta proposamenak *Euskal Herriko Herriaren Defentsa Bulegoari* helarazteko. Hori gertatzen da haur eta nerabeen partaidetza politika publiko guztietan eta Eusko Jaurlaritzak, aldundiek eta EAEko udalek hartutako erabakietan gaineratzen duten mekanismoak abian jartzeagatik. Jarduera mota horiek, herri-administrazioen programen esparruan garatu arren, ez dira zertan erakundeen tutoretzapean egin eta GKEak, adingabearen eskubideen defentsan espezializatutako lurralde, elkarteak, etab. parte hartzea gomendatzen da. Une honetan, hainbat udalek, hala nola, Gasteizkoak, gomendio horretan bat egin zezaketen ekimenak abian jarri dituzte, *Lagunkide programa* esaterako.

Modu osagarrian, adingabeek, nerabeek eta gazteek parte hartzeko eremuak berreskuratzea ere proposatzen da. Bereziki toki esparrutik, taldea bere komunitatearekin identifikatzeko aukera eskaintzen duten eta haur eta nerabeen partaidetzari ikusgarritasuna eskaintzen dioten eremu nabarmenak sortzeko gizarte eremu garrantzitsuak erabili baitaitezke bertan.

**Hartzailea:** Eusko Jaurlaritza, foru aldundiak eta EAEko udalak.

**Eremua:** adingabeak, partaidetzarako eremuak eta politika publikoak.

- 7. Deskribapena: biztanleen artean herritarren parte hartzearen motibazioak eta onurak (“zertarako”) zabaltzea.** Txosten berezi honen esparruan egindako pertsona adituen taldeek behin eta berriro proposatutako gomendioetako bat herritarren artean herritar aktibo bihurtzearen eta Euskadiko gizartearen eta eremu publikoan partaidetza-prozesuen parte izatearen abantailak eta ustezko motibazioak (parte hartu bai, baina zertarako?) hedatzearena zen. Hedapen horri esker partaidetza erakargarriagoa izango da eta esanahia emango dio bere lurraldearen etorkizunean zeregin erabakigarriak ez duela antzemateagatik edo, parte hartu arren partaidetzaren ondorioa (pertsonala edo komunitatekoa) antzeman ez izanagatik une honetan parte hartzen ez duten herritarrentzat. Hedapen eta sentsibilizazio ekintza horietan, une honetan IKTen bidez dauden tresnak erakutsi beharko liriateke (toki mailan zein EAEko Administrazio Nagusiaren mailan), erabiltzen irakatsi eta talde horiek erabili herritarren iritziak jasotzeko, tresna horietan zeren hutsunea sentitzen duten, nola hobetu nahiko lituzketen, zeren falta sumatzen duten, etab. jakiteko.

Gomendio hori erakusteko adibide praktikoa Euskadiko *KZgunee* eskaintzen duten kapilaritateaz baliatzea izango litzateke eta euren *prestakuntza eskaintzaren katalogoan* herritarren partaidetzari buruzko kapitulu bat gaineratzea, arestian aipatutako alderdiak islatuko lituzkeena (eskura

dauden tresnak, nola erabili, tresna horiek hobetzeko herritarren proposamenei buruzko informazio-bilketa, edo une honetan ez duden bide berriak sortzea).

**Hartzailea:** Eusko Jaurlaritzako Lehendakaritza.

**Eremua:** hedapena, dibulgazioa, prestakuntza, kultura parte hartzailea.

- 8. Deskribapena: Administrazio nagusiko, tokiko administrazioetako eta foru aldundietako funtzionarioak prestatzea eta sentsibilizatzea herritarren partaidetzaren arloan IKTen bitartez.** Horretarako, prestakuntza programetan (aurrez aurrekoak zein *online* direnak) administrazioetako langileen sentsibilizazio eta prestakuntzara bideratutako berriazko ekintzak gaineratzea (prestakuntza programa horien barruan egon zitezkeen gai batzuen gaineko proposamena):
  - Herritarren partaidetzarako sarrera (kontzeptua, espezializazioak, erronkak...).
  - Une honetan EAEn dagoen herritarren partaidetzaren egoeraren ezagutza.
  - Administrazio nagusian eta tokikoan zein foru aldundietan herritarren partaidetzaren alorrean une honetan abian dauden araudiaren esparrua eta mekanismoak (araudia, plan zuzentzaileak, parte hartzeko udal araudiak...).
  - IKTen zeregina herritarren partaidetza sustatzeari dagokionez.
  - Gobernantza eredu berriak eta nola aurrera eraman administrazioaren maila eta sail ezberdinetan.
  - EAEko herri-administrazioen partaidetza-bide berriak sortzeko eta hobetzeko bideak identifikatzeko azterketak egiteko modua.

**Hartzailea:** euskal herri-administrazioak, EUDEL.

**Eremua:** prestakuntza, sentsibilizazioa, funtzionarioak, kultura parte hartzailea.

- 9. Deskribapena: uneko herritarren ekimenak ezagutu eta babestea.** Herritarrek modu proaktiboan bideratzen ari diren partaidetza-ekimenei ikusgarritasuna ematea gomendatzen da. Ekimen horiek erakunde-esparrutik kanpo jaiotzen dira eta, une oro politika publikoen, eremu pribatuaren, etab. babesa izan dezaketean arren, erakunde esparrutik kanpo jarraitu behar dute. Ekintzailtza, proaktibotasuna, malgutasuna, egitera ausartzea bezalako balioak lantzeaz ari gara, horren bidez herritarren partaidetza-kultura lantzen baita. Horretarako gomendatzen dugu:
  - *Irekia* eta *Lan Irekia* bezalako baliabideen onura lortzea, herritarren partaidetza sustatzeko ekimenen garapenaren esparruko Eusko Jaurlaritzako tresna bereziak baitira, Euskadin esparru horretan eta, zehazki, IKTen erabileraren bidez herritarren partaidetzaren esparruan garatzen ari den lanari ikusgarritasuna emateko. Amaierako emaitza praktika egokien katalogo digitala izan zitekeen, praktika azpimarragarriak zeintzuk diren eta praktika horiek ontzat jotzeko izandako arrazoiak azaltzen dituzten argitalpenak, etab. Ezagutza oinarri hori oso garrantzitsua izan daiteke proiektuak eta ekimenak EAEko beste lurraldeetara lekualdatzeko eta herritarren partaidetzaren esparruan

ikertzen eta berritzen saiatzen diren pertsonak, kasuen oinarri baten bidez, zer egin den, zer egiten ari den eta aurrera egiten jarraitzeko dauden uneko joerak zeintzuk diren hobeto jakin ahal izateko. Praktika onen oinarri hori interesa duten agente ezberdinek (administrazioak, unibertsitateak, elkarteak, herritarrak, etab.) sustatu beharko lukete, herritarren partaidetzaren inguruko lan-komunitatea sor dadin bultzatuz. Bere antolamendu eta funtzionamendu zuzenarengatik eredu gisa har genezakeen kasuen plataforma baten adibidea Europar Batasuneko *ePractice* ezaguna izango litzateke, "*People and Participation*" bezalako eredu berezituagoak dauden arren.

**Hartzailea:** Eusko Jaurlaritzako Lehendakaria.

**Eremua:** praktika onak, partaidetza kultura.

10. **Deskribapena: uneko herritarren ekimenak ezagutu eta babestea.** Erresuma Batuko gobernuaren "*Empowering communities to influence local decision making*" argitalpenean azaldutakoaren arabera,<sup>73</sup> herritarren parte hartzea askoz eraginkorragoa da "*CLEAR tool*" delako araua betetzen denean:

- *Can Do*: pertsonak ahalmena, baliabideak, gaitasunak...dituztenean.
- *Like To*: pertsonak lotura sentitzen dutenean eta komunitatearen parte direla sentitzen dutenean.
- *Enabled to*: parte hartzeko beharrezkoak diren aukerak agertzen direnean.
- *Asked to*: herritarrak mobilizatzen direnean botere publikoen eta hiri-bideen bitartez.
- *Responded to*: herritarrek argi daukatenean euren ekarpenak aintzat hartu dituztela.

Aholkulari horiek lehenik eta behin aipatutako puntuei erantzuteko ardura edukiko dute ("*can do*") eta toki zein auzo mailan parte hartzea dinamizatzeke gai izan behar dute, baita hori guztia eta bide ofizialak (erakundeek eskainitakoak) edo alternatiboak (parte hartzeko eta salatzeke webgune ez instituzionaletan parte hartzea; blogak, plataformak sortzea, etab.) erabiliz e-partaidetzarekin lotzeko ere. Herritarrei gaitasunak eta jarrekin bereganatzen laguntzeko ardura edukiko dutenak dira, bai eta herritarrak eta parte hartzea gerturatzeko beharrezkoak diren baliabideak eskuragarri izango dituztenak ere. Aholkularien profil hori modu berezian gerturatu zaie partaidetza-eten digitala pairatzeko aukera gehien dituzten kolektiboak, IKTetatik urrunago daudenei edota gizarte-etenak pairatzeko arriskua duten edo egoera hori pairatzen duten taldeei. Modu berean, ekimen mota hori borondatezko lanarekin eta herritarren aktibismoa hizpide duten beste baliabide edo plataformekin lotzea gomendatzen da, horien guztien kudeaketa eta iraunkortasuna bermatzeko.

**Hartzailea:** euskal herri-administrazioak.

**Eremua:** kultura parte hartzailea, eten digitala, *mentoring* digitala.

<sup>73</sup> Communities and Local Government (2009): Empowering communities to influence local decision making. Evidence-based lessons for policy makers and practitioners. Communities and Local Government Publications.

11. **Deskribapena: identitatea kudeatzeko teknologiak.**

Prozesu jakin batzuk burutzeko (hauteskundeak, erreferendumak, batzarrak...) identitatea egiaztatzea garrantzitsua da. Herritar digitalak ohituta daude hainbat administrazioekin gauzatzen dituzten izapideak burutze aldera euren identitatea egiaztatzen, ordainketak seguruak diren plataformen bidez egiten, etab. Beraz, gerta daiteke ekintza parte hartzaile horietan duten parte hartzearen inpaktua oso serio ez hartzea ez badira parte hartzeko *online* ekintza horietan identitatea benetakoa dela ziurtatzeko mekanismoak abian jartzen. Zenbait herrialdetan, hala nola, Norvegian, une honetan ikuspegi berriak ikertzen ari dira herritarrek herri-administrazioekin burutzen dituzten izapideetan euren burua identifikatu dezaten, izan ere, hurrengo urteetako erronkari garrantzitsuenetako bat da. Identitatea kudeatzeko teknologia berrien ikerketan eta garapenean eman diren aurrerapausoak, herritarrek zerbitzu publikoekin dituzten harremanetan behar duten segurtasun eta pribatasun handiagoaren beharri erantzun diote baina, horrez gain, zerbitzuak eraginkorrago izan daitezkeen eta elkarrengarritasun handiagoa lortu dute, hainbat gako eta identifikazio txartel edukitzeko beharra saihestuz herritarren eta administrazioaren eta zerbitzu publikoen hainbat mailen arteko harremanetan. Onurak gehiago direla esan dezakegu honi erreparatzen badiogu: gailu mugikorretatik egiten diren eragiketetan ere identifikazio mekanismoak modu berean eskuragarri baldin badaude, izan ere, modu horretan erabiltzailea ziur egon daiteke gailuaren independentziari dagokionez. Hortaz, gomendatu nahi diogu Euskadiko Gobernuari gai horri lotuta ikerketa, garapen eta berrikuntza ildoak abia jar ditzala, lortu ahala emaitzak aditzera emanek eta *crowdsourcing* ekimenak ahalbidetuz. Azken horien bidez, sektore pribatuak eta beste gizarte eragile batzuek (herritarrek, hirugarren sektoreak...) euren ezagutzak eta ideiak helarazi ahalko dituzte.

**Hartzailea:** Eusko Jaurlaritzako Herri Administrazio eta Justizia Saila eta Ekonomia Garapen eta Lehiakortasun Saila; Izenpe.

**Eremua:** pribatasuna, identitatea, berrikuntza.

12. **Deskribapena: parte hartzeko teknologia irekiak.**

*Open source* motatako teknologien erabilera gomendatu da, parte hartze prozesuetan teknologiei dagokienez garapen handiagoak ahalbidetzen dituzte-eta. Teknologia mota horrek malgutasun handiagoa eskaintzeaz gain, ideien fluxu etengabea sortzen du eta programen kalitatea hobetzeko aukera ematen du. Abantailen artean honako hauek ere aurki daitezke: teknologia horiek ahalbidetzen duten garapenaren eta eguneraketan abiadura eta, eraginkortasuna behin frogatuta, beste eszenatoki batzuetara lekualdatzeko aukera. 2012. urtean Eusko Jaurlaritzak *software berrerabiltzeko dekretua* onetsi zuen. Horren bidez, Eusko Jaurlaritzak sortutako aplikazioak libreak izango direla xedatu zen eta kontseilaritzek, sailek, organismoek, erakundeek, fundazioek eta partzuergoek sortutako eta botere publikoek emandako diru-laguntzetan oinarrituta hirugarrenek garatutako programak aprobetxatzeko betebeharra ezarri zen. Lan-ildo horri jarraiki, udal erakundeak

aholkularitza eskaintzeko zerbitzu bat ziurtatzeko gomendioa egin dugu. Modu horretan, euren garapen teknologikoa ahalbidetuko da Eusko Jaurlaritzako administrazioaren beste maila batzuek dituzten aplikazioak aprobetxatuz. Hala eta guztiz ere, oso gutxi dira herritarrek IKTen bidez parte hartu dezaten sistema eraginkor bat daukaten udalak edo telefono mugikorren bidez komunikatzeko eta herritarrentzako zerbitzuak eskaintzeko sistemak dituztenak. Berrito erabil daitekeen software bilduma (beste erakunde batzuek probatutakoa) aprobetxatu behar da tokiko inguruneetara (bereziki, udalak) lekualdatzea errazten duen zerbitzu baten bidez; izan ere, azken horietan hori abian jartzeko azpiegiturak eta giza baliabideak ez daude beti eskuragarri.

**Hartzailea:** euskal herri-administrazioak.

**Eremua:** berrerabiltzea, *open source*, aplikazioak, transferentzia.

13. **Deskribapena: e-partaidetzarako egokitutako kanal digitalen irisgarritasuna eta erabilgarritasuna ziurtatzea.** Gizarte sareetan herri-administrazioen presentzia handituz gero, adibidez, galdera honi erantzun beharko genioke: zer gizarte sarek betetzen du irisgarritasunari lotutako web estandarrak?<sup>74</sup> Estandar horiek betez gero, ziurtatuko da pertsona orok zerbitzu hori berdintasun baldintzetan erabili ahal duela, aniztasun funtzionala jasaten duten pertsonak diren ala ez alde batera utzita. Gauza bera gertatu daiteke tresna propioei buruz ari bagara. Irisgarritasuna eta erabilgarritasuna gainontzeko alderdien gainera gailendu behar dira, beraz, tresna errazak diseinatu behar dira, pertsona ororentzat erabiltzeko errazak eta guztiz irisgarriak. Hau da, tresna horiek diseinatzerakoan horrelako xehetasunak ahaztea saihestuz e-partaidetzari lotutako sarbide-eten berriak eragiten dituzten oztopo bilakatzea saihesten dugu. Orain dela gutxi, Ezintasunen bat duten Pertsonen Ordezkariei Espainiako Batzordeak (CERMI) bere web orrialdearen bidez salatu zuen [2013ko urtarrilaren 1a baino lehen gizarte sareek irisgarriak izateko betebeharra dutela](#). Salaketa horretan azaltzen den moduan: *“Este deber legal de accesibilidad llega a petición del movimiento social de la discapacidad una vez comprobado con informes y estudios independientes que ninguna red social de las implantadas en España cumplía con los requisitos mínimos para ser accesibles a personas con discapacidad, discriminado y excluyendo por tanto estas plataformas a un gran número de usuarios con discapacidad que se ven privados de su derecho a participar en estos canales de relación y comunicación sociales”*. Hortaz, kanal horiek irisgarritasun maila egokietara heltzen diren bitartean, EAEko herri-administrazioak saiatu behar dira aniztasun funtzionala duten pertsonen baldintza berdinekin parte hartzeko aukera ematen dieten bideak bermatzen (jatorriz irisgarriak diren diseinuetatik) eta “guettoak” eratzten dituzten tresnen bidez kolektiboaren sakabanatzea saihestu behar dute, horiek parte hartzeko mekanismoen

erabilgarritasun erreala kaltetzen baitute (aitortu behar da gizarte sareak sakontasun eta aldakortasun askorik ez duten tresnak direla, deliberazioak oinarritutako parte hartze errealerako).

**Hartzailea:** euskal herri-administrazioak.

**Eremua:** sarbide-eten digitala, irisgarritasuna, erabilgarritasuna, gizarte sareak.

14. **Deskribapena: open data delakoa herritarrei hurbiltzea (kontsumoa dinamizatzea herritarren parte hartzea handitzeko).** Herri-administrazioetan *open data* estrategiak ezartzea, izan ere, lurraldearen garapen ekonomikorako aukera bat izateaz gain, gardentasunaren eta herritarrei azalpenak ematearen aldeko bide bat da datu publikoak zabalduz hirugarrenek, behar izanez gero, berrerabili ditzaten (berrerabiltzen duen komunitate). *Global Pulse* izenekoak [“Big Data for Development: Challenges & Opportunities”](#) argitalpenean<sup>75</sup>, azaldu zuen *open data* delakoak gizartearen garapenari laguntzen diola hiru modu ezberdinetan:
- Herritarrek zerbitzu digitalak erabiltzeko duten moduan irregulartasunak garaiz antzemateak arduradunentzat oso erabilgarria izan daitekeen informazioa eman diezaieke, batez ere, krisi garaian.
  - *Big data* delakoak denbora errealean programa eta politika publikoen diseinuari eta gauzatzeari buruzko errealitatea monitorizatzeko aukera ematen du.
  - *Feedbacka* denbora errealean: biztanleria denbora errealean monitorizatzeko aukerak programek eta politika publikoek non huts egiten duten ezagutzeko aukera ematen du eta, modu horretan, beharrezkoak diren birdoitzeak egin daitezke.
- Estatu Batuetako [Recovery.gov](#) estrategiarekin gertatzen den moduan, *open data* kudeaketa publikoaren gaineko kontrola herritarrei itzultzea ahalbidetzen du. Ekimen horren helburu nagusietako bat, adibidez, hauxe da: zergak ordaintzen dituztenei erakustea nola eta zertan gastatzen den diru hori. Horrez gain, webgune horren bidez, biztanleek ustezko iruzurrak, gehiegizko gastuak edo neurrigabekeriak salatzeke aukera daukate. Datu horien ustiaketera esker, hirugarrenen bidez (ez halabeharrez administrazio beraren bitartez) informazio garrantzitsu hori herritarrengana heltzen da, [“dónde van mis impuestos.es”](#) ekimenaren kasuan gertatu den moduan. Bertan, modu “lagungarrian” erakutsi da Espainian Estatuko Aurrekontu Orokorren testuinguruan egindako inbertsioen xehetasuna. Ekimen mota horretan parte hartzeak herri-administrazioei sinesgarritasun injekzio bat eman diezaieke (herritarrei begira) eta hori ezinbestekoa da administrazioen eta herritarren artean “elkarrizketa” bat burutu ahal izateko, betiere, konfiantzan eta berdintasunean oinarritutakoa.
- Ildo horretan aurreratu nuen moduan, *open data* berrerabiltzen duen komunitateari hurbiltzeko ekimenak biziagotzea gomendagarria da, datu publiko irekien berrerabiltzea sustatuz eta oraindik ere zabaldu ez diren

<sup>74</sup> ONCE fundazioa: “Gizarte sareen plataformen irisgarritasuna” ikerketa <http://www.discapnet.es/Castellano/Actualidad/Discapacidad/paginas/detalle.aspx?noticia=265242>.

<sup>75</sup> Global Pulse (2012): *Big Data for Development: Challenges & Opportunities*. New York.

datuen multzoen identifikazioa areagotuz, izan ere, lurraldearen garapenerako eta herritarren ongizaterako balio handia daukate.

Modu berean, datu publikoen berrerabiltzea herritarren parte hartzerako eta herritarren bizi-kalitatea hobetzeko tresna berrien sorrerarekin erlazionatzen duten aplikazio/zerbitzuen sorrera suspertzen duten lehiaketak edo jarduerak abian jartzeko proposamena egin da (arloa: osasuna, hezkuntza, gizarte zerbitzuak, zahartzea...).

**Hartzailea:** euskal herri-administrazioak.

**Eremua:** *open data*, parte hartzearen kultura, lurralde garapena.

15. **Deskribapena: *mobile government* (m-gov) zerbitzu publikoetan eraginkortasun eta gizarteratze handiagoa lortzeko.** Administrazioak modernizatzeko prozesuan zerbitzu publikoetan mugikorra baliatzea lehentasunez jotzat jotzen ari da, ez bakarrik zerbitzuak modu eraginkorragoan eman daitezkeelako, baita inklusio digitala handitzeko tresna bat delako ere. ELGAK dioen moduan, sare mugikorretarako sarbidea eskuragarri dago munduko biztanleen % 90arentzat eta landa inguruan bizi diren herritarren % 80arentzat. Horrez gain, Espainian **banda zabal mugikorraren erabilera** azken urtean bikoiztu egin da (biztanleen % 65,3k baliatzen du), batez besteko komunitarioaren (% 43,1) gainetik. *Smartphonen* agerpena, gizarte zabaldua egotea eta 3G eta 4G sareen eskuragarritasuna oso-oso azkar ari da hedatzen biztanleen artean. Egoera horren aurrean, esan dezakegu sekula ez ditugula izan aldeko horrenbeste faktore horien ahalmen guztia baliatzeko komunikazioari eta elkarrekin zerbitzuen garapenari eta herritarren partaidetzari dagokienez.

Egungo egoerak agerian jartzen du oraindik ere egon badaudela jorratu beharreko erroka garrantzitsuak, adibidez, mugikorraren bidez egiaztatpenak edo nortasun digitala baliatzea, zerbitzu elektronikoak erabiltzeko, **e-government**ekin batera garatzen diren m-gov estrategiak diseinatzeko, baita alderdi edo erroka oinarrikoagoak ere, besteak beste, **atarien mobilizazioa** mugikorraren (*smartphone*, tabletak, etab.) behar bezala ikusteko. Udal askok bideratzeke duten irakasgaia da hau.

Azterketaren ildo honetan, egun GSA (*U.S. General Services Administration*) burutzen ari den proiektua bezalakoak abian jartzea gomendatzen dugu. **Making Mobile Government Project** izenpean mugikorraren bidez zerbitzu publikoak emateko tresna berriak garatu eta lankidetzan aritzeko espazio bat sortu dute. Espazio horren zerbitzuek honakoak hartzen dituzte barne:

- **Mobile government** delakoaren inguruan ezagutza partekatze espazioa.
- Topikoen inguruan hitz egin eta eztabaidak bideratzeko espazioak sortzea. Topikook, besteak beste: **m-government**entzako estrategia publikoak, plataformak, segurtasuna, merkaturak, alderdi teknologikoak, estandarrik, etab.
- Eta **mobile government** gauzatu ahal izateko aplikazioak diseinatzerakoan lankidetzan aritzeko hiru garren espazio bat (esperientziak, iritziak, prozesu kolaboratzaileen bidezko ideien ekarpena, etab.).

Gomendatzen dugun ekimen mota horrek aukera ematen du, adibidez, Estatu Batuetako Gobernuak herritarren partaidetzara zuzendutako aplikazio mugikorrak izan ditzan, adibidez, **VisibleVote**. Horren bidez herritarrek senatariak egindako politika-proposamenak denbora errealean kontsulta ditzakete, denbora errealean interes mailaren arabera botoa eman dezakete, hainbat estatutan politika-proposamen jakin batzuek zer nolako harrera duten ikus dezakete, denbora errealean politikariekin elkarrizketak has ditzakete, legegileek egindako lana balora dezakete, politikarien gizarte-sareetako kon-tuak ikus ditzakete, etab.

Aplikazioa eskuragarri dago *smartphone*ko plataforma nagusietarako eta horren erabilera sustatzeko nabigazioa erraza da (**kapturetan** antzeman daitekeenagatik). Osagarri moduan, aipatu aplikazioa web formatuan ere eskuragarri egongo da (Facebook bidez).

Aipamen gisa, iradokitzen da aplikazio mota horien garapena irisgarritasun eta erabilgarritasun irizpideen arabera egin dadin, aniztasun funtzionala duten pertsonen horiek eskuratu eta erabiltzerakoan bereizkeriarik paira ez dezaten.

**Hartzailea:** euskal herri-administrazioak.

**Eremua:** sarbide-eten digitala, irisgarritasuna, berrikuntza, *mobile government*.

16. **Deskribapena: herritarrek parte hartu dezaten tresna berriak diseinatzeko jarraitu beharreko irizpideak.** Herritarren partaidetzari buruz hitz egiteak nahitaez deliberaziora eraman beharko gintuzkeen. Deliberazio hori kanal digitaletara eraman nahi badugu, erabakiak guztion artean eta modu arrazoituan hartzeko bidea eman-gotzen negoziaketa eta adostasun prozesuak landuko dituzten espazioak sortzeko gai izan behar dugu. Hori ezin dute bide edo kanal guztiak barne hartu, adibidez, gizarte-sareek (egun ezagutzen ditugun moduan behintzat). Horrek esan nahi du gomendio batzuk jarraitu behar dituzten tresna berriak, bide berriak (araudi teknikoak) behar ditugula, gure iritziz nahitaezkoak direnak eraginkorrak izan daitezkeen.

■ **Topatzeko aukera:** Tresnak berehala identifika daitezkeen espazioen batean eskuragarri egon daitezkeen gomendatzen da. Txosten berezi honetan egindako EAEko administrazioen atarrien azterketaren bidez antzeman da oro har jazo ohi den akatsa tresna horien sakabanatzeari eta horiek bilatzeko zailtasunari lotuta dagoela (erakundeetako web orrialdeetan herritarren partaidetzarako berriazko atalak ez egotea).

■ **Prozesu parte hartzaileetako fase guztiak aintzat hartzea.** Tresnek honakoa bermatu behar dute:

- Prozesu parte hartzailea nolakoa izango den zehaz-mehatz azaldu: faseak, garapenerako epeak, parte hartzearen gonbidapena luzatu zaien eragileak eta prozesu parte hartzailean izatea espero dugun rola eta erabiliko diren tresnak (presentzialak, **online**).
- Prozesu parte hartzailean jorratzen ari diren eremuen gaineko berriazko informazioaren eskuragarritasuna. Aipatu informazioa deskodetuta egon behar da (hizkera erraza, ulergarria), jabetza berekin ez dakarren formatuan eskuragarria egon behar da



(alegia, erabiltzailea ez du behartu behar hori erabiltzeko baimena erosi behar izateko tresnak edukitzera) eta prozesu parte hartzaileak aurrera egin ahala eta informazio berria eskuragarri egon ahala behar bezala eguneratu behar da.

- Eztabaida eta adostasunerako bidea gardentasunez emango duten funtzionalitateak eman (eragile parte hartzaileek ikusi ahal izango dute zer eragile mota parte hartzen ari diren, haien ekarpenak, zeri buruz mintzo diren, adostasunen gaineko txosten partzialak, iritziak eman –adibidez, bozketa–, ekarpenak, etab.).
- Prozesu parte hartzailearen *feedback*: tresna parte hartzaileek prozesu parte hartzailearen gaineko emaitzei buruzko informazioa eman behar dute. egindako ekarpenak, kontuan hartu eta ukatu diren ideia horien identifikazioa, baita horiek onartu eta ukatzeko arrazoiak, erabakien hartzeari gehitu zaizkion ekarpen horiek eta adostasuna gehitzeko jarraituko diren hurrengo urratsak (denbora, arduradunak, zer politikari eragiten dion, etab), tresnaren erabileraren inguruan herritarren ebaluazioa eta prozesuan parte hartzeko egokitzapena ere.
- **Zuzeneko komunikazioa:** tresnek klase politikoarekin zuzeneko komunikazioa izateko bidea eman behar dute, politikarien eta herritarren artean elkarriketak edukitzeko aukera gerturatuz eta une oro aipatu komunikazioa nola gauzatu den –mekanismoak– azalduz (komunikazioa sinkronoa edo asinkronoa den, komunikazioaren harreran eta deribazioan bitartekoak egongo diren, erantzuna emateko betebeharraren terminoak, isiltasun administratiboaren baldintzak...).
- **Formatuen malgutasuna:** oro har, herritarrek ideiak mahaigaineratu, kexak aurkeztu, iradokizunak bideratzeko gaituta dagoen bidea web inprimakia baino ez da (batzuetan, karaktere muga bat dauka eta, beste batzuetan, aldiz, testu askea) edo erantsitako agiriak formatu jakin batzuetan eta tamainaren gaineko murrizketa teknikoekin aurkeztea. Herritarrak modu natural batean eta eskuragarri dagoen batean adieraz daitezten, onartutako formatuen inguruan malgutasun handigoa egon dadin gomendatzen da, adibidez erabiltzaileek haien mezuak ahozko mezuetan, mezu, bideo, etabarretan utz ditzaten.
- **Irisgarritasuna eta erraztasuna nabigatzerakoan:** agian alderdirik garrantzitsuenetako bat da. Izan ere, behar bezalako tratamenduak pertsona guztiei (aniztasun funtzionala dutenak barne) aukera berdinak bermatzea dakizkieke zerbitzu horiek eskuratzeko, hain zuzen. Tresnak jatorrian eskuragarri egon behar dira (diseinutik hasita) eta edukiaren eta funtzionalitateen antolamendua agerian jarri: erraza, intuitiboa eta nabigazioa erraztuko duena. Sinpletasuna da diseinuak oinarri izan behar duena, erakundeetako estiloak eta ereduak jarraitu nahi izateak askotan eragiten duen akatsa saihestuz –hau da, erabilera zaildu eta funtzionalitatea mugatu–.
- **Edukiaren egitura:** herritarrentzako tresnak direnez, gomendatzen da edukiak gaiaren arabera taldeka daitezten, herritarrentzako garrantzi gehien dutenetik

gutxien dutenetara. Normalean kontrakoa egiten da: edukia eta partaidetzarako bideak administrazioaren egituraren arabera egituratu (arloak, sailak).

- **Feedback:** herritarren partaidetzarako tresnek –gaintzeko IKT tresnek bezalaxe oro har– barne hartu beharko lukete haien diseinu, funtzionalitate eta emandako zerbitzuaren inguruan iritzia emateko atal bat, baita ideiak aurkeztu, kexak egin eta iradokizunak bideratzeko ere; administrazioari (garapen taldea) bide hori une oro hobetu eta mantentzeko aukera emango dio (etengabeko beta egoeran).
- **Ebaluazioa:** Herritarren partaidetzarako tresna berriak abian jartzeari ebaluazio-planak gehitu behar zaizkio, aipatu tresnak edukitzen ari diren erabilera, horien eragina, talde hartzaileak edukitzen ari diren onarpen-maila gainbegiratzeko bidea emango dutenak, baita kudeaketaren gardentasuna eta kontuen errendimendua bermatzeko herritarrekin partekatu beharreko txostenak egitea ere.

**Hartzailea:** euskal herri-administrazioak.

**Eremua:** irisgarritasuna, erabilgarritasuna, tresnak, kultura parte hartzailea.

17. **Deskribapena:** Euskadin, gizartean eta eremu publikoan e-partre hartzeari buruzko azterlanak eta ikerketak areagotzea, herritarrek parte hartzeko dituzten arazoien berri izateko, parte hartzeak haien ustez duen erabilera, mugak zeintzuk diren ezagutzeko aukera emango duten adierazle berriak gehitzea. Horrek guztiak aukera emango du Euskadin datozen urteetan abian jarriko diren e-partre hartzearen inguruan ekimenak eta jarduerak hobeto diseinatu ahal izateko eta Euskadin arlo honetan martxan jarritako neurrien eragina neurtu ahal izateko, baita herritarren partaidetzak Internet bidez zer nolako bilakaera izan duen alderatu ahal izateko ere. Hori oinarritzat hartuta, herritarren partaidetzaren gaineko adierazleak aztertzea gomendatzen da **Euskal Estatistika Planari** eragiketa berriak sartzeko beharra baloratzeko, honako hau jorratuko duen ikuspegi kolaboratzaile batetik: estatistikan adituak diren organismoek (**Eustat**) eta herritarren partaidetzarako eta herritarren eskubideen defentsaren eremuan lan egiten duten eremu publikoko eta pribatuko eta hirugarren sektoreko erakundeek lehenetsuzkotzat jotako topiko horien inguruan mintzatu eta eztabaida egin eta bat etor daitezke horiek gainbegiratzeko aldera, baita adierazleen arabera zehaztu eta berariazko inkestak egin eta iraunkortasuna sustatzeko aldera (gubernuko estatistika planetara gehitu).

**Hartzailea:** euskal herri-administrazioak, Eustat.

**Eremua:** ikerketa, gainbegiraketa, adierazleak, azterlanak.





**Eranskinak**

**a t a l a**



## V. atala

# Eranskinak

14.

### Gogoeta orientatzeko zenbait arau-erreferentzia

Herritarrek arazo publikoetan edo zientziaren aurrerapenean (IKTen onurak barne) parte hartzeko dauzkaten eskubideetan edo aukeretan esplizituki edo inplizituki eragiten duten arau-erreferentziak, eta informazioa, jakintza, kultura, teknologiak eta abarrekoak aukera berdintasunean eskuratzeko eskubidea, berdintasun printzipioak eta bazterketa eza arautzen dituzten erreferentziak azalduko ditugu orain, gaiaren arabera eta jurisdikzioaren arabera ordenatuta.

#### 14.1. Giza eskubideak, funtsezko eskubideak, eta herritarrek eskubide eta betebeharrak

##### ■ EAEko Autonomia Estatutua

**6.3. art.** Inor ezin da baztertua izan hizkuntzaren ondorioz.

**9.2. art.** Euskal botere publikoek, beren eskumenen eremuan:

d) Pertsonen eta dagozkien taldeen askatasuna eta berdintasuna benetakoak eta errealak izan daitezen baldintzak sortzeko eta oztopoak kentzeko neurriak hartuko dituzte.

e) Herritar guztiak EAEko bizitza politiko, ekonomiko, kultural eta sozialean parte hartu ahal izatea erraztuko dute.

##### ■ 20/1997 Legea, abenduaren 4koa, Irisgarritasuna Sustatzekoa

**Atariko titulua.** Legearen xedea eta aplikazio eremua.

**1. artikulua.- Xedea.**

1.- Lege honen xedea da hiri-ingurunearen, gune publikoen, eraikinen, garraio-bideen eta komunikabideen irisgarritasuna bermatzea, pertsona guztiak eta, batez ere,

mugikortasun murriztua, komunikatzeko zailtasunak edo muga psikiko zein sentsorialak, aldi baterako nahiz betiko, dituztenek era autonomoan erabil eta goza ditzaten.

2.- Botere publikoek legea benetan aplikatzeko behar diren ekintza positiboko neurriak hartzea sustatuko dute. Egokia bada, pertsonen bizi-kalitatea hobetzen laguntzen duten laguntza teknikoan erabilera sustatuko dute.

**2. artikulua.- Legearen aplikazio eremua.**

Lege hau Euskal Autonomia Erkidegoaren eremuan aplikatuko da, izaera fisiko edo juridikoa, publikoa nahiz pribatua, duen edozeinek hirigintza, eraikuntza, garraio eta komunikazio arloetan egiten dituen jarduketara guztietan.

##### ■ Otsailaren 18ko 4/2005 Legea, Emakumeen eta Gizonen arteko Berdintasunari buruzkoa

1. art. **Xedea.** Lege honen xedea botere publikoek emakumeen eta gizonen arteko berdintasunari dagokionez jarduten dutenean begiratu behar dituzten printzipio orokorrak ezartzea da, eta emakumeen eta gizonen aukera eta tratu berdintasuna sustatzeko eta bermatzeko neurri multzo bat arautzea bizitzako esparru guztietan eta, bereziki, emakumeen autonomia sustatzeko eta beraien posizio soziala, ekonomikoa eta politikoa sendotzeko. Horren guztiaren xede gorena gizarte parekidea lortzea da, pertsona guztiak aske izan daitezen, bai esparru publikoan bai pribatuan, beren gaitasun pertsonalak garatzeko eta erabakiak hartu ahal izateko, sexuaren arabera rol tradizionalak inposatutako mugak desagerraraziz. Gainera, gizarte parekide honetan emakumeen eta gizonen jokabideak, asmoak eta premiak berdin-berdin kontuan hartu, baloratu eta bul-tzatu behar dira.

##### ■ Eusko Jaurlaritzaren Gardentasunaren eta Gobernu Onaren Legearen Aurreproiektua

**Printzipio orokorrak:**

Printzipio hauen garapenak herritar informatuak, parte hartzaileak, aktiboak eta erantzuleak sortu nahi ditu, gizarte desegituraketa arintzen duen gizarte-egitura bat eratuz,

herritarrei informazio egokia emanaz, herritarrak proposamenak egitera bultzatuz eta erakundeekin lan egin dezala bultzatuz, baita arauak sortzeko prozesuetan eta politika publikoak planeatzeko eta ebaluatzeko faseetan laguntzera ere.

#### **Lege aurreproiektuaren edukiaren justifikazioa.**

Lege-testuaren asmoa herritarrek arazo publikoetan parte har dezatela bultzatzea da, bai norbanakoaren ikuspegitik bai taldearen ikuspegitik. Taldeen kasuan "erakundeen parte hartzea" deritzona bazterten da. Azken hori sindikatuak eta enpresaburuak elkarteei dagokie eta, jatorri konstituzional bera daukaten arren (Konstituzioaren 9.2 artikulua), beste bide batzuetatik jorratzen da. Herritarrek politika publikoen formulazioan, jarraipenean eta ebaluazioan parte har dezatela nahi da, hartara ezarrita dauden prozeduretatik kanpo. Horretarako, testuak parte hartzeko zerbait mekanismo eta tresna aipatzen ditu. Azkenik, herritarren artean parte hartzeko kultura eta ohitura batzuk sorrarazi nahi dira, zeharka, informazioa eta kontu ematea bultzatuz, eta zuzenean, herritarren parte hartzea sustatzeko berariazko neurrien bidez.

#### **Atariko titulua. Xedapen orokorrak (1. artikulua.- Xedea)**

- Herritarrek informazio publikoa eskura dezatela sustatzea, publikitate aktiboaren printzipioa sendotuz.
- Herritarrak gobernuaren plangintzaz eta bere konpromiso estrategikoez informatzea.
- Politika publikoen ebaluazioa sustatzea, bi alderditan: ebaluatzeko betebeharra eta ebaluazioaren emaitzak jakinarazteko betebeharra.
- Arazo publikoetan erantzukizun partekatuaren parte hartzeko kultura eta ohiturak sortzea mesedetzea, bai herritarren artean bai administrazioan.

#### **Giza Eskubideen Adierazpen Unibertsala**

**Hitzaurrea:** Nazio Batuetako herriek Gutunean gizakiaren funtsezko eskubideetan, pertsonaren duintasunean eta balioan, eta gizonen eta emakumeen eskubide berdintasunean duten fedea berretsi dutenez gero, eta gizarte aurrerapena sustatzeko eta bizitza-maila askatasun kontzeptu zabalago baten barruan handitzeko erabakia hartu dutenez gero:

**7. art.** Denak dira berdinak legearen aurrean eta, bereizketarik gabe, legearen babes berbera jasotzeko eskubidea dute. Denek adierazpen hau urratzen duen bazterketa ororen aurrean babes jasotzeko eta bazterketa hori sortzeko probokazioen aurkako babes jasotzeko eskubidea dute.

**21.1. art.** Pertsona orok bere herrialdeko gobernuan parte hartzeko eskubidea dauka, zuzenean edo askatasunez hautatutako ordezkarien bidez.

**21.2. art.** Pertsona orok bere herrialdeko funtzio publikoetan sartzeko eskubidea du, aukera berdintasunean.

**27.1. art.** Pertsona orok komunitateko bizitza kulturalen askatasunez parte hartzeko, arteaz gozatzeko, eta zientziaren aurrerapenean eta hortik eratorritzen diren onuretan parte hartzeko eskubidea du.

#### **NBEko Giza Eskubideen Kontseilua: Interneten adierazpen askatasunari buruzko ebazpena**

Errelatore bereziak iritzi eta adierazpen askatasunerako eskubidea sustatzeari eta babesteari buruz egindako txos-

tenak kontuan izanik (Giza Eskubideen Kontseiluari batzarren 17. denboraldian eta Batzar Orokorrari batzarren 66. denboraldian aurkeztuak), Interneten adierazpen askatasuna dela-eta:

**1. Adierazten du pertsonen eskubideak Interneten ere babestu behar direla**, bereziki adierazpen askatasuna, mugak kontuan izan gabe eta hautatzen den edozein prozedura erabiliz aplikatu behar dena, Giza Eskubideen Adierazpen Unibertsalaren 19. artikuluen arabera eta Eskubide Zibil eta Politikoaren Nazioarteko Itunaren arabera;

**2. Interneten mundu osoko izaera eta izaera irekia aitortzen ditu, garapen mota guztietarako aurrerapenak azkartzeko indar bultzatzailea den aldetik;**

**3. Estatuak dei egiten die Interneteko sarbidea sustatzera eta erraztera, eta nazioarteko lankidetzan ari daitezen**, komunikabideak eta informazio eta komunikazio zerbitzuak herrialde guztietan garatzeko;

**4. Prozedura bereziak beren egungo agintaldietan auzi hauek kontu izatera animatzen ditu**, egokia den moduan;

**5. Giza eskubideen sustapena, babesa eta gozamena aztertzen jarraitzea erabakitzen du, adierazpen askatasuna (Interneten eta beste teknologia batzuetan) barne, baita Internet giza eskubideak garatzeko eta gauzatzeko tresna garrantzitsua nola izan daitekeen ere aztertzen, bere lan-programaren arabera.**

#### **Eskubide Zibil eta Politikoaren Nazioarteko Ituna**

**3. art.** Itun honetan parte hartzen duten estatuak gizonen eta emakumeen berdintasuna bermatu behar diete itunean aipatutako eskubide zibil eta politiko guztiak gozatzeko orduan.

**25. art.** Herritar guztiak, 2. artikuluan aipatutako bereizketak egin gabe, eta behar ez den murrizpenik gabe, ondoko eskubide eta aukera hauek izango dituzte:

a) Arazo publikoen zuzendaritzan parte hartzea, zuzenean edo askatasunez hautatutako ordezkarien bidez;

b) Aldian behin egiten diren hauteskundeetan bozkatzea eta hautatuak izatea. Hauteskundeak benetakoak izan behar dira, sufragio unibertsal eta berdinez egin behar dira, eta botoa isilpekoa izan behar da, hautesleek nahi dutena hautatzen dutela bermatzeko;

c) Berdintasun baldintza orokorretan, beren herrialdeko funtzio publikoetan sartu ahal izatea.

**26. art.** Pertsona guztiak berdinak dira legearen aurrean eta, bereizketarik gabe, legearen babes berbera jasotzeko eskubidea dute. Horri dagokionez, legeak bereizketa oro debekatuko du eta pertsona guztiak babes berdina eta eraginkorra daukatela bermatuko du, arraza, kolorea, sexua, hizkuntza, erlijioa, iritzi politikoak edo bestelakoak, jatorri nazional edo soziala, posizio ekonomikoa, jaiotza edo bestelako gizarte-inguruabarrak bereizketak egiteko arrazoi izan ez daitezten.

#### **Eskubide Ekonomiko, Sozial eta Kulturalen Nazioarteko Ituna**

**Hitzaurrea:** Itun honetan parte hartzen duten estatuak, kontuan hartzen dute Nazio Batuen Gutunean aipatutako printzipioekin bat etorritik askatasuna, justizia eta bakea munduan lortzearen oinarria gizakien familiako pertsona

guztiei berez dagokien duintasuna eta beren eskubide berdin eta aliena ezin aitortu behar direla, eta eskubide horiek gizakien berezko duintasunez datozela aitortzen dute. Giza Eskubideen Adierazpen Unibertsalaren arabera gizaki libreaken ideia, beldurretik eta miseriatik aske dena, **ezin da gauzatu, harik eta pertsona bakoitzak bere eskubide ekonomiko sozial eta kulturalak eskubide zibil eta politikoak bezainbeste gauzatu ahal izateko baldintzak bete arte**. Kontuan hartzen dute Nazio Batuen Gutunak estatuak behartzen dituela gizakien eskubide eta askatasunak modu unibertsal eta benetakoan errespetatzea sustatzera, ulertzen baita norbanakoak, gainerako norbanakoenganako eta bere komunitatearenganako betebeharrak dituen gero, itun honetan aitortutako eskubideak betetzen direla bermatu behar duela.

### ■ **Desgaitutako Pertsonen Eskubideei buruzko Hitzarmena**

**Asmoa:** Hitzarmen honen asmoa desgaitutako pertsona guztiak giza eskubideak eta funtsezko askatasunak erabat eta berdintasunez gozatzeko dituztela bermatzea, sustatzea eta babestea, eta beraien berezko duintasunaren errespetua sustatzea da.

*Desgaitutako pertsonen artean epe luzeko gorputz, buru, adimen edo zentzumen gabeziak dituztenak sartzen dira, gabezia horiek eta zenbait oztopok gizaratean erabat eta benetan parte hartzea (gainerako pertsonak dauzkaten baldintza berdinetan) galarazten dietenean.*

**3. artikulua: Printzipio orokorrak:** Hitzarmen honen printzipioak ondokoak izango dira:

- Norberari datzekion duintasuna, banakoaren autonomia (nork bere erabakiak hartzeko askatasuna barne) eta pertsonen independentzia errespetatzea;
- Diskriminaziorik ez egitea;
- Gizaratean erabat eta benetan parte hartzea eta sartzea;
- Desberdintasuna errespetatzea eta desgaitasunen bat duten pertsonak gizakiaren aniztasunaren eta izaeraren parte gisa onartzea;
- Aukera berdintasuna;
- Irisgarritasuna;
- Gizonen eta emakumeen arteko berdintasuna;
- Desgaitasunen bat duten haurren gaitasunen bilakera eta beren nortasuna mantentzeko duten eskubideak errespetatzea.

### ■ **Europar Batasunaren Ituna**

**2. art.** Batasunaren oinarriak balio hauetan oinarritzen da: giza duintasunaren errespetua, askatasuna, demokrazia, berdintasuna, zuzenbide estatua eta giza eskubideen errespetua, gutxiengoetako pertsonen eskubideak barne. Balio hauek estatu kide guztiei dagozkie, pluraltasunak, bazterketa ezak, tolerantziak, justiziak, elkartasunak, eta emakumeen eta gizonen arteko berdintasunak definitzen duten gizarte batean.

**3.3. art.** (...) Batasunak gizarte bazterketa eta diskriminazioa borrokatuko ditu, eta gizarte justizia eta babesa, emakumeen eta gizonen arteko berdintasuna, belaunaldien arteko elkartasuna, eta umeen eskubideen babesa sustatuko ditu.

**9. art.** Batasunak bere jardura guztietan bere herritarren berdintasun printzipioa errespetatuko du. Herritar guztiak

erakundeen, organoen eta organismoaren arreta berdin-berdin jasoko dute (...).

**11.1. art.** Erakundeek herritarrei eta beraiek ordezkatzeko dituzten elkarteei, bide egokietatik, beren iritzia jendarean adierazteko eta trukatzeko aukera emango diete, Batasunaren jarduketara eremu guztietan.

**21.1. art.** Batasunaren jarduna nazioarteko agertokian bere sorrera, garapen eta handikuntzarako oinarri izan diren eta mundu osora hedatu nahi dituen printzipioetan oinarrituko da: demokrazia, zuzenbide estatua, giza eskubideen eta funtsezko askatasunen unibertsaltasuna eta bana ezintasuna, giza duintasunarenganako errespetua, berdintasun eta elkartasun printzipioak, eta Nazio Batuen Gutunaren eta Nazioarteko Zuzenbidearen printzipioenganako errespetua.

### ■ **Europar Batasunaren Funtsezko Eskubideen Gutuna (Nizako Gutuna)**

**21. art. Bazterketa eza.**

1. Bazterketa oro debekatzeko da, batez ere ondoko hauengatik egiten dena: sexuagatik, arrazagatik, koloreagatik, jatorri etniko edo sozialagatik, ezaugarri genetikoenagatik, hizkuntzagatik, erlijioagatik edo sinesmenengatik, iritzi politikoengatik edo bestelako iritziengatik, gutxiengo nazional bateko kide izateagatik, ondareagatik, jaiotzagatik, desgaitasunagatik, adinagatik edo orientazio sexualarengatik.

2. Itunak aplikatzen diren eremuan nazionalitateagatik bazterketa oro debekatzeko da, bere xedapen bereziak gorabehera.

**23. art. Emakumeen eta gizonen arteko berdintasuna.** Emakumeen eta gizonen arteko berdintasuna alor guztietan bermatu behar da, baita enpleguan, lanean eta ordainketan ere.

Berdintasunaren printzipioak ez du galarazten gutxiengo ordezkatuta dagoen sexuaren alde abantaila zehatzak dakartzaten neurriak mantentzea edo hartzea.

**25. art. Adinekoen eskubideak.** Adinekoei bizitza duina eta independentea bizitzeko eta gizarte eta kultur bizitzan parte hartzeko eskubidea aitortzen die Batasunak.

**26. art. Desgaitutako pertsonen integrazioa.** Desgaitasunak dituzten pertsonen beren autonomia, gizarte eta lan integrazioa, eta komunitateko bizimoduan parte hartzea bermatzen dieten neurriak gozatzeko eskubidea aitortzen eta errespetatzen die Batasunak.

### ■ **2002/22/CE Zuzentaraua, Europako Legebiltzarrena eta Kontseiluarena, 2002ko martxoaren 7koa, komunikazio elektronikoen sare eta zerbitzuen zerbitzu unibertsalari eta erabiltzaileen eskubideei buruzkoa (Zerbitzu Unibertsalaren Zuzentaraua)**

Telekomunikazio elektronikoen zerbitzuen erabiltzaileek zenbait eskubide dituzte, besteak beste:

- Enpresa batekin edo gehiagorekin kontratua egiteko eskubidea, telefonia-sareko konexioa edo sarbidea eskaintzen dituzten zerbitzuen abonatu izaterakoan. Telefonia sare baten konexioen erabiltzaileen eta hornitzaileen arteko kontratu batek gutxienez ondoko hauek agerrarazi behar ditu: hornitzailearen nortasuna eta helbidea, ematen diren zerbitzu motak (ondoko hauek

barnean hartuta: larrialdi zerbitzuetako sarbidea ematen den edo ez, zerbitzuak eta aplikazioak eskuratzea edota erabiltzea mugatzen duen beste edozein baldintzari buruzko informazioa, ematen diren zerbitzuen kalitatearen gutxieneko mailak, eta abar), kontratuaren iraupena eta hura berrizatzeko baldintzak, auziak konpontzeko prozedurak hasteko metodoa eta abar;

- Operatzaileek informazio gardena eta eguneratua eskaintzea aplikatu beharreko prezio eta tarifei buruz. Informazio hori argi, zehatz eta erraz eskuratu ahal izateko moduan argitaratu behar da. ANRek enpresak behartu ahal dituzte abonatuari zenbait gairi buruzko informazioa jakinaraztera: tarifa-baldintza bereziak dituzten zenbakien edo zerbitzuen tarifak, zerbitzuak edo aplikazioak eskuratzea mugatzen duten baldintzen aldaketak eta abar;
- Operadoreek informazio konparagarria, egokia eta eguneratua argitaratu behar dute beren zerbitzuen kalitateari buruz;
- Gutxieneko exigentziak ezarri behar dira zerbitzuen kalitateari dagokionez, zerbitzuen kalitateak okerrera egin ez dezan eta sareetako trafikoa ez dadin oztopatu edo moteldu;
- Sarean hondamendien ondorioz edo ezinbestekoen ondorioz gertatzen diren matxuren kasuan telefono-sare publikoa erabili ahal izatearen bermea;
- Operadore bidez eta abonatuaren zenbakiei buruzko informazio zerbitzuen bidez zerbitzuak eskaintzea.

## ■ Espainiar Konstituzioa

**9.2. art.** Botere publikoei dagokie inguruabar zehatzak sustatzea, gizabanakoaren eta berak osatzen dituen taldeen askatasuna eta berdintasuna benetakoak eta eragingarriak izan daitezen; oztopoak kentzea, horiek haien osotasuna eragotzi edo zailtzen badute; eta herritar guztien parte hartzea erraztea, bai bizitza politikoa, baita ekonomia-, kultura- eta gizarte-bizitzan ere.

**14. art.** Legearen aurrean berdinak dira espainiarrak, eta jaiotza, arraza, sexua, erlijioa, iritzia edo beste edozein egoera edo gorabehera pertsonal edo sozialarekin lotutako bereizkeria ezin da nagusi izan.

### 20. art.

1. Eskubide hauek aitortu eta babestuko dira:
  - a. Pentsamenduak, ideiak eta iritziak askatasunez adieraztea eta hedatzea, hitzez, idatziz edo beste bitarteko batzuk erabiliz.
  - b. Literaturako, arteko, zientziako eta teknikako ekoizpena eta sormena.
  - c. Katedra-askatasuna.
  - d. Edozein hedabideren bitartez egiazko informazioa askatasunez ematea edo jasotzea. Legeak kontzientzia-klausularako eta sekretu profesionalerako eskubidea arautuko du askatasun horiek gauzatzean.
2. Eskubide horien gauzatzea ezin da inolako alde zuzenaren bidez mugatu.
3. Legeak estatuaren edo edozein erakunde publikoren mendeko gizarte komunikabideen antolaketa eta Parlamentuaren kontrola arautuko ditu, eta talde sozial eta politiko esanguratsuek komunikabide horiek erabil ditzaketela bermatuko du, Espainiako gizarteko pluraltasuna eta hizkuntza guztiak errespetatuz.

4. Askatasun horien muga hemen dago: Titulu honetan aitortutako eskubideetan, titulua garatzen duten legeen manuetan eta, bereziki, ohorerako, intimitaterako, norberaren irudirako, eta gazteen eta haurren babeserako eskubidean.

5. Argitalpenak, grabazioak eta bestelako informazio-bitartekoak bahiketa epaile baten ebazpenaren bidez soilik agindu ahal da.

**23.1. art.** Herritarrek arazo publikoetan parte hartzeko eskubidea daukate, zuzenean edo ordezkarien bidez, sufragio unibertsalez aldi aldi hauteskundeetan askatasunez hautatuak.

**23.2. art.** Halaber, funtzio eta kargu publikoak berdintasunez lortzeko eskubidea dute, legeak ezarritako baldintzen arabera.

**48. art.** Gazteek garapen politiko, sozial, ekonomiko eta kulturean askatasunez eta eraginkortasunez parte har dezaten baldintzak sustatuko dituzte botere publikoek.

**105. art.** Legeak arautuko du:

b) Herritarrek administrazioko fitxategiak eta erregistroak eskuratzeko aukera, estatuko segurtasunari eta defentsari, delituen azterketari eta pertsonen intimitateari lotuta dagoenean izan ezik.

## ■ 30/1992 Legea, azaroaren 26koa, Administrazio Publikoaren Araubide Juridikoarena eta Administrazio Prozedura Erkidearena

### 35. art. Herritarren eskubideak.

Herritarrek administrazio publikoekin dituzten harremanetan honako eskubideak dituzte:

- a) Interesdunak badira, edozein unetan jakin dezakete prozeduren izapideak zertan diren, eta prozedura horietako agirien kopiak lor ditzakete.
- b) Prozedurak izapidetzeko erantzukizuna daukaten administrazio publikoetako zerbitzutan dauden agintariak eta langileak identifikatzea.
- c) Aurkezten dituzten dokumentuen zigilatutako kopia eskuratzeko, originalekin aurkeztean, baita originalak berreskuratzeko ere, salbu eta originalak prozeduran erabili behar badira.
- d) Bere autonomi erkidegoko lurraldeko hizkuntza ofizialak erabiltzea, lege honetan eta antolamendu juridikoaren gainerakoan aurreikusitakoarekin bat etorritz.
- e) Entzunaldi izapidetaren aurreko prozeduraren faseetan alegazioak egitea eta dokumentuak aurkeztea; horiek kontuan izan beharko ditu organo eskudunak ebazpen proposamena egiten duenean.
- f) Ez dute aurkeztu beharrik kasuan kasuko prozedurari aplikatu dakizkiokeen arauetan eskatzen ez den agiririk, ezta horretan diharduen administrazioak dagoeneko bere esku duen agiririk.
- g) Argibideak eta aholkuak lor ditzakete, hain zuzen ere, indarrean dauden xedapenen arabera, proiektuak, jarduna edo eskubideak egiterakoan zein baldintza juridiko eta tekniko bete behar dituzten jakiteko.
- h) Konstituzioan, lege honetan edo beste legeetan emandako baldintzetan Administrazio publikoetako erregistro eta artxiboetara sarbidea.
- i) Agintariengandik eta funtzionarioengandik errespetuzko eta adeitasunezko tratua jasotzea; horiek beren eskubideak



gauzatzeko eta beren betebeharrak betetzeko erraztasunak eman behar dizkiete.

j) Administrazio publikoei eta beraien langileei erantzukizuna exijitzea, legearen arabera egokia denean.

k) Konstituzioak eta legeek aitortzen dituzten bestelako eskubideak.

#### ■ **Apirilaren 2ko 7/1985 Legea, Toki Araubideko Oinarriak arautzen dituena**

**18. art. 1. Bizilagunen eskubideak eta betebeharrak hauek dira:**

b) Udal-kudeaketan parte hartzea, legeetan xedatutakoaren arabera, eta, kasuan-kasuan, udaleko gobernuo eta administrazio organoek auzotarren borondatezko lankidetzak eskatzen dutenean.

#### ■ **Gardentasunaren, Informazio Publikoa Eskuratzearen eta Gobernu Onaren Lege Proiektua (121/000019)**

**Atariko titulua.**

**1. artikulua. Xedea.** Lege honen xedea da jarduera publikoaren gardentasuna handitzea eta sendotzea, jarduera horren inguruko informazioa eskuratzeko eskubidea aitortzea eta bermatzea, eta arduradun publikoek bete behar dituzten gobernu oneko betebeharrak eta horiek ez betetzetik eratorritzen diren ondorioak ezartzea.

**I. titulua. Jarduera publikoaren gardentasuna. III. kapitulua: Informazio publikoa eskuratzeko eskubidea.**

**9. artikulua. Informazio publikoa eskuratzeko eskubidea.** Pertsona guztiek informazio publikoa eskuratzeko eskubidea daukate, Espainiar Konstituzioaren 105 b) artikuluan eta lege honetan ezarritako baldintzetan.

**10. artikulua. Informazio publikoa.** Informazio publikoa da titulu honetako aplikazio eremuan dauden subjektuek dauzkaten edukiak edo dokumentuak, beren funtzioak betetzearan egin edo eskuratu dituztenak.

**14. artikulua. Informazioa eskuratzeko eskaera.**

1. Eskuratzeko eskubidea gauzatzeko prozedura eskaera egokia aurkeztuz hasiko da, administrazio organoaren titularrari edo informazioa daukan erakundeari zuzendu behar zaiona.

2. Eskaera edozein modutan aurkez daiteke, ondoko hauek agerrarazten badira:

a. Eskatzailearen nortasuna.

b. Eskatzen den informazioa.

c. Kontakturako helbide bat, ahal dela elektronikoa, komunikazioetarako.

d. Eskatutako informazioa eskuratzeko nahiago den modalitatea.

3. Eskatzaileak informazioa eskatzeko arrazoiak ere aipa ditzake, ebazpena ematean kontuan izan behar direnak. Halere, motibazio eza ez da berez eskaera ukatzeko kausa izango.

#### ■ **39/2006 Legea, mendetasun egoeran dauden pertsonen autonomia pertsonala eta arreta sustatzeko dituen**

**Xedapen orokorrak: 1. artikulua. Legearen xedea.**

1. Mendetasun egoeran dauden pertsonen autonomia pertsonala eta arreta sustatzeko herritarren eskubide

subjektiboa gauzatzean berdintasuna bermatzen duten oinarriko baldintzak arautzea da lege honen xedea, legeetan ezarritako terminoetan, Autonomiarako eta Mendetasunari Arreta egiteko Sistema bat sortuz, horretarako administrazio publiko guztien lankidetzak eta parte hartzea jasoz, eta Estatuko Administrazio Orokorrak eskubideen gutxieneko eduki komuna bermatuz Espainiar estatuko lurraldearen zona guztietako herritar guztientzat.

**3. artikulua. Legearen printzipioak. Lege honek printzipio hauek dauzka oinarri:**

a) Autonomiarako eta Mendetasunaren Arretarako Sistemaren prestazioen izaera publikoa.

b) Mendetasun egoeran dauden pertsona guztiek eskuratu ahal izatea, modu unibertsalean, benetako berdintasunez eta bazterketarik gabe, lege honetan ezarritako terminoetan.

c) Mendetasun egoeran dauden pertsonen arreta integrala eta integratua ematea.

d) Mendetasun egoeran dauden pertsonen arreta emateko politiken zeharkakotasuna.

e) Pertsonen premien balorazioa, benetako berdintasuna bermatzeko berdintasun irizpideak kontuan izanik.

f) Arreta pertsonalizatzea, bazterketa maila handiagoa edo aukera berdintasun txikiagoa dutelako ekintza positibo handiagoa behar duten pertsonen egoera bereziki kontuan izanik.

g) Prebentzio, errehabilitazio eta estimulu sozial eta mentaleko neurri egokiak ezartzea.

h) Mendetasun egoeran dauden pertsonak ahalik eta autonomia mailarik handienarekin bizi ahal izateko behar diren baldintzak sustatzea.

i) Mendetasun egoeran dauden pertsonen, posible den heinean, bizi diren ingurunean bizitzeko jarraitzea.

j) Mendetasun egoeran dauden pertsonen arreta emateko zerbitzuen kalitatea, iraunkortasuna eta irisgarritasuna.

k) Mendetasun egoeran dauden pertsonen parte hartzea eta, egokia bada, beraien familiaren eta lege honetan ezarritako moduan ordezkatzeko dituzten erakundeena.

l) Gizarte eta osasun zerbitzuek laguntza ematea Autonomiarako eta Mendetasunaren Arretarako Sistemaren erabiltzaileei zerbitzuak (lege honetan ezarritakoak eta autonomi erkidegoen arau egokietan eta tokiko erakundeek aplikatu beharrekoak) emateko.

m) Ekimen pribatuak autonomia pertsonala sustatzeko eta mendetasun egoerari arreta egiteko zerbitzu eta prestazioetan parte hartzea.

n) Hirugarren sektoreak autonomia pertsonala sustatzeko eta mendetasun egoerari arreta egiteko zerbitzu eta prestazioetan parte hartzea.

ñ) Administrazioen arteko lankidetzak.

o) Lege honetan ezarritako prestazioak autonomi erkidegoen gizarte zerbitzuen sareetan integratzea, bere gain hartu dituzten eskumenen eremuan, eta beraien eskaintza aitortzea eta bermatzea, zentro eta zerbitzu publiko edo pribatu itunduen bidez.

p) Genero ikuspegia sartzea, emakumeen eta gizonen premiak ezberdinak direla kontuan izanik.

q) Mendetasun handia daukaten pertsonen arreta lehentasunez jasoko dute.

■ **Martxoaren 22ko 3/2007 Lege Organikoa, emakumeen eta gizonen arteko benetako berdintasunari buruzkoa**

**28. art. Informazioaren gizartea.**

1. Informazioaren Gizartea garatzen duten programa publiko guztiak diseinatzerakoan eta betetzerakoan, emakumeen eta gizonen arteko aukera berdintasunaren printzipioa kontuan izan behar da.

2. Gobernuak emakumeak informazioaren gizartean erabat sartzen direla sustatuko du, berariazko programak garatuz, bereziki informazioaren eta komunikazioen teknologiak eskuratzeko eta haiei buruzko prestakuntza jasotzeko, bazterketa arriskuan dauden emakumeak eta landa-inguruan bizi direnak barne.

3. Gobernuak emakumeek sortutako edukiak sustatuko ditu informazioaren gizartearen eremuan.

4. Informazioaren eta komunikazioaren teknologien eremuko proiektuetan, osorik edo zati batean diru publikoz ordaindu badira, hizkuntza eta edukiak sexistak ez izatea bermatuko da.

■ **Telekomunikazioei buruzko azaroaren 3ko 32/2003 Legea, martxoaren 30eko 13/2012 Dekretu-legeko 38 bis, 38 ter bidez aldatutakoa (erf.: BOE-A-2012-4442)**

**38 ter artikulua. Gardentasuna eta informazioa argitaratzea.**

1. Arau bidez, jendearentzako komunikazio elektronikoen sare publikoen edo komunikazio zerbitzuen operadoreek informazio gardena, konparagarria, egokia eta eguneratua argitaratzeko baldintzak ezar daitezke, aplikatu beharreko prezio eta tarifei buruz, kontratua amaitzean sor litezkeen gastuei buruz, eta azken erabiltzaileei ematen dizkieten zerbitzuak eskuratzeari eta erabiltzeari buruz. Informazio hori argitasunez, ulergarri eta erraz eskuratzeko moduan argitaratuko da.

2. Industria, Energia eta Turismo Ministerioak informazio konparagarria zabaltzea sustatuko du, azken erabiltzaileek erabilera modalitate alternatiboen kostua modu independentean ebaluatu ahal izateko, adibidez, gidaliburu alternatiboen bidez edo antzeko tekniken bidez. Gainera, jendearentzako komunikazio elektronikoen sare publikoen edo komunikazio zerbitzuen operadoreek argitaratzen duten informazioa gainerakoek dohainik erabili ahal izateko baldintzak arautuko ditu, gidaliburu elkarreragile horiek edo antzeko teknikak saldu ahal izateko edo haien erabilera baimentzeko.

3. Errege dekretu bidez, baldintza egokiak ezarriko dira, jendearentzako komunikazio elektronikoen sare publikoen edo komunikazio zerbitzuen operadoreek ondoko hau egiten dutela bermatzeko:

a) Abonatuiei informazioa ematea prezio-baldintza berezien mendeko zenbakieki edo zerbitzuei aplikatu beharreko tarifari buruz, zerbitzuen kategorietako bakoitzari dagokionez. Informazio hori deiak egin baino lehentxeago emateko exijitu ahal da.

b) Abonatuiei informatzea larrialdi zerbitzuak eskuratzeko dauden aldaketa guztiei buruz edo abonatuta dauden zerbitzura deiak egiten dituzten pertsonen kokalekuari buruzko informazioan dauden aldaketei buruz.

c) Abonatuiei zerbitzuen eta aplikazioen eskuraketa edo erabilera mugatzen duten baldintzetan izaten diren aldaketen berri ematea.

d) Hornitzaileak ezarritako edozein prozedurari buruzko informazioa ematea, sareko lotura agortzen edo saturatzen duen modu batean trafikoa neurtzeko eta kudeatzeko asmoz, eta prozedura horiek zerbitzuaren kalitatean eragina izan dezaketen moduari buruzko informazioa ematea.

e) Abonatuiei jakinaraztea erabaki dezaketela beren datu pertsonalak gidaliburu batean sartu nahi dituzten edo ez, eta datu horiek nolakoak diren.

f) Aldian behin eta xehetasun handiz desgaitutako abonatuiei jakinaraztea beraienez dauden produktu eta zerbitzuen berri.

4. Industria, Energia eta Turismo Ministerioak jendearentzako komunikazio elektronikoko sare publikoen operadoreei edo komunikazio elektronikoen zerbitzuetako operadoreei exijitu ahal die dohainik eta formatu jakin batean zabal dezatela interes publikoko informazioa, abonatu zahar eta berrientzat, bidezkoa denean, beraiek abonatuarekin komunikatzeko erabili ohi dituzten bide berberak erabiliz. Informazio horrek ondoko hauek hartuko ditu barnean:

a) Komunikazio elektronikoko zerbitzuen erabilerarik ohikoenak, jarduera ilizituak egiteko edo eduki kaltegarriak zabaltzeko, bereziki hirugarrenen eskubide eta askatasunen aurkako direnean, egile-eskubideak eta antzeko eskubideak urratzea barne, baita horren ondorio juridikoak ere.

b) Segurtasun pertsonalerako, pribatutasunerako, eta datu pertsonalerako arriskuen aurkako babes-neurriak, komunikazio elektronikoko zerbitzuak erabiltzen direnean.

■ **Herritar izaerako giza eskubideen adierazpenak edo adierazpen-proposamenak**

• **“Ziberespazioko Giza Eskubideen Adierazpenerako Proposamena”**, 1997. urtean formulatua. 1948ko Giza Eskubideen Adierazpen Unibertsaleko printzipioetan oinarritzen da. Beraren helburua komunikazioen sare globalean eztabaidarako dokumentua eta borondatezko konpromisoko dokumentua izatea da.

• **“Itacuruçá-ko adierazpena”**. Besteak beste, adierazten du informazioaren gizartearen gaur egungo erronka nagusia jakintzaren gizartean modu demokratikoan sartu ahal izatea dela.

• **“Ziberespazioaren Independentziaren Adierazpena”**, John Perry Barlow-rena, 1996koa. Azaltzen du Internet eta berari lotutako sareak bide irekia direla giza izaera hobetzeko, eta askatasuna, justizia, berdintasuna eta munduko bakea lortzeko.

• **“Florianopolis-go Adierazpena”**. Hemen azaltzen da Latinoamerikako eta Karibeko herrialdeek 2005. urterako informazioko gizarteko erabateko kide izan nahi dutela, eraginkortasunez, berdintasunez eta iraunkortasunez, jakintzan oinarritzen den ekonomia globalaren esparruan.

• **Emilio Suárez-k argitaratutako Eskubide Adierazpena**, 2008koa, askoz ere berriagoa eta berritzaileagoa. Badiardi gaur egun gertatzen ari diren fenomenoak modu praktikoa eta errealistagoan jasotzen dituela.

## 14.2. Gizarte inklusibo eta parte hartzailea

Gizarte inklusibo eta parte hartzaile bat sustatzeko eremuan, zehazki, kontuan izan behar diren erreferentzietako batzuk hauek dira:

### ■ 18/2008 Legea, abenduaren 23koa, diru-sarrerak bermatzeari eta gizarteratzeari buruzkoa

**1. art. Xedea eta eremua.** Lege honen xedea Diru-sarrerak bermatzearen eta Gizarteratzearen Euskal Sistema arautzea da eta, esparru horretan, prestazio ekonomikoetarako eskubidea eta bazterketa arriskua prebenitzeko bazterketa pertsonal, sozial eta lan arlokoa arintzeko tresnetarako eskubidea arautzea, eta herritarren gizarte eskubideak benetan gauzatzeko baliabide pertsonal, sozial edo ekonomiko nahikoak ez dauzkaten pertsonak gizarteratzea erraztea.

### 3. art. Oinarrizko printzipioak

**d) Zerbitzuak eta prestazioak eskuratzeko eta aplikatzeko berdintasuna.** Diru-sarrerak bermatzearen eta Gizarteratzearen Euskal Sistemaren esparruan, euskal administrazio publikoek bermatu behar dute jendeak gizarte eta lan bazterketarako prestazio ekonomikoak eta tresnak eskuratzeko dituela, berdintasun irizpideekin bat etorri, baldintza pertsonal edo sozialei lotutako bazterketarik gabe, eta modu homogenezan lurralde autonomiko osoan. Pertsona bat udalerrri edo lurralde historiko jakin batean bizitzeak ezin du ezberdintasunik sorrarazi zerbitzuak eta prestazioak emateko eta aplikatzeko orduan, eta ezin ditu lege honetan arautzen diren prestazioen osagarri ekonomikoak arautu eta aplikatu. Halere, ekintza positiboko neurriak aplikatu ahal dira, zaurgarritasun handiena duten pertsonen kasuan.

**k) Parte hartzea.** Diru-sarrerak bermatzearen eta Gizarteratzearen Euskal Sistemaren esparruan, euskal administrazioek gizarte edota lan inklusioko prozesuetan parte hartzea sustatu eta bultzatuko dute, bai erabiltzaileen aldetik, bai gizarte erakundeen eta herritar guztien aldetik, modu orokorragoan.

### ■ 12/2008 Legea, abenduaren 5koa, Gizarte Zerbitzuei buruzkoa

#### 1. artikulua.- Xedea.

Lege honen xedea Euskal Autonomia Erkidegoaren eremuan gizarte zerbitzuen prestazioetarako eta zerbitzuetarako eskubidea sustatzea eta bermatzea da, Gizarte Zerbitzuen Euskal Sistema unibertsal bat arautuz eta antolatuz.

#### 6. artikulua.- Gizarte Zerbitzuen Euskal Sistemaren xedea.

1.- Gizarte Zerbitzuen Euskal Sistemaren xedea biztanleria osoaren gizarte ongizatea sustatzea da, beste sistema batzuekin eta beste politika publiko batzuekin koordinatuta eta lankidetzan. Funtsezko helburuak hauek dira:

- Autonomia pertsonala sustatzea, eta mendetasunetik eratortzen diren premia pertsonalak eta familiarrak prebenitzea eta arreta ematea.
- Babesik gabeko egoerek sortzen dituzten beharrianak prebenitzea eta arreta ematea.

c) Bazterketa egoerak prebenitzea eta arreta ematea, eta pertsonen, familien eta taldeen gizarteratzea sustatzea.

d) Larrialdi egoeretan sortzen diren pertsonen eta familien premiak prebenitzea eta arreta ematea.

2.- Helburu horiek lortze aldera, ondoko hauetarako mekanismoak artikulatuko dira:

a) Gizarte zerbitzuen eremuan arreta eman ahal zaien gizarte premiak detektatzea, eta premia horiei erantzuteko zerbitzu eta prestazio egokienak planeatzea.

b) Komunitatearen parte hartzea sustatzea gizarte zerbitzuen barruan arreta eman ahal zaien gizarte premiak konpontzeko orduan, batez ere erabiltzaileen banakako eta antolatutako parte hartzea eta gizarte zerbitzuen eremuan aktiboak diren erakundeen parte hartzea.

3.- Gizarte ongizatea, gizarteratzea eta gizarte kohesioa ez dira Gizarte Zerbitzuen Euskal Sistemaren xedea bakanrik; gizarte babeseko beste sistema eta politika publiko batzuek ere xede horiek dauzkate. Xede horiek lortzeko orduan, beraz, Gizarte Zerbitzuen Euskal Sistemak berari dagozkion xede eta funtzioetan lankidetzan arituko da. Era berean, elkartasunaren eta bizikidetzaren sustapena eta gizarte parte hartzearen sustapena beste sistema eta politika publiko batzuen xedea dira ere.

### ■ Euskal Autonomia Erkidegoan gizarte zerbitzuen erabiltzaileen eta profesionalen eskubide eta betebeharren gutuna eta iradokizunen eta kexen araubidea onetsi zituen apirilaren 6ko 64/2004 Dekretua

#### 1. artikulua.- Xedea.

1.- Dekretu honen xedea Euskal Autonomia Erkidegoaren eremuan gizarte zerbitzuen erabiltzaile eta langileei dagozkien eskubide eta betebeharren gutuna finkatzea da, Gizarte Zerbitzuen urriaren 18ko 5/1996 Legearen Hirugarren Xedapen Gehigarrian ezarritako agindua betez.

2.- Era berean, dekretu honen xedea da gizarte zerbitzuen funtzionamenduan pertsonak parte hartzeko bide bat ezartzea, kexak eta iradokizunak aurkeztuz.

#### 12. artikulua.- Parte hartzea.

1.- Gizarte zerbitzuen erabiltzaileek parte hartzeko eskubidea dute, hau da, aktiboki, zuzenean eta ordezkarien bidez, zuzenean edo zeharka, bakarka zein kolektibo gisa, eragiten dieten erabaki guztietan parte hartzeko eskubidea, erabiltzen dituzten gizarte zerbitzuen antolaketan eta funtzionamenduan.

2.- Eskubide hori benetan gauzatu ahal dela bermatzeko, erabiltzaileek ondoko hauek egin ditzakete:

- Premien ebaluazioan parte hartzea eta, beraren ustez, berari dagozkionak definitzea, baita berari erantzuteko egokien irizten dieten zerbitzuak definitzea ere.
- Egotekotan, aplikatuko zaien banakako arretako plana egitean parte hartzea.
- Erabiltzen dituzten zerbitzuen antolaketan eta funtzionamenduan parte hartzea, parte hartze organoen bitartez.
- Zerbitzuen antolaketan eta funtzionamenduan parte hartzea, iradokizun eta kexen prozeduren bitartez.
- Zentro eta zerbitzuen funtzionamenduari buruzko salaketak aurkezteak, organo eskudunak ikuskapen prozedurak

hasteko edo ez hasteko kontuan izango dituenak, martxoaren 10eko 40/1998 Dekretuan ezarritakoaren arabera (EAEko gizarte zerbitzuen baimena, erregistroa, homologazioa eta ikuskapena arautzen dituena), baita prozedura horietan entzunak izatea eta zerbitzuen aldi aldiko prozesuetan parte hartzea ere.

■ **20/1997 Legea, abenduaren 4koa, Irisgarritasuna Sustatzekoa**

**Atariko titulua. Legearen xedea eta aplikazio eremua.**

**1. artikulua.- Xedea.**

1.- Lege honen xedea da hiri-ingurunearen, gune publikoen, eraikinen, garraiobideen eta komunikabideen irisgarritasuna bermatzea, pertsona guztiek eta, batez ere, mugikortasun murriztua, komunikatzeko zailtasunak edo muga psikiko zein sentsoriala, aldi baterako zein betiko, dituztenek era autonomoan erabil eta goza ditzaten.

2.- Botere publikoek legea benetan aplikatzeko behar diren ekintza positiboko neurriak hartzea sustatuko dute. Egokia bada, pertsonen bizi-kalitatea hobetzen laguntzen duten laguntza teknikoaren erabilera sustatuko dute.

**2. artikulua.- Legearen aplikazio eremua.**

Lege hau Euskal Autonomia Erkidegoaren eremuan aplikatuko da, izaera fisiko edo juridikoa, publikoa nahiz pribatua, duen edozeinek hirigintza, eraikuntza, garraioa eta komunikazio arloetan egiten dituen jarduketara guztietan.

■ **68/2000 Dekretua, apirilaren 11koa, hiri-inguruneen, espazio publikoen, eraikinen eta informazio eta komunikazioko sistemen irisgarritasun-baldintzei buruzko arau teknikoak onartzen dituena**

**Xedapen orokorrak.**

Irisgarritasuna sustateari buruzko abenduaren 4ko 20/1997 Legea onartzeko xedea izan zen hiri-ingurunearen, gune publikoen, eraikinen, garraiobideen eta informazio eta komunikazio sistemen irisgarritasuna bermatzea, pertsona guztiek eta, batez ere, mugikortasun murriztua, komunikatzeko zailtasunak edo muga psikiko zein sentsoriala, aldi baterako zein betiko, dituztenek era autonomoan erabil eta goza ditzaten.

Legearen bigarren azken xedapenak arau tekniko egokiak egitea aurreikusitako, legezko testua garatzeko. Arau tekniko horietan hiri inguruen, espazio publikoen, eraikinen, garraiobideen eta informazio eta komunikazio sistemen irisgarritasun baldintzak zehaztu behar dira. Arauen bitartez artikulatzen diren irisgarritasunari buruzko arauak eta hirigintzako oztopoak kentzeko arauak bateratu eta harmonizatu behar dira.

Zentzu horretan, eta abenduaren 4ko 20/1997 Legearen xedatutakoa betetze aldera, **“guztientzako diseinu unibertsal batean” kontuan izan beharreko baldintza teknikoak, hiri ingurunerako, eraikuntzarako eta komunikazio zerbitzuetarako direnak, egin dira, eta zenbait eranskinetan sartzen dira, legea garatzeko araudi teknikoaren zati handi bat eratzen dutenak.**

■ **42/2005 Dekretua, martxoaren 1ekoa, hiri-inguruneen, espazio publikoen, eraikinen eta informazio eta komunikazioko sistemen irisgarritasun-**

**baldintzei buruzko arau teknikoak onartzen dituen dekretua aldatzen duena**

**Artikulu bakarra.-** Hiri-inguruneen, espazio publikoen, eraikinen eta informazio eta komunikazioko sistemen irisgarritasun-baldintzei buruzko arau teknikoak onartzen dituen apirilaren 11ko 68/2000 Dekretuaren IV. eranskina-ren 2.4.1.3 artikuluko 4. idatz-zatiaren hirugarren puntuari, “Errotulazioari” buruzkoari, idazkuntza berria emango zaio. Honela geratuko da:

«Testua dagoenean, inprentako letrekin osatuko da, eta karaktereen artean 0,5 cm-ko tartea egon behar da. Eskigita dauden edota irteten diren karteletan, karaktereek gutxienez 4 cm-ko tamaina eduki behar dute».

■ **8/1997 Legea, ekainaren 26koa, Euskadiko osasun antolamenduari buruzkoa**

**10. artikulua. Baliabide izaerako eta izaera osagarriko eskubideak eta betebeharrak.**

Euskadiko osasun sistemak osasuna babesteko eskubidea legez arautetik eratorritako baliabide izaerako eta izaera osagarriko eskubide eta betebeharrak guztiak gartzten eta aplikatzen direla bermatuko du, bestak beste, hurrengoak bultzatuz: pertsonen osasun zerbitzuekin harremanetan jartzean nortasunaren, giza duintasunaren eta intimitatearen gehieneko errespetua izatea, diagnostiko edo terapia prozedura oron horren berri idatziz uzteko betebeharrak errespetatzea eta kasuan kasuko baimena eskuratu beharra, informaziorako beharrezko baldintzak bete ondoren.

Herritarrek estaldura publikoko osasun zerbitzuetara iristeko prozedurak berdintasun eraginkorreko printzipioa bermatuko du, eta pixkanaka herritarrek osasun zerbitzu eta profesionalen gainean aukeraketa egiteko ahalmena zabaltzea eta beren eskubide eta betebeharren gainean behar duten informazioa eskuratzeko ahalbidetuko duten antolamendu baldintzen alde egiten saiatuko da.

**11. artikulua. Herritarren partaidetza.**

Herritarrek Euskadiko osasun sisteman parte hartu ahal dezaten, arauen bidez komunitateko parte hartzeko kontseiluak sortuko dira autonomi erkidego osoaren eremurako eta osasun arlo bakoitzaren eremurako. Kontseilu horiei kontsulta eta aholkularitza eskumenak emango zaizkie, planak eta sistemaren helburu orokorrak formulatzeko, eta jarraipenerako eta gauzaperaren emaitzen azken ebaluaziorako. Beraien osasun lurraldeko eta osasun-sektoreko ordezkariak irizpideak kontuan izan behar dira. Gainera, toki eta foru administrazioetako, osasuneko lanbide-elkar-goetako, kontsumitzaile eta erabiltzaileen elkarteetako, eta sindikatu etako eta enpresa-elkarteetako ordezkariak sartu behar dira.

■ **1/1993 Legea, otsailaren 19koa, Euskal Eskola Publikoari buruzkoa**

**I. TITULUA. EUSKAL ESKOLA PUBLIKOAREN PRINTZIBIO OROKORRAK ETA XEDEAK**

2.- Euskal eskola publikoak xede hauek dauzka:

a) **Hezkuntzarako eskubidea**, Konstituzioan jasotzen dena, **benetan gauzatzen dela bermatzea**, hori galarazten duten oztopo ekonomiko, sozial eta bestelakoak desagerraraziz.

b) *Ikasleen nortasuna askatasunez garatzea eta beraien prestakuntza integrala sustatzea, Bizikidetzak demokratikoa ahalbideratzen duten balioetan oinarrituta. Besteak beste, gaitasun eta jarrera kritikoak, berdintasuna, justizia, parte hartzea, pluraltasunaren eta kontzientzia-askatasunaren errespetua, elkartasuna, gizarte-kezka, tolerantzia, elkarrenganako errespetua eta giza eskubideen defentsa sustatzea.*

c) *Ikastetxe publikoen kudeaketan irakasleen, gurasoen eta ikasleen parte hartze demokratikorako eskubidea sustatzea eta eskubide hori gauzatu ahal dela bermatzea.*

d) **Irakasleen katedra-askatasuna benetan gauzatzen dela bermatzea.** *Gurasoek edo tutoreek ikastetxea hautatzeko eskubidea, lege honetan definitzen den eremuan, eta beren seme-alabentzat nahi duten erlijio-irakaskuntza, nahi badute, hautatzeko eskubidea, legeak aurreikusten dituen baldintzetan, bermatzea.*

e) **Kalitatezko hezkuntza ematen dela bermatzea.** *Irakatsi beharreko edukien balio pedagogikoari eta erabilibili beharreko metodoen eraginkortasunari arreta berezia ematea. Metodologia aktibo eta malguak sartzeko, gure ingurunean egiten ari diren aurrerapenak eta irakasleen birziklatze egokia kontuan hartzen dituztenak. Ikasleei orientazio psikologiko, eskolako eta profesional aktiboa ematea.*

f) **Maila, etapa, ziklo eta gradu guztietan jardutea ikasleen jatorrizko ezberdintasunak konpentsatzeko.**

g) **Ikasle guztiei, aukera berdintasunean, bi hizkuntza ofizialak praktikoki dakizkitela bermatzea nahitaezko irakaskuntza aldia amaitzean.** *Euskararen erabilera sustatzea eta hura normalizatzen laguntzea.*

h) **Ikasleei euskal herriko kide diren aldetik beren nortasun kulturala aurkitzen laguntzea,** *beren historia eta kultura irakatsiz. Ikasleak beren ingurune geografiko, sozioekonomiko eta kulturalen sustraitzea sustatzea.*

i) **Ikasleengan ohitura intelektualak, laneko teknikak eta ezagutzak garatzea, modu integratzailean, jakintza-arlo guztietan.**

j) **Bakerako, askatasunerako eta herrien arteko lan-kidetzak eta elkartasun ideien sustapenerako prestakuntza.**

k) **Ematen den irakaskuntzaren izaera hezkidea bermatzea.**

l) **Irakaskuntzaren edukien manipulazioak baztertzea, eta doktrinamendu ideologikoa bilatzen duten edukien irakaskuntza baztertzea.**

#### ■ **Bizitza osoan zehar ikasteko lege proiektua**

**Atariko kapitulua. Xedapen orokorrak.**

##### **1. artikulua.- Xedea eta definizioa.**

1.- Lege honen xedea bizitza osoan ikasteko sistema bat antolatzea eta arautzea da, pertsonen prestakuntza iraunkorreko eta kualifikazioko premiei modu eraginkorrean erantzuten diena, beraien garapen pertsonal, sozial eta profesionala mesedetzeko, eta Euskadiren garapen ekonomiko eta sozialari ekarpena egin diezaioten. Horretarako, plan eta programa egokiak programatzeko, koordinatzeko, garatzeko eta ebaluatzeko behar diren mekanismoak ezartzen ditu.

2.- Euskal Autonomia Erkidegoko gobernuak, beste administrazio publikoekin eta hezkuntzako, gizarteko eta ekonomiako eragileekin koordinatuta, bizitza osoan zehar ikastea sustatuko du, norberaren sustapena lortzeko, gizarte kohesioa eta enplegarritasuna lortzeko, eta aktibo sentitzearen eta jakintzaren gizaratean parte hartzearen asebetetze pertsonala bermatzeko bitartekoa den aldetik.

3.- Bizitza osoan ikastea pertsonen eremu formalean, ez-formalean eta informalean egiten duten jarduerak oro da, norbere jakintza, gaitasunak eta jarrerak ikuspegi pertsonal, sozial eta profesionalek hobetzeko asmoz.

4.- Lege honen ondorioetarako, bizitza osoan ikasteko sistema aurreko atalean ezarritako helburuak lortzeko eremu, plan, programa, tresna eta eragileen multzoa da, behar bezala antolatuak.

#### ■ **Azaroaren 12ko 1494/2007 Errege Dekretua, desgaituek informazioaren gizarateko eta gizarate komunikabideetako teknologiak eta zerikusia duten produktu eta zerbitzuak erabili ahal izateko oinarritzko baldintzei buruzko araudia onetsi zutena (osorik)**

*Desgaitutako pertsonen informazioaren gizarateko teknologia, produktu eta zerbitzuak eta gizarate komunikazioko edozein bitarteko eskuratu ahal dutela bermatzeko oinarritzotzat jotzen diren irizpideak eta baldintzak ezartzeko da araudi honen xedea, betiere aukera berdintasunaren, bazterketa ezaren eta irisgarritasun unibertsalaren printzipioak errespetatuz.*

### **14.3. Informazioaren eta jakintzaren gizaratea**

Informazioaren eta jakintzaren gizarateari dagokionez, erreferentzia hauek izan behar dira kontuan:

#### ■ **Bizitza osoan ikasteko lege proiektuak**

**Atariko kapitulua. Xedapen orokorrak.**

##### **1. artikulua.- Xedea eta definizioa.**

1.- Lege honen xedea bizitza osoan ikasteko sistema bat antolatzea eta arautzea da, pertsonen prestakuntza iraunkorreko eta kualifikazioko premiei modu eraginkorrean erantzuten diena, beraien garapen pertsonal, sozial eta profesionala mesedetzeko, eta Euskadiren garapen ekonomiko eta sozialari ekarpena egin diezaioten. Horretarako, plan eta programa egokiak programatzeko, koordinatzeko, garatzeko eta ebaluatzeko behar diren mekanismoak ezartzen ditu.

2.- Euskal Autonomia Erkidegoko gobernuak, beste administrazio publikoekin eta hezkuntzako, gizarteko eta ekonomiako eragileekin koordinatuta, bizitza osoan zehar ikastea sustatuko du, norberaren sustapena lortzeko, gizarte kohesioa eta enplegarritasuna lortzeko, eta aktibo sentitzearen eta jakintzaren gizaratean parte hartzearen asebetetze pertsonala bermatzeko bitartekoa den aldetik.

3.- Bizitza osoan ikastea pertsonen eremu formalean, ez-formalean eta informalean egiten duten jarduerak oro da, norbere jakintza, gaitasunak eta jarrerak ikuspegi pertsonal, sozial eta profesionalek hobetzeko asmoz.

4.- Lege honen ondorioetarako, bizitza osoan ikasteko sistema aurreko atalean ezarritako helburuak lortzeko eremu, plan, programa, tresna eta eragileen multzoa da, behar bezala antolatua.

#### 4. artikulua.- Xedek.

1.- Bizitza osoan ikasteko sistemak xede hauek dauzka:

a) EAEko herritar guztiei bizitza osoko ikaskuntza modu unibertsalean, berdintasun baldintzetan, eskuratu ahal dutela bermatzea, eta beren garapen pertsonalerako, gizarteratzeko, eta herritar gisa bizimodu beteagoa eta demokratikoagoa edukitzeko behar dituzten oinarriko esku-menak eskuratu ahal dituztela bermatzea.

b) Jakintzaren eguneratzea eta laneko gaitasunen hobekuntza sustatzea EAEko herritarren artean, beraien gizarte eta ekonomia ongizatean aurrera egiteko bermerik onena delako.

c) Bizitza osoko ikaskuntzaren kultura sendoa sustatzea herritar guztien artean. Etengabeko ikaskuntzak daukan garrantzia zabaltzea, eta pertsonak beren prestakuntza-ibilbideak beren premia eta interes pertsonalei egokituta eratzeko motibatzea.

d) Beren jakintza landu eta areagotu nahi duten adineko pertsonen aukerak ematea.

#### ■ Europako Batzordeak Europako Legebiltzarrari, Kontseiluari, Europako Ekonomia eta Gizarte Batzordeari eta Eskualdeen Batzordeari igorritako komunikazioa. Europako i2010 ekimena, inklusio digitalerako. «Informazioaren gizartean parte hartzea»

Komunikazio honek inklusio digitalerako Europar Ekimena proposatu du. Hemen ondokoak sartzen dira:

**A) inklusio digitaleko kanpaina bat, izenburu honekin: «Inklusio digitala, bat egin ezazu».** Beraren eginkizuna 2008. urtean kontzientziazio maila eta koordinazio esfortzuak gehitzea izango da. Kanpaina amaitzeko Ministerioen Biltzarra egingo da, egindako aurrerapenak ikusteko eta konpromisoak sendotzeko.

**B) ekintza-esparru estrategiko bat, Rigako Ministerioen Adierazpena aplikatu ahal izateko:**

1. banda zabalaren, irisgarritasunaren eta gaitasunaren gaietan dauden ezberdintasunak borrokatuz, eta horrela jende guztiak informazioaren gizartean parte hartu ahal izateko behar diren baldintzak sortuz.

2. bazterketa arriskuan dauden taldeen benetako parte hartzea bultzatuz eta beraien bizi-kalitatea hobetuz.

3. inklusio digitaleko neurriak integratuz, beraien inpaktua handitzeko eta inpaktu horren iraupena luzatzeko.

#### ■ Abenduaren 28ko 56/2007 Legea, Informazioaren Gizartean bultzatzeko Neurriak buruzkoa

**Laugarren xedapen gehigarria.**

**9. Estatistika helburuetarako eta analisirako informazio premiak.** Telekomunikazioetarako eta Informazioaren Gizarterako Estatuko Idazkaritzak pertsona fisikoei buruz egiten dituen estatistika publikoek datuak sexuen arabera emango ditu. Hori egokituz jotzen ez bada, sexuarekin zerikusia duten beste aldagai batzuk zehaztuko dira, generoko inpaktuaren ebaluazioa errazteko eta emakumeen

eta gizonen arteko berdintasun printzipioaren eraginkortasuna hobetzeko.

**Hamabosgarren xedapen gehigarria. Herritarrek informazioaren gizartean parte hartzea sustatzea.** Herritarren eta dirua irabazteko asmorik gabeko erakunde pribatuen presentzia sustatzeko, eta pluraltasuna, adierazpen askatasuna eta informazioaren gizartean herritarren parte hartzea bermatzeko asmoz, babes-bitartekoak eta finantzazio-lerroak sortuko dira informazioaren gizarteko zerbitzuak garatzeko, dirua irabazteko asmorik gabekoak, herritarren erakundeek sustatuak, balio demokratikoak eta herritarren parte hartzea sustatzen dituztenak, interes orokorrari erantzuten diotenak, eta komunitate edo gizarte talde behartsuei zerbitzua ematen dietenak.

#### ■ Uztailaren 11ko 34/2002 Legea, informazioaren gizartean zerbitzuei eta merkataritza elektronikoi buruzkoa

8.1. artikulua. **Zerbitzuen prestazioaren murrizpena eta komunitate barruko lankidetzako prozedura.** Informazioaren gizartean zerbitzu jakin bat ondoko printzipio hauen aurkakoa bada edo beraien aurkakoa izan badaiten, bera babesteko eskumena duten organoek, legeak ematen dizkien funtzioak betez, zerbitzu horiek eteteko edo datuak kentzeko neurri egokiak hartu ahal dituzte. Atal hau printzipio hauei dagokie:

c) Pertsonaren duintasunaren errespetua, eta arraza, sexu, erlijio, irtzi, nazionalitate, desgaitasun edo bestelako inguruabar pertsonal edo sozial bat dela-eta inor ez baztertzeko printzipioaren errespetua.

**Bosgarren xedapen gehigarria. Desgaitutako pertsonen eta pertsona zaharrek bitarteko elektronikoen ematen den informazioa eskuratu ahal izatea.**

Zazpigarren Xedapen Gehigarria. Informazioaren gizartea sustatzea. (...) (Informazioaren gizartea garatzeko) planak egin beharrekoa: Gobernu eta administrazio elektronikoen ezarpenean sakontzea, herritarren parte hartzea gaitzitzea, eta administrazio publikoen eraginkortasun maila hobetzea.

#### 14.4. Gobernu ona eta administrazio publikoa, administrazio elektronikoa eta zerbitzu publiko elektronikoa

Gobernu onean eta administrazio publikoan, administrazio elektronikoen eta zerbitzu publiko elektronikoen, ondokoak izan behar da kontuan:

#### ■ Eusko Jaurlaritzaren Gardentasunaren eta Gobernu Onaren Legearen Aurreproiektua

**Printzipio orokorrak:**

Printzipio hauen garapenak herritar informatuak, parte hartzaileak, aktiboak eta erantzuleak sortu nahi ditu, gizarte desegituraketa arintzen duen gizarte-egitura bat eratuz, herritarrei informazio egokia emanez, herritarrek proposamenak egitera bultzatuz eta erakundeekin lan egin dezala bultzatuz, baita arauak sortzeko prozesuetan eta politika publikoak planeatzeko eta ebaluatzeko faseetan laguntzera ere.

#### **IV. titulua. Herritarren parte hartzea (24. artikulua.- Herritarren parte hartzearen xedea eta artikulazioa).**

- a) lortu nahi diren xedeen, egingo den prozesuaren eta hartu diren konpromisoen berri ematea eta zabaltzea.
- b) jakintza, gogoeta eta eztabaida sustatzea.
- c) deliberazio-eztabaida eta zenbait ikuspegitatik eta zenbait interes-talderekin kontrastatzea.
- e) proposamenak eta adostasunak bilatzea.
- f) parte hartze prozesuaren ondorioen berri ematea jendeari.

#### ■ **Otsailaren 21eko 21/2012 Dekretua, Administrazio Elektronikoari buruzkoa**

##### **Hitzaurrea:**

1.- Dekretu honen xedea herritarrek administrazioarekin harremanetan sartzeko, bitarteko elektronikoak erabiliz, zerbitzu publikoak eskuratzeko eta administrazio prozedurak izapidetzeko duten eskubidea garatzea da, baita herritarrei zerbitzu publikoak elektronikoki eskuratzeari buruzko ekainaren 22ko 11/2007 Legearen 6. artikuluan aitortutako gainerako eskubideak ere.

2.- Era berean, egoitza elektronikoa, iragarki-ohol elektronikoa, herritarren eta administrazioaren identifikazioa eta autentifikazioa, ordezkarien erregistro elektronikoa, erregistro elektronikoa, komunikazio elektronikoa eta dokumentu elektronikoa eta beraien kontserbazioa arautzen dira.

#### ■ **Uztailaren 24ko 159/2012 Dekretua, Euskal Autonomia Erkidegoko administrazio publikoaren aplikazio informatikoak irekitzea eta berrerabiltzea arautzen duena**

##### **1. artikulua.- Xedea.**

1.- Dekretu honen xedea bere aplikazio-eremuko erakundeetako edozeinen aplikazio informatiko guztiak irekitzeko edo jendearen esku jartzeko (berrerabil ditzaten) baldintzak ezartzea du xede.

2.- Era berean, dekretu honen xedea da aipatutako erakundeek aplikazio informatikoak, beren bizi-ziklo osoan zehar, eskuratu, garatu edo mantendu baino lehen bete beharreko baldintzak ezartzea, aplikazio informatiko horiek erabiltzea ahalbideratzen dutenak, bai jarduera horiek bitarteko propioak erabiliz burutzen direnean, bai kontratazio egokia eginez erabiltzen direnean.

3.- Ukitutako aplikazio informatikoak hauek dira: beraien iturburua edo zati bat gutxienez dekretuaren aplikazio-eremuan dauden erakundeetako edozeinek eskuratuta edo garatuta daukatenak (bizi-aldi osoan egiten zaizkien aldaketen ondoriozkoak barne).

4.- Aplikazio informatiko horien zatiren batean aipatutako erakundeetakoren batek jabetza intelektualeko eskubideak eskuratzeko baditu, zati hori dekretu honetan xedatutakoaren mende egongo da.

#### ■ **Uztailaren 8ko 1/2010 Foru Araua, herritarren parte hartzeari buruzkoa**

##### **5. artikulua. Partaidetza eskubidea.**

1. Gipuzkoako lurralde historikoko egoiliarrek, bai zuzenean bai dagozkien herritar erakunde bidez, eskubidea dute Foru Aldundiaren eskumen diren gai publikoen

kudeaketan parte hartzeko, antolamendu juridikoan ezarritako baldintzetan eta, zehazki, foru arau honetan aurreikusten diren prozeduren bidez, emakumeek eta gizonek era orekatuan parte hartzea bultzatuz eta, bereziki, emakumeen parte hartze txikia duten erakunde mistoetan emakumeen parte hartzea bultzatuz.

2. Foru arau honetan aurreikusitako ondorioetarako, herritar erakunde interesatuak izango dira Partaidetzarako Herritar Erakunde Foru Erregistroan behar bezala izen emanda daudenak, betiere izen-emate horretan aditza eman duten interes, lurralde edo gai esparruari dagokionez. Hala eta guztiz, Foru Erregistroan izena eman gabe egoteak ez du eragotziko berariaz prestatutako prozeduren bidez partaidetza prozesuetan parte hartu ahal izateko gaitasuna.

3. Foru arau honen esparruan, herritarren partaidetzak bi bide izango ditu gauzatzeko, batetik pertsona egoiliarren eskubide indibidualak erabiltzea eta, bestetik, partaidetza prozesuak garatzea. Prozesu hauek egituratzeko hainbat fase izango dira, informazioa, eztabaida, ondorioak, zabal-kundea eta ebaluazioa alegia, eta pertsona egoiliarrek eta herritar erakundeek parte hartuko dute horietan.

##### **6. artikulua. Partaidetza prozesuetarako informazio eskubidea.**

1. Oro har, Foru Aldundiak pertsona egoiliar guztiei bermatuko die bere departamentuetako edozeinetan izapidetze bidean dauden erabakitze prozedurei buruzko informazio eskubidea, lege antolamenduan ezarritako mugen barnean betiere.

2. Foru arau honetan erregulatzen den herritarren partaidetza ahalbidetzera begira, Foru Aldundiak, bere departamentuetako bakoitzaren bidez, jendaurrea zabalduko du izapidetzea dagozkion erabakitze prozedurei buruzko informazioa. Horretarako, departamentu bakoitzak, Foru Aldundiaren informazio eta komunikazio sistemak baliatuta, prestatuko ditu izapidetzen ari den prozeduraren gaineko ezagutza eta jarraipen puntuala ahalbidetzen duten informazioa eta dokumentaziorako sarbidea. Foru departamentuek arreta berezia jarriko dute kolektibo defaboratuenean edo ahulenean informaziorako sarbide eraginkorra izan dezaten.

3. Horretarako, bide tekniko egokiak ezarriko dira, doan, artxibo, liburutegi, komunikazio zentro, gizarte etxe eta kultura etxe publikoetan, herritarrek informatzeko bulegoetan, edo herritarrentzako sarbide errazekoa delako egokituz jotzen den beste edonon.

4. Prozedura baten barnean foru arau honetan berariaz aurreikusitako herritarren partaidetzarako tresnak txertatzen direnean, eskumena dagozkion Foru Aldundiaren departamentuak prozeduraren hasierari buruzko informazioa eman beharko dio, derrigorrean, Herritarren Partaidetzarako Foru Zuzendaritzari, gaia dela eta interesatuak diren herritar erakundeek informazioa bermatzearen; horretaz gain, bete egin beharko da kasuan-kasuan eskumena duen foru departamentuari dagozkion informazio obligazio orokorra.

5. Informazio eskubidea bermatzeko, ziurtatuko da informazioa zabaltzeko sistemak berdin helduko zaizkiela emakumeei zein gizonei eta Erregistroan izen emanda dauden erakunde guztiei. Aldi berean, hizkuntza ez sexista erabiliko da zabaldutako informazioa prestatzerakoan.

### **7. artikulua. Partaidetza prozesuak garatzeko eskari eskubidea.**

1. Pertsona egoiliarrek eskari eskubidea baliatu ahal izango dute Foru Aldundiaren organoen aurrean, honen eskumenekoa eta beren interesekoa den edozein gairi dagokionez, lege antolamenduan ezarritako baldintzetan betiere.

2. Zehazki, foru arau honetan aurreikusitako ondorioetarako, pertsona egoiliarrek Foru Aldundiaren barneko edozein erabakitze prozeduratan partaidetza prozesua egiteko eskari eskubidea erabili ahal izango dute, foru arau honek ezarritako baldintzetan.

### **8. artikulua. Ekimen eskubidea.**

1. Zehazki, foru arau honetan aurreikusitako ondorioetarako eta berariaz ezartzen dituen baldintzetan, pertsona egoiliarrek edo herritar erakundeek eskubidea izango dute Foru Aldundiaren erabakitze prozeduretan partaidetza prozesu bat garatzeko ekimena erabiltzeko.

2. Toki entitateek ekimenerako ahalmena izango dute, halaber, foru arau honetan araututako partaidetza prozesuak irekitzea proposatzeko.

### **■ Europar Legebiltzarraren eta Kontseiluaren 2003/98/CE Zuzentaraua, 2003ko azaroaren 17koa, sektore publikoaren informazioa berrera-biltzeari buruzkoa**

2. gogoeta. Informazioaren eta ezagutzaren sozietaterako eboluzioak Batasuneko herritar guztiengan du eragina, zehazki, ezagutza eskuratzeko bitarteko berriak eskaintzen zaizkielako.

### **■ 2002/22/CE Zuzentaraua, Europako Legebiltzarrarena eta Kontseiluarena, 2002ko martxoaren 7koa, komunikazio elektronikoen sare eta zerbitzuen zerbitzu unibertsalari eta erabiltzaileen eskubideei buruzkoa (Zerbitzu unibertsalaren Zuzentaraua)**

Telekomunikazio elektronikoen zerbitzuen erabiltzaileek zenbait eskubide dituzte, besteak beste:

- Enpresa batekin edo gehiagorekin kontratua egiteko eskubidea, telefonia-sareko konexioa edo sarbidea eskaintzen dituzten zerbitzuen abonatu izaterakoan. Telefonia sare baten konexioen erabiltzaileen eta hornitzaileen arteko kontratu batek gutxienez ondoko hauek agerrarazi behar ditu: hornitzailearen nortasuna eta helbidea, ematen diren zerbitzu motak (ondoko hauek barnean hartuta: larrialdi zerbitzuetako sarbidea ematen den edo ez, zerbitzuak eta aplikazioak eskuratzeko edo erabiltzeko mugatzen duen beste edozein baldintzari buruzko informazioa, ematen diren zerbitzuen kalitatearen gutxieneko mailak, eta abar), kontratuaren iraupena eta hura berriztatze baldintzak, auziak konpontzeko prozedurak hasteko metodoa eta abar.
- Operatzaileek informazio gardena eta eguneratua eskaintzea aplikatu beharreko prezio eta tarifei buruz. Informazio hori argi, zehatz eta erraz eskuratu ahal izateko moduan argitaratu behar da. ANRek enpresak behartu ahal dituzte abonatuak zenbait gairi buruzko informazioa jakinaraztera: tarifa-baldintza bereziak dituzten zenbakien edo zerbitzuen tarifak, zerbitzuak edo

aplikazioak eskuratzeko mugatzen duten baldintzen aldaketak eta abar.

- Operadoreek informazio konparagarria, egokia eta eguneratua argitaratu behar dute beren zerbitzuen kalitateari buruz.
- Gutxieneko exijentziak ezarri behar dira zerbitzuen kalitateari dagokionez, zerbitzuen kalitateak okerrera egin ez dezan eta sareetako trafikoa ez dadin oztopatu edo moteldu.
- Sarean hondamendien ondorioz edo ezinbestekoen ondorioz gertatzen diren matxuren kasuan telefono-sare publikoa erabili ahal izatearen bermea.
- Operadore bidez eta abonatuaren zenbakiei buruzko informazio zerbitzuen bidez zerbitzuak eskaintzea.

### **■ Batzordeak Europako Legebiltzarrari, Kontseiluari, Europako Ekonomia eta Gizarte Batzordeari eta Eskualdeetako Batzordeari emandako komunikazioa. Interes orokorreko zerbitzuei buruzko liburu zuria /\* COM/2004/0374 amaiera \*/**

#### **Batzordearen planteamenduaren printzipio zuzentzaileak.**

Batzordearen planteamenduaren oinarrian zenbait printzipio daude, Batasunaren sektore-politiketan gauzatzen direnak, eta Liburu Berdearen gaineko eztabaidaren emaitzetan argitu ahal dena:

#### **3.1. Agintari publikoen jarduna herritarrengandik hurbil dagoela ahalbideratzea.**

Kontsulta egin zenean, interes orokorreko zerbitzuak herritarrengandik ahalik eta hurbilen antolatu eta arautu beharra eta subsidiarotasun printzipioa zehatz-mehatz errespertatu beharra nabarmendu ziren.

Batzordeak estatu kideen eta eskualdeko eta tokiko agintarien funtsezko papera aitortzen du interes orokorreko gaietan. Paper hori Batasunak gai honetan daukan politiketan islatzen da. Politika horiek zenbait esku hartze mailatan eta zenbait tresnaren erabilgarritasunean oinarritzen dira, subsidiarotasun printzipioarekin bat etorritik.

#### **3.3. Kohesioa eta eskuratzeko unibertsala bermatzea.**

Europar Batasunean gizarte eta lurralde kohesioa mesedetze aldera, eta oso periferian dauden eskualdeen irisgarritasun zailetik ondorioztatzen diren eragozpenak arintze aldera, ezinbestekoa da herritar eta enpresa guztiei ahalbideratzea interes orokorreko zerbitzuak, kalitatezkoak, eskuratzeko, garestia ez den prezioan, estatu kideen lurralde osoan. Batzordeak konpromisoa hartu du interes orokorreko zerbitzuen benetako eskuraketa unibertsala sustatzeko eta hobetzeko, bere politika guztien bitartez.

#### **3.8. Gardentasuna handitzea.**

Gardentasun printzipioa funtsezkoa da interes orokorreko zerbitzuen inguruan politika publikoak egiteko eta aplikatzeko orduan. Printzipio horren bidez, agintari publikoek dagozkien eskumenak bete ahal dituzte, eta erabakiak demokratikoki hartzeko aukera eta erabakiok errespetatzea bermatzen da. Printzipio hori zerbitzuak emateko prozesuko alderdi guztietan aplikatu beharko litzateke, eta zerbitzu publikoaren eginkizunen definiziora, zerbitzuen antolaketa, finantzazio eta arauketara, beraien gauzpen eta ebaluaziora, eta erreklamazioak izapidetzeko mekanismotara zabaldu beharko litzateke.



## ■ Apirilaren 2ko 7/1985 Legea, Toki Araubideko Oinarriak arautzen dituena

**27.1. art.** Estatuko, autonomi erkidegoetako eta beste toki erakunde batzuetako administrazioek udalei eskuordetu ahal diete beren interesak ukitzen dituzten gaietako esku-menak betetzea, baldin eta horrela kudeaketa politikoaren eraginkortasuna hobetzen bada eta herritarren parte hartzea areagotzen bada. Eskuordetzeko xedapenean edo erabakian eskuordetzearen irismena, edukia, baldintzak eta iraupena zehaztu behar dira. Gainera, eskuordetzea egiten duen administrazioak beretzat gordetzen duen kontrola, eta transferituko dituen bitarteko pertsonal, material eta ekonomikoak azaldu behar dira.

**V. Titulua. Toki erakundearen xedapen komunak. IV. Kapituluak. Informazioa eta herritarren parte hartzea.** Ondoko hauek nabarmentzen dira:

**69.1. art.** Toki korporazioek beren jarduerari buruzko informazio zabala emango dute, eta herritar guztiei tokiko bizitzan parte hartzeko aukera emango diete.

**70 bis.1 art.** Udalek, izaera organikoak arauen bidez, prozedura eta organo egokiak ezarri eta arautu beharko dituzte, bizilagunek tokiko bizitza publikoan parte har dezaten, bai udalerriaren osotasunean, bai barrutietan, baldin eta udalerrian horrelako lurralde-atalak badaude.

**70 bis.3 art.** Era berean, tokiko erakundeek eta, bereziki, udalerriek, informazioaren eta komunikazioaren teknologiak modu elkarrengarilean erabiltzea bultzatu behar dute, bizilagunen parte hartzea eta komunikazioa errazteko, dokumentuak aurkezteko, eta administrazio izapideak, inkestak eta, baleude, herritar kontsultak egiteko.

**128.1. art.** Barrutiak. Udalek, udal gaien kudeaketa eta hobekuntza herritarren partaidetza bultzatu eta garatzeko barrutiak sortu beharko dituzte, kudeaketa deszentralizatuko organoak dituen lurralde banaketa izateko, betiere, gobernuaren batasuna eta udalerrian kudeaketa kaltetu gabe.

## ■ Ekainaren 22ko 11/2007 Legea, herritarrek zerbitzu publikoak elektronikoki jasotzeko buruzkoa, osorik bete behar dena

**4. artikuluan,** adierazten du IKTen erabilera ondoko printzipio hauek kontuan izan behar direla:

1. Datu pertsonalak babesteko eskubidea eta norberaren eta familiaren ohorerako eta intimitaterako eskubidea errespetatzea.

2. Berdintasun printzipioa, administrazio publikoekin bitarteko elektronikoen bidez harremanetan sartzeko diren herritarren eta hala egiten ez duten herritarren artean murrizpenak edo bazterketak galarazteko.

3. Bitarteko elektronikoen bidez ematen diren informazioa eta zerbitzuak eskuragarriak izatearen printzipioa, indarrean dagoen araudian ezarritako terminoetan. Bereziki eskuragarritasun unibertsala eta guztientzako diseinua errespetatu behar dira.

4. Legezkoetasun printzipioa, IKTen erabilerak ez dezan ekarri herritarren berme juridikoen murrizpenik administrazio publikoaren aurrean, Administrazio Publikoaren Araubide Juridikoari eta Administrazio Prozedura Erkideari buruzko azaroaren 26ko 30/1992 Legearen aurreikusiak.

5. Lankidetzaren printzipioa administrazio publikoek bitarteko elektronikoen erabiltzen dituztenean, haietako bakoitzak hartutako sistema eta konponbideen elkarrengarritasuna bermatzeko eta, bidezkoa bada, herritarrei zerbitzuak elkarrekin eman ahal izateko asmoz.

6. Segurtasun printzipioa administrazio publikoek bitarteko elektronikoen erabiltzen dituztenean.

7. Proporzionaltasun printzipioa. Beraren arabera, izapide eta jarduketan izaerari eta inguruabarrei egokitutako bermeak eta segurtasun neurriak soilik exijituko dira. Era berean, herritarrek behar-beharrezkoak diren datuak bakarrik aurkeztu beharko dituzte.

8. Erantzukizun eta kalitate printzipioa administrazio publikoek bitarteko elektronikoen eskaintzen dituzten informazio eta zerbitzuetan.

9. Neutraltasun teknologikoaren eta tekniken aurrerapenari eta komunikazio elektronikoen sistemei egokitzeko printzipioa. Horrela, herritarrek eta administrazio publikoek alternatiba teknologikoak hautatzean independentzia bermatu behar da; gainera, merkatu libreko esparru batean aurrerapen teknologikoak garatzeko eta finkatzeko askatasuna bermatu behar da.

Ondorio horietarako, administrazio publikoek estandar irekiak eta herritarrek oro har erabiltzen dituztenak erabiliko dituzte.

10. Administrazio sinpletzearen printzipioa, ahal den neurrian administrazio prozeduren denborak eta epeak murriztu, administrazio jardunean eraginkortasun handiagoa lortze aldera.

11. Prozeduraren gardentasunaren eta publikitatearen printzipioa. Horrela, bide elektronikoen erabilerak administrazio jarduketan hedapen, publikitate eta gardentasun gorenak bermatu behar ditu.

## ■ 30/1992 Legea, azaroaren 26koa, Administrazio Publikoaren Araubide Juridikoaren eta Administrazio Prozedura Erkidearen

3.5. art. **Printzipio orokorrak.** Herritarrekin dauzkaten harremanetan, administrazio publikoek gardentasun eta parte hartze printzipioak betetzen dituzte.

86.4. art. **Informazio publikoa.** Legeetan xedatutakoarekin bat etorritik, administrazio publikoek xedapenak eta administrazio egintzak prestatzeko prozeduran herritarren parte hartzerako beste modu, bitarteko eta bide batzuk sor ditzakete, zuzenean edo legeak onartutako erakunde eta elkarrekin bidez.

39 bis.1 artikulua. **Administrazio publikoaren esku hartze printzipioak jarduera bat garatzeko.** Norbanakoen edo kolektiboaren eskubideen gauzapea mugatzen duten edo jarduera bat egiteko betekizunak beteazten dituzten neurriak ezartzen dituzten administrazio publikoek (zeinek bere eskumenean barruan) murrizpen gutxien dakarren neurria aukeratu behar dute, interes publikoa babesteko beharrezkoa dela motibatu eta lortu nahi diren helburuak egokiak direla justifikatu. Ematen den tratuan ezin da inolako bereizkeriarik gertatu.

## ■ Azaroaren 16ko 37/2007 Legea, sektore publikoaren informazioa berreraikitze buruz

**Hitzaurrea.** Instantzia publikoetan sortzen den informazioak, informazioaren gizaritatearen garapenak ematen dion

potenzialtasunarekin, interes handia dauka enpresentzat beren jarduketa eremuetan jarduteko, hazkunde ekonomikoan laguntzeko eta enplegua sortzeko orduan. Gainera, herritarrentzat oso interesgarria da, parte hartze demokratikorako gardentasun eta gida elementua denez gero.

**5.3. art. Berrerabiltzeko dauden formatuak.** Abenduaren 2ko 51/2003 Legean, desgaitutako pertsonen aukera berdintasunari, bazterketa ezari eta irisgarritasun unibertsalari buruzkoan, artikulua honetako 1. atalean aipatzen diren dokumentuak eskaintzeko bitarteko elektronikoak desgaitutako pertsonen erabili ahal izateko modukoak izango dira, gaian dauden arau teknikoaren arabera.

■ **Urriaren 24ko 1495/2011 Errege Dekretua, sektore publikoaren informazioa berrerabiltzeari buruzko azaroaren 16ko 37/2007 Legea estatuko sektore publikorako garatzen duena**

**2.2. art. Sektore publikoaren dokumentuak berrerabiltzeko eta bitarteko elektroniko bidez eskaintzeko baimen orokorra.** Jendeari alde aurretik formatu elektronikoan eskuragarri dauden dokumentu berrerabilgarriak eskainiko zaizkio, bitarteko elektroniko bidez, modu egituratuan eta interesdunek erabili ahal izateko moduan, eta ahal bada gordinen, formatu prozesagarri eta eskuragarrietan, modu automatizatuan, estandar irekiei dagozkienak, urtarilaren 8ko 4/2010 Errege Dekretuan (administrazio elektronikoaren eremuan elkarreragingarritasuneko eskema nazionala arautu zuena) ezarritako terminoetan. Era berean, dokumentu berrerabilgarriak eta dokumentu horiek eskaintzeko bitarteko elektronikoak desgaitutako pertsonen erabili ahal izateko modukoak izan behar dira, desgaitutako pertsonen aukera berdintasunari, bazterketa ezari eta irisgarritasun unibertsalari buruzko abenduaren 2ko 51/2003 Legearen arabera eta aplikatu behar den garapen-araudiaren arabera.

■ **Gardentasunaren, Informazio Publikoa Eskuratzearen eta Gobernu Onaren Lege Proiektua (121/000019)**

**Zioen azalpena:**

Gardentasuna, informazio publikoa eskuratzea eta gobernu onaren arauak ekintza politiko ororen funtsezko ardatzak izan behar dira. Soilik arduradun politikoen ekintza behatzen denean, eta herritarrek beraiengan eragina duten erabakiak nola hartzen diren, diru publikoa nola erabiltzen den, edo gure erakundeek zein irizpideren arabera jokatzeko duten jakin ahal dutenean izango dugu gizarte kritiko, exigente eta parte hartzailea.

(...) Lege honek hiru helburu ditu: **jarduera publikoan gardentasuna areagotzen eta sendotzen du.** Hori administrazio eta erakunde publiko guztiek publizitate aktiboa egiteko duten eginbeharraren bidez artikulatzen da. **Informazioa eskuratzeko eskubidea aitortzen eta bermatzen du,** eskubide subjektibo eta objektibo zabal gisa arautua. **Eta azkenik, arduradun publikoek bete behar dituzten gobernu oneko betebeharrak ezartzen ditu,** baita horiek ez betetzearen ondorioz sor daitezkeen ondorio juridikoak ere (hori erantzukizun-exijentzia bihurtzen da garrantzi publikoko jarduerak egiten dituzten guztientzat).

**Legeak publizitate aktiboko betebeharrak handitzen eta sendotzen ditu, zenbait eremutan.** Erakunde, antolaketa eta plangintza informazioari dagokionez, bere aplikazio eremuan dauden subjektuek egiten dituzten funtzioei buruzko informazioa, aplikatu behar zaien araudia, beren antolaketa-egitura, plangintzako tresnak eta betetze mailaren maila argitaratu behar dituzte. Garrantzi juridikoa duen informazioari dagokionez, eta administrazioaren eta herritarren arteko harremanetan zuzeneko eragina duen informazioari dagokionez, legeak dokumentu multzo handia dauka, argitaratzen direnean segurtasun juridiko handiagoa emango dutenak. Era berean, ekonomian, aurrekontuetan eta estatistikan garrantzia daukan informazioari dagokionez, katalogo zabala ezarri da, herritarrek eskuratu eta ulertu ahal izateko modukoa izan behar dena, baliabide publikoaren kudeaketa eta erabilera kontrolatzeko tresnarik egokiena den aldetik. Azkenik, maiztasun handienarekin eskatzen den informazio guztia argitaratu beharra ezartzen du lege honek, gardentasunaren betebeharrak herritarren interesekin uztatzeko moduan.

15.

**E-inklusioaren eta e-partaidetzaren glosarioa**

Orain e-inklusioarekin eta e-partaidetzarekin zerikusia duten termino batzuk aipatuko ditugu, uste baitugu dokumentu hau ondo ulertzeko interesgarriak direla.

Definizioez gain, artikuluen, webguneen edo argitalpenen erreferentziak jarri ditugu, haietan terminoei buruzko informazio zehatzagoa eskura daitekeelako.

■ **2.0 JARRERA - MINDWARE edo mentalitate aldaketa**

2.0 sareak komunikatzeko modua goitik behera eraldatu zuen. Gaur egun albisteak lehenago iristen dira web sozialeko bideetatik komunikabide formaletatik baino. Denbora errealean komunikatu ahal gara txat bidez, Youtubeko bideo bat edo Slideshare-ren aurkezpen bat ikusten ditugun bitartean. Gure Facebook profileen konektatzen gara eta Interneten zehar ibiltzen gara. Orrialde interesgarrien estekak Delicious-en gordetzen ditugu edo blog berri bat gure RSS irakurgailuari eransten diogu. Gai bati buruzko informazio interesgarria aurkitzen dugu eta berarekin Wikipediaren sarrera bat eguneratzen dugu edo foro batean parte hartzen dugu. Horretan datza 2.0 sarea: komunikatzea, elkarreragitea, sortzaile izatea, eta informazio jasotzaile hutsak. 2.0 sarearen erabilera eta kide-tza-zentzuak komunitate eta sare kontzeptu berria sortzen dute pertsonengan. Leku sozialek ahotsa ematen diete pertsonen; ahotsa eta botoa. Besteekin harremanetan jartzeko dugu erak 2.0 sarearen eragina dauka.

Horrela, 2.0 jarrera jakintza eta informazioa konpartitzeko da, kapital soziala pilatuz eta komunitatearen errespetua

bereganatuz. Dakiguna eta jasotzen eta irakurtzen dugunetik iragazten duguna argitaratzea parte hartze mota funtsezkoa izango da. 2.0 jarrera horrek, beraz, *mindware* edo mentalitate aldaketa dakar.

#### Erreferentziak:

<http://www.dreig.eu/caparazon/2008/12/17/sharismo-la-esencia-de-la-web-20/>.

<http://www.universoabierto.com/3765/actitud-2-0-usos-de-la-web-social-en-las-bibliotecas-universitarias/>.

### ■ GIZARTE ERAGILEAK

GIZARTE ERAGILEA honela defini dezakegu: gizartearen zati antolatua bat, administrazio publikoa ez dena baina, administrazioak bezala, gizartearen esku hartzeko helburuak dituena. Beraz, figura instituzionala da, nahiz eta beraren profila ez datorren bat erakunde politiko edo administratiboekin, izaera sozial edo kolektiboko interes jakin batzuk ordezkatu nahi dituena. Beren nortasunetik (kolektiboa / gizarte esku hartzeko helburu batzuekin) abiatuta, izaera instrumentala behar dute, izateko eta jarduteko bidea ematen diena (antolaketa-egitura).

### ■ ALFABETATZE DIGITALA

Jakintzaren gizartearen irakurtzeko eta idazteko gaitasuna izatea ez da nahikoa, alfabetatzearen kontzeptu klasikoak proposatzen zuen moduan; izan ere, gizartearen bizi ahal izateko eta geure burua garatzeko beste gaitasunak beharrezkoak dira, hau da, alfabetismo berriak agertzen dira. Adibidez, **UNESCO**k zera gaineratzen du alfabetatzearen definizioan:

- Komunikatzeko gaitasuna.
- Irakurtzeko eta idazteko gaitasuna.
- Ohiko jarduerak burutzeko beharrezkoa den norberaren garapena.

Alfabetatze kontzeptuaren zabaltzea kontuan hartzen badugu, alfabetatze digitala horren osagai gisa kokatu eta uler dezakegu, beraz, gure gizartearen alfabeto izateko beharrezkoa.

Horrela bada, alfabetatze digitala IKTak erabiltzeko beharrezkoak diren ezagutzak eta gaitasunak izatea da, horrela, informazioa eskuratu, tratatu eta aplikatu ahal dugu helburuak lortzeko edo onurak eskuratzeko. Bi osagai nagusi ditu:

- **Gaitasun teknologikoa.** Tresna teknologikoa erabiltzen jakitea, nola funtzionatzen duten, zertarako erabiltzen diren eta berriazko helburuak betetzen nola laguntzen duten jakitea.
- **Gaitasun informazionala.** Hainbat trebetasun hartzen ditu barne: informaziorako beharra onartzea, hori aurkitzen jakitea, ulertzea, ebaluatzeak eta kalitatearen arabera hautatzeko irizpideak izatea, laburtzea eta erabiltzea, eraldatzea eta horren inguruan hitz egitea, beharren arabera.

Gai horren inguruan nabarmendu beharreko aditua **Warschauer** (2002) dugu. Egileak alfabetatze digitalaren prozesuekin lotutako funtsezko lau faktore identifikatzen ditu:

- baliabide fisikoak (ordenagailuak eta telekomunikazio sareak);

- baliabide digitalak (digitalki eskuragarri dagoen materiala);
- giza baliabideak (alfabetatzea eta irakaste eta ikaste prozesuak); eta
- gizarte baliabideak (erkidegoa eta erakundearen babesa).

Digitalki gai izateko pertsona (edo taldea) gizartearen maila guztietara (pertsonalki, gizartearen, lanean, aisian) hel daiteke, autonomia izan daiteke, aukerak eskura ditzake eta bizi-kalitatea hobeto dezake. Hori dela eta, alfabetatze kontzeptuarekin estuki lotuta dago **baztertze digitala**, ezagutzaren gizartearen jaiotako desberdintasun mota. Alfabetismo berriak egotean, dagozkien analfabetismoak agertzen dira.

Baztertze mota horrek IKTetan, baliabideetan, informazioan eta komunikazio forma berrietan sartu ezin izatea dakar. Baztertze hori beti ez da gertatzen teknologian sartzeko edo informazioa lortu eta kudeatzeko ezintasun edo zailtasunarengatik; interes edo gaitasun faltagatik ere gertatzen da, horietarako sarbidea edukitzeko aukera egon arren.

#### Erreferentzia:

Warschauer, M. (2002): Reconceptualizing the digital divide. *First Monday*, 7 (7). <http://firstmonday.org/htbin/cgiwrap/bin/ojs/index.php/fm/article/view/967/888>.

### ■ ANLAFABETISMO DIGITALA

Wikipediaren arabera, **analfabetismo digitala teknologia berriak** ez ezagutzea da, pertsonak beraiekin elkarerragitekiko aukera izatea oztapatzeko moduan, hau da, sarean nabigatzea, multimedia edukia gozatzea, gizarte sarean bidez gizarteratzea, dokumentazioa sortu eta abar.

Tresna eta erreminta teknologikoak (sakelako telefonoak, iPod-ak, PC-a eta abar) erabiltzeko gaitasunak edo trebeziak berez ez dakar digitalki alfabetatua izatea. Gizarte digitalizatua sortu baino lehen, pertsona bat alfabetatua zen irakurtzeko eta idazteko prozesua bere ama-hizkuntzan erabiltzen zuenean, liburuak eta dokumentuak irakurri eta ulertu ahal zituenean, eta bere pentsamendua idatziz azaldu ahal zuenean.

Alfabetatze digitala, gaur egun, kulturaren prozesu askoz ere zabalagoa da, teknologia berriekin mugitzeko oinarritzko jakintza izatean datzana. Batez ere Interneten, eduki berrietarako sarbidea edukitzea, beste pertsona batzuekin harremanetan sartzeko, eta bitarteko digitalek gizarteari eskaintzen dizkion aplikazioen bidez aukera berriak aprobetxatzea.

#### Erreferentziak:

Wikipedia: [http://es.wikipedia.org/wiki/Analfabetismo\\_digital](http://es.wikipedia.org/wiki/Analfabetismo_digital).

Suite101: <http://www.suite101.net/content/analfabetismo-digital-a18821>.

### ■ IKTak ESKURATZEA

**Erabilera** eta **eskuraketa** ulertu ahal izateko, lehenengo eta behin ezin dugu ahaztu kontzeptu horiek ezin direla eguneroko bizitzaren munduko praktika batzuetatik kanpo ulertu. Bestetik, bi kontzeptuak askaezinak dira, hau

da, bata ezin da bestea gabe ulertu. Eskuratzeaz hitz egiten denean, beti aipatzen da erabilera, nahiz eta azken horrek ez duen nahitaz eskuraketa barne hartzen. Teknologiaren eskuraketa gizarte-prozesu gisa aurreikusten duen ikuspegia abiapuntutzat hartuta, subjektuak funtzio aktiboa du esperientziari esanahia emateko orduan. Ondorioz, teknologiak eskuratzeari buruzko ikerketak kontuan hartu beharko lituzke subjektuen ikuspuntua, beren praktikak, diskurtsoak eta elkarren arteko elkarrekintzak, horrela esanahiak eraiki eta eginbeharrari zentzua emateko. Gizarte-ekintzak elkarrekintzan dauden pertsonak lotzen dituela onarturik, praktika eta diskurtsoak behatzea ezinbestekoa da. Hori horrela, adi egon beharra dago, praktikak ez baitatortzen beti bat diskurtsoekin. Giraldo Ramírezen (2008) esanetan, irakasleek IKTeekin duten harremanaren harira, gauza bat da pentsatzen dena, beste bat esaten dena eta beste bat, oso desberdina, egiten dena. Teknologiaren gaineko soziologiaren postulatuen arabera, eta zehazki Proulxek dionez (1995), elkarrekintza sinbolikoaren ildotik, eskuraketak dimentsio bikoitza du: gizartekoa eta banakoa, eta bi alderdiak jorratu daitezke subjektutik. Eragileengan errepikatzen diren banakako kointzidentzia horietan oinarrituta, gizarte-erabileren irakurketa egin daiteke.

**Eskuraketa sortzailea:** Erabiltzaile helduek, hots, IKTe-tako profesionalek egiten duten eskuraketa-mota da. Dauden teknologietan erabilera berriak asmatu edo hobetzeko lan intelektuala da. Bryce Robertsek dioenez: *Idea onek jatorri desberdinak izan ditzakete, baina "teknologiarik disruptiboena zale, hacker eta geek-engandik hasi ohi da".*

#### Erreferentziak:

Komunitate ahuletan IKTen eskuraketaren analisi kualitatiboa: Medellín Digital-en kasua (Medellín, Kolonbia): <http://www.udgvirtual.udg.mx/apertura/index.php/apertura3/article/view/194>.

Eskuraketa sortzailea: <http://bryce.vc/post/2163496599/when-tim-mark-and-i-were-laying-out-our-plans-for>.

### ■ IKASKUNTZA-ETENA

Ikasteko gogoia eta motibazioa ez dira irmoak bizitza osoan zehar. Gaztaroan altuagoak izan ohi dira, kultura, gizarte eta ezagutzako faktoreen ondorioz. Bestela esanda, bizi dugun ezagutzaren gizartean ikaskuntzarekiko jarrerak aktiboa eskatzen da, baina pertsona askoren kasuan ez da hala gertatzen. Izan ere, ez dute internetik erabiltzen, ez dutelako erabilgarritzat jotzen. Kevin Kellyk *Actitudes tecnológicas para la vida* izenekoan dioenez: *Prest egon behar dugu betiko hasiberriak izateko, "berriaren mailan" trebe aritzeko, programa berriak ikasteko, galdera leloak egiteko, akats argiak egitera ohitzeko, laguntza eskatu eta emateko...* Betiko "ikastun" izateko jarrera beharrezkotzat jotzen da, baztertuta ez geratzeko.

#### Erreferentzia:

The Technium Life Skills (s.f.): [http://www.kk.org/thetechnium/archives/2011/04/techno\\_life\\_ski.php](http://www.kk.org/thetechnium/archives/2011/04/techno_life_ski.php).

### ■ ETEN DIGITALA

Orain dela gutxira arte, eten digitala hauxe zen: eguneroko bizitzan, ohituraz, informazioaren eta komunikazioaren

teknologiak (IKT) erabiltzen dituzten pertsonen (komunitateen, estatuaren, herrialdeen, ...) eta teknologia horietarako sarbidea ez duten pertsonen edo sarbidea eduki arren erabiltzen ez dakizkiten pertsonen arteko tartea. Horrela, Wikipediak, termino horren bidez, [Internetarako sarbidea](#) daukaten komunitateen eta ez daukaten arteko ezberdintasun sozioekonomikoa izendatzen du. Halere, ezberdintasun hori [informazioaren eta komunikazioaren teknologia](#) guztietan (IKT) gerta daiteke ([ordenagailuak](#), [telefonía mugikorra](#), [banda zabala](#) eta bestelako tresnak). Berez, eten digitala teknologietarako **sarbidearen** aurretik dauden ezberdintasunei dagokie. Gainera, IKTak modu eraginkorren erabiltzeko gaitasunaren arabera (**erabilera-etena**) bereizten ditu taldeak, alfabetatze maila eta gaitasun teknologikoa ezberdinak egotearen ondorioz. Batzuetan, halaber, kalitatezko eduki digitaletarako sarbidea duten taldeen eta hori ez dutenen arteko ezberdintasunak adierazteko erabili izan da. Horren aurkakoa adierazteko sarrien erabiltzen diren terminoak inklusio digitala eta benetako inklusio digitala dira (Maggio, 2007).

Baina gaur egun eten berriak sortu dira, arazo berrien ondorioz. Adibidez, [Francis Pisanik](#) gure gizarteak azken 15 urteetan dauzkan hiru eten digital argi eta garbi identifikatu ditu:


- 1. Sarbide-etena.** Hauxe da lehenik eta behin gertatzen den haustura. Telekomunikazioen azpiegiturarako sarbidea daukatenak eta fisikoki sare digitaletatik isolatuta daudenak bereizten ditu. Jakina, haustura honek bi jatorri dauzka: azpiegiturarik ez dagoela edo hura erabiltzea garestiegi dela.
- 2. Erabilera-etena.** Teknologia bat eskuratu ahal izateak ez du esan nahi erabiltzen denik. Ondo jakina da biztanleriaren zatirik handiena, adibidez Espainian, sarbidea daukanean ere (azpiegitura erabilgarri dagoenean eta kostua ordain dezaketenean), proportzio handi batek eskaintza teknologikoa ez duela erabiltzen: ez da konektatzen edo ez ditu erabiltzen erabilgarri dauden tresna eta informazioak. Erabilerak motibazio hauek dauzka: sarbidea izateko aukera, sarbidean dagoen interesa (hau da, teknologiak balioa eskaintzea erabiltzaileari) eta teknologia horiek erabiltzen ikasteko heziketa.
- 3. Eskuratzeko-etena.** Interneten eta teknologia digitalaren erabiltzaileetako askok oinarritzko erabilera egiten dute, eta tresnek gaitatuta sentitzen dira. Izan ere, sumatzen dute (eta arrazoia dute) tresna horiek modu sofistikatuago eta baliotsuagoetan erabili litezkeela. Teknologiak errotikako aldaketa kualitatiboak sortzen ditu baldin eta erabiltzaileek ez badute "erabiltzen" bakarrik, baizik eta eskuratzen dutenean eta ustekabeko erabilerak, eta beraz, erabilera berritzaile eta sortzaileak, asmatzen dituztenean.

Eten horietako bakoitza prozesu dinamikoa da, espazioan eta denboran aldatzen ari dena. Horrela, sarbide-etena denboran murriztu ohi da, eskualde geografiko eta hiri-espazio berriak konektatzen diren heinean. Horrela, eten hori, orain urte gutxi Espainian esanguratsua zena, une honetan Espainiako zati handi batean konponduta dagoela esan genezake. Hala eta guztiz ere, sarbide-etena bere horretan jarraitzen du toki batzuetan, adibi-

dez landa-inguruetan, gizarte sektore batzuetan (batik bat sarbidearen kostuaren ondorioz) eta zerbitzu batzuen inguruan eten berriak sortzen dira (ADSL, kablea 3G...). Une hauetan, benetako erronkak erabilera-etena gainditzea eta batez ere eskuratze-etena gainditzea dira.

(122. irudia)

## Eten digitalak



Pisani proposatzen dituen hiru eten digital horiei laugarren bat erantsi ahal diogu:

### **Gizarteko eta eremu publikoko partaidetza-etena:**

IKTek eremu sozial eta publikoan parte hartzeko bide berriak eskaintzen dituzte. Norbanakoari eta talde sozialari ahalduntzea ematen diote, batez ere jakintza, ingurunea eta erabakiak sortzeko, berrerabiltzeko eta eraldatzeko gaitasunean gauzatzen dena, eta finean, beste eragile batzuekin elkartzeko gaitasuna duten eragile bihurtzeko eta ingurunea eraldatzeko gaitasuna ematen dute.

### **Erreferentziak:**

Arturo Serrano, Evelio Martínez (2003): "Eten Digitala: Mitoak eta Errealitateak", Mexiko, Editorial UABC, 175 orrialde, ISBN 970-9051-89-X: [www.labrechadigital.org/](http://www.labrechadigital.org/) / [http://www.labrechadigital.org/labrecha/LaBrechaDigital\\_MitosyRealidades.pdf](http://www.labrechadigital.org/labrecha/LaBrechaDigital_MitosyRealidades.pdf).

Wikipedia: [http://es.wikipedia.org/wiki/Brecha\\_digital](http://es.wikipedia.org/wiki/Brecha_digital).

Pisani, F (2008): Jardunbide eta Kultura Digitalen Sare Espazioaren Inaugurazioa, UNIA. URL: <http://practicadigitales.unia.es/>.

## ■ 2.0 KANALAK

2.0 teknologiak jakintza eta informazioa partekatzeko eta kudeatzeko ideia dakar, erabiltzaileen partaidetzaren eta inplikazioaren bidez. Horretarako zenbait bide daude: *microblogging* kanalak, bideoa, argazkiak, elkarreragi-leak... Horiek berrelikadura, kritika eta sormen kolektiboa ahalbideratzen dituzte. Horiek 2.0 kanalak dira.

## ■ TALDEKO SORKUNTZA ETA TALDEKO EKOIZPENA

Ekoizpen irekia. Irekieraren kultura berria, balio garaikiderik interesgarrienetako bat den aldetik, gizarte lankidetzaren eta adimen kolektiboaren printzipioek protagonismo handia bereganatzen duten aro batekin erabat koherente dena.

## ■ COWORKING

*Coworking* deritzona (*taldeko lana*) lan egiteko modu bat da. Beraren bidez, zenbait profesional independentek, bakoitza sektore batekoa, bulego bat edo lan-eremu bat partekatzen dute (kafetegi baten antzeko ezaugarriak dauzkana), eta bertan lankidetzara, espazio komunitario batean, diziplina askotakoa, lan egitea eta *networking*-a sustatzen dira.

*Coworking* zentroak Interneteko profesionalentzat, diseinatzaileentzat, programatzaileentzat, idazleentzat, kazetarietzat eta abar izan ohi dira. Zentro hauek pertsona bakoitzeko idazmahai bat, Interneteko sarbidea eta beste zerbitzu batzuk eskaini ohi dituzte.

Honelako dozenaka lantoki daude Estatu Batuetan, Erresuma Batuan, Frantzia, Espainian, Alemanian, Australian eta Argentinan, besteak beste. Honelako lekuak profesional *nomadek* erabiltzen dituzte, mundu osoan zehar bidaiatzen dutenak, eta lan egiteko ordenagailu eraman-garria bakarrik behar dute. Beste pertsona batzuekiko elkarrekintza oinarritzko elementuetako bat da. *Coworking* espaziorik garrantzitsuenetan, adibidez *New York City*, Manhattan-en, social media-ko tresnak erabiltzen dira lankidetzara bultzatzeko. Bulego honetan, erabiltzaileek gizarte sare simple bat sortu dute Interneten, eta jakintza eta eskaerak partekatzeko erabiltzen dute, "zer dakit egiten" eta "zer behar dut" estiloen. Lan eskasiaren aurrean, gainera, *coworking* bulego batzuetan truke-aukera ezarri da. Hau da, *The Cube*-ko arduradunek "ekonomia" zirkularra deritzena. Hau da, gaur nik ematen dizut eta bihar zuk niri.

*Coworking*-aren gorakadak aldi baterako espazioak sortzeko aukera eman du, lantokiaren eta ekimen sozialaren bitartean daudenak. *Pop-up bulegoak*, ordu batzuetarako edo egun batzuetarako bakarrik antola daitezkeenak, jende asko dabilen espazio zabaletan, adibidez parke batean, museo batean edo denda itxi batean. Formula hau gutxi erabiltzen diren lekuei konexio sozial eta profesionalak sortuz etekina ateratzeko modu bat da.

### **Erreferentziak:**

<http://es.wikipedia.org/wiki/Coworking>.

Euskadi Innova-ren artikulua: Bulegoko mahaia baino zerbitzu gehiago konpartitzea: <http://cort.as/1P8g>.

*Coworking*-i buruzko nazioarteko ikerlana: <http://www.deskmag.com/en/why-coworkers-like-their-coworking-spaces-162>.

## ■ HERRITARTASUN DIGITALA

Gaur egun, planeta elkarreragile osoko mila milioika pertsonak erabiltzen dituzte teknologia desberdinak. Elkarrekintza horrek gizarte digitala sortu du eta horrek hezkuntza, enplegu, entrenamendu eta gizarte-elkarrekintzarako aukerak ematen dizkie kideei. Era berean, herritartasun digitalak modu zehatz batean jokatu duela espero da, onartutako arau eta legeei jarraiki, hain zuzen ere. Herritartasun digitala, beraz, gure eskubidez baliatzeke eta esfera digitalean ditugun erantzukizunak bete zezake gai diren herritarrak izatea da.

## ■ HIRI ETA HERRI DIGITALAK/ SMART CITIES

Kontzeptu horrekin eremu inteligente edo digitalak hartzen ditugu barne. IKTak eta Adimen Artifiziala aplikatzearekin loturiko kontzeptua da, ekonomiaren eta ingurumenaren ikuspegitik bizigarriagoak eta jasangarriagoak diren eremuak sortzera bideratutako azpiegiturak, prozesuak eta zerbitzuak hobetzeko. Eraginkortasun energetikoaren eta jasangarritasunaren eremuak, Informazioaren eta Komunikazioaren Teknologia (IKT), baita *gauzen Internet* ere, hau da, sentsoreen bidez sarera konektatuta dauden hiri elementuak, kontuan hartu beharreko elementuak lirateke.

Bertan administrazio publikoak, herritarrak eta enpresak biltzen dira, testuinguru horretan eta uneko globalizazioaren testuinguruan negoziarako eta aukeratarako eredu berriak aurkitzen dituztenak. Zentzu horretan, globalizazioarekin negoziararen desnazionalizazioaz hitz egiten da, nazioak baino, hiriak, oinarritzko zentroak izanik. Hiri globalak deiturikoak (Sassen, 2007) inguru globalaren adimen, gizarte eta ekonomia kapitalaren zentro gisa funtzionatuko lukete.

Horrekin loturiko kontzeptua dugu *ambient intelligence* (inguru adimena). Smart Citieta sistema inteligenteei esker ezagutzaren eta informazioaren kudeaketarekin hobetu nahi diren gaiek edo konpondu nahi diren arazoek hiriaren "txoko" guztiak biltzen dituzte. Adibidez, kutsadura mailari, segurtasunari, energiari (aurrezte energetikorako), pertsonen fluxuen monitorizazioari, trafikoari, trenbide sareari (metaketak saihesteko, adibidez) eta abarri buruzkoak.

Espanian dagoeneko ekimenak daude gure ohiko hiriak hiri inteligente bihurtzeko. Ikus ditzagun horietako batzuk.

1. **Malagan** proiektu aitzindaria garatzen ari da –bertan **Endesak** hartzen du parte bereziki– eta kudeaketa energetikorako eredu berri bat proposatzen du eraginkortasun energetikoa handitzeko, CO2 isurtzeak murrizteko eta energia berriztagarrien kontsumoa areagotzeko.
2. **Lleidan eta Sant Cugat del Vallesen Abertis eta Indra konpainiek** euren kudeaketa hobetzeko oinarriak ezarri dituzte. Ezarritako proiektuak honako asmoak ditu: lorategien ureztaketa, argi publikoak, edukiontzien egoera edo kontagailuen irakurketa urrunetik kontrolatzea.
3. **Sevillan, Endesa** konpainiak telekudeaketa Sistemaren Eragiketa zentroa ireki zuen. Bertan, bezeroei "egun arte pentsa ezin zitekeen elkarrekintza maila" eskaintzen die, telefono dei batekin potentzia edo tarifa unean bertan aldatu baitezakete.

4. **Granadan**, Granadako Turismo Planak hiriaren turismo kudeaketari **Smartourism** erantsi dio: nazioarte mailan sistema aitzindaria da, Adimen Artifiziala turismo sektorean aplikatzen den lehen aldia baita. Smartourismek turistari aukera eskaintzen dio munduko edozein guretik eta eguneko 24 orduan bisitarako dituen planak sortzeko, eskura duen denboraren eta baliabideen arabera, eta norbere lehentasunak eta gustuak kontuan hartuta.

### Erreferentziak:

Sassen, S. (2007): Globalizazioaren soziologia bat. Katz Editores.

<http://www.smartcitymalaga.es/>.

[http://www.iactive.es/blog\\_iactive/2010/11/smartcities/](http://www.iactive.es/blog_iactive/2010/11/smartcities/).

## ■ GIZARTE KOHESIOA

Gizarte kohesioak, soziologian, talde sozial bateko kideen kontsentsu maila edo proiektu edo egoera komun bateko kide izatearen pertzepzioa definitzen ditu. Taldearen barruko gizarte elkarrekintzaren intentsitatearen neurria da. Indizeen test baten bidez neurtu ahal da, edo kasu bakoitzerako deskribatu eta definitu. Anomiaren kohesioaren aurkakoa da, hau da, arauetan oinarritu gabeko jokabidea.

Harremanak adostuak dira, eta gobernatzen duten eta gobernatuak diren taldeen artean bidezkatat jotzen dira. Agintariak euren lana ondo egiten dutela atzematea eta agintariak errespetatuak izatea eskatzen dute, baita interes komuneko ekintza bat egotea ere.

## ■ KOLEKTIBOA

Gai edo interes berbera konpartitzen duten pertsona-taldeak, edo helburu beraren alde elkarrekin lan egiten duten taldeak. Botere politiko eta soziala konpartitzea eta gauzatzea, eta **kontsentsuan** eta **printzipio igualitarioetan** oinarritutako erabakiak hartzea da beraien ezaugarria.

## ■ GAITASUN DIGITALA

Gaitasun digitalaren kontzeptuak ezagutza teorikoa, ezagutza praktikoa (gaitasunak, trebetasunak) eta balore eta jokabide kulturalak barne hartzen ditu. Horiek guztiak inguru digitaletan gertatutako elkarrekintzaren bidez lorzen den esperientziari esker alda daitezke.

Gaitasun digitalak (e-skills) definitzeko eredu ugari daude. Jeff Cobbek (Cobb, 2008) proposatutakoa abiapuntu egokia iruditzen zaigu, baina **2.0 ikaslearen oinarritzko 5 gaitasunen** (Reig, 2008) birformulazioa ere biltzen dugu, tresnei zuzenean lotutako gaitasunak (*Hard skills*) edo horien erabileraren aurrekoak, psikologikoagoak, jarrerazkoak edo trebeziazoak (*Soft skills*) bereizten dituen kontzeptu esparrua ezartzen duena.

2.0 ikaslearen oinarritzko 5 gaitasun horiek honakoak lirateke:

1. **Kontzientzia - e-awareness**, informazioetik sarearen ezagutzara doan fluxuaren erabilera:

- *Soft skills*: eskura dugun informazio fluxuaren berri izatea, baita horrek dakartzan erronka eta aukeren berri ere (IKTei eman diezazkiegun erabilerak eta jabetzeak) Edukiak hautatzeko (garrantzia, sinesgarritasuna, egunerokotasuna, ospea, etab.) gaitasuna

edo irakurketa hipertestualaren (hiperestekak) eta irakurketa horizontalaren erabilera eraginkorra ere gaineratuko genituzke dagokionean.

- *Hard skills*: informazioa antolatzeke tresnen erabilera eta eguneratze egokia. Hautaketa eta produktibitatea (ohar-bloka, feed-en irakurleak, gizarte eransleak).

## 2. Sormena (arazoak konpontzea):

- *Soft skills*: zailtasunak modu produktiboan antolatzeke gaitasuna, lehengo ezagutza erlazioatzeko eta nahasteko ezagutza berria sortzeko oinarri gisa. Lateralitatearekin eta *design thinking* delakoarekin lotuta egongo lirakeke.
- *Hard skills*: blogetan eta wikietan editatzeko ezagutzak, oinarritzko bideoen editore bisualen erabilera –audioa–, eta weban multimedia edukia erraz sortzeko atarrien erabilera.

## 3. Autoezagutza, autoarauketa:

- *Soft skills*: banakako ikasleari buruz, lortzeko motibazioari buruz, besteekin edota komunikazioarekin elkarri eragiten diogunean dugun jarduteko modua gainera kontzientziari buruz, eta eraginkortasunik handienarekin ikasteko moduari buruz mintzatzeko bagara, webak eskaintzen dizkigun bitarteko eta komunikaziorako aukera amaigabearen aurrean, autoezagutzak, auto monitoretzak ezinbesteko garrantzia lortzen dute. Ikasketak hemen jarraituak direla, eraikitzen direla gogoratu behar dugu. Kontzeptua profilen edo kontu publiko eta pribatuen kudeaketa eraginkorarekin lotuta egongo litzateke.
- *Hard skills*: aukeren eta behar zehatzen konponbideen ezagutza sakona, weban une oro dagoena.

Gure ikuspuntutik kontzeptu horrek lehen gaitasuna barne hartuko luke, Kontzientzia edo informazioaren erabilera (fluxuaren berri izatea). Beste era batera esanda, ezagutzen ez badira, berezko beharrez eta gaitasunez gain, webak eskaintzen dizkigun aukerak, autoezagutza, hutsal bihurtzen dira.

## 4. Konexio sozialak, partaidetza publikoa:

- *Soft skills*: *netiketarekin* loturiko gaitasunak, etika sarean, kultura informalaren jarraipena, erabilerak weban. Komunitaterako garrantzitsuak diren eduki propioak edo besterenak eskaintzea, beste komunitate edo pertsonekin loturak ezarriz, elkarriketan barne hartzeko eta eduki adierazgarriak ere eskaintzeko gaitasuna. Talde lana. Benekotasuna, gardentasuna, elkarrekikotasuna eta hainbatetan “2.0 gaitasunak” deituriko beste asko.
- *Hard skills*: gizarte sare bakoitzean dauden aplikazioen erabilera egokia, “*lifestreaming*” delakorako tresnak menderatzea edo gizarte sare ezberdinetan egoera eguneratzea, gailu mugikorren bidezko konektagarritasun jarraitua. Besteekin lankidetzan aritzeko tresnen erabilera egokia.

### Erreferentziak:

Cobb, Jeff (2008): Five themes for the web 2.0 learner: <http://www.missiontolearn.com/blog/2008/05/five-themes-for-the-web-20-learner/>.

Reig, Dolores (2008): 2.0 sarean ikasteko oinarritzko gaitasunak: <http://www.dreig.eu/caparazon/2008/05/30/5-competencias-basicas-para-el-aprendizaje-personal-en-la-web-20/>.

## ■ CROWDSOURCING (GIZARTE JAKINTZA)

Ekintza honen bidez, eragile edo langile batek egin ohi zuen lana talde handi eta mugagabera ateratzen da, dealdi irekiko prozesuaren bidez.

### Erreferentzia:

Howe, J. (2009): Crowdsourcing: Why the Power of the Crowd Is Driving the Future of Business. Crown Publishing Group.

## ■ KULTURA SORTZAILEA

*The impact of culture on creativity* txostenaren arabera, kultura sortzailea garatu ahal izateko, zera behar da:

- Norbere gaitasunak (lateralki edo modu ez linealean pentsatzeko ahalmena, irudimentsuak izatea).
- Ezagutza teknikoak (gaitasun artistikoak edo artisautzakoak –eta gaitasun digitala gaineratu dugu–).
- Tresna egokiak, webaren formatu anitzek on egiten diotela nabarmenduz. Iraultza teknologikoari esker, iraultza sortzailea posible da.
- Sormena sustatzen eta baloratzen duen gizarte ingurua (gizarte testuingurua, hezkuntza eta ikasketak), eta kulturen eta sormenean oinarritutako kulturen inbertitzen duen ekonomia. Bi baldintzok, halaber, sareko gizartean biderkatzen dira.

Azken puntu horri dagokionez, maisuaren irakaspen zuzenak ikasleek erantzun zehatza azkarrago lortzen laguntzen duela adierazten duten hainbat *ikerketa* daude, baina irakaspen zuzen horren ondorioz, bestalde, ikasleek konponbide berria eta ustekabea sortzen ikasteko, arazo bati buruzko informazio berria aurkitzeko, hau da, sortzaile izateko aukera gutxiago izango dituzte (Reig, 2010).

### Erreferentziak:

Kea European Affairs. Study prepared for the European Commission (Directorate-General for Education and Culture) (2009ko ekaina). The impact of culture on creativity. Reig, D. (2011): Laissez Faire, sormena eta ikaskuntza: <http://www.dreig.eu/caparazon/2011/03/21/laissez-faire-creatividad/>.

Reig, Dolores (2009): Moore-ren legea eta pertsonak: iraultza teknologikoaren ondoren, sormenarena <http://www.dreig.eu/caparazon/2009/04/04/la-ley-de-moore-y-las-personas-despues-de-la-revolucion-tecnologica-creativa/>.

## ■ KULTURA DIGITALA

Kontzeptu horren bertsio zorrotza alde batera utzita, artearekin, museoekin, *netartearekin* (arte sarean), kultura produkzioaren sektorearekin orokorrean lotuta, kultura digitala gaur egun –ikuspuntua zabalduz– elkarrekin-tzarantz eta kontakizun parte hartzailearentz doan komunikazioaren aldaketa gisa definituko genuke, gure gizartearen hainbat sektoretan bizi dugun iraultza sortzailearekin lotuta. Garapen teknologikoaz geroztik, XXI. mendeko gizakia enpatikoago, “boteredunago”, inte-

ligenteago eta parte hartzaileago bihurtzen da, burutu dezakeen eta burutu behar duen iraultza soziala eta sor-tzailea garatzeko arduradun izanik.

Teknologia digitalen eraginak kultura digital bat (edo asko) daudela azpimarratzen du. Digitala kultura adierazlea da, eguneko bizimodua osatzen duten tresnak eta esanahi eta komunikazio sistemak biltzen ditu (Gere, 2002, 12. or., Uzelac, 2010). Hala eta guztiz ere, ez da kontu guztiz teknologikoaz ari.

Digitalari buruz baina batez ere teknozialari buruz ari gara. Eta zentzu horretan hainbat ezaugarri gehi-ago gaineratzen dira, askotan Interneten parte hartzeko bideratzaile gisa zehazten ditugunak: argitasuna, elka-rrekintza (jabetzea), jolasa, *storytelling*, aniztasuna, gar-dentasuna, malgutasuna, pertsonalizazioa, multimedia (transmedia), sormena eta aniztasuna (diziplinartekota-suna, hibridazioa).

Azpimarratu behar dugu weban sortu daitezkeen erkide-goen bezain besteko azpikultura digital daudela. “Neoer-lazioen” (Reig, 2011) eremu bati buruz ari gara, erlazio za-baldu, anitz eta berriei buruz. Bertan, erkidego bakoitzak bere xehetasunak gaineratzen ditu ziberkulturan.

#### Erreferentziak:

Abbate, J. (2000): *Inventing the Internet*. MIT Press.  
Sassen, S. (2007): *Globalizazioaren soziologia* bat. Katz Editores.

### ■ DEMOKRAZIA ZUZENA

Interneten parte hartzeko bereziki diseinatutako arkitek-turak demokrazia zuzena ahalbidetzen du, alde zurretik inoiz gertatu ez den moduan. Heztea, prestatzea, sartzeko eta parte hartzeko etenak kentzea funtsezkoa da testuingu-ru honetan, demokrazia zuzenak ez baitu zentzurik erabil-tzaileak ezin badu parte hartu edo ez badaki nola egin.

Beste alor askotan bezalaxe, erakundeek (partidu poli-tikoe) bideratutako politika batetik abiatu eta herritarrek, boterearekin (maila pertsonalean) eta eskura dauden me-kanismo teknologikoekin, garrantziko kontu bakoitza erabakitzeke aukera duen testuingurura heltzeaz hitz egi-ten ari gara. Hiru modutan pentsa dezakegu:

- Modu *antolatuan*, parte hartzea diseinatuz, politikoa herriaren borondatearen dinamizatzaile gisa (Islandia-ren kasua).
- Modu *erdi-zurrunean*, politikoa oraindik ere ordezkari gisa baina herritarrek parte hartzeko aukerak handituz (etengabeko referendumak).
- Jendeak sareetan adierazten duenaren *etengabeko monitoretza* moduan. Kasu horrek, urruna bada ere, po-litikoa herriaren borondatearen kudeatzaile bihurtzen du.

### ■ DEMOKRAZIA PARTE HARTZAILEA

Demokrazia moderno askotan bitarteko desberdinen bidez garatzen den partaidetza gauzak egiteko modu berri bat bailitzan finkatzen hasi da demokrazia ordezk-atzailaren eremuan. Hala ere, partaidetza ez da soilik tokiko agintariek edo beste erakunde publiko batzuek he-rritarrei beren jarduera edo erabakien berri ematea edo-ta herritarrei beren eztabaidetan parte hartzeko gonbita

egitea, baizik eta herritarren arazoak entzutea eta aukera eta hobekuntzak bilatzea. Horrez gain, ezinbestekoa da ekintza politiko, sozial edo ekonomikoa bideratzeko eta aldaketarako asmoa duten erabaki publikoetan parte har-tzeko bitartekoak ematea. Partaidetza-modu batzuk ho-nakoak lirateke:

- **Erabakiak hartzean parte hartzea:** gobernu-organoak osatuko dituzten aukeraketa-prozesuen bidez –su-fragio unibertsalaz baliatuz– edo gobernuko politika eta programetako edukiei buruzko kontsultetara instituzio-nalki irekitako espazioen bidez.
- **Erabakiak betetzean parte hartzea:** kudeaketa poli-tikoaren deskontzentrazioa eta deszentralizazioa, herri-tarrek partaidetza aktiboa eduki ahal izateko eta gizarte zibilaren antolaketa-gaitasuna sendotzeko (ikusi [subsidiariotasun printzipioa](#)).
- **Gauzapenaren kontrolean parte hartzea:** prozesua-ren garapena egiaztatzea ahalbideratzen duten moda-litate eta mekanismoen bidez, hura sustatzeko, zuzen-tzeko, hobetzeko edo errefusatzeko.
- **Ekarpenetan parte hartzea:** gizarte-ahalegin osoaren ebaluazioaren bidez (diruari, lanari edota ideiei dago-kienez), elkartasun-perspektibak irekitzeko, eragileen gaitasunen eta beren beharrianen arabera.
- **Onuretan parte hartzea:** estatuaren aldeko gizarte-ahaleginaren onurak erabiltzearen bidez, eremu eko-nomikoa eta gizarte-justizia arautzen dituen bitarteko eraginkor gisa. Herriari bere erkidegoa osorik garatzeko perspektiba ematen dio. Izan ere, subiranotasuna he-rrian datza eta ordezkari guztiek aukeratu zituen herria-ren beharrianak asetzeko egin behar dute lan.

### ■ MENDEKOTASUNA

Autonomia pertsonala eta mendekotasun egoeran dau-den personenganako arreta sustatzeko abenduaren 14ko 39/2006 Legearen arabera, mendetasuna hauxe da: egoera iraunkor bat, beste pertsona baten edo batzuen laguntza garrantzitsua behar denean eguneroko bizitzako oinarritzko jarduerak egiteko.

Pertsona bat mendetasun egoera legez onartzeko, beharrezkoa da indarrean dagoen araudian zehaztutako prozesu bat jarraitzea, mendetasun egoera onartzeko es-kaera aurkeztuz hasten dena.

[Europako Kontseiluak](#), berriki, Mendetasunaren Liburu Zurian, honela definitu du mendetasuna: “eguneroko bizitzako jardueretarako laguntza premia garrantzitsua”, edo, zehatzago esateko, “autonomia fisiko, psikiko edo intelektualik ez daukaten edo galdu duten pertsonak, horregatik eguneroko bizitzako ekintza arruntak egiteko laguntza garrantzitsuak behar dituztenak, bereziki zaintza pertsonalaren inguruan”.

### ■ EZAGUTZA-EGOKITASUN EZA ONLINE ETA OFF-LINE PARTAIDETZEN ARTEAN

IKTek partaidetza aukera errealak sortu dituzte: “Gizarte sareetan gaudenetik ez gara lehengo berdinarak”, adieraz-ten zuen Castellsek, Egiptoko erreboluzioaren harira. Gi-zarte sareek, hainbeste aukerarekin, gazteen partaidetza sustatu dute eta ekimen horrek ezagutza-egokitasunik eza



sortzen du kalera pasatzen denean, demokrazia ordezkaitzailearen partaidetza zorrotz eta ezohikoaren aldean. Nahiz eta guztiok ez garen hezi partaidetzaren kulturaren, estatuaren erantzukizuna da gu “ekimen” horren parte bihurtzea, hau da, alfabetatze digitalaren eta partaidetzarako hezkuntzaren bidez, gizarte eta sarean eskubide osoa dugun herritar bilakatzea.

#### Erreferentzia:

El Caparazón: <http://www.dreig.eu/caparazon/2011/05/22/yeswecamp>.

### ■ ANIZTASUN FUNTZIONALA

Termino hau [desgaitasunaren](#) alternatiba da, eta ukitutako pertsonak eskatuta hasi da erabiltzen Espainian. Hitz hau Bizitza Independenteko Foroan proposatu zen, 2005eko urtarrilean, eta beste batzuk ordezkatu nahi ditu, beraien semantika mespretxuzkoa izan daitekeelako (adibidez “desgaitasuna” edo “minusbalioa”). Aniztasun funtzionalari buruz negatiboa eta errehabilitatzailea ez den terminologia erabiltzea proposatzen da.

Terminologiaren aldaketak fenomenoak ulertzeko modu berri bat sortu du eta [aniztasunaren eredu](#) baten deskribapena ekarri du.

Aniztasun funtzionala duten pertsonak izendatzeko termino ofiziala, oraingoz, “desgaitutako pertsonak” da. Kontzeptu hori Osasunaren Mundu Erakundeak jasotzen du [Funtzionamenduaren](#), [Desgaitasunaren](#) eta [Osasunaren Nazioarteko sailkapenean](#) eta horixe da nazioarteko legeriak eta aniztasun funtzionala duten pertsonen elkarteek gehien erabiltzen dutena. Aniztasun funtzionala terminoaren bidez ikuspegi berri bat proposatzen da, negatiboa ez dena, eta gaixotasun, urritasun, atzerapen edo antzeko baten itxura ez daukana, aniztasunaren jatorri patologiko, genetiko edo traumatikoa zein den gorabehera. Hala eta guztiz ere, ez da ukatzen arau estatistikotik ezberdinak diren pertsonen buruz hitz egiten ari garela, eta horregatik pertsona horiek beren funtzioak ez dituztela egiten jenderik gehienak egiten duen moduan.

### ■ E-ADMINISTRAZIOA

**Termino** hau honela definitzen du Wikipediak: informazioaren eta komunikazioaren teknologia administrazio publikoetan txertatzea, bi ikuspegitatik: barne antolaketa-aren ikuspegitik, bulego tradizionalak eraldatuz, papereko prozesuak prozesu elektronikoko bihurtuz, paperik gabeko bulego bat sortzeko asmoz eta kanpo harremanen ikuspegi batetik, bide elektronikoa herritarren eta enpresen arteko harremanerako bitarteko berri bihurtuz. Tresna honek antolaketa-aren produktibitatea hobetzeko eta eguneroko prozesuak sinpletzeko potentzial handia dauka.

Europar Batasuneko Europako Batzordearen arabera, “administrazio elektronikoa administrazio publikoetan IKTak erabiltzea da, antolaketa-aldaketekin eta gaitasun berriekin konbinatuta, zerbitzu publikoak eta prozesu demokratikoak hobetzeko asmoz eta politika publikoen babesa sendotzeko asmoz”.

E-administrazioaren abantailetakoa batzuk hauek dira:

- **Erabilgarritasuna:** erakundeekin egunaren 24 orduetan elkarrengin ahal dugu (telefonoz telefono-arretako

zerbitzuekin edo Internetez bulego birtualen bidez). Ez da beharrezkoa bulego-ordutegia izatea. Jaieguna amaitu dira.

- **Sarbidetza erraza:** ez da beharrezkoa erakundearen bulego presentzialera joatea kudeaketak egiteko. Munduko edozein lekutatik egin daitezke, telefonoz edo Internetez. Bulegoak edozein lekutan erabil ditzakete erabiltzaileek.
- **Denbora aurrezteak:** kudeaketa etxetik edo nahi dugun lekuan egin dezakegu, bulego presentzialera joan beharrik gabe. Denbora aurrezten dugu: ilaran itxarotzea, arreta jasotzea (egin nahi duguna azaldu eta jarduera hori egitea), eta gero etxera itzultzea.

### ■ E-KONFIANTZA

Segurtasuna eta konfiantza sarean informazioaren gizar-tearen garapenean zerikusia duten eremuetan. Sarean gure etorkizun digitala prestatzen ari da. Ekimen elektronikoko askoren konbinaketa da: gizarte sareak, merkataritza elektronikoa, banka elektronikoa, administrazio elektronikoa..., beraren bidez igarotzen direnak. Horregatik, konfiantza lortu behar da; testuinguru jakin bat noiz den segurua eta berarekin modu seguruan noiz erlazionatu ahal den jakiteko bitartekoak ezagutu behar dira.

**INTECO**, Komunikazio Teknologien Institutu Nazionala, Industria, Turismo eta Merkataritza Ministerioari atxikitako sozietatea da. Horregatik, azken urteetan e-konfiantzaren inguruko zenbait estrategia eta zerbitzu egin ditu Espainian, adibidez:

- IKTen gorabeherei erantzuteko zentroa, herritarrentzat eta ETEentzat.
- Internautaren Segurtasun Bulegoa.
- Segurtasun Teknologien Zentro Erakuslea.
- Informazioaren Segurtasunaren Behatokia.

### ■ E-INKLUSIOA - INKLUSIO DIGITALA

Ezohiko txosten honetan zehar, [Rigako 2006ko Adierazpenean](#) e-gizarteratze edo gizarteratze digitala terminorako dagoeneko emandako definizioa hartuko dugu erreferentzia gisa. **Informazioaren gizarte barneratzailea**, hau da, **guztiantzako** Informazioaren Gizartearen lortzeko bideratutako neurriak aipatzen dira bertan eta e-gizarteratzearen helburua zehazten du: nahi duen orok, banakako edo gizarte mailako desabantailak izan arren, Informazioaren Gizartearen guztiz parte hartzeko aukera izatea. Horrela bada, gizarteratze digitala beharrezkotzat jotzen da gizarte justizia burutzeko eta ezagutzaren gizar-tearen berdintasuna bermatzeko. Beharrezkoa da, gainera, arrazoi ekonomikoak direla-eta, izan ere, informazioaren gizar-teak produktibitatea hazteko eta baztertze ekonomiko eta sozialaren gastuak murrizteko duen ahalmena guztiz ustiatzeko aukera eskaintzen du. Horrez gain, informazioaren gizarte barneratzailea lortzeko merkatu-aukera handiak dakartza IKTen sektorerako. Gizarteratze digitala, halaber, funtsezko faktorea da ekonomia eta gizarte mailan aurrera egiteko helburuak lortzeko dagokionez. Izan ere, banda zabalaren eta irisgarritasunaren alorrean dauden desberdintasunak ezabatzean edo gaitasun digitalak hobetzean enplegu eta zerbitzu berriak lortzen dira.

### Erreferentziak:

Europako Batzordea. Batzordeak Europako Legebiltzarrari, Kontseiluari, Europako Ekonomia eta Gizarte Lantaldeari eta Eskualdeetako Lantaldeari emandako jakinarazpena: i2010 Europako ekimena gizarteratze digitala lortzeko. Informazioaren Gizartean parte hartzea: <http://cort.as/1P6G>.

2006ko Rigako Ministerio Adierazpena: [http://ec.europa.eu/information\\_society/events/ict\\_riga\\_2006/doc/declaration\\_riga.pdf](http://ec.europa.eu/information_society/events/ict_riga_2006/doc/declaration_riga.pdf).

EBren prentsa jakinarazpena: Internet guztiontzat: EBko ministroek informazioaren gizarte barneratzailea eta oztoporik gabekoa lortzeko hitza ematen dute: <http://cort.as/1P6J>.

## ■ GIZARTE AHALDUNTZEA

Kontzeptu hau diziplina eta eremu askok partekatzen dute: erkidegoaren garapenak, psikologiak, hezkuntzak, ekonomiak eta gizarte-mugimenduen eta -antolakuntzen azterlanak, besteak beste. Diziplina bakoitzean era desberdinean ulertzen da. Zimmermanen (1984) esanetan, modu bakar batean zehaztea, formula edo errezeta bat baillitza, ekimenaren kontzeptuaren aurkakoa izan liteke, azken hori beti izango baita sustatu beharreko alderdien araberakoa. Dena dela, definizio orokorrari jarraiki, ekimena dimentsio anitzeko gizarte-prozesua da eta pertsonen beren bizitzaren kontrola hartzeko laguntza ematen die. Prozesu honek pertsonen kasuan kasu garrantzitsutzat jotzen dituzten arazoan aurrean jokatzen gaitasuna sustatzen du, gero beren bizitza, erkidego eta gizartean aplikatzeko. Ekimena dimentsio aniztuna da, gizarte-izaera du eta prozesu bat da. Dimentsio aniztuna dela esaten dugu, dimentsio soziologiko, psikologiko, ekonomiko eta bestelakoen barruan sortzen delako. Ekimena hainbat mailatan ikus daiteke: banakoan, taldean eta erkidegoan. Gainera, definizioz, gizarte-prozesua ere bada, besteekiko harremanean sortzen baita. Ibilbide edo bidai baten antzeko prozesua dela esan genezake, aurrera egin ahala jorratzen da eta. Autonomiaren beste alderdi batzuk testuinguru espezifikokoaren eta inplikaturako pertsonen araberakoak izan daitezke, azken horiek irmoak direlarik. Halaber, definizio honi jarraiki, banakoa eta erkidegoa oso lotuta daude.

### Erreferentzia:

Empowerment: What Is It?: <http://www.joe.org/joe/1999october/comm1.php>.

## ■ GIZARTE EKINTZA

Ahalduntze prozesua, pertsonen ekiteko eta, beren lanetik abiatuta, eredu ekonomiko iraunkorrek sortzeko klabeak ematen dizkiena, enpresak edo ekoizpen-ereduak sortuz eta martxan jarri. Ekimena hartzea, gizarte aldaketa esanguratsu bat sortzen duen ideia batekin konpromiso irmoa hartzea.

Berarekin lotuta dago herritarren ahalduntzearen kontzeptua: Prozesu honen bidez, herritarrek beren indar politiko eta soziala, konfiantza, ikuspegia eta protagonismoa areagotzen dituzte. Oro har, bere gaitasunetan konfiantza garatzen du onuradunak.

[Ashokaren](#) bidez, gizarte ekintzaren beste definizioa aurkitzen dugu: gizarte ekintzaileen lana da, gizarte arazo

bat aurkitzen duena eta gizarte aldaketa sortzeko proiektuak antolatzen, sortzeko eta kudeatzeko enpresa-primatziopioak erabiltzen dituena. Ashokak gaineratzen du gizarte ekintzaileak gizarte arazorik larrienerako konponbide berritzaileak dauzkaten pertsonak direla. Gizarte premiari administrazioko sektoreen edo gobernuaren esku utzi beharrean, gizarte ekintzaileek gaizki funtzionatzen ari dena bilatzen dute eta sistema aldatuz arazoak konpontzen dituzte, konponbidea zabaltzen dute eta gizarte osoak aldatzera bultzatzen dituzte.

### Erreferentziak:

<http://viverodeiniciativasciudadanas.wordpress.com/glosario-abierto-open-glossary/>.

<http://www.ashoka.es/%C2%BFqu%C3%A9-es-un-emprendedor-social-0>.

## ■ INGURUNE TEKNOSOZIALA

Eboluzio betea dagoen multzo heterogeneoa, sare asko eta ezberdinek osatua: Internet, sare lokaleko sare informatikoak, telefono-sare finkoak, telefonia mugigarriko sareak, wifi sareak, GPS satelite sareak, PLC teknologia duten energia elektrikoko sareak, gorputz sareak, sistema sareak eta abar, gero eta digitalagoak eta elkarreragingarriagoak. Internetez haratago doa; ezin dugu Internet dela pentsatu. Beste sare batzuk hartzen ditu barruan: WAN, LAN sare lokalak, etxeko sareak edo HAN, wifi haririk gabekoak, SAN sareak, PLC sare elektrikoaren bidezko komunikazio sareak eta abar. Bilbe teknologikoa (plataformak, interfazeak etab) gero eta gehiago hazten da baina metafora asintota da, inoiz ez baita lortuko. Ingurune teknozozial berriaren oinarria da.

### Erreferentzia:

Sáez Vacas, F. (2004).

## ■ ZAHARTZE AKTIBOA

1999an definitu zuen Osasunaren Mundu Erakundeak (OME): "osasun, partaidetza eta segurtasun aukerak hobetzeko prozesua, pertsonen bizi-kalitatea zahartzen diren heinean hobetzeko asmoz". Kontzeptu hori Zahartzearen Munduko Bigarren Batzarrean ere jaso zen (2002an Espainiako Madril hirian egina).

"Aktibo" terminoa adineko pertsonen banakako eta taldeko etengabeko partaidetzari dagokio. Partaidetza hori alderdi sozial, ekonomiko, kultural, espiritual eta zibikoetan gertatzen da, eta ez dagokio bakarrik fisikoki lan kontuetan egote fisikoari, edo lan-esku gisa parte hartzeari.

Hala eta guztiz ere, ikuspegi operatibotik, kontzeptu hori adineko pertsonak sartuta dauden alderdi biologiko, psikologiko eta sozialetan ahalduntzeari dagokio. Adinaren berezko aldaketak, ingurumen arriskuak eta arrisku psikosozialak kontuan izaten dira, baita aplikatu ahal diren prebentzio neurriak ere.

### Erreferentzia:

[http://es.wikipedia.org/wiki/Envejecimiento\\_humano#cite\\_note-12](http://es.wikipedia.org/wiki/Envejecimiento_humano#cite_note-12).

## ■ E-PARTAIDETZA

Adierazpen honetan IKTen erabilera jasotzen da, erabakiak hartzeko prozesu demokratikoetan herritarren

partaidetza gaitu eta indartzeko asmoz. Demokraziaren barruan sustatuko den alderdiaren arabera, teknika desberdinak erabil daitezke (Treichsel et al, 2002).

- Prozesu politikoaren gardentasuna areagotzeko eta heritarren partaidetzan inplikazio zuzena hobetzeko.
- Iritzi-sorkuntzaren kalitatea hobetzeko, informazio eta eztabaidarako eremu berriak irekiz.

**Erreferentzia:**

UNDP Europe & CIS, *Preparation of e-Participation Guide: Searching for interesting case studies and lessons learned.*

■ **2.0 ESKOLA**

2.0 eskola, berrikuntzarako eta irakaskuntza sistemak modernizatzeko, programa berritzailea da, IKTak fondo publikoak jasotzen dituzten hezkuntza zentroetan integrazteko. Programa honen barruan, ikasle bakoitzak ordenagailu eramangarri bat erabiltzea sartzen da. Programa honen bidez, ikasleei sarbidea eta konektagarritasuna modu puntualean, noizean behin, eta eguneroko ikasketajardueratik kanpo, eskaini nahi zaizkie; gainera, baliabide teknologikoak, IKTak, ikasle guzti-guztien baliabidea, modu iraunkorrean, izatea nahi da. Horretarako, Hezkuntza Ministerioaren helburua ikasgela tradizionalak XXI. mendean ikasgela digital bihurtzea da. Ikasgela horiek arbel digitalak eta azpiegitura teknologikoa eta Interneteko oinarriko konektagarritasuneko azpiegitura edukiko dituzte, ikasgelak errealitatera ireki ahal izateko. Jarduerak 2009 eta 2013. urteen artean egingo dira, eta Lehen Hezkuntzako hirugarren zikloaren eta DBHko lehenengo zikloaren artean egingo dira.

2.0 Eskola programa egiteko, lankidetzaren estuan aritzen dira Hezkuntza Ministerioa, autonomi erkidegoak (beraiek zati bat finantzatzeko dute), ikastetxeak, irakasleak, teknologiko eta komunikazioko enpresak, argitaletxeak, hezkuntza-softwareko enpresak eta ikasleen familiak.

Programa honen zati garrantzitsu bat, ikasle bakoitzarentzat ordenagailu bat jartzeaz gain, programa egiten den mailako tutoreak eta ikastetxe bakoitzeko teknologiko arduradunak trebatzeko ekintzak egitea da, ez bakarrik teknologiarri begira, baizik eta hezkuntzako baliabide digitalak eguneroko irakaskuntzan integraztearen alderdi metodologiko eta sozialei begira. Helburu horrekin, material digital berriak egitea aurreikusitako da, Agrega Plataforman daudenak osatzen dituztenak. Plataforma hau hezkuntzako edukiak birjartzeko federazioa da. 18 nodo elkarreragingarri dauzka, estandarrak betez, eta material didaktiko modularrak dira; horregatik, irakasleek gelako programazioari eta ikasleei egokitu ahal dizkie, eta taldekatu, sekuentziatu eta aldatu.

Ikasgela digital horien sorrerak eskolaren eta irakasleen antolaketa egokitzea dakar. Bestalde, ikasgelaren espazio-denbora esparruaren luzapen gisa, tutoretzek eta familiekiko kontaktu birtualek ikasgela birtualak osatuko dituzte. Horrek irakasteko, ikasteko eta ebaluatzeko moduan aldaketa erradikala ekarriko du.

Ikasleen familien parte hartzea programaren funtsezko piezetako bat da, ordenagailua ikasle bakoitzaren tresna

personala izango baita. Ikasleen eta familien inplikazioa ekipoen erabileran eta zaintzan eta konektagarritasunaren erabilera ona denon artean egin beharreko lana da.

**Erreferentzia:**

<http://www.ite.educacion.es/>.

■ **ESFERA PUBLIKOA**

Jürgen Habermas filosofo alemaniarrak garatutako kontzeptua da. Ideia honen arabera, "eremu publiko honetan pertsonak gai desberdinei buruz era aktiboan eta askatasunez hitz egin dezakete, eremu politikoetakoak izan beharrik gabe". Kontzeptu honek boterearen esferak lotzen ditu eta gizartearen aldaketa eragin dezake. "Iritzi publikoa sortzen duen gizarte-bizitzaren alorra da" (Bell et al., 2004). "Botere publikoa eztabaida kritikoaren bidez arrazionalizatzeko itxaropena defendatzen du" (Gil, 2005). Esfera publikoa sortzeko, jendeak askatasunez parte hartu behar du eztabaida arrazional batean, eta, ondorioz, kultura, tradizio eta abarri buruzko iritzi eta epaiak ez dira esfera publikoaren parte, baldin eta ez badira aldatzeko asmoz eztabaidatzen. XVIII. mendearen amaierara arte, hau da, nazio-estatuak sortu arte ez zen esfera publikoaz hitz egin. Izan ere, sistema feudalean, adibidez, ez zegoen bereizketarik publikoaren eta pribatuaren artean. Aginte publikoaren parte ez diren herritar guztiek duten ahalmena da esfera publikoa.

**Erreferentzia:**

[http://es.wikipedia.org/wiki/Esfera\\_p%C3%BAblica](http://es.wikipedia.org/wiki/Esfera_p%C3%BAblica).

■ **ESFERA SOZIALA**

"Partaidetza" terminoarekin lotuta dago beti, eta banakoei erakundearen bidez edo era auto-antolatuan gizarte-arazoaren konponketan parte hartzeko aukera eskaintzen dieten arloek osatzen dute. Globalizazioaren eta desnazionalizazio-prozesuen ondorioz (nazionalismo osteko etika - Frost, 2006), lehen tokiko mailan garatu ohi zen lankidetzak planetako edozein lekutako arazoa jorra dezake egun.

■ **GIZARTE BAZTERKETA**

Populazioaren segmentu batzuek ez dute parte hartzen euren gizarteko bizitza sozial, ekonomiko, politiko eta kulturean, erabateko gizarte partaidetza ahalbidetzen duten oinarriko eskubide, baliabide eta gaitasunak falta dituztelako (legezkotasunerako, lan-merkatuarentzat, hezkuntzarako, informazioaren teknologietarako, osasunerako eta gizarte-babeseko sistemarentzat, herritar segurtasunerako sarbidea). Gizarte bazterketa funtsezko kontzeptua da Europar Batasunaren (EB) testuinguruan bertako populazio talde batzuen pobrezia, zaugarritasunari eta bazterketari aurre egiteko. Kontzeptua Europatik kanpo ere zabalduta da, baina modu mugatuagoan. EB-ak 2010. urtea Pobreziaren eta Gizarte Bazterketaren aurkako Borrokaren Europako Urtea izendatu zuen.

Termino honen aurkakoa gizarte inklusioa da. Hau da, gizarteko kide guztiek gizartearen eremu guztietan (ekonomia, legea, politika, kultura eta abar) berdintasunez parte hartzen dutela bermatzen duen prozesua. Gizarte inklusioak bermatzen du pertsona guztiek aukera berberak

dauzkatela eta bizi-baldintza duinak izateko baliabideak eskuratu ahal dituztela.

**Erreferentzia:**

[http://es.wikipedia.org/wiki/Exclusi%C3%B3n\\_social](http://es.wikipedia.org/wiki/Exclusi%C3%B3n_social).

■ **GLOBALIZAZIOA**

Eskala handiko prozesu ekonomiko, teknologiko, sozial eta kulturala da. Munduko herrialdeen arteko komunikazioa eta elkarrekiko mendetasuna gehitzea dakar. Prozesu honetan, herrialde horien merkatuak, gizarteak eta kulturak bateratzen dira, izaera globala ematen dieten eraldaketa sozial, ekonomiko eta politikoen bidez. Globalizazioa sarritan prozesu dinamiko bat da, batez ere kapitalismo demokratikoaren edo demokrazia liberalaren pean bizi diren eta iraultza informatikoari atea ireki dioten gizarteek sortu dutena. Beren kultura politikoa, antolaketak juridiko eta ekonomiko nazionala, eta nazioarteko harremanak maila handian liberalizatu eta demokratizatu dituzte.

**Erreferentzia:**

<http://es.wikipedia.org/wiki/Globalizaci%C3%B3n>.

■ **GOBERNU IREKIA - OPEN GOVERNMENT**

Gobernu irekia doktrina politiko bat da. Adierazten du gobernuaren eta administrazio publikoaren gaiak irekiak izan behar direla, ahal den maila guztietan, gardentasunari dagokionez. Gainera, herritarrek parte hartzeko eta laguntzeko espazio iraunkorrak sortu behar dira. Gaur egungo demokrazia ordezkatzailerak demokrazia parte hartzaileko beste eredu batera eboluzionatzea bilatzen duen doktrina politikoa da, gobernuak gardentasun mekanismoak ezarri, eta herritarren partaidetza eta lankidetzarako espazio iraunkorrak sortuz. Azken helburua demokrazia eta biztanleriaren bizi-kalitatea hobetzea da.

*Open government* (o-gov) doktrinaz eman diren lehenengo definizioetako bat **Javier Llinares**ena da. Bere blogean azaltzen duenez, administrazio publikoa eta herritarrek harremanetan sartzeko modu bat da; beraren ezaugarria administrazioaren eta herritarren arteko zuzeneko komunikazio eta kontaktu bideak ezartzea da.

O-gov bat herritarrekin etengabeko elkarrizketan dagoena da, beraiek esaten eta eskatzen dutena jakiteko asmoz, eta beraien premietan eta nahietan oinarritutako erabakiak hartzen dituen, herritarrei eta funtzionarioei lankidetzaz eskaintzen diena ematen dituen zerbitzuen garapenean, eta erabakitzen eta egiten duen guztia modu ireki eta gardenean jakinarazten duena.

Iñaki Ortizek *open government*-ari buruzko analisisia luzatu du **administrazioak sarean**: blogean: o-gov kontzeptuaren administrazio-ereduan harremanek protagonismo handia dute. Administrazio "open" bat irekitzen zaie herritarrei, baina baita gainerako administrazioei eta erakunde lankideei ere. "Open" denak zerikusitua handia dauka sarearekin. "Open" administrazio bat sareko administrazioa da.

**Erreferentziak:**

<http://www.ogov.eu/open-government/open-government-un-nuevo-modelo-de-gestion-publica/>.

[http://es.wikipedia.org/wiki/Gobierno\\_abierto](http://es.wikipedia.org/wiki/Gobierno_abierto).

■ **GENERO BERDINTASUNA**

1957an, Europako Ekonomi Erkidegoaren Eratze Itunak **emakumeen eta gizonen arteko berdintasun** printzipioa kotsakratu zuen. Hasieratik, balio bereko lanaren truke ordainketa berdina eskatu zuen. 1975etik aurrera, zenbait zuzentarauk gizonen eta emakumeen arteko berdintasun printzipioaren aplikazioa lan-baldintzetara, laneko prestakuntza eta sustapenera, gizarte segurantzara, ondasun eta zerbitzuen eskuraketara, amatasunaren babesera eta guraso-baimenera zabaldu zuten. Era berean, berdintasun printzipioa eskubideen defentsara, biktimen kalte-ordainetara eta prozesu judizialeko froga-kargara hedatu zen.

Data horretatik aurrera, zenbait itunek (Amsterdamekoak eta Nizakoak, besteak beste) generoaren ikuspegia Erkidegoaren politiketan txertatzea ahalbideratu dute eta tratu-berdintasunaren printzipioa funtsezko eskubide bihurtu dute. Europar Batasunak (EB) bazterketa ezaren printzipioa ere onartzen du, eta tratu-ezberdintasunaren aurkako borrokaren oinarrietako bat da. Lisboako Itunak gizonen eta emakumeen arteko berdintasun printzipioa Europar Batasunaren balio komun bihurtu dute (EB-ko Itunaren 2. artikulua), eta bere jarduketan esparruan berdintasuna eta ezberdintasunaren aurkako borroka sustatu ditu.

**Erreferentzia:**

[http://europa.eu/legislation\\_summaries/glossary/equal\\_treatment\\_es.htm](http://europa.eu/legislation_summaries/glossary/equal_treatment_es.htm).

■ **INFOEGITURA**

Infoegituraren kontzeptuan hauek sartzen dira: jakintza, prestakuntza digitalaren maila, erabiltzaileen irudikapenak eta jarrerak sareen sarbiderako teknologien aurrean (bai kable bidezkoak bai haririk gabekoak) eta beraiek eskaintzen dituzten informazio eta zerbitzuen aurrean.

IKTen sarbide erabatekoa lortzeko, informatikako eta komunikazioetako zenbait azpiegitura teknologiko behar dira, eta erabiltzaile nagusiengan infoegitura bat garatu behar da. Azpiegitura teknologiko horien garapena ezinbestekoa da gizarte batek IKTetarako sarbidea edukitzeko, eta jarduerak eta sor daitezkeen harreman telematikoa zehazten ditu.

**Erreferentzia:**

Alfons Conella. Infostructure: A key concept in the information society. CEMS Conference, Bartzelona, 1999ko martxoaren 24tik 26ra.

■ **INFOBAZTERKETA**

Infobazterketa norbanakoei eta gizarte taldeei informazioaren eta jakintzaren teknologiak eskuratzeko galarazten, baztertzen edo oztopatzen dieten gizarte-prozesuen multzoa da, IKTek informazioaren gizartean informazioan, komunikazioan eta jakintzan eskaintzen dituzten abantailetatik pertsona edo talde horiek baztertu edo bazterketa arriskuan jarriz. Informazioaren gizarte horretan, infobazterketak analfabetismo digital berria sortzen du sektorerik behartsuenera, eta beraien ezaugarri diren ekonomiako, kulturako eta harremanetako baliabidegabeziari gaineratzen zaie. IKTak laneko baliabide be-



rrietarako, informaziorako, jakintzarako eta herritarren partaidetzaren sakontzerako sarbidea diren aldetik, Infobazterketak sektore behartsuenetan gizarte bazterketa baldintzak okertzen ditu.

Analitikoki, Infobazterketa bi dimentsiotan dagoela bereizi ahal dugu:

- a) Ekonomiako, kulturako eta harreman-sareko ezberdintasunen gizarte prozesuak, IKTen sarbide materiala (telefonoa edukizetik Interneteko sarbideraino) eta analfabetismo digitala gainditzeko behar diren infoegiturazko ezagutzen sarbidea galarazten dutenak.
- b) Norbanako eta gizarte-talde batzuk masa-komunikabideak ez diren informazio-iturriak eskuratzeko daukaten ezintasuna. IKTek Internet bidez informazio iturri ezberdinak ezagutzeko aukera ematen dute, masa-komunikabideen artean nagusiak ez direnak. Era berean, sarearen ezaugarrietako bat “askoregandik askorentzako” elkarreragingarritasuna da. Telefonoaren bidez banan-banan komunikatzen gara bi alderdiak. Baina sarearen bidezko komunikazioa banan-banan (posta elektronikoa) edo “batengandik askorentzat” (webguneetan edo mezu bat posta-zerrenda batera bidaltzean gertatzen denez) izan daiteke. Herritarren partaidetza eta gizarte demokratikoen demokratizazioa lortzeko, informazioa askotarikoa izan behar da, eta banakakoek, elkarteek edo antolatutako taldeek sarea erabiltzeko benetako aukera eduki behar dute beren informazioak jakinarazteko. Aukera hauen zailtasuna edo bazterketa Infobazterketako beste iturri bat izan daitezke, konplexuagoa baina garrantzi handikoa.

Laburbilduz, infobazterketaren kontzeptuan IKTen sarbidea galarazten duten ezberdintasun (prestakuntzan eta informazioan) sozial, ekonomiko eta kulturalen batura da, gehi beraien sarbide eta komunikazio-erabilera sozial eta herritarra edukitzeko ezintasuna.

#### Erreferentzia:

<http://www.uv.es/~jbeltran/ase/textos/rodriguez.pdf>.

### ■ INFOTARTEKARIAK

Infotartekari terminoa bi hitzen elkarketak osatzen du: informazioa eta bitartekaria. Termino hau *web site* bat izendatzeko asmatu da. *Web site* horrek datu kopuru handia biltzen eta antolatzen du, eta bitartekari lanak egiten ditu informazio bat nahi dutenen eta informazioa hornitzen dutenen artean.

Bi bitartekari mota daude:

- Lehenengoak kontsumitzaileei leku bat eskaintzen die produktu eta konpainia zehatzei buruzko informazioa biltzeko, erosteko erabakia hartu baino lehen.
- Bigarrena saltzaileei kontsumitzailearen informazioa ematen diena da, saltzaileek beren produktuak hobeto garatu eta saldu ahal izateko.

Terminoak John Hagel-ek asmatu zuen 1996ko artikuluan: “The Coming Battle for Customer Information”, Harvard Business Review-n argitaratua.

#### Erreferentzia:

<http://www.slideshare.net/ebayonet/infomediarios-un-modelo-de-negocio-en-Internet>.

### ■ INFOKAZIOA

Alfons Cornellaren hitzetan, gehiegizko informazioa da, *informazio-intoxikazioa*. Hau da, pertsona batek prozesatu ahal duena baino informazio bat daukanean eta, horrenbestez, antsietatea sortzen denean (teknikoki, *information fatigue syndrome*). Ingelesean *information overload* (informazio-gainkarga) erabiltzen da. Berba hori *Alvin Toffler*ek eman zuen aditzera bere 1970eko best-sellerrean. Pertsona batek, gehiegizko informazioa daukanean, gai bat ulertzeko eta erabakiak hartzeko izan ditzakeen zailtasunei buruzkoa da.

#### Erreferentziak:

<http://es.wiktionary.org/wiki/infoxicaci%C3%B3n>.

[http://es.wikipedia.org/wiki/Sobrecarga\\_informativa](http://es.wikipedia.org/wiki/Sobrecarga_informativa).

### ■ BERRIKUNTZA IREKIA

Henry Chesbrough irakasleak asmatutako terminoa. Berrikuntza estrategia berri bati dagokio; beraren bidez, enpresak beren antolaketako barne-mugetatik haratago doaz eta kanpoko profesionalerikoa lankidetzak funtsezko papera dauka. *Open innovation* barne-jakintza eta kanpo-ezagutza elkartzean datza, I+G proiektuak aurrera ateratzeko. Gainera, esan nahi du enpresek barne-kanalak eta kanpo-kanalak erabiltzen dituztela beren produktu eta teknologia berritzaileak merkaturatzeko. Testuinguru honetan, unibertsitateek eta ikerketa zentroek ikuspegi eta konponbide berriak eskaintzen dizkiete eredu hau erabiltzen duten konpainiei. Berrikuntza mota hau *adimen kolektiboa* deritzonari dagokio.

Tradizionalki, konpainiek berrikuntza modu itxian kudeatu dute (berrikuntza itxia edo *closed innovation*). Sistema horren bidez, ikerkuntza proiektuak antolakundearen jakintzaz eta bitartekoez bakarrik kudeatzen dira. Eredu klasiko honen pean, proiektuak enpresaren barruan hasi eta bere merkatuan amaitzen dira. Baina, *Open Innovation* ereduarekin, proiektuak enpresaren barruan nahiz kanpoan sor daitezke. Berrikuntza prozesuaren hasieran nahiz bitarteko faseetan sar daitezke, eta merkatuan konpainia beraren bidez edo beste enpresa batzuen bidez sar daitezke (patenteen lizentzia, transferentzia eta abar).

#### Erreferentzia:

[http://es.wikipedia.org/wiki/Innovaci%C3%B3n\\_abierta](http://es.wikipedia.org/wiki/Innovaci%C3%B3n_abierta).

### ■ GIZARTE BERRIKUNTZA

Gizarte-berrikuntzak kulturaren eta gizartearen aldaketa bat sustatzea dakar, zenbait balio bultzatzeko: hezkuntza eta prestakuntza, genero berdintasuna, dibertsitatea, partaidetza, enpleguaren kalitatea, erakundearen gizarte erantzukizuna, zahartze aktiboa, eta beste batzuk, hala nola, sormena, ausardia, arriskuarekiko konpromiso zuhurra, jakin-mina, alternatiba berri eta hobeak bilatzeko joera, saiakera on batean porrot egiten duten pertsonak gizartearen baloratzea, eta abar. (<http://www.innobasque.com/home.aspx?tabid=276>).

Europar Batzordearen arabera, “Gizarte Berrikuntza merkatuak edo sektore publikoak behar bezala asetzen ez dituzten gizarte premiak asetzeko modu berriak aurkitzean datza, edo gizartearen erronka handiak konpontzeko behar diren jarrera-aldaketak sortzeko moduak”.

### Erreferentziak:

This is Social Innovation: [http://ec.europa.eu/enterprise/flipbook/social\\_innovation/](http://ec.europa.eu/enterprise/flipbook/social_innovation/).

Social Innovation (Europako Batzordea): <http://cort.as/1P7j>.

Innobasque Gizarte Berrikuntza: <http://www.innobasque.com/home.aspx?tabid=811>.

## ■ ADIMEN KOLEKTIBOIA

Kontzeptuaren jatorriaz esan behar dugu *Adimen kolektiboa, ziberespazioaren antropologia baten alde* (Pierre Levy-k 1997an argitaratua) aitzindaria izan zela. Hauxe da tesi nagusia: jakintza kolektibo bat dago, gizakiak dauden edozein tokitan, eta tresna teknologikoen bidez sustatu ahal da. Beraz, egilearen arabera, adimen kolektiboa pertsona-kolektibo batek elkarrekin lan egiteko eta bere etorkizunaz erabakitze eta testuinguru gero eta konplexuago batean bere helburuak lortzeko daukan gaitasuna da: "Etorkizunaren webak, egilearen ustez, globalizatutako eta ziberespazioan elkarri konektatutako gizateriaren adimen kolektiboa adieraziko du" (Levy, 1997).

Oso interesgarria da, bestalde, James Surowiecki-k "Ehun bat baino hobea" lanean fenomenoaz egiten duen deskribapena. Jatorrizko izenburua erakargarriagoa da: Jendetzaren jakintza (*Wisdom of the crowds, 2004*): Taldeko kide askok arazo bati buruzko azaleko informazioa daukatenean ere, taldeek erabaki onak har ditzakete, batzuetan adituek baino hobeto. Hori guztia faktore batzuk betetzen badira, iritzi kolektibo egokia errazten dutenak:

- **Iritzi aniztasuna:** pertsona bakoitzak informazio pribatua eduki behar du, nahiz eta interpretatiboa izan, beste pertsonak daukaten informaziotik ezberdina dena. Logika berarekin jarraituz, komunitate homogeneoegi baten emaitza pobregoa emango litzuke.
- **Independentzia:** jendearen iritziak inguruko pertsonen eragina jasotzeko erraztasuna du. Horregatik, irizpide independenteak ez badira bermatzen, lankidetzan oinarritutako epaiak edo lanak balioa gal dezake.
- **Deszentralizazioa:** iturri askoren, ezberdinen eta banatuen iritziak, nire ustez, dibertsitatea indartuko luke.
- **Eranstea:** epai pribatuak erabaki kolektibo bihurtzeko mekanismoren bat egotea.

### Erreferentziak:

Surowiecki, J. (2005): *Ehun bat baino hobea: jendetzaren jakintza edo zergatik gehiengoak beti den gutxiengoak baino bizkorragoa*. Urano.

Lévy, P. (1999): *Collective intelligence: mankind's emerging world in cyberspace*. Perseus Books.

## ■ AHALDUNTZE DIGITALA

Kontzeptuak hainbat konturi egiten die erreferentzia. **Banakako mailan**, IKTak ahalik eta eremu gehienetan eraginkortasunez erabiltzen jakiteari dagokio. Terminoak izaera ebolutiboa iradokitzen du, IKTen erabilerak etengabeko prozesua duena, eta hori gaitasun digitalaren maila aztertzeke interesgarriagoa litzateke bertako eta etorkin digitalen arteko banaketak proposatzen duena baino.

Mossbergerrek, Tolbertek eta McNealek (2008) "gaitasun jarraipena" dagoela uste dute, gaitasun digitalaren hainbat maila ezberdinduz. Eta jarraipen horretan zehar pertsonen arteko diferentzia konektagarritasunaren maiztasunak eta konexioaren abiadurak zehazten dute.

**Erakundeen eremuan**, ahalduntze digitalaren kontzeptua garatu eta maiz aplikatu da, IKTen gizarteratze maila baloratzeko eta bikaintasuna lortze aldera bideratzeko aukera eskainiz, berrikuntza eta lehiakortasuna sustatzeko helburuarekin. CTIC fundazioak **bost garapen fase** zeharkatzen dituen ahalduntze digitalaren eredu proposatzen du:

1. **1. maila: oinarrizkoa.** Enpresak informazio sistemak ditu, oinarrizko *software* eta *hardwareak*, bereziki ordenagailuak eta aplikazio ofimatikoak (dokumentuak eta kalkulu-orriak egiteko). Bere komunikazio estrategiak telefono, fax eta posta fisiko bidez egiten dira. Administrazio kudeaketa guztia oinarrizko aplikazio errazekin prozesatzen da.
2. **2. maila: konektagarritasuna.** Interneterako "banda zabal" moduko konexioa dago eta, gutxienez, oinarrizko LAN sare bat. Posta elektronikoaren erabilera agertzen da. Jarduera kultura esparruan burutzen du, web aplikaziorako eta interkonektagarritasunerako joerarekin.
3. **3. maila: ikusgarritasuna.** Enpresa Interneten agertzen da web orri propioa erabiliz, produktu eta zerbitzuen paper-zorroan erakuste aldera, eta komunikazioan eta hartzaile ezberdinekiko harremanean balioa gaineratze aldera. Segurtasun protokoloetan oinarritutako konexioak agertzen dira.
4. **4. maila: integrazioa.** Bezeroarekiko harremanak estrategia zehatzak ditu Internet bidez, negozioak linean egiteko aukerarekin. Enpresak administrazio kudeaketarako sistema bateratua izan behar du, bateratze funtzioaz gain, web proiektzioa eta irisgarritasuna izango duena, kanpoko agenteekiko integrazioa gainera erraztuz.
5. **5. maila: elkarrengarritasuna.** Maila horretan kanpoko agenteen integrazioak enpresaren prozedura eskuliburuaren parte da. Hornitzaileekin, banatzaileekin, bezeroekin, sozioekin eta produkzio kateko aktore guztiekin komunikazioa bateratzea lortzen da.

### Erreferentziak:

CTIC Fundazioa. Heldutasun digitaleko ereduak: <http://www.ader.es/servicios/tecnologias-de-la-informacion/modelo-de-madurez-digital/>.

Mossberger, K., C. J. Tolbert, and R.S. McNeal (2008): *Digital Citizenship: The Internet, Society, and Participation*. Cambridge, MA: MIT Press.

Reig, D. (2010): Bederatzi joera 2011n (edo haratago). Online eskuragarria: <http://www.dreig.eu/caparazon/2010/12/25/tendencias2011/>

Uzelac, A. (2010): "Kultura digitala, teknologia eta kultura elkartzen dituen paradigma konbergente bat: kultur sektorearentzako erronkak": Pau ALSINA (koord.). Kulturaren digitalizaziotik kultura digitalera» [dossier online]. *Digithum*. 12. zk. UOC. ISSN 1575-2275. <http://digithum.uoc.edu/ojs/index.php/digithum/article/view/n12-uzelac/n12-uzelac-esp>.

## ■ GENERO MAINSTREAMING

Estrategia honek bermatu nahi du leku zehatz batean sortzen diren politikak ez dezatela eduki efektu negatiborik gizonen eta emakumeen egoeran, eta gainera generoen arteko berdintasunean eragin positiboa izan dezatela. Beraz, generoaren ikuspegia zeharka txertatzen da erabakitzen diren politika, neurri eta akordio guztietan.

## ■ GUTXIENGO ETNIKOAK

Gutxiengo etnikoa gizarte talde bat da, bere hizkuntza, dialekto, arraza, erlijio edo jatorri historikoa dela-eta bereizten dena. Hori askotan gainerako taldeek talde hori baztertzeko zioa izaten da. Gutxiengo talde etnikoak lurralde jakin batzuekin identifikatu ahal dira. Egitura antolatua eduki dezakete, edo ez, eta beraien kohesioa talde etniko diren aldetik dauzkaten harreman propioetan baka-rik oinarritu ahal da.

### Erreferentzia:

[http://es.wikipedia.org/wiki/Minor%C3%ADas\\_%C3%A9tnicas](http://es.wikipedia.org/wiki/Minor%C3%ADas_%C3%A9tnicas).

## ■ BERTAKO DIGITALAK

Bertako digitalizat joko dugu teknologia digitala orokorrean sartu bitartean edo ondoren jaiotako pertsona eta, gaztetatik teknologia horrekin elkarreragitean, bere kontzeptuen ulermen hobea duena. Marc Prenskyk eman zion izena *Bertako Digitalak, Etorkin Digitalak* lanean (2001). Egileak bertako pertsona digitalaren eta herri jakin bateko pertsonaren arteko analogia egin zuen: azken horientzat, hizkuntza eta ohiturak ohikoak dira, etorkinentzat ez bezala, eskualdeko ohiturak hartu eta egokitu behar baitira ([http://en.wikipedia.org/wiki/Digital\\_native](http://en.wikipedia.org/wiki/Digital_native)). Horrela bada, teknologia baino lehenago jaiotako zirenak, aurredigitalak, etorkin digitalizat jotzen dira.

Bertako pertsona digitalaren kontzeptuak eztabaida asko sortu ditu. Bi talde horien artean (bertako versus etorkin digitalak) dagoen tarteak tirabirak sortzen ditu lan, gizarte eta hezkuntza alorretan, etorkin digitalek gizarteratzeko eta eguneratze teknologikoetan egunean egoteko zailtasunak baitituzte.

Hala eta guztiz ere, dikotomia hori sinple eta orokorra da. Adibidez, ezin ditugu bertako pertsona digitalizat hartu gaur egun gazteek gozatzen duten teknologia sortu duten helduak? Bestalde, eta alfabetatze digitalak dakarrena kontuan hartuta, bertako pertsona digitalak alfabetatuak daudela pentsatzea teknologian barneratuta daudelako ez da erreala teknologiari eskaintzen dizkieten erabilera murrizak (gehienbat dibertimenduzkoak) kontuan hartzen badugu. Hala adierazten du Hargittai (Hargittai, Fullerton, Menchen-Trevino, Yates Thomas, 2010) unibertsitateko ikasleek interneteko edukia baloratzeke zuten moduari buruzko *ikerketak* batean:

“Gazteak webarekin hazi izan direlako bakarrik ezin dugu esan hura erabiltzeko gai direnik”. Reigen (2010) ustez, hezkuntza sistemak eta gizarte inguruak hainbat jarduera eta gaitasun sustatu behar ditu sareko erabiltzaile gazteen artean benetan pertsona alfabetatuak izan daitezen. Jarduera eta gaitasun horien artean hauexek daude:

- Webaren izaera meritokratikoa defendatzea, inoiz baino horizontalagoa dena, aurreraeraginezko ondorioekin.

- Erabilera profesionalak erakustea, zaletasunak eta ezagutza garatzekoak, uneko gizarte sareetara loturikoak baino haratagokoak.
- Interes zehatzeko inguru sozio-profesional baten arabera pertsonalizatutako weba sortzen laguntzea, kontzeptuaren zein tresna eta *networking* gaitasunen ikuspuntutik.
- Parte hartzea, gizartearen izateko moduak, webeko herritar gisa proaktibo izateko beharra hezte.
- Norbere hizkuntzen garapena aurkitzea, bultzatzea eta posible bihurtzea (alfabetatze anitzak) eta weban sormena sustatzea.
- Bilaketa gaitasunak hobetzea, bilaketa semantikoak sustatzea, rankingen arabera irizpideen mende ez daudenak.

Azken finean, milurtekoaren ikastun berrientzat gomen-datatuko gaitasunak dira *ELGAren txostenaren* arabera.

### Erreferentziak:

Digital native (n.d). In Wikipedia: [http://en.wikipedia.org/wiki/Digital\\_native](http://en.wikipedia.org/wiki/Digital_native).

Ekonomia Lankidetzak eta Garapenerako Antolakundea (ELGA). (2010) XXI. mendeko gaitasunak eta trebakuntzak milurteko berriko ikastunentzat ELGAko herrialdeetan: [http://recursostic.educacion.es/blogs/europa/media/blogs/europa/informes/Habilidades\\_y\\_competencias\\_siglo21\\_OCDE.pdf](http://recursostic.educacion.es/blogs/europa/media/blogs/europa/informes/Habilidades_y_competencias_siglo21_OCDE.pdf).

Hargittai, E., Fullerton, L., Menchen-Trevino, E. eta Yates Thomas, K. Trust Online (2010): Young Adults' Evaluation of Web Content International Journal of Communication 4, 468–494. <http://ijoc.org/ojs/index.php/ijoc/article/view/636/423>.

Reig, D. (2010): Bertako digitalak ala naufrago digitalak? Jarrerak eta gaitasunak: <http://www.dreig.eu/capazon/2010/07/29/nativos-naufragos-digitales-competencias/>.

## ■ OPEN DATA

Aporta proiektuaren definizioaren arabera: “Sektore publikoaren informazioaren berrerabilera sektore publikoko organismoek sortutako informazioa pertsona fisiko edo juridikoek erabiltzean datza (helburu komertzialekin edo bestelakoekin). Hala eta guztiz ere, *37/2007 Legeak* berrerabilera kontzeptutik baztertzeko du sektore publikoko administrazioen eta organismoen artean, esleituta dauzkaten funtzio publikoak gauzatzean, informazioa trukatzeko. / Jakintzaren ekonomian, sektore publikoaren informazioaren berrerabilera potentzial ekonomiko esanguratsua dauka, informazio digitaleko produktu askorentzat funtsezko oinarria baita. Horregatik, ezinbestekoa da informazio publikoa modu eraginkorrean berrerabilteza, bere potentziala aprobetxatzeko eta horrela produktu, zerbitzu eta merkatu berriak garatzeko, eduki digitalen espainiar industrian garapen ekonomiko handiagoa lortzen dutenak eta lanpostu gehiago sortzen dituztenak”.

### Erreferentziak:

Aporta proiektua: <http://www.aporta.es>.

Open Data Euskadi: <http://opendata.euskadi.net/w79-home/es>.

### ■ OPEN SOCIAL LEARNING (gizarte ikaskuntza irekia)

Kontzeptuaren jatorriaz esan behar dugu *Adimen kolektiboa, ziberespazioaren antropologia baten alde* (Pierre Levy-k 1997an argitaratua) aitzindaria izan zela. Hauxe da tesi nagusia: jakintza kolektibo bat dago, gizakiak dauden edozein tokitan, eta tresna teknologikoen bidez sustatu ahal da. Beraz, egilearen arabera, adimen kolektiboa pertsona-kolektibo batek elkarrekin lan egiteko eta bere etorkizunaz erabakitze eta testuinguru gero eta konplexuago batean bere helburuak lortzeko daukan gaitasuna da: “Etorkizunaren webak, egilearen ustez, globalizatutako eta ziberespazioan elkarri konektatutako gizatiaren adimen kolektiboa adieraziko du” (Levy, 1997).

Oso interesgarria da, bestalde, James Surowiecki-k “Ehun bat baino hobe” lanean fenomenoaz egiten duen deskribapena. Jatorrizko izenburua erakargarriagoa da: Jendetzaren jakitua (*Wisdom of the crowds, 2004*): Taldeko kide askok arazo bati buruzko azaleko informazioa daukatenean ere, taldeek erabaki onak har ditzakete, batzuetan adituak baino hobeto. Hori guztia faktore batzuk betetzen badira, iritzi kolektibo egokia errazten dutenak:

- **Iritzi aniztasuna:** pertsona bakoitzak informazio pribatua eduki behar du, nahiz eta interpretatiboa izan, beste pertsonak daukaten informaziotik ezberdina dena. Logika berarekin jarraituz, komunitate homogeneoegi batek emaitza pobregoak emango lituzke.
- **Independentzia:** jendearen iritziak inguruko pertsonen eragina jasotzeko erraztasuna du. Horregatik, irizpide independenteak ez badira bermatzen, lankidetzan oinarritutako epaiak edo lanak balioa gal dezake.
- **Deszentralizazioa:** iturri askoren, ezberdinen eta banatuen iritziak, bere ustez, dibertsitatea indartuko luke.
- **Eranstea:** epai pribatuak erabaki kolektibo bihurtzeko mekanismoren bat egotea.

#### Erreferentziak:

Surowiecki, J. (2005): *Ehun bat baino hobe: jendetzaren jakitua* edo zergatik gehiengoa beti den gutxiengoa baino adimentsuago. Urano.

Lévy, P. (1999): *Collective intelligence: mankind's emerging world in cyberspace*. Perseus Books.

### ■ HERRITARREN PARTAIDETZA (gizartean eta eremu publikoan)

Pertsonak espazio batean modu kontzientean parte hartzen duten gizarte-ekimenei esaten zaie gizarte-partaidetza. Parte hartzean, zenbait talderen aurrean beren jarrera azaltzen dute eta beraiekin bat egiten dute, kausa jakin batzuk burutzeko; kausa horiek praktikan gauzatzeko, botereko gizarte egiturak erabiltzea beharrezkoa da.

Parte hartzea gizarte espazio berriak eratzeke aukera edo gizarte eragileak gizarte mugimenduetan, gobernuko eta gobernuz kanpoko erakundeetan sartzea da, edo esfera publikoan presentzia izatea egoerak erreklatatzeko edo aldaketak eskatzeko.

Parte hartzeko moduen artean, Latinoamerikako protagonistak, 1980ko hamarkadan bereziki, gizarte mugimenduak izan ziren. Aitzitik, gaur egun, Rott-en ikuspegitik, berak adierazpen errealistatzen duena, gizarte

mugimenduen goraldia amaitu egin da. Rott-en arabera, aldaketa horren kausetako bat Brasilen ikus dezakegu. Herrialde horretan alderdi politiko batek bereganatu zituen mugimenduak, beste artikulazio-bide batzuk eskainiz. Gizarte mugimenduetako eta GKEetako buruzagietako asko Langileen Alderdian (PT) sartu ziren. Eta alderdiek (jarraitzen du egileak), hirugarren munduan edo Latinoamerikan bere burua finantzatu behar dutenean, posizioak lortzeko edo borondatezko laguntzak eskuratzeko ordainketak onartzeko duten tentazioa oso handia da. Horregatik, alderdi politikoetan sartzen diren gizarte mugimenduetako kideek beren kausak neurri batean utzi behar dituzte, alderdiak egokitzat jotzen duen neurrian.

Gizartean parte hartzeko bigarren mota bat gobernuz kanpoko erakundeetan (GKE) gertatzen da. Rott-ek batez ere ikuspegi ekonomikoa ematen die, gobernuz kanpoko erakundeek pentsaera lehiakorra dutelako baliabideak bereganatzeko unean. Horrenbestez, GKEek ez dute zertan jardun behar gizarte erresistentziako ildoan; aitzitik, gizarte kontzepzio hegemonikoak izan ditzakete. Egilearen arabera, baliabideen bilaketak “*political correctness*” moduko bat finkatzen du, baliabideen bilatzaileek baliabideak ematen dituztenen ideologiak bereganatu behar ditzutelako.

Latinoamerikan beste parte hartze mota bat gertatu da, auzokide elkarrekin sorrerarekin. Auzoetako emakumeak, gehienetan, honelako elkarteak sortuz antolatu dira.

#### Erreferentziak:

Berlingo Unibertsitate Libreko Ikerketa Latinoamerikarren Unibertsitatea, [http://www.lai.fu-berlin.de/es/e-learning/projekte/frauen\\_konzepte/projektseiten/konzeptebereich/rot\\_partizipacion/contexto.html](http://www.lai.fu-berlin.de/es/e-learning/projekte/frauen_konzepte/projektseiten/konzeptebereich/rot_partizipacion/contexto.html).

### ■ BERRIKUNTZAREN GIZARTE IRAGAZKORTASUNA

Arestian aurreratu dugun gizarte-berrikuntzaren definizioan sakonduz gero, kontzeptu garrantzitsu bat sortuko da: *berrikuntzaren gizarte iragazkortasuna*. Zenbait gizarte faktore (sormena, bizi-kalitatea, kultura aniztasuna, lankidetzeta eta sarean lan egiteko gaitasuna) dira gizarteak berrikuntzarekin daukan iragazkortasun maila definitzen dutenak. Gizartearen gizarte-berrikuntzarako gaitasuna eta berrikuntzaren kultura enpresa-berrikuntzari lotuta daude eta berarengan eragina dute. Enpresa-berrikuntza egoteko, ezinbestekoa da ingurune sozial egokia egotea, berrikuntza handikoa. Hau da, alor guztietan (hezkuntza, kultura, artea, gobernu eta) berrikuntzak sortzeko gaitasuna duen gizartea, barne eta kanpo berrikuntza bereganatzeko gai den gizartea. Beste modu batean esateko, GIZARTE-BERRIKUNTZA egon behar da.

Zenbait ikerlan enpirikok erakusten dutenez, lurralde batek berrikuntza bereganatzeko daukan gaitasunak beraren enpresa-garapena baldintzatzen du. Horrenbestez, lurraldean berrikuntzaz hitz egiteak bi kontzeptu berezinez hitz egitea dakar: gizarte-berrikuntza + enpresa-berrikuntza. Harremana zuzenean proportzionala da: lurralde batek berrikuntza zenbat eta gehiago bereganatu (gizarte-berrikuntza), orduan eta enpresa-berrikuntzako gaitasun handiagoa izango du. Eta, aitzitik, berrikuntzaren gizarte iragazkortasun handiagoa den heinean,



berrikuntza eta enpresa-lehiakortasun maila txikiagoa izango da. Lehenengo ondorioa da berrikuntza sistemek berrikuntza behar dutela.

#### Erreferentzia:

Berrikuntza-lurraldeak: Gizarte-berrikuntza, enpresen berrikuntza lehiakorren motor: [www.makingmedia.es/pdf/TicAsturias2011\\_baja.pdf](http://www.makingmedia.es/pdf/TicAsturias2011_baja.pdf).

### ■ PROSUMITZAILEA (aldi berean produzitzen eta kontsumitzen duen pertsona)

Gaur egun, termino hori giza komunikabide gisa funtzionatzen duten erabiltzaileei aplikatzen zaie. Horrek esan nahi du aldi berean edukiak kontsumitzen eta produzitzen dituztela. Prosumitzaile batek ez dauka dirua irabazteko asmorik; informazioa trukatzeko mundu digitalean parte hartu baino ez du egiten. Hori da adibidez P2Pen kasua, pareko sare trukagarriak. Sarean tutorialen orrialdeak ere badaude, erabiltzaileei zenbait eginkizun egiten irakasteko, web garapena eta produkzioa sustatzeko asmoz.

*Prosumer* hitzak ederki deskribatzen ditu 2.0 web iraultzako milioika partaide. Izan ere, gero eta pertsona gehiago igotzen dute informazioa sarera eta, aldi berean, gero eta pertsona gehiagok kontsumitzen dute. Horrela, informazioa norabide guztietarantz doa. 2.0 web honetan prosumitzailearen figuran zentratutako zenbait proiektu daude, hala nola iStockphoto. Halere, adibiderik argiena Lego enpresan gertatzen da, Mindstorms-ekin.

Terminoak ez da berria; espresio hau arau bihurtuko da datozen urteetan. Dagoeneko zenbait enpresak (Sony-k adibidez) erabiltzen dute, konpartitzeko asmoz dokumentalak sortzen dituzten bideokameren erabiltzaileak deskribatzeko. Horrela, terminoa erraztasuna eta erabiltzailearekiko bateragarritasuna eskaintzen dituzten teknologia berrietan ere aplikatzen da.

Argi dago produzitzeko eta kontsumitzeko joera hori bizi dugun testuinguru digitalari zor zaiola. Bertan, komunikazio sareei aplikatutako teknologiaren garapenak informazio mota oro errazago eskuratzea ahalbideratzen du. Muga geografikoak ez dira oztopo.

*Prosumer* Jean Cloutier-en EMREC (igorle-hartzaile) ereduaren antzekoa da. Eredu horretan, igorlearen eta hartzailearen artean informazioa transmititzeko eta erantzuteko kate bat dago. Cloutier-ek jakintzat ematen du, dauden baliabide berriekin, edozein erabiltzaile izan daitekeela mezuen igorle eta hartzaile aldi berean.

#### Erreferentziak:

<http://es.wikipedia.org/wiki/Prosumidor>.

<http://viverodeiniciativasciudadanas.wordpress.com/glosario-abierto-open-glossary/>.

### ■ GIZARTE SAREAK - NETWORKING

Pertsona taldeek eratutako gizarte egiturak. Harreman mota batek edo gehiagok lotzen dituzte: adiskidetasuna, ahaidetasuna, interes komunak edukitzea edo jakintza arlo berean adituak izatea.

#### Erreferentziak:

[http://es.wikipedia.org/wiki/Red\\_social](http://es.wikipedia.org/wiki/Red_social).

<http://viverodeiniciativasciudadanas.wordpress.com/glosario-abierto-open-glossary/>.

### ■ SOCIAL MEDIA

Gizarte komunikabideak (*social media*, ingelesez) *online* komunikazio-plataformak dira. Haietan, edukia erabiltzaileek sortzen dute 2.0 sareko teknologiak erabiliz, informazioaren edizioa, argitalpena eta trukea errazten dutenak. Kaplan eta Haenlein irakasleek gizarte komunikabideak honela definitzen dituzte: "Interneten oinarritutako aplikazio multzo bat, 2.0 sarearen funts ideologiko eta teknologikoeikin garatzen direnak, eta erabiltzaileak sortutako edukiak sortzeko eta trukatzeko bide ematen dutenak".

Gizarte komunikabideak aberatsak dira parekoen arteko eraginean eta elkarreraginean, eta beraien audientzia publikoa gero eta "adimentsuagoa" eta partaideagoa da. Gizarte komunikabidea plataforma digitalen multzo bat da, WOMMen (ahotan dabilen marketinga) inpaktuareagoz duena eta neurgarri bihurtzen duena eta, horrenbestez, errentagarri bihurtzen duena, gizarte komunikabideen marketingaren bidez eta social CRMaren bidez. Community manager-ek enpresen inguruan komunitateak sortzen eta zaintzen dituzte. Baliozko edukia sortzen dute, elkarrizketak pizten dituzte, jendea parte hartzera animatzen dute, marken *online* presentzia monitorizatzen dute... Gizarte komunikabideek pertsonen arteko komunikazioa eta marken eta pertsonen arteko komunikazioa aldatu dituzte.

Gizarte komunikabiderik hedatuenak [gizarte sareak](#), [blogak](#), [mikroblogak](#) eta multimediako partekatze-zerbitzuak dira.

#### Erreferentzia:

[http://es.wikipedia.org/wiki/Medio\\_social\\_\(social\\_media\)](http://es.wikipedia.org/wiki/Medio_social_(social_media)).

### ■ INFORMAZIOAREN GIZARTEA

Informazioaren gizartean informazioaren sorrera, banaketa eta manipulazioa errazten dituzten teknologiek funtsezko papera jokatzen dute gizarteko, kulturako eta ekonomiako jardueretan. Informazioaren gizartearen kontzeptua herrialde industrializatuen programek inspiratu dute. Terminoa politikoagoa da teorikoa baino, gizartearen geldialdia gainditu ahal izateko asmo estrategikoa baita. Era berean, "informazioaren gizartearen" kontzeptuak zenbait disposizio historiko dakartzak berekin, mentalitate arkaikotik modernorako aldaketarekin parekatzen dutenak. Informazioaren gizartea gizarte industrialaren ondorengoa da. Erlatiboki antzekoak izan daitezke kontzeptu hauek; industriaren osteko gizartea ([Daniel Bell](#)), [posfordismoa](#), gizarte posmodernoa, [jakintzaren gizartea](#), besteak beste. Azken kontzeptu hori informazioaren gizartea kontzeptuari gailentzen ari zaio.

#### Erreferentzia:

[http://es.wikipedia.org/wiki/Sociedad\\_de\\_la\\_informaci%C3%B3n](http://es.wikipedia.org/wiki/Sociedad_de_la_informaci%C3%B3n).

### ■ SARE-GIZARTEA

1991n asmatu zuen Jan van Dijk-ek *De Netwerkmatschappij* (*Sare-gizartea*) lanean. Halere, gehien garatu eta hedatu duena [Manuel Castells](#) izan da *La Sociedad Red* liburuan, *La Era de la Información* triologiako lehenengo liburukia.

Manuel Castellsen ustez, gizarte egitura hiru harreman motaren bidez sortzen da:

- Produkzio harremanak, gizakiaren eta naturaren arteko elkarrenginari eta gizakiak bere premiak asetzen dituzten ondasunak eta zerbitzuak sortzeko natura eraldatzeko daukan moduari oso lotuak.
- Esperientziako harremanak, giza harremanen funtsezko nukleoa, historikoki sexuaren eta familiaren inguruan egituratu dena.
- Botere harremanak, hau da, gizarte arau nagusiak be-tearazteko indarkeria erabiltzeko gaitasuna.

Sare-gizartean, errealitatea informazio sareek eraikitzen dute. Sare horiek informazioa prozesatzen, biltegitzen eta transmititzen dute; distantzia, denbora eta bolumenak ez dira oztopo. Gizartearen funtzionamendua ulertzeko modu berri hau globalizazioan oinarritzen da, Interneti esker garatu dena.

Harreman hauek finkatzeko, mantentzeko, aldatzeko edo suntsitzeko modua XX. mendearen erdialdeko gizarte-pa-radigma berriaren aurrean aldatu zen. Gizarte berria, sare-gizartea, informazioan eta jakintzan oinarritutako **iraultza teknologiko** batetik jaio zen, eta **ekonomia berri bat** sortu zuen. Hauek dira beraren hiru ezaugarri funtsezkoak:

- Ekonomia berria informaziozkoa da. Beraz, informazioaren sorrera eta eraldaketa erabakigarriak dira sistemaren produktibitatean.
- Ekonomia berria globala da, hau da, planeta-mailan dihardu.
- Ekonomia berria sarean dago, eta sare-enpresa sortu du. Antolakunde ekonomiko berri honek malgutasun eta eragingarritasun handiak dauzka, konfigurazio aldagarria dauka eta sare gisa jarduten du: hierarkietan laua da, eta garrantzitsuena nodoen arteko lotura da.

Ekonomia berriaren ezaugarri hauek errotik aldatzen dute ekoizpen, esperientzia eta botere harremanak nola gertatzen diren, eta lan-merkatua eta enplegua, kultura, politika, estatua, kontsumoa eta abarreakoak birdefinitzen dituzte.

#### Erreferentziak:

Castells, M. (2004): “**Informationalism, Networks And The Network Society: A Theoretical Blueprint**”. En Castells, M. (Ed.), *The Network Society: A Cross-Cultural Perspective*. Northampton, MA: Edward Elgar.

Castells, M. (2000): “**Materials for an exploratory theory of the network society**”. En *British Journal of Sociology*, Jan-Mar 2000, 51(1), 5-24. London: Routledge.

Wikipedia: [http://es.wikipedia.org/wiki/Sociedad\\_red](http://es.wikipedia.org/wiki/Sociedad_red).

#### ■ ADINEKOAK

Termino antropiko eta soziala da, adineko pertsonen populazioari dagokiona. Gaur egun arte zaharra izatearen sinonimo zen. Biztanleria-talde hau erretiratuta dago eta 65 urte edo gehiago dauzka.

Adin-talde hau biztanleriaren piramidean hazten ari da, hau da, populazioaren egitura adinen arabera banatzen badugu, talde honetakoak gero eta ugariagoak dira. Horren arrazoia da jaiotza-tasak behera egin duela eta herrialde askotan bizi-kalitatea eta bizi-itxaropena hobetu direla.

Adineko pertsonen bizi-baldintzen ezaugarri nagusiak, besteak beste, lan-aukeren, gizarte-jardunaren eta

gizarteratzeko gaitasunaren galera dira. Horregatik, sarritan zokoratuta eta baztertuta sentitzen dira. Herrialde garatuetan gehienek bizi-maila hobea dute, estatuak ordaintzen die eta pentsioak, osasun-bermeak eta bestelako onurak jasotzen dituzte.

#### ■ SUBSIDIARIOTASUNA

Subsidiariotasuna, lehenik eta behin, egiturako kolektibo bakoitzaren autonomia aitortzean datza, bere helburuak finkatzeko eta horiek lortzeko prozesuak erabakitzeko orduan. Baina, bestalde, elkarriketa eta gizarte-taldeko kide guztien (banakoak eta kolektiboak) partaidetza eskatzen ditu helburu orokorrak definitzerakoan, helburu horiek lortzeko estrategiak diseinatzerakoan, horiek gauzatzeko eta ebaluatzerakoan, eta autoerregulazioko eta elkarrekin arautzeko tresnen errespetua. Subsidiariotasun printzipioa gizarte-egitura bateko kide guztien autode-terminazio eskubidearen errespetu gorenean oinarritzen da. Aldi berean, **demokrazia parte hartzailea** deritzogun horren elkarrengin soziopolitikoko dinamikaren eraikin osoaren oinarria da.

#### Erreferentzia:

[http://es.wikipedia.org/wiki/Principio\\_de\\_subsidiariedad](http://es.wikipedia.org/wiki/Principio_de_subsidiariedad).

#### ■ IKT

Informazioaren eta komunikazioaren teknologiak, IKT ere esaten zaienak, informazioa kudeatzeko eta leku batetik besterako garatu diren teknologien multzoa dira. Oso konponbide-sorta zabala da. Informazioa gordetzeko eta gero berreskuratzeko teknologiak, informazioa leku batetik bestera bidaltzeko eta jasotzeko teknologiak, edo informazioa prozesatzeko teknologiak, gero emaitzak kalkulatu ahal izateko eta txostenak egin ahal izateko, hemen sartzen dira. Informazioaren eta komunikazioaren teknologien bidez egiten ditugun erabileren zerrenda egingo bagenu, bukaezina litzateke:

- Banda zabaleko Internet.
- Azken belaunaldiko sakelako telefonoak.
- Definizio handiko telebista...

Aurrerapen horiek ditugu ezagunenak, baina askozaz ere gehiago daude:

- Barra-kodeak, supermerkatuetako produktuak kudeatzeko.
- Banda magnetikoak, kreditu-txarteekin segurtasunez operatzeko.
- Kamera digitalak.
- MP3 erreproduktoreak.

Informazioaren eta komunikazioaren teknologiak gure bizitzan daude eta bizimodua aldatu digute. Iraultza hau teknologia digitalaren agerpenak ahalbideratu du. Teknologia digitalak, gero eta ordenagailu ahaltsuagoak sortzearekin batera, gizateria zientzian eta teknikan oso azkar aurrera egitera eraman du, eta geure armarik sendoena eman digu: informazioa eta jakintza. Baina ez hori bakarrik; informazioaren eta komunikazioaren teknologiek enpresen kudeaketa eta negozioak egiteko modua eraldatu dituzte:

- Geure bezeroekin komunikatzeko.
- Eskakerak kudeatzeko.

- Geure produktuak sustatzeko.
- Administrazio publikoarekin harremanetan sartzeko.

Enpresen kudeaketako alor guztietan, informazioaren eta komunikazioaren teknologiek geure lan egiteko modua eraldatu dute. Egiteko astunenetatik askatu gaituzte, baliabideak optimizatu dituzte eta produktiboago bihurtu gaituzte. Haiei esker, askozaz ere gehiago, kalitate hobea-gorekin, eta denbora laburragoan, produzitzen dugu.

#### Erreferentziak:

<http://www.serviciostic.com/las-tic/definicion-de-tic.html>.

[http://es.wikipedia.org/wiki/Tecnolog%C3%ADas\\_de\\_la\\_informaci%C3%B3n\\_y\\_la\\_comunicaci%C3%B3n](http://es.wikipedia.org/wiki/Tecnolog%C3%ADas_de_la_informaci%C3%B3n_y_la_comunicaci%C3%B3n).

## ■ 2.0 SAREA

2.0 sarea aplikazio tradizioaletatik azken erabiltzaileari begira egindako web aplikazioetarako eboluzioaren irudikapena da. 2.0 sarea jarrera bat da, eta ez teknologia bat. 2.0 sarea aplikazio tradizioaletatik azken erabiltzaileari begira sarearen bidez funtzionatzen duten aplikazioetara gertatu den trantsizioa da. Lankidetzaren sortzen duten aplikazioak eta mahaigaineko aplikazioak ordezkatzen dituzten zerbitzuak dira.

**2.0 sareko** web aplikazioek informazioa partekatzea, elkarreragingarritasuna, erabiltzailean zentratutako diseinua eta *world wide web*-eko lankidetzaren errazten dituzte. 2.0 webgune batek erabiltzaileei elkarren artean eragitea eta lan egitea ahalbideratzen die, **komunitate birtual** batean sortutako edukiaren sortzaile diren aldetik. Beste webgune batzuetan, ordea, erabiltzaileek beraientzat sortu diren edukiak modu pasiboan behatu baino ez dute egiten. 2.0 sarearen adibide batzuk hauek dira: web komunitateak, web zerbitzuak, web aplikazioak, gizarte sareko zerbitzuak, bideoak ostatzeko zerbitzuak, **wikiak**, blogak, **mashupak** eta **folksonomiak**.

#### Erreferentziak:

[http://es.wikipedia.org/wiki/Web\\_2.0](http://es.wikipedia.org/wiki/Web_2.0).

<http://www.maestrosdelweb.com/editorial/web2/>.

sinergiak gauzatzeko aukerari bizkar ematea izan liteke, beste lurralde batzuetan garatzen ari diren esperientziak aprobetxatzeari muzin egitea, eta oro har IKTak gizarte aldaketako tresna nagusitzat hartzen dituen komunitate bat, etengabe eguneratzen ari den konpartitutako jakintza oinarri duena, sortzeko aukerari uko egitea.

Ikuspegi honetatik, ondoko gai hauei buruzko jardunbide egoki batzuk jaso nahi izan ditugu (txosten berezi honen aztergai direlako hautatu ditugu, baita **Europarako Agenda Digitalaren**, **Espainiarako Agenda Digitalaren** zirriborroaren eta **Euskadarako Agenda Digitalaren** jarduketa ildo handiekin bat datozeelako ere):

- IKTen erabilera segurua eta arduratsua.
- Berrikuntza eta kultura digitala.
- Alfabetatze digitala eta gizarte-berrikuntza IKTen bidez.
- Esku hartzea kolektiboekin.
- Herritarren partaidetza.
- E-government.

Jardunbide egokiak hautatzeko, erabili den metodologia aldeztu aurretik identifikatutako esperientzietan buruz galdera hauek egitea izan da:

- Esperientzia hau batez ere txosten berezi honen analisi eta gogoeta esparrurekin zerikusia duen eremu batean egin da?
- Esperientzian erabilitako metodologiak konbinazio berrien aldeko apustua egiten du lankidetzaren, prozesu eta produktu moduei dagokienez (premia berriei erantzuteko modu berriak)?
- Jardunbide honetan open innovation osagaririk badago (esperientzia eragileen arteko lankidetzaren, adimen kolektibora, etab irekitzea)?
- Esperientzia iraunkorra da (jardunbide on baten epe luzearako funtzionamenduak erantzuten dion arazoari edo errealitateari heltzeko gaitasuna areagotzen du)?
- Zein da lurraldean sortutako gizarte inpaktua (atzemandako errealitateari edo arazoari zein neurritan eman zaion erantzuna)?
- Mailakagarria da? Hau da, zein mailatan mailakatu ahal da esperientzia onuradunei dagokienez eta egiten den lurraldeei dagokienez (besteak beste, esperientziaren finantzazioarekin eta iraunkortasunarekin lotura estua izanik)?
- Errepikatu ahal da? Hau da, beste testuinguru batzuetan egin daiteke?
- Ba al dago eskuratzetik? Hau da, esperientziako onuradunek edo destinatarioek zein neurritan egiten dute bere ekintza hau eta zein neurritan gertatzen da benetako ahaldundzia?

## 16.

### Jardunbide egokia e-inklusioan eta e-partaidetzan

Informazioaren gizartea, IKTak eta herritarren partaidetza eremuak etengabeko hazkunde eta hedatze prozesuan daude, bai tokiko, estatuko eta Europako eremuetan, bai nazioarteko testuinguruan.

Horrek esan nahi du ia egunero albiste interesgarriak, ekimen berriak, txosten eta azterlan esanguratsuen argitalpenak, ekitaldiak eta abarreak sortzen direla. Egunero sortzen diren informazioa eta jakintza ez jarraitzea eta ez eguneratzea

## IKTen ERABILERA SEGURUA ETA ARDURATSUA

(39. taula)

### BBPP\_Kontuzdatos

KONTUZDATOS	
<b>ERAKUNDEA</b>	Datuak Babesteko Euskal Bulegoa
<b>EREMUA</b>	Publikoa
<b>PROIEKTUAREN WEBGUNEA</b>	<a href="http://www.avpd.euskadi.net/s04-redes/eu/contenidos/informacion/redes/eu_redes/tutoriales.html">http://www.avpd.euskadi.net/s04-redes/eu/contenidos/informacion/redes/eu_redes/tutoriales.html</a>
<b>BESTELAKO ESTEKAK</b>	<a href="http://www.avpd.euskadi.net/s04-5213/eu/">http://www.avpd.euskadi.net/s04-5213/eu/</a> <a href="http://www.avpd.euskadi.net/s04-kontuz00/es/contenidos/informacion/udcd/es_udcd/decides.html">http://www.avpd.euskadi.net/s04-kontuz00/es/contenidos/informacion/udcd/es_udcd/decides.html</a>
<b>PROIEKTUAREN LABURPENA</b>	
<p>2008ko irailean, Datuak Babesteko Euskal Bulegoak bat egin zuen Euskal Autonomia Erkidegoko Hezkuntza, Unibertsitate eta Ikerkuntza Sailarekin, gazteentzako hezkuntza kanpaina bat abiatzeko, datu pertsonalen babesari buruzkoa.</p> <p>Kanpainaren helburuak 14, 15 eta 16 urteko gazteak pribatutasunari buruz eta datu pertsonalen babesari buruz dakitena aztertzea gonbidatzea eta bitarteko digitalak erabiltzean beren datuak eta besteak babesteari erantzule izatera motibatzea dira. 2009ko lehenengo hiruhilekoan, bigarren hezkuntzako zentro guztiek doako materiala, kanpainari buruzko informazioa daukan gutun bat eta webguneari (<a href="http://www.avpd.euskadi.net/s04-kontuzdt/eu/">http://www.avpd.euskadi.net/s04-kontuzdt/eu/</a>) buruzko gutuna jasotzen dituzte.</p> <p>Sarean nabigatzen dugunean datu pertsonalari babesteko duen garrantzia azpimarratzen du webgune honek. Webgunean, beste pertsona batzuek gure datuak nola erabili ahal dituzten eta erabilera okerra eman ahal dieten erakusten da. Gainera, informazioa babesteko moduak azaltzen dira. Edukietako asko ezagunak egingo zaizkigu, eta beste batzuk erabat berriak izango dira.</p> <p>Kanpaina hau aurretik Norvegiar egindako kanpaina baten egokitzapena da.</p> <p>2007. urtean, Norvegiako Hezkuntza eta Prestakuntzako eta Datuen Babeseko agintariek hezkuntza kanpaina bat sortu zuten gazteentzat, datu pertsonalari babesteari buruz.</p> <p>Kanpaina hark harrera bikaina izan zuen Norvegiako ikastetxeetan. Parte hartze zabala izan zuen eta kritika onak jaso zituen, bai barruan bai kanpoan (nazioartean goraiatua izan zen). DBEBak eta Hezkuntza, Unibertsitate eta Ikerkuntza Sailak erreferentziako hezkuntza proiektu hau eta beraren emaitzak aztertu zituzten, eta gure helburuetarako egokia eta erraz moldatzen zela pentsatu zuten. Horregatik, egokitze eskubideak eskatu zituzten.</p>	

(40. taula)

### BBPP\_Comunidad Aprendizaje

“INFORMAZIOAREN ETA KOMUNIKAZIOAREN TEKNOLOGIEN ERABILERA SEGURUA” IKASKUNTZA KOMUNITATEA	
<b>ERAKUNDEA</b>	CTIC Informazioaren Gizartea Fundazioa: <a href="http://www.fundacionctic.org">http://www.fundacionctic.org</a>
<b>EREMUA</b>	Pribatua/publikoa
<b>PROIEKTUAREN WEBGUNEA</b>	<a href="http://www.fundacionctic.org/servicios/innovacion-social">http://www.fundacionctic.org/servicios/innovacion-social</a>
<b>BESTELAKO ESTEKAK</b>	<a href="http://internetyfamilia.es">http://internetyfamilia.es</a> <a href="http://menoresenlastic.fundacionctic.org/">http://menoresenlastic.fundacionctic.org/</a> <a href="http://www.facebook.com/congresomenoresenlastic">http://www.facebook.com/congresomenoresenlastic</a> <a href="https://twitter.com/#!/menorestic">https://twitter.com/#!/menorestic</a>
<b>PROIEKTUAREN LABURPENA</b>	
<p>Hezkuntza komunitate pribatua, haur eta lehen hezkuntzako ikastetxei zuzendua, IKTen erabilera segurua eta arduratsua sustatzeko. Ikastetxe bakoitzari pasahitz bat ematen zaio, eta beraren bidez irakasleek plataforma horretan partekatutako edukia, materialak eta tresnak eskuratu ahal dituzte.</p> <p>Jakintza eta baliabideak partekatuzko topagune bat eta informazio gune bat izan behar da irakasleentzat. Bertan, IKTak erabiltzeko segurtasunaren inguruko informazio garrantzitsua eskuratu ahal dute, eta interes berberak daukaten erabiltzaileekin harremanetan sartu. <b>Komunitate honen osagai bereizgarria administrazio taldeak sortutako edukia da</b> (CTC SI Fundazioa), astero edukiak eta albisteak eguneratzen dituena. Komunitateak dokumentu-fondo zabala dauka, Internet eta Familia proiektuaren esparruan egindako materialez, bideo- eta dokumentu- bildumez osatua (unitate didaktikoak, fitxa didaktikoak, ikasgelarako aurkezpenak, irakasleentzako erreferentziako dokumentuak, dibulgazio artikulak etab), hezkuntza-etaparen, tematikaren, edukien tipologiaren eta abarrekoren arabera sailkatuak eta katalogatuak. Horrela, irakasleek honako ekintza hauek egin ditzakete: ikasgelan zuzenean aplikatu beharrek dokumentazioa aurkitu eta deskargatu; segurtasun gaietan, IKTetan eta adingabeen gaien gertatzen den guztian egunean egon. Gainera, zalantza argitu ahal dira edota konpartitzeko eta erabiltzeko proposatu. Finean, denon artean jakintza kolektiboa sortu eta aprobetxatu ahal den sareko leku bat da.</p>	

(41. taula)

### BBPP\_Cibermanagers

CIBERMANAGERS	
<b>ERAKUNDEA</b>	Pantallas Amigas ( <a href="http://www.pantallasamigas.net/">http://www.pantallasamigas.net/</a> ) izenekoaren helburua teknologia berrien erabilera segurua eta osasuntsua bultzatzea da, bai eta haurren eta nerabeen artean herritartasun digital arduratsua sustatzea ere
<b>EREMUA</b>	Pribatua/publikoa/gizartekoa
<b>PROIEKTUAREN WEBGUNEA</b>	<a href="http://www.cibermanagers.com/">http://www.cibermanagers.com/</a>
<b>PROIEKTUAREN LABURPENA</b>	
<p>Cibermanagers <b>berdinen arteko ikaskuntza eta zerbitzu solidario</b> eta hezkuntzako esperientzia berria da. Nerabeak eurak bihurtzen ditu aldaketaren eragile eta IKTen erabilera seguru eta arduratsuari lotutako irtenbidearen erdigunean kokatzen ditu, arazoaren biktima edo parte jarri beharrean. 2010eko urtarilean egin zen lehen aldiz, Portugalgeteko Santa Maria ikastetxearen eta Pantallas Amigas-en arteko elkarlanean.</p>	

(42. taula)

**BBPP\_Etorkizuneko Zientzialariak Azterlana**

ETORKIZUNEKO ZIENTZIALARIEN TEKNOLOGIEI BURUZKO AZTERLANA	
ERAKUNDEA	Fundación CTIC Sociedad de la Información: <a href="http://www.fundacionctic.org">http://www.fundacionctic.org</a>
EREMUA	Pribatua/publikoa
PROIEKTUAREN WEBGUNEA	<a href="http://internetyfamilia.es/estudio/">http://internetyfamilia.es/estudio/</a>
BESTE LOTURA BATZUK	<a href="http://www.slideshare.net/menorestic/estudio-tecnologias-cientificos-futuro">http://www.slideshare.net/menorestic/estudio-tecnologias-cientificos-futuro</a> <a href="http://internetyfamilia.es/wp-content/uploads/2011/04/info_tec_futuro2.pdf">http://internetyfamilia.es/wp-content/uploads/2011/04/info_tec_futuro2.pdf</a> <a href="http://internetyfamilia.es/tag/legoseriousplay/">http://internetyfamilia.es/tag/legoseriousplay/</a>
<b>PROIEKTUAREN LABURPENA</b>	
<p>Etorkizuneko zientzialarien teknologia azterlana "adimen kolektiboa" kontzeptuan oinarritzen da. Haren oinarrian denok egon gaitezke ados: haur gazteek duten sormen eta irudimen maila handia, azken finean haiek izango baitira etorkizuna sortu, aldatu eta ahalbidetuko dutenak.</p> <p>Haur parte-hartzaileei etorkizuneko eduki nahi luketen produktu edo zerbitzu teknologiko berri bat definitzeko lana ematen diegu. Honakoak izan ziren gure helburuak:</p> <ul style="list-style-type: none"> <li>• 6 eta 12 urte arteko haurrek etorkizuneko teknologia nola ikusten duten ikertu.</li> <li>• Haurrek eguneroko bizimoduan darabiltzaten teknologiek dituzten harremanak aztertu.</li> <li>• Haurrek eskatzen dituzten produktu eta zerbitzu teknologiko berriei antzeman.</li> <li>• Teknologia sektoreko enpresei produktu berriak ikertzeko eta garatzeko balizko bideak eskaini.</li> <li>• Haurrek zientzia-teknologiari buruz dituzten iritzia eta kezak adierazi ahal izateko esparruak sortu.</li> <li>• Lehen adinetatik bokazio zientifiko teknologikoak sustatu.</li> <li>• Teknologia hobeto hurbildu ahal izateko interesguneei antzeman.</li> </ul> <p>Azterlanean 6 eta 12 urte arte 546 haurrek parte hartu zuten. Bi astez eta "Nolakoa nahi zenuke etorkizuneko teknologia?" galdetuta, 6 eta 12 urte arteko 546 mutil (% 2) eta neska (% 8) produktu edo zerbitzu berri marraztu eta deskribatzeko eskatu zitzaizkien. Askatasun osoz egin dute, eta "nagusien" eragina sentitzen ez zuten giroan, Mercaplana 2010-2011ko Haurren Azokako Laborategi tailerrean. Informazio iturri nagusiak haurrek prestatutako marrazkiak eta zirriborro grafikoak eta haurrek bideoan grabatutako eta ahoz azaldutako "berrikuntzak" izan ziren. Egindako inkestetatik 276 jo ziren "idea" teknologiko berrizailatzat. Ideia batzuek merkatu teknologikoko egiazko joeren intuizio handia erakutsi dute: haurrek egun 3 fasean dauden irtenbideak (Errealitate Handitua eta Gailuekiko Elkarreragite Forma Berriak) proposatu eta ideia guztiz disruptiboak dagozkien proposamen interesgarriak (guztien % gutxi gorabehera) egin dituzte, batez ere etxetresnei eta elkarrenginari, eta automatizazioari lotutako gailuei aplikatu dakizkienak. Proposatutako ideien % 19 telegarraio/denbora makinari dagokie. Azterlanak hasierako ideia indartu du: lehen urteetan sormena, irudimena eta zientziarekiko gustua sustatzea funtsezkoa da etorkizuneko eurak izan daitezkeen, langile bihurtuta, Asturiaseko enpresak lehiakorrago bihurtu eta lurraldea garatzen aktiboki lagun dezaten.</p>	

(43. taula)

**BBPP\_Googleren Segurtasun Zentroa**

GOOGLEREN HAURREN SEGURTASUN ZENTROA	
ERAKUNDEA	Googleren Familia Segurtasun Zentroa beste 5 erakunderekin izandako elkarlanetik sortu da: <a href="#">Protégeles</a> , <a href="#">Save the Children</a> , <a href="#">Fundación Alia2</a> , <a href="#">Unicef</a> eta <a href="#">EU Kids Online</a>
EREMUA	Pribatua
PROIEKTUAREN WEBGUNEA	<a href="http://www.google.es/familysafety/">http://www.google.es/familysafety/</a>
<b>PROIEKTUAREN LABURPENA</b>	
<p>Haur eta gazteak Interneten erabilerak zer garrantzi duen jakitun, Googlek esperientzia segurua eskaini nahi die bere erabiltzaileei, familia segurtasunaren inguruko honako helburuak betetzeko:</p> <ul style="list-style-type: none"> <li>• Gurasoek eta hezitzaileek Interneten haurrek eskura dezaketen edukia hautatu ahal izateko tresnak ematea.</li> <li>• Familiei Interneteko segurtasunari lotutako aholkuak eta iradokizunak ematea.</li> <li>• Adingabeak babesten diharduten beste erakunde (adibidez, ongintzako erakundeak), sektoreko enpresa eta gobernu erakunde batzuekin elkarlanean jardutea.</li> </ul> <p>Hori lortzeko:</p> <ul style="list-style-type: none"> <li>• Bere produktuetan tresnak sartu dituzten erabiltzaileek Interneteko segurtasuna administratu ahal izateko, hala nola SafeSearch iragazkia eta YouTubeko segurtasuneko modua, zerbitzu horietan eskura daitezkeen eduki mota kontrolatu ahal izateko.</li> <li>• Eduki desegokiaren berri emateko zerbitzua aktibatzea.</li> <li>• Gurasoak maiz kezkatzen dituzten gaiak –adibidez, sarean ezezagunekin izandako harremanak edo <i>cyberbullyinga</i>– buruzko aholkuak, bideoak eta gomendioak partekatzen ditu.</li> </ul>	

(44. taula)

**BBPP\_Berdinkideen arteko prestakuntza**

INTERNETEO ERABILERAOKO JOKABIDE ARRISKUTSUEI BURUZKO BERDINKIDEEN ARTEKO PRESTAKUNTZA	
ERAKUNDEA	Fundación CTIC Sociedad de la Información: <a href="http://www.fundacionctic.org">http://www.fundacionctic.org</a>
EREMUA	Pribatua/publikoa/gizartekoa
PROIEKTUAREN WEBGUNEA	<a href="http://www.internetyfamilia.es">http://www.internetyfamilia.es</a>
BESTE LOTURA BATZUK	<a href="http://menoresenlastic.fundacionctic.org/">http://menoresenlastic.fundacionctic.org/</a> <a href="http://www.facebook.com/congresomenoresenlastic">http://www.facebook.com/congresomenoresenlastic</a> <a href="https://twitter.com/#!/menorestic">https://twitter.com/#!/menorestic</a>
<b>PROIEKTUAREN LABURPENA</b>	
<p>2011ko Internet Seguruaren Eguna ospatzeko, CTIC SI fundazioak, Internet eta Familia proiektuaren esparruan, jarduera bat antolatu zuen DBHko 4. mailako ikasleekin. Ikastetxe bat hautatu zen eta ikasleek eurek prestatutako jokabide arriskutsuei buruzko <i>online</i> inkesta bat egin zen. Ikastetxe bereko talde txikiago batekin xehetasunez aztertu ziren emaitzak, ikus-terko jokabide arriskutsu horiek zer neurritan eragin dezaketen gazteen etorkizun pertsonalean eta lanbidean. Gazteek 3 kontzeptu atera zituzten antzemandako jokabide arriskutsuak zuzentzeari begira: pasahitzak, nortasun digitala eta <i>sextinga</i>. Gazteek eurek gaiari buruzko gidoiak prestatu zituzten, eta haiek hartu ziren oinarri IKTetan jokabide segurua izan beharri buruzko dibulgazioko 3 bideo prestatzeko.</p> <p>Internet eta Familia taldearekin batera egindako lanaren emaitzak adingabeek eurek aurkeztu zituzten Internet Seguruaren Egunean. Esperientzia horren helburua adingabeek eurek eurei zuzendutako materialen prestaketan aktiboki parte hartzea zen; izan ere, adingabeak IKTen erabileran babesteko estrategiek eurei begiratu behar diete, haietzako estrategiak garatuz ez ezik, baita haiek prestatetaren parte bihurtuz. IKTen erabiltzaile adituak izanik, gai dira aholku egokiak emateko hausnartzeko eskatzen zaienetan, eta gainera euren hizkuntzan egiten dute eta, beraz, euren berdinkideek hobeto har ditzakete emaitzak.</p>	

**BERRIKUNTZA. KULTURA DIGITALA**

(45. taula)

**BBPP\_New Media Literacies**

NEW MEDIA LITERACIES	
ERAKUNDEA	New Media Literacies
EREMUA	Gizartekoa
PROIEKTUAREN WEBGUNEA	<a href="http://www.newmedialiteracies.org">http://www.newmedialiteracies.org</a>
<b>PROIEKTUAREN LABURPENA</b>	
<p>Hedabideetan prosumitzaileenganako aldaketa garaia eta kultura parte-hartzaileagoa bizitzen ari gara. NMLren kontzeptu-esparruak erronken ulermena, hedabideetako alfabetatze berriak eta modu parte-hartzaileak biltzen ditu. Helduei eta gazteei kultura aldatetaren partaidetza osoa izateko trebetasunak, ezagutza, esparru etikoa eta konfiantza garatzeko aukera eskaintzeko moduari buruzko pentsaera gidatu du esparru horrek.</p> <p>GLOBAL KIDS (THE EDGE) antzeko ekimena da, baina adingabeei eta haien gertuko inguruneari (senideak, irakasleak) zuzenduta. Ekimen horretatik partaidetzaren hezkuntza lantzen da. Argibide gehiago hemen: <a href="http://www.olpglobalkids.org/edge-project">http://www.olpglobalkids.org/edge-project</a>.</p>	

(46. taula)

**BBPP\_Citilab**

CITILAB	
ERAKUNDEA	Citilabek honako helburuak ditu: Ezagutzaren gizartearen kultura digital berria sustatzea, herritarrei azken berrikuntza teknologikoak hurbiltzea, aro digital berriaren barruan gizarte kohesioari eustea eta prestakuntza jarduerak sustatzea
EREMUA	Cornellà de Llobregateko Udalak bultzatutako eta Kataluniako Generalitatek babestutako fundazio pribatua da
PROIEKTUAREN WEBGUNEA	<a href="http://citilab.eu/">http://citilab.eu/</a>
<b>PROIEKTUAREN LABURPENA</b>	
<p>Citilab berrikuntza sozial eta digitalerako zentroa da eta Cornellà de Llobregaten dago, Bartzelonan. Kultura digitaletik sortutako pentsamendu sortzailean, diseinuan eta berrikuntzan gertatutako eragin digitala ustiatu eta zabaltzen du. Citilab prestakuntza zentroaren, ikerkuntza zentroaren eta enpresa eta gizarte ekimenean sehasparen arteko nahasketa da. Proiektuaren abiapuntua honako ideia izan zen: teknologia digitalak eta, zehazki, Internet, herritarrei askoz gehiago erreparatzen dieten berrikuntza bideak dira.</p> <p>Ekimena 1997an sortu zenetik, eta geroago, 2007ko azaroaren 23an bere egoitza fisikoa inauguratu zuenetik, ezagutzaren gizartea zabaldu eta sustatzeko herritar berrikuntzako zentro digitala jarduerara bultzatu du Citilabek. Haren oinarritzko lan metodoak diseinuko pentsamendua eta erabiltzaileari begirako sorkuntza dira. Citilaben, Internet elkarlanean eta era integratzaileagoan berritzeko bidetzat jo da, herritarra prozesuaren erdigunean jarrita.</p>	

(47. taula)

**BBPP\_Innoexplora**

INNOEXPLORA	
<b>ERAKUNDEA</b>	Fundación CTIC Sociedad de la Información: <a href="http://www.fundacionctic.org">http://www.fundacionctic.org</a>
<b>EREMUA</b>	Irabazi asmorik gabeko erakundea
<b>PROIEKTUAREN WEBGUNEA</b>	<a href="http://innoexplora.fundacionctic.org">http://innoexplora.fundacionctic.org</a>
<b>BESTE LOTURA BATZUK</b>	<a href="http://www.linkedin.com/groups/INNOEXPLORA-Descubre-nueva-forma-innovar-4098476?trk=myg_ugrp_ovr">http://www.linkedin.com/groups/INNOEXPLORA-Descubre-nueva-forma-innovar-4098476?trk=myg_ugrp_ovr</a> <a href="http://twitter.com/#!/ctic_si">http://twitter.com/#!/ctic_si</a>
<b>PROIEKTUAREN LABURPENA</b>	
<p>Innoexplorak "Berritzeko modu berria erakutsi du", ikuspegi tradizionalagoa osatzen duen ikuspegitik heldu nahi dio enpresa berrikuntzari, gizarte berrikuntzaren ikuspegitik, biak estuki lotuta daudela ulertuta. Horrela, proiektuak honako arreta guneak dauzka:</p> <ul style="list-style-type: none"> <li>Gizarte berrikuntzaren kontzeptua, haren printzipioak eta balioak zabalzea (berrikuntza gizartetik, gizartearen bidez eta gizartearentzat, enpresa berrikuntzaren eremua gaituz).</li> <li>Asturiasen, gizarte eremuan eta mikroenpresen eremuan, gertatzen ari diren berrikuntza ezkutuko esperientziak identifikatzea eta bistaratzea.</li> <li>Enpresa berrikuntzaren eta gizarte berrikuntzaren arteko elkarguneak bilatzea, batez ere gizarte ekintzaitzari, barne ekintzaitzari (enpresen baitako ekintzaitza eta gizarte berrikuntza), enpresaren gizarte erantzukizunari eta taldeko enpresa berrikuntzari buruzkoak.</li> <li>Berrikuntzari irekitako ingurune sozioekonomikoa ikuspegi globaletik sortzeko prozesuari ekitea, gure enpresek berrikuntzara bultzatzen duen ekosistema egokia izan dezaten.</li> </ul> <p>Proiektuaren baitan 3 topaketa egingo dira, eta honako egitura izango dute: lehen zatian jendeari zabalduko dibulgaziozko hitzaldiak eta bigarrenean 3 lan-saio eragile sozioekonomikoe-kin esperientziak elkartrukatzeko, gizarte berrikuntzaren kontzeptua zabalitzen eta ulertzen laguntzeari begira.</p> <p>Proiektua amaitzeko "Asturiaseko gizarte berrikuntzaren liburu zuria" egingo da. Ondorioak eta topaketetan antzemandako jardunbide egoki esanguratsuak jasoko dira bertan.</p>	

(48. taula)

**BBPP\_MedLab**

MEDLAB	
<b>ERAKUNDEA</b>	MedLab proiektua Europako Batzordearen MED programarekin batera finantzatu da, eta <a href="#">Herritarren Ongizaterako Berrikuntza Institutuak</a> (I2BC) sustatzen du
<b>EREMUA</b>	Publikoa
<b>PROIEKTUAREN WEBGUNEA</b>	<a href="http://www.i2bc.es/26-medlab.htm">http://www.i2bc.es/26-medlab.htm</a>
<b>PROIEKTUAREN LABURPENA</b>	
<p>Proiektu honen helburu nagusia <i>living labs</i> ikuspegia eskualde politiken eskariaren aldetik aplikatzea da. I+G, gizarte berrikuntza eta maila guztietako koherentzia politikoa tokiko komunitatetik nazioz gaindikoa mailaraino dakartzan sarea eraiki nahi da, horretarako lurraldeko berrikuntzari lagunduko dioten IKTak erabiliz.</p> <p>Proiektua hiru multzo handitan egituratua dago:</p> <ul style="list-style-type: none"> <li>Mediterraneoko <i>living labs</i> pilotu multzo bat ezarri, IKT plataformak eta zerbitzuak zehaztu eta zenbait eremutako politika berritzaileen ikuspegiak batera diseinatu (ETE sareak, garapen iraunkorra, kostaldeko kudeaketa, plangintza estrategiko parte-hartzailea, turismo iraunkorra).</li> <li>MedLab ikuspegia aplikatzeko egungo ahalmeneri buruzko inkesta egin (berrikuntza politikak, I+G eta garapen ekimenak).</li> <li>Zenbait testuingurutako ulermen txosten baterako esparrua definitu. MedLab ikuspegiaren gobernantza koordinaturako eta kapitalizatorako egitura iraunkorra definitu beharko du esparru horrek.</li> </ul>	

(49. taula)

**BBPP\_Minutu Bat Berrikuntzarentzat**

MINUTU BAT BERRIKUNTZARENTZAT	
<b>ERAKUNDEA</b>	Innobasque (Berrikuntzaren Euskal Agentzia)
<b>EREMUA</b>	Publikoa
<b>PROIEKTUAREN WEBGUNEA</b>	<a href="http://www.unminutoparalainnovacion.com/index.php?idioma=2">http://www.unminutoparalainnovacion.com/index.php?idioma=2</a>
<b>BESTE LOTURA BATZUK</b>	<a href="http://www.innobasque.com/home.aspx?tabid=276">http://www.innobasque.com/home.aspx?tabid=276</a>
<b>PROIEKTUAREN LABURPENA</b>	
<p>Toki, enpresa... eremuan berrikuntzari lotutako ideiak, proposamenak, erronkak partekatzeko plataforma.</p> <p>Euskadin mila ideia txiki, mila ekintza txiki, mila berrikuntza txiki behar ditugu. Horregatik, Innobasquetik berrikuntza piztera gonbidatu nahi zaitugu. Nola? Zure ideia eman, partekatu, posible bihurtu. Minutu bat baino ez duzu behar. Minutu bat gehiago.</p>	

(50. taula)

**BBPP\_HELENA****HELENA (HIGH EDUCATION LEADING TO ENGINEERING AND SCIENTIFIC CAREERS)**

<b>ERAKUNDEA</b>	Europar proiektu hau Europako Batzordearen Zazpigarren Esparru Programan kokatzen da. Bertan <a href="#">Tecnaliak</a> parte hartzen du
<b>EREMUA</b>	Pribatua/publikoa/gizartekoa
<b>PROIEKTUAREN WEBGUNEA</b>	<a href="http://www.fp7-helena.org/">http://www.fp7-helena.org/</a>
<b>PROIEKTUAREN LABURPENA</b>	
<p>“Egun eta bereziki krisi garaian, emakumeak teknologian, zientzian, ingeniartzan eta IKTetan sartzea, justizia kontua baino gehiago da, ekonomia, hazkunde eta lehiakortasun premia da”. Hitz horiekin abiatzen da 26 herrik sinatutako agiria. Agiri hori Europako Emakume eta Teknologia Zentroak (ECWT) aurkeztu zuen 2011ko martxoaren 8an Budapestean egindako biltzarrean. Matematika eta Informatikako lizentziaturak egiten dituzten emakumeak ikasle guztien herenak baino ez dira eta ehunekoak are txikiagoa da ingeniartzan, industrian eta eraikuntzan, Europar Batasunaren datuen arabera haietan % 24 baino ez baitira. Goi-teknologiako negozioen % 5 eta % 10 artean baino ez dira emakumeenak. Argi dago teknologia eta ingeniartzaren ikasketetan emakumeek duten ikusgaitasun urria. Medikuntza eta nekazaritza dira emakume proportziorik handiena duten ikerkuntza arloak. Emakume gazteek zientzia arlo horietan parte hartzea sustatzeko, Tecnalia teknologia korporazioa bazkide batu zaio Helena (High Education Leading to Engineering and Scientific Careers-en akronimoa) europar proiektuari, Europako Batzordearen Zazpigarren Esparru Programaren baitan.</p> <p>Proiektu horretan honako zeregina dauka Tecnaliak: Europako politika arduradunentzat eta hezkuntza eragileentzat zenbait gomendio prestatzea, ikasle gehiago orokorrean eta emakume gehiago bereziki ingeniartzara erakartzeari lotutako haien hezkuntza politiken eta ikasketen programen eraginkortasuna ebaluatzeko. Korporazioak azpimarratu zuenez, gazteak ingeniartzari lotutako lanpostuak eskuratzeko “ezinbestekoa” da Europaren ekonomia garapen iraunkorrerako eta “sexuen arteko berdintasuna eta gizarte zuzentasuna sustatzeko”. Korporazioak gogoratu zuenez, Europako hezkuntza sektorearen erronka gazteek zientzia eta matematikari buruz duten interesa handitzea da, eta ingeniartzaren eta teknologiararen garapenaren garrantzia azpimarratu zuen.</p>	

**ALFABETATZE DIGITALA ETA GIZARTE BERRIKUNTZA IKT-EN BIDEZ**

(51. taula)

**BBPP\_Telecentres.org****TELECENTRES.ORG**

<b>ERAKUNDEA</b>	Hasiera batean Kanadako Garapenerako Agentziak (CIID) administratzen zuen eta orain Telecentre.org Fundazioak, Manilan, Filipinetan, erregistratutako irabazi asmorik gabeko nazioarteko erakunde independenteak kudeatzen du. Oraindik ere IDRC da gure funts hornitzaile nagusietako bat, Microsoftekin, Filipinetako Informazio Erakundearekin eta Teknologia eta Komunikazioen Bulegoarekin (ICTO) batera. Oraindik ere hainbat interesdunen bidez burutzen da, bere eragiketa maila guztietako lankidetzaren ereduak
<b>EREMUA</b>	Publikoa/gizartekoa
<b>PROIEKTUAREN WEBGUNEA</b>	<a href="http://www.telecentre.org/">http://www.telecentre.org/</a>
<b>PROIEKTUAREN LABURPENA</b>	
<p>Telecentre.org programa globala da, Telecentre.org Fundazioak kudeatua, eta mailako komunitate telezentroen sorrera eta iraunkortasuna bultzatzen ditu. Telezentro horiek –Internet eta norberaren eta gizartearen garapena sustatzen laguntzeko beste teknologia digital batzuk eskuratzeko toki publikoak– funtsezko zerbitzuak, trebetasunak eta aukerak eskaintzen dizkiete mundu osoko toki urrunetan eta landan bizi diren pertsonen.</p> <p>2005ean Tuniseko Informazioaren Sozietateari buruzko Mundu Goi-bileran aurkeztu zenetik, telezentro sareak sortzeko tresna izan da 40 herri baino gehiagotan. Telecentre.org Akademia sortzen ere lagundu du, mundu osoko telezentro operadoreentzako ezagutza eta prestakuntza elkartrukea.</p> <p>Haren estrategiak funtsezko bost elementu dauzka:</p> <ul style="list-style-type: none"> <li>• Dauden sareak sakontzea eta produktu berriak garatzen laguntzea. Haien artean sareak zerbitzuak emateko eta politikak sustatzeko bide indartzea sartzen da.</li> <li>• Telezentroen jardueraren profesionalitatearen eskualde, nazio eta mundu mailako ezagutza elkartrukea antolatzea eta erraztea.</li> <li>• Erakunde iraunkorra eratzea, ikerketa planak eta arauen, akreditazioaren eta bere geletan eman beharreko ziurtapen programen prestatzea eginez.</li> <li>• Telezentroek eginkizun garrantzitsua duten eremuetan (adibidez, osasun zerbitzuak, hezkuntza, hondamendien maneia, toki administrazioa, agroindustria, etab.) gobernari eta sektore pribatuari laguntzeko aholkularitza eta ikerkuntza aplikatua ematea.</li> <li>• Komunitatearen trebetasunak hobetzen dituzten eta oinarritzko komunitateen ahotsa handiagotzen duten premia, zerbitzu eta kanpainetan oinarritutako garapena.</li> </ul>	



(52. taula)

**BBPP\_Guadalinfo**

GUADALINFO	
<b>ERAKUNDEA</b>	Guadalinfo Andaluziaren Juntaren <b>2009-2012 Plan Estrategikoa</b> izenekoan kokatutako proiektua da. Haren bidez, herritarrak, erakundeak eta lurralde bateko aldekata osoaren gainerako eragile protagonisten engaiamendu handiagoa lortu nahi da. Fase berri horren amaieran lortu beharreko bost helburu ezarri dira: <ul style="list-style-type: none"> <li>• Andaluziako herritar guztiek sarearen posibilitateak eta aukerak ezagutzen dituztela bermatzea, ikasketa eta egokitzapen prozesuen bidez</li> <li>• Herritarrak Andaluziaren erakuntza iraunkorrean engaiatzen direla bermatzea</li> <li>• Globala den munduan aktiboki parte hartzea</li> <li>• Andaluziarren erabateko erabilerraztasuna ahalbidetzea, oztopo teknologikoak ezabatzen direla bermatuz</li> <li>• Berrikuntzaren esparrua "Guadalinfo" gizarte esparrua sortuz garatzea, produktibitatea, lehiakortasuna eta garapen iraunkorra hazteko funtsezko tresna izan dadin</li> </ul>
<b>EREMUA</b>	Publikoa
<b>PROIEKTUAREN WEBGUNEAK</b>	<a href="http://www.guadalinfo.es/">http://www.guadalinfo.es/</a>
<b>PROIEKTUAREN LABURPENA</b>	
<p>Dagoeneko andaluziar guztien gizarte-sarea da Guadalinfo. Guadalinfo gizarte-sare definitzeak Andaluzia mundura ireki eta sare berriak sortzeko erlazioetan ari den etapa honetan proiektuak duen espiritua islatzen du. Etapa honetan Guadalinfo zentroa funtzio anitzeko tresna gisa pentsatu da, milioi erdi erabiltzaile baino gehiagok osatutako sare birtual horren zerbitzurako erreferentzia fisiko gisa. Gizarte-sarearen ezarpena bermatzeko funtsezkoa da Guadalinfo zentroetatik egindako lana. Sarbide libreko esparru publikoak dira, eta haien ahalgoin gehienak herritarren arteko proiektuak eta ekimenak sortzera bideratzen dituzte, haiek elkarri lotuz eta bizi diren tokia aldatu eta hobetzeko ahalmena bultzatuz. Guadalinfo 20.000 biztanle baino gutxiagoko udalengan bizi diren Andaluziako herritar guztien gizarte ahalduntzearen alde egiten du. Bestalde, Guadalinfo sareak arreta berezia jarri die desabantailan –langabezia, bazterketa arriskuan, etab.– abiatzen diren gizarte sektoreei.</p> <p><b>GUADALINFO, GIZARTE BERRIKUNTZA ESPARRU BERRIA</b></p> <p>Guadalinfo proiektuak bere gizarte berrikuntza, prestakuntza eta enplegu kontzeptu berria eraginkortasunez hedatzen lan egiten du. Kontzeptu hori hasieran, duela bost urte abiarazi zenean, izan zuenetik harago doa, zentroetako alfabetatze digitalari begirako lehen etapa gainditu ondoren. Guadalinfo tokiko balio eta balio digital handiko esparrua da, eta ekonomia eta gizarte garapen iraunkorra bultzatzen du, haren gakoak berrikuntza, talentua, giza kapitalaren balioa, kultura teknologikoa, ezagutzaren gizarte integrazioa eta gizarte global berriarekiko lotura eta irekitzean daudelarik. Udalerriek Guadalinfo sarean duten toki sendoa dela-eta, funtsezko tresna da herritarren lidergo berriak identifikatu, antzeman eta pizteko, baita radar ezin hobea berrikuntza prozesuak monitortzeko. Guadalinfo proiektua sareko gizarte berriak lurraldean duen presentzia eta ahalean oinarritzen da, eta haren helburua herritar guztien garapena da, andaluziar guztien ongizatea, bizi kalitatea eta berritzeko gaitasuna sustatzeko, informazioaren eta komunikazioaren teknologiak erabiliz.</p>	

(53. taula)

**BBPP\_Andalucía Compromiso Digital**

ANDALUCÍA COMPROMISO DIGITAL	
<b>ERAKUNDEA</b>	Proiektua Andaluziako Juntako Ekonomia, Berrikuntza eta Zientzia Sailak bultzatzen du, 16 enpresa babesleren eta 161 erakunde laguntzailearen laguntzarekin, 2008an sortu zen eta gaur egun 2.000 boluntariok osatutako sarea dauka, Andaluziako geografia osoan banatuta, eta 134.000 lagun egite digital baino gehiago egin dute. "Andalucía Compromiso Digital"ek, "jardunbide egoki"ko proiektu gisa, Venezian (Italia), <i>People</i> Europako lurralde lankidetzaren proiektuaren baitan, antolatutako <i>Gizarte zibilaren gizarte berrikuntzarako ahalduntzea</i> Nazioarteko Biltzarrean parte hartu du, bertan Andaluziako Junta aitzindaria delarik. Biltzar horretan, "mobilizazio digitaleko" proiektu horren sendotzea eta iraunkortasuna azpimarratu dira. Izan ere, proiektuak "pertsonak teknologikoki sentsibilizatu, elkarrekin sarean parte hartu eta hura modernizatu eta enpresak engaiatu ditu"
<b>EREMUA</b>	Publikoa
<b>PROIEKTUAREN WEBGUNEAK</b>	<a href="https://www.andaluciacompromisodigital.org/">https://www.andaluciacompromisodigital.org/</a>
<b>BESTE LOTURA BATZUK</b>	<a href="https://www.andaluciacompromisodigital.org/blog/">https://www.andaluciacompromisodigital.org/blog/</a> <a href="http://www.facebook.com/andaluciacompromisodigital">http://www.facebook.com/andaluciacompromisodigital</a> <a href="http://twitter.com/#!/AndaluciaComDig">http://twitter.com/#!/AndaluciaComDig</a> <a href="http://www.flickr.com/groups/andaluciacompromisodigital/">http://www.flickr.com/groups/andaluciacompromisodigital/</a> <a href="http://www.youtube.com/user/andaluciacompromisod">http://www.youtube.com/user/andaluciacompromisod</a>
<b>PROIEKTUAREN LABURPENA</b>	
<p><b>Andalucía Compromiso Digital (ACD) boluntarioen</b> ekimena da, Andaluziako Juntako Ekonomia, Berrikuntza eta Zientzia Sailak (CEIC) sustatzen du eta <b>informazioaren eta komunikazioaren teknologiak (IKT) Andaluziako gizarte osoari hurbildu</b> nahi dizkio.</p> <p>Engaiatutako eragile guztien (boluntarioak, babesleak, laguntzaileak eta erakunde laguntzaileak) lankidetzara eskuzabalari esker ACDk etengabe eguneratzen den zerbitzu zorrotza jarri ditu eskura, informazioaren gizartearen eskuragarritasun maila handiagoak lortzeko, IKTen erabilera gero eta aurreratuagoa eginez, ingurune seguruagoetan.</p> <p>ACDk hainbat jarduerak egiten ditu andaluziarrek IKTen erabileran dituzten premiak betetzeko, eta honakoak biltzen dituzte:</p> <ul style="list-style-type: none"> <li>• <b>Lagun egite digitaleko</b> zerbitzua, oraindik teknologia berriek euren eguneroko bizimodua nola erraz dezaketen ezagutu ez dutenei zuzenduta, ikasi nahi duten guztia irakatsiz.</li> <li>• IKTen erabilerari buruzko <b>prestakuntza eskaintza</b> osoa, bai aurrez aurrekoa, bai <i>online</i>, gai zehatzetako ikastaroak eginez, mailarik oinarritukoentatik aurreratuenerara.</li> <li>• <b>IKT aholkularitza</b> zerbitzua; zerbitzu hori Andaluziako elkarrekin sarearen eta herritar guztien eskura jarri du ACDk.</li> <li>• Sentsibilizazio ekintzak, teknologia berrien erabilerari lotutako hainbat gairi buruzko informazio jardunaldiak, eta haien artean "Babesteko hezi" jardunaldiak, haien erabilerari seguru eta arduratsuari buruzko berriarazo jardunaldiak.</li> </ul>	

(54. taula)

**BBPP\_Guadalinfo Reto UNICEF**

GUADALINFO CON EL RETO UNICEF	
<b>ERAKUNDEA</b>	Afrikako adarrean 13 milioi pertsona baino gehiago ari dira gosete ikaragarria jasaten. Enpresak, hedabideak, erakunde publiko eta pribatuak, unibertsitateak, eskolak, udalerrriak, artistak, kirolariak, zu eta ni. GUTAKO BAKOITZA BATU DA-KIOKE ERRONKARI. Informatuz, informazioa hedatuz, mezu elektroniko baten bidez, gizarte-sareen bidez, edo UNICEF haur-desnutrizioaren aurka egiten ari den esfortzuei laguntza ekonomikoa emanez. Guadalinfo sarea (Andaluzia) erronka horri batu zaio, dohaintzak eskuratuz eta erronka eta haren helburuak ezagutaraziz
<b>EREMUA</b>	Publikoa/gizartekoa
<b>PROIEKTUAREN WEBGUNEAK</b>	<a href="http://www.retounicef.es/">http://www.retounicef.es/</a>
<b>BESTE LOTURA BATZUK</b>	<a href="http://twitter.com/#!/RetoUnicef">http://twitter.com/#!/RetoUnicef</a> <a href="http://www.facebook.com/retounicef">http://www.facebook.com/retounicef</a> <a href="http://www.youtube.com/user/unicefESP">http://www.youtube.com/user/unicefESP</a>

**PROIEKTUAREN LABURPENA**

UNICEFek Guadalinfo jarri du bere konfiantza **Etiopiako haur-desnutrizioaren aurkako erronka** arrakastatsu bihurtzeko. Guadalinfo zentroetako dinamizatzaile sarearen eta **Reto UNICEF con Guadalinfo webgunearen** bidez, Andaluzia osoa ari da ezagutzen biziak salbatzen dituzten zenbakiak daudela. 28028 zenbakira UNICEFG hitzarekin bidalitako sms batek haur bat egun oso batez elikatzeko balio duten elikadura terapeutikodun hiru kartazal dakartza.

UNICEFek erronkaren **agintzaileak** deritzen dinamizatzaileen laguntzaz, herri andaluziarra herri solidarioa, Afrikako adarreko 600.000 haur baino gehiagoren hil ala biziko egoerarekiko sentibera dela erakutsi ahal du. Haren biziak arrisku bizian daude eta gure esku dago haiek aukera bat izatea. Helburu horri jarraituz, Guadalinfo sare osoak ekin dio lanari. Joan den asteburuan **UNICEF Guadalinfo Erronkaren Karpa Solidarioak** hamar herriko ibilbideari ekin zion, Andaluziako probintzia guztietara elkartasun mezua eramateko.

(55. taula)

**BBPP\_Omnia**

OMNIA PROIEKTUA	
<b>ERAKUNDEA</b>	Omnia informazioaren eta komunikazioaren teknologietarako (IKT) programa berritzaile gisa sortu zen, IKTak baliabide gisa ulertuta, eta ez helburu gisa. Programak pertsonen autonomiaren eta komunitatearen dinamizazioaren alde egiten du
<b>EREMUA</b>	Publikoa
<b>PROIEKTUAREN WEBGUNEAK</b>	<a href="http://cort.as/1MG8">http://cort.as/1MG8</a>

**PROIEKTUAREN LABURPENA**

Omnia sareak tresna eta banakako eta taldeko helburuak lortzeko bide darabiltza IKTak: prestakuntzaren hobekuntza, enplegarritasun tresnak ezagutzea, integrazioa, aisia, etab. Omniaren esparruan IKTak ez dira berez helburua.

Omnia erabilera publiko eta komunitarioko hardware eta software informatikoa dauzkaten esparruak edota ekipamenduak eskaintzen ditu, esparrua dinamizatu eta pertsonen laguntzen dien profesional baten laguntzaz. Dinamizatzailea funtsezkoa da programa lurralde bakoitzean garatzeko eta Omnia guneak gizartekoitzeko, abegirako, harremanetarako, prestakuntzako, informazioko eta komunitatearen parte hartzeko esparruak izan daitezten.

Omnia programak diskriminazio positiboaren eta aukera berdintasunaren alde egiten du, IKTak eskuratzeko zailtasunak dituzten pertsonen dagokienez, baina herritar guztiak baztertu gabe. Planteamendu horren bidez, talde jakin batzuen estigmatizazioari eta bereizkeriari ihes egin eta esku-hartzea gizarteratzerantz eta bizikidetzarantz bideratu nahi da.

Urte hauetan baliabide eta jarduera sorta handia sortu eta sare osoaren eskura jarri da, eta garapenean diharduten eragile guztiek asko ikasi dute, programa ezagutarazi da eta Kataluniako lurraldean ezarpen zabala izan du.

Esparru honetatik banakako eta taldeko ikasketa premiei antzeman eta ezagutza partekatua eskuratzeko bultzatzen da. Darabilen esku-hartzeko hezkuntza ereduak gizartekoitzea eta gizarteratzea sustatzen ditu, eta balio demokratiko, solidario eta parte-hartzaileak zabaltzen ditu.

Omnia informazioaren eta komunikazioaren teknologietarako (IKT) programa berritzaile gisa sortu zen, IKTak baliabide gisa ulertuta, eta ez helburu gisa. Programak pertsonen autonomiaren eta komunitatearen dinamizazioaren alde egiten du. Teknologia berrien erabilera hezi behar da, informazioa prozesatzen, hautatzen jakiten eta haren kalitatea baloratzen irakatsi behar da. Halaber, prebentzio programa da, Internet eta teknologia berriak mundu mailan ezartzen direnerako eta, beraz, herritarrek informazioaren gizartean sartzea errazten du Omnia, gizarte-egoera ahuleko taldeetan beste gizarte haustura mota bat, eten digitala, ez eragiteko.

Alderdi azpimarragarriak:

- Gizarte programa da, prebentziokoa eta gizarte eta hezkuntzako.
- Gizarte kohesioaren alde egiten du.
- IKTak gizarteratzeko bide gisa, eta ez azken helburu gisa.
- Omnia guneak: zentro gizartekoiak.
- Defizit sozioekonomikoa duten lurraldeetako ekintza zibiko eta komunitarioari lotutako esparruetan kokatzen dira.
- Doako zerbitzua da.
- Haietako asko lurraldean oso engaiatutako irabazi asmorik gabeko erakundeek kudeatzen dituzte.
- Erabiltzaileak prestakuntza, ekonomia, kultura... desabantailak dituzten pertsonak dira.
- Haiek guztiak daukate dinamizatzailea.
- Baliabideak eta prestakuntza pertsonen egokitzeko zaizkie.

(56. taula)

**BBPP\_CDTL Asturiasen Ekintza Plana**

CDTL ASTURIASEN EKINTZA PLANA	
<b>ERAKUNDEA</b>	CTIC Fundazioak ( <a href="http://www.fundacionctic.org">http://www.fundacionctic.org</a> ) garatu du, bulego tekniko gisa, Asturiaseko Zerbitzu Teknologikoen Partzuergoarentzat (CAST) ( <a href="http://www.i-cast.es">http://www.i-cast.es</a> ), CASTek burutzen duen jarduerarentzako laguntza eta aholkularitza zerbitzuaren esparruan
<b>EREMUA</b>	Publikoa
<b>BESTE LOTURA BATZUK</b>	<a href="http://www.i-cast.es/web/cast/detalle-caso-exito/-/journal_content/56_INSTANCE_wG57/62443/63711">http://www.i-cast.es/web/cast/detalle-caso-exito/-/journal_content/56_INSTANCE_wG57/62443/63711</a>
PROIEKTUAREN LABURPENA	
<p>CDTLen (tokiko teknologia dinamizatze zentroak) ekintza plana CASTek atxikitako udalei egiten dien ekintza proposamenaren definizioan, betearaztean, jarraipenean eta ebaluazioan datza.</p> <p>Zentro horien dinamizazio estrategiarekin lerrokatuta garatutako plana da (bere estrategia ildoak eta zerbitzuak barne). Toki erakundeek kudeatutako zentroen koordinazio eta homogeneizazioz ere duela proposamena (haien aniztasuna alde batera utzi gabe), CDTLen erabiltzaile taldeen eta, hedaduraz, haien lurraldeen umotze digital maila areagotzeki begira.</p> <p>Lan metodologia CDTLen borondatezko partaidetza datza, eta ezartzen duen lan sekuntzian honakoak egiten dira:</p> <p>Teknikariak eta erabiltzaileak sumatutako premiak aztertzen dira.</p> <ul style="list-style-type: none"> <li>Hastapeneko jardura proposamena egiten da.</li> <li>CDTLko teknikariak hura burutzeko gaitzen dira.</li> <li>Azken erabiltzaileekin ekintzak ezartzen dituzte zuzenean, bai bulego teknikoak berak bai CDTLko langileek, eta azken horiek aholkularitza eta laguntza jasotzen dute hura burutu bitartean.</li> <li>Ekintzak osotasunean ebaluatzen dira.</li> <li>Web 2.0 tresnen bidez ekintza eta partaide guztiak bistaratzen dira.</li> </ul> <p>Informazioaren gizarteko digitalizatzeari, partaidetzari eta gizarte berrikuntzari lotutako CDTLen eta haren erabiltzaile taldeen –lurralde eragileak, enpresak, herritarrak eta udalbatza bera barne– ekintza berritzailei heldu zaie bertan. Egindako ekintzak honakoei daude lotuta:</p> <ul style="list-style-type: none"> <li>CDTLko langileen arteko lankidetzeta eta ezagutzaren partekatze tresnak abiaraztea, zaintza eta informazioaren hedapen tresna gisa, sinergiak ezartzea eta lanak lankidetzan garatzea.</li> <li>Herritarrek informazioaren gizartean parte hartzea eta engaiatzea sustatzea eta bultzatzea.</li> <li>Erabiltzaileek edukiak sortzea sustatzea.</li> <li>Adingabeengan eta helduegan teknologia sormena, gaitasuna eta berrikuntza piztea.</li> <li>Pertsona guztiak kultura digitalean edota digitalizatuan sartzea sustatzea.</li> <li>Zerbitzu eta izapide publikoak sustatzea.</li> <li>Mikroenpresek, enpresa txikiek eta ertainek sarean duten tokia handitzea.</li> </ul> <p>Arreta eremuaren arabera, burututako ekintzak honela bereiz daitezke:</p> <ul style="list-style-type: none"> <li>CDTLen barne kudeaketari, haien gaikuntzari, baliabideak hornitzeari eta haien sustapenari lotutako ekintzak.</li> <li>CDTLen erabiltzaile taldeei zuzendutako 13 ekintza: Aurten, birtualki zoriondu! lehiaketan (sormenari eta gaitasun digitala lortzeki lotuta) emandako 4.000 boto elektronikoko bano gehiago; CDTLen zerbitzuak hedatzeko erabiltzaileek zenbait formatu digitaletan egindako 16 proposamen, 92 lagunek parte hartuta, 68 adingabek sormen eta berrikuntza teknologikoko jardueretan, 73 partaide kultura digitalaren sustapen eta eskuragarritasun ekintzetan; etab.</li> </ul>	

(57. taula)

**BBPP\_Red Conecta**

RED CONECTA	
<b>ERAKUNDEA</b>	Fundación Esplai
<b>EREMUA</b>	Pribatua/publikoa/gizartekoa
<b>PROIEKTUAREN WEBGUNEA</b>	<a href="http://www.redconecta.net/">http://www.redconecta.net/</a>
<b>BESTE LOTURA BATZUK</b>	<a href="http://www.fundacionesplai.org/">http://www.fundacionesplai.org/</a>
PROIEKTUAREN LABURPENA	
<p><b>Red Conecta</b> gobernu kanpoko erakunde (GKE) sare batek partekatutako gizarte proiektu bat da. Pertsona guztien gizarteratzea sustatu nahi du, teknologia berriak tresna gisa erabilia. 10 urte bete berri du eta Estatu osoko gizarte erakundeek lotutako herritarren ekimeneko sare barra da. Teknologia zailtasunik handienak dituzten pertsonen hurbildu xedez sortu zen, gizarteratzearen alde lan egiteko. Materialak sortu dira talde berezientzat: emakumeentzat, gazteentzat, adinekoentzat, etorkinentzat, langabetuentzat eta ezgaituentzat. 380.000 lagun baino gehiago prestatu dira, prestakuntza metodologia propioa erabilia, eta handik 4.200 dinamizatzaile baino gehiago igaro dira.</p> <p>Europar proiektuak IKTeKin. 10 urteotan lortutako ezagutzari esker Europako 3 proiektutan izan gara buru: Leonardo, Europar dinamizatzailearen CVA estandarizatze; Grundtvig, enplagarritasunaren maleta sortzeko eta herritar guztiek eskuratu ahal izan dezaten; KA3, bertan Conecta Joven gure proiektua partzuergoko gainerako kideen ekarpenekin partekatu eta hobetu dugu. Beste 3 proiekturen garapenean ere parte hartu ahal izan dugu: Grundtvig partzuergoan parte hartu dugu, Europako espesheetako prestakuntza plana prestatzeko; jardunbide egokien transferentzia Serbian; eta emakumeentzako <i>teleworking</i> bat, hori dena azken urte bietan.</p> <p>Red.es landa ingurunea. Esplai Fundazioak sare hori koordinatu du urte biz, teknologia landa ingurunera hurbilduz.</p> <p>Web 2.0 ingurunea ezgaituentzat. Avanza Planetan parte hartuta, emakumeentzako eta baztertuentzako berariazko materialak sortu ahal izan ditu. Egun web 2.0 ingurune bat sortu du adimen ezgaitasun arina duten pertsonak esparru mota horietan era kontrolatuan baneratu ahal daitezkeen eta harreman seguruak izaten ikas dezaten.</p> <p>IKT prestakuntza espesheetan. Gaztela eta Leongo Juntaren Avanza plan bat ere garatu dute: Tecleando Futuro, teknologiko prestakuntza espesheetara eramateko.</p>	

(58. taula)

**BBPP\_Geocaching****GEOCACHING - TOKIKO GARAPENA IKT-EN BIDEZ BULTZATZEKO ESPERIENTZIA BAT**

<b>ERAKUNDEA</b>	Interneten Nazioarteko Egurenaren ospakizunaren kariatara, Asturiasko Printzerriko Gobernuak eta CTIC Sociedad de la Información Fundazioak jarduera berezia abiarazi zuten. Haren bidez, teknologia eta jolasa batuz, 500 lagun mobilizatu ziren joan den maiatzaren 16an. <i>Geocaching</i> (Wikipedian honela definitu da: GPSren laguntzaz "altxorrak" edonon ezkatatu eta aurkitzeko jarduera/kirola) jarduera bat izan zen. Hari esker, teknologia hori inoiz erabili ez zuten pertsonak hura ezagutu, nola dabilen jakin eta hura euren eguneroko esperientzian nola erabili aurkitu ahal izan zuten. Hala, talde antolatuen bidez (ekimenean parte hartu zuten 25 erakundeetako –telezentroak, udalak, elkarteak, mendi-taldeak eta landa garapeneko taldeak– teknikariek gidatuta), taldeak zenbait herritatik abiatu ziren, lehenago ezkatutako altxorren bila
<b>EREMUA</b>	Publikoa
<b>PROIEKTUAREN WEBGUNEA</b>	<a href="http://www.geocaching.com">http://www.geocaching.com</a> Zenbait adibide: <a href="http://cort.as/1Luh">http://cort.as/1Luh</a> (Oviedo Altxorren bidea); <a href="http://cort.as/1Lui">http://cort.as/1Lui</a> (Cadavedo - Valdés-eko Altxorren bidea); <a href="http://cort.as/1Luk">http://cort.as/1Luk</a> (Cangas - Cangas del Narcea-ko Ardoaren bidea) Bideetarako loturak Wherigotik: <a href="http://cort.as/0Wiz">http://cort.as/0Wiz</a>
<b>BESTE LOTURA BATZUK</b>	Jardueraren filosofia eta motibazioari buruz: <a href="http://www.youtube.com/watch?v=N_ecG46M8Bs&amp;feature=youtuve_gdata">http://www.youtube.com/watch?v=N_ecG46M8Bs&amp;feature=youtuve_gdata</a> Proiektuaren argazki albuma: <a href="http://cort.as/0Wiw">http://cort.as/0Wiw</a>

**PROIEKTUAREN LABURPENA**

Oinarritzko ideia altxor edo kaxe bat GPS koordenatuen bidez kokatzea da. Koordenatu horiek mundu mailako erreferentziako orrian –[www.geocaching.com](http://www.geocaching.com)– erregistratzen dira. Haren bidez Asturiasko Printzerriko Altxorren Sarea osatzen duen bide bakoitzaren deskribapena ikus daiteke, eta haren ibilbidea eta ezkatzen duen altxorreraino iritsi ahal izateko arrastoak (geokokatuta) ezagut daitezke. Funtsezkoena, ordea, ez da altxorra bera, ibilitako inguruneak eskaintzen duen aberastasuna baizik. *Geocaching*-a gizarte sare gisa ere badabil. Bideetan parte hartzen duten pertsonak euren esperientzian eta argazkien berri eman eta partekatzen dituzte, bazter ikusgarrietako sekreturik ezkutuenak partekatzen dituzte, eta hala beste pertsona batzuk bultzatzen dituzte haietan parte hartzera. Hala, Altxorren Sarea aukera bikaina da eskualde partaideetako toki garapeneko erakundeek eta turismo enpresek hango natura, kultura eta historia aberastasunak susta ditzaten hala.

Bide horiek osatzeko GPS edo telefono mugikorretzako Wherigo aplikazio bat dago. Izen beraren pean –"Tesoro de Asturias"–, bideo joko formatuan, 25 bideren sarea jasotzen du, eta zure egiazko kokapenaren arabera haietara iristea ahalbidetzen du, 20 kilometroko erradioan. Wherigok Interneteko plataforma bat ere badauka, <http://www.wherigo.com>, bertan aplikazioa jaitzi eta zure esperientzia beste pertsona batzuekin partekatzeko.

**TALDEEKIKO ESKU-HARTZEA**

(59. taula)

**BBPP\_eMadrid****eMADRID**

<b>ERAKUNDEA</b>	eMadrid honela definitzen da: taldeen arteko zubi teknologiko eta solidarioa. Ahalduzko digitaleko ekimena da eta Internet erabiltzen eta baliatzen lagundu nahi dio talde bakoitzari. Taldeekiko lanean oinarritutako eta haien premia eta ezauzgarri egokitutako alfabetatze digitalaren alde egiten da bertan. Proiektu honen gakoak taldeen arteko egokitzapena, malgutasuna, elkartasuna eta komunikazioa dira
<b>EREMUA</b>	Publikoa
<b>PROIEKTUAREN WEBGUNEA</b>	<a href="http://www.emadrid2011.es/">http://www.emadrid2011.es/</a>
<b>BESTE LOTURA BATZUK</b>	<a href="http://twitter.com/#/emadrid2011">http://twitter.com/#/emadrid2011</a>

**PROIEKTUAREN LABURPENA**

Gure esku-hartzea **ikerketan etnografiko batean** oinarritzen da; haren bidez, testuinguru ezagutu, premiak aurkitu, gure esku-hartzearen bilakaera aztertu eta behar diren aldaketak aplikatzen ditugu. Asmoa elkarrekin ikastea eta, bidenabar, taldeek Internet baliatu nahi dutenean aurkitzen dituzten oztoko nagusiak ulertzea da. Aldi berean ikertu eta inklusio digitala errazten dugu: oztokoak eta haiek gainditzeko modua aztertzen ditugu, etorkizunean, pilotutako esperientzia baliatu nahi duten taldeek egin ahal dezaten.

Zeinek bere ezauzgarriak, premiak eta idiosinkrasia dauzkan hainbat taldeekin lan egiten ari gara: boluntario elkarteak, ezgaituen elkarteak, Interneti beldurra galdu eta probetxu guztia atera nahi dioten adinekoen taldeak... Interneten abantailak eskuratzea errazten dugu, haien esparruetan bertan, familia giro erosoan egindako saioen bidez. Eta mundu guztiari berdin aplikatzeko diseinatutako prestakuntza estandar eta aurrefabrikatuari ihes egiten diogu.

**eMadrid** proiektuak **Proyecto Autodidactarekin** batera lan egiten du, gizarte-egoera ahuleko taldeei komunikazio eta lankidetzako zenbait web tresna eskuratzen laguntzeko. Autodidakta web esparru bat da, eta ezagutza informatikoak komikiaren bidez irakasten dihardu. Formatu horretan zenbait informatika tresna eta zerbitzuren erabilerrari buruzko gidaliburuak eta tutoretza liburu partekatzen dituzte. Bertan, ariketak, trikimailuak, prozedurak, programa... azaltzen dira, zure ordenagailuari ahalik eta errendimendurik handiena ateratzen ikas dezazun.

(60. taula)

**BBPP\_Mayores con Iniciativa**

MAYORES CON INICIATIVA	
ERAKUNDEA	Mayores con Iniciativa nazio mailako proiektua da eta <a href="#">Fundetec</a> du aitzindari. Informazioaren eta komunikazioaren teknologiak (IKT) adineko pertsonen helarazteko xedez sortu zen, informazioaren gizartean eginkizun aktiboa bete dezaten. Proiektua garatzeko adinekoen egoitza eta laguntza zentroek, telezentroek eta Internetarako sarbide publikoko zentroek, elkarteek eta talde horri laguntzeko erakunde mota orok ere parte hartzen dute
EREMUA	Publikoa/gizartekoa
PROIEKTUAREN WEBGUNEA	<a href="http://www.mayoresconiniciativa.es/">http://www.mayoresconiniciativa.es/</a>
BESTE LOTURA BATZUK	<a href="http://www.facebook.com/MayoresconIniciativa">http://www.facebook.com/MayoresconIniciativa</a> <a href="https://twitter.com/#!/mconiniciativa">https://twitter.com/#!/mconiniciativa</a>
<b>PROIEKTUAREN LABURPENA</b>	
<p>Proiektu hau abiarazteko oinarritzko 3 zutabeak honakoak dira:</p> <ul style="list-style-type: none"> <li>• <b>Aholkularitza eta metodologiaren transferentzia ekimen bereziak abiarazteko:</b> zenbait gairi buruzko eta zenbait helburu duten ekintza berritzaileak, xede bera izanda: adinekoek IKTen ikuspuntutik dauzkaten berriarazko premiak eta interesak identifikatzea, eta haien banakako trebetasunak eta gaitasunak garatzea sustatzen duten jarduerak abiaraztea, haien gizarteratzea eta integrazio teknologikoa errazteko.</li> <li>• <b>Ekimen lehiaketa:</b> adinekoek burututako lana bistaratu xedez –eurak baitira abiatutako ekimenen protagonistak–, haien denak berezian hautatuko dituen 'Concurso Mayores con Iniciativa' lehiaketan parte hartuko dute. Lehen fasean autonomia erkidego bakoitzeko hiru ekimenen onenak hautatuko dira, eta lehen sari banaketa egingo da. Haien denak lehiaketaren bigarren fasean parte hartuko dute, eta handik nazio mailako proiektu irabazlea aterako da.</li> <li>• <b>Gizarte-sare bat sortzea:</b> esparru horretan adinekoek eta erlaziozuzenak gizarte eragileek informazioa, ideiak, iritziak eta esperientziak elkartrukatu ahaliko dituzte, eta hala proiektuan parte hartzen duten pertsona guztientzako aberastasun iturria izango da.</li> </ul>	

(61. taula)

**BBPP\_Cuidadoras en Red**

CUIDADORAS EN RED	
ERAKUNDEA	Cuidadoras en Red 2009ko azaroaren 22an sortu zen, <a href="#">Instituto de Innovación para el Bienestar Ciudadano (I2BC)</a> erakundeak sustatuta, Malagako Unibertsitateko Erizaintza Sailarekin batera, pertsona zaintzaileentzako laguntza soziosanitarioko sare gisa
EREMUA	Publikoa
PROIEKTUAREN WEBGUNEA	<a href="http://www.slideshare.net/rmartin2009/proyecto-cuidadoras-en-red">http://www.slideshare.net/rmartin2009/proyecto-cuidadoras-en-red</a>
BESTE LOTURA BATZUK	<a href="http://www.i2bc.es/">http://www.i2bc.es/</a>
<b>PROIEKTUAREN LABURPENA</b>	
<p>"Cuidadoras en Red" software askeko web 2.0 berrikuntza teknologikoko proiektua da. Haren xede nagusia etxe eremuko zaintzaile ez profesionalen bizi kalitatea hobetzea eta ezagutzaren gizartean hobeto integratzea da.</p> <p>Familia zaintzaileak eta adinekoen eta mendeko pertsonen zaintzan laguntzen lan egiten duten pertsonak emakumeak dira eta, beraz, genero gramatikalki femeninoa darabilgu haien buruz hitz egiteko, haien sexua gorabehera. Pertsona horiek ez dute zaintzako prestakuntzarik, eta egiten duten lan gogorrek gizarte osoaren eta, bereziki, zerbitzu publiko soziosanitarioen eta senideen laguntza merezi du. Andaluzian, Andaluziako Familiei Laguntzeko Dekretua onartu zenetik (2002ko 52. BOJA), Andaluziako Osasun Zerbitzuko oinarritzko arretako oinarritzko taldeek egiten duten zaintzarako prestakuntza ematen diete familia zaintzaileei, "Cuidarse para Cuidar" tailerraren bidez, oinarritzko osasun eskualde bakoitzeko komunitateko edo loturako erizainak koordinatuta. Tailer horiek oso eraginkorrak dira zaintzaileentzat, prestakuntzako eta euren arteko eta oinarritzko arretako erizainekiko laguntzako esparru gisa. Hala, web 2.0k komunikazio eta laguntza tresna gisa ematen dituen aukerak ikusita, uste dugu zaintzaile ez profesionalak (senideak/lagunak edo soldatapeko pertsonak) hura baliatu dezaketela, bai egiten dituzten zaintzak emateko bai euren buruz zaintzeko, bai Interneten bidez informazioa eta ezagutza eskuratzeak ematen duen ahalduztereari esker.</p>	

(62. taula)

### BBPP\_Connectiem Proiektua

CONNECTIEM PROIEKTUA	
<b>ERAKUNDEA</b>	Ikerketa talde bat da, eta Europar Batasuneko etorkin komunitateek euren eguneroko bizimoduan informazioaren eta komunikazioaren teknologiak nola darabiltzaten hobeto ulertzeko eskala handian egindako lehen inkestan lan egiten dute
<b>EREMUA</b>	Publikoa
<b>PROIEKTUAREN WEBGUNEA</b>	<a href="http://www.15minutescloser.org/index_spa.html">http://www.15minutescloser.org/index_spa.html</a>
<b>BESTE LOTURA BATZUK</b>	<a href="http://www.uoc.edu/portal/castellano/sala-de-prensa/actualitat/noticies/2011/noticia_155/noticia_155.html">http://www.uoc.edu/portal/castellano/sala-de-prensa/actualitat/noticies/2011/noticia_155/noticia_155.html</a>
<b>PROIEKTUAREN LABURPENA</b>	
<p>Ikerketa proiektu hau Europako Batzordeak finantzatzen du, eta etorkin komunitateen artean online inkesta bat egiten ari da, Internetek eta telefono mugikorrek euren bizi kalitatea hobetzen nola laguntzen duten jakin xedez. Helburua Europako 8 herrialdeetan 5.400 lagunengana iristea da. Horretarako, Interneten bidez ere garatu dute: <a href="https://www.uwsrd.org/mrWeb/mrWeb.dll?l.Project=CONNECTIEMSURVEY&amp;i.User1=ES">https://www.uwsrd.org/mrWeb/mrWeb.dll?l.Project=CONNECTIEMSURVEY&amp;i.User1=ES</a>.</p> <p>Inkesta Bartzelonako Unibertsitat Oberta de Catalunya-ko (UOC) Internet Interdisciplinary Institute-ren (IN3) eta Washingtingo Unibertsitateko (AEB) Teknologia eta Gizarte Aldaketa Taldearen (Tascha) ikerketa proiektu baten parte da, eta ikerketa egiten ari den zortzi herrietako –Austria, Txekiar Errepublika, Irlanda, Italia, Letonia, Herbehereak eta Erresuma Batua, espainiar Estatuaz gain– tokiko taldeekin batera egiten ari da.</p> <p>Ikerketa Europako Batzordeak Ikerkuntza Zentro Komun - Prospektiba Teknologikoaren Erakundeari (JRC-IPTS) eta Informazioaren Gizartearen eta Komunikabideen Zuzendaritza Nagusiar (DG INFSD) egindako mandatuak da, IKTen erabileran bermatutako integrazio politikak diseinatzeko eta gizarte segmentu guztietako bazterketa digitalaren aurka borrokatzeko bere esfortzuen baitan.</p> <p>Ekimenak Katalunia eta espainiar Estatuak beste toki batzuetako erakunde batzuen laguntza dauka. Haien artean, Kataluniako Immigrazioaren Zuzendaritza, kontsulatuak eta enbaxadak, eta beste erakunde batzuk daude, hala nola Bartzelonako Liburutegiak, Ravalnet, Mithra elkarteak, Andalucía Acoge, Espainiako Gurutze Gorria, Migrar Fundazioa eta azterlana zabaltzen laguntzen duten beste erakunde batzuk.</p> <p>Inkesta Interneten bidez egiten da, <a href="http://www.15minutescloser.org">http://www.15minutescloser.org</a> webgunean, eta anonimotasun osoa bermatzen du. Inkestan parte hartzea sustatzeko, erantzuten dioten pertsonen telefono finko eta mugikorretarako doan deitzeko bost minutu eskuratu ahalko dute.</p>	

(63. taula)

### BBPP\_Ciudad para Todos

CIUDAD PARA TODOS	
<b>ERAKUNDEA</b>	Instituto de Innovación para el Bienestar Ciudadano-k sustatzen du, eta haren helburua pertsonen bizi kalitatea eta ongizatea hobetzea da. Horretarako, gizarte proiektuak garatzen ditu, PLI (People Lead Innovation) metodologian oinarrituta
<b>EREMUA</b>	Publikoa
<b>PROIEKTUAREN WEBGUNEA</b>	<a href="http://www.i2bc.es/10-ciudad-para-todos.htm">http://www.i2bc.es/10-ciudad-para-todos.htm</a>
<b>PROIEKTUAREN LABURPENA</b>	
<p>Haren helburu nagusia erabateko irisgarritasuna sustatzea da, azken teknologien bidez oztopoak identifikatu. Ciudad para Todos proiektuak ekimen zehatzak ezarri eta indartu nahi ditu, habitatu inklusiboak lortzeko bideak, bertan pertsona guztiak izan dezaten euren bizi proiektuak garatzeko aukera, ingurunean ezarritako muga edo oztopoak aurre egin beharrik gabe. Zentzu horretan, irisgarritasuna deritzon proiektua abiarazi da. Haren bidez irisgarritasunerako oztopoak identifikatu eta dinamikoki erregistratu nahi dira, kokapen mapetan. Azken helburua pertsona guztientzat irisgarriak diren hiri bideak diseinatzea eta kudeatzea da. Horretarako berrikuntza teknologikoa darabil, irisgarritasunerako oztopoak bildu, laburtu eta erregistratzeko tresna gisa pentsatuta. Telefonian mugikorrekotako gailuak erabiltzen dira, oztopoaren argazkiak lortu eta GPS koordenatuen bidez fisikoki kokatu ahal izateko.</p>	

(64. taula)

### BBPP\_Pertsona nagusientzako jolas-teknologiak

PERTSONA NAGUSIENTZAKO JOLAS TEKNOLOGIAK	
<b>ERAKUNDEA</b>	CTIC Sociedad de la Información Fundazioak e-Asturias 2012 Estrategiaren esparruan garatutako proiektua
<b>EREMUA</b>	Publikoa
<b>PROIEKTUAREN WEBGUNEA</b>	<a href="http://einclusion.si.ctic.es/secciones/mayores/">http://einclusion.si.ctic.es/secciones/mayores/</a>
<b>PROIEKTUAREN LABURPENA</b>	
<p>Hedatzeko eta erakusteko solasaldiak egitean datza proiektua. Solasaldi horiek ordu 2koak dira eta kontsolen (Nintendo DS eta Nintendo Wii) eta irakurgailu digitalen (iPad) erabilerak, mugimena eta gaitasun kognitiboak garatzen laguntzen duten heinean, euren bizi kalitatea nola hobeto diezaieketen erakutsi nahi diete pertsona nagusiei.</p> <p>Proiektuan eskualdeko eta tokiko titulartasuneko pertsona nagusientzako gizarte zentroek eta taldeari lotutako beste zentro batzuek (elkartek, egoitzak, eguneko zentroak, CDTL, etab.) parte hartu dute, eta teknologia horiek talde horrentzat izan dezaketean ahalmen handia ikusi dute haiek denek.</p> <p>Proiektuaren bidez honakoak bilatu dira:</p> <ul style="list-style-type: none"> <li>• Pertsona nagusien artean IKTen erabilera sustatzea.</li> <li>• Haien gaitasun kognitiboak eta psikomotorrak teknologiak erabiliz piztea.</li> <li>• Teknologiarene bidez gizarteratzea eta partaidetza aktiboa sustatzea.</li> <li>• Bizi kalitatea eta ezagutza aukerak hobetzea.</li> <li>• Gizarteak pertsona nagusiei buruz duen estereotipoa aldatzea, eten digitala gaintzen lagunduz.</li> </ul>	

(65. taula)

**BBPP\_Nagusia naiz eta nabigatzea gustatzen zait**

NAGUSIA NAIZ ETA NABIGATZEA GUSTATZEN ZAIT	
<b>ERAKUNDEA</b>	Cibervoluntarios Fundazioak garatu du. Gizarte ekintzaileek osatutako irabazi asmorik gabeko erakundea da. Ekin-tzaileek teknologia berrien, komunikazioaren eta boluntarioen mundua maite dute eta teknologia berriak gizarte berrikun-tza indartzeko eta herritarren ahalduntzea errazteko erabili nahian lan egiten dute
<b>EREMUA</b>	Pribatua/publikoa/gizartekoa
<b>PROIEKTUAREN WEBGUNEA</b>	<a href="http://www.cibervoluntarios.org/blog/noticias.php?id=1592">http://www.cibervoluntarios.org/blog/noticias.php?id=1592</a>
<b>BESTE LOTURA BATZUK</b>	<a href="http://www.flickr.com/photos/cibervoluntarios/sets/72157627137061394/">http://www.flickr.com/photos/cibervoluntarios/sets/72157627137061394/</a> <a href="http://www.youtube.com/watch?v=dowEp27HbQs">http://www.youtube.com/watch?v=dowEp27HbQs</a>
<b>PROIEKTUAREN LABURPENA</b>	
<p>Vodafone España Fundazioak, UDPk (Pentsionisten Elkartea Demokratikoa) eta Cibervoluntarios Fundazioak lankidetzara hitzarmena sinatu zuen azaroaren 8an <b>persona nagusientzako tresna teknologikoen erabilerari buruzko prestakuntza tailerrak</b> abiarazteko. Tailerrak pertsona nagusien interes eta premietan oinarritzen dira, eta asmoa haien zuzen eskuragarri egotea eta erabilerari egokia egitea da. Ikastaroak <b>"Nagusia naiz eta nabigatzea gustatzen zait"</b> izenaren pean aurkezten dira, eta egin ziren udaletan harrera oso ona izan zuten aurreko edizioetako esperientzia daukate. Oraingo edizioan 120 pertsona nagusi prestatu nahi dira. Hiru erakundeek Berrocalejo de Aragonan, UDPk Avilan duen probintziako egoitzan, sinatu dute hitzarmena. Ekitaldian Avilako Gobernua azpiordezkari César Martín; Vodafone España Fundazioko zuzendari nagusi Santiago Moreno; UDPko zuzendari kudeatzaile Paca Tricio; eta Cibervoluntarios Fundazioaren presidente Yolanda Rueda bertaratu dira.</p> <p>Programaren baitan 12-15 tailer garatuko dira Espainiako zenbait tokitan. Tokiak adinekoen tokio elkarteekin eta azpiegiturak, hala nola ordenagailuak eta Internetarako konexioa dituzten esparru egokien eskuragarritasunaren arabera zehaztuko dira. Lehen tailerrak Coruña, Avilan, Caceresen, Jaenen eta Errioxan egingo dira. Coruña eta Errioxan hiriburuetan (Coruña eta Logroño) egingo dira; Jaenen, Linaresen egingo da; Caceresen, Alagón del Rión; eta Avilan, Berrocalejo de Aragonan. Programaren diseinuari dagokionez, pertsona nagusiek eurek hautatzen dute zer tailer mota jaso, eskaintako 7 motetatik, euren interes eta premien arabera; izan ere, ikastaroak pertsona nagusiei zuzenduta daude, gizarte egoera ahulenean dauden taldeen zerbitzurako teknologiari lotutako alderdi berrien ezagutza eta informazioa sustatu nahian.</p> <p>UDP arduratuko da pertsona nagusiak deitzeaz, tailerretara joan daitezen, eta Cibervoluntarios Fundazioak tailerrak prestatu eta emateko eta pertsona nagusiak tailerren bidez gaitzeko arduratuko du, ziberboluntarioak prestatu ondoren. Vodafone España Fundazioak ikastaro horietan duen interesa, informazioaren teknologiek ematen dituzten aukeren aurrean, gure adinekoek ematen dieten erabilerari urria ikusita sortu zen. Telefonía mugikorra tresna oso baliotsua da haien egunerokotasunean; izan ere, autonomia eta segurtasuna ematen dizkie, senideek eta lagunek uneoro aurki ditzaketelako. Interneten, ordea, aukeraz betetako mundua eta antzeko pertsonekin elkartzeko topagunea aurkitzen dute, haiekin esperientziak eta interesak partekatzen. Horrek guztiak isolamendu eta bakardade sentipena murrizten du, eta sentipen horiek gertuko etorkizunean gure pertsona nagusien artean handituko den joera dira. Informazio hori Vodafone España Fundazioko zientzia aholkulari Javier del Arcok jasotako datuetatik atera da. Datuak gure adinekoek IKTei ematen dieten erabilerari buruzko behatoki iraunkor batean bildu dira. Madrillgo pertsona nagusiek Interneti eta telefonía mugikorrari ematen dieten erabilerari buruzko ehunekoak eman dituzte datuek. Hala, 56 eta 70 urte arteko adinekoen % 84k telefono mugikorra darabilten bitartean, % 39k baino ez darabilte Internet. 71 eta 80 arteko adin tartean, %60k darabilte mugikorra, baina % 9k baino ez Internet, eta datua are etsipengarriagoa da 80 urtez gorako tartean; izan ere, % 33ek darabilte mugikorra eta % 3k Internet.</p>	

(66. taula)

**BBPP\_Maestr@s de la Memoria Digital**

OROIMEN DIGITALAREN IRAKASLEAK	
<b>ERAKUNDEA</b>	CTIC Sociedad de la Información Fundazioak e-Asturias 2012 Estrategiaren esparruan garatutako proiektua
<b>EREMUA</b>	Publikoa
<b>BESTE LOTURA BATZUK</b>	<a href="http://www.asturias.es/memoriadigital">http://www.asturias.es/memoriadigital</a>
<b>PROIEKTUAREN LABURPENA</b>	
<p>Pertsona nagusientzako aurreko prestakuntza tailerrak, 4 ordukoak. Haietan argazki zaharrak –1975 aurrekoak– digitalizatu, ukituak egin eta <b>"Memoria Digital de Asturias"</b> atarian sartzeko gaitzen dira.</p> <p>Ekintza hau "Memoria Digital de Asturias" argazki erakusketa ibiltariarekiko lankidetzara estuan egin da. Argazki erakusketa hori herritarrek <b>web</b> atariari emandako argazki hautaketa batek osatzen du.</p> <p>Erakusketa udal bakoitzean jarri aurreko egunetan, prestakuntza tailerrak egin ziren eta argazki digitalizatuak erakusketa horretako modulu batean erakutsi ziren, bisitatutako udal bakoitzean.</p> <p>Ekintzan udalek eta CDTLe (tokiko dinamizazio teknologikoko zentroak, telezentroak) ere parte hartu eta lagundu dute.</p> <p>Proiektuaren bidez honakoak bilatu dira:</p> <ul style="list-style-type: none"> <li>• Pertsona nagusien artean IKTei erabilerari hedatzea eta ezagutaraztea.</li> <li>• Lurralde jakin bateko herri argazkilaritzaren dokumentu-funtsa handitzea eta haren kontserbazioa bultzatzea.</li> <li>• IKTak pertsona nagusien estimulazio kognitiboa sustatzeko tresna gisa sartzea.</li> <li>• Pertsona nagusiek gizartearen duten irudia (gizarte estereotipoa) hobetzen laguntzea.</li> <li>• Pertsona nagusiak engaiatzea, tailerrak egindakoan, ikasitako ezagupenak beste pertsona nagusi batzuei helaraz diezazkieten, hortik "Oroimen digitalaren irakasleak" izena.</li> </ul>	

(67. taula)

**BBPP\_WeCare**

WECARE	
<b>ERAKUNDEA</b>	Instituto de Innovación para el Bienestar Ciudadano-k sustatzen du, eta haren helburua pertsonen bizi kalitatea eta ongizatea hobetzea da. WeCare proiektua Ambient Assisted Living Programaren esparruan batera finantzatuta dago
<b>EREMUA</b>	Publikoa
<b>PROIEKTUAREN WEBGUNEA</b>	<a href="http://www.wecare-project.eu/">http://www.wecare-project.eu/</a>
<b>BESTE LOTURA BATZUK</b>	<a href="http://www.i2bc.es/32-we-care.htm">http://www.i2bc.es/32-we-care.htm</a>
<b>PROIEKTUAREN LABURPENA</b>	
<p>Haren helburu nagusia WeCare 2.0 izeneko IKT zerbitzua garatzea eta hedatzea da. Pertsona nagusien eta beste pertsonen arteko eragin-trukea sustatzen duen gizarte sarea da WeCare 2.0. Proiektuaren helburu nagusia pertsona nagusiei laguntza ematea da, gaixotasunak pairatzen eta isolatuta edo bakarrik sentitzen hasi baino lehenago. Ideia honakoa da: egoera horiek agertzen direnean, lagundu ahalako dien laguntza sare bat egongo da.</p> <p>Proiektu honen bidez honakoak lortu nahi dira:</p> <ul style="list-style-type: none"> <li>• Harreman aktibo eta aldebikoak sortzea, pertsona nagusiek laguntza eman eta jaso ahal dezaten, euren autonomia handiagotuz.</li> <li>• Zaintzaileei beste zaintzaileekin komunikatu ahal izateko esparrua eskaintzea, elkarri laguntza emanez eta ezagutza eta esperientziak elkartrukatzuz.</li> </ul> <p>WeCare ("Zaintzen dugu") ongizaterako eta bizitza independenterako teknologiei buruzko europar proiektua da. 2010eko otsailean abiatu zen eta 2 urte eta erdiz jardungo du, 2012ko abuztuan amaitu arte. Haren helburu nagusia pertsona nagusiak euren gizarte sareak sortu, parte hartu eta jarraitzea bultzatzea da, Internet eta teknologia berriak tresna erabiltzaile zahar-ze aktiboak sustatzeko. Proiektuaren esparruan Internet zerbitzu bat, WeCare 2.0 garatu, ebaluatu eta erabiliko da. Zerbitzu horrek komunikazio, koordinazio eta informazio aplikazioak biltzen ditu eta pertsonen gizarte sareetan eta gizarte sareen artean parte hartzen eta elkarrekin jarduten laguntzen die. Zerbitzuan jardura egutegiak eta plangintzak, tokiko albisteak, bideozko komunikazioak, blogak eta foro erabilerrazak bilduko dira. Proiektuan pertsona nagusiek eta haien gizarte sareko beste eragile garrantzitsu batzuek (familia, auzokideak, lagunak, osasun eragileak, etab.) parte hartuko dute, WeCare 2.0 haien premia eta gustuetara egokitzen dela ziurtatzeko eta azken emaitzaren kalitatea bermatzeko. Erabiltzaileen partaidetza eta zerbitzuaren probak zenbait herritan (Holanda, Espainia, Irlanda eta Finlandia) burutuko dira, testuinguru soziokultural desberdinetara egokitu ahal dadin.</p>	

(68. taula)

**BBPP\_LOLA**

LOLA: AVATAR INTERFAZEA DUEN LAGUNTZAILE PERTSONALA	
<b>ERAKUNDEA</b>	Instituto de Innovación para el Bienestar Ciudadano-k sustatzen du, eta haren helburua pertsonen bizi kalitatea eta ongizatea hobetzea da
<b>EREMUA</b>	Publikoa
<b>PROIEKTUAREN WEBGUNEA</b>	<a href="http://www.i2bc.es/11-lola--asistente-personal-con-interfaz-avtar.htm">http://www.i2bc.es/11-lola--asistente-personal-con-interfaz-avtar.htm</a>
<b>PROIEKTUAREN LABURPENA</b>	
<p>Proiektuak etxeko laguntza eta zerbitzu zereginetarako avatar interfazea eta ahots-ezagutzea dituen set box bat diseinatu eta garatzen lan egiten du. LOLA, laguntzaile pertsonala proiektuan komunikazio sistema funtzioaniztatu bat diseinatu eta garatu nahi da. Sistema moduluzkoa da, gerora adinekoentzat eta mendekotasuna duten pertsonentzat pentsatutako aplikazio eta zerbitzuetan errazago sartzeko, eta ahots-ezagutzaren bidez erabiltzailearen aginduak kudeatzen dituen avatar motako interfaze baten bidez erabil daiteke eta, beharrezkoa bada, egokitutako beste gailu batzuk (ukipen-pantaila, braille teklatura) era izango ditu, etxetik komunikazio eta zerbitzuen kudeaketa bide berri bat ezartzeko (harreman pertsonalak, laguntza espezializatua, pensioen kobrantza, erosketak, orientabidea, etab.). Azken teknologiak azken erabiltzailearentzako modu erabat gardenean erabiliz, komunikatzeko eta pertsonentzako etxeko arreta eta laguntza zerbitzu anitz ezartzeko plataforma gisa.</p>	

(69. taula)

**BBPP\_Tratamiento 2.0**

TRATAMIENTO 2.0	
<b>ERAKUNDEA</b>	Instituto de Innovación para el Bienestar Ciudadano-k (I2BC) sustatzen du
<b>EREMUA</b>	Publikoa
<b>PROIEKTUAREN WEBGUNEA</b>	<a href="http://www.tratamiento20.es">http://www.tratamiento20.es</a>
<b>BESTE LOTURA BATZUK</b>	<a href="http://www.i2bc.es/28-tratamiento-2-0.htm">http://www.i2bc.es/28-tratamiento-2-0.htm</a>
<b>PROIEKTUAREN LABURPENA</b>	
<p>Haren helburu nagusia erabiltzaile guztien premien arabera arreta klinikoaren prozesua hobetzea da, tratamenduen eraginkortasuna handituz, ezagutza zientifikoaren eguneraketan oinarrituta.</p> <p>Tratamiento 2.0 <i>middleware</i> plataforma generikoa da, gaitz kronikoen tratamenduaren aplikazio eta kudeaketa adimendunetarako diseinatu. Osasun langileentzako (medikuak eta erizainak) eta gaixo eta zaintzaileentzako aplikazio erabilgarriak dauka eta gaixoaren eta haren gaixotasunaren jarraipena eta bilakaera errazten ditu. Gaixoaren bizi kalitatea hobetuko du horrek.</p> <p>Bizi itxaropenaren hazkundea patologia kronikoaren hazkundera lotuta dator. Gaitz kronikoen kontrola eta laguntza osasun sistemek aurre egin behar dieten erronka nagusietako bat dira. Mundu modernoari eta haren aurrerapen teknologikoei esker, bizi itxaropena handitu duten medikamentu indartsuak garatu dira. Eragin on horrek, ordea, indarra galtzen du gaixoen medikuen jarraibideei jarraitzen ez dieten heinean. Orokorrean medikuak gaixoaren onerako aginduak eta jarraibideak eman arren, nahiko maiz gaixoen euren hartzen dituzte euren osasunaren kalterako jarrerak, nahita edo nahi gabe. Tratamiento 2.0 proiektuak gaixo kronikoaren gaixotasunari lotutako edozein tratamendu motaren bilakaeraren aplikazioan eta jarraipenean sakondu nahi du, bai farmakologia mailan, bai maila ez farmakologikoan (dieta, gorputz ariketa), baita muskuluen errehabilitaziorako tratamenduan ere. Tratamiento 2.0ri esker, tratamendurekiko atxikimendua hobetu ahal da, gaixoen hobeto ulertuko dituzten osasun langileek gaitzaren bilakaeraren onerako euren gaixotasunari buruz ematen dizkieten jarraibideak eta gomendioak, eta agindutako tratamenduaren jarraipena errazten duten tresnak eskaintzen ditu.</p>	



(70. taula)

**BBPP\_E-Integra Ciudadanía**

E-INTEGRA CIUDADANÍA	
ERAKUNDEA	Emakume progresisten federazioa eta Caja Madrid Gizarte Ekintza
EREMUA	Pribatua/gizartekoa
PROIEKTUAREN WEBGUNEA	<a href="http://www.fmujeresprogresistas.org/images/contenidos/nota%20eintegra.pdf">http://www.fmujeresprogresistas.org/images/contenidos/nota%20eintegra.pdf</a>
<b>PROIEKTUAREN LABURPENA</b>	
E-Integra Ciudadanía prestakuntza zikloa da. Haren asmoa gizarte bazterketako egoeran dauden pertsonak teknologia berrietara ekarri eta analfabetismo digitala ezabatzea da. Horretarako, sei hilabetez prestakuntza saioak egingo dira eta, aldi berean, gela irekiko esparrua ezarriko da, ikasleek ordenagailuak erabili eta euren ikaskuntza indartu ahal dezaten.	

(71. taula)

**BBPP\_IKT Alfabetatze Bulego Mugikorra**

LANDA INGURUNeko IKT ALFABETATZE BULEGO MUGIKORRA	
ERAKUNDEA	Confederación Española de Personas con Discapacidad Física y Orgánica (COCEMFE) eta Vodafone España Fundazioa
EREMUA	Pribatua
BESTE LOTURA BATZUK	<a href="http://cort.as/1QH3">http://cort.as/1QH3</a>
<b>PROIEKTUAREN LABURPENA</b>	
Confederación Española de Personas con Discapacidad Física y Orgánica-k (COCEMFE) eta Vodafone España Fundazioak lankidetzatza hitzarmena sinatu dute "Landa inguruneko IKT Alfabetatze Bulego Mugikorra" proiektua abiarazteko. Haren helburu nagusia ezgaitasuna duten pertsonen gizarte eta lan gaitasunak indartzea da, horretarako informazioaren eta komunikazioaren teknologia berriak erabiliz. Ekimenari esker, landa ingurunean bizi diren 500 ezgaitu inguru prestatu ahalko dira teknologia berrietan, haien enplegarritasuna hobetzeko eta hobeto gizarteratu eta laneratzeko; halaber, COCEMFEko zenbait erakundetako 40 teknikari prestatuko dira IKT alfabetatze metodoan. Erabiltzaileek eta teknikari taldeak IKT alfabetatze gida izango dute. Gida hori proiektu honen esparruan prestatuko da, prestakuntza moduluaren eta ezgaitasun fisiko eta organikoaren duten pertsonak integratzeko COCEMFEk egiten dituen ekintzen osagarri izateko. Vodafone España Fundazioak ekimena finantzatu eta behar diren baliabide teknologikoak jarriko ditu partaideen eskura, landa eremuko ezgaituen taldearen eta gainerako herritarren artean dagoen eten digitala laburtu xedez. Ikasketa prozesua produktu berriak, hala nola tabletak, netbookak, smartphoneak, smartbookak, etab., ebaluatzeko erabiliko da eta, hala, esperimentazio izaera ematen dio proiektuari, alde horretatik. Programa garatzeko COCEMFEren unitate mugikor egokitua erabiliko da. Hari esker, teknikariak biztanlegue txikietaraino joan eta ezgaituei behar duten prestakuntza eman ahalko diete.	

**HERRITARREN PARTAIDETZA**

(72. taula)

**BBPP\_Facebookek Esan Zidan**

FACEBOOKEK ESAN ZIDAN	
ERAKUNDEA	Asociación de Universidades Populares de Extremadura-k (AUPEX) eta Nuevo Centro del Conocimiento Losar de la Vera-k sustatzen du. Extremadurako ekimen honen asmoa herriko pertsona nagusi guztiak IKTen erabileraren partaidea bihurtzea da, gizarteratze tresna gisa, Facebook bezalako gizarte sareen bidezko <b>herritarren partaidetza</b> sustatuz
EREMUA	Publikoa/gizartekoa
PROIEKTUAREN WEBGUNEA	<a href="http://www.facebook.com/profile.php?id=100002352977494#!/profile.php?id=100002298258375">http://www.facebook.com/profile.php?id=100002352977494#!/profile.php?id=100002298258375</a> <a href="http://www.facebook.com/#!/profile.php?id=100002352977494">http://www.facebook.com/#!/profile.php?id=100002352977494</a>
BESTE LOTURA BATZUK	<a href="http://www.mayoresconiniciativa.es/mayores_con_iniciativa/2011/05/me-lo-dijo-facebook.html">http://www.mayoresconiniciativa.es/mayores_con_iniciativa/2011/05/me-lo-dijo-facebook.html</a> <a href="http://www.mayoresconiniciativa.es/Informe_final/2011/06/me-lo-dijo-facebook---Informe-final.html">http://www.mayoresconiniciativa.es/Informe_final/2011/06/me-lo-dijo-facebook---Informe-final.html</a> Ekimenaren bideoa: <a href="http://www.youtube.com/watch?v=GENb-cGwNT0">http://www.youtube.com/watch?v=GENb-cGwNT0</a>
<b>PROIEKTUAREN LABURPENA</b>	
"Facebookek esan zidan" ekintzaren helburua nagusiek gizarte sare horretan interesatzen zaizkien euren bizitzetako gaiak buruzko orriak kudeatzea da. Zehazki, orri bi abiarazi dira: bata argazkikoa da, "Losar para el Recuerdo", eta argazki zaharrak biltzen ditu; lehenago pertsona nagusiek eurek hautatu, eskaneatu eta sarera igozten dituzte argazkiak; eta beste orriak "Ciudadanos de Losar"-, iradokizunak/ideiak... biltzen ditu, Losar de la Vera-ko bizi kalitatea hobetu asmoz. Prestakuntza ekintza bizia eskatzen du horrek, nagusiek orri horiek erabili eta kudeatu eta euren erabiltzaileak sortu eta abiarazi ahal ditzaten. Hala, "Facebooken hasteko tailerrak" eta "Facebookeko tresnen eta aplikazioen erabilera aurreratuko tailerrak" egiten dira. Pertsona nagusiei esparru parte-hartzailea eskaini nahi zaie, eurak izan daitezkeen protagonistak, iritziak, argazki zaharrak eta informazio interesgarria, besteak beste, Facebookek ematen dituen tresnen bidez elkartrukatuz. Ekintzaren asmo nagusia gizarte sareen aukerak erakustea da, herritarrek gertakarietan eta gure nagusien artean ohikoak diren kezketan parte hartzea lortzeko, gizarte sare horrek eskaintzen dizkigun komunikazio bideen bitartez (izan txata, mezu pribatuak edo hormako mikrosarrerak).	

(73. taula)

**BBPP\_ Sareko auzo komunitateak**

SAREKO AUZO KOMUNITATEAK	
<b>ERAKUNDEA</b>	'todosvecinos.com' sareko tresna birtual berria da. Haren helburua komunitate bereko kide guztien artean dauden harremanak hobetzea da
<b>EREMUA</b>	Pribatua/gizartekoa
<b>PROIEKTUAREN WEBGUNEA</b>	<a href="http://todosvecinos.com/">http://todosvecinos.com/</a>
<b>PROIEKTUAREN LABURPENA</b>	
<p>Auzo bilera aspergarriak, gorabeherak konpontzeko atzerapenak eta komunitate bateko kideen arteko eta lursail baten administratzaileekiko ohiko komunikaziorik eza Espainiako enpresa batek garatutako tresna birtual berritzaile bati esker amai litezke. Ekimenak todosvecinos.com du izena. Sareko gizarte tresna bat da, guztiz doakoa, eta ozta-ozta duela urte erdi abiarazi zuen <i>Galiziako Brainstorming Business</i> mikroenpresa teknologikoa, atari bereko auzokoen arteko komunikazioa hobetu xedez.</p> <p>Eta hori dena, argitu zuenez, "etxeko sofatik mugitu barik", hots, zuzenean ordenagailu, tableta elektronikoa edo telefono batekin edo Internetarako sarbidea duen beste edozein gailu mugikorrekin. "Hala, edonork jakin dezake, denbora errealean, bizi den lursailean argia edo ura moztu diren, garajeko atea apurtu den edo lapurreta bat egon den, adibide batzuk ematearren", adierazi zuen. Oraindik hain bizi laburra izan arren dagoeneko 3.000 auzo komunitate baino gehiago erregistratuta daukan tresna berritzaile horren beste abantaila handietako bat da "erabiltzen erraza" dela, Gonzalezek azpimarratu zuenez. Interesdunak izena emandakoan –eta horretarako minutu batzuk baino ez dira behar–, dagokion moduluan klik egin eta lursailen gorabeherak konpondu ohi dituen enpresari jakinarazteko prozesua abiarazten da. Sistemak arazoa zehazki noiz konpondu den jakinarazten die bezeroei; halaber, komunitateburuak edozein agiri, hala nola bileretako aktak, kontratuak edo argazkiak, bistara dezake, web orrira igotakoan.</p>	

(74. taula)

**BBPP\_Networkedneighbourhoods**

NETWORKEDNEIGHBOURHOODS.COM	
<b>ERAKUNDEA</b>	Auzoko <i>online</i> sareen gizarte eraginari eta tokiko agintarientzat dituzten ondorioei buruzko azterlanak
<b>EREMUA</b>	Pribatua/publikoa/gizartekoa
<b>PROIEKTUAREN WEBGUNEA</b>	<a href="http://networkedneighbourhoods.com/wp-content/uploads/2011/04/Online-Nhood-Networks-4-page-summary-web-rev-1.pdf">http://networkedneighbourhoods.com/wp-content/uploads/2011/04/Online-Nhood-Networks-4-page-summary-web-rev-1.pdf</a>
<b>PROIEKTUAREN LABURPENA</b>	
<p>Pertsonak herritar webguneekin <i>online</i> komunikatzen diren moduak, komunikazio horren eragina eta tokiko zerbitzuen hornitzaileentzat dituen ondorioak aztertu ditu azterlanak. Londres inguruko hiru herri aztertu ditu: Brockley Central, East Dulwich Forum eta Haringay Online.</p> <p>Azterlanak erakutsi duenez, bertakoa izateko sentipena, eragin demokratikoa, auzoarte jatorra eta arlo horretako partaidetza hobetzen dira. Partaideek ordezkariak <i>online</i> engaiatzen diren erakunde publikoarekiko jarrera hobea dute.</p> <p>Ikusi denez, auzokoen arteko lotura positiboak bultzatzen dira, bai topo egiteari bai elkartrukeari dagokienez. Inkestatutako % 2ren esanetan, web orria erabiltzearen ondorio zuzenez euren auzoko norbait ezagutu dute eta haien % 25ek diote webaren parte hartzearen ondorioz gertagarriagoa dela ezagutu dezaketen norbaitekin topo egitea.</p>	

(75. taula)

**BBPP\_Banco de recuerdos**

BANCO DE RECUERDOS	
<b>ERAKUNDEA</b>	Banco de recuerdos munduko egiazko milaka oroitzapen salbatzeko sortutako ataria da, eta haiek betiko suntsitzen dituen Alzheimerri buruz ikertzen jarraitzeko garrantziak kontzientziatu nahi du
<b>EREMUA</b>	Pribatua
<b>PROIEKTUAREN WEBGUNEA</b>	<a href="http://www.bancode recuerdos.es/">http://www.bancode recuerdos.es/</a>
<b>BESTE LOTURA BATZUK</b>	<a href="https://www.facebook.com/pages/Banco-de-Recuerdos/106799609408285?sk=wall">https://www.facebook.com/pages/Banco-de-Recuerdos/106799609408285?sk=wall</a> <a href="http://www.youtube.com/user/BancoDeRecuerdos">http://www.youtube.com/user/BancoDeRecuerdos</a>
<b>PROIEKTUAREN LABURPENA</b>	
<p>Jendea Alzheimerri buruzko ikerkuntzaren garrantziari buruz kontzientziatzeko sortua. Reina Sofía Fundazioa, Ceafa, Afalcontigo eta Fundación Cien ditu buru. <i>Banco de recuerdos</i>-en oroitzapen bat eman edo babes daiteke, eta ekarpen ekonomikoa osorik erabiliko da Alzheimerri ikertzeko.</p> <p>Atariaren bidez oroitzapenak doan eman daitezke, eta proiektuak Facebooken duen erabiltzailearen bidez (baita blogean ere) haiek parteka daitezke. Oroitzapenen 'babesa' ere bultzatzen da (haiek bila, hauta edo ausaz aukera ditzakezu). Oroitzapen bat babestek ekarpen ekonomikoa dakar, eta gaixotasunari buruz ikertzeko erabiliko da.</p>	

(76. taula)

**BBPP\_Repara ciudad**

REPARA CIUDAD	
<b>ERAKUNDEA</b>	Open Data Cities SLk garatu du. Administrazio ireki eta gardenagoa herritar aktiboagoak lortzeko produktuak garatzen ditu Web lotura: <a href="http://reparaciudad.com/misc/quienessomos/">http://reparaciudad.com/misc/quienessomos/</a>
<b>EREMUA</b>	Pribatua
<b>PROIEKTUAREN WEBGUNEA</b>	<a href="http://reparaciudad.com/">http://reparaciudad.com/</a>
<b>PROIEKTUAREN LABURPENA</b>	
Ekimena 2011ko Internet Eguna sarien irabazlea izan zen, Web Onenaren kategorian. <b>Bizitza publikoa hobetzeko zerbitzu parte-hartzailea.</b> Haren bidez, herritarrek euren hiriko gorabeheren berri eman dezakete gailu mugikorretatik.	

(77. taula)

**BBPP\_Datorkigunea**

DATORKIGUNEA	
<b>ERAKUNDEA</b>	Eusko Ikaskuntzak sortu du. Euskal Herriko zazpi herrialdeetako gazteak batzeko esparru fisikoa eta birtuala da, eta handik partaideekin eta partaideen artean egungo gizartearen erronka handiren bati buruz eztabaidatzea bultzatzen da. DATORKIGUNEAK 40 kide izango ditu eta gure helburu nagusia proposatutako gaiei erantzuteko ekintzak eta proposamenak definitzea izango da
<b>EREMUA</b>	Publikoa
<b>PROIEKTUAREN WEBGUNEA</b>	<a href="http://eigazte.eusko-ikaskuntza.org/datorkigunea/?lang=es">http://eigazte.eusko-ikaskuntza.org/datorkigunea/?lang=es</a> <a href="http://www.gipuzkoagazteria.net/nodoa.php?nd=4900&amp;hizkntz=2">http://www.gipuzkoagazteria.net/nodoa.php?nd=4900&amp;hizkntz=2</a>
<b>PROIEKTUAREN LABURPENA</b>	
Datorkigunea: Gazte partaidetza, bide berrien bila. Eusko Ikaskuntzako Gazteria Sailak erronka berriari heldu dio. Bertan, Euskal Herriko zazpi herrialdeetako 40 gazte ari dira parte hartzen. Hilero biltzen dira, arazoan diagnostikoa egin eta irtenbideak edo balizko lan arloak proposatu xedez. Bilerak ibiltariak dira; hots, Araban, Bizkaian, Gipuzkoan, Iparraldean eta Nafarroan egiten dira.	

(78. taula)

**BBPP\_Barakaldo jaietako kartela Facebooken**

BARAKALDOK FACEBOOKEN BOZKATZEN DU JAIETAKO KARTELA	
<b>ERAKUNDEA</b>	Barakaldoko Udala
<b>EREMUA</b>	Publikoa
<b>PROIEKTUAREN WEBGUNEA</b>	<a href="http://www.facebook.com/barakaldo.kultura">http://www.facebook.com/barakaldo.kultura</a>
<b>BESTE LOTURA BATZUK</b>	<a href="http://www.innovasocial.com/2011/06/barakaldo-vota-su-cartel-de-las-fiestas-de-el-carmen-2011-en-facebook/">http://www.innovasocial.com/2011/06/barakaldo-vota-su-cartel-de-las-fiestas-de-el-carmen-2011-en-facebook/</a> <a href="http://www.europapress.es/portaltic/internet/noticia-barakaldo-abre-votacion-facebook-elegir-cartel-fiestas-car-men-20110603124653.html">http://www.europapress.es/portaltic/internet/noticia-barakaldo-abre-votacion-facebook-elegir-cartel-fiestas-car-men-20110603124653.html</a>
<b>PROIEKTUAREN LABURPENA</b>	
<b>Herritarren partaidetzako</b> ekimena da. Kasu honetan, Barakaldoko jai-batzordeak Facebooken zabaldu du zale guztien artean 2011ko Karmengo jaiak iragartzeko kartela hautatzeko aukera. Egindako lan parte-hartzailean artea eta dibertsioa ziurtatuta daude. Azken emaitza kartel irabazleari buruzko azken erabakian kontuan hartuko du jai-batzordeak. Jai-batzordeak bozketan parte hartzera deitu ditu herritarrek, hautaketak "partaidetza ahalik eta handiena" izan dezan. Barakaldoko Udalak 700 euroko sariak emango ditu lehiaketan, aurreko urtean baino 100 gehiago. Kartel irabazlea hautatzerakoan, lehiaketaren deialdiaren oinarriek jaso dutenez, zenbait alderdi baloratu behar dira, hala nola adierazkortasuna eta Barakaldo eta bertako jaiak sinbolizatze eta oroitze ahalmena, diseinua eta kolorea, eta elementuen edo ikuspegiaren originaltasuna.	

(79. taula)

**BBPP\_Actuable.es**

ACTUABLE.ES / CHANGE.ORG	
<b>ERAKUNDEA</b>	Actuable bidegabekeriaren aurka borrokatzeko indarrak batu dituzten pertsonen eta erakundearen komunitatea da
<b>EREMUA</b>	Pribatua/publikoa/gizartekoa
<b>PROIEKTUAREN WEBGUNEAK</b>	<a href="http://actuable.es/">http://actuable.es/</a>
<b>BESTE LOTURA BATZUK</b>	<a href="http://www.change.org/">http://www.change.org/</a>
<b>PROIEKTUAREN LABURPENA</b>	
<p>Actuable mundua aldatzeko indarrak batu dituzten pertsonen eta erakundearen <b>online komunitatea</b> da. Horretarako, gobernuari, enpresei eta gure gizarteko beste eragile garrantzitsu bazuari zer aldaketa nahi dugun diose. Teknologia berrien bidez pertsonen eta erakundeek <b>eraldatzeko duten ahalmena</b> aurrerapen zehatz eta iraunkorrek lortzeko gure laguntza premia handienaz behar duten <b>gizarte kausen alde</b> aska daitekeena dakien pertsona ororen topagunea da.</p> <p>Komunitatearen herritarrek, aktibistak eta erakunde txikiak eta handiak biltzen dira. Bertatik gizarte aitzindariak eta tamaina guztietako erakundeak bat egitera eta ehunka lagun lotzera gonbidatzen dira, gehien axola dieten kausak bultzatzeko. Haren helburua gizartea hobetzeko ahalmena biderkatzea da. Hori lortzeko, zenbait tresna jartzen zaie eskura. Haiei esker, komunitatearen laguntza eta klik pare bat eginda, behar diren aurrerapenak eragiteko behar den presioa egin daiteke. Asmoa teknologia berriei ahalmen osoa ateratzea da, pertsonen bizitza benetan hobetuko duten aldaketa positiboak eragiteko.</p> <p>Lan filosofia berberarekin dihardu CHANGE.ORGek ere. ACTUABLEK indarrak batu ditu berarekin eta 2012az geroztik elkarrekin lan egiten hasiko dira, euren gizarte eragina biderkatzeko hala.</p>	

(80. taula)

**BBPP\_Africa What's your story**

AFRICA: WHAT'S YOUR STORY	
<b>ERAKUNDEA</b>	Joan den irailaren 18an A24Media hasi zen lanean, lineako hedabideen lehen agentzia panafrikarra. Bideo, argazki eta testu formatuko informazioa dauka, eta haren helburua Afrikako kontinentean gertatzen den guztiari buruzko kalitatezko informazioa ematea da
<b>EREMUA</b>	Pribatua/publikoa/gizartekoa
<b>PROIEKTUAREN WEBGUNEAK</b>	<a href="http://www.a24media.com/whatsyourstory/">http://www.a24media.com/whatsyourstory/</a>
<b>BESTE LOTURA BATZUK</b>	<a href="http://twitter.com/#!/a24media">http://twitter.com/#!/a24media</a> <a href="http://www.facebook.com/a24media">http://www.facebook.com/a24media</a> <a href="http://www.youtube.com/user/a24media">http://www.youtube.com/user/a24media</a>
<b>PROIEKTUAREN LABURPENA</b>	
<p>2011n, zuzenean ia, gizarte sareen bidezko herri berpiztea bizi izan dugu. Lehen urrats hori Afrika iparraldeko zenbait herritan zabaldu zen eta garrantzi handiko hainbat aldaketa politikoki eragin ditu eta, dirudienez, kontinentearen barruan komunikazioaren eta adierazpen askatasunaren aldeko urratsak ematen jarraitzea lortu du.</p> <p>Azaroaren hasieran, <b>periodismo ciudadanok</b> kontatu zigun joan den irailaren 18an A24Media hasi zela lanean, lineako hedabideen lehen agentzia panafrikarra. Bideo, argazki eta testu formatuko informazioa dauka, eta haren helburua Afrikako kontinentean gertatzen den guztiari buruzko kalitatezko informazioa ematea da. Tokiko jarduerari ahotsa eman, herritarren partaidetza piztu, zenbait herritako ustelkeriaren berri eman, herri jakin batean gertatzen den edozein gertakari "kontatzeko" aukera eman... horiek dira plataforma bizi honek heltzen dien gaietako batzuk. Aukeraz betetako eta mundu guztiari zabalduko plataforma da.</p>	

(81. taula)

**BBPP\_Europetition**

EUROPETITION	
<b>ERAKUNDEA</b>	Instituto de Innovación para el Bienestar Ciudadano-k sustatzen du, eta haren helburua pertsonen bizi kalitatea eta ongizatea hobetzea da. Europako Batzordearen e-partaidetza programarekin batera finantzatuta dago
<b>EREMUA</b>	Publikoa
<b>PROIEKTUAREN WEBGUNEAK</b>	<a href="http://ec.europa.eu/information_society/apps/projects/factsheet/index.cfm?project_ref=EP-08-01-009">http://ec.europa.eu/information_society/apps/projects/factsheet/index.cfm?project_ref=EP-08-01-009</a> <a href="http://www.i2bc.es/24-europetition--nuevo--sistema-de-peticiones-europetition-para-andalucia.htm">http://www.i2bc.es/24-europetition--nuevo--sistema-de-peticiones-europetition-para-andalucia.htm</a>
<b>BESTE LOTURA BATZUK</b>	<a href="http://www.i2bc.es/quehacemos.htm">http://www.i2bc.es/quehacemos.htm</a>
<b>PROIEKTUAREN LABURPENA</b>	
<p>EuroPetition europar proiektua da. Europako Batzordearen Informazioaren Gizartearen Zuzendaritza Nagusiaren e-partaidetza Programak onartu zuen, 2008an. Haren helburua Europaz gairako zerbitzua garatzea da, EBko tokiko agintariak e-eskariak eskaini eta herritarrekin <b>online</b> eztabaidak egin ahal ditzaten, herritarrek web 2.0 gizarte-sareetan engaiatuz, haien partaidetza handitzeko. Halaber, proiektuak eskualdeko eta Europako lege proiektuetan ere engaiatu nahi ditu, sareetan, toki, eskualde eta Europa mailan erabaki politikoak hartzen dituztenei (Europako Parlamentua eta Europako Batzordea) <b>online</b> eskariak eginez.</p>	

(82. taula)

**BBPP\_Extremadura participa**

EXTREMADURA PARTICIPA	
<b>ERAKUNDEA</b>	Fundación Ciudadanía, fundazio izaerako erakundea, irabazi asmorik gabea, gizartekoa, eskualde eta nazio mailan diharduena eta Europa mailan ere jardun nahi duena
<b>EREMUA</b>	Publikoa
<b>PROIEKTUAREN WEBGUNEA</b>	<a href="http://www.extremaduraparticipa.eu/">http://www.extremaduraparticipa.eu/</a>
<b>PROIEKTUAREN LABURPENEA</b>	
<p>Internet bidez, tokiko munduan, informazioa eta herritarren partaidetza errazteko eta bultzatzeko diseinatutako tresna teknologikoa da. Auzokoen arteko, hausnarketarako, herritarren arteko harreman ohitura berrietarako, ezagutza partekatuko, kontsultarako... topagune gisa pentsatu da, Extremadurako hiri eta udaletako partaidetza prozesuak hobetzeko, tresna hori hobetzen eta baldintza funtzional eta teknologiko berrietara egokitzuz.</p> <p>EXTREMADURA PARTICIPAREN funtzionaltasun nagusia E-DIALOGOS dira. Udal eztabaidarako esparru birtuala da, gobernuak edo herritar taldeek sortutako edozein ekimenetarako. Prozesu horretan, plataformak eskaintzen dituen parte-hartze funtzionaltasun bat edo batzuk uztar daitezke, batez ere gizarte-sareei, multimedia sistemiei eta ezgaituen irisgarritasunari lotutakoak. E-DIALOGOS prozesu metodologiko eta teknologikoa da, eta udal batek herritarren parte-hartze edo galdetze prozesu bati ekin nahi badio pizten da. Plataformak zenbait tresna dauzka prozesua osatzen duten 5 faseetako bakoitzeko. Haietako bakoitzak funtzionamendu independentea dauka eta udalak piztu edo itzal ditzake, bere premien arabera.</p> <p>Laburbilduz, tresna oso malgua da eta udal bakoitzaren premiei egokitu dakieke. Esaterako, partaidetza esparru bat galdetegi hutsa izateko edo aldi berean ahal diren funtzionaltasun guztiak izan ditzan konfiguratu daiteke.</p>	

(83. taula)

**BBPP\_Add Me!**

ADD ME!	
<b>ERAKUNDEA</b>	Instituto de Innovación para el Bienestar Ciudadano-k sustatzen du, eta haren helburua pertsonen bizi kalitatea eta ongizatea hobetzea da. ICT PSP programak finantzatzen du
<b>EREMUA</b>	Publikoa
<b>PROIEKTUAREN WEBGUNEA</b>	<a href="http://www.epractice.eu/community/addmecomunity">http://www.epractice.eu/community/addmecomunity</a>
<b>PROIEKTUAREN LABURPENEA</b>	
<p>Add Me! sare paneuroparra da eta digitalki baztertutako pertsoneri laguntzen die, haren bidez jardunbide egokiak partekatuz. Haien bidez, honakoak bilatzen ditu:</p> <ul style="list-style-type: none"> <li>• Bazterketa digitaleko arriskuan dauden pertsoneri laguntzea, e-government inklusiboaren alderdiak biltzen dituen web baten bidez, erakunde eta gizarte bitartekariak engaiatuz.</li> <li>• Politikoak Europa, nazio, eskualde eta toki mailan e-government politikak sustatu beharrez kontzientziaztea, esperientzien eta jardunbide hobeen elkartrukea eta hedatzea errazteko.</li> <li>• Gizarte eta erakunde bitartekariaren garrantzia azpimarratzea, horretarako berariazko metodologiak eta tresnak garatuz, Europa osoko ekimenen eragina, kalitatea eta iraunkortasuna areagotu asmoz.</li> <li>• Informazioaren gizartetik kanpo geratzeko arriskuan dauden pertsonentzako IKT zerbitzuak sustatzea.</li> </ul>	

(84. taula)

**BBPP\_Ciudadania 4.0**

CIUDADANIA 4.0	
<b>ERAKUNDEA</b>	Ciudadania 4.0 Telefónica Catalunya-ren proiektua da. IKTen (informazioaren eta komunikazioaren teknologiak) erabilera kritikoa egiten duten herritarren ekimenak sustatu eta bultzatu nahi ditu. Proiektua Telefónica Catalunya-ren Catalunya 4.0, gure herrian informazioaren gizartea bultzatzeko ekimenaren jarraipena da
<b>EREMUA</b>	Pribatua
<b>PROIEKTUAREN WEBGUNEA</b>	<a href="http://ciudadania40.cat/es/home">http://ciudadania40.cat/es/home</a>
<b>BESTE LOTURA BATZUK</b>	<a href="http://twitter.com/#!/ciudadania40">http://twitter.com/#!/ciudadania40</a>
<b>PROIEKTUAREN LABURPENEA</b>	
<p>Proiektuak Kataluniako gizartearen esparruan IKTak kritikoki eta intentsiboki darabiltzaten herritarren ekimenak bildu ditu, garatzen laguntzeko haiek sustatu xedez. Hautatutako ekimenak euren ekintza eremuan esperientzia duten orientatzaileekin harremanetan jarriko dira.</p> <p>Lortutako emaitzak ekimen mapa batean argitaratuko dira, eta bertan ondorioak eta intereseko beste informazio batzuk partekatu ahaliko dira. Handik aterako den datu-basea eta lortutako emaitzak <a href="#">CC lizentziaren</a> pean argitaratuko dira.</p>	

(85. taula)

**BBPP\_Curators of Sweden**

CURATORS OF SWEDEN	
ERAKUNDEA	Suediako gobernua ekimen bat abiarazi du <i>Community Management</i> lanak herriko kontu ofizialetik herritarrengana helarazteko. <i>Curators of Sweden</i> delako proiektua <i>VisitSweden</i> -ek abiarazi du eta joan den 2011ko abenduaren 10ean hasi zen
EREMUA	Publikoa
PROIEKTUAREN WEBGUNEA	<a href="http://curatorsofsweden.com/">http://curatorsofsweden.com/</a>
BESTE LOTURA BATZUK	<a href="http://cort.as/1S9q">http://cort.as/1S9q</a>
<b>PROIEKTUAREN LABURPENA</b>	
<p>Astero erabiltzaile banak dauka Suediako @Sweden kontu ofizialaren kontrola. Orain arte ezaugarri oso desberdinak dauzkaten hiru lagunek parte hartu dute: landan bizi den publizitate agentzia baten jabeak, laurogeita hamarretan Suediara iritsi zen bosnari etorkin batek eta bere lanbide karrera Interneten burutzen ari den 22 urteko gazte batek. Programaren helburua Suediaren balio onak eta hango kultura aniztasuna erakustea eta, noski, erakundeen eta herritarren arteko lotura sortzea da.</p> <p>VisitSweden-eko CEO Thomas Brühl-en esanetan, <i>Mobiledian</i> jaso denez, "inork ez du suediarrek baino hobeto ezagutzen Suedia marka. Ekimen horrekin euren Suedia pertsonala munduari erakusten uzten diegu".</p> <p>Orain arte hiru erabiltzaileek igorritako txioek hainbat gairi buruz hitz egin dute: kirolak, musika, esperientzia eta iritzi pertsonalak, Suediari buruzko gomendioak (janaria, tokiak, produktua, etab.) tartekatuta. <i>Lotura honetan</i> txioen fitxategia eta partaide bakoitzaren ezaugarriak irakur daitezke.</p> <p>Curators of Sweden sistema Suedia marka gizarte-sareetan nazioartean promozionatzeko –txio gehienak ingelesez daude– eta herritarren partaidetza bultzatzeko dago diseinatuta, eta, dirudienez, askatasuna ematen dio asteko arduradun bakoitzari. Hala, <i>partaidetza esperimendu</i> oso interesgarria gertatzen ari da, eta bertan orri ofiziala mundu osoko erabiltzaileek jarrai diezaieketen elkarriketen esparrua da.</p> <p>Elkarriketan eztabaidagarriak dira batzuetan; adibidez, oraingo arduraduna ehiza zalea da eta <i>follower</i> batzuk atsekabatu dituen argazki bat argitaratu du, baina Twitterreko erabilerak eta ohiturek eskatzen duten gardentasun espiritua ez dute galdu.</p>	

(86. taula)

**BBPP\_Alcaldías 2.0**

ALCALDÍAS 2.0	
ERAKUNDEA	Andaluziako Juntako Ekonomia, Berrikuntza eta Zientzia Sailak, zortzi probintzietako diputazioen laguntza, Guadalinfo proiektuaren bidez
EREMUA	Pribatua
PROIEKTUAREN WEBGUNEA	<a href="http://www.guadalinfo.es/alcaldias20/">http://www.guadalinfo.es/alcaldias20/</a>
BESTE LOTURA BATZUK	<a href="http://www.youtube.com/watch?feature=player_embedded&amp;v=y06yP1LeAY0">http://www.youtube.com/watch?feature=player_embedded&amp;v=y06yP1LeAY0</a> <a href="http://blog.guadalinfo.es/2012/01/17/unos-30-alcaldes-cordobeses-se-suman-a-alcaldias-20-para-mejorar-su-dialogo-con-la-ciudadania/">http://blog.guadalinfo.es/2012/01/17/unos-30-alcaldes-cordobeses-se-suman-a-alcaldias-20-para-mejorar-su-dialogo-con-la-ciudadania/</a> <a href="http://blog.guadalinfo.es/2012/01/18/alcaldias-20-sevilla-escucha-activa-respuesta-activa-dialogo-activo/">http://blog.guadalinfo.es/2012/01/18/alcaldias-20-sevilla-escucha-activa-respuesta-activa-dialogo-activo/</a>
<b>PROIEKTUAREN LABURPENA</b>	
<p>Andaluziako 8 probintzietako alkateak eta ordezkariak 2.0 tresnen erabilera prestatzen dira, herritarrekiko elkarriketa bultzatzeko.</p> <p>"Alcaldías 2.0" jardunaldiak Ekonomia, Berrikuntza eta Zientzia sailak antolatuta ditu, zortzi probintzietako diputazioen laguntza, Guadalinfo proiektuaren bidez. Helburua Andaluziako alkateei 2.0 inguruneari buruzko oinarriko prestakuntza estrategikoa ematea eta tresna horiekin tokiko gobernuan abiarazitako jardunbide egokiei buruz ikastea da. Jardunaldian zenbait solasaldi egiten dira. Haietan, herritar-alkateak elkarriketaren garrantziak eztabaidatzen da, herritarren iritzien garrantzia eta balioa erakusten duten egiazko adibideak erakutsiz.</p> <p>Formatua mahai-ingurua da, eta bertaratutako alkate guztiei "Herritarren partaidetza eta <i>social</i> media proiektuen kudeaketa" izeneko tailerra ematen zaie. Tailer horren bidez 2.0 tresnei buruzko oinarriko prestakuntza eman nahi da, eta entzute aktibora, sarean irudi egokia sortu eta sustatzera eta ospe krisi baten aurreko kudeaketara zuzendutako ekintzak nola diseinatu irakatsi.</p>	

**E-GOVERNMENT**

(87. taula)

**BBPP\_M-government Cadizko Diputazioa**

M-GOVERNMENT: CADIZKO DIPUTAZIOAREN KASUA	
ERAKUNDEA	Cadizko Diputazioaren Egoitza Elektronikoen mugikorren bidezko osoko euskarriaren adibidea, Viafirma Platform-ekin integrazeari esker, eta haren mugikortasuneko ezaugarriak (Viafirma Mobile)
EREMUA	Publikoa
BESTE LOTURA BATZUK	<a href="http://youtu.be/rt-7wbyW9NI">http://youtu.be/rt-7wbyW9NI</a>
<b>PROIEKTUAREN LABURPENA</b>	
<p>Cadizko Diputazioaren Egoitza Elektronikoak Espainian izapide oso bat gailu mugikorretatik (Apple iOS gailuak, hala nola iPhone, iPad, iPod Touch, Android telefonoak eta tabletak, BlackBerry, etab.) egiten uzten duen lehen egoitza elektronikoa bihurtu da hala. Haien artean ziurtagiri digitalen bidezko autentifikazioa eta sinadura elektronikoa egin daitezke halako gailuetatik. Hala, herriko m-government erreferentzia nagusia ere bihurtu da.</p> <p>Bideoan ziurtagiriarekin sartzen, izapide batean sartzen, inprimakia betetzen eta sortutako agiria digitalki sinatzen ikusten da, dena iPad batean. Apple Storen erabilgarri dagoen Viafirma bezeroa erabiliz.</p>	

(88. taula)

**BBPP\_Asturias Tramita**

ASTURIAS TRAMITA	
<b>ERAKUNDEA</b>	CTIC Sociedad de la Información Fundazioaren proiektua, <a href="http://www.fundacionctic.org">http://www.fundacionctic.org</a> , Asturiasko Printzerriko Gobernuak finantzatua, Informazioaren Gizartea Garatzeko Estrategiaren esparruan
<b>EREMUA</b>	Publikoa
<b>PROIEKTUAREN WEBGUNEA</b>	<a href="http://www.asturiastramita.es">http://www.asturiastramita.es</a>
<b>BESTE LOTURA BATZUK</b>	<a href="https://www.facebook.com/asturiastramita">https://www.facebook.com/asturiastramita</a> <a href="http://www.twitter.com/asturiastramita">http://www.twitter.com/asturiastramita</a> <a href="http://www.youtube.com/asturiastramita">http://www.youtube.com/asturiastramita</a>

**PROIEKTUAREN LABURPENA**

**Asturias Tramita** administrazio elektronikoa eta, zehazkiago, egun telematikoki erabil daitezkeen zerbitzuen sustapen ekintza da. Ekintza honen **helburua**, beraz, herritarrek, enpresek eta erakundeek erabilgarri dauden zerbitzu elektronikoak gehiago erabiltzea da, ekintza mota biren bidez: sustapenekoak eta analitikoak.

**1.- Sustapeneko estrategiak:****1.1. Administrazio elektronikoari buruzko sentsibilizazio eta sustapen jardunaldiak.**

Dibulgazioko jardunaldiak, herritar guztiei orokorrean zein zenbait talde bereziki zuzenduta eta, beraz, edukia horren arabera egokituta. Jardunaldiak 90 minutu dira, gutxi gorabehera, eta haietan zerbitzu elektronikoak eskuratzetik identifikazio digitaleko sistemetara aztertzen dira, NAN elektronikoari bereziki erreparaturik. Helburua administrazio elektronikoari eta herri-administrazioek eskura jarritako zerbitzuei buruz sentsibilizazioa eta informatzea da.

**1.2. Lehen mailako arretan hitzordua Internet bidez nola eskatu erakusten duen bulegoa.**

Asturias osoko lehen mailako zentroetan hitzordua Internet bidez eskatzeko zerbitzu elektronikoa aurrez aurreko erakustea.

Ekintza honen helburua lehen mailako arretan hitzorduaren eskabidea telematikoki gehiago izapidetzea da, haiek eskatu eta kudeatzeko prozesu osoa erakutsiz.

**1.3. Material didaktikoak eta dibulgaziokoak prestatzea.**

Izapide telematikoei buruzko dibulgazioko irudi bidezko gidaliburuak eta bideoak eta liburukiak prestatzea.

**1.4. 2.0 Asturias Tramita sustapen kanpaina.**

Asturias Tramita bloga, <http://asturiastramita.es>, sortzea, mantentzea eta sustatzea. Bertan administrazioari buruzko informazioa bildu da eta, era erraz eta zuzenean, herri-administrazioen zerbitzu elektronikoetan nola sartu zehaztu da. Sustapen hori osatzeko zenbait web 2.0 tresna daude.

**2.- Analitiko estrategiak:****2.1. Erabiltzaile testa.**

"Erabiltzaile testa" egitea zerbitzu elektronikoetan sartzeko erraztasuna eta haien erabilgarritasuna ebaluatzeko.

**2.2. Teleizapidetzerako oztopen hautemateari buruzko azterlana.**

Asturiasko herritarrek administrazio elektronikoan sartu eta erabiltzeko oztopo nagusiak hauteman xedez egindako azterlana. Horretarako 500 inkesta egin dira Asturiasko Printzerriko Gobernuaren aurrez aurreko izapidetze bulegoetan.

**2.3. Zerbitzu elektronikoaren erabilerrakoa gogobetetzeari buruzko azterlana.**

Asturiasko herritarrek administrazioari buruz duten gogobetetze maila ezagutu xedez egindako azterlana, telefonozko 1.000 inkesta eginda.

**2.4. Zerbitzu elektronikoari buruzko iritzi analisia.**

Lehen mailako arretako hitzordua Internetez eskatzeko erakustaldiaren hartzaileen iritziatetik egindako analisia.

Jarduteko estrategia horiekin herritarrek informazioaren gizartera ekarri nahi dira, zerbitzu aurreratuenen, hala nola izapidetze telematikoen, eskuragarritasuna eta erabilera bultzatuta.

Bestalde, analisiak egiterakoan, administrazio elektronikoari lotutako zenbait konturi buruz galdetzen zaie herritarrei. Analisi horren ondorioei esker, administrazioak estrategia berriak abiarazi edo herritarrengana telematikoki hurbiltzeko neurri berriak hartu ahaliko ditu.

(89. taula)

**BBPP\_Estatu Batuetako Kongresuaren hackaton-a**

ESTATU BATUETAKO KONGRESUAREN FACEBOOK BIDEZKO HACKATHON-A	
<b>ERAKUNDEA</b>	AEBko Kongresua
<b>EREMUA</b>	Publikoa
<b>PROIEKTUAREN WEBGUNEA</b>	<a href="http://www.nacion.com/2011-11-18/Tecnologia/Facebook-ayudara-a-congresistas-de-EE--UU--a-comunicarse-con-sus-electores.aspx">http://www.nacion.com/2011-11-18/Tecnologia/Facebook-ayudara-a-congresistas-de-EE--UU--a-comunicarse-con-sus-electores.aspx</a>
<b>PROIEKTUAREN LABURPENA</b>	

Estatu Batuetako buru errepublikarrek eta demokratek Facebookera jo dute euren hautesleekin konektatzeko bideak garatzeko.

Joan den azaroaren 17an "hackathon" bat, Kongresuko kideek, haien laguntzaileek eta Facebooken diseinatzaileek, besteak beste, parte hartzen duten maratonia, egiteko planak iragarri zituzten.

"Kongresuaren Facebook bidezko lehen hackathon-a" abenduaren 7an egingo da, "legegintza informazioaren, hautesleen eta gizarte-sareen arteko eragin-trukearen ahalmena aztertzeko", Ordezkarren Ganberako buru demokrata eta errepublikarrek mezu batean iragarri zuten.

"Estabatuaren eskubidea dute gobernuari eskatzeko eskubidea dute eta online teknologia berriek aukera interesgarri berriak ematen dizkiote eskubide horri", esan zuen Steny Hoyer-ek, behe-ganberako gutxiengo demokratoren burua.

(90. taula)

## BBPP\_Administrazio elektronikoa Leongo udaletan

ADMINISTRAZIO ELEKTRONIKOA LEONGO UDALETAN	
ERAKUNDEA	Administrazio elektronikoa probintziako udaletan lur hartzeko prestatzen ari da, diputazioaren eskutik. Diputazioak udal erregidoreei aurkeztu die proiektua. Datorren urteko lehen hiruhilekoan amaituko da, probintziako erakundeko presidente Isabel Carrascok iragarritako epeen arabera, eta beste aukera bat emango diote ohiko 'lehiatila'ri, sagu kolpez izapideak egitekoa
EREMUA	Publikoa
BESTE LOTURA BATZUK	<a href="http://www.orsi.jcyl.es/web/jcyl/ORSI/es/Plantilla100Detalle/1262860952313/_/1284197998808/Comunicacion">http://www.orsi.jcyl.es/web/jcyl/ORSI/es/Plantilla100Detalle/1262860952313/_/1284197998808/Comunicacion</a> <a href="http://www.elmundo.es/elmundo/2011/11/11/leon/1321004931.html">http://www.elmundo.es/elmundo/2011/11/11/leon/1321004931.html</a>
PROIEKTUAREN LABURPENA	
<p>2012ko apirilaren aurretik Leongo 20.000 biztanletik beherako udalerrietako herritarrek ez dute etxetik irten beharko udal eskabideak izapidetzeko, diru-laguntzak kudeatzeko eta, azken batean, toki erakundeen mendeko izapide burokratikoak egiteko.</p> <p>Administrazio elektronikoa (edo e-administrazioa) bere ate birtualak zabalduko ditu eta herritarren –pertsone fisiko edo juridiko bezala ulertuta– eskura jarriko ditu zenbait zerbitzu. Zerbitzu horiek ordainagiriak telematikoki ordaindu ahal izan arte zabalduko dira. Proiektu hori probintziako erakundeak 2008an administrazioa modernizatzeko abiarazi zuen prozesuan kokatzen da. Horren bidez, laguntza eta lankidetzara eman nahi dizkie probintziako udalei, udal kudeaketa demonoagoranzko jautsian, Herritarrek Zerbitzu Publikoak Elektronikoki Eskuratzeari buruzko 11/2007 Legearen arabera haien betebeharra baita hori egitea.</p> <p>Plataforma garatzeko enpresa esleipendunak, Everisek, diputazioko presidente Isabel Carrascorekin batera, 21 udaletan probatu den prozesuaren urratsak aurkeztu zituen. Enpresak prestakuntza ematen die udal funtzionarioei eta zenbait espediente komun garatu ditu ondoren herritarren zerbitzura jartzeko.</p> <p><b>150 atxiki zaie hitzarmenari</b></p> <p>Plataforma honek aplikazio sorta bat dauka eta doakoa da probintziako erakundearen administrazio elektronikoa hitzarmenari atxiki zaizkion udalentzat. Dagoeneko 150 udal dira eta urtea amaitu aurretik 20.000 biztanletik beherako gainontzeko 58 lurraldeak ere atxikitzea espero da.</p> <p>Carrascok onartu zuenez, eten digitala eragozpena da oraindik banda zabalera iritsi ez den probintziako puntu batzuetan. 2010 eta 2011n Leongo Diputazioak 216.369 euroko inbertsioa egin du administrazio elektronikoa garatzeko. Hala, 2008an modernizatzeko prozesua abiarazi zenetik garatutako 147 udal atarrietako oinarriak ezarri dira.</p> <p>Administrazio elektronikoari esker, herritarrek Internet bidez arindu ahalko dituzte euren ordainketak, edo diru-laguntzak, eskabideak edo agiriak izapidetu, dena etxetik irten barik.</p>	

(91. taula)

## BBPP\_Jun-go Udala

JUN-GO UDALA: LANGILE GUZTIAK TWITTERREKIN	
ERAKUNDEA	Jun-go Udala (Granada)
EREMUA	Publikoa
BESTE LOTURA BATZUK	<a href="http://www.finanzas.com/noticias/empresas/2011-09-26/562915_ayuntamiento-decide-todos-empleados-tengan.html">http://www.finanzas.com/noticias/empresas/2011-09-26/562915_ayuntamiento-decide-todos-empleados-tengan.html</a>
PROIEKTUAREN LABURPENA	
<p>Jun-go Udalak (Granada) bere langile publiko guztiak <b>Twitter</b> gizarte sarean erregistratzea erabaki du, herritarrei emandako zerbitzuak hobetzeko neurri gisa.</p> <p>EFeri egindako adierazpenetan, 3.635 biztanleko udalerririk horretako alkate José Antonio Rodríguez Salasek azaldu du ekimen hori herrian arlo horretan hartutakoie batu zaiela. Bertan, alkateak berak edo gobernu taldeko zinegotziek edo udaltzaingoak gizarte sare hori darabilte.</p> <p>Neurriak 44 laguni eragin die, garbiketa zerbitzuko, nagusien arretako edo mantenuko langileen artean, besteak beste. Alkatearen arabera, guztiak agertu dira parte hartzeko prest eta erabiltzaile pertsonala, euren izena eta abizena dituen, hautatu dute, ematen duten zerbitzua baino ez dakarren anonimoaren ordean.</p> <p>Jun-go erregidorea Espainiako Udal eta Probintzien Federazioko (FEMP) teknologia berrien eta informazioaren gizartearen batzordekidea da eta, hogeita hamar mila jarraitzaile izanda, sarean dagoen politikaririk aktiboenetako bat da.</p> <p>Neurria alkatearen dekretu baten bidez onartu da, hurrengo udalbatza egin arte atzeratu ez dadin.</p> <p>Gobernu batzordean ezagutaraztearekin batera, Jun-go alkateak aurreratu du gobernuari sistema bera erabiltzeko eta publikizatean eta hedapenean aurreratzeko eskaera bultzatuko duela.</p> <p>"Sistema horrekin segundo bitan mundu guztiak daki", erantsi du, inoiz udaltzaingoak herritarren mezuei esker esku hartu duela azaldu ondoren, zaratak edo kea direla-eta udaltzainak ohartarazi baitituzte. Horregatik, azpimarratu nahi izan dut neurri berriari esker, auzokide orok egin ahalko diela iradokizun bat kale-garbitzaileari, elektrizitateko teknikariari edo medikua-renean zerbakiak ematen dituen pertsonari.</p> <p>"Krisi garaietan, entzun diezaiegula behar du jendeak", azpimarratu du Jun-go alkateak.</p>	



## 17.

### E-inklusioa edota IKTen bidezko herritarren partaidetza sustatzeko ikuspegia jasotzen duten beste ekintza batzuk

Txosten berezi hau egin aurreko ikerketa prozesuaren baitan, eta metodologiari buruzko kapituluaren zehatzago azaldu denaz, informazioa eskatu zaie zenbait herri-administrazio mailari (gubernua, aldundiak eta hiri zein landa inguruneetako udalak), bidean dauden edo duela gutxi egin diren jarduketak batzuk aztertzeke, haietan e-inklusioaren, gizarteratzearen eta eremu sozial eta publikoko IKTen bidezko partaidetzaren sustapenaren ikuspegia jaso bada.

Ekintza multzo horretako ibilbidea gizarte taldeen arabera egingo da, euskal gizarteko talde jakin bati zuzendutako zenbait politika publikotatik abiarazitako ekimenei heltzeko, haietan arestian azaldutako ikuspegia jaso bada.

Eusko Jaurlaritzak baino ez dio eskaerari erantzun eta, beraz, administrazio horrek abiarazitako ekimen batzuk baino ez ditu jaso jarraian erakutsitako informazioak.

## 17.1. Ekintzak gizarte taldeen arabera

### 17.1.1. Adinekoak



#### ■ **BetiON (Euskadiko Telegarantza Zerbitzu Publikoa)**<sup>76</sup>:

Mendekotasun egoeran edo arriskuan dauden 65 urtez gorako pertsonentzako; bakarrik bizi diren 75 urtez gorako pertsonentzako; adimen, gorputz edo zentzumen ezgaitasuna edo gaixotasun mentala izanda mendekotasuneko egoeran dauden pertsonentzako; eta gizarte isolamendu arriskuko egoera jakin batzuetan dauden pertsonentzako zerbitzua.

Zerbitzuak erabiltzailearen etxebizitzako telefono-lineari lotutako gailu sinplea jartzen du zerbitzuak, eta hari esker urteko egun guztietan 24 orduetan arreta iraunkorra eduki daiteke. Deiak telegarantza zentral batera bideratzen dira eta bertan larrialdiko egoerei erantzun eta larrialdiko zerbitzuak, arreta psikosoziala, lagun egitea, jarraipena eta gizarte arretako baliabideei buruzko orientabidea ematen dira.

#### ■ **Zahartzen diren pertsonen ongizatean eta tratuan aurrera egiteko ehun proposamen**

Lan honen helburua adinekoek garapenean aktiboki parte hartuko duten gizartea eraikitzea eta herritar guztiak partaidetza hori aitortu eta baloratzea da. Hura idazten herri-administrazioek eta Euskadiko elkarte munduko ordezkariak parte hartu dute. Agiriak zahartze prozesuaren arreta eredu aldatzeko eta komunitateari egiten dion ekarpenaren ahalmena baliatuz zahartzaroa birbaloratzeke proposamenak jaso ditu.

<sup>76</sup> [www.tuamigoinvisible.net](http://www.tuamigoinvisible.net).

### 17.1.2. Etorkinak

#### ■ **Gidatzen (Immigrazioaren gidaliburua)**

Gidaliburua 7 hizkuntzatan dago eta gure herrira iristen diren pertsonak orientatzeko oinarritzko argibideak jaso ditu. Honakoei lotutako edukiak landu dira bertan:

- Nola erroldatu.
- Tratu txarren biktimen arreta.
- Osasun laguntza nola eskatu.
- Etxebizitza.
- Enplegua.
- Gidabaimena eskuratzea.
- Egoera erregularizatzeko nora jo.
- Seme-alabak nola eskolatu, etab.

#### ■ **Auzokide Berriak**

11-14 urte bitarteko nerabeen artean xenofobia eta arrazakeria prebenitzeko sortutako webgunea. Ekimen horren euskarri nagusia komiki bat da. Hango orrietan, neska-mutilek aurkituko dituzten pertsonaiek eta istorioek euren herritar balioei, migrazio prozesuei eta kultura arteko bizikidetzari buruz hausnartzera gonbidatuko dituzte.

#### ■ **Immigrazioaren aldeko Gizarte Ituna**

Immigrazioaren aldeko Gizarte Ituna Eusko Jaurlaritzaren Immigrazio, Herritartasun eta Kultura arteko Bizikidetzari buruzko 2011-2013 Planeko pieza nagusietako bat da. Eusko Jaurlaritzak hurrengo urteetan izango dituen immigrazio politiketarako ildo estrategikoak ezarri ditu Planak. Euskadiko erakundearen eta gizarte eragileen arteko eztabaida, elkarrizketa eta taldeko eraikuntza prozesu parte-hartzaile gisa pentsatu da. Prozesuan ahalik eta pertsona eta erakunde gehien –erakunde publikoak, gizarte eragileak, ekonomia eragileak, hedabideak, hirugarren sektoreko elkarteak eta erakundeak, etab.– engaiatzeko helburua dauka, eztabaida eta ekarpenak bidaltzea erraztuko duten tresnak eta [webguneak](#) erabilgarri jarri.

### 17.1.3. Adin txikikoak

#### ■ **Zeuk Esan, 116111 telefona**

Haur eta nerabeentzako doako orientabide, aholkularitza eta informazio zerbitzua (IKT tresnen bidez; besteak beste, telefonoa, kontsulta postontzia eta gizarte sareak). Zerbitzuan haurtzaroen eta nerabezaroen adituak diren psikologoek eta gizarte hezitzaileek ematen dute arreta. Halaber, adin txikikoek, hezkuntza komunitatearen eta familien eskura, eskubide eta betebeharrak buruzko informazioa eta [multimedia materialak](#) jarri ditu prebentzioan lan egiteko zenbait eremu kontuan izanda: afektiboa eta sexuala, elkarbizitza eta partaidetza.

### 17.1.4. Gazteak

#### ■ **Gazteukera ataria**

Euskadiko gazteriarren atari honetan honakoei buruzko informazioa eta parte hartzeke bideak ematen zaizkie gazteei:

- Lankidetzeta, boluntarioria eta elkartasuna.
- Berdintasuna.
- Aisialdiko hezkuntza.
- Sexualtasuna.
- Bakea.
- Elkartegintza eta gazte partaidetza.

### 17.1.5. Berdintasuna

#### ■ Emakumeak sarean

Eusko Jaurlaritzak Euskadi Informazioaren Gizartean 2010 Plana Euskadiko Agenda Digitalaren bidez abiarazi zuen proiektu hau. Proiektuak prestakuntza digitala ematen die emakume elkarte eta taldeei, emakume elkarten gizarte webak eskaintzen dituen aukerei balioa eman eta haien artean prestakuntza eta jardunbide egokien elkartrukea erraztu nahian. Prestakuntza horri esker, emakume elkarteek komunikaziorako eta herritar guztien edota talde zehatzten partaidetzarako informatika tresnak gara ditzakete. Proiektu horretan beharrezkoa da zenbait eragile engeiatzea. [EIGPK](#) egiten diren jarduerak dinamizatu eta koordinatzen ditu; [Emakundek](#) proiektua emakume taldeei helarazten laguntzen du; [KzGunea Sareak](#) berriazko prestakuntza ematen du.

### 17.1.6. Hezkuntza komunitatea

#### ■ Eskola 2.0 Programa erkidegoko lehen eta bigarren hezkuntzako ikastetxe guztietan ezartzea

Ekimen honen helburua ikasle guztiek IKTak berdintasunez eskuratu eta erabili ahal izatea eta tresna horien eskuragarritasun maila desberdinak gizarte-egoera ahulean dauden taldeentzat –etorkinak, hezkuntza premia bereziak dituzten ikasleak, gizarte-egoera ahuleko gizarte sektoreak, etab.– ekar dezakeen gizarte-etena ezabatzen laguntzea da. Proiektu horren esparruan berriazko hardware eta software baliabideak eskuratu eta garatzen dira, ezgaitasuna duten ikasleentz hezkuntza maila guztietako irakaskuntza-ikaskuntza prozesu guztietan parte har dezaten.

#### ■ Hiru.com ataria

Hiru.com euskal hezkuntza ataria sortzeko ahalegina da. Haren xedea Interneten bidezko hezkuntza zerbitzu publikoak ematea da, doako edukiak emanaz. Hiru.com ikaskuntza atari iraunkorra Eusko Jaurlaritzako Hezkuntza, Unibertsitate eta Ikerketa sailaren ekimena da, eta euskaldunen prestakuntza erreferente bihurtu nahi du, herritar aktibo eta parte-hartzaileagoak finkatu nahian. Plataformak sustatzen dituen balioen artean, prestakuntza iraunkorren eduki interesgarriak eta euskal gizarteko sektore asko erakartzeko balio dutenak sortzea da, herritarrek IKTak gehiago erabil ditzaten.

### 17.1.7. Funtzio aniztasuna

Eusko Jaurlaritzak web [eskuragarritasunarekin](#) duen konpromisoa, [euskadi.net](#) erakunde atariko politikan eta zenbait ekintza berritzaileen bidez –besteak beste, eduki batzuk zeinu mintzairan lokutatzea– islatuta.

### 17.1.8. Herritarrak orokorrean

#### ■ IREKIA

Gobernu irekiaren estrategia, zeharkako korporazio tresna gisa, Irekia proiektuan jaso da batez ere. Esparru horren helburua herritarren eta administrazioaren arteko zuzeneko komunikazioa bultzatzea da. Eusko Jaurlaritzako Lehendakari-tzari zuzenean atxikitako Gobernu Irekiaren Zuzendaritzak bultzatu du ekimena, eta gobernu osoaren konpromisoa eta engeiamendua izan ditu.

(123. irudia)

#### IREKIA atariaren kaptura (2012ko martxoa)



#### ■ Lan Irekia (Herritarren ekimenak garatzeko plataforma)

Plataforma honek euskal gizartearen esparruan gizarte oinarria duten eta IKTen erabilera intentsiboa egiten duten herritarren ekimenak jaso ditu, haien garapena eta sustapena bultzatu xedez. Hautatutako ekimenek euren jarduera arloan adituak diren profesionalen aholkularitza izango dute eta prozesuan parte hartu nahi duten enpresen eta erakundeentz lankidetzeta eskatuko da.

Webgunean agertu denez, lortutako emaitzak ekimen mapa batean argitaratuko dira, eta bertan ondorioak eta intereseko beste informazio batzuk partekatu ahaliko dira. Handik aterako den datu-basea eta azken emaitzak [Creative Commons lizentziaren](#) pean argitaratuko dira.

#### ■ Etxebizitzaren aldeko Gizarte Ituna

Etxebizitzaren aldeko Gizarte Itunaren helburua etxebizitza arloarekin zerikusia duten eragile publiko, pribatu eta gizarteko guztien arteko adostasuna lortzea da, datozen urteetan Euskadin garatu beharreko politika aktiboaren ildo estrategikoak eta jarduketa eremuak bideratu ahal izateko eta prestatu behar zen Etxebizitzaren Lege proiektuaren oinarria izateko. Gizarte ituna 2010eko ekainaren 16an sinatu zuten 70 gizarte eta ekonomia erakunde baino gehiago, etxebizitza politikari buruzko *zerikusia duten eragile guztiekin oinarriko adostasunetara iristeko parte-hartze eta eztabaida prozesua* egin ondoren, ituna sinatu ondoren ere hari jarraituz, hartutako konpromisoak gauzatu daitezten.

#### ■ Etxebizitza eta Hiri Berroneratzeko 2010-2013 Plan Zuzentzailea

Plan zuzentzaile hau ere era parte hartzailea egin zen, webaren bidezko informazioa, *online* plataforma, gizarte sareak, bloga, aditu taldeei egindako inkestak, etab. erabiliz.

Eragin mailari dagokionez, Eusko Jaurlaritzak jakinarazi duenez, jasotako proposamenen % 85 ageri dira Etxebizitza Plan Zuzentzailean.

■ **Etxebizitzaren Euskal Legearen Aurreproiektua**

Etxebizitzaren Euskal Legearen Aurreproiektua era parte-hartze prozesu baten bidez burutu da, eta herritarren proposamenen % 4 sartu dira testuan

■ **EcoEuskadi 2020. Euskadiko 2020ko Garapen Iraunkorren Estrategia**

Estrategia hau prestatzeko ere herritarrek parte hartu dute, aurrez aurre zein birtualki. Prozesu parte-hartzaile honetan zenbait sentsibilitate eta ikuspegi biltzen dituzten ekonomia, politika eta gizarte eragileak mugiarazi dira. Haiek denek lagundu dute klima aldaketa, mugikortasuna, belaunaldi erreleboa, balio sistemaren aldaketa edo energia eredua bezalako alderdietan ideiak emanez.

Partaidetza prozesuak zabalik jarraituko du estrategia ezartzeko epe osoan (2020).

**18.**

**Euskadiko herritarrei telefonoz eten digitalei buruz (e-inklusioa eta e-partaidetza) egin beharreko inkestaren galdeategia**

Egun on / Arratsalde on, ..... izena dut eta Euskadin teknologia berrien erabilerari buruzko ikerketa bat egiten ari naiz. Lagunduko didazu oso laburrak diren zenbait galderi erantzunez? Eskerrik asko.

**1.G.** Hasteko, esan ahal didazu zer maiztasunekin erabiltzen duzun internet?

1. Egunero
2. Astero baina ez egunero
3. Gutxienez hilean behin
4. Hilero ez
5. Behin ere ez
6. Ed/Ee

**2.G.** Zer maiztasunekin erabiltzen duzu internet honako alor hauetan?

	Egunero	Astero	Gutxienez hilean behin	Hilero ez	Behin ere ez	Ez da behar
Lanean edo ikasketetan	1	2	3	4	5	6
Lanari lotutako gaietan prestatzeko	1	2	3	4	5	6
Lagunekin edo senideekin erlazionatzeko	1	2	3	4	5	6
Gizarte-sareetan parte hartzeko (Facebook, Twitter...)	1	2	3	4	5	6
GKE-etan, elkarteetan, borondatezko lanetan... parte hartzeko	1	2	3	4	5	6

**3.G.** Esan ahal didazu, mesedez, zenbat denboraz erabili zenuen atzo internet?

Idatzi: \_\_\_\_\_ minutu

**4.G.** Interneten eta teknologia berrien erabilerari dagokionez, zure burua oinarrizko erabiltzailetzat, erabiltzaile aurreratutzat ala aditutzat jotzen duzu?

1. Oinarrizkoa (fitxategiak kopia edo mugitu, testuak idatzi, formula sinpleak erabili kalkulu-orrietan...)
2. Aurreratua (testuei formatua eman, formula aurreratuak erabili, grafikoak sortu, programak instalatu...)
3. Aditua (makroak idatzi, programatu, software eta hardwareari lotutako arazoak konpondu...)

**5.G.** Nola ikasi duzu edo ikasten ari zara internet edo informazioaren eta komunikazioaren teknologia berriak erabiltzen? Erantzun anizkuna (aipatu)

1. Zeuk ordaindutako ikastaroak
2. Zure enpresaren bitartez egindako ikastaroak
3. Doako ikastaro edo tailerrak (ekimen publikoa)
4. Lagunen edo senideen bidez
5. Autodidakta
6. Ed/Ee

**Ikastaro bat gutxienez egin badu. Gainontzekoak 7.G-ra**

**6.G.** Noiz egin zenuen interneti edo teknologia berriei lotu-tako azken ikastaroa?

1. Duela 6 hilabete baino gutxiago
2. Orain dela 6 eta 12 hilabete bitartean
3. Orain dela urte 1 eta 2 bitartean
4. Orain dela 2 eta 3 urte bitartean
5. Orain dela 3 eta 5 urte bitartean
6. Orain dela 5 urte baino gehiago

**7.G.** Behar izanez gero, jakingo zenuke gaur egun lan merka-tuak eskatzen dituen ezagutza digitalak non eskuratu?

1. Bai
2. Ez
3. Ez dut behar (berezkoa)
4. Ed/Ee

**8.G.** Zure ustez, zeintzuk dira gaur egun teknologia berriak ez erabiltzearen desabantaila nagusiak? (Berezko eran-tzuna)

**9.G.** Zure egoera pertsonala aintzat hartuta, zure bizitzako zer alderdi hobetu da gehien internet eta teknologia ber-rien erabilerari esker? (Berezko erantzuna)

**10.G.** 0-10 puntuko eskala erabiliz (0k esan nahi du ez zau-dela batere ados eta 10ek guztiz ados zaudela esan nahi du), esan ahal didazu, mesedez, zein neurritan zauden ados interneti eta teknologia berriei lotutako esaldi hauekin?

- Teknologia berriek nire bizi-kalitatea hobetu dute puntu
- Teknologia berriak erabiltzea gustatzen zait eta ezingo nuke haiek gabe bizi puntu
- Aukera gehiago eskaintzen didate lan merkatuan puntu
- Pertsona gehiago ezagutu eta haiekin erlazionatzeko aukera eman didate puntu
- Lan merkatuak eskatzen dituen laneko ezagutzak ditut puntu
- Nire herriko edo lurraldeko gizartean eta bizitza politikoan parte hartzeko aukera ematen didate puntu
- Teknologia berriek nire osasuna hobetu dute puntu
- Nire lan egoera hobetzeko aukera eman didate puntu
- Teknologia berrien erabilerari onura gehiago atera nahi diot puntu

**11.G.** Zure ustez, zenbait pertsona edo kolektibok teknolo-gia berriak erabiltzeko aukerarik ez edukitzeak gizarte bazterkeria eragin dezake?

1. Bai
2. Ez
3. Ed/Ee

**12.G.** Zure ustez, zein dira zenbait pertsona eta gizarte kolektibori informazioaren eta komunikazioaren tek-nologiak erabiltzea galarazten dieten oztopoak? (Berezko erantzuna)

**13.G.** Pertsona horientzat teknologia berriak erabiltzeko aukera errazteko moduari dagokionez, zenbait neurri biltzen dituen zerrenda hau ordenan jarri ahal duzu, garrantziaren arabera? Hasi zaitetz, mesedez, garran-tzitsuenetik garrantzi gutxien duen aukerara arte.

	Garrantzitsuena	2.	3.	Garrantzirik bikiena
Ekipoen eta zerbitzuen kostua murriztea	1	1	1	1
Onurak eta erabilera praktikoa azaltzea	2	2	2	2
Erabiltzen irakasteko ikastaroak antolatzea	3	3	3	3
Erabiltzen errazagoak diren ekipo eta programak egitea	4	4	4	4

**14.G.** Azken 12 hiletan, izapide edo kudeaketaren bat egin duzu internet bidez ...(r)ekin?

**15.G.** Zein neurritan zaude pozik ...(r)ekin internet bidez egindako kudeaketa gauzatzeko moduarekin? Oti-k 10era bitarteko eskala erabili ezazu (0k esan nahi du ez zaudela batere gustura eta 10ek esan nahi du guz-tiz gustura zaudela).

	Interneteko izapidea		Gogobetetasuna
	BAI	EZ	0-10 eskala
Eusko Jaurlaritza	1	2 ↻	<input type="text"/>
Foru Aldundia	1	2 ↻	<input type="text"/>
Udala	1	2 ↻	<input type="text"/>

**Kasuren batean gogobetetasuna 5 puntu baino gutxiago-rekin baloratu baduzu baino ez. Gainontzekoak 17.G-ra**

**16.G.** Zergatik ez zaizu esperientzia gustatu? Zer alderdi hobetu behar da? (Berezko erantzuna)

**17.G.** Oro har, administrazioarekin egin beharreko izapideak burutzeko zer nahiago duzu: internet bidez egin ala bulegoetara joan?

1. Internet bidez
2. Aurrez aurre
3. Berdin dit (berezkoa)
4. Izapide motaren arabera (berezkoa)
5. Administrazio motaren arabera (berezkoa)
6. Ed/Ee

**18.G.** 0-10 puntuko eskala erabiliz (0k esan nahi du ez zaudela batere ados eta 10ek guztiz ados zaudela esan nahi du), esan ahal didazu, mesedez, zein neu-rritan zauden ados teknologia berriei lotutako esaldi hauekin?

- Haiei esker herritarrek gehiago parte hartzen dute erakundeetan puntu
- Erakundeak herritarrengana hurbildu dituzte puntu
- Herritarren eskubideak hobeto ezagutzeko eta defendatzeko aukera eman dute puntu
- Gizarte desberdintasunak gutxitu egin dituzte puntu
- Haiei esker Eusko Jaurlaritzak ematen dituen gizarte zerbitzuak hobetu dira puntu
- Haiei esker Osakidetzak emandako osasun zerbitzuen kalitatea hobetu da puntu

**19.G.** Noizbait egin duzu jarraian aipatutako jardueraren bat edozein herri-administrazioaren web orrialdearen bitartez?



**20.G.** Zein administrazioaren zein web orrialdean? (Erantzun anizkuna)

	Egin zuen		Administrazioaren weba				
	BAI	EZ	Jaur.	Ald.	Udala	Beste	
Jaurilaritzari eta haren politikari buruzko informazioa eskatu	1	2	3	1	2	3	
Herritarrei egindako kontsultetan parte hartu	1	2	3	1	2	3	4
Iradokizunak edo proposamenak egitea	1	2	3	1	2	3	4
Kexak edo erreklamazioak mahaigaineratu	1	2	3	1	2	3	4

**Bat gutxienez egin badu baino ez. Gainontzekoak 24.G-ra**

**21.G.** Erantzuna espero zenuen kasuetan, administrazioaren erantzuna jaso zenuen?

1. Bai, beti
2. Kasu batzuetan
3. Ez, inoiz ez
4. Ed/Ee

**22.G.** Zergatik parte hartzen duzu zure inguruan edo eremu publikoan? (Berezko erantzuna)

**23.G.** Zure ustez, zure parte hartzea zein neurritan izan da erabilgarria zuretzat edo gainontzeko herritarrentzat? Aipatu.

1. Oso erabilgarria
2. Nahiko erabilgarria
3. Ez oso erabilgarria
4. Ez du eraginik izan

**Bakarrik ez baduzu inoiz egin. Gainontzekoak 25.G-ra**

**24.G.** Zergatik ez duzu inoiz egin? (Berezko erantzuna)

**Guztiei**

**25.G.** Zenbait pertsona edo kolektibok erabiltzen ez dakite-nez edo ezin dutenez erabili, parte hartze prozesuetan teknologia berriak gaineratu izana gizarte bazterkeria eragingo duen faktore berria izango dela uste duzu?

1. Bai
2. Ez
3. Ed/Ee

**26.G.** Interneten bidez Euskadiko politikari lotutako gaietan parte hartu ohi duzu, gizarte sareetan, webetan, foroetan, blogetan, egunkari digitaletan eta abarretan oharrak edo proposamenak eginez?

1. Bai
2. Ez → P28
3. Ed/Ee → P28

**27.G.** Ohar horiek herri-administrazioenak diren orrialdetan edo herri-administrazioenak ez diren orrialdetan egiten dituzu?

1. Administrazioarenak
2. Administrazio bestekoak
3. Bata nahiz bestea
4. Ed/Ee

**28.G.** Euskadiko gizarte eremuan eta eremu publikoan, zure foru aldundian edo udalean parte hartze handiagoa eduki nahiko zenuke?

1. Bai
2. Ez → D1
3. Ed/Ee → D1

**29.G.** Nahiago duzu parte hartze hori internet bidezkoa izatea ala parte hartzeko esparru fisikoen bidez, hau da, aurrez aurre?

1. Internet bidez
2. Aurrez aurre
3. Biak uztartuta (berezkoa)
4. Berdin dit (berezkoa)
5. Jorratuko den gaiaren arabera (berezkoa)
6. Ed/Ee

Bukatzeko eta bakarrik zure erantzunak sailkatze aldera, esan ahal didazu...

**1.D.** Adina?

Idatzi: \_\_\_\_\_ urte

**2.D.** Sexua:

1. Gizona
2. Emakumea

**3.D.** Bukatutako ikasketa maila:

1. Lehen hezkuntzako ikasketak bukatu gabe
2. Lehen hezkuntza
3. Bigarren hezkuntza
4. Unibertsitatea

**4.D.** Lanbidea:

1. Bere kontu lan egiten du
2. Besteren konturako langilea
3. Langabetua
4. Erretiraturua
5. Ikaslea
6. Etxeko lanak

**5.D.** Aitortutako ezgaitasunen bat daukazu?

1. Bai
2. Ez → D7
3. Ed/Ee → D7

**6.D.** Zein motatakoa? (Erantzun anizkuna)

1. Fisikoa
2. Mentala
3. Adimenekoa
4. Zentzumenekoa

**7.D.** Euskadin jaio zara?

1. Bai → D9
2. Ez

**8.D.** Zein da zure herritartasuna?

1. Espainiarra
2. Beste bat:

**9.D.** Zer udalerritan bizi zara?

**10.D.** Lurralde historikoa idatzi:

1. Araba
2. Bizkaia
3. Gipuzkoa

Mila esker zure laguntzagatik, egun ona opa dizut.

## 19.

## Adituekin egindako elkarrizketa eta lan-mahaian izandako ekarpenak

### 19.1. Euskadiko e-inklusioari eta IKTen bidezko gizarte eremuko eta eremu publikoko herritarren partaidetzari buruzko txosten bereziaren esparruan adituei egindako elkarrizketetan jasotako indar-ideiak

#### Testuingurua



Ikerketa eta informazio bilketa fasean erabilitako teknike-tako bat erdi egituratutako banakako elkarrizketak egitea izan zen.

Elkarrizketa gehienak aurrez aurre egin ziren, Euskadiko hiru lurraldeetako (Araba, Bizkaia eta Gipuzkoa) Ararte-

koaren bulegoetan, 2011ko uztailean eta abuztuan.

#### Parte-hartzaileak

Elkarrizketan parte hartu zuten 14 parte-hartzaileak txosten berezi honetan aztertu beharreko gaian zuten ezagutza eta esperientziaren arabera hautatu ziren, sektore publikoa, pribatua eta hirugarren sektorea ordezkatuta egotea bilatuta.

<b>Adela Mesa</b>	Euskal Herriko Unibertsitateko Politika Zientzia eta Administrazioari irakasle titularra. Politikaren eta administrazioaren, administrazio modernizazioaren eta politika publikoen arteko harremanak ikertzen lanean aritu da. Orain dela zenbait urte, bere ikerketek <b>e-government</b> (e-administration, e-democracy) delakoa daukate hizpide, baita oro har gobernantzari buruzko azterlanak ere
<b>Asier Gallastegi</b>	Aholkularia; berrikuspina, <i>coaching</i> , familia terapia eta irakaskuntzaren arloko zenbait erakunderekin lankidetzan aritzen da. Gizarte hezitzailea. Familia Terapiaren Euskal Nafar Eskolan psikoterapeuta sistematikoki dagokion titulua atera zuen
<b>Javier Elzo</b>	Deustuko Unibertsitateko Soziologian katedraduna eta gizarte ikertzailea
<b>Jorge Flores</b>	Pantallas Amigas delakoaren sortzaile eta zuzendaria. Informatikan lizentziatua Deustuko Unibertsitatean. IKTen erabilera seguruari lotutako argitalpen eta tresna didaktiko batzuen zuzendari eta egilea; <i>grooming</i> , <i>ciberbullying</i> eta <i>sexting</i> bezalako gaiak bereziki azpimarratu ditu
<b>José Miguel Azkoitia</b>	Tecniala Reserch & Innovation delakoan Negozioaren Garapena-Osasunaren dibisioa atalaren zuzendaria. Euskal Herriko Unibertsitateko doktore ingeniaria
<b>Joseba Zalakain</b>	Eguia-Careaga fundazioaren SIIIS Dokumentazio eta Ikerketa Zentroko zuzendaria. Kazetaritzan lizentziatua EHUan

<b>Juan Manuel Cabasés</b>	Ekonomia Zientzietan lizentziatua eta doktorea Euskal Herriko Unibertsitatean, Ekonomiako irakaslea izan da zenbait unibertsitatetan. Une honetan Ekonomian katedraduna da Nafarroako Unibertsitate Publikoan. Behin-behinean Munduko Osasun Erakundearen (MOE) eta Garapenerako Banku Inter-amerikarraren aholkularia izan da. Nafarroako Gobernu Osasun Departamentuko zuzendari nagusia izan da (1988-1991), baita Eusko Jauriritzako Osasun Saileko Osasun Informazioaren eta Ebaluazioaren zuzendari nagusia ere (1987)
<b>M.ª Antonia Ozcariz Rubio</b>	Eusko Jauriritzako Hezkuntza, Unibertsitate eta Ikerketako sailburuordea
<b>Mireia Espiau Idogaya</b>	EUDELeke (Euskal Udalen Elkarte) programen arduraduna. Soziologoa eta eragilea aukera berdintasunaren arloan. Generoan eta garapenean espezializatua, irakaslea da Espainiako zenbait unibertsitateko graduondoko ikastaroetan eta, eremu horretan, berdintasunaren aldeko organismoekin eta garapenerako gobernu kanpoko erakundeekin lankidetzan aritzen da
<b>Patxi Leturia</b>	Gizarte Ongizaterako Foru Erakundearen zuzendariorde teknikoa (Arabako Foru Aldundiko Gizarte Politika eta Gizarte Zerbitzuen Sailari atxikia). Matia fundazioko Gizarte Zerbitzuaren eremuko zuzendaria izan zen
<b>Pilar Irurzun Huici</b>	Eusko Jauriritzako Lehendakariordetaren aholkulari juridikoa. Administrazio elektronikoren Arauk Garatzeko Atalaren arduraduna
<b>Reina Ruiz Bobes</b>	Emakundeko (Emakumeren Euskal Institutua) aholkularia
<b>Rosabel Argote</b>	Eraniako –CEAREko (Euskadin Errefuxiatuei Laguntzeko Batzordea) hausnarketarako eta kulturen arteko ekintzarako eremua– gizarte ikertzailea. Los Scribas izeneko taldearen bazkide sortzailea (idazle, sortzaile eta ilustratzaile osatutako taldea)
<b>Susana del Río</b>	Ikertzailea. Gobernantza Demokratikoaren Institutuan Europa ataleko zuzendari akademikoa. Science, Society and Governance delakoan Europako Batzordeko Aditu Independenteen Batzordeko kidea, baita Citizens and governance in the knowledge based society, Task 4 –“Democracy in a supranational context”– programa markoko kidea ere. Herritarren parte hartzearen eta Europako ekintza komunikatiboaren arloan aholkularia

#### Ateratako indar-ideia nagusiak

Indar-ideiak honako gaien inguruan erakusteko antolatuta dira:

- IKT, bizi kalitatea eta gizarte ongizatea.
- Infobazterketako arriskuan dauden gizarte taldeak.
- Sarbidearen eten digitala.
- Erabilerearen eten digitala
- Eskuratzearen eten digitala
- Parte-hartzearen eten digitala

#### ■ IKT, bizi kalitatea eta gizarte ongizatea

- Gaur egun **bizi kalitatea** osasunari, lasaitasunari, inguru gertuenaren (familia) segurtasunari lotuta dago. Alegia, bizi kalitateak, egun ulertzen den bezala, zerikusi handia dauka egungo gizarteko balio nagusietako batekin: norberekoitasunarekin.
- IKTek **bizi kalitate hobea eskuratzeko ahalbidetzen dute**.
- **Baina ez beti**. Ez dirudi prozesu hain lineala. Alderdi jakin batzuk hobetu eta beste batzuk okertu egiten ditu

(gaininformazioa, lanari kateatzea, beti aurkigarri ego-  
tea, etab.).

- IKTek **pertsonen eta euren ingurunearen arteko erla-  
zioa errazten dute.**
- **Baina** gizarte **eten eta desberdintasun berriak ere  
sortzen ditu:** IKTak erabiltzen ez dituztela-eta haien  
onurak jasotzerik ez duten pertsonak.
- **Egungo gizarte erronka handientzat erantzun be-  
rriak** eraikitzen lagundu dezakeen eta parte hartu behar  
duen tresna dira.
- **Baina berez ez dute ondorio automatikorik eragiten.**  
Gakoa erakundeek, pertsonak, enpresek eta abarrek  
ezartzeko, erabiltzeko eta baliatzeko moduan dago.

#### ■ **Infobazterketako arriskuan dauden gizarte taldeak**

- Eten digitalen **jatorriaren** analisisan aldagai batzuk  
nabarmentzen dira: adina, sexua, ikasketa maila, etor-  
kina izatea, landatarra izatea, erosahalmena, ezgaita-  
suna (batez ere, adimen ezgaitasuna).
- **Desberdintasunak handitu edo larritu egiten dira  
aldagai horiek gurutzatuta.** Adibidez: ezgaitasuna +  
emakumea + adina + landatarra.
- Aldagai soziodemografiko/sozioekonomiko horien  
eraginari buruzko **etorkizuneko ikuspegiak** diosku  
eten digitalak txikiagotu egingo direla, besteak beste,  
honako taldeen artea: emakumeak, adinekoak, ezgai-  
tasuna duten pertsonak. Adinekoei dagokienez, esate-  
rako, hamarkada pare bat barru adinekoak izango di-  
renen IKTen erabilera mailak baikor izateko modukoak  
dira, eten digitalak murriztu egingo baitira, eskuraga-  
rritasunari eta erabilerari dagokienez. **Hura** eskuratz-  
**eta** partaidetza-etenetara **estrapolatzea zailagoa da.**

#### ■ **Sarbidearen eten digitala**

- Orokorrean, sarbidearen eten digitala **gaindituzat jo  
ohi da.** Teknologia hedatuenei (telebista, mugikorra, or-  
denagailua eta Internet) eta herritar gehienei buruz hitz  
egiten dugunean, behintzat.
- Hala ere, gizarte talde jakin batzuek sarbide-eten han-  
diak dauzkate oraindik.
- Adibidez: **gizarte-egoera oso ahuleko** egoeran  
(txirotasun material edo ekonomiko, etxebizitza ara-  
zoak, legezko arazoak, etab.) dauden pertsonak →  
egun, baliabide urriak pertsona horiek IKTetarako sar-  
bidea eta gaikuntza digitala emateko.
- **Errealitateak dioskunez, talde horiek euren bizi ka-  
litate hobea lezaketek IKTen erabilera eta zenbait  
ekintza, hala nola lana bilatzea, gizarte eremuan  
parte hartzea, etab., lotzeko gai bagina.**
- **“Adina”** aldagaia ere garrantzitsuenetako bat da.
- Adinarekin gurutzatuta, beste eragile batzuk daude,  
hala nola ikasketa maila, generoa edo errenta maila  
(adibidez: adinekoa, emakumea, bakarrik bizi da, ikas-  
keta maila txikia eta errenta txikia), eta IKTak eskura-  
tzeko inhibitzaile edo oztopo joka dezakete.
- Garrantzitsua da pertsona guztiak IKTak eskura di-  
tzaketela bermatzea. Horrek ez du esan nahi, eta ez  
da posible, Euskal Herriko etxe guztiak izango dutela  
IKT ekipamendu jakin bat edo Interneterako sarbidea.  
→ **Eskuragarritasuna demokratizatzeak** eskatzen du

pertsona guztiak izan behar dutela tresna horiek erabili  
ahal izateko aukera. Horrek zenbait baliabide publiko  
edukitzea eskatzen du, IKTak eskuratzeko aukera ber-  
dintasuna bermatzeko (horrek ekipamendua esan nahi  
du, baina baita gaikuntza eta lagun egitea ere).

#### ■ **Erabileraren eten digitala**

- Erabileraren eten digitala esateak ez dirudi oso zehatza.  
Erabilera desberdintasunak azaltzeko eredu posible bat  
“ahalduntze digitala” litzateke → norik bere erabilera  
maila dauka (ahalduntze digitala).
- Ahalduntze digital mailen artean, **aldagai baldintza-  
tzaileak** identifikatu dira, hala nola adina, sexua edo  
ikasketa maila. Esaterako:
  - Gizonek eta emakumeek ez dituzte IKTak berdin  
erabiltzen. Orokorrean, gizonek emakumeek baino  
ordu gehiago ematen dute IKTak erabiltzen.
  - Emakumeek erabilera praktikoagoa (tresna gisa)  
ematen diete, eta gizonek, aldiz, gehiago inbertitzen  
dute aisiari lotutako IKTetan.
  - Errealitate horretan zenbat dago lotuta gizonen eta  
emakumeen denboraren erabilera desberdinei?  
(emakumearen jardunaldi bikoitzaren eragina)
  - Eta kultura eta hezkuntza alderdiei? → Datua: biga-  
rren hezkuntzan bertan mutilen eta nesken arteko al-  
deak sumatzen dira IKTen erabilerari dagokionez →  
ikasketa jakin batzuen maskulinizazioa edo feminiza-  
zioa, etab.
- Gakoa hemendik igaroko litzateke: **nola egiten da au-  
rrera “ahalduntze digitalaren eskala” horretan?** Zer-  
gatik pertsona batzuek haien erabileraren intentsitatean  
aurrera egin eta heldu egiten diren eta beste batzuk ez?  
Balizko ikaskuntza-etenik al dago? Non dago eten ho-  
rren jatorria?
- Maiz, **gaikuntza teknologikoaren metodologiak** hez-  
kuntza formalaren eredua errepikatzen du eta, beraz,  
gizarte talde askok behar dituzten ikasteko modutik eta  
erosotasunetik urruntzen da.
- Pertsona batzuek dena oso azkar doala sentitzen dute.  
IKTen aurrera egiteko erritmoa pertsona askok teknolo-  
gia batez jabetzeko behar dutena baino azkarragoa da  
→ **“gainditua”** izatearen sentipena eta **“motibaziorik  
eza”**.
- Talde batzuek, batez ere adinaren arabera, IKTetan  
euren tokia aurkitzen ez dutela sumatzen da. Ez dute  
aurkitzen euren interesari lotutako **eduki digitalik** –es-  
kuragarriak, erabilgarriak eta haien artean diseinatuak–.
- “Ahalduntze digitala”aren prozesuan aurrera egiten edo  
gelditzen lagundu diezagukeen **“IKTen aurreko jarre-  
ra”** eduki handia dago. Jarrera horren zioa tresnaren  
premia, baliabidean izandako konfiantza, ziurgabetas-  
una sumatzea (adibidez, Internet bidezko erosketen-  
tan), berdinkideen artean arrakasta kasurik ez ezagu-  
tzea, aukera berriak aurkitzeko, etab. izan daitezke.

#### ■ **Eskuratzearren eten digitala**

- IKTen eskuratzearren eten digitala “ahalduntze digitala”aren taulako goiko  
aldean legoke. Heldutasuneko unea islatuko luke. Ber-  
tan agertzen diren **erabilera berriei, aurreratuei eta  
berritzaileei** esker, pertsonak IKTen bidez bere ingu-  
runean esku hartzeko gaitasun handiagoa lortzen du.

- Zentzu horretan, sortzetiko digitalak –gehienez tresna horien ikasketa informala eta berezkoa egin dute– IKTen “eskuratzeko”aren adierazpen handientzat jo ohi dira.
- Sortzetiko digitalek, ordea, gabeziak dauzkate IKTen erabileraren alderdi garrantzitsu batzuetan, hala nola nortasun digitalaren kudeaketa zuzenean, sarean dituzten bizi birtualen trazabilitatean, arriskuak hartzean...
- Egun IKTen eskuratzeko **partaidetza**, herritartasun digitala, **elkartasuna edo gizarte zuzentasuna** bezalako kontzeptuei lotzen zaie?
- Zuzena da, beraz, IKTen erabilera intentsiboa eta IKTen eskuratzeko parekatzea?
- Ahalduntze digitala lauki guztietatik igaro beharreko **prozesu lineala ez dela** ikusten hasi da. Batzuetan, erabilera berritzaile eta sortzaileak (hartaileei ondo egokituak) gizarte talde jakin batzuk (esaterako, adinekoak) IKTetara erakartzeko polo gisa erabil daitezke.

### ■ Parte-hartzearen eten digitala

- Ekarpentzen batzuen arabera, asko hitz egiten da partaidetza bidez berriak eskatzen dira, protagonismo handiagoa, baina herritarren partaidetza **eremu sozial eta publikoan txikia da**.
  - **Gazteen artean**, esaterako, partaidetza oso txikia da. Maiz, politika interesatzen ez zaiela esaten da. Hausnarketa batzuen arabera, euren etorkizunari eta hari eragiten dioten erabakiei buruzko interesa eta kezka dute, baina sistemarekin etsita daude, botoak erakartzeko makina bihurtutako politiken eta politikarien irudi distorsionatuarekin.
  - Parte-hartze txiki horren erroan zenbait eragile egon litezke, hala nola **“gizarte ideiei” buruzko interes txikia**, egungo gizartean nagusi den norberekoitasun handia, eta **“talde proiektuei” buruzko interes urria**.
  - Seguruenik, **publikoerikiko mendekotasun handiegia**, administrazioari gero eta babes handiagoa eskatzeak, parte hartzeko premia txikia eragin dezake.
  - Eremu publikoan parte hartzeak posibilitate handiak dauzka eta aukera interesgarriak konkistatzea dakar, baina beharbada herritarren partaidetza hori **nola egingo den**, nola eratu den, etab. **eztabaidatu behar dira lehenago**.
  - Lehenagoko eztabaida hori gabe, **partaidetza “erretzeko” arriskua** dago → parte hartu eta ondorioz edo emaitzarik ikusten ez badut (huts egiteko arriskua).
  - Elkarrizketetako ekarpen batzuen arabera, **administrazioak gehiegi zaintzen du** eremu publikoko **partaidetza**. Izaera formal, arautu horrek, beharbada, ez ditu herritarrek erakartzen.
  - Arazoak konpontzeko **gizarte ekimenak** emaitza onak eman ditu beti. Administrazioak lagun egin, laguntza eman behar du, baina baita egiten utzi ere bai.
  - IKTak **tresna ona dira** gizarte ekimenaren eta administrazioaren arteko elkarrizketa errazteko.
  - IKTek **ez dute “aurrez aurreko” ordeztu behar partaidetzan**. Eremu sozial eta publikoko partaidetza IKTen bidez gehiegi bideratzeak egun IKTak erabiltzen ez dituzten pertsona horiek guztiak baztertu litzake.
- Inguru gertuenetiko, etxeko inguruetako partaidetza esparruak berreskuratu/birkonkistatu behar dira.
- Talde batzuek, hala nola adinekoek, adibidez, lan bolutarioaren bidez parte hartzen dute gizarte eremuan (emakumeek batez ere). Aurrez aurreko partaidetza da, aurpegia eta eskuak emanda. Pertsona horiek IKTetara hurbiltzeko beste interesgune batzuk behar dira gehiago, hala nola osasuna eta segurtasuna. Non dago “eremu sozial eta publikoko partaidetza” + “adinekoak” + “IKT” lotzeko gakoak?
  - Gizarte arazo handiak dituzten eta gizarte-egoera oso ahulean dauden beste talde batzuei dagokienez, lehenagoko eskalan oinarritako premiek partaidetza kontzeptua gainditzen dute. Horrek, IKTei dagokienez bizi duten sarbide eta erabileraren etenarekin batera, are gehiago urruntzen du pertsona horien partaidetza.
  - Eremu publikoko partaidetzari dagokionez, dirudienez, **“erantzunkidetasun informatua”**ren ereduak zentzua hartuko luke. Parte hartu ahal izan aurretik, informazioa eduki eta irizpidea eratu behar da. Partaidetza esperientzia handinahiagokoan **“aurreko etapa”** bat da → **[taldeko lana + informazioa + denbora = parte hartzeko gaitasuna]**.
  - Ikuspegi horretatik, erronka berriak sortzen dira, hala nola **demokrazia ordezkatzailerak eta demokrazia erabakitzailea** elkarbizitzeko.
  - **Eremu publikoak sinesgarritasuna berreskuratu behar du**. Administrazioaren gardentasuna, datuak irekitzea edo **irekia** bezalako esperientziak urrats handiak dira, baina asko dago egiteko eta lortzeko.
  - Ekarpentzen arabera, **partaidetzarako maila guztien arteko (tokikoa, nazioa eta Europakoa) koordinazio handiagoa behar da** → toki mailan egiten den partaidetza ez dago guztiz koordinatuta nazio edo Europa mailan egiten denarekin. Maila bakoitzeko lana positiboa da, baina ez dago guztiz koordinatuta.
  - Administrazioaren ikuspuntutik, partaidetza berrikuntza funtsezko modu bat da. IKTak administrazioetan sartzeko egungo unea baliatu behar da herritarren partaidetza esperientzia berriak erakartzeko poloa izan dadin.
  - Partaidetzak plangintza ere eskatzen du, ez dugu bat-batekotasunaren esku utzi behar, bestela esperientzia txarrak erein eta mesfidantzak sortuko ditugu.
  - Partaidetzak gobernantza partekaturantzko bidea izan behar du, ez kontsulta bat egiteko edo kontu jakin batzuk elektronikoki bozkatzeko unean uneko prozesu multzo bat.
  - Arestian parte hartzeko informazio beharraz hitz egin dugu. Kontuz, informazio hori “deskodetu” behar da herritarrek hura eskuratu eta ulertu ahal dezaten. Parte hartzeak itzulpena eta informazio adeitsua behar ditu.
  - Administrazioak erronka garrantzitsua dauka haren aurrean: dagoeneko gizartean parte hartzen eta ekarpenak egiten ari diren partaidetza birtual eta fisikoko komunitate horiekin konektatzen jakitea, eta haien mezua entzuten eta euren politikan biltzen jakitea (behetik gorako partaidetza).



## 19.2. Euskadiko e-inklusioari eta IKTen bidezko gizarte eremuko eta eremu publikoko herritarren partaidetzari buruzko txosten bereziaren esparruan Arartekoko Haur eta Nerabeentzako Kontseiluarekin egindako bilera berezian jasotako indar-ideiak

### Testuingurua



Informazio bilketarako erabilitako beste teknika bat Arartekoaren Haur eta Nerabeentzako Kontseiluarekin bilera berezia egitea izan zen, 2011ko azaroan Bilboko [Alondegian](#).

Bilera bereziaren bidez, Haur eta Nerabeentzako Kontseilua osatzen duen adingabe talde batekin txosten berezi honetan aztertutako gaia eztabaidatu nahi izan zen. Euren egunerokotasunean IKTen integrazioa bizitzeko duten moduari buruz dauzkaten iritzia eta ekarpenak, euren bizitzak hobetzeko eskaintzen dizkieten aukerak, eta herritarren partaidetzari buruz duten pertzepzioa (egun nola parte hartzen duten eta etorkizunean nola parte hartu nahi luketen) ezagutu nahi genituen.

Saioa dinamizatzeke, taldeko [teknika sortzaileak](#) erabili ziren, hala nola buru-mapak eta *Lego Serious Play* gai horien analisia modu lasai baina eraginkorrean gidatzeko.

### Parte-hartzaileak

Nork osatzen du [Arartekoaren Haur eta Nerabeentzako Kontseilua](#)?

Kontseilua honakoek eratzen dute:

- 12 lagunek, 6 neska eta 6 mutilek; gaitasun kritikoa, sormena, enpatia, hausnartzeko, berdinen artean eztabaidatzeko, proposamenak egiteko... gaitasuna dute.
- DBHn eskolaturik daudenak.
- Hiru lurralde historikoetakoak: 2 Arabakoak, 6 Bizkaikoak eta 4 Gipuzkoakoak.
- Arartekok, haietan dauden partaidetza dinamika eta proiektuan laguntzeko prest daudela kontuan hartuta, hautatutako ikastetxe batzuek proposatuta izendatuta.

### Ateratako indar-ideia nagusiak

Indar-ideiak honako gaien inguruan erakusteko antolatu dira:

- 1. GUNEA: Egun **adingabeek nola parte hartzen duten** eta IKTek partaidetzan duten esku-hartzeari buruz daukaten pertzepzioaz pentsatzen (zer da partaidetza, parte har dezakegun tokiak, etorkizun hurbileko partaidetzari buruzko nahiak, erronkak).
- 2. GUNEA: **Etorkizuneko Internetez** pentsatzen (nola imajinatzen dugu etorkizuneko Internet, nola parte hartu nahi genuke eremu sozial eta publikoan IKTen bidez).

## Egun adin gabeek nola parte hartzen duten eta IKTek partaidetzan duten esku-hartzeari buruz daukaten pertzepzioaz pentsatzen

### Zer da partaidetza?

Partaidetza zer den definitzerakoan, eta buru-maparen teknika baliatuz, adingabe taldeak argi zeukan. Parte hartzea honakoa da:

- Harremana.
- Komunikazioa.
- Bizikidetasuna.
- Besteengandik ikastea.
- Pertsona gisa errealizatzen laguntzen digu.
- Gure idealen alde borrokatzea eta besteena errespetatzea.
- Laguntza.
- Adiskidetasuna.
- Begirunea eta elkar ulertzea.
- Talde lana.
- Engaiamendua.
- Elkartasuna.
- Ikuspuntu eta gauzak ikusteko modu desberdinak.
- Isilik daudenei hitza emateko aukera.
- Entzutea eta entzunak izatea.
- Gizartea hobetzeko aukera.
- Ezagutza eta informazio gehiago kritikoagoak izan ahal izateko.
- Ekarpenak egin / Batu.
- Aukera berdintasuna.
- Gauzak aldatu ahal izatea.
- Eskubideak eta betebeharrak.

### Egun non parte hartzen dugu?

Aztertu nahi dugunean talde horretako adingabeek zein toki fisiko eta birtualetan aurkitzen duten euren parte hartzeko eskubidea erabiltzeko aukera, honakoak aipatzen dira:

- Arartekoan (kide diren Haur eta Nerabeentzako Kontseiluaren bidez).
- Interneten (non parte har dezakedan, nork parte hartzen duen, zertan, kausak... identifikatzen eta bat egiten laguntzen digu).
- Gizarte-sareetan.
- Blogetan.
- Bideojokoetan.
- Eskolan.
- Aisian eta kirolean.
- Auzoan, "tokiko"an.
- Erakunde eta elkarteetan.

### Eta partaidetzaz hitz eginda, zera nahi nuke...

Gazteek eurentzat partaidetza zer den eta zer esparrutan egin dezaketen argiago daukatela dirudenez gero, zer ga-bezia sentitzen duten jakin nahi izan genuen. Parte hartzeko

dituzten aukerak hobetzea euren esku balego, honakoak nahi lituzkete:

- Interneterako sarbide unibertsala egotea, pertsona guztiek mundu osoan sarean parte hartu ahal izateko.
- Besteen iritziekiko begirune handiagoa egotea.
- Udalari, gobernari... hobetu nahi lituzketen gauzei buruzko iradokizunak eta eskaerak egin ahal izatea.
- Internet bidezko partaidetza bide berriak egotea.
- Sarean parte hartzeko tokiei buruzko jardunbide egokiak parteka litezela. Horretarako toki ona dira gizarte-sareak, nolabait halako zerbait egiten uzten baitizute.
- Partaidetzaren bidez boterea duten pertsonak gai garrantzitsuak, hala nola ingurumena, hobetzeko kontzientziatu ahal izatea.

Eta gauza horiek guztiak posible izateko, ahazterik ez daukagun zenbait erronka daude...

Gure gazte adituei galdetu genien zein diren helarazi dizkiguten nahi horiek bete ahal izateko aurre egin beharreko erronketako batzuk. Berriz ere, oso argi daukate. IKTak erabiliz parte hartzeko aukerak hobetu nahi baditugu...

- Pertsona guztiek IKTak eskuratu ahal izatea lortu behar da.
- Baina kontuz, IKTek gizarte desberdintasun handiagoa eragin dezakete.
- Argia dirudi: taldean lan egin behar da.
- IKTek urrun daudenak hurbil ditzakete, baina hurbil dauden pertsonengandik urrunduko gaitzakete.
- Interneten eta gizarte-sareen erabilera segurua egin behar dugu. Googlek dena daki eta Facebook guztiarekin erlazionatzen da, baina arriskuak ere badira.
- Munduaren arazok kezkatu arren, gure partaidetzak hurbil gertatzen denari begiratu behar dio, "tokiko" partaidetzari.

## Etokizuneko Internetez pentsatzen

Etokizuneko Interneten pentsatzen dudanean, nolakoa uste dut izango dela edo nolakoa gustatuko litzaidake izatea?

Gure aholkularitza batzordea egunero informazioaren eta komunikazioaren teknologiek batera bizi diren sortzetiko digital bik osatzen dute. Euren etxeetan, eskolan, aisialdian...

Etokizuneko Internet nola imajinatzen duten edo nolakoa izatea nahi luketen galdetu diegu. Beharbada, erantzunak, sektoreko edozein adituren mailan, ez dabilta oso oker...

- Erabilerrazagoa.
- Adimentsuagoa.
- Pertsona guztiengana iritsiko da.
- Interneten baino bizi ez bazara, gainerakoarekiko loturarik gabe, ahul bihurtuko zara.
- Gerrak egiteko ere erabiliko da Internet, baina muniziorik gabeak, ez fisikoak. Informazio gerrak.
- Teknologiarekiko mendetasun arrisku handiagoa egongo da.
- Denetarako beharko da Internet. Analogikora itzultzea zaila izango da.

- Internet garestiagoa izango da. Enpresek (operadoreek) gure premia baliatuko dute prezioa igotzeko.
- Teknologiarik aurreratuena gizarte mailaren seinalea izango da. Ez du mundu guztiak "azkena" lortu ahal.
- Internet toki guztietan egongo da.
- Zein ere den gailua → PCan, mugikorrean... ez ezik, airean, toki guztietan egongo da.
- Gure artean informatuago eta konektatuago egongo gara.
- Internetek gizarte desberdintasunak handituko ditu.
- Mundu guztia egongo da gizarte-sareetan, baita adinekoak ere.
- Gauzarik arruntenetarako telemedikuntza zerbitzu aurreratuak egongo dira, baina gaixotasunean giza hurbiltasuna eta epeltasuna beharko dira, hala ere.
- Enpresak eta administrazioak herritarrengandik gertuago egotea lortuko da (interesei, eskaera pertsonalei, kontsulterei begira).
- Interneten enpresa gehiago egongo da.
- Lan eredu berriak, eraginkorrak, robotizatuak agertuko dira.
- Dena digitala izan arren, parkera joateko, banku batean egunkaria irakurtzeko, aurrez aurre hitz egiteko premia egongo da.
- Pribatutasuna eta segurtasuna oso zaindu beharko dira.
- Hezkuntza ere digitalagoa izango da.
- IKTak berdeagoak izango dira eta gehiago errespetatuko dute ingurumena.

Eta etorkizun horretan, nola parte hartu nahi zenuke gizartearen politikan...?

Etokizunerako nahi edo imajinatzen duten Interneta deskribatu ondoren, jakin nahi izan genuen zerbitzu berri horiek, aukera teknika berri horiek, nola eragingo dieten, haien ustez, haiek eremu sozial eta publikoan parte hartzeko moduari.

Nahiak hausnarketaren eta haien irudimenak aske uztearen emaitza dira, baina helduon munduan haietako bakoitza gomendiorik jakintsuenak balira bezala hartu behar genituzke.

Haien ekarpenen arabera...

- Hirugarren sektorearen bidez gizartearen gehiago aparte hartu nahi lukete, borrokatzeko eta gizarte desberdintasunak erazteko.
- Gizarte-sareetan parte hartu nahi lukete auzoa/hiria hobetzeko eta guztien iritzia eta proposamenak biltzeko.
- Berdintasunerako politikak hobetzeko parte hartuko dugu. "Munduak guztiontzako ETXEA izan behar du, bertan gustura eta berdintasunean egoteko".
- IKTei esker ingurumena zaintzeko eraginkortasun handiagoz parte hartu ahal dugu.
- Gizarte-sareak pertsonen laguntzeko eta elkartasuna sustatzeko bidea izango dira.
- IKTei eta gizarte-sareei esker gai garrantzitsuak hala nola medikuntza (osasuna) orain haiek eskuraterik ez duten tokietara eroan ahal dugu.
- IKTei esker mundu osoan hezkuntza eskuratzeko aukera berdintasuna egotea lortzeko parte hartu ahal dugu.
- IKTen bidez, elkarte mugimendutik, gure iritzia politikariei helarazi ahal izatea lortu beharko dugu, gizarte desberdintasunen aurrean joka dezaten.

- Hedatzeko eta komunikatzeko forma berriak beharko dira, herritarrek gehiago engaiatzea lortzeko. Adibidez: ingurumenaren zaintza arte eta kultura ekintzen bidez (kale antzerkia, etab.) sustatzea.
- Internet bidezko partaidetzari esker aniztasuna sustatu, kulturak partekatu, begirunea zabaltu ahalgo dugu.

### 19.3. Euskadiko e-inklusioari eta IKTen bidezko gizarte eremuko eta eremu publikoko herritarren partaidetzari buruzko txosten bereziaren esparruan antolatutako lan-mahaietan (eztabaida taldeak) jasotako indar-ideiak

#### Testuingurua



2011ko urrian eta azaroan, Arartekoaren Gasteizko egoitzan, 4 lan-mahai antolatu ziren zenbait eremutan (publikoan, pribatuan, hirugarren sektorean) diharduten adituekin.

Talde bakoitzean ezarri zen erronka Euskadiko e-inklusioa eta e-partaidetza ikuspegi hiru-koitzetik aztertzea zen:

- Euskadiko eten digitalen artearen egoera (abiapuntua zein den, lantalde horietan ordez-

katutako erakundeek eta, noski, euskal herritarrek nola ikusten dituzten).

- Nola gaindi ditzakegu? Eta zer egin dezakegu gure erakunde/enpresa/organismo/elkartetik horretarako?
- Zein behar lukete etorkizuneko lan-ildoek?

Lan-mahai horiek CTIC Fundazioko langileek dinamizatu zituzten. Langile haiek sormen teknikei buruzko adituak ziren.

#### Parte-hartzaileak

Elkarrizketan parte hartu zuten 35 parte-hartzaileak txosten berezi honetan aztertu beharreko gaien zuten ezagutza eta esperientziaren arabera hautatu ziren, sektore publikoa, pribatua eta hirugarren sektorea ordezkatuta egotea bilatuta.

<b>Ainara Pérez Rodríguez</b>	Hezitzaile/koordinatzailea Saregune-Sartu Álava elkartearen
<b>Aitor González Angulo</b>	ONCEko Euskadiko Lurralde Kontseiluaren presidentea
<b>Alberto Bokos</b>	Innobasque-Berrikuntzaren Euskal Agentzian Sustapen eta Komunikazio Atalaren zuzendari nagusia
<b>Alberto Ortiz de Zárate</b>	Eusko Jaurlaritzako Herritarren Arretarako Zuzendaria
<b>Alfredo Bezos</b>	FEVASeko Multimediako arduraduna. Adimen Ezintasuna duten Pertsonen Aldeko Elkartearen Euskal Federazioa
<b>Ana Vitorica</b>	Euskadi Plana Informazioaren Gizartearen PESI 2010 izenekoaren Idazkaritza Teknikoaren arduraduna. Eusko Jaurlaritza

<b>Arantza González</b>	Gizarte langilea Kantabriako Gobernuan. Gizarte Hezitzaileen Euskadiko Elkargoko CEESPV-GHEE presidenteordea
<b>Cristina Ojanguren</b>	Agintzari Gizarte Ekimeneko S. Koop. izenekoan I+G+Bko teknikaria
<b>David Montero de la Torre</b>	Zuzendaria Arabako Enpresen eta Berrikuntzaren Zentroan
<b>Dorleta Goiburu</b>	Gizarte Ekintzako arduraduna EUDEL-en
<b>Elena Ayarza</b>	Arartekoaren Haur eta Nerabeentzako Kontseilua
<b>Gari Araolaza</b>	CTO eta CodeSyntax-en sortzailea
<b>Gerardo Zamora</b>	INGEMAKo zuzendariordea
<b>Gorka Moreno Márquez</b>	Gizarte Laneko Unibertsitate Eskolako irakaslea Euskal Herriko Unibertsitatean eta ikertzailea IKUSPEGI - Imigrazioaren Euskal Behatokia
<b>Javier Cueva</b>	Kirol Egokituaren Bizkaiko Federazioko presidentea eta FEKOOReko teknikaria
<b>José Antonio del Moral</b>	Inbertsorea Chichisimo.com-en. Bazkide sortzailea Sequoia Internet S.L.-n. CEO Mapalia Networks-en
<b>José M.ª Chaves Rivera</b>	Bizkaiko Foru Aldundiko Gizarte Ekintza Saila
<b>José Miguel Azkoitia</b>	TECNALIA Reserch & Innovation delakoan Negozioaren Garapena-Osasun atalaren zuzendaria
<b>Josu Garro</b>	A. Urdaneta ikastetxe publikoko irakaslea. Irakaslea eta gazteen tutorea (16 eta 17 urte), plastika eta ikus-entzunezko, informatika, marrazketa tekniko, lagundutako diseinu eta informazioaren eta komunikazioaren teknologien irakaslea
<b>Juan Carlos Melero</b>	Gizarte Proiektuen zuzendaria EDEX fundazioan. Idazkari-diruzaina Zerbikas fundazioan. EDEXeko Espe-txean Droga-mendekotasunaren Taldeko koordinatzailea
<b>Koldo Tellitu</b>	Ikastolen federazioko presidentea
<b>Leticia Baceiredo Monja</b>	KZgunea kudeaketa zentroa
<b>Lorenzo Martínez Paz</b>	IRSE Arabako Birgizarteratze Institutua elkarte. Proiektuen arduraduna eta zuzendaritza taldeko kidea
<b>Maite Goñi</b>	Irakaslea eta IKTen aholkulari pedagogikoa Mondragon Unibertsitatean. Irakaslea Jakintza ikastolan
<b>María Gutiérrez Manrique</b>	Prestakuntza teknikaria EDE fundazioan. Bolunta prestakuntza foroko arduraduna
<b>María José Cano</b>	FEDEFES-Euskadiko Eri Psikiko eta Senide Elkartearen Federakuntzako kudeatzailea
<b>Marisa Lezkano Moya</b>	Lan-Ekintza Bilbo. Behatoki Estrategikoaren arduraduna
<b>Mentxu Ramilo Araujo</b>	Proyelía Innova S. L. ko I+G arloa. Prestatzailea barne-tegi teknologikoetan
<b>Miren Osane Lizarralde</b>	Aholkularia eta irakasle Mondragon Unibertsitatean
<b>Norma Andrade</b>	Elkartu elkarteko irisgarritasun teknikaria
<b>Oskar Longo Imatz</b>	Gazteriaren Euskal Behatokia
<b>Raquel Raposo</b>	Programa eta Prestakuntza Arloko arduraduna EMAKUNDEN
<b>Roberto Vidal</b>	Gizarte Hezitzaileen Euskadiko Elkargoko CEESPV-GHEE presidentea
<b>Rodrigo Matamoros</b>	Hiesaren aurkako batzordea-Araba
<b>Xavier Mendizabal</b>	BIHE elkarte ko koordinatzailea (bigarren hezkuntzako institutu-tako zuzendarien elkarte)

## Ateratako indar-ideia nagusiak

Indar-ideiak honako gaien inguruan erakusteko antolatu dira:

- **1. GUNEA:** Euskadin e-inklusioak egun duen egoeraz dugun ikuspegia.
- **2. GUNEA:** Herritarrek IKTak hobeto eskuratzeko estrategiak.
- **3. GUNEA:** Euskadiko e-partaidetzaz dugun ikuspegia.
- **4. GUNEA:** Euskadin herritarren partaidetza sustatzeko estrategiak.

## E-inklusioaren egungo egoera

Gai hau buru-mapen teknikaren bidez aztertu zen eta, beraz, partaideei ez zitzaien agindu nola antolatu behar zuten euren analisia ez zer alderdi lehenetsi behar zuten. Banakako lan aske horretan parte-hartzaile bakoitzak Euskadin e-inklusioak egun duen egoerari buruz duen ikuspegia azaldu zien lan-mahaiei.

Hala, parte-hartzaile batzuek, euren analisian, batez ere eten digitalak gehien pairatzen dituzten taldeei erreparatu zieten bitartean, beste batzuek zioei edo eten digitalak murrizteko balizko erronkei erreparatu zieten.


Eskuratutako informazioa (35 buru-mapa) prozesatzerakoan, mapa bakoitzean gai edo gune erabilienean inguruan adierazitako ideiak bildu ziren:

- Artearen egungo egoera.
- E-inklusioaren oztopoak eta azeleragailuak.
- Nori eragiten diote eten digitalek (taldeak)?
- Zer arrisku dakar eten digitalak egoteak?
- Nola hobe dezakegu egungo egoera?
- Zein dira lehentasunak eta premiak?
- Eta zein dira egungo egoerak ematen dizkigun aukerak?
- Zer eragilek parte hartzen dute hobekuntza horretan?
- Zergatik kezkatzen gaitu?
- Gainesklusioko eta gaininklusioko balizko egoera?

Jarraian lehen gune horretako talde-lanean ateratako ideien baturatik ateratako 4 buru-mapak jarri dira:

(124. irudia)

## 1. taldearen buru-mapa



(125. irudia)

## 2. taldearen buru-mapa



### Eragile erabakigarriak (oztopoak edo azeleragailuak)

- Denbora
- Jarrera
- Familia ingurua
- Landa - hiri ingurunea
- Gizarte-etenak
- Kostua
- Erabilgarritasuna
- Eskuragarritasuna
- Egoera ekonomikoa
- Lan egoera
- Adina
- Prestakuntza
- Kultura alderdiak
- Balioak
- Edukiak eta zerbitzuak
- IKTen balioak (zentzua)
- Lan ingurunea (lanbide mota)

### Taldeak

- Adinekoak
- Dibertsitate funtzionala duten pertsonak
- Etorkinak
- Emakumeak
- Gizarte gutxiengoak
- Gizarte-arriskuan dauden gazteak
- Langabetuak
- Gizarte-bazterketa egoeran dauden pertsonak
- Besterik gabe IKTei erabilgarritasunik ikusten ez dieten pertsonak



E-inklusioa Euskadin



### Eragileak

- Lankidetzeta inguruneak sortu behar dira
- Gizarte ekimena sustatu behar dugu
- Gizarte-sareei buruz asko hitz egiten denean, eragileen arteko SAREA sortu behar dugu
- Horizontaltasuna
- Eraikuntza kolektiboa (*coworking*)
- Adimen kolektiboa
- Hausnarketa: Uharteak ala uhartediak gara?




### Lehentasunak, premiak

- "Zertarako" azaldu
- IKTen barruko ekintza eta protagonismoa bultzatu
- Erraz eta eskuragarri bihurtu
- IKT kultura eratu
- Guztientzako eskuragarritasuna
- Gaikuntza
- Jardunbide egokiak bistaratu
- Ahalbidetzeko inguruneak sortu

V

(126. irudia)

### 3. taldearen buru-mapa



(127. irudia)

### 4. taldearen buru-mapa



#### Eragileak

- Berdintasunaren bermatzaile –  
Administrazioa
- Herritarrak
- Enpresak
- Ikerkuntza erakundeak (I+G+B)
- Hirugarren sektorea
- Familia
- Eskola
- Hezkuntza komunitatea



#### Lankidetzatza?

- Enpresek herritarrengandik urrunegi lan egiten dute
- Diseinu unibertsala, ezgaitasuna duten pertsonentzako egokitzapen teknologikoa. Benetan al da erabiltzailea prozesuaren erdigunea?
- Enpresen, administrazioen, ikerkuntza zentroen... arteko harremanak gehiago sustatu behar lirateke



#### Arriskuak

- E-inklusioa, xede ala bitarteko?
- Harremanen gizagabetzea
- Informazio gehiegiren eskuragarritasuna: infoesklusioa
- Desberdintasunak errepikatzea
- Segurtasuna / Pribatutasuna
- Badiren gizarte-etenak handitzea
- Gainkomunikazioa
- Elkartegintzaren gainbehera bultzatzen ari da?



## Herritarrek IKTak hobeto eskuratzeko estrategiak

Lan-mahaiek Euskadiko e-inklusioari buruzko azterketari heldutakoan, herritarrek IKTak hobeto eskuratzeko balizko estrategiei buruz hitz egitera gonbidatu genituen parte-hartzaileak.

Horretarako, dinamizazio teknika bi erabili ziren:

- **Aukeren borobila**<sup>77</sup>: teknika honek lotura zentzugabeak, egin ohi ez ditugunak egiten laguntzen digu, “ezaugarriak” deitutako zenbait hitz ausaz “lotuz” lortuta.
- **Edward de Bonren kapeluak**: parte-hartzaileak lan-taldeetan antolatzen dira -4 lagun gehienez- eta talde bakoitzari kapelu bat ematen zaio. Kapeluaren koloreak (eta, beraz, haren ezaugarriek) kideek “aukeren borobila”ren teknikaren bidez ateratako ideiak aztertzerakoan hartu beharko duten ikuspegia edo rola definituko du.

Jarraian lan-mahaietan, herritarrek IKTak hobeto eskuratzeko estrategia gisa, ateratako ondorio nagusiak zehaztu dira:

- **Elkarlaneko IKT prozesu eta estrategia** iraunkorrak, ja-sangarriak, ez aldian aldikoak, ikasitakoan eta bizi izan-dakoan oinarrituak behar dira.
- Arrazionalizatu eta bikoiztasunak saihestu behar ditugu.
- Kostu handi edo gehigarriak ez dakarten eta mundu guz-tiak eskura ditzakeen tresnen erabilera bultzatu.
- Erakundeen lidergoa indartu behar dela esan da, herritar guztiek **IKTak eskuratzeko bermatzeko**.
  - Etxeko ekipamendu minimoa (hura erosteko laguntzak), sarbide unibertsala izanda.
  - Internet eta IKTetarako doako sarbide askea. Konek-tibitatea eskubide.
  - Software aske/irekiaren erabilera sustatu.
- **Aurrekontu egonkortasuna** bermatu, abian dauden ekime-nen eta jardunbide egokien iraunkortasuna ahalbidetzeko.
- **IKT bideak** sustatu herri administrazioak-herritarren-erpresak **erlazioak** sustatzeko.
- **Sareko lanerako** prestakuntza, erakundeentzat eta herritarrentzat.
- IKTen bidezko lankidetzak sareak sortu gizarte-etenak erauzten lan egiteko.
- Partekatu aberasteko eta atxikitzeko. **Adimen kolektiboa**. Lotura bultzatu: elkarrekin, gizarte taldeak. Sinergiak sortu.
- IKTek **bizi kalitatean** duten eragina areagotzen aurrera egiten jarraitu:
  - IKTen bidezko ohitura osasuntsuak bultzatu.
  - Zahartze aktiboa sustatu
  - Osasun sektoreko profesionalen sareak bultzatu:
    - Sektoreko profesionalentzako osasun tratamenduei buruzko datuen tokiko sarea.
    - E-health. Gaixoentzako aplikazioak (adibidez, kronikoentzat edo gaixotasun luzeak pairatzen dituztenentzat), IKTak gaixoen arteko lankidetzarako eta esperientzia trukerako erabiliz.

<sup>77</sup> Michalko, Michael, Thinkertoys (2006): A handbook of creative-thinking techniques, Second Edition, Ten Speed Press, Toronto.

- Aisia eta kiroleko gizarte-sareak, gure aisialdiari lotuak, partaidetzara eta IKTak erabiltzera bultzatzen dutenak.

- Aplikazioen **estandarizatzera**. Haien **erabilgarritasuna** hobetu haien bidez parte hartu ahal izateko:
  - Maila guztietako bateragarritasuna teknologia beraren eredu desberdinen artean, baita hizkuntzan ere.
  - Homogeneotasuna gauza komunetan, erabiltzaileari gauzak errazteko.
- Alfer-denborak **parte hartzeko** baliatu: autobus geralekuak, tren geltokiak, etab., IKTak herritarrei hurbiltzeko.
- IKTak **berrikuntzatik** landu, aukera iturri gisa: lanekoak, gizartekoak, informazioa eskuratzekoak.
- Partaidetzak estrategia eta prozesu aurreratuak, desberdinak, berritzaileak guztientzakoak bultzatzeko IKT.
- Partaidetzak foro egonkorak sortu.
- Proposamenen bilaketarako partaidetzak prozesu aurreratuak abiarazi, honakoak lortzeko:
  - Partaidetzak zergatik eta zertarako adostu.
  - E-mailen eraginkortasuna.

## Euskadiko e-partaidetzak

Lan-mahaietan eztabaidatutako hirugarren gunea pentsatzeko eta partekatzeko kutxen teknikaren bidez landu zen. Teknika horri esker, kartoizko kutxa batean, gure ustez Euskadiko e-partaidetzak bultzatu edo oztopatzen dituzten eragileak eta sumatzen ditugun gizarte ondorioak eta haiek hobetzeko lehentasunak zerrendatu eta parteka ditzakegu. Taldeari hura azalduta, eta adostasunez iragazita, ideiak araztu egiten dira e-partaidetzari buruzko pentsatzeko kutxa bakarra eraiki arte. Bertan, honakoak biltzen dira:

- Pertzepzioak.
- Indarrak.
